

Argitalpen honek, giza eskubideen urriak hartzen dituen dimentsioak Kolonbia, Guatemala, El Salvador, Euskal Herria eta espainiar Estatuko 28 emakumeen istorioetan batzen ditu. Indarkeria matxista desberdinak bizi eta aurre egin dieten emakumeek, euren lekakotzaren bitartez, lehen pertsonen bizipenak kontatuz, justizia bilatu eta ez errepikatzeko lagundu nahi dute.

Indarkeria matxista forma guztiak emakumeen giza eskubideen urriak eta gor mailako arazo politikoa osatzen dute. Indarkeria menderatze patriarkalaren estrategia historikoa den heinean, bere deuseztatzearen berriraketa mundu osoko agenda feministen helburu bateratua da.

 MUGARIK GABE

MUGARIK GABE

Asfalto arteko loreak



Asfalto arteko loreak


Indarkeria matxisten kausak eta eraginak biziraun duten emakume biktimen bizitzetan

Argitaratzailea:



www.mugarikgabe.org

 Mugarik Gabe

 @mugarikgabe

ARABA

Mugarik Gabe
"Itziar" Elkarteen etxea Zalburu Plaza z/g
01003 Vitoria-Gasteiz
945.277.385 | araba@mugarikgabe.org

BIZKAIA

Mugarik Gabe
Vicente Garamendi Taldea 5, lokala - 48006 Bilbo
94.415.43.07 | bilbao@mugarikgabe.org

GIPUZKOA

Mugarik Gabe
Katalina Elizegi 46, behe 3. atea - 20009 Donostia
943.445.977 | gipuzkoa@mugarikgabe.org

Laguntzaileak:



Babesleak:



2017ko maiatza

ISBN: 978-84-697-8021-3

Lege-gordailua: BI-1903-2017

Diseinua: Patirke Belaza

Maketazioa: Binari Comunicación



Aitortu-EzKomertziala-LanEratorririkGabe 4.0 Internazionala (CC BY-NC-ND 4.0)

Dokumentu hau Creative Commons lizentziarekin dago. Edukia libreki **zabaltzea**, kopiatzea eta birbanatzea baimentzen da edozein bitarteko edo formatutan, beti ere, egiletasuna aitortzen bada. Ezin da erabili xede komertzialarekin, nahastu edo eraldatu egiten bada edo materiala oinarri hartuta sortu egiten bada, ezin da eraldatutako materialik hedatu, ezin da lizentziak baimentzen duena legalki burutzea mugatzen duen neurri teknologikorik edo legezko akaberarik erabili.

Lizentzia osatua: https://creativecommons.org/licenses/by-nc-nd/4.0/deed.es_ES

Asfalto arteko loreak

*Indarkeria matxisten kausak eta eraginak
biziraun duten emakume biktimen bizitzetan*

AURKIBIDEA

Sarrera. Mugarik Gabe	9
1. Kapitulua. Ikerketaren metodologia Gloria Guzman Orellana, Irantzu Mendia Azkue eta Mugarik Gabe	
1. Aurkezpena	15
2. Ikerketaren helburuak eta ikuspuntuak	16
2.1. Feminismoa	16
2.2. Giza eskubideak	16
2.3. Interseksionalitatea	17
3. Lan-ardatzak	18
3.1. Abortatzeko eskubidea: abortatzeagatik zigortzea indarkeria gisa	19
3.2. Indarkeriarik gabe bizitzeko eskubidea: indarkeria matxistak	20
3.3. Bizi-maila duina izateko eskubidea: indarkeria ekonomikoa	21
4. Bizitza-istorioen analisisien dimentsioak	22
4.1. Dimentsio fisiko eta psikosoziala	22
4.2. Dimentsio kulturala	23
4.3. Dimentsio politikoa eta legala	24
4.4. Dimentsio ekonomikoa	25
4.5. Dimentsio mediatikoa	26
5. Antolakunde parte-hartzaileak, dokumentatzaileak eta kasuak	26
5.1. Antolakunde parte-hartzaileak eta dokumentatzaileak hautatzeko irizpideak	26
5.2. Kasuak hautatzeko irizpideak	27
5.3. Herrialde, kasu eta antolakunde arduradunen taula-sintesia	27
6. Metodologia kualitatiboa: bizitza-istorioak eta ikerketaren faseak	30
6.1. Bizitza-istorioak: deskribapen laburra	30
6.2. Ikerketaren faseak	32
7. Erabilitako tresnak	33
7.1. Elkarrizketatuen datu-fitxa	33
7.2. Elkarrizketaren gidoi orokorra	33
7.3. Kasu bakoitzaren sintesi dokumentua egiteko gida	35
7.4. Dimentsioen araberako txostenak egiteko gida	35
7.5. Dokumentatzaileen etika-kodea	36
7.6. Antolakunde parte hartzaileen eta elkarrizketatuen baimen informatua	37
8. Prozesuari buruzko hausnarketak	39



2. Kapitulua. Dimentsio fisiko eta psikosoziala	
Norma Vazquez	
1. Sarrera	45
2. Emakumeen zailtasunak bizitako indarkeria-istorioak onartu, izendatu eta dokumentatzeko	45
3. Indarkeriaren definizioen mugak biktimen bizipenak biltzeko	47
4. Indarkerien eragin eta ondorio fisiko, psikologiko eta sozialak	48
4.1 Testuingurua indarkeria denean	49
4.2 Estatua indarkeria denean	53
4.3 Pobrezia eta migratzea indarkeria direnean	55
4.4 Norberaren gorputzari buruz erabaki ezin denean	58
4.5 Indarkeria gorputzaren inbasioa denean	61
4.6 Arriskuak alboan lo egiten duenean	65
4.7 Alaben heriotzari bizirauten zaionean	70
5. Erakundeen “biktimizazio bikoitza”, beste indarkeria mota bat	72
6. Zenbait ondorio	74
7. Bibliografia erreferentziak	77
3. Kapitulua. Dimentsio politiko eta legala	
Barbara Tardón eta Maria Naredo	
1. Sarrera	81
2. Betekizun politiko eta legalak betetzearen inguruko diagnostikoa	82
2.1. Zeharkako betekizunak edo ikuspegi-betekizunak	82
2.1.1. Erantzunaren irismena eta testuinguruan sartzea	82
2.1.2. Estereotipo sexistak eraldatzea: indarkeriaren mamia	84
a) Kultura patriarkala eta zigorgabetasuna	85
b) Guraso erasotzaileen seme-alabek dituzten eskubideak babestea	87
c) Oztupoak sexu- eta ugaltze-eskubideetarako	90
2.1.3. Diskriminazio-debekua	92
2.1.4. Emakumeak eskubideen titular gisa aitortzea	94
2.2. Neurri konkretuak	96
2.2.1. Indarkeria hautemateari buruzko betekizun orokorrak	96
2.2.2. Arreta osoari buruzko betekizun orokorrak	97
2.2.3. Polizia-arretaren eta babes efektiboaren betekizun orokorrak	98
2.2.4. Justiziarako sarbideari buruzko betekizun orokorrak	100
2.2.5. Ordain-eskubideari buruzko betekizun orokorrak	101
2.2.6. Tortura prebenitzearekin eta erantzutearekin lotutako betekizunak	102
2.2.7. Eskubide Sexual eta Erreproduktiboekin lotutako betebeharrak	104
3. Ondorioak	105
4. Eraginak, erresistentziak eta praktika onak	107
5. Gomendioak eta ideiak eragin instituzionala duen lanerako	109
6. Bibliografia	110



4. Kapituluua. Dimentsio kulturala

Rita Laura Segato

1. Sarrera	115
2. Genero-harremanen alderdi unibertsala eta partikularra	116
3. Komunitatea, kolonialtasuna eta trantsizioak	119
4. Erakundeen ezinbesteko traizioa eta emakumeen kexari entzungor egitea: kontratua eta estatusa genealogia-harreman gisa - Estatuaren ADN patriarkala	122
5. Abortatzeagatik kriminalizatzea, estatu-bortzaketa gisa	128
6. Lan-indarkeria, genero-indarkeria gisa: etxeko lanen paradigma gaindiezina – kontratua eta estatusa, beste behin	129
7. Patriarkatua, potentzia eta frustrazio agindua	131
8. Indarkeria intimoa eta gerra-indarkeria: ezberdintasunak eta berrelikadura	134
9. Erasotzaileen munduaz eta mentalitateaz gehiago jakiteko eta hobeto ulertzeko beharra eta garrantzia	139
10. Interseksionalitateak	140
11. Politizazioa, konponbide eta sendabide gisa	141
12. Bibliografia	144

5. Kapituluua. Dimentsio ekonomikoa

Yolanda Jubeto Ruiz (koord.), Miriam Alonso de Leciñana Mediavilla (Euskal Herria), Quimy de León (Guatemala), Marta Karina Fuentes Kemp (Guatemala)

1. Sarrera	149
2. Diagnostikoa bizitza-istorioetatik abiatuta	150
2.1. Indarkeria ekonomikoa	150
2.2. Lan-indarkeria	154
2.3. Ondare-indarkeria	162
2.4. Norberaren lurraldearen kontrako indarkeria, indarkeria desarrollista	163
2.5. Erakunde-indarkeria	167
3. Eraginak eta erresistentziak indarkeria horien aurrean	172
3.1. Eragin nagusiak	172
3.2. Erresistentziak	175
4. Gomendioak emakumeen eskubide ekonomikoak eraginkorki ezartzeko	177
5. Bibliografia	180



6. Kapituluua. Dimentsio mediatikoa

June Fernández

1. Sarrera	183
2. Kasuen informazio-tratamenduari buruzko diagnostikoa	184
2.1. Feminizidioa eta indarkeria matxista bikotearen testuinguruan	184
2.2. Sexu-indarkeria gatazka armatuko testuinguruetan	193
2.2.1. Kolonbia	193
2.2.2. Guatemala	195
2.2.3. Euskal Herria	197
2.3. Haurren sexu-abusua	199
2.4. Sexu-generoagatiko edo -orientazioagatiko jazarpena	200
2.5. Nahitaezko amatasuna eta abortu-eskubidea	202
2.5.1. “17ak” eta abortu terapeutikoa defendatzearen mugak	202
2.5.2. Kolonbia: sexu-indarkeria eta abortua gatazka armatuan	205
2.5.3. Nahitaezko amatasuna haurren sexu-abusuan	207
2.5.4. Estatu Espainola: segurtasun juridikorik eza despenalizatzeko motore gisa	208
2.6. Bizitzeko baldintza duinak izateko eskubidea	210
2.6.1. Etxeko langileak	210
2.6.2. Laguntza sozialak	213
2.6.3. Ondare-eskubideak eta lurraldearen gaineko eskubideak	216
3. Tratamendu mediatikoak emakumeetan duen inpaktua	219
3.1. Komunikabideak justizia bilatzeko laguntzaile	219
3.2. Komunikabideak birbiktimizazio-eragile	221
3.3. Komunikazioa emakumeen ordain gisa	223
4. Gomendioak	226
4.1. Genero-ikuspegiko kazetaritza: agenda	226
4.2. Kazetariekin lan egiteko ekimenak eta proposamenak	227
5. Bibliografia	229

Eranskina

Bildutako 28 bititza-istorioen iruzkinak	231
--	-----



SARRERA

Ezinbestean, parte hartu duten 28 emakumeei eskerrak emanez hasi behar dugu argitalpen hau: Justizia bila, 28 emakume ausart horiek beren denbora eta lekukotzak eskaini dituzte, eta beren istorioaren zati bat partekatu dute, haiek bizi izandakoa —edo oraindik bizitzen ari direna— errepikatu ez dadin. Haietako askoren ustez, entzuna izatea ariketa sendagarria eta indargarria da berez.

Lekukotzak irakurtzea indarkeria matxisten esanahia eta emakumeen bizitzan duten eragin lazgarria gertutik ikustea da; indarkeria hori mota askotakoa da, eta emakumeen gorputzean eragiten du. Era berean, lekukotzak irakurtzea emakume borrokalari eta ausart hauek abiarazitako estrategiak ezagutzea da. Askotan, beste emakume edo erakunde feministekin egin dute topo, eta haien bizipen eta prozesuetan lagundu dituzte. Bestalde, haien lekukotzen bidez, ikusiko dugu emakume horiek subjektu aktibo bihurtu direla bizi izandako istorioari aurre egiteko, eta baita ahotsa goratuz sistema heteropatriarkalean arrakalak irekitzeko ere. Izan ere, heteropatriarkatua bortitza izan da hasiera-hasieratik, eta adierazpide zehatzak hartzen ditu kapitalismoarekin, erlijio-fundamentalismoarekin edota arrazakeriarekin elkartzen denean.

Honakoa galdetzen diogu geure buruari: Non geratzen dira emakumeen ahotsak gure memoria sozial kolektiboan? Non biltzen dira lekukotza horiek, ulertzeko, batetik, indarkeria matxistak, eta bestetik, etorkizunean nola kontatuko diren? Tamalez, jakin badakigu historiak ez dituela emakumeen kontakizunak jasoko. Gure gizartetan, oraindik ere, emakumeen ahotsak zalantzan jartzen dira —eta areago, biktimenak—; zilegitasuna kentzen zaie emakumeek erasotzaile bati aurre egiten diotenean, eta areago Estatuari aurre egiten diotenean. Arriskua dago emakume hauek birbiktimizatuta gogoratzeko; gizonen zein erakundeen babespeko biktimen rolean, ahots propiorik gabe oroitzeko; bizitzeko edota bizitzen jarraitu ahal izateko duten erresilientzia gaitasun harrigarria, eta indarkeriei aurre egiteko dituzten estrategiak ahazteko. Halaber, badago arriskua ere emakume hauek gogoratzeko zoroen, sistemara egokitu gabeko gizonen eta sistemaren desoreken biktimak izango balira bezala; bazterretako kontuak omen dira horiek, “beste” emakumeei gertatzen zaizkien gauzak. Bestalde, arriskua dago emakume haietako asko ere ahazteko, zenbait indarkeria matxista ez direlako ikusten eta ez delako haietaz hitz egiten.

Argitalpen honen bidez, bazterretan geratu nahi ez duten emakumeen ahotsen memoria menderakaitza sortzen lagundu nahi dugu.

Argitalpen honetan, emakumeen lekukotzak kode baten bidez adierazi dira; izan ere, haietako askok anonimotasunari eutsi nahi izan diote oraindik ere beren bizitzak arriskuan zeudelako, estigma sozialagatik edota bestelako arrazoiengatik. Izenarekin agertzen diren hiru istorioek oihartzun handia izan zuten hedabideetan: azterketa honetako hiru feminizidioak dira. Eraildako bi neska gazteren eta haur baten amek bizi izandakoa kontatzen dute. Oso argi diote hilketa horietan erakundeek, Estatuak eta justiziak erantzukizun zuzena izan zutela, egin ezaz.

Posible al da suminik ez eragitea emakumeen gorputzak zeharkatzen dituzten indarkeria lazgarriak egunero entzuteak? Posible al da arazoari aurre egiteko eta agendetan lehenes-
teko prest dagoen jende kopuru handia ez egotea?



Enfrentamos las Violencias Machistas. Patriarkaturik Gabe denok Jabe kanpainaren barruan kokatuta dago ikerketa hau. Mugarik Gabek 2010ean abiatu zuen kanpaina, eta urte horretan Bilbon egindako *Emakumeen Eskubideen Nazioarteko Auzitegia. Viena+20, Euskalerrria, 2013n* ageri diren ekintza-ildoak jarraitzen ditu. Haren bidez, emakumeen eskubideen defentsan aurrerapausoak eman nahi ditugu indarkeria matxistei aurre egiteko, haien aurkako borrokak nazioarteko ikuspegi integral baten bidez lotuz.

Ikerketa prozesuak bi urte eta erdi iraun du, eta hiru une nagusi izan ditu. Lehenengoan eztabaida-guneak sortu genituen ikerketarako interesgarriak ziren gaiekin, eremu askotako emakumeen artean ikuspuntuak alderatzeko, eta indarkeriaren inguruko kontzeptuzko oinarri batzuk finkatzeko. Fase horren ostean, Kolonbia, El Salvador, Guatemala, Euskal Herria eta Espainiako Estatuan indarkeria mota asko pairatu dituzten 28 emakumeen bizitza-istorioak jaso ziren. Azkenik, bost txosten espezializatu egin genituen 28 bizitza-istorioak —argitalpen honetan datozen testuak— oinarri hartuta.

Ikerketa honek hiru helburu ditu: emakumeen eskubideen urraketaaren egiturazko arrazoiak sakonago identifikatzea; ekiteko proposamenak egitea eta urraketari aurre egiteko neurriak sortzea; eta lantzea, ikerketaren emaitzetatik abiatuta, politikan eta erakundeetan eragiteko gaitasuna eta gizartearen askotariko alderdietan ezartzeko pedagogia soziala.

Azterketa kualitatiboa da, prozesu osoa gidatzeko ikuspuntu nagusi izan baititu feminismoa, giza eskubideen markoa eta interseksionalitatea. Azterketa honetan protagonista dira emakumeen lekukotzak, lehen pertsonan kontatutako egitateak eta bizipenak; istorio horiek mundu-mailako eskubide urraketen errealitatea kontatzen dute.

Prozesu hau ez litzateke gaur egun dena izango Hegoa-ren parte hartzerik gabe, metodologiaren diseinuarekin eta hasierarekin lagundu baitzigun. Diseinatutako metodologia-dokumentuarekin hasten da argitalpen hau.

Halaber, ezinbestekoa izan da 28 bizitza-istorioak topatzen eta dokumentatzen lanean aritu diren antolakunde guztien konpromisoa. El Salvadorren, Asociación de Mujeres por la Dignidad y la Vida, Las Dignas eta Colectiva Feminista tokiko garapenerako. Guatemalan Unión Nacional de Mujeres de Guatemala (UNAMG) eta Equipo de Comunicación y Análisis Colibrí Zurdo. Kolonbian Corporación para la Vida Mujeres que Crean eta Ruta Pacífica de Mujeres. Euskal Herrian Asociación Bizirik, Bilgune Feminista eta JaikiHadi, Lunes Lilas, Observatorio de Multinacionales en América Latina (OMAL), Centro Asesor de la Mujer Argitan eta Plataforma Aborto Iruña. Espainiako Estatuan erakunde-indarkeriaren aurkako Grupo de apoyo “Prava”, Grupo Valencia, Womens Link Worldwide eta Sindicato Andaluz de Trabajadores (SAT – Jaén).

Aditu guztiek beren ezagutza eta lana eskaini dituzte, 28 emakumeen istorioetan oinarrituta. Ondorioz, argitalpen honetan dauden bost txosten espezializatuak konpromisoz eta indarrez betetako lanaren fruitu dira. Adituen eta 28 emakumeen hausnarketak eta proposamenak hazi garrantzitsuak dira Mugarik Gaberen etorkizuneko lana ezartzeko, eta guretzat luxua da prozesu horiek haiekin partekatu ahal izatea.

Txosten hauetan iritzi eta proposamen asko daude, kontzeptuen inguruko eztabaida irekiak, analisi-kategoriak, erakundeen eta estatuaren rola inguruko harremana eta itxaropenak, eta abar. Horrek guztiak ekintzarako proposamenen inguruan eztabaidatzen eta hausnartzen jarraitzen laguntzen digu. Txostenak alderdi ezberdinetatik egitea pentsatu dugu,



indarkeria matxisten ondorioei heltzeko; hain zuzen, alderdi fisikoa eta psikosoziala, politikoa eta legala, kulturala, ekonomikoa eta mediatikoa aztertu ditugu. Horrela, alderdi horietako bakoitzean sakondu ahal izan dugu, nahiz eta bizipen guztiek dimentsio horien guztien —eta gehiagoren— eragina duten, eta hala ulertu behar dugu azterketa hau: ezin ditugu alderdiok besteetatik bereizi. Halaber, ekintza-eremua mugatzeko ahaleaginean, bizitako indarkerien arabera sailkatu ditugu istorioak (indarkeria matxistak, abortatzeagatik zigortzea, indarkeria ekonomikoa). Berriro ere, emakumeen lekukotzei esker, etengabeko indarkeria uler dezakegu, eta bizi-esperientzia bakar bat indarkeria-mota askok zeharkatzen dutela.

Ikerketa honen bidez, indarkeria matxisten inguruko hausnarketari eta ezagutzari ekarpena egin nahi diogu, eta indarkeria matxistak suntsitzeko lanean jarraitzeko proposamenak plazaratu. Hori hala gertatzen da, eragile sozial eta erakunde guztien konpromiso politiko argiagatik.

Ikerketa honek arrakala bat izan nahi du asfaltoan; bertan, emakumeen lekukotzek eta analisi feministek bere konplexutasunean salatzen dituzte indarkeria matxistak. Horrela, ikerketa hau memoria kolektiboko ariketa da, eta barne hartzen ditu bizirik iraun duten eta biktima izan diren emakume guztien ahotsak.

Mugarik Gabe







I.GO KAPITULUA

Ikerketaren
Metodologia

GLORIA GUZMÁN ORELLANA

Hezkuntza Zientzietan lizentziaduna El Salvadorko Unibertsitatearen bidez. Genero Ikasketetan aditua da, Fundació Universitat de Girona Innovació i Formació erakundearen bidez, eta Ikasketa Aurreratuen Diploma dauka Euskal Herriko Unibertsitatearen eskutik (UPV/EHU), Globalizazioa, Garapena eta Nazioarteko Lankidetzan. Hegoako kidea da, UPV/EHUren Nazioarteko Lankidetzeta eta Garapenari Buruzko Ikasketa Institutukoa. Ekintzaile feminista da, eta El Salvadorko Giza eskubideen urraketen biktima zibilen monumentuaren aldeko batzordearen sortzaileetarikoa; hain zuzen ere, batzorde horren bidez sustatu zen herrialdean dagoen memoria-gune nagusia. Besteak beste, honako lanak argitaratu ditu: *En tierra ocupada. Memoria y resistencia de las mujeres en el Sáhara Occidental (2015)* eta *Mujeres con memoria. Activistas del movimiento de derechos humanos en El Salvador (2013)*, Irantzu Mendia Azkuerekin elkarlanean.

IRANTZU MENDIA AZKUE

Garapenari buruzko Ikasketetan doktorea da, eta irakasle dihardu Euskal Herriko Unibertsitateko (UPV/EHU) Soziologia eta Gizarte Langintza Sailean. Hegoako kidea da, UPV/EHUren Nazioarteko Lankidetzeta eta Garapenari Buruzko Ikasketa Institutukoa. Halaber, Giza Seguratasuna, Tokiko Giza Garapena eta Nazioarteko Lankidetzari buruzko ikerketa taldeko kidea da, EAEko unibertsitate sistemakoa (IT1037-16). Interesgune ditu gatazka armatuen analisi feminista, bakearen eraikuntza, justizia trantsizionala eta memoria historikoa. Besteak beste, honako lanak argitaratu ditu: *La división sexual del trabajo por la paz. Género y rehabilitación posbélica en El Salvador y Bosnia-Herzegovina (2014)* eta *Justicia transicional: dilemas y crítica feminista (2012)*.

MUGARIK GABE

Mugarik Gabe EAEko Gobernu Kanpoko Erakunde bat da, Herri Onurakoa, 1987an jaioa. Gure egitekoa giza garapen osorako eskubidea bultzatzea da, garapen ekonomikoa ez ezik, emakumeen eta gizonen zein herrialdeen arteko bidezko garapena ere, baita etorkizuneko belaunaldientzako jasangarria dena. Gure ustez oso garrantzitsua da gure lanak proposamenak egiteko gaitasuna izan dezan. Ezin gara gaur egungo gizarte-ereduaren salaketa hutsa egitera mugatu. Munduan ezberdintasun eta bidegabekeria ondorioak sortzen ditu gure egungo bizi-ereduak, eta ahalegina egin behar dugu horren alternatiba gisa sor daitzekin ekimenak biltzeko, proposatzeko eta bultzatzeko. Bereziki garrantzitsua da guretzat mugimendu indigenarekin, feministarekin eta emakume- zein nekazari-mugimenduekin burututako ikaskuntza, laguntza eta parte hartzea.



1. AURKEZPENA

Kapitulu honek ikerketan erabilitako marko metodologikoa azaltzen du. Euskal Herrian, Espainiako Estatuan, El Salvadorren, Guatemalan eta Kolonbian bildutako 28 bitzta-istoriotatik (B-I) abiatzen da ikerketa, eta helburu du emakumeen giza eskubideen urraketen testuingurua, kasuak, eraginak eta erresistentziak aztertzea eta horietan sakontzea. Lortutako emaitzak oinarri hartuta, arazo honi aurre egiteko beste helburu bat izan da aholkuak ematea, erakundeen eta gizartearen erantzunak hobetzen laguntzeko.

Enfrentamos todas la violencias machistas. Patriarkaturik gabe denok jabe izeneko kanpainaren parte da ikerketa hau. Kanpaina 2010ean abiatu zuen Mugarik Gabek, eta urte hartan Bilbon egin zen *Emakumeen Eskubideen Nazioarteko Auzitegia. Viena +20, Euskalerrria 2013* ekimenaren ondoren Mugarik Gabek ezarritako ekintza-ildoak jarraitzen ditu. Horren bidez, aurrerapauso gehiago eman nahi ditugu indarkeria matxistei aurre egiteko emakumeen eskubideen defentsan, indarkeria horien aurkako emakumeen borroka elkarlotuz nazioarteko ikuspegi integral batetik.

Ikerketa prozesuak bi urte eta erdi iraun du, eta hiru une nagusi izan ditu:

1. Eztabaida-guneak sortzea ikerketa honetarako gai interesgarri buruz: feminizidioa, indarkeria/bazterkeria ekonomikoa eta indarkeria hedabideetan¹. Eztabaida horiek helburu zuten eremu askotako emakumeen ikuspuntuak alderatzea eta indarkeriari buruzko zenbait oinarri kontzeptual ezartzea. Eztabaidekin batera, marko metodologiko hau eratzen joan zen, eta Mugarik Gaberen bidez eta prozesuan parte hartu zuten nazioarteko antolakunde bidez sozializatu zen.
2. Kolonbian, El Salvadorren, Guatemalan, Euskal Herrian eta Espainiako Estatuan hainbat indarkeria motari aurre egin dieten 28 emakumeren bitzta-istorioak dokumentatzea.
3. Bost txosten espezializatu egitea bildutako 28 bitzta-istorioak oinarri hartuta, eta lehenetsitako analisi-dimentsioen arabera: fisikoa eta psikosoziala, kulturala, politikoa eta legala, ekonomikoa eta mediatikoa.

Kapitulu hau zortzi azpiataletan banatuta dago. Aurkezpen honen ostean, bigarren atalean, prozesu guztia gidatu duten helburu eta ikuspuntuak deskribatzen dira: analisi feminista, giza eskubideen eremua eta ikuspuntu interseksionala. Hirugarren atalean ikerketa hau egituratzen duten hiru ardatzak garatzen dira: indarkeria matxistak, abortatzeagatik zigortzea eta indarkeria ekonomikoa; ardatz horiek jarraipena ematen diote *Emakumeen Eskubideen Nazioarteko Auzitegia Viena+20, Euskalerrria, 2013*ko edukiei. Laugarren atalean, txosten espezializatuak egiteko, 28 bitzta-istorioak aztertzeko bost dimentsioak deskribatzen dira. Bosgarren atalean, parte hartu duten antolakundeak, dokumentatzaileak eta kasuak hautatzeko adostu diren irizpideak daude, baita informazioa sailkatzen duen taula-sintesi bat ere, herrialdearen, indarkeria-ardatzaren, kasuaren ezaugarri nagusien eta antolakunde arduradunaren arabera sailkatuta. Seigarren atalean hautatutako metodoa —bitzta-istorioak— eta ikerketa-faseak deskribatzen dira. Zazpigarren atalean, dokumentatzaileentzat eta azken txostenak egin dituzten adituentzat sortu diren tresnak biltzen dira, aholku-gida formatuan. Azkenik, ikerketa honen esperientziatik sortu diren zenbait hausnarketa metodologiko gehitu ditugu.

¹ Feminizidioari eta indarkeria/bazterkeria ekonomikoari buruzko eztabaidak Mugarik Gabek antolatu zituen, eta eztabaidak errazteko adituen laguntza izan zuen: batetik, feminicidio.net atariko Gabriela Atencio, eta bestetik, EHUko Ekonomia Saileko irakaste eta ekonomialari feminista Yolanda Jubeto. Hirugarren eztabaida, hedabideen indarkeriari buruzkoa, Pikara Magazinek eta FeministAldek antolatu zuten Solasaldi Intrafeministen barruan.



2. IKERKETAREN HELBURUAK ETA IKUSPUNTUAK

Ikerketa honen bidez emakumeen eskubideen urraketa eragiturazko arrazoiak sakonago identifikatu nahi ditugu; ekintza-proposamenak egin eta aurre egiteko neurriak sortu; eta emaitzetatik abiatuta, politikan eta erakundeetan eragiteko ahalmena landu, eta gizartearen esparru ezberdinetan gizarte-pedagogia jorratu.

Ikerketa kualitatiboa da, eta prozesu osoan feminismoak, giza eskubideen markoak eta interseksionalitateak gidatu dute.

2.1. Feminismoa

Feminismoa teoria-iturri eta mugimendu politiko anitza da; zentzu horretan, ikerketa hau elikatu duen iturri nagusia da. Feminismoak, bere joera guztietan, errealitate hegemonikoaz bestelako ikuspuntu kritikoak eskaintzen dizkigu. Halaber, laguntzen digu deseraikitzen, desikasten, gauzak zalantzan jartzen eta errealitateei eta fenomeno sozialei esanahi berria ematen; historikoki paradigma “maskulinoa”, “zuria”, “mendebaldarra” edota “heterosexuala” izan duten errealitate eta fenomenoek, alegia.

Ikerketa feministak bestelako ezagutza sortzen laguntzen du, errealitateak interpretatzeko kodeak berreskuratu eta ikusarazten ditu, eta kontuan hartzen ditu emakumeen bizitzen beste alderdi batzuk. Hain zuzen, kontuan hartzen ditu ikerketa positibista eta klasikoek bazterretan —edo interes zientifikoa izan dezakeen horretatik kanpo— kokatu dituzten alderdiak.

Feminismotik abiatzea erreferentzia-esparru gisa, are garrantzitsuagoa da emakumeen aurkako indarkeriaz ari bagara. Izan ere, mugimendu feminista bera izan da indarkeria matxistari zilegitasuna kendu diona, historikoki naturala eta arrunta izan den praktika sozial gisa. Feminismoa gai izan da ere indarkeria matxista arazo sozial eta politiko bezala kokatzeko, eta eragile, esparru eta erakunde anitzen erantzukizun gisa finkatzeko. Feminismoaren testuinguruan, generoa asko erabili da botere patriarkalaren harreman-dimentsioa aztertzeko. Genero kategoriari egindako kritiken jakitun izan arren, uste dugu erabilgarria dela identifikatzeko botere-harreman desorekatuak eraikitzen dituzten mekanismo patriarkalak, arlo sozial, ekonomiko, kultural, politiko eta beste askotan. Halaber, botere patriarkalaren dimentsioa aztertzea koherentea da fokua jartzearekin emakumeengan eta haien aurkako indarkerian. Izan ere, heteropatriarkatuaren ikusmolde, dinamika, eta botere harremanek emakumeen aurkako indarkeria eta bazterkeria dakartzate.

2.2. Giza eskubideak

Ikerketa honen abiapuntua da emakumeen nazioarteko mugimendu zabalaren aldarrikapena, eta oihartzuna ematen dio. Nahiz eta gaur egun giza eskubideak babesteko eta sustatzeko nazioarteko sistema egon, emakume mugimendu horrek oraindik ere gogorarazi behar du emakumeen eskubideak giza eskubideak direla; azken hau berandu onartu zen, 1993an, Vienan egin zen Giza Eskubideen Munduko Biltzarrean.

Gizon eta herritarren Eskubideen Adierazpenetik (1789), Giza Eskubideen Adierazpen Unibertsala (1948) egin arte, eskubideen unibertsaltasuna zalantzan jartzen zen; hain zuzen, beste errealitate batzuen artean, emakumeek ari garenean dagoen defizitarenatik. Prozesu motela eta neketsua da emakumeen eskubideak txertatzea Giza Eskubideen Nazioar-



teko Zuzenbidea osatzen duten itunetan, xedapenetan, adierazpenetan eta bestelakoetan. Nazioarteko Konferentzietan eta Batzarretan lortutako oinarritzko emaitzak mugarririk garrantsutsuak izan dira, eta emakumeek eskubideak bermatuta izan ditzaten, eta erabili eta gozatu ditzaten, arrakalak izendatu eta eten behar direla berresten dute. Hala ondorioztatzen da, besteak beste, honako nazioarteko batzarretan: Emakumeen Kontrako Diskriminazio Era Guztiak Ezabatzeko Konbentzioa (1979), Giza Eskubideen Munduko Biltzarra (1993); Emakumeen aurkako indarkeria Prebenitzeko, Zigortzeko eta Desegiteko Amerika arteko Hitzarmena – Belem do Parako Hitzarmena (1994); Biztanleriari eta Garapenari buruzko Nazioarteko Konferentzia, (Kairo, 1994); Gizarte Garapenari buruzko Munduko Goi Bilera (Kopenhage, 1995); Emakumeen Munduko IV. Konferentzia (Pekin, 1995); Emakumeen Aurkako Indarkeriaren eta Etxeko Indarkeriaren Aurkako Borrokari eta Prebentzioari Buruzko Hitzarmena–Istanbulgo Hitzarmena (2011 eta 2014).

Emakumeen aurkako indarkeria, adierazpide guztietan, giza eskubideen etengabeko egiturazko urraketa da, gizarte guztietan hedatuena eta inpunitate mailarik handiena duena. Emakumeen giza eskubideak masiboki urratzen dira, sistematikoki eta eragile askoren bidez. Hala ere ez du interesik sortzen, eta soilik giza eskubideen urraketa larrien kasuan erantzuten da tinkotasunez nazioartetik. Emakumeen aurkako indarkeriak jatorri kolektibo eta politikoa dituela ikusarazi nahi dugu, giza eskubideen markoan kokatuta. Era berean, erantzukizunak seinalatu nahi ditugu, eta gaiaren inguruko nazioarteko zuzenbide itunak sinatzean, estatuek hartutako eginbeharrak gogorarazi. Estatuaren betebeharra da emakumeen eskubideak errespetatzea eta babesteaz gain, eskubide horiez gozatzea posible izateko neurri positiboak ezartzea.

2.3. Interseksionalitatea

Interseksionalitateaz teoria, ikuspegi eta tresna metodologiko gisa idatzi izan da. Ikerketa honetan bat gatz Patricia Muñozekin esaten duenean interseksionalitatearen ikuspegi oso erabilgarria dela *“teorikoki, kontzeptualki eta politikoki, emakumeek pairatzen duten zapalkuntzaren aniztasun eta aldiberekotasunari heltzerako orduan”*². Errealitateak beren konplexutasun guztiekin aztertze beharra dugu abiapuntu; izan ere, fenomeno sozialak kolektiboki eraikitzen dira eta haien artean lotuta daude. Errealitate konplexuentzako azalpen sinpleak bilatzen ditugu maiz; horrek erabilgarritasuna eta eragina kentzen die emakumeen eskubideen lanketan dauden aldaketa-prozesu garrantzitsuen sustapenari.

AWID elkarteak interseksionalitatea definitzen duenean emakumeen nortasun anitzak azpimarratzen ditu, eta nabarmentzen du azterketa interseksionalaren helburua dela *“nortasun konbinazioaren ondorioz ematen diren bazterkeria eta desabantaila mota ezberdinak erakustea. Arrazakeriak, patriarkatuak, klase-zapalkuntzak eta bestelako bazterkeria sistemek emakumeen posizio erlatiboak egituratzen dituzten desorekak sortzeko moduak aztertu nahi ditu interseksionalitateak. Halaber, kontuan hartzen ditu testuinguru historikoak, sozialak eta politikoak; era berean, nortasun mota ezberdinak elkartzean sortzen diren esperientzia indibidual bakarrak aintzat hartzen ditu”*³. Horren harira, ulertzen dugu interseksionalitatearen helburua ez dela emakumeek pairatzen dituzten bazterkerien batuketa egitea; aitzitik, bestela pentsatzea eskatzen du, errealitatearen ezagutza berriak, osoagoak eta konplexuagoak eraikitzeko. Lucas

2 Patricia Muñoz Cabrera (2011): *Violencias interseccionales. Debates feministas y marcos teóricos en el tema de pobreza y violencia contra las mujeres en Latinoamérica*, CAWN, Tegucigalpa.

3 AWID (2004): “Interseccionalidad: una herramienta para la justicia de género y la justicia económica”, *Derechos de las mujeres y cambio económico*, 9. zkia, abuztua.



Plateroren⁴ arabera, “*esan genezake interseksionalitatea kontzientzia sortzen laguntzen duen prozesua dela, ulertzeko desorekak sortzen dituzten egiturazko iturriek (‘edo gizarte antolakundeek’) elkarrenganako harremanak dituztela. Ikuspegi honek nabarmentzen du generoa, etnia, klasea edo sexu-orientazioa, beste gizarte-kategoria batzuk bezala, ez direla ‘naturalak’ edo ‘biologikoak’, baizik eta eraikuntzak direla eta elkarlotuta daudela*”.

Ikuspegi hori oso garrantzitsua da testuinguru anitzak —ikerketa honetan proposatzen dena, esaterako— aztertze aldera. Emakumeak aldi berean zapaltzen dituzten egituren elkarreaginaz eta konplexutasunaz ohartzeak, lagunduko digu haien bizitzen etengabeko indarkeria hobeto ulertzen.

3. LAN-ARDATZAK

Emakumeen aurkako indarkeria mota guztiak dira giza eskubideen urraketak, eta maila altuagoko arazo politikoa. Indarkeria tresna historikoa da menderatze patriarkalaren estrategiarentzako, eta indarkeriaren aurkako borroka mundu osoko agenda feministen helburua da.

Emakumeen aurkako indarkeriak anitzak eta jatorri askotakoak dira, eta beraz askotan eztabaidatzen dira bere definizioak, tipologiak eta sailkapenak. Joera eta ikuspegi asko daude indarkeria matxistak izendatu eta aztertzeari dagokionez, edo salatzeako estrategiak definitu eta konponbideak proposatzen direnean. Honakoak dira eztabaida gehien sorrarazten duten alderdiak:

- Bazterkeria eta indarkeriaren arteko muga lausoa, edota emakumeen giza eskubideen urraketa guztiak indarkeria matxista izendatzeko arriskua.
- Sinplifikatzeko joera duen sailkapena egiteko arriskua, eta beraz, emakumeen bizitzetan modu interseksionalean, ezberdinetan eta maila askotan ageri diren indarkerien aniztasunarekin bat ez etortzeko arriskua.
- Nortasunen inguruko eztabaida handituz eta aldatuz doan honetan, enfasia emakumeengan jartzeak kontraesanak sortzen ditu. Izan ere, erronka da emakumeen aurkako indarkeria neurrigabea salatzeako apustu argia egitea, betiere esentzializatzen duen ikuspegi batean galdu gabe, alegia, errealitate binarioa erreproduzitzen ez duten edo heteroarautik at egoteagatik indarkeria jasotzen duten pertsonak ikusaraziz.

Horregatik, hain zuzen prozesuaren hasieran eman ziren eztabaidek —feminizidioaren, indarkeria/bazterkeria ekonomikoaren eta hedabideen indarkeriaren inguruan—, indarkeriak definitzeko kontzeptu korapilatsuak pixka bat gehiago argitzen lagundu zuten, nahiz eta eztabaidaren helburua ez izan proposamen itxiak egitea.

Ikerketa honen harira, eta koherentzia mantenduta, alde batetik, Mugarik Gabek duela zazpi urte hasitako *Enfrentamos todas las violencias machistas. Patriarkaturik gabe denok jabe* kanpainarekin, eta bestetik, *Emakumeen Eskubideen Nazioarteko Auzitegia* ekimenarekin, honako lan ardatzak definitu genituen, 28 bizitza-istorioak hautatzeko irizpide gisa.

⁴ Raquel (Lucas) Platero (2014): ¿Es el análisis interseccional una herramienta feminista y queer?, en Mendia et al.: *Otras formas de (re)conocer. Reflexiones, herramientas y aplicaciones desde la investigación feminista*, Hegoa Institutua, Bilbo.



1. Abortatzeko eskubidea: abortua zigortzea indarkeria gisa
2. Indarkeriarik gabe bizitzeko eskubidea: indarkeria matxistak
3. Bizi-maila duinerako eskubidea: indarkeria ekonomikoa

Hautatutako hiru indarkeria ardatzak kontzeptualki mugatzean, eskura izan genituen *Emakumeen Eskubideen Nazioarteko Auzitegitik* ateratako aurretiko irakaspen eta ekarpenak. Zehatzago, Justa Monterok, Rita Segatok eta Mertxe Larrañagak Auzitegirako prestatutako dokumentuak genituen, eta horietan oinarritzen dira jarraian datozen orrialdeak.⁵

3.1. Abortatzeko eskubidea: abortatzeagatik zigortzea indarkeria gisa

Abortua eskubide gisa ulertzen dugu. Hortaz, abortatzeagatik zigorrak ezartzea eta horrek dakartzan ondorioak emakumeen eskubideen urraketa zehatza dira. Abortatzeko eskubidea ukatzea emakumeen herritar estatusa zalantzan jartzea da, egungo giza eskubideen markoak argi bermatzen baitu hori. Abortatzeko eskubideari dagokionez, ikerketa honentzako erreferentzia izan dira Justa Monterok 2013ko Emakumeen Auzitegirako egindako txosteneko hausnarketak⁶; horietako batzuk labur-labur jaso ditugu jarraian.

Lehenenik, abortuak emakumeen erabakitzeko eskubidearekin du zerikusia; kasu honetan, nahi ez den haurdunaldi bat etetea erabakitzeko eskubidearekin. Zentzu horretan, *“abortatzeko eskubidea gorputzaren burujabetzarekin eta emakumeen sexu- eta ugalketa-autonomiarekin dago lotuta, baita emakumeen eskubideekin eta justizia sozialarekin ere. (...) Emakumeen erabakitzeko eskubidea, emakumeen eskubideen markoan kokatzen da, justizia sozialaren eta horri lotutako eskubide guztien markoan, alegia: duintasuna, bizitza eta osasuna, askatasuna, berdintasuna, pribatutasuna, autonomia eta osotasuna izateko eskubideen markoan”*.

Bigarrenik, emakumeen autonomia errespetatzeko printzipio etikoaz gain, bat gatoz Justa Morenorekin, abortatzeko eskubidearen alderdi politikoa nabarmentzen duenean; izan ere *“emakumeen gorputza baino gauza pertsonalagorik edo politikoagorik ez dago”*, eta beraz, abortatzeagatik jazartzea eta zigortzea emakumeei beren gorputzekiko burujabetza ukatzea da.

Hirugarrenik, abortatzeko eskubideak badauka *“justizia sozialeko alderdi bat, zeren emakumeek bizi dituzten baldintza ekonomiko eta sozialek zehazten dute, neurri handi batean, abortatzeko eskubidea eskuratzeko eta askatasunez erabiltzeko dituzten baldintza desorekatuak”*. Kasu guztietan, estatuak bermatu behar du eskubide unibertsal hori osasun- eta lege-baldintza egoki batzuen barruan gauzatzea, eta inolako arriskurik gabe eskubide hori erabiltzen utzi ahal izatea.

Estatuek abortua delitutzat hartzea arazo sakona da, eta eragin zuzena eta negatiboa du emakumeen bizitzetan. Izan ere, borondatez zein nahi gabe abortatzen duten emakumeak legalki eta sozialki kriminalizatzea dakar horrek, espetxe-zigorrak eta are biziarteko zigorrak ezartzen baitzaizkie. Gainera, zigorrak abortuak egiten dituzten osasun-langileei ere eragiten diete, zenbaitetan espetxe zigorrei aurre egin behar baitiete.

5 Ikus: Mugarik Gabe (2013): *Emakumeen eskubideen nazioarteko Auzitegia*. Viena+20. Euskalherria, 2013, <http://www.mugarikgabe.org/blog/2014/02/27/tribunal-de-derechos-de-las-mujeres/>

6 Ikus txosten osoa Mugarik Gaben (2013): *Tribunal internacional de Derechos de las Mujeres*. Viena+20. Euskalherria, 2013, pp. 26-56.



3.2. Indarkeriarik gabe bizitzeko eskubidea: indarkeria matxistak

Borroka feministari esker aurrerapausoak eman dira, nazioarteko zuzenbide tresnetan emakumeen aurkako indarkeria onartzeko eta sailkatzeko. Horrela, pribatutzat hartzen den arazo bat izatetik arazo publikoa, politikoa eta nazioartekoa izatera pasatu da.

1979an, Emakumeen Kontrako Diskriminazio Era Guztiak Ezabatzeko Konbentzioaren arabera (CEDAW), “emakumearen aurkako indarkeriatzat hartzen da emakume izaeran oinarritzen den eta emakumearentzat kalte edo sufrimendu fisiko, sexual edo psikologikoa sortzen duen edo sor dezakeen indarkeria ekintza oro, *baita horrela mehatxatzea, bortizkeriaz jardutea edo arbitrarioki askatasuna ukatzea, bizitza publikoan zein pribatuan*”. Emakumeen aurkako indarkeria horrela definitu zuen NBEk CEDAWren markoan eta, esan bezala, 1993an Vienako Biltzarrean kontzeptualizatu zen giza eskubideen urraketa gisa. Handik gutxira, 1995eko Emakumeen Munduko IV. Konferentziak⁷ definizio hori zabaldu zuen, indarkeria mota ezberdinak eta indarkeria gertatzen den eremuak txertatuta:

- *“Familiako indarkeria fisiko, sexual eta psikologikoa, barne hartuta kolpeak, neskatilen etxeko sexu-abusua, dotearekin lotutako indarkeria, senarrak bortxatzea, genitalen mutilazioa eta emakumeen aurkako beste edozein praktika tradizional, senarraz bestelako pertsonen gauzatutako indarkeria, eta esplotazioarekin lotutako indarkeria.*
- *Orokorrean komunitatean ematen den indarkeria fisiko, sexual eta psikologikoa, barne hartuta bortxaketak, sexu-abusuak, xaxatzea; lanean, hezkuntza-erakundeetan edo bestelako eremuetan gertatzen den sexu-larderia, emakumeen salerosketa eta prostituzio derrigortua.*
- *Indarkeria fisiko, sexual eta psikologikoa, estatuak gauzatua edo onartua, edozein lekutan ematen dena”.*

Bestalde, gauza ezberdinak nabarmentzen dituzte indarkeria izendatzeko formek: genero-indarkeria⁸, emakumeen aurkako indarkeria patriarkala⁹ eta indarkeria sexista edota matxista¹⁰.

Ikerketa honetan *indarkeria matxistez* hitz egiten dugu, modu zabalean ulertzen ditugulako eta eremu askotan ematen diren indarkeria motak barne hartzen dituelako. Terminoa pluraletan ematen dugu, hain zuzen indarkeriaren adierazpide anitzak, sotilenetik muturrekoe-nera —feminizidioa—, ikusarazteko. Horren harira, proposamen honek 2008ko Kataluniako Legearen definizioa berrartzen du¹¹; horren arabera, indarkeria matxista da *“bakterkeria eta ezberdintasun egoeraren adierazle gisa emakumeen aurka gauzatzen den indarkeria, gizonen emakumeen gainean duten botere harremanen sistemaren testuinguruan”*, eta bitarteko fisiko, ekonomiko edo psikologikoen bidez gauzatzen dena, barne hartuta mehatxuak, larderia, derrigortzea, eta horren emaitza izanik kalte edo min fisikoa, sexuala edo psikologikoa, eremu publikoan zein pribatuan gertatzen dena.

7 Ikus Pekingo Adierazpena eta Ekintza Plataforma: <http://www.un.org/womenwatch/daw/beijing/pdf/BDPfA%20S.pdf>.

8 Genero-indarkeria bera, eta generoaren eta indarkeriaren arteko harremanak hobeto ulertzeko, ikus Rita Segatok Mugarik Gaben prestatutako txosten osoa (2013): *Tribunal internacional de Derechos de las Mujeres. Viena+20. Euskalherria*, 2013, pp. 82-116.

9 Ikus Lily Muñoz (2012): “El carácter estructural de la violencia patriarcal contra las mujeres”, Mugarik Gaben: *Violencias machistas y estrategias para enfrentarlas. Indarkeria matxistak eta horiei aurre egiteko estrategiak*, <http://www.mugarikgabe.org/wp-content/uploads/2015/05/Jardunaldiak-JornadasViolencias2011.pdf>.

10 Autore batzuen arabera, indarkeria matxistak barne hartzen du indarkeria sexista. Emakumeek emakume izateagatik pairatzen duten indarkeriak sexismoa du oinarri, eta helburu du emakumeak kontrolatzea eta menderatzea. Indarkeria matxistak ez die soilik emakumei eragiten, baizik eta genero-zapalkuntzei (heteroarauari, adibidez) aurre egiteagatik indarkeria pairatzen duen pertsona orori.

11 5/2008 legea, apirilaren 24koa, emakumeek indarkeria matxista ezabatzeko duten eskubideari buruzkoa. Ikus Legearen laburpena: http://dones.gencat.cat/web/.content/03_ambits/docs/vm_llei_resum_castella.pdf



Hori oinarri hartuta, bigarren ardatz honetan bereziki ikertu dira legalki eta sozialki onartutako indarkeria matxistak, eta baita bestelako indarkeria batzuk ere, beren garrantziaz ohartuta ikusarazi nahi izan baitira. Orotara, interesa jarri dugu honako hauetan: indarkeria fisikoa, sexu-indarkeria, psikologikoa edo soziala, bikotekide edo bikotekide ohiaren testuinguruan¹²; salerosketa, tortura eta askatasuna arbitrarioki ukatzea; sexu-indarkeria eta emakumeen genitalen mutilazioa, bikotekide edo bikotekide ohiaren testuingurutik kanpo; eta feminizidioa.

3.3. Bizi-maila duina izateko eskubidea: indarkeria ekonomikoa

Emakumeek bizi-maila duina izateko eskubidearen defentsaren testuinguruan¹³, ikerketa honek kontuan hartzen du indarkeria ekonomikoaz hitz egitean gurutzatzen diren alderdiak asko eta anitzak izan daitezkeela, eta hala izan daitezkeela ere bere eraginak emakumeen bizi-baldintza materialetan, sozialetan eta subjektiboetan. Horrek behartzen gaitu prozesuan gehien ageri diren elementuetara mugatzera.

Nazioartean gero eta gehiago hartzen ari da kontuan indarkeria ekonomikoa eta ondarezein finantza-indarkeria, nahiz eta ez izan presentzia bera nazioarteko tresnetan eta emakumeen aurkako indarkeria fisiko, psikologiko eta sexualen inguruko legeetan (Mugarik Gabe, 2013: 109).

Adibidez, Mexikon, Emakumeak indarkeriarik gabe bizitzeko lege orokorrak (2007, 2015ean erreformatua)¹⁴ emakumeen aurkako indarkeriak definitzen dituenean, ondare-indarkeriaz honakoa dio: *“biktimaren biziraupenari eragiten dion edozein ekintza edo omisio. Honela adierazten da: objektuak, dokumentu pertsonalak, ondasunak eta balioak eraldatzean, lapurtzean, suntsitzean edo atxikitzean, baita beharrak asetzeko diren ondasun-eskubideak zein baliabide ekonomikoak ere. Kolektiboak edo biktimarenak bakarrik diren ondasunen kalteak izan daitezke”*. (I. Kap., 6. Art., III. atala.). Gainera, lege horrek indarkeria ekonomikoa gehitzen du, honela definituz: *“biktimaren biziraupen ekonomikoari eragiten dion erasotzailearen ekintza edo omisio oro. Honela adierazten da: emakumeen diru-sarrerak kontrolatzeko mugen bidez, eta baita emakumeek lantoki berean lan berdinarekin truke soldata baxuagoa jasota”* (I. Kap., 6. Art., IV. atala).

Lan arloari dagokionez, lege berak dio lan-indarkeria dela *“ez errespetatzea biktimaren lan-baldintza orokorrak, eta biktima lanean mantentzea, edo legez kanpo kontratua ez egitea erabakitzea; egindako lana mespretxatzea, mehatxuak, larderia, umilazioak, esplotazioa, emakumei eragozteko legez araberako edoskitze-aldia burutzea, edo generoagatiko edozein diskriminazio mota”* (II. Kap., 11. Art.).

Gainera, ikerketa honetan indarkeria ekonomikoa lan ardatz gisa sailkatzeari esker, ikuspegi internazionalista batetik heldu ahal izan zaio emakumeen eskubide urraketa gaiari. Eskubideen urraketa horiek zapalkuntza-sistemen (kapitalismoa, patriarkatua, arrazakeria) loturagatik gertatzen dira, eta sistema horien elkarren arteko loturak mantentzen eta erreproduzitzen ditu desorekak, emakumeen bizitzetan eragin handia dutenak. Makroekonomiaren analisi maila honetan, interesgarria da emakumeen prekarietatea, lan-segurtasun

12 Ondare indarkeria bikotekide edo bikotekide ohiaren testuinguruan zehatzago landu da indarkeria ekonomikoaren ardatzean.

13 Eskubide honetan sakontzeko, ikus Mugarik Gaben Mertxe Larrañagak prestatutako txosten osoa (2013): *Tribunal Internacional de Derechos de las Mujeres. Viena+20. Euskalherria*, 2013, pp. 148-176.

14 Ikus: http://www.diputados.gob.mx/LeyesBiblio/pdf/LGAMVLV_171215.pdf.



falta eta autonomia ekonomiko falta aztertzea. Izan ere, lan-, lege- eta gizarte-ezberdintasun baldintzak medio, mugatu egiten da baliabide ekonomikoak edo enpleguari lotutakoak eskuratzeko emakumeek dituzten aukerak. Hain zuzen, prekarietate, segurtasun falta eta mendekotasun handieneko testuinguruetan, eragin handiagoa dute emakumeen aurkako esplotazioarekin lotutako indarkeria matxistek. Halaber, interesgarria da identifikatzea eta salatzea eragile ekonomikoek —enpresa transnasionalek— emakumeen bizitzetan eta eskubideetan dituzten eragin negatiboak.

4. BIZITZA-ISTORIOEN ANALISIEN DIMENTSIOAK

Atal honetan, ikerketarako bildu diren bizitza-istorioen azterketa gidatu duten dimentsioak deskribatuko ditugu. Dimentsiook argitalpen honetako txosten espezializatuak egiteko balio izan dute.

Bost dimentsio horiek hautatzeko leheneste-ariketa bat egin dugu, eta ikerketaren helburuei lotutako dimentsiorik interesgarrienak hautatu ditugu. Hautatutako dimentsioak dira: a) *fisikoa eta psikosoziala*, zeinaren bidez indarkeriak emakumeen osasunean duen eraginez ikuspegi zabala eskaintzen den; b) *kulturala*, zeinak indarkeria bermatzen eta iraunarazten duten ideologia- eta sinesmen-sistemen eragina ahalbidetzen duen; c) *ekonomikoa*, emakumeen txirotasuna eta bazterkeria ekonomikoa eta lanekoa ondorio dituen indarkeriei lotua; d) *politikoa eta legala*, indarkeriaren aurrean erakundeek duten papera —eta, zehatzago, justizia-sistemaren funtzionamendua— hurbilgotik ezagutzeko, eta e) *mediatikoa*, zeinaren analisiaren bidez aztertu den hedabideek duten pisua indarkeria matxistak normalizatu daitezen eta gizartean zilegitasuna izan dezaten, eta halaber, aztertu egin den arlo honen ahalmen eraldatzailea.

Bost dimentsio horiek bakoitza bere aldetik landu dira, analisia errazteko. Hala ere, agerikoa da elkarlotuta dauden pertsonen bizitzen alderdiak direla, eta ezin ditugula guztiz ulertu baldin eta konpartimendu itxiak eta interakziorik gabekoak direla uste badugu.

4.1. Dimentsio fisiko eta psikosoziala

Analisi-dimentsio honen bidez, emakumeen giza eskubideen urraketek buruko osasunean eta osasun fisikoan zein sozialean dituzten eraginak landuko dira. Emakumeen giza eskubideak dira bizitzeko eskubidea; osotasun fisiko, psikiko eta morala; askatasuna eta segurtasun pertsonala; torturak ez pairatzea; eta pertsonen atxikitako duintasuna errespetatzeko eskubidea, besteak beste.

Era berean, alderdi honek barne hartzen ditu emakumeen osasun-eskubideen urraketei lotutako alderdiak: osasun-arreta egokia eta kalitatezkoa eskuratzeko, alegia (eta zehatzago, sexu- eta ugalketa-osasun arreta). Osasuna modu zabalean ulertuko dugu, *“ongizate fisiko, mental eta sozial bete, ez soilik gaixotasun ezari lotutakoa”* (Osasunaren Mundu Erakundea). Osasuna oinarritzko giza eskubidetzat hartzea oso garrantzitsua da; izan ere, horren araberakoa izango da ahal den osasun-maila altuena izateko baldintzak sortzeko gobernuek duten erantzukizuna.

Dimentsio horren testuinguruan, adibide gisa, honako auziei arreta jartzea gomendatu zen:

- Lesio eta ondorio fisiko, psikiko eta sozialak; pairatutako indarkerien ondorio, eta indarkeriek epe laburrean, ertainean eta luzean izandako eboluzioaren ondorio.



- Depresioak edo suizidioak indarkeriaren ondorioz.
- Abortatzea erabakitzean —batzuetan baldintza ez-seguruetan— emakumeek hartutako arriskuak.
- Emakumeen aurkako indarkeriari lotutako osasun-protokoloen falta edo eraginkortasun eza. Horrek emakumeak birbiktimizatzea dakar (sinesgarritasuna etengabe zalantzan jartzea, txostenak berandu egitea, aurreikusitako gabeko eraginak, etab.).
- Emakumeei osasun-arreta ukatzea edo gaizki gauzatzea, eta horren kausak eta ondorioak.
- Indarkeria-bizipenen osteko ongizate fisiko, mental eta soziala hobetzeko eta aurre egiteko mekanismo indibidualak edota kolektiboak.

Indarkeria harreman-fenomenoa da, pertsonengan eragiten du maila indibidual zein kolektiboan eta lotura dauka gertatzen den testuinguru sozial eta politikoarekin. Hartara, ikuspegi psikosozialari arreta berezia eskaini nahi izan diogu. Ikuspegi horren bidez, arreta eskaini ahal zaio indarkeriari lotutako min indibidualari —psikologikoa eta soziala—, baina baita indarkeria hori kokatzen eta indartzen duten prozesu sozial, ekonomiko eta politikoei ere; horien artean aipatu behar dira ezberdintasunak eta inpunitatea irauarazten dituzten politika publikoak. Era berean, dimentsio fisiko eta psikosozialak kontuan hartzen ditu gertakari biolento edota traumatikoei aurre egiteko mekanismoak, eta estrategia psikologiko zein sozialak.

Hori kontuan hartuta, dimentsio honetan honako alderdi zehatzak kontuan hartu daitezke aholkatu zen:

Emakumeen aurkako indarkeriaren eragin agerikoak zein ikusezinak, beren ongizate psikologiko eta sozialaren ikuspuntutik (beldurrak, segurtasun falta, zaurgarritasuna soziala).

Indarkeriak eragindako familia- eta gizarte-desegituratze motak eta mailak.

Emakumeen aurkako erakunde-indarkeria politikoa eta instituzionala, kontrol eta inpunitate tresna gisa.

Indarkeriari aurre egitea edota gainditzea zailtzen edo errazten duten faktore psikosozialak.

4.2. Dimentsio kulturala

Dimentsio honek lotura du emakumeen eskubide urraketa justifikatzen eta bermatzen duten botere patriarkalari lotutako eduki ideologikoeekin, eta balio- zein sinesmen-sistemaren edukiekin.

Besteak beste, edukiok zehatz adierazten dira honako elementuetan:

- Agindu sozial patriarkalak, ez halabarrez legeak emandakoak, baina *de facto* arau gisa funtzionatzen dutenak, eta emakumeen diskriminazio sistemaren parte direnak (mikromatxismoak barne).
- Indarkeria sinbolikoko mekanismoak, mendekotasun harremanak indartzen dituztenak, eta familian, komunitatean eta gizartean indarkeria bultzatzen dutenak.
- Indarkeriaren ondorio diren logika kolektibo edo komunitarioak, emakumeak des-ahaldundu ditzaketenak (hezkuntzarako aukerak galtzea, biktimari errua egozte, bakartzea,



etab.), edota ahaldundu ditzaketenak (elkartasun mekanismo zaharrak edo berriak, emakumeen arteko elkartasuna, etab.).

- Indarkeria eta gizarte-iruditeria nagusiaren arteko harremana, zeinaren arabera emakumeak ez diren eskubideen subjektu, eta bigarren mailako herritarrak, bortxatu daitezkeen gorputzak, erabilgarriak, etab. diren.
- Indarkeriaren eta arraza-, etnia- eta klase-baldintzen arteko harremana.
- Ideologia patriarkalaren eragina gizon-emakumeen eta indarkeriaren arteko harremanari buruzko heziketari heltzean.
- Emakumeen aurkako indarkerian elizak eta bestelako erlijio-erakundeek duten eragin esplizitu zein inplizitua.
- Indarkeria dinamiketan familia normatiboaren ereduak duen papera.
- Emakumeek praktika patriarkal nagusietan bultzatutako hausturak.

4.3. Dimentsio politikoa eta legala

Dimentsio honetan aztertzen da estatuaren eta politika publikoen papera emakumeen aurkako indarkeriari aurre egiteko, ezarritako hiru ikerketa ardatzetan —indarkeria matxistak, abortua eta indarkeria ekonomikoa—. Horretarako abiapuntu dugu erakundeek maiz eragile gisa funtzionatzen dutela; batzuetan egin ezaz, beste batzuetan jardunagatik edota adostasunagatik. Hala ere, erakundeek formalki babes-rola beregain hartzen duten arren, errealitatean modu askotan sortzen eta mantentzen dute indarkeria.

Dimentsio honen analisiaren bidez, emakumeen aurkako indarkeriari buruzko prozeduretan justizia-sistemak duen jarduna hurbilagotik aztertu dezakegu; eta zehatzago, salatzea erabakitzen duten emakumeak birbiktimizatzeo faktoreak (sinesgarritasuna zalantzan jartzea, estigmatizazioa, exijitzen diren frogak motak, etab.) eta horrek dituen ondorioak. Halaber, kontuan hartzen dira emakume askori salaketa jartzea eragozten dieten faktoreak (sozialak, ekonomikoak, familiarekin lotutakoak, kulturalak, psikologikoak, legalak). Hori egitea ezinbestekoa da argudio politiko eta legalak identifikatzeko eta finkatzeko. Izan ere, argudio horien bidez, emakumeentzako babes handiagoa bermatuko da indarkeriaren aurrean, eta horrek lagunduko du inpunitatezko marko instituzional eta sozialak desegiten.

Estatuaz gain, garrantzitsua da bestelako eragileak kontuan hartzea; zehazki, gizarte antolakunde eta mugimenduak eta erakundeekin duten harremana aintzat hartzea, indarkeriari erantzuteko eta biziraun duten emakumeei laguntzeko testuinguruan.

Dimentsio hau aztertzeo alderdi gakoak honakoak izatea proposatu zen:

- Arautze-eremuak (nazioartekoak, eskualdekoak eta tokikoak) berrikustea eta baloratzea, kasu bakoitzean ezarri daitekeen ikerketa-ardatzaren inguruan.
- Horien ezarpen-maila, ondorioak, mugak eta gaitasunak.
- Justizia-arloan feminismoarentzako aliantza estrategikoak identifikatzea.
- Hobetzeko tarteak eta kontzeptu- eta praktika-eremuak.
- Desadostasunak, indarkeriaren arloko legegintzaren eta politiken zein aurrekontuen artean.



- Ideia eta praktika positiboak identifikatzea, herrialde batean zein bestean ezarri daitezkeenak.

4.4. Dimentsio ekonomikoa

Indarkeria ekonomikoa ikerketa honen hiru lan-ardatzetako bat da. Era berean, analisi-dimentsio hau gehitu behar zela erabaki zen, oso maiz faktore ekonomikoek emakumeen giza eskubideen urraketak zeharkatzen dituztelako.

Indarkeria ekonomikoa bikote-harremanen eremura eta mikroanalisira mugatu ohi da. Horrekin batera, dimentsio honetan makro analisi bat txertatzen da; bere helburua da identifikatzea eta azaltzea zein interakzio duten, batetik, kapitalismoaren oraingo garapen-faseko politika neoliberalen ezarpenak eta azelerazioak eta, bestetik, emakumeen laneko bazterkeria ekonomikoak eta txirotze prozesuak. Bi prozesuon arteko harremanaren adierazle gorenak izan dira honakoak: batetik, azken hamarkadetan herrialde eta eskualdeen arteko inbertsio eta merkataritza askeko akordioek emakumeentzat izandako ondorioak (txirotzea, prekarizazioa, esplotazioa, arrazoi ekonomikoengatik behartuta migratzea, lan eta sindikatze eskubide murriztuak...); eta bestetik, enpresei —bertakoak zein nazioartekoak— ustiapen baimenak ematea, herrialde askotan lurraldeetatik jendea bortxaz irtenaraziz eta herrien iraupenerako oinarrizko baliabideak suntsituz, horrek emakumeen gorputzetan eta bizitzetan daukan eragin negatiboa kontuan hartuta.

Zentzu horretan, klase- eta arraza-faktoreek garrantzi berezia daukate, gizarte guztietan faktore gisa funtzionatzen dutelako; gizarte-hierarkiaren faktoreak dira, besteak beste. Hierarkia horrek emakume asko kokatzen ditu bizi-baldintza material arriskutsuak eta indarkeria pairatzeko aukera gehiago dituzten gizarte-mailetan; enpresek, estatuek, banakoek edota kriminal sareek gauzatzen dute indarkeria.

Oro har, dimentsio honetan garrantzitsua izan da zehatz identifikatzea errepikatzen diren indarkeria ekonomikoaren ereduak —erakundeak edota erakundez kanpokoak—, emakumeen bizi-kalitatea kaltetzen dutenak. Horregatik, jarraian datozen alderdiak kontuan hartzea gomendatu zen:

Ondareen arloan:

- Baliabide materialak eta ekonomikoak eskuratzeko edota kontrolatzeko zailtasun-mailak.
- Baliabideak ukatzea edo haien jabetza kentzea, familia- zein bikote-harremanetan.

Lan arloan:

- Laneko xaxatzea/jazarpena (sexu-jazarpena barne).
- Laneko segregazioa.
- Enplegua sustatzeko mekanismo desorekatuak.
- Haurdunaldiarekin eta amatasunarekin lotutako bazterkeria.
- Soldata ezberdintasunak.
- Esplotazio forma anitzak (adibidez, etxeko langileak, *maquila* industriako langileak, emakumeen salerosketa, etab.).



- Zaintza-kate globalaren testuinguruan gertatzen diren bestelako indarkeria adierazpenak.

Estatuko/nazioarteko testuingurua:

- Politika ekonomikoen eraginak.
- Merkataritza askerako nazioarteko itunen eraginak.
- Enpresa transnazionalen jardunak eta emakumeen aurkako indarkeria polizialak, militarak eta segurtasun pribatuari lotutakoak duten lotura.

4.5. Dimentsio mediatikoa

Dimentsio honen helburua hedabideak aztertzea da; izan ere, paper garrantzitsua jokatu dezakete emakumeen aurkako indarkeria sortzen edo erreproduzitzen, baina baita aliatu gisa ere, indarkeria prebenitzen, kontzientzia sortzen eta kritikoki salatzen. Nahiz eta dimentsio honek lotura estua izan alderdi kulturalekin, espezifikoki hautatu dugu, ikerketa honen eragiteko estrategian lehenetsi dugun lan-ildoetako bat zelako.

Hedabideek, historikoki, eragina izan dute gizarte-gai batzuei buruzko iritzi publikoa osatzean; tartean, emakumeen aurkako indarkeria. Hori oinarri hartuta, garrantzitsua da gako mediatikoak identifikatzea gizartearen iruditeria nagusia hausteko; indarkeria gizartean onartu, normalizatu eta naturalizat jotzea eragiten duen iruditeria, alegia.

Ondorioz, horrek guztiak analisisan honako eztabaidagaiak txertatzea ekarri du:

- Hedabideen ikuspuntua emakumeen aurkako indarkeriaz.
- Informazio-tratamendu ezberdinak.
- Indarkeriari lotutako estereotipo eta mitoak haustea edo erreproduzitzea.
- Biktima eta biktimarioei egotzitako erantzukizunak.
- Indarkeriaren alderdi sistemiko eta egiturazkoak azaleratzen dituzten analisi-elementuak erabiltzea (edo ez erabiltzea).
- Indarkeriaren aurkako eta berdintasunaren aldeko arauen ezarpen maila, testuinguru bakoitzean.

5. ANTOLAKUNDE PARTE-HARTZAILEAK, DOKUMENTATZAILEAK ETA KASUAK

5.1. Antolakunde parte-hartzaileak eta dokumentatzaileak hautatzeko irizpideak

Ikerketa honetan hainbat antolakunde hartu dute parte, Euskal Herria, Espainiako Estatuak, El Salvador, Guatemala eta Kolonbiakoak denak. Mugarik Gabek izan du dinamizatzeko rola, eta Hegoa Institutuak metodologiarekin lagundu du. Antolakundeek ekimen sortzaileak eta zehatzak egiteko interesa dute, emakumeen giza eskubideen urraketak ikusarazteko, eta eskubide horiek bermatzeko eta aitortzeko proposamenak sortzen lagundu dezaketenak.

Helburu horrekin, proposamen honetako antolakunde gehienei ezaguna zaie jada *Emakumeen Eskubideen Nazioarteko Auzitegia Viena+20, Euskalerria, 2013*. Hartara, ikerketa hau egiteak ahalbidetu du Lationamerika eta Europako antolakundearen artean jada sortutako



aliantza feministak indartzea, eta haien jarraipena egitea emakumeenganako indarkeriaren kontrako borrokan.

Antolakundeei dagokienez, honakoak dira ezarritako irizpide nagusiak:

- a) Ahal dela, Mugarik Gaberekin aurretiko harremana eduki izana lehenetsi da;
- b) ikerketa-ardatz batzuk edo guztiak landu ditzatela;
- c) prozesuan elkarlanean aritzeko interes eta konpromiso esplizitua agertu izana;
- d) bizitza-istorio bidezko metodologia erabili izana edo lehendik ezagutzea.

Elkarrizketatzaile edo dokumentatzaileei dagokienez, kontuan hartutako irizpideak, batez ere, honakoak izan dira:

- a) prozesu globalaren informazioa eta ikerketaren helburuak argi izan ditzatela;
- b) elkarrizketa sakonetan ongi moldatzea;
- c) elkarrizketatuek bizi duten testuingurua egoki ezagutzea;
- d) dokumentazio prozesurako proposatutako etika-kodearekin konpromisoa hartzea (ikus 7.5 atala).

5.2. Kasuak hautatzeko irizpideak

Kasuak hautatzeko adostutako irizpide nagusiak:

- a) Planteatutako hiru lan-ardatzetako bati erantzutea.
- b) Elkarrizketatutako emakumeak antolakunde baten laguntza jasotzea.
- c) Elkarrizketak egitea bideragarria izatea (elkarrizketatuak bere esperientzia sozializatze-ko eta prozesuan parte hartzeko prestasuna agertu izana).
- d) Mugimendu feministarentzat estrategikoa edo interes handikoa izatea.
- e) *Emakumeen Eskubideen Nazioarteko Auzitegian* landutako gaien jarraipena indartzea.
- f) Paradigmatikoa edota garaikidea izatea.
- g) Eragin politikoko proposamenak egiteko gai izatea; adibidez, prozedura judiziala irekita egotea, kalte-ordain neurriak proposatu nahi izatea, etab.
- h) Kasua denboraz eta kalitatez lantzeko aukera egotea.

5.3. Herrialde, kasu eta antolakunde arduradunen taula-sintesia

Hasiera batean 30 bizitza-istorio biltzea espero genuen, ikerketarako adostutako hiru indarkeria-ardatzekin lotutako indarkeriak pairatu dituzten emakumeei buruzkoak. Aurreikusten genuen indarkeria-ardatz bakoitzeko 10 istorio biltzea, ahal zela herrialdeen arteko proportzioak mantenduta. Azkenik, 28 kasu bildu ahal izan ditugu: 6 Kolonbian, Euskal Herrian eta Espainiako Estatuan, hurrenez hurren; 5 El Salvadorren; eta 4 Guatemalan. Nahiz eta bizitza-istorio askok zerikusia duten indarkeria-ardatz anitzekin, eta ez bakar batekin, erabaki zen istorio bakoitzeko ardatz bat lehenetsiko zela. Horrela, aztertutako kasu bakoitzaren egokitzapen onenaren arabera lehenestea erabaki zen.



Argitalpen honen eranskinen atalean 28 bizitza-istorioen iruzkinak gehitu ditugu. Beheko taulan bildutako kasuen sintesia duzue. Kasuak sailkatuta daude herrialdearen, ardatzaren, antolakunde arduradunaren eta bizitza-istorio bakoitzaren kodearen arabera.

TAULA-SINTESIA: HERRIALDEAK, KASUAK ETA ANTOLAKUNDE ARDURADUNAK					
Zk.	HERRIALDEA	Lan ardatza	Kasua	Elkarrizketa-kodea	Antolakunde arduraduna
1	El Salvador	Indarkeria ekonomikoa	Lan-esplotazioa etxe-ko langilearen aurka	1. B-I	Asociación de Mujeres por la Dignidad y la Vida. <i>Las Dignas</i>
2		Indarkeria ekonomikoa	Elikadura-pentsioa ez betetzea, aitaren arduragabekeria	2. B-I	
3		Indarkeria matxistak	Indarkeria bikotekidearen aldetik	3. B-I	
4		Indarkeria matxistak	Sexu-indarkeria talde antolatuen aldetik (<i>marak</i>)	5. B-I	Colectiva Feminista para el desarrollo local. <i>La Colectiva</i>
5		Abortatzeagatik zigortzea	"17ak" taldeko kasua	4. B-I	
6		Abortatzeagatik zigortzea	Abortatzeagatik espetxeratutako emakumea	24. B-I	
7	Guatemala	Indarkeria matxistak	Sexu-indarkeria, gatazka armatuko testuinguruan	27- B-I	Unión Nacional de Mujeres de Guatemala. <i>UNAMG</i>
8		Indarkeria matxistak	Feminizidioa bikotekide ohiaren aldetik	18. B-I	Equipo de Comunicación y Análisis. <i>Colibrí Zurdo</i>
9		Indarkeria matxistak	Sexu-indarkeria, etengabeko indareriazko testuinguruan	16. B-I	
10		Indarkeria ekonomikoa	Multinazionalen aurkako jarreragatik jazartzea	17. B-I	



11	Kolonbia	Abortatzeagatik zigortzea	Eragile armatuen sexu-indarkeriaren ondorioz haurdun geratutako emakumea; ez diote abortatzen uzten	7. B-I	Corporación para la vida. <i>Mujeres que Crean</i>
12		Indarkeria ekonomikoa	Ondare-indarkeria bikotekidearen aldetik, indarkeria matxistaren adierazpide askorekin	8. B-I	
13		Indarkeria matxistak	Indarkeria fisikoa, psikologikoa eta sexuala bikote-harremanetan	9. B-I	
14		Indarkeria ekonomikoa	Etxeko esklabotasuna	6. B-I	Ruta Pacífica de Mujeres. <i>RPM</i>
		Indarkeria matxistak	Indarkeria psikologikoa eta tortura	25. B-I	
15		Indarkeria matxistak	Sexu-indarkeria, gatazka armatuko testuinguruan	26. B-I	
17	Euskal Herria	Indarkeria matxistak	Indarkeria bikotekidearen aldetik	15. B-I	<i>Bizirik</i> elkar- tea
18		Indarkeria matxistak	Tortura sexista estatu-indarkeriaren testuinguruan	23. B-I	<i>Bilgune Feminista</i> eta <i>Jaiki Hadi</i>
19		Indarkeria matxista	Feminizidioa	14. B-I	Asun Casasola eta <i>Lunes Lilas</i>
20		Indarkeria matxistak	Bikotekidearen indarkeria, erakunde-indarkeriari lotuta.	19. B-I	<i>Argitan</i> Emakumeentzako Aholku Etxea
21		Abortatzeagatik zigortzea	'Morín' kasuan (abortatzeko klinikak) inplikaturako emakumea	20. B-I	Iruñeako abortatzeko eskubidearen aldeko plataforma
22		Indarkeria ekonomikoa	Lan-indarkeria etxeko langilearen aurka	22. B-I	<i>Argitan</i> Emakumeentzako Aholku Etxea



23	Espainiako estatua	Indarkeria matxistak	Nazioarteko instantzia batek (CEDAW) Espainiako Estatua genero-indarkeriagatik zigortu duen lehenengo kasua	21. B-I	Women's Link Worlwide. <i>WLWW</i>
24		Indarkeria matxistak	Indarkeria ekonomiko eta sexuala, babesgabetasuna migratzaile izateagatik	13. B-I	Grupo de apoyo "Prava" contra la violencia institucional
25		Indarkeria matxistak	Ablazioa, bahiketa eta sexu-indarkeria, sexu-orientazioagatiko jazarpena	10. B-I	Grupo Valencia
26		Indarkeria matxistak	Indarkeria fisiko, soziala eta ekonomiko, emakume transsexuala izateagatik	11. B-I	Grupo Valencia
27		Indarkeria ekonomikoa	Lekualdatze behartua, presa baten eraikuntzarengatik	28. B-I	Observatorio de Multinacionales en América latina. <i>OMAL</i>
28		Indarkeria ekonomikoa	Indarkeria ekonomiko emakume nekazarien aurka	12. B-I	Sindicato Andaluz de Trabajadores. <i>SAT - Jaén</i>

6. METODOLOGIA KUALITATIBOA: BIZITZA-ISTORIOAK ETA IKERKETAREN FASEAK

Ikerketaren helburua ez da indarkeriaren analisi estatistikoa egitea; horren ordez, fenomenoan sakondu nahi da, emakumeen bizitzen koiuntura- eta egitura-eraginaren, kausen eta testuinguruaren elementuak aztertuta, eta indarkeriari aurre egiteko erantzun indibidual zein kolektiboak ikertuta. Horregatik, metodologia kualitatiboa ikerketarako egokiena zela erabaki zen. Metodologia honen bidez gizartearen errealitatea teorikoki eraiki eta empirikoki aztertu daiteke. Halaber, garrantzitsua da metodologia kualitatiboak alderdi objektibo zein subjektiboetan sakontzeko eskaintzen duen aukera. Horregatik, hain zuzen, ikerketa feminista askotan erabili izan da metodologia kualitatiboa.

Zehatzago, emakume elkarrizketatuen ahozko lekukotzen bidez eraikitako bizitza-istorioak tresna gisa erabiltzea proposatu zen.

6.1. Bizitza-istorioak: deskribapen laburra

Bizitza-istorioa (B-I) tresna kualitatibo egokienetakoa da testuinguru jakin bateko giza-esperientzia sakon ezagutzeko. Azterketa honen helburuekin koherentzian, bizitza-istorioak oso baliagarriak dira indarkeria mota asko zuzenean bizi izan dituzten emakumeen bizipe-nak ulertzeko eta ikusarazteko.



Bizitza-istorioek narrazioaren alderdi subjektiboak nabarmentzen uzten dute, emakumeek beren esperientziari erantsitako zentzuaren parte baitira. Beren esperientzian, ikuspuntu “kokatua” eskaintzen diguten ikusmolde pertsonalak partekatzen dira; kasu honetan, ikusmolde hori bat dator beren bizitzetan zehar indarkeria mota asko pairatu dituzten emakumeen ikusmoldearekin, eta balioa eta sinesgarritasuna ematen diogu horri. Bizitza-istorioak egitea ez da lan tekniko soila, eta are gutxiago indarkeriaren arloan. Aitzitik, sentiberatasuna eskatzen du, entzuten jakitea, konfiantza sortzea, errespetua, elkarrizketatua laguntzea gerta daitezkeen emozio-beherakadetan, norberaren mugez kontziente izatea elkarrizketan sor daitezkeen egoera kritikoak kudeatzeko, elkarrizketatuek proposatutako ikerketaren helburuentzako adierazgarriak diren elementuak hautematea, elkarrizketaren alderdiak errespetuz eta argitasunez adosten jakitea, elkarrizketa berriak abiatzeko gako-ideiak birkokatzea, etab. Garrantzitsua da narrazioa lineala eta kronologikoki ordenatua izango delako itxaropena ez edukitzea. Izan ere, elkarrizketatuarentzat garrantzitsuak diren gertakariak, pertzepzioak edo sentimenduak zeharka, modu zirkularrean edo bestela ager daitezke.

Gainera, litekeena da narrazioan indarkeriaren egiturazko eta kausazko faktoreak argi ez agertzea. Hartara, indarkeria sortu edo indartu duten alderdien inguruan ikertu beharko da, eta beharrezkoa izango da, halaber, identifikatzea erresistentzia eta aldaketa aktibatzen dituzten faktore pertsonalak edota sozialak.

Bizitza-istorioak erdi-egituratutako elkarrizketen bidez dokumentatu dira, “izen propioa” duten esperientziak ezagutzeko narrazioak eraiki eta jasotzeko, eta, era berean, narrazio horien bidez testuinguru zehatz bakoitzeko dinamikak, baldintzapenak eta botere-harremanak interpretatzeko analisi-markoa eskaintzeko. Sakoneko elkarrizketa erdi-egituratuarekin, helburua da diskurtso irekia eta askea sustatzea, baina oinarrizko gidoi batek zuzendutako prozesu baten bidez. Galderak irekiak dira eta narrazioa eratzen dute, eta teknikak entzuten jakitea eskatzen du, baita elkarrizketa-jarraibideak noiz bideratu behar diren jakitea ere. Sakoneko elkarrizketa eta bizitza-istorioa ezberdintzen dituen elementua da azken honek denbora-osotasuna duen marko autobiografikokoa lortzen duela, kasu honetan, indarkeriari aurre egiteari eta horren eraginei buruzkoa.

Azkenik, hasiera batean adierazgarrienak iruditu zaizkigun edukiak zerrendatu ditugu, bizitza-istorioak egitean kontuan hartzeko.

- a) *Eraginak eta bizipenak*: indarkeriarekin lotura duten gaitz nagusiak identifikatzea, interpretatzea eta esanahia ematea.
- b) *Inflexio-puntuak*: elkarrizketatuaren bizitzan aldaketak, hausturak, eta bestelakoak eragin dituzten gertakari edo ekitaldi garrantzitsuak identifikatzea, bai indarkeria gertaerekin lotutakoak eta baita bizitzaren bestelako alderdiekin lotutakoak ere (antolakuntza prozesuak, ahalduntzea, formakuntza espazioetan parte hartzea, etab.).
- c) *Interesak eta itxaropenak*: helburu indibidual eta kolektiboak identifikatzea (zapuztuak, eta, kasuaren arabera, berreskuratuak).
- d) *Aurre egiteko estrategiak*: indarkeriari aurre egiteko mekanismo indibidual zein kolektiboak identifikatzea.
- e) *Erakunde ezaugarrien pertzepzioa*: indarkeria gertaeren harira erakundeek emandako erantzun motak (edo erantzun faltak) identifikatzea.



- f) *Komunitatearen ezaugarrien pertzepzioa*: emakumeen egoerari lotutako talde- eta komunitate-dinamikak identifikatzea.
- g) Indarkeriari lotutako *ibilbideak identifikatzea*: norekin partekatzen diren gertatutakoak, zein zerbitzutara jotzen den, zein erantzun jasotzen den, zein laguntza jasotzen duten, etab.
- h) *Emakumeen minaren ordainaren eskaerak, pertzepzioak eta definizioak identifikatzea*: nola ulertzen duten, ematen dioten zentzua, haien arabera nola izango litzatekeen, edota zein neurri izan den/daitekeen lagungarria bizitako indarkeriaren aurrean.

6.2. Ikerketaren faseak

Kolonia, El Salvador, Guatemala, Euskal Herria eta Espainiako Estatuko 28 bizitza-istorioak dokumentatzeko prozesuaren faseak izan dira honakoak.

1. fasea: *Irizpideak definitu eta kasuak hautatu*

- Elkarrizketatzeko pertsonak, antolakunde parte hartzaileak eta dokumentatzaileak hautatzeko irizpideak definitzea.
- Hasierako proposamena aurkeztea, kasuak hautatzeko antolakunde parte hartzaileekin hitz egitea eta koordinatzea.
- Elkarrizketatu beharreko pertsonekin harremanetan jartzea, eta elkarrizketa egiteko baldintzak adostea, adibidez: anonimotasunik nahi duen; grabaziorik egiteko baimena ematen duen, eta baiezkotan, zer motatako grabazioa izango den; elkarrizketa egiteko zenbat bilera egin ditzaketen.

2. fasea: *Informazio-erregistroa planifikatu*

- Elkarrizketatzaileek elkarrizketarekin erlazionatutako alderdi bereziki adierazgarriak — testuingurua, prozesua, edukiak— jasotzeko landa-koaderno bat prestatzea.
- Elkarrizketatzaileek erabili behar duten erdi-egituratutako gida aurretiaz aztertzea.
- Elkarrizketatuekin bileren data eta ordua adostea.
- Prestakuntza logistikoak (garraioa, esaterako).

3. fasea: *Elkarrizketak egin*

- Elkarrizketaren une garrantzitsuak prestatzea: sarrera, garapena eta bukaera.
- Bilera bakoitzak 2 edo gehienez 3 ordu irautea aurreikusten dugu, nahiz eta elkarrizketatuen egoera emozionalak eskatzen duen denborara moldatu beharra dagoen. Elkarrizketa bakoitzeko batz beste bi bilera egongo direla uste da, kontuan hartuta lehenengo bileraren ostean debora beharko dela edukiak eta itxi gabeko kontuak aztertzeko.
- Elkarrizketak transkribatzea.

4. fasea: *Bizitza-istorioak aztertu eta eraiki*

- Elkarrizketen edukietara aurreneko hurbilketa.
- Alderdi garrantzitsuak berrirakurtzea eta aztertzea, elkarrizketatzaileei eskatutako sintesi-dokumentua pixkanaka eraikitzeko, dokumentu horrek islatuko baititu bildutako bizitza-istorioen elementu nagusiak.



- Bizitza-istorio bakoitzaren sintesi-dokumentua egitea. Dokumentu horiek analisi-dimentsioetako adituei emango zaizkie.

5. fasea: Azkeneko bost txostenak idatzi

- Azkeneko bost txostenak idaztea: txosten bana adostutako analisi-dimentsio bakoitzeko. Txostenek globalki eta trinko deskribatzen dituzte bildutako bizitza-istorioak, eta haien testuingurua azaltzen dute.

7. ERABILITAKO TRESNAK

7.1. Elkarrizketatuen datu-fitxa

ELKARRIZKETATUEN DATU-FITXA	
Izena:	Herrialdea:
Adina:	Egoera zibila:
Hezkuntza-maila/lanbidea:	Egungo lanbidea:
Seme-alabak:	Bizilekua:
Elkarteren batean parte hartzen du:	Indarkeria-ardatza:
Bestelako datu interesgarriak	

7.2. Elkarrizketaren gidoi orokorra

ELKARRIZKETAREN GIDOI OROKORRA
<p>Elkarrizketatzailea:</p> <p>Antolakundea:</p> <p>Elkarrizketa-lekua:</p> <p>Elkarrizketaren hasiera-data:</p> <p>Egindako bilera-kopurua:</p> <p>I. Edukiak</p> <ul style="list-style-type: none"> • Aurkezpena, sarrera, itxaropenak argitzea, konfiantzazko eta lasaitasunezko giroa sortzea. • Alderdi objektiboak biltzea: adina, jatorria, hezkuntza-maila, parte hartze politikoa, etab (nahiz eta datu horietako asko jada jasota egongo diren elkarrizketatua hautatzeko prozesutik. Berrikusi elkarrizketatuaren fitxa). • Proposatutako gaien lanketa: <ul style="list-style-type: none"> - Oroitzapenak, haurtzaroko gertakari garrantzitsuak, eta zergatik izan ziren garrantzitsuak. Nerabezaroko oroitzapen eta gertakari garrantzitsuak ere. - Elkarrizketaren analisi-ardatzari lotuta, bizitzan zehar pairatutako egoera zailak. (Jarraian datozen galderak ez dira zertan literalki egin behar, baina kontuan hartu behar dira narrazioan ager daitezen: Zein da kaltea? Noren aurka gauzatu zen? Nork gauzatu zuen? Zein testuingurutan?)



- Indarkeria egoerek ukitutako bizitza eremuak eta kalte-motak (zein eragin izan zuen indarkeriak?)
 - Egoera horiek eragin dituzten arrazoen inguruko pertzepzioak eta arrazoibideak (Zergatik gauzatu zen kaltea?)
 - Inguruko enreakzioarekin lotutako alderdiak (nola enreakzionatu zuen ingurune hurbilenak (familia; sare soziala)/erakundeek/bestelako eragile sozialek?)
 - Egoera gogor/bortitzei aurre egiteko moduak, eta prozesu horretan lagundu duten faktoreak (nola enreakzionatu zuen?)
 - Beren bizitzetan lagungarria izan dena/badena/izan daitekeenari buruzko pertzepzioak eta eskaerak, abiapuntu izanda ikuspegi interpersnala, komunitarioa, instituzionala.
- Bukaera prestatzea eta elkarrizketa ixtea.

II. Elkarrizketatuarekin ezarritako harremanari eta prozesuari lotutako alderdiak

- Ahal dela espazio egoki bat hautatzea, elkarrizketua eroso egoteko eta etenaldirik ez izateko.
- Elkarrizketatuaren oinarritzko datuak biltzea (datu-fitxakoak).
- Datuen erabilerearen isilpekotasun-bermea berriro errepikatzea.
- Nahiz eta elkarrizketatuak baimena eman lekukotza grabatu dadin, gomendagarria da aldi berean landa-koadernoan idaztea alderdirik aipagarrienak, edo gerora azterketa sakonago bat eskatzen dutenak.
- Narrazioa bat-batean moztea ekiditea.
- Teknizismoen erabilera ekiditea.
- Isiluneak errespetatzea eta interpretatzen jakitea; halaber, une zailak edo blokeo uneak bideratzen jakitea.
- Narrazioen gertaerekiko enpatia agertzea; egoerak arintzea ekiditea.
- Hurbiltasuna eta konfiantza lantzea; epaitzea, aholkatzea, umore desegokia, edo narrazioa txikiagotzea ekidin.
- Hitzeko zein hitz gabeko hizkuntzari garrantzia ematea (gorputzaren kokapena, begiradak, negarra, isiluneak, baiezko keinuak, irribarreak, gorputz-kontaktuaren egokitasuna edo egokitasun falta).
- Alderdi mingarrietan eragiteko eta sakontzeko modua zaintzea.
- Narrazioaren protagonismoa elkarrizketatuari ematea.
- Gertakari adierazgarriak kontuan hartzea.
- Elkarrizketatuari aitortzea indarkeriari aurre egiteko moduak esploratzean agertutako ausardia, eta bere burua berreraikitze gaitasuna.
- Laburbiltzea, ikerketaren helburuetarako gako diren ideiak argitzea, lekukotzan egon daitezkeen kontraesanak errespetuz eta kontuz adieraztea, elkarrizketatuari *feedback*aren laburpena eskatzea.



7.3. Kasu bakoitzaren sintesi-dokumentua egiteko gida

Elkarrizketa bakoitzaren transkripzioa (audio bidez grabatua) oinarritzko materiala izan da ikerketaren bost analisi-dimentsioen txostenak egin dituzten bost adituentzat. Hala ere, bitzitza-istorioei buruzko 4 eta 6 orrialde arteko sintesi-dokumentu bana eskatu zitzaizen dokumentatzaileei.

Lana errazte aldera, gida bat egin genuen dokumentatzaileentzako gomendio zehatzekin. Gidak helburu zuen oinarri komun bat ezartzea, batetik dokumentatzaile guztiek erabili zezaten, eta bestetik elkarrizketen punturik nabarmenenak identifikatzen lagundu zezan, adituen txostenen erredakzioari begira.

KASU BAKOITZAREN SINTESI DOKUMENTUA EGITEKO GIDA (DOKUMENTATZAILEAK)

- Bitzitza-istorioen *testuingurua* kokatzeko informazioa.
- Indarkeriazko *gertakariak* kokatzeko atala, elkarrizketatuaren indarkeria-ardatzari lotutako gertakariak nabarmentzeko. *Eragin* garrantzitsuenak identifikatzea.
- Elkarrizketan identifikatutako alderdi aipagarriak, indarkeria egoerak *sortu* eta *indartu* dituztenak (inguruarekin, erasotzailearekin, erakundeekin, etab. erlazionatuak).
- *Aurre egiteko estrategia* gisa sortu diren elementu aipagarriak, indarkeria egoerekin edota gertakariekin erlazionatuak (inguruarekin, erasotzailearekin, erakundeekin, etab. erlazionatuak).
- Elkarrizketatzaileek *ordain* gisa proposatutako elementuak nabarmentzea, eta kontuz ibiltzea prozesu honetaz harago doazen ordainei buruzko itxaropenak ez sorrarazteko.
- Posible balitz, *dimentsio* bakoitzarekin erlazionatutako puntu batzuk banaka nabarmentzea.
- Azkenik, dokumentu gehigarriak egongo balira interes bereziko kasu baten inguruko bitzitza-istorioa ulertzeko (adibidez, hedabideekin lotutakoak, etab.), kasu bakoitzari eranstea gomendatzen da.

7.4. Dimentsioen araberako txostenak egiteko gida

DIMENTSIOEN ARABERAKO TXOSTENAK EGITEKO GIDA (ADITUAK)

I. Kontuan hartu beharreko gakoak

- Ikuspegi feministaren zeharkakotasuna, eta botere patriarkalaren harreman-analisia.
- Identifikatzea emakumeen eskubideen urraketa egiturazko arrazoiak, eta horiek gainditzeko proposamenak eta neurriak.
- Emaitez eragin politiko eta instituzionala izateko asmoa, eta pedagogia sozialerako duten funtzioa.

II. Egitura proposamenak

- Sarrera, dokumentuaren edukia eta zentzua azaltzen duena.



- Dagokion analisiaren (fisikoa eta psikosoziala, kulturala, juridikoa, ekonomikoa edo mediatikoa) garapena, bizitza-istorioetan oinarrituta; horretarako, arreta eskaini behar zaie sortzen diren indarkeria formei, emakumeen bizitzetan duten eraginei, eta erresistitzeko —eta haien kasuan, indarkeria gainditzeko— dauzkaten gaitasun eta mekanismoei. Bizitza-istorioak azterketaren oinarri nagusia izanik, beharrezkoa izan daiteke txostenean bestelako informazio-iturri erabilgarriei erreferentzia egitea, indarkeria ulertzen laguntzeko kasu eta testuinguru bakoitzean. Bizitza-istorioek oinarri dituzte elkarrizketatutako emakumeen lekukotzak, eta beraz, komeni da analisiarekin batera elkarrizketen zati batzuk txertatzea, hitzez-hitzezko aipuei ezarritako kodea emanda.
- Erakundeetan eragiteko proposamenen, aholkuen edo gako-ideien garapena, eta gizarteko sektore ezberdinekin prozesu pedagogikoak garatzeko edukiak.
- Guztira, 25 eta 30 orrialde arteko luzera gomendatzen da (bibliografia eta balizko eranskinak barne hartu gabe).

7.5. Dokumentatzaileen etika-kodea

DOKUMENTATZAILEEN ETIKA-KODEA

Recuperando historias de vida para la defensa de los derechos de las mujeres proiektuaren parte da bizitza-istorioen dokumentazioa. Proiektu hau Mugarik Gabek sustatu du, aliatu izanik antolakunde feministak, emakume-antolakundeak eta Euskal Herriko, Espainiako Estatuko, Guatemalako, El Salvadorreko eta Kolonbiako zenbait kolektibo sozial. Prozesu honen guztiaren oinarri nagusia dira bizitza-istorioen bidez dokumentatzaileek jasotako emakumeen lekukotzak.

Horregatik, ikerketa honetan inplikaturako dokumentatzaileek honako konpromisoak hartzen ditugu:

- Dokumentazio prozesu guztiaren isilpekotasuna bermatzea
- Emakume elkarrizketatuen ongizatea zaintzea: tratu ona, espazio egokia, intimitatea.
- Elkarrizketatuen autonomia eta erabakiak errespetatzea, proiektuaren fase guztietan.
- Elkarrizketatuarekin adostea elkarrizketaren baldintzak: anonimotasuna, grabazioa, bilera kopurua, etab.
- Lanaren fase guztietan eta alderdi guztietan elkarrizketatuarekiko harremana zaintzea: hasiera, proiektuaren aurkezpena, helburuen argitasuna, eta bereziki, elkarrizketa bakoitzaren itxiera. Itxiera modu positiboan egin behar da, elkarrizketatuaren ekarpena balioetsiz, eta edukia zirriborro formatuan helaraziko zaiola ziurtatuz, argitaratuko den edukiari buruz erabakitzeak aukera izan dezan.

Elkarrizketatu bitartean, zehatzago:

- Isilpekotasuna bermatuko dela errepikatu, hala eskatu bada.
- Emakumeekin eta kontaktzen dituzten gertakariekin enpatia edukitzea, gertakariok garrantzitsuak direla adieraztea eta arintzea ekiditea, hurbiltasuna eta konfiantza lantzea, ez epaitzea, zenbait gertakari eta jarreraren zergatiak ulertzea, eta aholkuak, umore desagokia edo narrazioa txikiagotzea ekiditea.



- Hitzezko zein hitz gabeko hizkuntza kontuan hartzea, bai elkarrizketatzailearena bai elkarrizketatuarena (gorputzaren kokapena, begiradak, hasperenak, negarra, isiluneak, buruaz baiestea, irribarreak, gorputz-kontaktuaren egokitasuna edo egokitasunik eza).
- Isiluneak errespetatzea eta interpretatzen jakitea; halaber, une zailak edo blokeo neak bideratzen jakitea.
- Esperientzia partekatzeak eta narratzeak mina neurri batean arintzen lagundu dezakeela jakitea, betiere inguru positibo batean egiten bada.
- Alderdi mingarrietan sakontzeko eta eragiteko modua zaintzea, eta hori egitearen garrantzia ondo azaltzea.
- Entzuten jakitea, eta, aldi berean, elkarrizketa jarraibideak noiz bideratu edo zuzendu behar diren jakitea ere.
- Protagonismoa emakumeei ematea, gertakari adierazgarriak aintzat hartzea.
- Emakumeei ikusaraztea beren ausardia eta beren buruak berreraikitze gaitasuna, pairatutako indarkeria gorabehera.

Dokumentatzailearen sinadura Data Tokia

7.6. Antolakunde parte hartzaileen eta elkarrizketatuen baimen informatua

ANTOLAKUNDE PARTE HARTZAILEEN ETA ELKARRIZKETATUEN BAIMEN INFORMATUA

I. Ikerketari buruzko informazioa

_____ Elkarreak, antolakunde gisa, bere helburuen artean du emakumeen eskubideen defentsa eta indarkeriaren aurkako borroka, eta *Recuperando historias para la defensa de los derechos de las Mujeres* izeneko ikerketan parte hartzen du, Mugarik Gabe antolakundeak sustatua (www.mugarikgabe.org) *Enfrentamos todas las Violencias Machistas. Patriarkaturik gabe denok jabe* kanpainaren barruan, aliatu izanik antolakunde feministak, emakume-antolakundeak eta Euskal Herriko, Espainiako Estatuko, Guatemalako, El Salvadorreko eta Kolonbiako zenbait kolektibo sozial.

Ikerketa honen helburua da emakumeen eskubideen urraketan analisis sakontzea, hiru ardatz oinarri hartuta: *abortatzeagatik zigortzea, indarkeria matxistak eta indarkeria ekonomikoa*. Horretarako, Guatemalan, El Salvadorren, Kolonbian, Espainiako Estatuan eta Euskal Herrian indarkeria pairatu duten 28 emakumeren bizitza-istorioak aztertuko dira. Prozesu horretan, emakumeen lekukotzak dira interesgunea, eta haien bidez emakumeen ahotsak ikusarazi nahi ditugu eta duintasuna eman nahi diegu.

Azterketaren eta bizitza-istorioen helburuak —idatziz, hedabideetan eta foro publikoetan zabaltzeaz gain— honakoak dira:

- Indarkeria matxista ezberdinak identifikatzea eta azaltzea, munduko leku askotako errealitateak lotuko dituen ikuspegi global eta nazioarteko batetik abiatuta.
- Emakumeen eskubideen urraketak salatzea, praktika orokortua eta normaldua den heinean, eta estatuek ekintzaz edo egin ezaz onartua.
- Indarkeriaren alderdi masiboa eta sistematikoa salatzea, testuinguru askotako kasu zehatzak aurkeztuz.



- Emakumeen ahalduz kolektiboari ekarpena egitea, ekintza politiko feministaren bidez.
- Ekarpena egitea mugimendu feministaren aitortzari eta zilegitasun sozialari.
- Espazioak eta formak sortzea, emakumeek justizia alternatiboa eskuratu dezaten; tratu sexistarik, aurreiritzirik eta bazterkeriarik gabeko justizia.
- Indarkeria pairatu duten emakumeak indarberritzen laguntzea, isiltasuna apurtuz, eta beren indar indibidual zein kolektiboa berreskuratzeko ahotsa emanez.
- Herritarrengan haserrea eta arbuioa sorraraztea emakumeen eskubideen urraketan aurrean, eta elkartasuna sustatzea.
- Gomendioak proposatzea eta zabaltzea, erakunde publikoek eta bestelako eragile politiko eta sozialek beregain har ditzaten indarkeria matxisten aurkako borrokan.

II. Datuen erabilera eta isilpekotasuna

Ikerketa honetan lortutako informazioa eta datuak soilik ikerketarekin zerikusia duten helburuekin erabiliko dira; datuak ikerketarekin lotura zuzena duen lantalde teknikoak baino ez ditu ezagutuko.

Inolaz ere ez dira publiko egingo datu pertsonalak; datuen isilpekotasun osoa bermatuko da, eta baita lortutako informazioa erabiltzean etika guztiz betetzen dela ere.

III. Elkarrizketatuaren baimen informatua

Nik (), () urte eta lanbidez (), bizitokitza () eta nortasun-agiri bakarra () dudala, adierazten dut informatu nautela *Recuperando historias para la defensa de los derechos de las Mujeres* ikerketaren helburuen inguruan, zeina generoan oinarritutako indarkeriari buruzkoa den eta Mugarik Gabe antolakundeak (www.mugarikgabe.org) sustatu duen *Enfrentamos todas las Violencias Machistas. Patriarkaturik gabe, denok jabe* kanpainaren barruan, aliatu izanik antolakunde feministak, emakume-antolakundeak eta Euskal Herriko, Espainiako Estatuko, Guatemalako, El Salvadorreko eta Kolonbiako zenbait kolektibo sozial. Halaber, informatu naute prozesuan zehar niri buruz lortuko diren datuak erabiltzeko helburuez. Hartara, nire oniritzi osoa ematen dut elkarrizketatua izan nadin, eta berrikusi daitezkeen edozein pertsona edo erakunde publiko zein pribatuk niri buruz sortutako espediente administratibo zein judizialak eta fisiko edo elektronikoak, edo nire bizitzan zehar pairatu ditudan genero-indarkeria mota guztiak aztertzeko beharrezko dokumentazioa. Halaber, ikerketa honen prozesuaren parte gisa, baimena ematen dut espedienteak berrikustean edo elkarrizketak egitean aurkitutako elementuak eta frogak bitarteko magnetikoetan erregistratzeko.

Gainera, nire baimena adierazten dut aipatutako ikerketen emaitzak eta aurkikuntzen txostenak eta azterketak egiteko eta zabaltzeko, nazioarteko zein bertako edozein hedabideren bidez, barne hartuta kontzientzia hartzeko auzitegien gisako foro publikoak.

Aipatutako guztiarengatik baimena ematen diot _____ Elkarteari, eta halaber baimena ematen diot ikerketa honetarako pertsona aproposenak direla uste dutenen esku uzteko.

Jakinazten dut dokumentu hau osorik irakurri dudala, bere edukia ulertu dudala eta prest nagoela borondatez parte hartzeko.

Nire baimenaren berri emateko, _____ (e)n sinatzen dut, 201__ (e)ko _____ren __ (e)an.



8. PROZESUARI BURUZKO HAUSNARKETAK

Orokorrean, ikerketa ariketa orok dakar sakondu nahi diren alderdietara mugatu beharra, eta bestelako alderdi garrantzitsuak, ezinbestean, bidean uztea. Mugarik Gabek erabaki zuen 2013an Bilbon egin zen *Emakumeen Eskubideen Nazioarteko Auzitegian* landutako hiru indarkeria-ardatzekin aurrera jarraitzea: a) indarkeria matxistak, b) abortatzeagatik zigortzea eta c) indarkeria ekonomikoa.

Oso garrantzitsua da indarkeria kontzeptualizatzeko eta hari erreferentzia egiteko modua; areago Mugarik Gaberentzat, zeinak prozesu kolektiboen bidez, indarkeria sakonago ikertzearen egin duen. Horregatik, kasuak dokumentatu aurretik egindako eztabaidek, hain zuzen, helburu zeukaten indarkeria kontzeptualki kokatzen laguntzea definitutako hiru ardatzetan. Eztabaidetan eremu anitzeko emakumeek parte hartu zuten; mugimendu feminista, gizarte-antolakunde, sindikatu, unibertsitate, GGKE, erakunde eta hedabideetakoak. Aurretiko kontrasteak bilatzeko ariketa horrek lagundu zuen ikerketa honen oinarriak indartzen, nahiz eta eztabaiden helburuen artean ez egon adostasunak lortzea indarkeria ardatzen eta beren definizioen inguruan.

Ikerketa honetan zuzenean parte hartu zuten Kolonbiako, El Salvadorreko, Guatemalako, Espainiako Estatuko eta Euskal Herriko 17 antolakundek. Alde batetik, parte hartzea oso handia izan da, eta horri esker ezohiko ikerketa kolektiboko ahalegina egin ahal izan dugu. Gainera, antolakunde parte hartzaileak oso anitzak dira ibilbideari, lan-ildoei eta jatorriari dagokionez, eta horri esker indarkeriaren aurkako borrokan oso aberasgarriak diren ikuspuntu, esperientzia eta perspektibak jaso dira. Bestalde, hainbeste antolakunde feministek parte hartzeak adierazten du kontzientzia dagoela emakumeen eskubideen defentsarako aliantzak indartzeko beharraren inguruan.

Oinarrizkoa izan da Mugarik Gaberen eta beste antolakunde parte hartzaileen arteko konfiantza politikoa, ikerketa egiteko eta parte hartze handia bermatzeko. Lan honen bideragarritasun politikoa eta teknikoa erraztu duen beste faktore bat izan da indarkeriarekin lotutako epe luzerako estrategia baten parte dela. Ikerketa hau sortu zen *Emakumeen Eskubideen Nazioarteko Auzitegia. Viena +20, Euskalerrria 2013* proiektuaren harira, eta era berean, *Enfrentemos todas las violencias machistas. Patriarkaturik gabe, denok jabe* kanpaina indartzen du, 2010etik Mugarik Gabek martxan daukana. Estrategiak analisisa eta ekintza politiko feminista nahasten ditu, eta horrela, ikerketa hau kokatzeko balio duten ikerketa-ekintza prozesuak sortzen ditu.

Hainbeste antolakundek eta testuinguru ezberdinetatik datozenek parte hartzeaz gain, esan beharra dago haietako askorekiko distantzia geografikoa muga bat izan dela, bi zentzutan gutxienez. Batetik, antolakunde eta pertsona parte hartzaile guztien aldetik *feedback* iraunkorragoa egotea galarazi du; esaterako, definitutako indarkeria-ardatzen edukien inguruan, hautatutako analisi-dimentsioen inguruan edo kasuen testuinguru zehatzari lotutako alderdien inguruan. El Salvador, Guatemala eta Euskal Herriko kolektiboekin hasieran aurrez aurreko bilerak egin ziren, baina ezin izan zen hala egin Kolonbiako eta Espainiako Estatuko kolektibo batzuekin. Kasu horietan bilerak Skype bidez egin genituen. Skype bidezko bilerak eta posta elektronikoa eta telefono bidezko komunikazioa izan dira prozesu guztia koordinatzeko moduak.

Bestalde, distantzia geografikoak zaildu du Mugarik Gabek, proiektuaren sustatzaile gisa, elkarrizketatuak zuzenean zaintzea eta laguntzea, baita dokumentatzaileak zaintzea ere,



entzundako indarkeria istorioak jaso eta prozesatzeko prozesuan. Horregatik, antolakunde parte hartzaileek halako esku hartzeetan duten eskarmentura jo genuen. Izan ere, antolakundeok harreman zuzenagoa dute elkarrizketarekin eta dokumentatzaileekin, eta halako ikerketa batek dakartzan inplikazio pertsonalak kontuan hartu dituzte.

Kasuen dokumentazio prozesuari dagokionez, marko metodologikoari buruz egindako hasierako behaketen artean, aipatu zen tentsioa egon litekeela dokumentatzaileak eta elkarrizketatuak hurbileko pertsonak baldin baziren, bion jarduna oztopatu zezakeelako. Halaber, bestelako iritzi batzuek balioesten zuten, hain zuzen ere, dokumentatzaile eta elkarrizketatuen arteko hurbiltasuna eta elkar ezagutza, argudiatua horrek konfiantza handiagoa bermatzen duela, eta istorio pertsonal mingarrian beste behin murgiltzeak dituen eraginak arindu ditzakeela. Dena dela, kasuak hautatzeko hasierako irizpideek agindu bezala, antolakunderen baten babesa zuten emakumeak hautatuko ziren; izan ere, arduragabekeria litzateke ikerketan zehar eta ondoren behar bezala laguntzerik egon ez den pertsonak tartean sartzea.

Elkarrizketetan lortutako informazioari eta bizitza-istorio bakoitzaren sintesi-dokumentuei dagokienez, metodologia eta gomendio-gida bera jarraitu arren, ezberdintasunak egon dira bizitza-istorioen sakoneran eta irismenean. Dokumentatzaileek oso lan konplexua egin dute; izan ere, kasu bakoitzean proposatutako bost analisi-dimentsioekin lotutako oso elementu anitzak kontuan hartzeko ardura zeukaten. Hau da, eragin fisiko eta psikosozialaren analisiari lotutako alderdiak identifikatu behar zituzten; testuinguru eta eragin kulturalarekin erlazioatuak; indarkeria istorioaren faktore ekonomikoekin zerikusia zutenak; kasuari lotutako alderdi juridiko eta legalekin lotuak; eta hedabideek egindako kasuaren tratamendurekin erlazioatuak. Logikoa denez, bizitza-istorio batzuek elementu batzuk gehiago nabarmentzen dituzte, eta horrek, zentzu handi batean, zerikusia du kasu bakoitzaren zehaztasunekin, baina baita elkarrizketatuek beren istorioen alderdi batzuk sakonago lantzeko agertu duten prestasunarekin ere.

Beharbada, errazagoa izango litzateke lana dimentsio bakarrean ardaztea, baina proiektu honen helburuak emakumeen eskubideen urraketen egiturazko kausak eta eraginak aztertzea izan da. Horregatik, prozesuak aldi berean begirada ardaztua eta integrala edukitzea eskatu digu, indarkerian aldi berean eragiten duten faktoreen elkarlotura identifikatzen saiatuz.

28 bizitza-istorioak bildu dituztenen ahaleginari gehitu behar diogu adituen ahalegina, ikerketa honetarako interesgarriak diren dimentsio bakoitzeko bost txostenak egin baitituzte. Txosten guztien aberastasunean islatu dute 28 bizitza-istorioen irakurketa egiteko izan duten gaitasuna eta, hortik abiatuta, bakoitzaren espezialitatearen arabera analisia egiteko ahalmena. Hala ikusi dugu, baita hasiera batean analisia egiteko elementu gutxiago izan zezaketen dimentsioekin ere; agian argiagoa da hori dimentsio mediatikoarekin, 28 kasuetatik soilik 3k izan baitute tratamendu zehatza hedabideetan.

Bost dimentsioak banaka landu dira analisi espezializatua errazteko, nahiz eta agerikoa den elkarrekin lotuta dauden bizitzaren alderdiak direla, eta ezin ditugula guztiz ulertu baldin eta uste badugu konpartimendu itxiak eta harremanik gabekoak direla.

Txostenak 28 bizitza-istorioetan oinarrituta gauzatu dira, baina ikerketa honetan kasu bakoitza garrantzitsua izan da bere horretan, eta esperientzia bakar gisa tratatu da. Horre-



la, nahiz eta txostenei esker 28 kasuetan errepikatzen diren indarkeria-ereduak identifikatu ditzakegun, dokumentazio prozesuan oso garrantzitsua izan da bizi esperientzien eta emakumeek emandako esanahien tratamendu indibiduala, honako kontzeptuei: indarkeriaren eragina, justizia eta minaren ordainaren nozioa, erakundeek jokatutako paperaren pertzepzioa, antolakunde feministak, hedabideak, etab.

Bizitza-istorioen bidez, elkarrizketatuen hitzari eta egiari balioa eman nahi izan diogu. Horrela, prozesu honen xedea izan da bizi izandako indarkeriak ikusaraztea, esperientziak kontakizunetatik abiatuta ulertzea, erasotzaileen helburuak eta *modus operandi*ak identifikatzea, indarkeriaren mekanismoak desmuntatzea, indarkeria prebenitzeko proposamenak egitea, eta emakumeentzako erantzun instituzional eta sozial hobea eratzea.







2. KAPITULUA

Dimentsio fisiko
eta psikosoziala

NORMA VÁZQUEZ GARCÍA

Mexikon 1960an jaiotako feminista. Bilbon 18 urte daramatza bizitzen, eta El Salvadorreko gerraostearen lehenengo 6 urteak ere bizi izan zituen. Psikologia lizentziaduna da. Psikologia soziala eta terapia elkartzen ditu, emakumeekin batez ere. Indarkeria matxistaren adierazpide guztiak dira bere interes- eta ekintza-guneak. 2003an Sortzen aholkularitza-enpresa eratu zuen, indarkeria matxistaren eta emakumeen ahalduntze prozesuen ingurukoa.



1. SARRERA

Txosten hau analisi orokorrako baten parte da, mota askotako indarkeria matxisten ingurukoa, eta giza eskubideen urraketak 28 emakumeren istorioetan hartzen duen garrantziari buruzkoa. Emakume horiek Kolonbian, Guatemalan, El Salvadorren, Euskadin eta Espainiako Estatuko beste erkidego batzuetan honako egoerei egin diete aurre: elkarrizketatuak 20 eta 84 urte bitarteko emakumeak ziren, baina hirutik batek haurtzarotik bizi izan du indarkeria; haietako 22 ama dira; eta gehienek bakarrik edo familiaren laguntzaz hazi izan dituzte seme-alabak, haien aitak, bederatzi kasutan, haien amen erasotzaile edo bortxatzaileak ere badirelako.

Emakume gehienentzat zaila da bizi izandako indarkeria eta horrek gorputzean izan dituen eraginak kontatzea. Igarotako denbora gorabehera, erronka bat da indarkeriazko esperimentzia gogora ekartzea, nahiz eta narrazio hori beti ez den bi aldiz biktimizatzaile edo traumatikoa. Izan ere, mina, azterna fisiko zein psikologikoa, umiliazioa eta izua eragin zituzten gertakariei izena jartzea, errealitatera ekartzea da; hartara, errazagoa da gertakarioi aurre egitea, aztertzea eta norberaren bizitza-istorioan barneratzea. Baina gertakarioi aurre egiteko eta bizitako indarkeriaren narrazioa osatze-prozesu indargarri bat izan dadin, beharrezkoak dira itxaropena, babesa eta indarra; eta baliabide horiek ez dituzte, edo ez dituzte izan, indarkeria-istorioak kontatzeko prest agertu diren 28 emakumeek. Hortaz, indarkeriak emakume horien gorputzetan utzitako aztarnak aztertzea ez zaie batere erraza gertatu, ez emakumeei ezta haien istorioak bildu dituztenei ere.

Indarkeriak gorputz horietan izandako eragina aztertzea hartu nuen helburutzat; gorputzok, beren alderdi biologiko, psikologiko eta sozialaren intersekzioan, pairatutako indarkeriaren ondorioz eta norberak eman ahal izan duen erantzunaren arabera, eraldatzen den subjektibotasun bat eraikitzen dute. Gorputz horiek ulertu eta azaldu nahi nituen, "bizipenen, desiraren, gogoetaren, erresistentziaren, inkonformismoaren eta aldaketa sozialaren" tokia izango balira bezala, "hainbat bidegurutze ekonomiko, politiko, sexual, estetiko eta intelektualetan" (Eteban 2004: 04).

Hala ere, azterketa horri heltzean zenbait zailtasunekin egin nuen topo, eta garrantzizkotzat jotzen dut horien berri ematea, beren gorputzetan indarkeria pairatu duten emakumeei ahotsa ematearen lan beharrezko zein garrantzitsuaren mesedetan, eta beren bizitzetan indarkeria barneratzeko moduak hobetze aldera.

2. EMAKUMEEN ZAILTASUNAK BIZITAKO INDARKERIA-ISTORIOAK ONARTU, IZENDATU ETA DOKUMENTATZEKO

Beren bizipenak kontatu dituzten emakumeek zein bizipenok jaso emakumeek, ezin izan dute sakon aztertu indarkeriak emakumeen gorputz bortxatuetan izan dituen eragina, ebo-luzioa eta aztarnak. Honako hauek dira zailtasun hori azal dezaketen arrazoietakoz batzuk:

- Emakumeok gure gorputzei ematen diegun garrantzi txikia edo garrantzirik eza, eta, ondorioz, gorputzei gertatzen zaiena eta indarkeriak nola eraldatzen dituen kontzientzian atxikitze zailtasuna.
- Gertakari traumatikoen eragina. Horrek indarkeriak arriskuan jartzen duen bizitza edota osotasun pertsonala babesteko joera du, bizi izandako arriskua ahaztuz, ukatuz edo aintzat ez hartuz.



- Bizitako indarkeriaren ondorio diren bizi-premiak: beste pertsona batzuen zaintza, ihe-saldiak, desplazamenduak edo bestelako galerak. Premia horiei lehentasunez erantzuteko beharra edo nahia dago, norberaren buruaren zaintzari denbora gutxi edo ezertxo ere ez eskaintzen zaiolarik.
- Dokumentatzaileen aldetik, istorio horiek beren alderdi guztietan jasotzeko lan eskerga; ziurrenik, horrek ekarri du alderdi ez hain mingarriak edo hobeto ezagutzen zituztenak azpimarratzea. Hartara, nahiz eta metodologia bera jarraitu, emaitzak ezberdinak dira biktimen gorputzetan indarkeriak izandako eraginaren sakonerari dagokionez.

Zailtasun horiek eragina izan dute arlo horren inguruan egin ahal izan den analisisian; izan ere, narrazioetan hutsune asko daude, bereziki indarkeriaren ondorio fisikoei lotutakoak. Halaber, badaude hainbat alderdi, gai jakin batzuk saihestu nahian, elkarrizketen aurretik edo bitartean biktimen isiltasunaren edo ohartarazpenen bidez sumatu baino ezin direnak. Ez dut uste hori lan honen arazo berezia denik; izan ere, emakumeen gorputza beti egon baldin bada desjabetua, ukatua eta besterendua, areago egongo da pairatutako indarkeria kontatzen duten emakumeen kasuan.

Gorputz horiek umiliatu, bortxatu, jipoitu, bakartu, gaizki tratatu, espetxeratu eta behartu egin dituzte, fisikoki, psikologikoki, ekonomikoki eta sinbolikoki, eta ez behin bakarrik; gutxienez zortzi istoriotan, esplizituki onartzen da indarkeria haurtzaroan eta familiaren baitan hasten dela, eta, hortaz, jaso ditugun geroagoko indarkeriazko gertaerek aurretiko tratatu txarren esperientzia bat dute atzean, edota horren normalizazioa. Gainera, beste bost kasutan argi geratzen da familian jokaera-eredu zurrinak nagusitzen direla, emakumeak rol tradizionalak betetzera behartzen zituztenak kontrol zorrotz baten pean (etxea eta neba-ahizpak gazteagoak zaintzea, beren premiak aintzat ez hartzea edo baztertzea, haien mugikortasuna kontrolatzea, obediencia exijitzea, etab.).

Orrialde hauetan aztertutako 28 bizitza-istorioak emakume sentiberek jaso dituzte, istorio horien testuinguruaren jakitunak, elkarrizketatzaile trebe eta enpatikoak, eta beraiengan konfiantza izan dute horiek mindu nahi ez dituztenak. Horregatik errespetatu egin dituzte narrazioen isiltuneak, batez ere, bereziki mingarriak diren xehetasunak gogoratzean; esaterako, indarkeriaren esanahia gorputzean, kontrola eta sintoma, gaixotasun, ondorio fisiko zein emozional bihurtu den izua, besteak beste. Ondoz horiek sakon aztertzean, osatze-prozesuekiko errespetua lehenetsi da, eta erabaki hori gogoan izan behar dugu beti, indarkeriazko istorioak biltzen lan egiten dugun bakoitzean. Izan ere, askotan babes gisa erabilitako isiltasuna apurtzeaz ari gara, eta hori errespetuz eta kontu handiz egin behar da.

Bestalde, zenbait istoriotan ikusi da narrazioaren zein entzulearengan beldurrak badi-rauela, indarkeriak ezkutuan jarraitzen duelako, erasotzaileak zigorrik gabe jarraitzen duelako, minak eta amorruek bizirik dirautelako ihes egitea ezinezkoa den testuinguruetan, eta, zenbaitetan, indarkeriaren aurrean babestea ezinezkoa denean.

Indarkerien istorioak eraikiz goazen heinean eta emakumeek beren gorputzen kontrola berreskuratu ahala, indarkeriak gorputzean utzitako aztarnak sakon ezagutu ahal izango ditugu, eta jakingo dugu nola eraiki eta berreraikitzen den gorputza bizipen horietatik abiatuta. Horixe egin ahal izango dugu, halaber, emakumeak sendatu, osatu eta laguntzeko espazioak existitzen badira, baita erasotzaileen inpunitatea desagertzeko (edo murrizteko, bederen) babesa baldin badago ere. Bien bitartean, biktimen eta beren laguntzaileen energia gehiena



oinarrituko da emakumeak babestean eta indarkeria egiturazko, sinboliko eta pertsonarteko horiek salatzean, munduan ehunka mila emakumeren bizitza eta osasuna suntsitzen ari diren indarkeriak, alegia.

3. INDARKERIAREN DEFINIZIOEN MUGAK BIKTIMEN BIZIPENAK BILTZEKO

Emakumeok munduan pairatzen dugun indarkeria izendatzeko moduari buruzko eztabaidaz harago, 28 bizitza-istorio hauetan agerikoa da mugak egon badaudela definitzeko, modu edo adjektibo bakar batez, bizitza oso batean zehar izandako bizipen konplexuak eta tratu txarrak bizitzeko modu ezberdinak. Hautatutako narrazioak aintzat hartuta, gure buruari honakoa galdetu ahalko genioke: Zein da besteen gainetik nagusitzen den indarkeria mota? Eta, nahiz eta istorio batzuetan posible dugun indarkeria mota ezberdinen kronologia eta indarkeria gauzatzen duten horiek identifikatzea, ia ezinezkoa da definitzea indarkeria horietako bakoitzak protagonisten gorputzean uzten dituen aztarnak. Beste istorio batzuetan, aldi berean gertatzen dira indarkeriazko bizipenak, eta horrek emakumearen lesio fisiko eta emozionalak eragin dituen indarkeria mota identifikatzea eragozten du.

Osasunaren Mundu Erakundeak (OME) idatzitako Indarkeriaren eta Osasunaren Mundu Txostenak, "indarkeria hiru kategoria nagusitan sailkatzen du, indarkeriazko ekintzaren egilea zein den: norbere buruaren aurkako indarkeria, pertsonarteko indarkeria eta talde indarkeria. Hasierako sailkapen horrek ezberdindu egiten ditu, batetik, pertsona batek bere buruari egiten dion indarkeria; bestetik, pertsona batek edo pertsona-talde txiki batek egindakoa; eta, azkenik, talde handiagoek egindakoa, direla Estatuak, antolatutako talde politikoak, miliziak edo erakunde terroristak" (OME, 2002: 5).

Salbuespen dira bizi izandako indarkeria hiru kategoria horietako bakarrean sar dezaketen bizitza-istorioak. Gorago aipatu denez, zortzi istoriotan, narratzaileek identifikatu eta deskribatu egin dituzte haurtzarotik familiaren baitan bizi izandako indarkeriak (pertsonarteko indarkeria); hiru istoriotan, biktimek ideia eta saiakera suizidak izan dituzte (norberaren buruaren aurkako indarkeria); eta kasu horietako bakar batean ere ez da salaketarik jarri, biktimek sentitu dutelako ez zutela inolako laguntzarik jasoko, eta, areago, kaltegarria gerta litzatekeela beren bizipenak publiko egitea, hau da, talde indarkeria paira zezaketela egin ezaz.

Beren buruaz beste egiten saiatu zen emakume horietako batek lortu izan balu, non islatuko zatekeen heriotza horren erantzukizun kolektiboa? Hiltzera iritsi ez, baina tratu txarrak eman zizkieten haiengan? Jakina, emakumeek pairatzen duten indarkeriak haien osasun fisiko eta mentalean dituen ondorioak aztertzean, kategoria moral edo judizialak ez dira nahikoa, eta, batzuetan, ezta baliagarriak ere. Gorputzak indarkeria mota guztiak jasotzen ditu, eta horietako bakoitzak aztarnak uzten ditu, erresistentziak sortzen eta nahimenak hondatzen. Nola jakin dezakegu ziurtasunez buruko min kronikoa jipoiak jasotzearen ondorio den ala jipoiaren aurretiko beldurra den, zeinei emakumeek ubeldurak —larruazaleko ageriko aztarnak— baino ez dizkieten egotzen? Edo, nola jakin buruko min hori ez ote den gorputzak duen modua adierazteko pilatutako tentsioa ezin duela gehiago jasan?

Galdera horiek ez dute erantzun zuzen eta egiazkorik 28 istorioen analisian, eta ez dute izango harik eta emakumeok gure gorputzen historiografia eraiki eta gorputzok indarkeria mota ezberdinei erantzuteko berezko modua eraikiz joan arte. Bien bitartean, lesioak, sin-



tomak eta ondorioak deskriba eta sailka ditzakegu, indarkeriaren eraginaren berri ematen saiatzeko.

Dokumentatzaileek edota proiektuaren erakunde arduradunek “indarkeria nagusiaz” egin duten sailkapena, zeinaren inguruan egituratzen baitira elkarrizketatutako emakumeen testigantzak, ez dator guztiz bat alderdi horren azterketaren beharrekin. Horregatik, nahiago izan dut 28 istorioetako indarkeria-bizipen bakoitza labur deskribatu; izan ere, elkarrizketa guztiak ez dira berdin garatu dokumentatze lanean.

28 bizitza-istorioen irakurketaren irakaspen garrantzitsu bat “biktima” kontzeptuaren muga da, pertsona bakarrari aplikatuta; kasu honetan, bere istorioa kontatzen duen emakumea. Egiaztatu dugu emakumeak pairatzen duen indarkeriak eragina duela haren inguru hurbilean, haren familian, edozein dela ere familiaren osaera. Alabaren erailketa¹ bizi izan duen ama ere biktima bat da, eta halaxe ulertzen dugu istorio hauetan; aldiz, ez da berdin hartzen bere burua zauritzen duen neska bat, jakiten duenean, familiakoa ez izanik ere, familian aginpide aitortua duen gizon batek haren ahizpetako bi sexualki behartu dituela. Emakume hori ez da biktima zuzen gisa agertuko, baina bera da gorputzean minaren aztarnak sakonkien sufrituko dituena, eta bera da, ziurrenik, paper adierazkorra hartu duena bere ahizpen beldurraren eta isiltasuna aurrean. Baina istorio hori ez da argi ageri, agian oraindik analisi hertsiki indibidual baten preso garelako, benetan indibiduala ez den bizipen baten preso, nahiz eta sistemak horrela erakutsi nahi duen.

28 kasuetan aurki ditzakegu aitak edo amaren bikotekideak amaren aurka egindako indarkeriaren biktimak diren seme-alabak (haur horiek ez dira beti biktimatzat hartzen, eta askotan haiek ere erasotzaile bihurtzen dira); indarkeriaren eragina pairatzen duten neba-ahizpak; funtsezko laguntza diren amonak, ilobak, lagunak. Haien bizipenak ozta-ozta sumatzen ditugu baina, jakin daitekeenaren arabera, bizipen lazgarriak izan dituzte.

Indarkeriaren biktimak gehiago dira, testigantza eman duten 28 emakumeak baino askoz gehiago. Ziurrenik, horietako askok ez dute biktimak direlako kontzientzia ere, eta inork ez ditu halakotzat jo. Biktima ikusezinak izango dira, beraz, eta beren ondoezak xehetasunik gabeko sintomatologia bihurtuko dira, azalpen argirik gabek, eta, ziurrenik, tratamendu egokirik gabek.

4. INDARKERIAREN ERAGIN ETA ONDORIO FISIKO, PSIKOLOGIKO ETA SOZIALAK

Gorago aipatu dugunez, indarkeriaren biktima izan diren emakumeek ez dute beti erregistratu eraso baten berehalako eragin fisikoa, edo zaila gertatzen zaie kontatzea. Batzuetan, bizi izandako indarkeria normalizat hartzen delako neurri handi batean, eta izendatu ere ez dute egiten; bestetan, indarkeria hori ez onartzea eta azaleratzea biziraupen-estrategiaren parte da. Edonola ere, zenbait kasutan, indarkeria-testuinguruak zaildu edota eragotzi egiten ditu oinarrizko diren hainbat alderdi (hala nola, sexu-eraso edo jipoi baten osteko mediku-laguntza), laguntza eza pentsaezina den egoeretan, alegia.

¹ Ez dut erabiltzen heriotza horiek epaituak izan zireneko hitz juridikoa, baizik eta amek beren bizipenetik hurbilen topatzen duten kontzeptua.



Zaila da indarkeriaren lehenbiziko eragina aitortzea; aldiz, denboraren joanarekin geratzen diren ondorio fisikoak, eta gorputzean azterna uzten dutenak (gorputzaren funtzionamendu erregularrean, alergiak, infekzioak, pisua, sexu-adierazpena, elikadura motak eta mendekotasunak, besteak beste) ia ez dira erregistratzen, ez komentatzen. Emakumeen testigantzetan muturreko kasuak ditugu: batetik, denboraren joanean osasun fisikoan agertzen diren ondorioak, indarkeriari lotutakoak; bestetik, indarkeriarekiko lotura horren blokeoa, eta ondorio fisiko horiek denborari edo adinak okertutako osasunari egoztea.

Indarkeria konplexua, gaizki erantzuna eta antzematen zaila den neurrian, eta, zenbaitean, onartzen zaila ere bai, hurbilduz joango gara berehalako ondorio fisikoen eremura. Ondorio horiek aztertzeko sailkapen bat hautatu dut, non ardatza bizi izandako indarkeriaren erantzulearengan dagoen; horrek esan nahi du, kasu batzuetan, argi egongo dela taldea edo testuingurua direla indarkeriaren erantzuleak; beste kasu batzuetan, aldiz, errazagoa izango da erantzule indibidualak identifikatzea.

Horrek ez du esan nahi erantzule indibidual bat dagoenean ez dagoenik testuinguru permisibo bat, edo, testuingurua nabarmentzen denean ere, erantzule bat ez dagoenik. Hala ere, garrantzitsua deritzot hori zehazteari, argitze aldera erantzukizun hori identifikatzeak eraginik ote duen indarkeriaren ondorio fisiko, psikologiko edo sozialetan.

Norberaren buruaren aurkako indarkeria inola ere ez dut kategoriatzat hartu. Izan ere, nire ustez, lesioek, norbere buruaz beste egiteko asmo eta saioek, ez diete patologia indibidualak erantzuten; aitzitik, bizi izandako edozein indarkeria motaren ondorio dira.

4.1. Testuingurua indarkeria denean

Jarraian aztertuko ditugun lau bitzita-istorioek testuingurua dute komunean, non esplotazio, mendekotasun, nagusikeria eta babesgabetasun egoerak ematen diren.

12. B-I		
Herrialdea: Espainia	Adina: 79 urte	Indarkeria mota: Indarkeria ekonomikoa. Normaldutako esplotazioa eta mendekotasuna.
Berehalako eraso edota eragin fisikoak:	Ez dira deskribatu.	
Ondorio fisikoak:	Ez dira deskribatu.	
Eragin eta ondorio psikologikoak:	Ez dira deskribatu.	
Bestelako eragin eta ondorioak:	Pobrezia, mendekotasuna, gizarte bazterketa.	
24. B-I		
Herrialdea: El Salvador	Adina: 22 urte	Indarkeria mota: Ospitalean atxilotua abortatzeagatik. Erakunde-indarkeria epaiketan zehar.
Berehalako eraso edota eragin fisikoak:	Odol galera handia; ondorioz, bere bitzita arriskuan egon zen. Bi legratu egin zizkioten.	



Ondorio fisikoak:	Sei hilabete behar izan zituen sendatzeko.	
Eragin eta ondorio psikologikoak:	Umiliazio eta irainak osasun-langileen aldetik; bereziki, ospitaleko psikologoaren aldetik. Tristura alabaren heriotzagatik eta berezko abortuarengatik egotzitako erruarengatik. Ez zioten alabaren gorpua eman, ezin izan zuten ehortzi. Epaiketan zehar antsietatea izan zuen, bera nahasten saiatzen baitziren. Beldurra, espetxean egon bitartean.	
Bestelako eragin eta ondorioak:	Oinarririk gabe, bere aita akusatu zuten haurdunaldiaren arduraz. Espetxean dago. Hortaz, urruti du bere erreferentziako testuinguru soziala, nahiz eta familiarikoen eta lagunen bisitak jasotzen dituen.	
25. B-I		
Herrialdea: Kolonia	Adina: 55 urte	Indarkeria mota: Bahitua bere bizilekuko operazio militar batean.
Berehalako eraso edota eragin fisikoak:	Ez du aitortu bahiketaren hiru egunetan tratatu txar fisikorik jaso zuenik.	
Ondorio fisikoak:	Ez dira deskribatu.	
Eragin eta ondorio psikologikoak:	Agorafobia; berarekin batera bahitutako bizilagun baten bortxaketa, erailketa eta laurdenkatzea ikusteak eta bahiketak berak ekarritako beldurrak. Psikiatrian ospitaleratzea espetxetik irtendakoan.	
Bestelako eragin eta ondorioak:	Desplazamendua, bakartzea, familiarengandik banantzea.	
28. B-I		
Herrialdea: Espainia	Adina: 65 urte	Indarkeria mota: Migratze behartua
Berehalako eraso edota eragin fisikoak:	Ez dira deskribatu.	
Ondorio fisikoak:	Ez dira deskribatu.	
Eragin eta ondorio psikologikoak:	Larrimina, estresa eta beldurra, 14 urterekin Bartzelonara bizitzera joan behar izateagatik, bere familiarengandik urrun, betidanik herrian bizi ostean.	
Bestelako eragin eta ondorioak:	Bere herria eta jendea utzi behar izatea. Bere gurasoengandik urruti bizitzea. Hirian emandako lehen urteetan jendearekin erlazionatzeko zailtasunak izatea.	



Istorio horietako bi (12. B-I eta 28. B-I) ez dira garaikideak: protagonistek, hurrenez hurren, 79 eta 65 urte dituzte gaur egun. Beren narrazioek iraganari egiten diete erreferentzia; kasu batean ere ez da pertsonarteko indarkeriarik aipatzen, hau da, orduko eskubideen murrizketa egoerak pairatu zituzten garai eta leku jakin batean bizitzeagatik. Bi kasuetan, berehalako lesioak eta ondorio fisikoak ez dituzte lotzen beren esperientziarekin; 28. istorioan identifikatutako lesio psikologikoak migratze behartuarekin lotuta daude, eta inguru ezezagun batera heltzeak sortutako estresarekin. Dena den, bi kasuetan nabarmena da erresistentzia gaitasuna, eta, migratze istorioan, ikusi da protagonista ongi moldatu zela herriak baino aukera gehiago eskaini zizkion testuinguru berrira. Emakume horiek ez dute beren burua indarkeriaren biktimatzat, baina bai garai jakin bateko protagonistatzat, non uste duten emakumeen mendekotasuna oraingoa baino muturrekoagoa zela.

“Norberaren eskubideak eta duintasuna borrokatu behar dira, txikitzen bazaituzte dena galtzen duzu, ez baduzu zurea den horrengatik borrokatzen, ba dena galtzen duzu, eta egun batean trapu zahar bati bezala begiratzen zaituzte, jauna, norberaren duintasuna eta eskubideak borrokatu behar dira. Zuk eskubide hau baldin baduzu, zergatik kenduko dizut nik? Ene. Badirudi guztiz izututa gaudela, lo seko, ez dakit, lehen... Gure garai horretan ez ginen ezeren beldur” (12. B-I).

“Niri hori deigarria egin zait desjabetze-kontratuen kontuan, emakumeak hor hitzik ez izatea, etxeko gizonaren eta enpresako ingeniariaren arteko zerbait izatea. Desjabetze-kontratuak begiratzen baditugu, alargun ziren emakumeak baino ez dira agertzen, nahiz eta jabeak beraiek izan, kontratuan gizonak ageri dira, beharbada emakumeentzako beste paper bat baino ez zelako” (28. B-I).

Migratze behartuaren istorioan, protagonistak eragin emozional handiagoa identifikatzen du bere amarengan. Ama nagusiagoa izanik, amaiera arte eutsi zion bere herriaren inbasioari; Bartzelonara heltzean depresioak hartu zuen eta psikiatrara eraman zuten, oso larrizat hartutako gertakaria.

“... Nire ama betidanik hortik aske ibili den txoritxo bat bezalakoa zen, hartu ezazu eta sar ezazu zuk kaiola batean, altxatu edo mugitu ere egin ezin den kaiolan, ba gauza bera gertatzen zitzaion pisu batean. Batetik, kalera irteten baziren agian itzultzen jakingo ez zutela, ez zeukaten ilusiorik ezerगतik. Neska gazteek, batzuek, lana topatu zuten, imajina dezakezu zertan, garbiketan edo etxeko lanetan. Familia batzuek bi pisu erosteko beste zeukaten, eta orduan familia horiek gela batzuk alokatzen zituzten, orain egiten den bezala. 60ko hamarkadan mundu guztia bizi zen horrela, alokairuzko pisu batean” (28. B-I).

Indarkeria zuzena, pertsona bati egotzi ahal zaion hori, ez da argi agertzen bi kasu horien narrazioetan; lursailak saltzeko presioa egiten duen enpresa eta gobernu konplizea ez dira pertsona konkretu gisa identifikatzen. Horren ondorioz, azpimarratu nahi dut narrazioak garai bat eta orduko bizirauteko modua kontatzen dituela gehienbat, eta horrek emakumeek eusteko duten gaitasuna azaleratzen du (eusteko moduen narrazioa pluralean egiten da, singularrean baino). Horrengatik, ez dira hain argi identifikatzen zalantzarik gabe eman zen egiturazko indarkeria horren eragin fisiko, psikologiko eta sozialak.

Beste bi kasuetan (24. B-I eta 25. B-I) testuingurua garai batean orokortutako —eta, hortaz, protagonistentzat normaldutako— esplotazio eta mendekotasunetik harago doa; gerra egoera batean (Kolonbia) eta emakumeen eskubide erreproduktiboan aurkako eraso zuzena



dagoen beste egoera batean (El Salvador) kokatzen da. 25. bizitza-istorioan, lesio edo ondorio fisikorik gabe, bahiketaren eragin psikologikoa sakona da: protagonistak hiru egunez, hiltzeko beldurrez, jasan behar izan zuen babes faltari, berarekin bahituta zegoen lagunaren erailketa ikustea gehitu behar zaiou.

“... Hil zuten bigarrena S izan zen. Laurdenkatu egin zuten, sega batekin bortxatu zuten nire aurrean, ikertu egin zuten eta merezi zuela oihukatzen zioten... Gogoan dut gizon handi bat heldu zela, agintzen zegoen, eta KINKON ezizenaz deitzen zioten. Ez dut ezer gehiago oroitzen, soilik S oihuak, amari asko deitzen zion eta bi alaba zituen. Izugarria izan zen... Izugarria” (25. B-I).

Ondorio psikologikoengatik ospitaleratu zuten psikiatryan eta ondorengo bizitza baldintzatu zioten ondorio postraumatikoak izan zituen, batez ere, erasotzaileak ez zuelako inolako zigorrik bete egindakoarengatik. Aitzitik, auzoko betiko lekuan bizitzen jarraitu zuen, eta 25. B-I lekuz aldatu behar izan zen.

“Behin, lanerako bidean, erasotzailea taxian zihoan eta niri tiro egitear egon zen. Orduan egin behar izan nuen auzotik alde. Beti nengoen izututa. Urtebetez ospitale psikiatriko batean egon nintzen. Horren ostean, denbora asko hartu zidan kalera berriz irteteak eta hirira bueltatzeak, jendeari eta auto zuriei beldur handia hartu nielako, horrelako auto bat ikustean iruditzen zait berriz bahituko nautela, eta itxi egin nintzen, ez nuen inor ikusten” (25. B-I).

El Salvadorri dagokionez (24. B-I), edozein motatako abortuen kriminalizatzeko ondorio fisiko eta psikologiko larriak eragiten ditu. Horrek arriskuan jartzen ditu emakumeen bizitzak, neska gazte honi gertatu bezala: berezko abortu baten ondorioz jaso zuen tratamenduarengatik hiltzorian egon zen.

“Amak esan zidan odolustuta nengoela, toalla bat, izara bat jarri nuela eta odolez blaitu nuela. Espetxean nengoela epaitegira eraman ninduten gizarte langileak galdera batzuk egin nahi zizkidalako, eta galdera asko egiten hasi zen, nahasi nahiko banindu bezala. Galdetzen zidan ea nire aita zen nire alabaren aita. Nik esaten nion inola ere ez, ospitalean halaxe esan zutelako. Espetxean nengoela ere, azterketa bat egitera eraman ninduten, ikusteko ea nire buruari zerbait egin nion edo zerbait hartu nuen. Azterketa batzuk aurkeztu zituzten, baina abokatuak esan zuen ez zuela zerikusirik, nik ez nuela ezer hartu haurra galtzeko. Kolpea izan zen soilik, ni erori izanaren ondorioz” (24. B-I).

Emakumeak kriminalizatzen dituen testuinguruaren ondorioz, emakumeei babes eman beharko lieketen horiek epaitu eta gaitzetsi egiten dituzte, beharrezko osasun-zaintza eskaini ordez; horrela, biktimen behar fisiko eta psikologikoak ez dira artatzen.

“Langileetako batek zioen nik nahita abortatu nuela, eta nik ezetz esaten nion, nire alaba zelako. Ez ninduen ulertzen, gaizki tratatu ninduen, esan zidan espetxeratu egingo ninduela egindakoarengatik. Gogoan dut bakarrik geundela gela batean, psikologo bat eta biok, esan nion nahasi nahi ninduela, eta hori gertatzen zenean isilik geratzen nintzen. Orduan psikologoak jarri zuen nik nahita abortatu nuelako geratzen nintzela isilik” (24. B-I).

Berezko abortuaren ondorio fisiko larriei gehitu behar zaizkio protagonista kriminalizatzeak eta errudun sentiarazteak sortutako kalte psikologikoa, baita hildako jaioberriaren gorpua



ez ematea ere (hori tratu ankertzat har daiteke); izan ere, osasun-langileek halaxe erabakita, amari galarazi egiten zaio dolu perinatala prestatzea eta alabaren heriotzaren errealitatea psikologikoki bereganatzea. Horrek guztiak kalte psikologikoa eragin dio protagonistari eta bere familiari.

Lau istorio horietan ikus dezakegu ezberdintasun eta mendekotasun testuinguruak beren bizitza-istorioa kontatu diguten horien erresilientzia eta erresistentzia sortu dutela. Haientzat zailagoa da biktimizazioa onartzea, ez dutelako eragin edo ondorio fisiko eta psikologiko zuzenik, besteak beste. Aldiz, gerra testuinguruetan ez dago emakumeentzako babesik eta mendeku pertsonalekiko zaugarri bihurtzen dira, eta bestelako errealitateetan edozein motatako abortuak kriminalizatzen dira, baita berezkoak ere; horrelakoetan, oso handia da eragin fisiko eta psikologikoa, eta indarkeria-egiturak argi bereizten dira.

Era berean, antzeman ditugu gerra-testuinguruak eta emakumeen kriminalizazioak eskaintzen duten inpunitatearen babesak daukaten pertsonen abusuak; horrela, osasun-langile, polizia zein langile judizialek dagokien babes-agente rola indarkeria-agente bihurtzen dute. Auzokoak babes sozialaren iturri izan daitezke, baina aipatu testuinguruetan ez da guztiz horrela gertatzen.

Lau kasu horietan, egoerari aurre egiteko estrategia militantzia dela ikusi dugu, esperientziari zentzua emango dion kolektibo batean parte hartzea. Espetxeratzearen kasuan, protagonistak erlijio sinesmenei heltzen die konponbide zaila duen egoerari aurre egin ahal izateko.

4.2 Estatua indarkeria denean

Indarkeria erakunde eta agintariengandik datorrenean, hiritarron eskubideak defendatzea espero den horiengandik, dela jazarritz, ilegalki atxilotuz edo torturatuz, eragin psikologikoa ezberdina izango da, babes falta askoz handiagoa baita. Estatu-indarkeriaren praktikak dira, eta beti ez zaizkie emakumeei zuzenduko; are gehiago, nagusiki gizonetzkoen zuzenduta egongo dira, baina emakumeen kasuan ñabardura sexistak gehitzen zaizkie, datozen bi istorioetan ikusiko dugunez.

17. B-I		
Herrialdea: Guatemala	Adina: 55 urte	Indarkeria mota: Jazarpena arrazoi politikoengatik
Berehalako eraso edota eragin fisikoak:	Buruko eta gorputz osoko mina.	
Ondorio fisikoak:	Ez dira deskribatzen.	
Eragin eta ondorio psikologikoak:	Etengabeko antsietatea; atzemate agindua daukanez ezin da mugitu edo inora irten. Estres-maila oso altuak eta alerta etengabea.	



Bestelako eragin eta ondorioak:		Ezin da etxetik atera, lanera joateko baino ez da ateratzen. Bere kideen atxiloketak mehatxu funtzioa betetzen du berarentzat.
23. B-I		
Herrialdea: Euskal Autonomia Erkidegoa	Adina: 30 urte	Indarkeria mota: Tortura sexista
Berehalako eraso edota eragin fisikoak:	"Intentsitate baxuko" tortura fisikoa, buruan egin berri zioten ebakuntza baten ondorioz.	
Ondorio fisikoak:	Ez dira deskribatzen.	
Eragin eta ondorio psikologikoak:	Inkomunikazioa bitartean tentsio eta beldur handiak. Shock egoeran egon zen, eta gertatutakoa <i>flashen</i> bidez gogoratzen du. Espetxetik irten ostean, beldur eta larrimin handiak. Erruduntasun sentimendua, torturapean deklaratu ahal zuela uste duelako. Gertatutakoa gutxien du, uste baitu okerrago dauden pertsonak daudela.	
Bestelako eragin eta ondorioak:	Haustura soziala. Urte eta erdi egon zen espetxean; aske geratzean bere bikotekidea eta lagunak espetxean zeuden. Lekuz kanpo sentitu zen, bere lekua topatu ezinik	

Bi kasutan eragin psikologikoa fisikoa baino gogorragoa izan da, batez ere, Guatemalan jazarritako emakumea ez dutelako atxilotu², eta EAEn espetxeratutakoak "intentsitate baxuko" tortura deskribatzen duelako egin berri zioten ebakuntzaren ondorioz, eta horrek bere kontrako indarkeria maila "zaintzea" ekarri zuen. Hala ere, biek daukate antsietatea; kasu batean atxiloteta eta espetxeratzea edozein unetan eman ahal direlako; beste kasuan, posible delako beste atxiloteta bat gertatzea, eta, horrekin batera, indarrek huts egin eta deklaratzeko.

Emakumeei zuzendutako estatu-indarkeriak enfasia egiten du umiliazioan, praktika apalgarri eta irain zatarren bidez:

Protagonista batek bere kideen atxiloketaz: "*Orduan hartu zuten... Kaleraino eraman zuten arrastaka... Eta udaletxearen parera ekarri zuten eta biluztu egin nahi zuten, ilea moztu nahi zioten, jo egin zuten, argazkiak ditugu*" (17. B-I).

"... Ze nazkagarria zaren, edo usain txarra duzu, edo tuntuna zara, edo... Tratu txarrak ematen dituenaren irudi tipikoa, baina zazpi... Edo zortzi... Eta gero kontu sexuala dago ere... Nik buruan iltzatuta daukat 'bortxatuko zaitugu... Ez dakit zer egingo dizugu'... Hau da... Basakeriak, behin

² Bederen, aske jarraitzen zuen txosten hau idatzi bitartean.



eta berriz. Eta une batez hormaren kontra jarri ninduten... Niri oihuka ari ziren, baina... Ez dakit zer bortxaketaz, bortxaketaz... Eta prakak jaitsi zizkidaten... Eta izan zen... ahhhh... Kaka... Eta adarra jotzen jarraitu zuten, nitaz barre egin zuten... Ai, igo zaitez nazkagarria zara eta, ez dakit zer... Eta gero ez ninduten ukitu ere egin, zentzu horretan. Bortxaketaren beldurra neska guztiokin erabili zuten... Etengabe. Bortxatzea eta... Emakume gisa, mutilen kontra gauza asko erabiltzen zituzten, baina hori ez hainbeste. Gurekin halako obsesio bat dute bortxaketarekin, titiekin, nazkarekin, 'begira nola egiten duen negar' horrekin... Ez dakit... Horrela txiki sentiarazteko bezala... Eta txiki sentitzen zara, nola ez..." (23. B-I).

Askatasuna galtzeko eta torturatzaileen esku geratzeko arriskuak sortzen duen estresak bizitza baldintzatzen du, nahiz eta espetxetik kanpo egon. Bi istoriootan beste pertsonetikiko kezka edo pairatutako indarkeriaren gutxiespena igarri daitezke; baina badago beste kezka bat, bi protagonistek egitura antolatuetan parte hartzen dutelako sortzen dena, baita norberaren beldurrari aurre egiteko estrategia gisa ere.

"Saiatzen naiz horretan ez pentsatzen, nire burua zaintzen dut, gaez ez naiz irteten, saiatzen naiz bakarrik ez irteten, atxiloketa ekiditeko. Atzemate-agindua dela eta ezin dut nire alaba ikustera joan, ikasten dago... Gainera, ezin ditut nire lanaren funtzio batzuk bete... Ondo egiten dut lo, bat-batean preso politikoengan pentsatzen hasten naiz eta ezin dut lorik hartu, edo bat-batean goizaldean haiengan pentsatzen dut, baina bestela, ongi egiten dut lo, lanean lasai egoten naiz..." (17. B-I).

"... Ez dakit nola azaldu... Ez da koldarkeria kontua... Baina sentitzen dut izan nuela... Ba, zortea izan nuela... Beno, infernu puta bat izan zen, baina beste batzuek izan ez zuten aukera izan nuen. Orduan gaizki sentitzen naiz batzuetan hain txarra izan ez zelako... Hau da, biktima paperean sartzeak asko laguntzen digu... 'Nirea da okerreña' pentsatzeak guztia justifikatzen laguntzen dizu... Orduan ez diot nire buruari gaizki egoten uzten, ez delako nahikoa... Nik asko entzuten dut, kartzelan sartu ginenean patioan terapia egiten genuen, lur jota zegoen jendea zegoelako. Eta ni ez nintzen egun batean ere ez kezatu, okerrago zegoen jendea zegoelako. Nik horiei entzuten nien etengabe: 'irabazi egin didate', 'sinatu egin dut' ... Hau da, haiek zeukaten zama hori ez daukat nik... Zentzu onean... Baina gero, aldi berean, iruditzen zait eutsi egiten dioten horiek miresten ditugula" (23. B-I).

Bi kasuotan, antsietatea ere lotuta dago kideek epaitzeko beldurrarekin, erreferentziatzko taldea diren heinean. "Neurria emateko" behar hori dago, eta badirudi neurri horrek barne hartzen duela min fisiko eta psikologiko handia jasateko gaitasuna, militantzia "onaren" erakusgarri gisa. Halaxe gertatzen da, militantzia hori aurre egiteko estrategia nagusia delako, eta indartu egiten duelako "kausaren" ideologia (pertsonaz harago doan helburu politikoa, identitate eta kidesun sentimendua ematen duena); hori da antsietatea arintzen eta arrazionalizatzen laguntzen diena.

4.3. Pobrezia eta migratzea indarkeria direnean

Jarraian beste hiru kasu aztertuko ditugu, non argi ikusten den pertsonarteko indarkeriak hartzen duen neurria, etxeko lan ordaindua esklabotza garaikidetzat hartzen den testuinguru batek lagunduta. Zentzu horretan, nire ikuspuntutik, istorio hauek hartzen dituen "indarkeria ekonomiko" kontzeptua mugatua eta okerra da. Indarkeria horren ondorioetako batek biktimen alderdi ekonomikoan eragiten duen arren, intersekzio klasistak —eta, batzuetan, arrazistak— sufrimendu handia sortzen die narratzaileei, alderdi ekonomikoaz harago doana; izan ere, alderdi ekonomikoa gutxienezkoa da haientzat, indarkeria horrek hartzen dituen beste formekin konparatuz gero.



1. B-I		
Herrialdea: El Salvador	Adina: 57 urte	Indarkeria mota: Indarkeria ekonomikoa enplegatzaileen aldetik. Erakunde-indarkeria salaketa jartzean.
Berehalako eraso edota eragin fisikoak:	Sukarrak, gripeak.	
Ondorio fisikoak:	Menopausiaren aldaketak.	
Eragin eta ondorio psikologikoak:	Nortasuna eta autoestimua galtzea; huts sentimendua. Tristura etengabea. Baliorik ez duelako sentimendua, bere burua eta bere lana gutxiesten direlako sentipena.	
Bestelako eragin eta ondorioak:	Bakartze soziala. Lan-eskubideak urratzea.	
6. B-I		
Herrialdea: Kolonbia	Adina: 84 urte	Indarkeria mota: Indarkeria ekonomikoa bere nagusiaren aldetik.
Berehalako eraso edota eragin fisikoak:	Ez dira deskribatzen.	
Ondorio fisikoak:	Egindako lanaren eta osasuna ez zaintzearen ondorioz, fisikoki okerrera egin zuen. Gaizki artatutako istripuak; ondorioz, belarri batean entzumena galdu du.	
Eragin eta ondorio psikologikoak:	Depresioa, nagusiarekiko mendekotasuna (noizbehinka berarekin itzuli nahi du), antsietatea, autoestimua baxua, tristura. Bere lana gutxiestea.	
Bestelako eragin eta ondorioak:	Bakartze osoa.	
22. B-I		
Herrialdea: Euskal Autonomia Erkidegoa	Adina: 38 urte	Indarkeria mota: Indarkeria ekonomikoa bere nagusiaren aldetik. Erakunde-indarkeria laguntza ekonomikoak jasotzeko eskubidea aitortu ez izanagatik. Indarkeria bikotekidearen aldetik.
Berehalako eraso edota eragin fisikoak:	Ez dira deskribatzen.	
Ondorio fisikoak:	Ez dira deskribatzen.	
Eragin eta ondorio psikologikoak:	Antsietatea, larrimina babes faltagatik eta diru zein lan-egoera aldatzeko alternatibarik ez izateagatik.	
Bestelako eragin eta ondorioak:	Konfiantza falta jendearekiko.	



Langileek pairatzen duten muturreko kontrolak objektu bilakatzen ditu; hartara, “despertsionalizazio” eragin psikologikoa sortzen du —emakume askok aitortzen dutena eta dokumentatzaileek interpretatzen dutena—, nortasun galeraren parekoa, nor zaren ez jakitearen gisakoa. Etxeko lan ordaindua ez aitortzea eta lanaren ezaugarriek, emakume enplegatzaileekin dituzten harreman gaiztoak baldintzatzen dituzte³, bereziki barneko langileentzat. Urte luzez elkarrekin bizitzeak (kasu batean 40 urte baino gehiago) lan-harremanak eta harreman afektiboak nahasiz, muga bat apurtzen du, zeina beharrezkoa den psikologikoki babesteko eta nia berresteko.

Etxeko langileek, bereziki barneko langileek, bakartze soziala pairatzen dute: gutxitan irreteten dira, edo sekula ez, eta beren mundua lan egiten duten etxera murriztuz doa. Egoera horrek berak lan-baldintza duinak urratzen ditu jada, baina gainera, abusuarekiko nahiko permisiboa da, honako baldintzetan: gehiegizko lanorduak egitea, jardunaldi malgua delako; eginkizunak langileen esku uztea, etengabe eskura daudelako; xantaia emozionala, ezinezkoa baita lotura afektiboak sortu gabe egunero elkarrekin bizitzea.

Horrela, espazio geografiko ezberdinetan gertatutako hiru istorio ditugu; nahiz eta pertsonarteko indarkeria fisikorik, kolperik, ez egon —baina bai kolpekatzeko eta hiltzeko mehatxuak—, hiru istorioon ardatz komuna da mespretxu eta umiliazioek, batetik, sukarraldiak sortzen dituztela ahozko tratu txarren erreakzio gisa, eta, bestetik, menopausiaren aldaketak tratu txarren prozesu osoaren ondorioz. Ez da beti onartzen egoera fisikoak okerrera egitea, baina eguneroko ahaleginak eta osasuna gutxi edo batere ez zaintzeak ere badu eragina. Kasu batean, arreta faltaren muturreko egoera horrek entzumen-galera eragin du, istripu baten ondoren ez artatzeagatik.

“... ‘Ospa, ospa hemendik, ongi dakizu-eta hortxe pistola bat dudala, eta ez zait ezer ere ez kostatzen oraintxe bertan zuri tiro egiteak; begira, dena den zure ama hil egingo da, guztiok hilko garelako, beraz utzizuo hil dadila eta segi lanean, ez dizut beste baimenik emango’. Eta bi aukera baino ez zeudela esan zidan: lana edo nire amaren osasuna, baina biak ez. ‘Ez dizkizugu 5 xentimo ere emango, eta orain alde egin, ez zaitut ikusi ere egin nahi zahar p...’” (1. B-I).

“Nik deitu egiten nion zeren... Zeren bere etxeko giltza nuen oraindik, ez nuelako bueltatu, lanera itzultzeko neukalako. Eta telefonoz deitzen nion, berak ez zidalako deitu zorionak emateko, edo galdetzeko ‘zer moduz dago haurra?’, edo ‘itzuliko al zara?’, ez ezer. Nik ez nuen horrela bat-batean etxe batera sartu nahi hilabete baten ostean, telefonoz deitu nahi nion eta haiekin hitz egin. Eta ez zion telefonoari erantzuten, deitzen nuen eta ez zuen erantzuten... Eta eskutitzak ere bidaltzen nituen... Ez zituen hartzen” (22. B-I).

Haurdunaldia eta amaren gaixotasuna “maltzurkeria” gisa bizi dituzte enplegatzaileek, “beren” langileek jartzen dizkieten eragozpen gisa, eta mendekuarekin erantzuten dute: kasu batean, langileak bere ama ikustea debekatuz; bestean, langileari gizarte segurantzana baja ez emanez, laguntza ekonomikoaren kudeaketa oztopatzeko, epaitegian galdetzean enplegatzaileak berak onartuko duen moduan.

Etxeko lan ordainduaren inguruko lege-hutsuneek, batetik, etxeko langileei buruzko aurrei-

³ Nahiz eta familia-gizonek ere etxeko lanen etekin ez gozatu eta kontrolatzaile rola izan dezaketean, aztertutako istorioetan emakumezko nagusiak dira narratzaileen aurkako kontrola eta indarkeria gauzatzen dituztenak.



ritziak sortzen ditu, eta, bestetik, beren enplegataileen borondatearen menpe egotea eta gauzak “modu onean” egin nahi izatea eragiten du. Hala ere, enplegataileek ez dute borondate berdina agertzen, eta biktima nagusienaren (84 urte) ilobak honako adibidea ematen du:

“Zaindariaik deitu zidan eta esan zidan: ‘Andrea, ez dakizu zure izeba ospitaleratu dutela’. Esan nion: ‘Non dago?’. ‘Ospitale nagusian dago’. Nik... Bisita egin nion eta oso gaizki zegoen, txoratu egin nintzen ia. Ospitaletik atera zenean, bere bila joan nintzen hona ekartzeko. Andreak (enplegatailea) piztia bat zirudien, piztia bat zirudien, ia jo egin ninduen, esan nion: ‘Izeba eramango dut oso gaixo dagoelako, nire etxera eramango dut’; eta orduan esan zidan: ‘Eta zuk nola mantenduko duzu senarra hil bazitzaizun, edo zure izebari dagokiona ematea nahi duzu, alfer eta bi-ziotsu horiek mantentzeko...? Zure izebari dagokion pentsioa jaso nahi duzu, jende guzti hori eta zu zeu mantentzeko? Zure izeba oinak aurretik aterako da hemendik, hilerrira, hemendik oinak aurretik aterako da’. Halaxe esan zidan” (6. B-I).

Indarkeria horrek utzitako begi bistako ondorioak honakoak dira: antsietatea, depresioa, norbere burua gutxietea, norberaren lana ez aitortzea sentitzea, muturreko ahultasuna babes faltarengatik, eta baita norberaren istorioa erregistratzeko gaitasun falta ere. Adibidez, 6. B-Ian biktimaren ilobak bere izebak hamarkadatan zehar bititako lan-baldintzak kontatzen ditu. EAEko etxeko langilearen kasuan, erakundeen aldetik tratu txarra dago, laguntza ekonomikoak kudeatzeko ardura duen entitatearen aldetik (tramite motel eta zurrinak), ez baitituzte kontuan hartzen etxeko langileek pairatzen dituzten indarkeriaren ezaugarri jakinak, arreta eskaintzean emandako tratu txarrak ahaztu gabe. Horrek guztiak handitu egiten du emakume sektore horren larrimina, babesgabe eta enplegataileen kapritxoaren menpe baitaude.

Istorio horietan aurkitzen ditugun aurre egiteko estrategiek “kasurik ez egitea” hartzen dute barne, hau da, ardura zuzena enplegataileei ez egotea, haien jarrera justifikatzea eta familiarekiko leialtasuna berrestea. Antsietatea gutxitzeko eta beren egoerei erantzun alternatiboak topatzeko aurkitzen duten soluzioa, laguntza eskatzea eta ezagutza gehiago duten pertsona zein entitateetara jotzea da; haiek laguntza konkretua eskaini eta, gainera, beren errealitatearen bozgorailu bihurtzen dira.

4.4. Norberaren gorputzari buruz erabaki ezin denean

Oreka psikologikoa mantentzeko baldintzak dira norberaren gorputzari buruz erabakitzeko gaitasuna izatea, hain oinarrizkoa dena, eta hartutako erabakiak errespetatuko direlako bermea izatea zein gauzatzeko baliabideak egongo direla jakitea. Alabaina, emakumeen gorputza betidanik izan da familien, bikotekidearen eta Estatuaren beraren eztabaida-gune, gorputzen kontrola hartzen baitute eta emakumeek beren eskubide sexual eta erreproduktiboak buruz hartzen dituzten erabakiei trabak jartzen. Jarraian aztertuko ditugun lau istorioetan gorputzari, desireri eta nortasunari dagozkien erabakiak hartzearen kostua igarri daiteke.

4. B-I		
Herrialdea: El Salvador	Adina: 21 urte	Indarkeria mota: Abortu-gatik ospitalean atxilotzea. Erakunde-indarkeria epai-keta prozesuan.
Berehalako eraso edota eragin fisikoak:	Hemorragia, mina, beranduegi egin zioten legratuak sortutako sukarra.	



Ondorio fisikoak:	Medikazioak sortutako urtikaria, bronkioen gaixotasuna.	
Eragin eta ondorio psikologikoak:	Antsietatea eta tristura, gertatzen zaiona bere familiari kontatu ezin diolako. Erruduntasun sentimendua eta berriz ere haurdun gelditzeko beldurra. Bere erabakiei eta bikote-harremanari buruzko zalantzak.	
Bestelako eragin eta ondorioak:	Sententzia: bizilekuz ez aldatzea, alkoholdun edariak ez hartzea eta haurtzaindegi batean boluntario aritzea. Lana eta aurrezkiak galtzea.	
10. B-I		
Herrialdea: Espainia. Iran du jatorrizko herrialdea	Adina: 49 urte	Indarkeria mota: Lesbiana izateagatik familian tratatu txarrak jasotzea. Ezkontzera behartua. Indarkeria bikotearen aldetik.
Berehalako eraso edota eragin fisikoak:	Tratu txar fisikoak amaren aldetik. Senarrak bortxatzea.	
Ondorio fisikoak:	Senarra berari hurbiltzean somatikoki erantzuten du botaka eginez.	
Eragin eta ondorio psikologikoak:	Mehatxuak, intimidazioak, umiliazioak, lesbiana izateagatik salatuko zutelako mehatxuak, abusu ekonomikoa. Bere buruaz beste egiteko ideiak nerabezaroan.	
Bestelako eragin eta ondorioak:	Bakartze soziala, bere kulturak homosexualitatea legez zigortzen baitu. Erbestea, bere semearengandik banatzea.	
11. B-I		
Herrialdea: Espainia	Adina: 50 urte	Indarkeria mota: Transfobia hainbat esparrutan. Jazarpena prostituzioan aritzen denean.
Berehalako eraso edota eragin fisikoak:	Ez da deskribatzen.	
Ondorio fisikoak:	GIBa.	
Eragin eta ondorio psikologikoak:	Tristura, larrimina, lekuz kanpo sentitzea, kidesetasun sentimendu eza.	
Bestelako eragin eta ondorioak:	Bera ulertzeko eta modu egokian artatzeko formaziodun osasun-langilerik ez zegoen. Erakundeen aldetik babes falta, prostituzioaren "garbiketa-politikaren" ondorioz, eta gizarteratze-programa paternalistak direla eta. Mugimendu feministaren alderdi batek baztertu eta ez du mugimenduaren parte gisa onartzen.	



20. B-I		
Herrialdea: EAE	Adina: 35 urte	Indarkeria mota: Erakunde-indarkeria deklarazioa errepikatzen behartzeagatik, abortu kasua izanik.
Berehalako eraso edota eragin fisikoak:	Ez dira deskribatzen.	
Ondorio fisikoak:	Ez dira deskribatzen.	
Eragin eta ondorio psikologikoak:	Deklarazioak sortutako antsietatea, gertakariak ahaztea.	
Bestelako eragin eta ondorioak:	Oztopo bat da bere bizitzan, ahaztu nahiko lituzkeen gertakariak gogora ekartzera behartzen dutelako.	

Lau istorio horietan ikus dezakegu nola eragiten dioten elkarri honako faktoreek: batetik, sexu-genero-sexualitate eredu hegemonikoan kokatzen ez diren identitateekin eta sexu-aniztasunarekin intolerantea den testuingurua; bestetik, emakume disidenteen aurkako pertsonarteko indarkeria, familia, klase-kide, bikotekide eta abarren aldetik. Horrek biktimen eskubideak betetzea ekiditen duten neurri hertsagarriak ezartzea dakar, eta beren bizitzak arriskuan jartzea. Kasuen erdiaren ondorio gisa nahi gabeko haurdunaldiak daude, eta abortatzeko erabakia arazo gehigarria da. Beste kasu batean, protagonista haurdun geratzen ez bada ere, urte batzuk beranduago erasotzaile berak haren ahizpa bortxatzen du, haurdun utziz.

"... 15 urte nituen. Nire amak erregela batekin luze jo ninduen eta gorputza gorrituta utzi zidan, eta lo egin nahi nuenean, ezin nuen. Eserita eta negar batean egin behar nuen lo, 15 urte nituen. Hil egin nahi nuen... 18 urte nituen. Amak eta aitak esan zidaten gizon batekin ezkondu behar nuela, ez nik ezta nire familiak ere ez genuen ezagutzen... Arazo asko nituen, beti genbiltzan borrokan eta eztabaidan. Jo egiten ninduen, senarrak ez zuen lanik egiten, nik baino ez nuen lan egiten. Gogoan dut elkarrekin bizi izan ginen lehenbiziko bi edo hiru urteetan, nire senarra hurbil nuenean oka egiten nuela, ezin nuen; galdetzen zidan zer usain nuen, ea gaixorik nengoen, eta ni ez nengoen gaixorik, ez nuen gizonik nahi nire ondoan, baina nik hori zenbat eta gehiago esan orduan eta gehiago jotzen ninduen, amak, senarrak eta denek" (10. B-I).

"... Iraindu eta jo egiten gintuzten. Batzuetan, ikasturte hasieran, eskolara joatea kostatzen zitzaidan, banekielako kalera irten eta nire eskolako jendeak, nire auzo berekoak, klaseraino irainka jarraituko zidala. Irainak joaterakoan eta irainak bueltatzerakoan. Gogorra zen. Homosexual gisa... Klasean pairatzen nituen tratu txarrekin, baina onartu egiten ninduten. Baina eskolara neska gisa joan nahi izan nuen uenean [...] ez zidaten utzi" (11. B-I).

"Nire trantsizioari eta tratamenduari dagokionez, kideen aho-belarrikoa izan zen [...] Ez ziren mediku endokrino espezializatuak existitzen emakume trans baten tratamendua gauzatzeko [...] Ez dauzkazu beharrezko baliabideak [...] Emakume askok ezin zuten beren osasuna zaindu, inolako kontrolik gabeko kontuetan sartzen zirelako, eta horrek albo-ondorioak sor zitzakeelako, horregatik diot hori ere badela indarkeria, automedikatzeko bazara ezin dugulako osasunaz hitz egin. Eta automedikazioa bazegoen, osasun sisteman ez zegoelako baliabiderik" (11. B-I).

Transgenero nortasunak eta desira lesbikoek, narratzaileak bizi edo bizi izan diren testuinguruetan (Espainia eta Iran), sufrimendu handia eragiten dute. Gainera, biek ala biek onartuak ez direlako sentipena dute; ondorioz, batek erbestera jotzen du, eta, besteak, aldi baterako bazterketara, bere aukerak bizi ahal izateko. Zerbaiten parte sentitzea eta onartua izatea funtsezkoak dira oreka psikikoa lortzeko, baina ez dira topatzen errazak: horrek ondorioak utzi ditu beren gorputzetan, eta, baita beren osasun fisiko eta mentalean.



Emakumeek nahi gabeko haurdunaldia borondatez etetea erabakitzeak, testuinguruaren eta jendearen intolerantzia sortzen du. Lehenago ikusi dugunez, El Salvadorren edozein abortu mota kriminalizatzen da; kasu honetan, narratzaileak haurdunaldia etetea erabaki zuen, eta bere inguruaren gaitzespen ia erabatekoa izan zuen.

"... Jende asko pasatzen zen, eta azkenean galdetzen zizuten: 'Zergatik dituzu eskuburdinak lzu-garria zen, poliziek ere esaten zidaten: 'Zein da zu hemen egotearen arrazoia?', 'Ah, eragindako abortua'... Finean hori baitzen kasua, eragindako abortua, eta polizia etorri eta esaten zidan: 'eta gutxi iruditzen al zaizu egin duzuna, eskuburdinik gabe egongo zarela uste al duzu?', eskuburdinik gabe lo egin nahi nuelako, horrela egiten nuelako lo (besoa okertzen du) eta oso ezerosoa zen. Ni zelatzen bazeuden, nola egingo nuen ihes?... Eta diskriminazioa, medikuak, erizainak... Hau bukatu ez dela pentsatzea... Eta horregatik pentsatzen dut hau bukatu ez bada espetxean amaitu dezakedala, berriz ere atxilotu ahal nautela... Nik neure burua animatzen dut, baina une batzuetan hori pentsatzen dut. Egia esan, gauzez asko pentsatzen dut horretan" (4. B-I).

Kasu horretan, deigarria da epaiak narratzailea behartzen duela haurtzaindegi batean lan egitera "amatasun sena" sorrarazteko, abortatzen denean horrelakorik ez dagoela suposatzen baita: emakumeen borondate-gaitasuna ezeztatzeko zigor bat gehiago. Eta zentzu horretan bertan, borondatezko beste abortuaren istorioak, batetik, tramite judizialen geldotasunak dakartzan trabak jasotzen ditu, eta, bestetik, erabaki finko bat den heinean aztarna fisiko edo psikologikorik uzten ez duen eskubide batek (nahi gabeko haurdunaldi bat etetea askatasuna, adibidez) estresa sortzea, narratzailea deklaratzera behartzen duelako, erabakitako legezko abortua egin zioten klinikaren kontrako epaiketari.

"Hainbesteko iskanbila da amorrua ematen didana, Bartzelonara joatea... Jakina guztia ordaindu nuela, nire aita eta ahizparen gastuak barne. Nire poltsikotik ordaindu nuen dena" (20. B-I).

Emakumeen gorputzen eta desiren aurkako indarkeria maila ezberdinetan gauzatzen da: trabak sortzetik, muturreko erbestera arte. Istorio guztietan, bizi izandako indarkeria gorabehera, hartutako erabakia bere gain hartzen dute protagonistek, eta berretsi egiten dute. Hori aurre egiteko estrategia bat da, arriskuak ere bere gain hartzen laguntzen dituen: espetxe-zigorra jasotzea, migratze behartuaren arriskua, familiak bakartzea, gizarte-bazterkeria, etab. Izan ere, emakumeek sistema patriarkalak ezarritako normaltasunaren mugak gainditzea erabakitzen dutenean, martxan jartzen dira, bai mindua izateko aukerak, baita eusteko gaitasuna ere.

Hiru kasu horietan, familiaren babesa funtsezkoa izan da indarkeriaren eragina arintzeko; hala ere, paradoxikoki, kasu batean familia bera (ama) da "duintasunaren" arau patriarkalak betearazten dituen, eta, hartara, indarkeria amak gauzatzen du. Istorio horretan bertan ikus dezakegu protagonistak erresilientzia-gaitasun izugarria duela, eta horrek egoera oso zailei aurre hartzen laguntzen dio. Istorio guzti horietan, indarkeriaren ondorioak arintzeko babes-faktore bihurtzen dira antolakunde feministen babesa edota bakoitzaren kolektiboaren eskubideen aldeko militantzia.

4.5. Indarkeria gorputzaren inbasioa denenan

Sei istoriotan, sexu-indarkeria izan da aurre egin dioten emakumeak kontrolatzeko modua. Kasu gehienetan erasotzailea identifikatua izan den bortxaketaz ari gara. Hala ere, baita kasu gehienetan ere, inpunitatea daukate erasotzaileek, dela biktimek salatzeak daukaten beldurrarengatik, delituaren preskripzioarengatik, gerra testuinguruagatik edo beren bizilekuan dagoen delinkuentziaren kontrolarengatik.



5. B-I		
Herrialdea: El Salvador	Adina: 27 urte	Indarkeria mota: Sexu-indarkeria. Bortxaketa, seme-alaben kontrako mehatxuekin eta bikotekidearen aurrean.
Berehalako eraso edota eragin fisikoak:	Lehenbiziko haurdunaldian jipoi baten ondorioz abortatzeko arriskua.	
Ondorio fisikoak:	Ez dira deskribatzen.	
Eragin eta ondorio psikologikoak:	Abandonua eta familia-indarkeria direla eta, bere buruaz beste egiteko pentsamenduak 13 urte zituela. Alkoholismoa, depresioa. Itxaropena galtzea	
Bestelako eragin eta ondorioak:	<i>Marak</i> bere neba eta koinata erail ditu. Komunitateak bera kritikatzan du, bortxatua izan nahi zuelako zurrumurrua zabalduz. Laguntza psikologikoa bertan behera uztea, zentzurik ikusten ez diolako	
7. B-I		
Herrialdea: Kolonia	Adina: 20 urte	Indarkeria mota: Haurdunaldia, sexu-indarkeriaren ondorioz.
Berehalako eraso edota eragin fisikoak:	Bortxaketak eragindako marka fisikoak, baina ez du haiei buruz sakontzen.	
Ondorio fisikoak:	Nahi gabeko haurdunaldia. Autolesioak, etxeko metodoez abortatzen saiatzeagatik.	
Eragin eta ondorio psikologikoak:	Depresioa, saiakera suizidak. Bortxaketak bere bizitza akabatu duelako sentipena. Anibalentzia emozionala, bere semearekiko eta abortatzen utzi ez zion amarekiko.	
Bestelako eragin eta ondorioak:	Ikasketak uztea. Desplazamendua. Bere lagun onena erailteza. Bortxatzailea salatzeke (semea legez onartu dezan) orientatzen duen laguntza psikologikoa baztertzea.	
13. B-I		
Herrialdea: Espainia	Adina: 55 urte	Indarkeria mota: Sexu-indarkeria ezezagunen aldetik. Tratu txarrak erakundeen aldetik, salaketa jarri zuenetik. Medikuek oker artatzea, barneratzea, herrialdetik botatzeko mehatxua. Pape-ren tramitazio motela.
Berehalako eraso edota eragin fisikoak:	Sexu-erasoa: baginan objektuak sartzea odol-galera eraginez. Hematomak, kolpeak.	
Ondorio fisikoak:	Min kronikoa. Umetokiko minbizia.	
Eragin eta ondorio psikologikoak:	Estres postraumatikoa, beldurra, antsietatea, larri-mina, depresioa, amesgaiztoak, inguruarekiko konfiantza galtzea.	



Bestelako eragin eta ondorioak:		Larrialdietako mediku-artatzea ordainarazten diote. Madrileko Atzerriarrak Barneratzeko Zentroan 49 egun pasa ditu, arreta mediko edo psikologikorik gabe. 2013an herrialdetik botatzeko atxilotzen dute; GKE eta Arartekoaren esku-hartzeak prozesua gelditu zuen. Atzerapena ezkontza izapidetzerakoan, hitzarmenezkoa dela ebazteagatik. Konfiantzazko harremanak murriztea, orokorrean harreman sozialak murriztea.
16. B-I		
Herrialdea: Guatemala	Adina: 23 urte	Indarkeria mota: Sexu-erasoak haurtzaroan, familiakoa ez den baina berarengan aginpidea duen ezagun baten aldetik.
Berehalako eraso edota eragin fisikoak:	Ez dira deskribatzen.	
Ondorio fisikoak:	Ez dira deskribatzen.	
Eragin eta ondorio psikologikoak:	Erruduntasun sentimendua du, nahiz eta gertakarien garaian babesteko ahalmenik gabeko haurra izan. Erruduntasun sentimendu hori indartu egin zen seigarren mailan psikologo bati entzundako hitzaldi batean, non gona motza daramaten neskatoei egotzen baitzien pairatu zitzaketen sexu-erasoaren ardura.	
Bestelako eragin eta ondorioak:	Gizon berak haren ahizpa bat bortxatu du; bortxatzaileak botere-harremana zuen biek, eta lan-harremana bien amarekin. Gertatutakoa jakitean, familia osoari eragiten dio: neba alkoholizatu egiten da, ahizpa gazteak ebakiak egiten ditu besoetan.	
26. B-I		
Herrialdea: Kolonbia	Adina: 33 urte	Indarkeria mota: Bortxatua izan zen 11 urte zituela, Kolonbiako gerrillako kide baten aldetik.
Berehalako eraso edota eragin fisikoak:	Erasoak, bortxatu bitartean.	
Ondorio fisikoak:	Nahi gabeko haurdunaldia eta kolpeek eragindako abortua.	
Eragin eta ondorio psikologikoak:	Depresioa, antsietatea, saiakera suizidak, bere burua leihotik behera botatzeko pentsamenduak.	
Bestelako eragin eta ondorioak:	Amaren erailketa, erreklamatzegatik. Aitonak bortxaketa entzuten du baina ez du esku hartzen. Geroago, amaren heriotza egotzen dio biktimari. Desplazamendua.	



27. B-I		
Herrialdea: Guatemala	Adina: 56 urte	Indarkeria mota: Soldadu batek bortxatzea, haurdunaldia eraginez. Heriotza-mehatxua. Tratu txarrak senar alkoholikoaren aldetik. Elikagai-pentsioa ez ordaintzea.
Berehalako eraso edota eragin fisikoak:	Kolpeak eta gorputza lotzea eraso bitartean, entzumen galtzea indarkeria fisikoaren ondorioz.	
Ondorio fisikoak:	Nahi gabeko haurdunaldia.	
Eragin eta ondorio psikologikoak:	Utzikeria fisikoa eta itxaropen falta, babes bila hautatu zuen senarraren tratu txarrak direla eta.	
Bestelako eragin eta ondorioak:	Desplazamendua, familiarengandik banantzea. Nebaren heriotza armadan eta aitonaren bahiketa eta erailketa. Komunitateak bakartzea, haurdunaldia dela eta.	

Narratzaile gehienentzat bizi izandako bortxaketak inflexio puntu bat markatzen du beren bizitzetan, ondorio sakonak utzi dituen, bai fisikoki, bai psikologikoki eta baita sozialki ere. Pertzepzio hori lotuta dago min fisikoarekin eta bere ondorioekin, batez ere nahi gabeko haurdunaldiak daudenean (hiru kasutan, bortxaketaren ondorio), baita inguruak emakume bortxatuak baztertzearekin ere.

“1983an sexu-bortxaketa pairatu nuen, nire semea 1984an jaiotzen... Gerra garaian jende asko akusatu zuten gerrillari izateaz, tartean, nire aita... Baina aitak gauz egiten ahal izan zuen, horregatik ez zuten erail, baina aita aurkitu ez zuten, gau hartan bertan, gure etxera etorri zen soldaduak eskuak lotu zizkidan, ahoa estali zidan nik ez oihukatzeke ez laguntzarik eskatzeko berak bortxatu bitartean, eta hiltzearekin mehatxatu ninduen gertatutakoaz hitz egiten banuen. Ezin izan nuen nire burua defendatu, bera ni baino indartsuagoa zelako. Garai hartan ezin nintzen kexatu, niri gertatutakoaz ezin genuelako hitz egin. Soilik nire amak zekien niri gertatutakoaz, familiako guztiekin konfiantzarik ez genuelako, amak ulertu egin zuen eta esan zidan nire errua ez zela, aita nirekin haserretu zen haurdun nengoela jakin zuenean, ez zekielako zer gertatu zitzaidan. Komunitateko jendeak epaitu egiten ninduen, niri gizonak bilatzea gustatzen zitzaidala eta nire semea neraman bizitzaren emaitza zela esanez, halako aurreiritziekin. Asko sufritu nuen” (27. B-I).

Istorio horietan, sexu-indarkeria narratzaileak adingabeak direnean ematen da. Istoriotako batean, bortxatzailea ez da ezezagun bat; familian aginpidea duen pertsona ezagun bat da, biktimaren amarekin duen lan-hierarkia dela eta. Bi kasuetan, ondorio psikologikoak sakonak dira; hainbeste, non bi narratzaileek ezin dituzten beren esperientziak hitzez azaldu, ezta horiengan sakondu ere.

“Han bizi nintzen... Ikasten nengoen eta 16 urte nituela... Han izan zen... Bukatu zela sentitu nuen, bizitza bukatu zitzaidala sentitu nuen (negarra) bortxatu nindutenean, ikasteari utzi nion. Orditik bizitza ezberdina izan zen. Han konturatu nintzen haurdun nengoela, eta, han, ez, aizu, ez, nire bizitza... Ez, ez dakit azaltzen. Orditik ez nuen ikasi nahi izan, ez nuen hitz egin nahi, ez nuen ezertxo ere nahi, esaten nuen... Gauza zoro asko pentsatzen nituen eta pentsatzen nuen ere Jainkoa ez zela existitzen, zeren, bestela, ez litzaidake hori gertatu izango, eta pentsatzen nuen bortxatu baninduten, zergatik geratu behar nintzen haurdun, gauza zoro asko pentsatzen nituen, esaten nuen, zergatik ni, zergatik ni... (Isilunea)” (7. B-I).

“Depresioarekin egon nintzen amari zuzendariarekin gertatutakoa lehenago ez kontatzeagatik, agian ahizparen bortxaketa ekidin ahal izango nuen. Ahizparen kasuan, denbora asko egon zen hitz egin nahi ez zuela, haur bat zen eta ez zegoen prest ama izateko. Nebetako bat, bortxaketez



jakin zuenean, alkohol asko edaten hasi zen. Ahizpatxorik gazteena ebakiak egiten hasi zen beso eta hanketan” (16. B-I).

Erasotzaile bat baino gehiagoko bortxaketek ere ondorio sakonak uzten dituzte, fisiko zein psikologikoak. Esan beharra dago, talde-bortxaketako bi kasuetan ankerkeria berezia egon dela, fisiko zein psikikoa; horrek estres postraumatikoa sortzen du, baina baita itxaropen falta sakona, kalte-ordain edo justizia motaren bat lortzea ezinezkoa dela ikustean.

“... Orduan esan nion: ‘Begira, saldu egidazu botila bat’, esan nion. Bere ondoan edaten hasi nintzen, hain aztoratuta nengoan, ez nuen irtenbiderik ikusten, ez nekien nora jo, etsita... Orduan esan nion: etxera joango naiz, itzuliko naiz. Baina zaila izan zen itzultzea, etxean jada nire zain zeudelako. Nire amaginarrebaren etxeko atea jo nuenean, beraiek eskutik heldu zidaten, eta amaginarrebak ez zuen atea ireki nahi izan, beldur zelako, orduan esan nien minik ez egiteko, orduan esan zidaten modu onean uzten ez banien, modu txarrean egingo zutela, baina aldi berean uzten ez banien, ba, zera... Nire haurrak hilko zituztela, nik nituen lekutik aterako zituztela. Beraiek bazekiten haurrak non utzi nituen, eta ‘uzten ez badiguzu hil egingo ditugu’, orduan... (isilune bat egin eta bukatzen du, negar egitear) bortxatu egin ninduten” (5. B-I).

“Madriren egon nintzenean, zentro honetan, gutxi gora behera amesgaiztoak nituen egunero, gauero... Hona itzultzean (Galizia) berak Tranquimacín pilula utzi niri beti, lasaiago, berarekin konfiantza dut, badakizu? Garrantzitsuagoa da niretzat lasaitasun hori, badakizu? Hemen ere amesgaiztoak. Ez hainbeste, iluntasuna beti, ni beti basoan. Adar lehorrak, badakizu? Belarra, hostoak. Eta esnatzen naiz. Pentsatzen, pensatzen. Beste pilula bat. Berriro ere lo egiten dut, berriro ere adarrak, belar lehorrak, belar hezea” (13. B-I).

Sei bortxaketa istoriotan, zauri eta ondorioak uzten dituen indarkeria fisikoaz gain, kalte psikologiko handiagoa dago; izan ere, inguruak joera du emakume eta neskek bizi izandako erasoen erruduntzat jotzeko, eta, hartara, zenbait istoriotan depresioa sakona da, biktimek ez dutelako inolako irtenbiderik aurkitzen. Dirudienez, bortxaketa emakume batentzako erasorik suntsitzailena dela pentsatzeak, zailago egiten du bortxaketari berari aurre egitea. Kasu horietan muturreko egoerak daude, eta arreta eskasa edo arreta eza; dena den, garrantzitsua da sexu-erasoak, eragiten duten kalteaz gain, emakumeentzako estigma bat ez izatea, eta horretarako funtsezkoa da laguntza goiztiarra eta jarraitua.

“... Laguntza handia lortu nuen: psikologo batek traumari aurre egiten lagundu zidan. Batzuetan jendeak ez du laguntza onartzen, baina nire kasuan aurrera egiten lagundu zidan. Beldurra galtzen duzu, zure errua ez dela onartzen duzu, baina ez duzu ahazten” (26. B-I).

Aztertutako kasu ia guztietan, gorputzaren inbasioa maila psikologikoan sakonki desegituratzailea izan den indarkeria da. Eragin horren funtsezko elementu bat babes falta dela uste dut; horrela, erasotzaileak lehendik bere alde izango du biktimek mehatxatzen eta kontrolatzen jarraitzeko inpunitatea, baita sistema judizialak, osasun-sistemak eta komunitateak emakumeekiko dituzten aurreiritziak ere.

Kasu ia guztietan, isiltasuna biziraupen-estrategia komuna da, erasotzaileak bizitza arriskuan jar dezakeen egoeretan. Geroago beste faktore batzuk ageri dira: zenbait kasutan, itxaropen falta edo erlijio-sentimenduak, antolakundeetan salatzea eta laguntza jasotzea, beste egoerei ahotsa ematea eta emakumeen antolakundeetan aktiboki parte hartzea.

4.6. Arriskuak alboan lo egiten duenean

Sei emakumek bikote gisa aukeratu zuten —edo aukeratu egin zituen— gizonaren aldetik pairatutako indarkeria kontatzen dute. Kasu guztietan, indarkeria horrek izaera psikologikoa izan zuen; bost kasutan, kolpeak eta bestelako eraso fisikoak ere eman ziren egunerokotasunez; eta hiru kasu gehiagotan, sexu-erasoak azaltzen dira erasotzailearekin baterako elkarbizitzan.



2. B-I		
Herrialdea: El Salvador	Adina: 51 urte	Indarkeria mota: Indarkeria bikotekidearen aldetik. Erakunde-indarkeria salaketa jartzean.
Berehalako eraso edota eragin fisikoak:	Kolpeak haurdunaldian zehar. Autoa martxan dagoela autotik botatzen du. Erasotzailearen bikotekide berriak autoarekin harrapatzen du.	
Ondorio fisikoak:	Autoarekin harrapatzearen ondorioz urtebetez mugitu ezinik geratzen da; mugitzeko gurpildun aulkia behar du.	
Eragin eta ondorio psikologikoak:	Lotsa eta umiliazio handia engainatu egin dutela jakitean. Sinesgogortasuna eta nahasmendua bikotekideak bigarren semearen aitatasuna ukatzean. Minik handiena bikotekideak seme-alabak gaizki tratatzea eta ukatzea eragiten dio. Depresioa.	
Bestelako eragin eta ondorioak:	Bikoteak dirua kontrolatzea; biktimaren ondasunak kudeatzen eta xahutzen ditu berari azalpenik eman gabe. Ondorioz, egoera prekarioa du, eta bankuari gehiegizko baldintzetan mailegu bat eskatzeko beharra.	
3. B-I		
Herrialdea: El Salvador	Adina: 40 urte	Indarkeria mota: Indarkeria bikotekidearen aldetik. Erakunde-indarkeria salaketa jartzean
Berehalako eraso edota eragin fisikoak:	Ubeldurak jipoien ostean. Lehen aldiz erasotu zutenean kirurgikoki artatu behar izan zuten, baina ez ditu lesioak gogoratzen.	
Ondorio fisikoak:	Elikadura-asaldurak. Haurdunaldietan zehar gaixotasun ezberdinak garatzen ditu, estresak eta larrimnak eraginda.	
Eragin eta ondorio psikologikoak:	Nortasuna eta autoestimua galtzea, izua, bere gorputza ukatzea, larrimina eta tristura etengabea. Errua. Segurtasun falta bere zentzuaren eta osasun mentalaren inguruan, erasotzaileak etengabe zoro egoteaz akusatzen baitu.	
Bestelako eragin eta ondorioak:	Herrialdetik aldi baterako ihes egitea. Tratu txarrak eta indarkeria fisikoa erasotzailearen familiaren aldetik. Azterketa psikologikoak egiten ditu borondatez, zoraturata ez dagoela frogatzeko.	
8. B-I		
Herrialdea: Kolonbia	Adina: 55 urte	Indarkeria mota: Indarkeria, bi bikotekideren aldetik. Erakunde-indarkeria bigarren kasuan salaketa jartzean.
Berehalako eraso edota eragin fisikoak:	Kolpeak, sexu-erasoak.	



Ondorio fisikoak:	Ez dira deskribatzen.	
Eragin eta ondorio psikologikoak:	Nortasuna galtzea, depresioa, bere burua ez balioes- tea, izua, antsietatea, babesgabetasun ikasia, pasibo- tasuna.	
Bestelako eragin eta ondorioak:	Bakartzea. Bizitakoa ukatzea, bere emakume onaren rola eta era- sotzaileak duen Jainkoaren gizonaren irudia zaintzeko.	
9. B-I		
Herrialdea: Kolonbia	Adina: 20 urte	Indarkeria mota: Familia barruko indarkeria. Bortxaketa hiru ezezagunen aldetik 14 urte zituela. Indarkeria lau bikotekideren aldetik.
Berehalako eraso edota eragin fisikoak:	Kolpeak bere harreman guztietan. Sexu-erasoetan mina, bikotekide baten aldetik. Kolpeak bigarren haurdunaldian zehar, hematoma sorraraziz. Abortatzera behartua.	
Ondorio fisikoak:	Autolesioak; ebakiak besoetan.	
Eragin eta ondorio psikologikoak:	Depresioa, antsietatea, bere buruaz beste egiten saiaetzea.	
Bestelako eragin eta ondorioak:	Aurrera egiteko aukera gutxi, inguru nahiko zail batean.	
15. B-I		
Herrialdea: EAE	Adina: 47 urte	Indarkeria mota: Indarkeria bikotekidearen alde- tik. Salaketa, alabari tratu txarrak emateagatik.
Berehalako eraso edota eragin fisikoak:	Arreta falta abortuaren kasuan, kolpeak, erredurak, labana-zauriak.	
Ondorio fisikoak:	Ez dira deskribatzen.	
Eragin eta ondorio psikologikoak:	Depresioa, antsietatea eta beldur handia.	
Bestelako eragin eta ondorioak:	Familiak eta inguruak bakartzea. Gatazkak seme-alabe- kin, kultur kidetasun sentimendu ezberdinak direla eta.	
19. B-I		
Herrialdea: EAE	Adina: 49 urte	Indarkeria mota: Indarkeria bikotekidearen aldetik. Erakunde-indarkeria.
Berehalako eraso edota eragin fisikoak:	Ez dira deskribatzen.	
Ondorio fisikoak:	Ez dira deskribatzen.	
Eragin eta ondorio psikologikoak:	Antsietatea eta estresa bere egoera ekonomikoaren- gatik, eta egoera horren alternatibarik ez izateagatik, laguntzak jasotzeko baldintzak ez baititu betetzen.	
Bestelako eragin eta ondorioak:	Ez dauka familiaren babesik migratzaile izaera dela eta, eta bikotekidearen familiak baztertu egiten du.	



Narratzaileak bizi diren herrialdeetan, bikote heterosexualetan ematen den indarkeria gehien aztertu izan den indarkeria mota da, baita legeria-garapen eta biktimak laguntzeko baliabide gehien izan dituen ere. Hala ere, hemen aztertutako istorioetan faktore komuna da emakumeek bikotekidea topatzeko duten presio soziala. Bikotekiderik gabeko emakumea, "bakarrik" dagoen emakumea da, arriskuan eta baliorik gabekoa. Presio horren adibide dira 20 urteko neska batek jada lau bikotekide eduki izana, edo emakume batek bere burua babesteko bigarren bikotekidea bilatzea lehenengoaren erailketaren ostean. Gizarte-indarkeria hori berezko presio bihurtzen da, eta eragiten du emakumeek bikote-harreman bat bilatzea lehenestea, beren intuizioa eta desiren gainetik, nahiz eta harreman kaltegarria izan. Kasu batzuetan, hasieratik erresistentzia egon arren, pisu gehiago dauka "bakarrik" ez egoteko barne- eta kanpo-inposaketak.

"Soilik esan zidan ezkondu egingo ginela, eta nik pentsatzen nuen: 'baina nik ez dut ezkondu nahi'. Elizan sartzen ari naizen uneko argazkiak ikusiko bazenitu, bazirudien hileta batera nindoala, ez dakit nolatan ez zuen inork ikusi ez nuela ezkondu nahi, nik jada ezin nuen erabakirik hartu eta hesitu egin ninduten, kontrolatuta sentitzen nintzen, maskota bat izango banintz bezala zen, oso kate laburra zuena, eta inora begiratzea debekatzen ziotena. Horrela sentitzen nintzen ni, horrelakoa izan zen nire bizitza gertatutakoaren ostean. Beldur handia ematen zidan, tristura handia, mina, isilik egon beharraren larrimina, itxurak gordetzea, nire buruarekiko ukazio handia sentitzen nuen, nire itxura fisikoarekiko ukazioa" (3. B-I).

"Garai nahiko gogorrak izan ziren... Bera noizean behin agertzen zen, eta (behin) armatua etorri zen etxera, eta nire lehengusinari esan zion biharamunera arte nuela hortik alde egiteko, hilko ninduelako, orduan... Alde egin nuen, eta atea irekitzen nuen bakoitzean gizon bat zegoen aurrean, ni behatzeko... Eta mehatxatu egin ninduten, esan zidaten haietako batekin oheratzen ez banintzen nire etxera sartu eta bortxatuko nindutela eta hilko nindutela... Ihes egin behar izan nuen seme-alabekin beste leku batera, ia beti emakume bat bakarrik dagoenean, ni 22-23 urteko emakume gaztea nintzen, agintzen dutenek uste dute guztiek dituztela emakumearen gorputz eta erabakien gaineko eskubideak, eta egoera horregatik ni alde batetik bestera ibili behar izan nintzen" (8. B-I).

Emakume horien bikotekideak ez daude haiekin bizi-proiektu komun bat eraikitzeko, baizik eta haiek kontrolatzeko; horrek etengabeko antsietatea sortzen die, emakume onaren rola betetzen tematzen direlako, tratatu txarrak eta mehatxuak onartuz, bikotekidea eta familia dituztelako ideiarekin jarraitzeko, "normalak" direla eta eskatzen zitzaizen eta bere buruari eskatzen zioten helburua bete dutela pentsatzen jarraitzeko.

Istorioren horietan indarkeria ez da aldizkako zerbait, nahiz eta zenbaitetan harremanak denbora laburrekoak izan. Tratatu txarrak harremanak izateko modu gisa ulertzen dira, eta orduan ikus dezakegu nola emakumeek mota askotako biziraupen-estrategiak baliatzen dituzten. Kasu bakar batean, protagonistak onartzen du pairatutako indarkeriak norberaren buruaren irudian eragina izan zuela; beste batek lekuz aldatu behar izan zuen; eta beste batek bikotekide berri bat bilatzen zuen etengabe, bere bizitzako hurrengo gizonak babestu eta maitatuko zuelako esperoan.

"Lau bikotekide izan ditut. Nire lehenengo bikotekidea... Nik 15 urte nituen, berak 27, horrelako zerbait, talde armatuetakoa zen, gizon hori eeeeez, jo egiten ninduen, mota askotako indarkeria gauzatzen zidan, gaizki tratatzen ninduen, zapaldu egiten ninduen, nahi zuenean kalean kolpekatzen ninduen... Nik berarekin egon nahi ez nuenean, berarekin egotera behartzen ninduen,



orduan bai, gauza asko pairatu nituen. Berarekin utzi eta abortatzera behartu ninduen, eta esan zidan berak ez zuela erantzukizunik hartuko... Txerto bat jarri zidan eta bi pilula harrarazi zizkidan, eta beste bi sarrarazi zizkidaten... Beno, orduan ezagutu nuen nire semearen aita; sei hilabetez egon ginen elkarrekin, sei hilabetez haurdun geratu nintzen, abenduaren 30a zen konturatu nintzenean, polita izan zen haurdun nengoela konturatu nintzen momentua, betidanik nahi izan nuen zerbait zelako, haur bat izan, baina beldur handia ematen zidan haur bat izateak, bizi-baldintzak zirela eta, oso gaztea nintzen, 19 urte betetzear nengoen, ikasketak bukatu gabe... Haurdun nengoela kontatu nionean, esan zidan ez zuela haurraren ardura hartuko, haurra ez zela berea, beno, gauza pila, haurra jaiotzean ADN frogatzea zidala... Duela 19 hilabete mutil bat ezagutu nuen, hizketan hasi ginen, bikote-harremana hasi genuen, harremana hasi eta 15 egunetara espetxeratu zuten" (9. B-I).

"Ikasitako babesgabetasuna", hau da, norberaren segurtasunaren kontura bikote- eta familia-ideal bat defendatzea, eragin psikologiko bat da; bere bikotekidearen aldetik indarkeria pairatzen duten emakumeak laguntza ez eskatzera eramaten ditu horrek, salaketarik ez jartzera, bikotekidea babesten jarraitzen dute indarkeria egon arren, nahiz eta jarrera horrek, beren aurka itzultzean, are babesgabeago bihurtzen dituen, posible bada.

"Ondoren, epaileak esan zidan hau gelditu zezakeela, baina abokatu on bat bilatu behar nuela, guztiari buelta eman eta berehala espetxeratu behar zirela, orduan ni negarrez jarri nintzen, oso gaizki. Esaten nion epaileari: 'baina nola sartuko ditut espetxean?'. 'Zuk ez dituzu espetxean sartuko', esan zidan epaileak, 'beraiek sartuko dira, bakar-bakarrik'. Azkenean ez nituen espetxera bidali nahi izan, eta orain damutu egiten naiz zeren nitaz burla egiten jarraitu zuten" (2. B-I).

"Azken urteak izan ziren gogorrenak... Eta... Ez nuen sekula salaketarik jarri. Egia da... Hemen udaltzaingo zerbitzua badagoela... Eta... Eta... Nire tratu txarrak hasi zirenean... Beno... Nire tratu txarrak hasi zirenean ez, ni hori onartzen hasi nintzenean, indarkeria zerbitzu espezifiko bat ireki zen, eta ni komisariara joaten nintzen, ez nuen salaketarik jartzen, baina barruak husten nituen... Noski... Haiek dena idazten zuten... Eta nire bikotekideak beste harreman bat zuen, joan eta etorri zebilen, laupabost egun egoten zen... Hona zetorren, kristorena muntatzen zidan... Eta egun batean, nire alabak 11 urte zituen... Eta buelta bat ematera irten zen, eta etorri zenean nire bikotekidea autoan zegoen eta... Egun hartan, nire alaba jo zuen makila batez. Orduan jendeak polizia deitu zuen... Polizia etorri zen, eta orduan... Nik uste guztioi gertatzen zaigula zerbait... Eta salaketa jartzeko urratsa ematen dugu... Nik uste nuen gizon horrek sekula... Zeren nik, nire beldurra salaketa jartzea zen, uste nuen... Ez nuela ezer ere ez lortuko... Kontrakoa, niretzat okerrago izango zela... Eta, hara non nire sorpresa... Orduan, hor izan zen hasi zenean... Tratu txarrak benetan eteten" (15. B-I).

Bikotekideari salaketa jartzeak kostu emozional handia du emakumeentzat, eta, gutxienez istorio hauetan, ez da lehenengo uneetan gertatzen. Egoera horretan pasatzen dituzten urteetan emakumeen osasun fisiko eta mentalak okerrera egiten du. EAEko kasuetako batean, laguntza jasotzeko tramiteak indarkeria gehigarri bihurtzen dira, nahiz eta propagandaren arabera indarkeriaren biktimentzako malguak eta irisgarriak diren.

"Egia esan, Lanbideko zuzendaria lotsagabe hutsa, oso gaizki, ezin da pertsona bat horrela tratatu. Zeren zu bazoaz esatera ea zer pasatzen den, eta ez zuen ordenagailuan ere begiratu nahi. Ez, ez, ez... Esaten dit 'zuk ez duzu ezertarako eskubiderik'... Baina ikusiko dugu, esaten nion, ikusiko dugu... Ez al duzu ulertzen hemen dudala dokumentazio guztia, etengabe kartak bidaltzen



ari zaretela eta bakarrik esaten didazue... Baina guztietan esaten zidaten gauza bera! Ez nuela osatzen bizikidetzako unitatea, ez neramala urtebete etxebizitzan bizikidetzako unitatea izateko, eta urtebete eta zazpi hilabete neramatzan..." (19. B-I).

Kasu horietan, egoerari aurre egiteko askotariko estrategiak aurkitu ditugu: urte askotako isiltasuna indarkeria gehiago ez pairatzeko; mendekotasuna, erasotzailearen haserrea kontrolatzen saiatzeko; hala ere, baliabide horiek ez dira eraginkorrak, emakumeek denbora asko ematen baitute onartzen duten arte, egiten dutena egiten dutela, eraso soilik erasotzaileak erabakitzean etengo dela, haren erantzule bakarra delako. Emakumeek ez dute ideia hori beti ulertzen; zenbaitetan, itxaropen faltari irtenbidea bilatuz, sinesmen erlijiosotan babesten dira, edota beren seme-alabengan. Ezinbestekoa da antolakunde feministen babesa, emakume horiei indarkeriari aurre egiten agortu zaien indarra emateko. Kasuetako batean, indar hori hiriko erakundeen baliabideetatik dator.

4.7. Alaben heriotzari bizirauten zaionean

Azken hiru istorioek beste biktima mota bat hurbilduko digute: alabei bizirauten dieten amak dira, beren alabek indarkeria matxistaren adierazpide gorena pairatu baitzuten: feminizidioa. Seme-alabak galtzearen osteko dolua konplexua izan ohi da, erailketaren osteko dolua den bezala. Istorio hauetan, bi amek alaba gazteen feminizidioei bizirauten diete, eta beste batek alaba txikiaren heriotzari bizirauten dio, haren aitak berak eraildakoa.

14. B-I		
Herrialdea: EAE	Adina: 58 urte	Indarkeria mota: Alabaren feminizidioa jaietan emandako sexu-eraso baten testuinguruan. Erasotzaile ezaguna.
Berehalako eraso edota eragin fisikoak:	Ez dira deskribatzen.	
Ondorio fisikoak:	Ez dira deskribatzen.	
Eragin eta ondorio psikologikoak:	Estresa, larrimina, nerbio-krisiak eta memoria galera selektiboak. Beldurra, alabaren hiltzaileak espetxetik irteten denean izango duen jarrerarengatik.	
Bestelako eragin eta ondorioak:	Hedabideetan agertzea, alabaren erailketaren oihartzuna dela eta. Biktimizazioa, prozesu judizialean alabaren ospea zalantzan jartzen baita.	
18. B-I		
Herrialdea: Guatemala	Adina: 69 urte	Indarkeria mota: Alabaren feminizidioa bikotekide ohiaren aldetik, zeinak lehenago desitxuratu egin zuen. Erasotzaile aske atera zen.
Berehalako eraso edota eragin fisikoak:	Ez dira deskribatzen.	
Ondorio fisikoak:	Ez dira deskribatzen.	



Eragin eta ondorio psikologikoak:	Depresioa.	
Bestelako eragin eta ondorioak:	Eraildako alabaren semea, zeinaren ardura duen, izu egoeran bizi da.	
21. B-I		
Herrialdea: Espainia	Adina: 55 urte	Indarkeria mota: Aitak alaba gaztea erailtzea. Erakunde-indarkeria, alabaren arrisku egoeraren ondorioz egindako laguntza eskaerari kasurik ez egiteagatik.
Berehalako eraso edota eragin fisikoak:	Ez dira deskribatzen.	
Ondorio fisikoak:	Ez dira deskribatzen.	
Eragin eta ondorio psikologikoak:	Panikoa, bikotekide ohiaren jazarpena dela eta. Izua, larrimina, desesperazioa, inpotentzia haurren heriotzaren ostean.	
Bestelako eragin eta ondorioak:	Salaketa nazioarteko auzitegietara heldu da; han arrazoa eman diote eta Espainiako Estatuak zigortu dute. Hala ere, eskatutako kalte-ordaina ez da oraindik gauzatu.	

Hiru amek ondorio psikologiko sakonak izan dituzte: depresioa, antsietatea, agerraldi psikotikoak, hau da, indarkeriaren eraginak biktima indibidualetatik haratago doazela erakusten diguten ondorio larriak. Ahal duten moduan egiten diote aurre alaben heriotzei: bi kasutan, emakume eta haurren eskubideen aldeko militantziak mina integratzen laguntzen die; beste batean, biziraun duen iloba zaintzea bizitzen jarraitzeko arrazoi bihurtzen da.

“... Behin baino gehiagotan saiatu zen bere buruaz beste egiten. Horietako bat, apenas lo egin gabe bizitzen jarraitzeak sortzen zion etsipenarengatik: normaltasunez arnasteko ezintasunak 20 minutuz baino gehiago lo egitea galarazten zion. Etengabeko esnaldia zela eta, nekatuta eta nahasita, bere buruaz beste egitea erabaki zuen. Baina biziraun egin zuen berrir. Bere buruaz beste egin nahi izan zuen berriz, azaldu ziotenean bere kasua zeraman epaileak bere lesioak arinak zirela ebatzi zuela; Guatemalan delitu hori beste neurri batzuekin ordezkatu daiteke, eta atxilotuak bermepeko askatasuna lortu ahal izan zuen. Eta bera (biktimaren seme gaztea) beldur da oraindik, ez da komunera bakarrik joaten, arratsaldetik aurrera ez da bakarrik irteten, batek daki zergatik baina beldurra ematen dio, esaten du gauzez bere amak eskua gogor estutzen diola” (18. B-I).

“... 2011an... Egun batean ere burua joan zitzaidan... Eta geratuta nengoen egun bat zen, uztailearen 7a gertu zegoelako... Eta kazetari batzuekin geratuta nengoen grabatzerak etor zitezela... Eta beno, ni altxatu eta ile-apaindegira joan nintzen... Nik uste nuen normal nengoela, eta gero etxera etorri nintzen, baina Antena3-eko mutil horiek etorri zirenean... Deitu eta esan zidaten: ‘zer moduz?’... ‘ondo, ondo’, nik, aizue, itxaron, Nagoreren zain nago eta... Orduan mutilak nirekin hizketan hasten dira eta badirudi, ni ez nintzela ezertaz ohartu... Nik ez nuen hitz egiten, normalak ez ziren gauzak esaten nituen... Beraz ez zuten kamera ez ezer ireki... Nire semea etor zedin itxaron zuten, unibertsitatean zegoen eta etxera etorri arte... Askok beldurtu zen eta... Ospitalera eramanez ninduen eta han egon nintzen bi egun ezagutu gabe... Nire senarra nirekin geratu zen gauzean, eta esaten du etengabe niola: ‘eta zer gertatu da?’ eta bi minutu barru, berrir: ‘eta



zer gertatu da?'. Horrela ibili nintzaion gau osoa... Eta beno... Esan zidan neurologoak, batzuetan, minarekin gehiago ezin duzunean, buruak 'klak' baten antzeko zerbait egiten duela... Eta gaizki geratu ahal izan nintzela... Baina beno, 'klak' egin eta itzuli egin nintzen... Baina oroitzapen asko joan egin zaizkit, gauza asko... Bi edo hiru urtera izan zen, baina uztailaren 7a zen, gogoan dut ez nintzela kontzentrazioa joan ospitaleratu nindutelako..." (14. B-I).

"Nik hasieratik eskatu nuen elkargune neurria, jada etxetik alde egin nuelako erasotu nindue-
nean, ni hiltzen saiatu zen, beraz, hasieratik eskatu nuen neurri hori, eta erasotzaile horren
eta nire alabaren arteko bisitak beti zaintzapean egitea nahi nuen. Nik panikoa nuelako, beldur
nintzelako eta hasieratik nekien zerbait egingo zigula. Beti. Baina, noski, nire alabarentzako ba-
besa ere nahi nuen, logikoa denez... Esaten nien guztia oso gogorra zen, ezta? Erasoak, bahitzen
saiatzea... Alabarekin Valentziako errepidetik gindoazen eta elementu horrek autoarekin kolpeak
ematen zizkigun, esan nahi dut, niretzat hain zen gogorra, eta ondoren hori salatzeraz joatea nire
alaba besoetan nuela, zeukan beldurraren beldurrez askatu gabe, eta parean neukan pertsonak
ez ulertzea edo, sinpleki, idaztean agertzen zuen hoztasuna ikustea: 'ez, itxaron, itxaron, itxaron,
bizkorregi zoaz' nik kontatzen nuena idazteko, suntsitzailea zen... Nik esaten nuen: ene, hil egin
ahal gintuen, eta hau kontatzen ari naiz kasurik egiten ez didan pertsona bati, ez dakit salaketa
hau nora doan ere, ez dakit, esan nahi dut, nik irtenbide bat behar dut oraintxe bertan" (24. B-I).

Kasu horietan, gauzatzen zaila den prozesua da dolua. Hala ere, erresilientziarako fakto-
reak dira, batetik, beren sufrimendua ikusarazteko militantzia, aurrekari sozial zein lega-
lak ezartzeko; eta, bestetik, alaben istorioak ezagutzera emateko agertutako borondatea.
Militantzia hori existitzen ez den kasuan, depresioa modu argiagoan ageri da. Bestetik, is-
torioetan ez da argi geratzen dolua gauzatzeko prozesua, alabaren heriotzaren hirugarren
urtemugan gertatutako agerraldi psikotiko bat baino ez da kontatzen. Doluaren ezaugarri
ziklikoak kontuan hartzekoak dira, ama horiek urtemugei nola aurre egiten dieten ikusteko;
izan ere, kasu batean ikusitakoaren arabera, galeraren ostean ager daitezke osasun menta-
lerako arriskurik larrienak.

5. ERAKUNDEEN BIKTIMIZAZIO BIKOITZA, BESTE INDARKERIA MOTA BAT

Talde- edo erakunde-indarkeria, OMEren definizioaren arabera, etengabe ageri da jasotako
istorioetan. Soilik horietako bitan topatu dugu erakundeen aldetik jasotako babesaren ai-
tortza zuzena, eta horietako batean biktimak funtsezkotzat hartu zuen babes hori indarkeria
egoeratik irteteko.

Gainerako 26 kasuetatik, 10 emakumek salaketa jarri zuten, horrela erasotzailearen aur-
kako babesa izango zutelakoan, eta guztiz kontrakoa topatu zuten: tratu txarren gorakada
funtzionarioen aldetik, arreta falta, kontatutako istorioetan konfiantza gutxi edo konfiantza
eza, tramite burokratiko zurrunk, legeria murrizta eta bestelako oztupoak, bizi izandako
indarkeriak beste min edo handiagoa eragin zietenak.

Hiru kasutan, emakumeen eskubide sexual eta erreproduktiboak ez errespetatzea da tratu
txarrak pairatzera daramatzana, dela abortu eskubidea edozein egoeratan kriminalizatzen
duen sistema judizial baten aldetik (El Salvador), edo sexu bereko pertsonak maitatzea kri-
minalizatzegatik (Iran); eskubide horiek gauzatzen dituzten emakumeak herrialdetik ihes
egitera behartzen ditu horrek.



Badaude beste bederatzzi kasu, non esan daitekeen erakunde-indarkeria dagoela paramilitarrek edo *marak* lurraldeak kontrolatzen dituzten egoeretan; egoera horietan, beren bizilekua kontrolatzen duten horien menpe geratzen diren emakumeak babesteko eginbeharra ez betetzean gauzatzen da erakunde-indarkeria, eta bestetan Estatuak berak jazartzen ditu bere politiken kontra agertzen diren horiek.

Azkenik, beste lau istorio aurkitzen ditugu, zeinetan estatu-erakundeenganako konfiantza faltak eragiten duen emakumeek salaketarik ez jartzea.

Ziur asko, erakundeen babes falta hori da, kasu gehienetan, istorio hauek —eta ez beste batzuk— jasotzea eragin duena. Hala ere, eta errealitatearen osotasuna ordezkatu ez arren, estatuek emakumeen bizitza eta segurtasuna bermatzeko duten ahalmen falta erakusten digute kasu horiek; are gehiago, kasu batzuek agerian uzten dute sistemak mina eragiteko daukan gaitasuna, funtzionarioen erabakiak gidatzen dituzten estereotipo sexistak direla eta.

Merezi du Espainiako Estatuko erakundeen jokabidean —eta, bereziki, sistema judizialean— aurkitutako ezberdintasunak azpimarratzea. Erakundeen babes sentitu dutenak EAEko bi emakume dira, nahiz eta horietako bat irizpide judizialekin ados ez egon; aldi berean, ordea, bi emakume berak dira Espainiako Estatuko beste erkidegoetan erakundeen aldetik muturreko tratu txarrak bizi dituztenak. Horietako emakume batek, sexu-indarkeriaren biktima eta emakume migratua denak, aurre egin behar die “gezurti” eta “paperak lortzeko indarkeriaren asmatzaile” estereotipoei, eta umiliatua eta zigortua izango da migratzaile zein muturreko sexu-indarkeriaren biktima izateagatik. Badirudi kasu horretan estereotipo guztiak jokatzen direla, babes mugatzeaz gain bizitakoa baino indarkeria gehiago eraginez.

Beste kasuan, ama batek etengabe azaltzen du bere alabak aita erasotzailea bisitatzen duenean daukan arriskua; ama horri entzun ez, eta, azkenean, bere beldurrik handienak egi bihurtzen direla ikusten du, aita alaba hiltzen duenean, aitaren eskubideak alabaren babesaren gainetik defendatu baitira. Amari tratu txarrak eman dizkion aitarekin harremana izatea alabarentzat ona izan daitekeela pentsatzea aurreiritzi patriarkala dela frogatzen da kasu horretan; aurreiritzi horrek ez ditu amak sinesten eta susmagarri bihurtzen du seme-alabak babesteko borroka.

Bi kasuetan suntsitzailea da erakunde-indarkeriaren eragina. Emakume horiek leher egin da geratzen dira fisikoki zein emozionalki, eta babes ezaren isla dira. Beharbada, hain zuzen muturreko ahultasun hori dela eta, antolatutako beste emakumeak eta giza eskubideak defendatzen dituztenak haien ahots bihurtzen dira, erakunde-indarkeria horren salaketak bestelako eztabaida-guneetara eramateko. Kasuetako batean, narratzaileak identifikatu eta erlazionatu egiten du gertakariak pasa eta bi urtera agertutako minbizi-prozesu bat, osasun-arreta eza suposatzen zuen beste tratu txar mota batekin.

Gainerako istorioetan, emakumeen inpotentzia eta amorrua sumatu daitezke eskatzen zaienean erasotzaileak barkatzeko, kalte-ordain bidegabeak onartzeko, ez erreklamatzeko seme-alaben elikagaien pentsioen berankortasuna, etab. Azken finean, erasotzailearen inpunitatea babesten duen sistema batek, emakumeak bereziki ahul egiten dituen egitura horretaz ez fidatzera daramatza.



Enplegatzaile batek “bere langilearen haurdunaldia jokaldi makur baten gisa bizi zuelako hartaz mendekatzea” erabakitzea, eta laguntza ekonomikoen arduradun diren erakundeek ez erantzutea, edo, auzoko batek, gerra testuingurua aprobetxatuz, bahiketa baten bidez mendeku hartzea; horrelako egoeren aurrean ezin defendatzeak arriskuan jartzen du biktimen oreka emozionala.

6. ZENBAIT ONDORIO

Indarkeriak, agertzen dituen forma ezberdinetan, emakumeen eta beren inguruaren osasun fisiko eta emozionalean eragiten du, baita beren harreman sozialetan ere. Ondorio hori agerikoa da aztertutako istorio bakoitzean, eta baita beren osotasunean ere. Indarkeria matxistaren forma ezberdinen eragin biopsikosoziala nabarmena da gertakariak aldizkakoak ez direnean, nahiz eta emakume biktimen kontzientziara modu argian beti ez heldu. Salbuespenak salbuespen, jasotako istorioek etengabeko indarkeria-bizipenen berri ematen dute, horietako zenbait narratzaileen haurtzarotik hasitakoak; hortaz, gerta daiteke bizipen horien ondorioak bizitzan barneratzea, beste bizipen zailengandik —pobrezia, abandonatzea, desplazamendua, baztertzea— bereizteko gai izan gabe.

Indarkeriaren eragin eta ondorio fisikoak honakoak dira: gertakari baten ostean, biktimek berehala agertzen direlako antzematen dituzten sintometatik hasi (maiz, buruko minak), eta patologia larriagoetaraino, zenbaitetan bizi izandako indarkeriarekin lotzen direnak, edo tratu txar fisikoaren ondorioak artatzeko edota zaintzeko aukera ezarekin lotuak; horrek, zenbaitetan, osasunak okerrera egitea dakar.

Osasun fisikoari dagokionez, haurdunaldia, dela adostutako harreman baten ondorioz, dela bortxaketa baten ondorioz, arrisku bat da emakumeen bizitzan. Kasu batzuetan, narratzaileak bera delako haurdunaldia nahi ez duena, baina ezin duelako baldintza seguruetan eten, edo ezin duelako aukera hori aintzat ere hartu; beste kasu batzuetan, bikotekidea delako baldintza txarretan haurdunaldia etetera behartzen duena. Kasu horietan, ziurrenik, emakumeen osasun sexuala eta erreproduktiboa arriskuan jartzen dira, nahiz eta beren istorioetan alderdi horiek sakon ez aztertu.

Osasun mentalari dagokionez, antsietatea da narrazioetan gehien ageri den sintoma: antsietatea, biktimek irtenbide posiblerik ikusten ez duten egoeren aurrean, eta zenbaitetan depresio zikliko ere bihurtzen dena, nahiz eta gehienetan ez den diagnostikatzen, arlo horretako arreta eza dela eta. Depresio horietako zenbait, norberaren buruaz beste egiteko saiakera bihurtzen dira edo mendekotasunak ekartzen dituzte; helburua, indarkeriak, babes faltak edota bizi-baldintzak aldatzeko itxaropen ezak sortutako min sakona arintzea da.

Antsietatea eta depresioa artatzeko laguntza gisa medikaziorik erabili den jakiteko daturik ez dago. Kasu batzuetan arreta psikologikoa ematen da; maizago, antolakunde feministetan edo indarkeriaren biktima izandako emakumeak laguntzeko antolakundeetan parte hartzen duten beste emakumeen sostengua da bizi izandako indarkerien ondorio psikikoei aurre egiteko laguntza.

Alderdi sozialari dagokionez, ikusi dugu bakartze soziala dela indarkeriaren ondorio ohikoetakoa: dela indarkeriak sortutako lotsarengatik, erasotzailean mehatxuengatik, baliabide bakarra desplazamendua delako, inguruak baztertzen dituelako edo bizi izandako egoeraren ezaugarriengatik, emakume gehienak beldur dira eta isildu egiten dira. Horrela,



ia ezinezkoa da esperientzia emozionalki konpontzea, eta errua zein depresioa abiapuntu ez dituen ikuspuntu batetik barneratzea.

Askotarikoak dira emakumeek indarkeriari eta bere ondorioei aurre egiteko estrategiak, baldintzatu egiten baititu bizi izandako indarkeria motak, erasotzailearekin zuten harremanak, jasotako babesak eta beste faktore batzuek. Nahiz eta kasu guztietan beldurra ageritzen den, erasotzailearekin harreman afektibo bat dagoenean, bikote- edo lan-harreman baten ondorioz —etxeko langilearen eta bere enplegatzaile erasotzailearen kasuan bezala—, ohikoa da indarkeria gutxiestea edo mendekotasuna zein obedientzia erabiltzea aurre egiteko estrategia gisa, denborarekin horrek eraginkortasun falta duela frogatzen delarik.

Beren sinesmen erlijiosoetan babesten diren emakumeek ez dute profil argirik: herrialde ezberdinetakoak dira, ez dute adin-tarte jakinik eta indarkeria mota ezberdinak bizi izan dituzte. Militantzia —norberaren kausaren, zein antzekoen alde— da aurrera egiteko narratzaile askok hautatu izan duten estrategia. Zenbait kasutan, militantzia horiek indarkeria-bizipenak baino lehenagokoak ziren, edota, hain zuzen, jazarpen zein tortura eragileak, nahiz eta horietan guztietan indarkeriak beste bide bat hartu, depresioaz gain. Hala ere, badirudi bizi izandako injustiziak sortutako amorrua eta, zenbaitetan, beste biktimenganako enpatia ez direla nahikoa depresioaren sintomak arintzeko.

Horrela, askotan, amorruari eutsi egiten zaio, isildu egiten da edo inpotentziaz bizitzen da; emakume gehienek bizi izandako erakunde-indarkeriak, ziur asko, eragina dauka amorrua adierazteko modu horietan. Zentzu horretan, esperientzia gehienak ezkorrak dira, nahiz eta salaketa jarri edota babes eske erakunde publikoengana jo. 28 istorioetatik, apenas bi dira erakundeengana jo ostean inolako oztoporik gabeko babesa sentitu dutenak; datu horrek biktima gehienek topatzen duten abandonua adierazten du.

Inguruak eta gizarteak onartu egiten ditu emakumeen egoera depresiboak amorrua baino hobeto; amorruak (indibiduala zein kolektiboa) bazterketa eragiten du, eta Dio Bleichmar-ek (1999) esan bezala, amorrua erreprimitzea emakumeen mendekotasuna indartzeko mekanismo bihurtzen da gizarte ezberdinetan. Horren harira, esango nuke, gainera, depresioak biktimen alderdi emozionala okertzea eragiten duela, beren amorrua adieraztera ausartzen ez direlako, jakin edo sumatzen baitute ez dutela babesik izango. Egia da depresioak hartzen dituenen ere ez dutela babesik aurkitzen, baina biktima isilduak askoz ere erosoagoak dira beren mina salatzen duten horiek baino.

Eraldaketa hori gauzatzeko ez dira nahikoa erresistentzia eta erresilientziarako baliabide pertsonalak. Beharrezkoak dira ere ulerkortasuna eta babesa, aztertutako istorioetan ageri ez direnak, ezta familietan eta inguruan ere, eta are gutxiago erakundeetan. Depresio egoera horien osasun-arretaren inguruko narrazioetan ez dugu informazio nahikorik. Ziur asko, kasu askotan emakumeak ez dira osasun-laguntza jasotzera joan, eta, bestetan, sintomak arindu dira kausei arreta bera eskaini gabe.

Osasun-erakundeak eta bertako langileak giltza dira emakumeek bizi izandako indarkeriak —ez soilik faktore pertsonalek— sortutako ondoeza kroniko ez bihurtzeko prozesuan. Horregatik, beharrezkoa da osasun kontzeptua zentzu zabalean berrikustea, indarkeria matxistaren biktimen osasun-arreta gidatzeko.

Gehienetan, erakundeen baliabide falta dela eta, emakumeen antolakundeak istorio horien bozeramale garrantzitsu bihurtu dira. Izan ere, protagonisten bizitzeko energia sakon



kaltetu da, eta, zenbait kasutan, indarkeriak suntsitu egin du; horregatik, beste emakume batzuen energia behar dute beren erresistentzia elikatzeke eta baita itxaropen zantzurik txikiena sortzeko ere.

Beren istorioak kontatu dituzten emakume askorentzat, kontzeptu arrotza da justizia, ikusi baitute nola justizia gauzatzeko ardura duten erakundeek erasotzailea babesten duten modu argian, eta ulerkortasun falta, konfiantza eza eta burokrazia bizi ostean, erreparazio gutxi espero dutelako alderdi horretatik. Hala ere, erreparazio hori oso garrantzitsua izango litzateke emozionalki osatzeko, doluak gauzatzeko, lotsari aurre egiteko eta indarkeria matxistaren ikuspegi patriarkaletara lotzen dituen errua gainditzeko.

Indarkeria matxisten ondorio fisiko, psikologiko eta sozialak ez daude beti indarkeria horrek hartzen dituen formei lotuta; nahiz eta agerikoagoa den sexu-erasoek min fisikoa eragitea, beste aldagai batzuk dira lesio horiek gorputza markatuko duten ondorio bihurtu ahal dituztenak. Aldagai horietatik garrantzitsuenetakoa da emakumeek jasotzen duten babesa; babes hori osatzailea izateko, ezinbestekoa da isiltasuna apurtzea. Hala ere, isiltasun hori modu eraginkorren apurtuko da soilik emakumeek eta beren ingurukoek erasoaren erantzule bakarrak identifikatzen dituztenean. Indarkeriaren zergatia inoiz ez da biktimen jarrera bat, baizik eta erasotzailearen ekintza. Indarkeria biderkatu egingo da erakundeak bere parte den erasotzailea (kasu batzuetan) babesten duenean, edo burokraziaren hoztasuna eta konplizitatea dela eta, erasotzaileak badakienean inpunitate soziala duela, egindakoa justifikatuz eta ez zigortuz.

Aztertutako istorioek gogorarazi egiten digute beharrezkoa dela emakumeen mina eraldatzea, justizia lortzeko eta giza eskubideen urraketak erreparatzeko oihu bihurtzea, direla beren eskubideen urraketak zein beste hainbat pertsonen eskubideenak, bizi izandako indarkeriaren ondorioak neurri batean arintzeko bidean, hitza hartzeko aukera ere ez baitute.

Orain arte antolakunde feministek egindakoa (emakumeak babestu, ahotsa eman, beren istorioak ikusarazi, errudun egingo ez dituzten interpretazio alternatiboak eman, etab.) erakundeen eginbeharra izan beharko litzateke. Betebehar soziala izan beharko litzateke ere edozein modutan erasotua izan den emakume bat baldintzarik gabe laguntzea, berehalako laguntza zein epe luzerakoa eskainiz, ez baita nahikoa laguntza profesionala —baldin badago— martxan jarriko duen dei bat egitea. Konfiantza berreskuratzeko, emakume biktimen goxotasuna behar dute beren familiengandik, ulerkortasuna ingurukoengandik, justizia eta errudunak zigortzea.

Soilik baldintza horiekin indarkeriak emakumeen gorputzetan izandako ondorioek forma hartu ahal izango dute beren kontzientzietan; eta soilik kontzientzia hori abiapuntu hartuta aurkitu ahal izango dira erreparazio eta osatzerako bideak.



7. BIBLIOGRAFIA ERREFERENTZIAK


DIO BLEICHMAR, Emilice (1999). La depresión en la mujer. Temas de Hoy, Madril.

ESTEBAN, Mari Luz (2004). Antropología del cuerpo. Género, itinerarios corporales, identidad y cambio. Ediciones Bellaterra, Bartzelona.

OSASUNAREN MUNDU ERAKUNDEA (2002). Informe Mundial sobre la Violencia y la Salud. Publicado en español por la Organización Panamericana de la Salud para la Organización Mundial de la Salud. Washington, D.C. (2016ko uztailaren 5ean kontsultatua), eskuragai :

“http://www.who.int/violence_injury_prevention/violence/world_report/es/summary_es.pdf”





3. KAPITULUA

Dimentsio
politiko eta legala



MARÍA NAREDO

Zuzenbide lizentziaduna da. Emakumeen eskubideen defentsarako abokatua izan da, eta 1998tik ikerketan ari da, indarkeria matxista, bazterkeria eta giza eskubideak aztergai dituela. 2003 eta 2007 urteen artean Amnistia Internazionalen 'No más violencia contra las mujeres' (Emakumeen aurkako indarkeria gehiagorik ez) kanpaina koordinatu zuen Espainiako Estatuan. 2004tik gaur arte, Amnistia Internazionalekin eta bestelako antolakundeekin dihardu elkarlanean, emakumeen aurkako indarkeriaren aurrean Espainiako Estatuko legedia zuzentzeko lanetan. Genero eta giza eskubideetan espezializatutako legelaria da, eta ildo horretatik, ikerketa eta laguntza teknikoko nazioarteko ordezkari zetan parte hartu du estatu mailako eta nazioarteko antolakundeetan zein erakunde publikoetan, indarkeria matxistari lotutako legegintzaren inguruan.

BÁRBARA TARDÓN

Feminista eta nazioarteko aholkularia, emakumeen aurkako indarkerian eta giza eskubideetan aditua da. Azken 15 urteotan erakunde eta GKE askotan egin du lan, teknikari, arloko arduradun eta koordinatzaile, eragin politikoko, genero-indarkeriako eta prostituzio arloko proiektuetan. Gaur egun aholkulari eta ikertzaile dihardu estatu mailako eta nazioarteko antolakundeentzat, besteak beste: Madrilgo Unibertsitate Autonomoa, Munduko Medikuak, Europako Kontseilua, Nazio Batuen Garapen Programa, Bartzelonako Unibertsitatea edota LIKaDI. Erakundeotan honako gaiak lantzen ditu: bikotekide edo bikotekide ohiaren genero-indarkeria, eta sexu-indarkeria gatazka, gatazka osteko eta zuzenbide estatuen testuinguruan.



1. SARRERA

Emakumeen aurkako indarkeria giza eskubideek mundu osoan duten erronka nagusiene-tako bat da. Emakumeen eta neskatoen giza eskubideak benetan betetzerakoan indarkeria matxistak inpaktu handia duela baieztatzearen ondorioz, estatuen jardunari erantzukizun handia ezartzen zaio. Giza eskubideen nazioarteko sistemak *ardura egokia* estandarra ezarri du, estatuak zenbait gauza betetzeko egin behar duten ahalegina adierazteko, hala nola indarkeria prebenitzeko eta aztertzeke, arduradunak zigortzeko eta biktimei ordainak emateko (Emakumeen aurkako indarkeriari buruzko Nazio Batuetako errelatore berezia, 2006).

Latinoamerika eta Europan, estatu gehienek bere gain hartu dituzte nazioarteko eta eskualde-mailako konpromiso handiak, emakumeen giza eskubideei eta genero-indarkeriaren aurka borrokatzeari dagokienez. Nazioartekoan, estatu guzti horiek berretsi dute Emakumearen aurkako Diskriminazio Mota Guztiak Desegiteko Hitzarmena (CEDAW, ingeleseko siglak).

Eskualde-mailan, Latinoamerikan, zein berrikiago Europan, indarkeria matxistaren aurka aritzeko tresna propioak dituzte. Giza Eskubideen Sistema inter-amerikarrak berariazko tresna bat gehitzen du emakumeen aurkako indarkeriari kontra egiteko, hain zuzen ere, Emakumeen aurkako indarkeria Prebenitzeko, Zigortzeko eta Desegiteko Hitzarmen inter-amerikarra (aurrerantzean, Belém do Paráko Hitzarmena), eskualdeko herrialde guztiek sinatu dutena. Itun hori emakumeen indarkeriaren aurkako legeak eta politikak hartze-ko markoa izan da, baita horiek ezartzeko ardatz politikoa eta estrategikoa ere. Europan, 2011n onartu zuten Emakumeen aurkako indarkeria prebenitzeko eta kontra egiteko Euro-pako Batzordearen Hitzarmena (Istanbuleko Hitzarmena), eta, 2014an, Estatu Espainolak itun hori berretsi zuen.

Aztertuko ditugun Latinoamerikako hiru herrialdeak (Kolonbia, Guatemala eta El Salvador) nahiz Estatu Espainolak eta Euskal Herriak, emakumeen aurkako araudi aurreratuak egin dituzte. Horietan guztietan, justiziara iritsiz araudia ezarri da, eta hori funtsezko elementua izan da biktimen eskubideak betetzeko eta zigorgabetasunari aurka egiteko.

Dokumentu honetan dokumentatutako bitziza-istorioak aztertu dira, dimentsio politiko eta legetik, eta ondorio eta gomendio sorta bat egin da, antolamenduari, emakumeen ordai-nari eta eragin politikoko lanari laguntzeko.

Dokumentua hiru atal nagusitan zatituta dago.

Lehenengoan diagnostiko bat egin da, hau da, bitziza-istorioetan dokumentatutako indarke-ria matxistei instituzioek zer neurritan erantzuten dieten aztertu da, baita giza eskubideen inguruko nazioarteko eta eskualdeko estandarrek zer neurritan betetzen dituzten ere. Giza eskubideen nazioarteko eta eskualdeko (Europakoa eta Amerikakoa) markoa oinarri hartu-ta, honako erantzukizun- edo betekizun-esferen betetze-maila aztertu da: a) zeharkako be-tekizunak edo ikuspegi-betekizunak; b) indarkeriari erantzun zehatza emateko hartu beha-rreko neurriak; c) indarkeria mota bakoitzaren inpaktuarekin lotutako neurri espezifikoak.

Bigarren atalean, betekizunak ez betetzeak emakumeen bizitzan nahiz gizartean duen inpaktuari buruzko hausnarketa egin da.

Eta hirugarren eta azken atalean, eragin politikoko eta bizirik iraun duten emakumeen es-kubideak babesteko lanetarako gomendioak edo gakoak eman dira.



2. BETEKIZUN POLITIKO ETA LEGALAK BETETZEAREN INGURUKO DIAGNOSTIKOA

Atal honetan, emakumeen aurkako indarkeria mota ezberdinei eta indarkeria matxistei (bizitza-istorioetan dokumentatuak) erantzuna emateko instituzioek dituzten betekizunak betetzen ote diren aztertu da.¹

Emakumeen aurkako indarkeriari instituzioek eman behar dioten erantzunarekin lotuta, giza eskubideen nazioarteko bi betekizun mota betetzen ote diren aztertu da:

- Zeharkako betekizunak edo ikuspegi-betekizunak.
- Indarkeriaren aurkako instituzioen erantzukizun-esfera nagusiekin lotutako betekizunak (prebentzioa eta antzematea, biktimei arreta osoa ematea, babesa, justizia eta ordainak).

2.1. Zeharkako betekizunak edo ikuspegi-betekizunak

Giza eskubideen nazioarteko eskubidearen arabera, estatuek zenbait betekizun dituzte, erantzunaren ikuspegiarekin, irismenarekin eta testuinguruan sartzearekin lotuta. Besteak beste, hauek dira nagusiak: diskriminatzeke derrigortasuna eta emakumeak eskubide-titulartzat hartzea.

2.1.1. Erantzunaren irismena eta testuinguruan sartzea

Emakumearen aurkako Diskriminazio Mota Guztiak Desegiteko Nazio Batuen Hitzarmenak (1993ko abenduaren 20a) estatuei iradokitzen die *“sexu femininokoa izateagatik indarkeria-ekintza guztiei erantzuna emateko, hain zuzen ere, emakumeei kalte edo sufrimendu fisiko, sexual edo psikologikoa eragin ahal dieten ekintza guztiei, baita eta horiek egingo direla dioten mehatxuei, derrigortzei edo askatasuna nahita kentzeari ere, bizitza publikoan nahiz pribatuan gertatzen direnik”*.

19. gomendio orokorraren² bidez, CEDAWeko Batzordeak nabarmendu du emakumeen aurkako indarkeria mota ezberdinen aurka jardutea garrantzitsua dela. Indarkeria horiek estatuko agenteek edo partikularrek egiten dituzte, eta genero-arrazoiengatiko diskriminazioan oinarritzen den etenik gabeko fenomenoak (*continuuma*) da.

Latinoamerikan araudi-markoak hobetu dira azkeneko hamarkadan, emakumeen aurkako indarkeriako biktimei arreta, babesa, justizia eta ordainak emateari dagokionez. Hainbat herrialdek arauak onartu dituzte, emakumeen aurkako indarkeriaren kontrako legegintzako *bigarren olatua* izenekoan. Horren ondorioz, arau integralak egin dira, eta horiek emakumearen aurkako indarkeria testuinguruan sartzen dute, hain zuzen ere, botereari dagokionez, emakumeen eta gizonen arteko aldea ikusarazten duen testuinguruan. Bestalde, arau horien xedea da 90eko hamarkadan egindako araudiaren *familia*-ikuspegia³ gainditzea. Araudi-ahalegin horrek hainbat kode penal nazional aldatzea eragin du, genero-arrazoiengatiko indarkeria bidezko emakumeen erailketak krimen berezi gisa jasotzeko, nagusiki, *femizidio/feminizidio* izendapenarekin.⁴

1 Adierazi beharra dago bizitza-istorio guztien azterketa politikoa eta legala ez zela egin, eta hori kasua gertatu den egoerari buruzko testuinguruaren inguruko dokumentuen bilaketarekin ordezkatu da.

2 19. gomendio orokorra. Emakumearen aurkako indarkeria (11. saio-aldia (1992/01/29)).

3 Latinoamerikako herrialde gehienetan gaur egun dituzten araudi-markoek erantzun holistikoa eta diziplinartekoa ematen diete emakumeen aurkako indarkeria agerraldi ezberdinei. Joera horrek 2007an izan zuen hasiera, Mexiko eta Venezuelan. Ondoren, 2008an, Kolonbiak eta Guatemalak jarraitu zieten, eta, 2009an, Argentinak eta Costa Ricak, 2010ean, berriz, El Salvadorrek (2010), 2012an, Nikaraguak, eta 2013an, Boliviak eta Dominikar Errepublikak.

4 2011rako, zazpi herrialdek femizidio/feminizidioa tipifikatu zuten (Txilek, Costa Ricak, Guatemalak, El Salvadorrek, Mexikok, Nikaraguak eta Peruki) eta hiruk homizidioa areagotzen zuela adierazi zuten (Argentinak, Kolonbiak eta Venezuelak). 2014an, lau herrialde gehiagok legediaren barruan sartu zuten: Boliviak, Ekuadorrek, Hondurasek eta Panamak.



El Salvadorrek eta Guatemalاک femizidio/*feminizidio* delitua gehitu dute legedi integral eta espezializatuan. Bertan prozedura judizial bereziak ere definitzen dira. Lege integralak izateak abantaila bat dakar: femizidio/*feminizidio* delitua ulertzeko eta aplikatzeko alderdi garrantzitsuak gehitzea, baita delitu hori pertsegitzeko, zigortzeko eta konpontzeko ere. *Feminizidio/femizidio* delitua tipifikatzea oso garrantzitsua izan da, genero-arrazoiengatik erailtzen diren emakumeak ezagutzera emateko. Halaber, arreta eman dio justizia-sistemaren barruan emakumeak birbiktimizatzeari eta zigorgabetasunarekiko Estatuaren erantzukizunari.

Estatu Espainolak legedi integrala onartu du, baina, hala ere, legedi horrek ez du koherentziarik, Latinoamerikako herrialde askok onartutakoarekin alderatuta. Genero-indarkeriaren aurkako Babes Integraleko Neurriei buruzko 1/2004 Lege Organikoak (1/2004 Legea) "genero-indarkeria" berdintzen du emakumeen aurka bikote-harremanetan edo bikotekide-ohien harremanetan eragindako diskriminazioan oinarritutako indarkeria maskulinoarekin bakarrik. Genero-indarkeriaren adierazpenetako baten inguruko legegintzako autonomia-erkidego mailan egin ahal izateari kalterik eragin gabe, Estatu Espainolak gehiegia ardaztu du erantzuna, 1/2004 Legearen bidez. Horrek ondorio garrantzitsuak izan ditu, beste indarkeria matxista batzuk testuinguruan sartu ez baitira eta horiei erantzunik eman ez zielako, hala nola harreman intimoetatik at egindako feminizidioei edo partikularrek zein Estatuko agenteek egindako sexu-indarkeriari. Bikotearen edo bikotekide-ohiaren testuingurutik kanpo Estatu Espainiarrean eraildako emakumeak eta neskatoak ez dira estatistika ofizialetan "genero-indarkeria" gisa islatzen, analisi labur baten bidez kasu horiek diskriminazio matxistak eragindakoak direla azal bazitekeen ere.

Euskal Herriaren legedia koherentea da nazioarteko definizioarekin eta estandarrekin. Emakumeen aurkako indarkeriari dagokionez, euskal instituzioek dituzten betebeharrak ezartzen dituen funtsezko araua da Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legea (aurrerantzean 4/2005 Legea). Lege horretako III. tituluko VI. kapitulua emakumeen aurkako indarkeriari buruzkoa da. Lege horrek definizio zabala ematen du, nazioarteko definizioarekin bat egiten duena, eta, haren arabera, honakoa hartzen da emakumeen aurkako indarkeria gisa: "*sexu-arrazoiengatik edozer indarkeria-ekintza, emakumeari kalte fisikorik, sexualik edo psikologikorik eragiten diona edo eragin diezaiokeena; ekintza horiek egingo direla dioten mehatxuak, bortxaketak edo bizitza publikoan nahiz pribatuan nahita egiten diren askatasun-galarazpenak barne.*"

Hala ere, Estatu Espainolari dagokio delituak tipifikatzea eta justizia "espezializatuko" sistema bat eratzea, aipatutako 1/2004 Legean ezartzen denez. 1/2004 Legetik eratorritako instituzioen ikuspegiaren arabera, genero-indarkeria emakumeen aurka bikotekideen edo bikotekide ohien testuinguruan egindako indarkeria baino ez da; eta, horren ondorioz, Estatu Espainiarrean genero-arrazoiengatik (feminizidioa) diskriminazioan oinarritutako beste indarkeria mota batzuk ikusezinarazi dira, horietako batzuk izugarriak badira ere. 2004tik gaur egunera bitartean oihartzun mediatiko handiko hainbat kasu egon dira, eta horietan ez da aipatu indarkeria matxistak dakarren botere-abusuak sortutako testuingurua. Omisio hori agintaritzaren publikoek nahiz komunikabideek egin dute.⁵

5 Ikusi autore hauek feminizidioari buruz egindako aipamenak: Mari Luz Cortés (2008), Carolina Planells (2009) eta Marta del Castillo (2009), Amnistia Internazionalen egina (2009): *Una vida sin violencia contra mujeres y niñas*.



Erasotzailearekin harreman intimorik izan gabe, generoan oinarritutako abusua agerian uzten duten emakumeen bizitzaren aurkako bestelako krimenak genero-indarkeriatzat jotzeko erreparoez ez dute bat egiten nazioarteko estandarrek aurreikusitako ikuspegiarekin. Kasu horiek estatistikoki erregistratuta ez daudenez, ezin da emakumeen kontrako indarkeria hobeto ulertu, osorik hartuta.

Nagore Laffageren kasua paradigmaticoa da zentzu horretan. Delitu horretan, erasotzaileak biktima zigortu zuen ez zuelako sexualki menderatu. Hala ere, kasu hori ez zen "genero-indarkeriatzat" jo, eta diskriminazio matxistaren elementua ez zen aintzat hartu. Zinpeko epaimahaiak zein Auzitegi Gorenak homizidiotzat (bi aringarrirekin) jo zuten, ez, berriz, erailketatzat, akusazioek eskatzen zutenez; erasotzaileak eraso fisikoen ostean biktimaren babesgabetasun-egoera biktima hiltzeko erabili bazuen ere.

"(...) genero-indarkeria bikotekideei dagokie, eta Nagore ez zen haren bikotekidea. Lagun bat hilko balu bezala da, edonork hiltzen badu, ez dira bikotekide. Bikotekideak baino ez badira, ez nago ziur, zergatik dago hain alde handia matxista izatetik genero-indarkeria egitera? Genero-indarkeria izan balitz, 12 urte egokituko zitzaizkion eta bete beharko zituen. (...) Nagoreri iritsi ez bazaio, ditugun legeen arabera, gainerakoen aldeko saiakera egin beharko da" (14. B-I).

Marko-arauez gain, Latinoamerikako zenbait herrialdetan, indarkeria mota jakin batzuei, hala nola sexu-indarkeriari erantzuna emateko arauak daude, eta arau horiek xehetasunak dituzte gatazka armatuaren inguruan. Adibidez, Kolonbian arau bat egin zen 2014an, sexu-indarkeriaren biktimei justizia ematea bermatzeko.⁶

Halere, Latinoamerikan indarkeria matxistako beste era batzuekiko legearen babesak izan duen garapena ez da sexu- eta ugaltze-eskubideak babesteko legearen garapenaren berdina. Adibide paradigmatico bat El Salvadorren topa dezakegu; izan ere, Nazio Batuen mekanismo gehienei uko eginez, abortua kriminalizatzen jarraitzen dute egoera guztietan⁷.

Aztertzen ari garen herrialdeetan, ez da aurrerapenik egon indarkeria ekonomikoari aurre egiteko araudi-markoari dagokionez. Kasuek agerian uzten dute oraindik garatu behar direla etxeko langileen erregulazioa eta aitak seme-alabekiko betebeharrak ekonomikoari uko egiten dienean elikagaiak eskatzeko aukera.

2.1.2. Estereotipo sexistak eraldatzea: indarkeriaren mamia

Emakumeen aurkako Diskriminazioa Desegiteko Hitzarmenaren (gaztelaniaz, CEDAW) betekizun nagusietako bat da honako jarrera hauek desegitea: *"emakumea mendekotzat jotzen dituzten jarrerak, edo estereotipoz beteriko funtzioak ematen dizkietenak, baita indarkeria edo bortxaketa eragiten dituzten jarrerak ere (...) Aurreiritzi eta jardun horiek emakumearen aurkako indarkeria sor dezakete"*⁸. Betebeharrak horrek lehen planoan kokatzen du Estatuaren

6 2014ko 1719 Legea; haren bitartez, sexu-indarkeriaren biktimei justizia ematen zaiela bermatzeko neurriak hartu ziren, bereziki, gatazka armatuan gertatutako sexu-indarkeriaren biktimei.

7 Ikusi Torturaren aurkako Batzordearen amaierako behaketak El Salvadorrerako, 2009ko azaroa, CAT/C/SLV/CO, 2; El Salvadorreko hirugarren, laugarren eta bosgarren aldirakako txostenen buruzko Eskubide Ekonomiko, Sozialen eta Kulturaletako Batzordearen amaierako behaketak, 2014ko ekaina, E/C.12/SLV/CO/3-5; Giza Eskubideetako Batzordearen El Salvadorrentzako amaierako behaketak, 2010eko azaroa, CCPR/C/SLV/CO/6; Haurren Eskubideetako Batzordearen amaierako behaketak El Salvadorrentzat, 2010eko otsaila, CRC/C/SLV/CO/3-4; Emakumearen aurkako Indarkeriaren, haren kausen eta ondorioen errelatore bereziaren txostena, Yakin Ertürk andrea. Misioa El Salvadorrerako. E/CN.4/2005/72/Add. 2004ko abenduaren 2a, eta Emakumeen aurkako Diskriminazioa Desegiteko behaketak Batzordearen amaierako behaketak El Salvadorrentzat, 2008ko azaroa, CEDAW/C/SLV/CO/7.

8 19. gomendio orokorra, Emakumearen aurkako indarkeria mota guztiak desegiteko Batzordeak egina, 11. saio-aldia, 1992, U.N. Dok. HRI/GEN/1/Ald.1 at 84 (1994).



ekintza, indarkeria matxistaren testuinguru soziala eta kulturala eraldatzeko. Indarkeria matxista gertakari isolatuek osatu beharrean, aspalditik datozen irizpide kultural eta sozialek osatzen dutela ustearen ondorioz, nazioarteko erakundeek estatuei gomendatzen die prebentziozko neurriak hartzeko, besteak beste, hezkuntza-neurriak, sentsibilizatzeko neurriak eta gizartea kontzientziatzekoak. Irismen handiko ekintzak dira horiek, eta horien onurak epe ertainean eta luzean lortuko dira; baina ekintza horiek askoz eragin handiagoa izango dute indarkerian zigortzeko edo babesteko neurriek baino.

Horrek guztiak ez du soilik haurren eta nerabeen hezkuntza arriskuan jartzen, gizartearen kontzientzia oro har jartzen du arriskuan, eta, bereziki, emakumeentzako arreta-, babes- eta justizia-zirkuituko profesionalen aurreiritziak desagitea.

Istanbuleko Hitzarmenak arreta handia ematen die prebentzio-neurriari; horien bidez, *“emakumeen eta gizonen jarrera soziokulturalak aldatu behar dira, aurreiritziak, ohiturak, tradizioak eta emakumeen gutxiagotasunean edo emakumeen eta gizonen paper estereotipodunetan oinarritzen den beste edozein ekintzak desagiteko”*⁹. Europako hitzarmen horren aurreikuspenei jarraikiz, prebentzio-neurriek honako hau egiteko ekimenak bildu beharko lituzkete: *“indarkeria-forma guztiak prebenitze aldera, aktiboki aritzeko”* profesionalak sentsibilizatuz, heziz eta prestatuz.¹⁰

Aztertu diren herrialdeetan araudi-markoan aurreratu da, baina ez da aipatutako testuinguru soziokulturala eraldatzeko ahaleginik egin. Horietan guztietan kultura matxista nagusi da, eta horrek emakumeen aurkako indarkeriari familia-ikuspegitik erantzuten dio, ez berriz, giza eskubideen ikuspegitik. Emakumeen aurkako indarkeriako testuinguru horrek hiru eragin ditu, eta horiek bizitza-istorioetan ageri dira:

- Zigorgabetasun-kultura eta indarkeriaren aurkako erantzuna etengabe igortzea eremu pribatura, biktimak harremanean jarraitzeko “adostasuna” barne.
- Genero-erasotzaile bat aita ona izan daitekeela ustea. Horrek zuzenean talka egiten du giza eskubideekin, ez bakarrik emakumeen eskubideekin, baizik eta erasotzailearen seme-alabeneekin ere.
- Emakumeei autonomia ukatzea, ugaltze-eskubideak erabiltzeko. Inpaktu berezia du adingabeei dagokienez.

a) Kultura patriarkala eta zigorgabetasuna

Latinoamerikako herrialdeetako nahiz Estatu Espainoleko araudiek berariaz debekatzen dituzte epaitegiz kanpoko konponbidea bilatzen dituzten adiskidetzeak, bitartekaritza eta bes-telako prozedurak. Hala eta guztiz ere, bereziki Latinoamerikan, *Belém do Paráko Hitzarmena ezartzeari buruzko Bigarren Txosten Hemisferikoaren* arabera, gatazken ordezkako konponbidea aplikatzen da, legeak debekatzen badu ere. Zehazki, Guatemalako txostenean (MESECVI-IV/doc.80/12) adierazten da *“adiskidetzea edo bitartekaritza legeak debekatzen duen alternatiba juridikoa bada ere, oraindik nagusi dela justizia ezartzaileen ikuspegi kultural eta sozialean, baita emakumeen aurkako indarkeria kasuetako zerbitzu-emalleenean ere; eta horrek emakumeak eta bizirik iraun dutenak birbiktimizatzen ditu, eta horiek justizia izatea galarazten du”*¹¹.

⁹ Istanbuleko Hitzarmena, 12.1. art.

¹⁰ Istanbuleko Hitzarmeneko 12., 13., 14. eta 15. art.

¹¹ Latinoamerikarako eta Kariberako Batzorde Ekonomikoa (CEPAL), 2013-2014 urteko txostena. *El enfrentamiento de la violencia contra las mujeres en América Latina y el Caribe*, Santiago de Chile, 2014. 29. orr.



Horrek frogatzen du araudi-aurrerapenak abiarazteko, ahalegin handia egin behar dela tes-tingurua eraldatzeko neurriak hartzeko. Horren harira, *Emakumeen aurkako Indarkeriari buruzko Nazio Batuetako Errelatore bereziak* baieztatzen du “*esku-hartzeen bidez indarkeria desegingo dela bakarrik planifikatutako prebentzio-programen parte badira, eta koherenteak badira eta koordinatuak badaude. Hala ere, ohartarazten du emakumeen aurkako indarkeria sortzen duten jarrerak iraun egiten dutela, aldaketa egiten ari badira ere, eta, jarrera horiei aurka egiteko, epe luzearako inbertsioak behar dira, autoreei erantzukizuna eskatzeko gobernuen neurri argiekin batera*”¹².

Gatazkak konpontzeko bitartekaritza normaltasunez egiten da Latinoamerikako hainbat herrialdeetan (aztertu direnetan), indarkeria matxista larriko agerpenak egon diren egoeretan ere bai. Biktimak benetan eta arduraz babesteko lanak bete beharrean, arreta, funtzionario eta enplegatu publikoen arduradunek bitartekaritza estrategia estandarizatu gisa garatzen dute, eta, era horretan, erasotzaileen zigorgabetasunari laguntzen diote.

El Salvadorren, adibidez, 2. bizitza-istorioaren kasuak fidelki agertzen du instituzio publikoek indarkeria onartzen dutela; izan ere, istorio horretan indarkeria matxistak (sexuala, fisikoa, psikologikoa, ekonomikoa) historikoki gertatu badira ere, nahiz eta feminizidio areagotu bateko saiakera bat egin, instituzio publikoek erasotzailearen alde ebatzi zuten, eta egindako demandak eta denuntziak adiskidetu ziren amaieran.

“Errepublikako Prokuradoretza Nagusia adiskidetzeko eta zor nuenaren erdia gutxienez ordaintzeko agindu zidan, baina nik dirua behar nuen ez, ez nuen beste aukerarik. Gogoratzen dut beste behin orrialdea ezabatu eta espedienteak galdu zutela”.

“Senar-emazteen artean inor ez da sartu behar, esan zuen poliziak, utzi iezaeizu bata bestea hiltzen, ez da gure kontua. Hori esan eta alde egin zuten” (2. bizitza-istorioa).

Gatazka armatuko eta gatazka osteko kultura patriarkalaren eta indarkeria matxistaren ondorioz, kasu ezberdinek azaltzen dutenez, emakumeek jasaten dute eraginik handiena, bai eta haurrek ere. Izan ere, kultura patriarkal normalizatu batean bizi dira, eta Estatuak ez du ezer ere ez egiten gatazka armatuak sortutako indarkeria matxisten aurka. Indarkeria matxista horien adierazpen guztiak egunerokotasuna militarizatzearen ondorioz sortzen dira, baita indarkeria horiek babesten dituen egitura-indarkeriak ere.

Kolonbiak marko juridiko aurreratua¹³ du, indarkeriarik gabe bizitzeko emakumeen eskubideari dagokionez. Marko horretan legegintza-neurri espezifikoak daude, gatazka armatutik eratorritako indarkeria matxisten biktimentzako arretari, laguntzari eta ordainei buruzkoak. Hala ere, errudunekiko zigorgabetasuna nagusi da biktimentzako babesik eta laguntzarik ezaren aurrean, aztertutako kasuetan kontatzen denez.

25. B-Iko protagonista *Orión Operazio* militarreko biktima izan zen, besteak beste. Operazio hori 2002ko urriaren 16tik 20ra bitartean egin zuten Kolonbiako Indar Militarrek eta Kolonbiako Polizia Nazionalak, Kolonbiako Aireko Indarraren laguntzaz. Medellin hiriko 134 San Javier komunan egin zuten, Uribe presidente ohiaren agintepean, ingurutik FARC, ELN eta

12 Emakumearen aurkako indarkeriari, haren kausei eta ondorioei buruzko Errelatore Berezia: *Emakumearen aurkako indarkeriari buruzko adierazleak eta Estatuaren erantzuna* (2008). 106-108 paragrafo.

13 2011ko 1448 Legea, haren bitartez, barneko gatazka armatuko biktimentzako arreta, laguntza eta ordain integralerako neurriak ematen dira, baita beste xedapen batzuk ere (3., 9., 14., 16., 23. eta 25. art.); 2008ko 1257 Legea, haren bitartez, emakumeen aurkako indarkeria eta diskriminazio mota guztiak sentsibilizatzeko, prebenitzeko eta zehatzeko arauak ematen dira (2., 7., 8. eta 9. art.); 2014ko 1719 Legea, haren bitartez, gatazka armatuan sexu-indarkeriaren biktimei justizia bermatzeko neurriak hartzen dira, eta bestelako xedapenak ematen dira (6. eta 13. art.).



Comandos Armados del Pueblo taldeetako hiri-miliziak botatzeko aitzakiaz.

Beste emakume batzuekin batera, 25. B-lko biktima nahitaez mugitzera bortxatu zuten, bai eta bahitu eta psikologikoki torturatu ere. Bi egunez baino gehiagoz, arduradunek antolatutako terrore-estrategia bat ikusi zuen: muturreko torturak egin eta inguruko bizilagunak laurdendu zituzten.

“S. hil zuten bigarren. Laurdendu egin zuten, eta nire aurrean sega batekin bortxatu zuten (...). Niri bertan eserita utzi zidaten, itxaroten baino ez zirela ari esan zuten” (25. B-I).

Gobernuz kanpoko erakundeek, hala nola Caminando por la Verdad taldeak, uste dute Orión Operazioak 300 pertsona inguru hil zituela. Gorpu horiek oraindik desagertuta daude, eta La Escombrera izeneko gune ezagunean aurki litezke, Kolonbian neurri handiena duten hobietako batean, alegia.

Nahiz eta 25. B-lko emakumeak indarkeria matxistagatik ondorio fisikoak eta psikologikoak jasan zituen, gaur egun, Kolonbiako Estatuak ez ditu gertaerak ikertu, ezta errudunak ere, horregatik, horietako askok aske jarraitzen dute. Horrez gain, ez die biktimei kontuan hartu, horretarako marko juridiko bat egon arren, eta era berean, bizirik atera direnei ez die aukerarik eman gertaerak salatzeke, betiere errepresalia posibleak egoteko beldurrik gabe.

Nazioarteko hainbat erakunde etengabeko zigorgabetasunaren kezka inguruan iritzia eman dute “emakumearen aurkako indarkeria-egintzen autoreak ikertzeari, epaitzeari eta zigortzeari” (CEDAW/C/COL/CO/7-8) dagokionez. Erakunde horiek Kolonbiako Estatuari emakumeek justiziarako sarbidea izatea ziurtatzeko gomendatzen diote, hala, genero-indarkeriako (sexu-indarkeria barne, gatazka armatuaren ondorioz) kasuen zigorgabetasunarekin amaitzeko.

“...hau oso arriskutsua da, oso beldurgarria. Ez naiz inorekin fidatzen, ez DASEz ezta fiskaltzaz ere” (25. B-I).

Erasotzaile eta hiltzaileenganako zigorgabetasun soziala nahiz juridikoa, kasu gehienetan, Europar edota Latinoamerikan hauteman daiteke. Nahiz eta bi herrialdeetan hainbat estatuk garatutako marko juridikoak zigorrak eta zehapenak proposatzen dizkien indarkeria matxisten arduradunei, auzitegi ezberdinek hartutako erabaki juridikoek edo operadore juridiko ezberdinen geldotasunak errudunen zigorgabetasuna babesten dute, emakumeenganako muturreko indarkeria-egoerak deskribatzen diren arren, kasu batzuetan feminizidio/femizidio bihurtuta.

“Bere buruaz beste ere egin nahi izan zuen, bere kasua zeraman epaileak zituen lesioak arintzat jo zituela azaldu zienean. ¹⁴ Delitu horrek Guatemalan ordezkotzat hartuak ditu, eta ondorioz, atxilotuak fidantza peko askatasuna lortu zuen... Berriz hil nindutela sentitu nuen” (18. B-I. Familiako baten lekukotza).

b) Guraso erasotzaileen seme-alabek dituzten eskubideak babestea

Nazioarteko eta Europako estandarrek berretsi dute indarkeria matxistaren aurkako borroka begirada orokor batekin burutu behar dela. Begirada horrek, hain zuzen, familian nahiz bizikidetzan sortzen diren indarkeria- eta diskriminazio-harreman ezberdinez ardu-

14 18. bizitza-istorioko pertsonari lesioak sortu zizkion erasotzaileak. Harrikada bat eman zion aurpegian eta aurpegia erabat desitxuratu zion. Ondorio fisikoak hain handiak izan zirenez, Mexikon aurpegia berriz eratu behar izan zioten.



ratu behar du, baita umeen babesa bermatzeaz ere. Indarkeria-biktimak babesteari eta laguntzeari dagozkien “betebehar orokorren” artean, Istanbulgo Hitzarmenak begirada bi-koitza ezartzen du: indarkeria jasaten duten emakumeen beharretara eta beren seme-ala-benetara bideratuta¹⁵. Bestalde, hitzarmen horrek estatuei neurriak hartzea estutzen die, zaintza- eta bisita-eskubideak erabakitzerako garaian kontuan har dadin familia-esparruan emakumeen aurkako indarkeriaren eragina.¹⁶

2014ko uztaileko erabaki batean (Ángela González Carreñoren kasuan c. Espainia), CEDAW Batzordeak Estatu Espainola kondenatu zuen, genero-indarkeriaren biktima baten alaba behar bezala ez babesteagatik; izan ere, bere aitak (amaren erasotzailea zenak) hil egin zuen erabaki judizial baten bitartez onartutako ikuskapen gabeko bisita batean. Aipatutako batzordeak uste du estatuaren jokoerak kasu horretan “berdintasun formal batean oinarritu-tako bisita-eskubidearen ikuskera estereotipatu bati obeditzen diola. Kasu honetan, aitari aban-taila gehiago eman zizkion bere neurritz kanpoko portaera gorabehera, eta ama eta alaba, ber-ritz, indarkeria-biktima gisa minimizatu eta ahultasun egoera batean ipini zituzten”. Batzordeak estatuari iradokitzen dio “neurri egokiak eta eraginkorrak hartzeko, alde batetik, seme-alabei dagozkien zaintza- eta bisita-eskubideak erabakitzerako garaian, kontuan har daitezten etxeko indarkeria-aurrekariak, eta, beste aldetik, bisita- edo zaintza-eskubideek arriskuan jar ez deza-ten indarkeriaren biktima direnen segurtasuna, seme-alabak barne. Umearen ardura nagusia eta umeak berari entzuteko duen eskubidea nagusitu beharko dira gai honetan hartzen diren erabaki guztietan¹⁷”.

Aipatutako irizpena dela eta kasuaren erabakia 2003an hartu bazen ere, Estatu Espaino-lak aurreiritzi profesionalak gainditzea lortzeko (erabakigarriak izan ziren Ángela González Carreñoren kasuan) beharrezko ahalegin instituzionalak egin ez zituela adierazten duten datuak eta txostenak daude.

1/2004 Legeak Emakumearen aurkako Indarkeriaren Arloko Epaitegiak sortu zituen erakun-de judizial espezializatu gisa. Horiek genero-indarkeriarekin erlazionatutako aspektu penalei eta zibilei heldu behar zieten ikuspegi orokor batetik¹⁸. Hala ere, aipatutako legea indarrean sartu eta hamabi urte igaro ondoren, ez dirudi helburu horrek itzulpen praktikorik duenik. Hori gertatu da hein handi batean prestakuntza txarra delako eta aipatutako epaitegietako langileek ez zutelako emakumeen aurkako indarkeria eta seme-alaben esperientzia bikti-mizatzailea lotu nahi. Save the Childrenek probintzia-auzitegiko 200 epairi buruzko ikerke-tan nabarmendu zuen genero-indarkeria ez dela garrantzizko eragile bat epaitegi eta auzi-tegi espainiarrek bisita-erregimenei zegozkien erabakiak hartzerako garaian. Era berean, Emakumeenganako Tratu Txarren Ikerkuntzarako Batzordeak bildutako datuek agerian jartzen dute genero-indarkeriagatik amarekin urruntze-agindua duten gizonezkoen %97k beren seme-alabak bisitatzeke aukera dutela, epaileak emandako bisita-erregimenagatik.¹⁹

Justizia-administrazioko erakunde espezifikoak, hala nola Espainiako Botere Judizialaren Kontseilu Nagusia (BJKN), berriki hasi dira neurriak hartzen beren gurasoen eskuetan hil

15 Istanbulgo Hitzarmeneko 18., 22., 24. art.

16 Istanbulgo Hitzarmeneko 31.1. art.

17 47/2012 Jakinarazpena. Batzordeak 58. saio-aldian onetsitako irizpena. NBERen DOK: CEDAW/C/58/D/47/2012, 2014ko uztailaren 18koa.

18 1/2004 Lege Organikoa, genero-indarkeriari aurre egiteko neurriei buruzkoa, 2004ko abenduaren 29koa.

19 Prentsa-oharra. Emakumeenganako Tratu Txarrak Aztertzeke Batzordea, 2015eko otsailaren 14a.



diren adingabeen kasuak lehen aldiz ikertzeko²⁰. BJKNk emandako datuen arabera, genero-indarkeriaren esparruan 2016ko lehen hiruhilekoan baino ez dira handiagotu adingabeei babesteko judizialki hartutako neurriak, 1/2004 Legeak ezartzen duen moduan. 2015eko eta 2016ko lehen hiruhilekoen arteko analisi konparatiboan honakoa nabarmendu daiteke: judizialki hartutako neurriak %280n areagotu zirela adingabeari arriskua edo kaltea saihesteko, edo zaindari eta zaintzaren galarazpen-neurriak % 565n areagotu zirela.

BJKNren gisako erakundeek adierazten dituzten xedapenak gorabehera, emakumeen erakundeek eta beste GKE batzuek (esaterako, Amnistia Internacionala) salatzen dute adingabeak diren biktimei ez zaiela behar bezala babesten. Adingabe horiek beren inguruan etengabe aurkitzen dira indarkeria matxista horren aurrean. Justizia-administrazioan genero-ikuspegia falta da, bai Espainian baita gainerako herrialdeetan ere. Ondorioz, umeek ondorio txarrak jasaten dituzte, zenbait kasutan, tratu txarren emaile diren gurasoek hiltzen dituzte (nahiz eta guraso horiek alde aurreko salaketak edota babesteko agindua dituzten). Osasun, Gizarte Zerbitzu eta Berdintasun Ministerioaren datuen arabera, Estatu Espainiarran hamabost adingabe hil dituzte 2013 eta 2016ko abuztuaren bitartean. Horietatik zazpi kasuetan, amek salaketak egin zituzten. 21

Hala, konproba daiteke genero-indarkeria ez dela erabakigarria seme-alaben bisita-erregimena ezartzerako garaian. Espainiaren kasuan, adibidez, nahiz eta legeak hori ezartzen duen, Emakumearen aurkako Indarkeriaren Arloko Epaitegiek bisita-erregimenen galarazpen-neurria ez dute ia erabiltzen, ezta salatutako aitarekiko babes-agindua duten amen kasuetan ere. Honakoa salatzen du Amnistia Internazionalak: *“praktika judizial sendo eta hedatua da, gurasoaren genero-erasotzaile egoera gutxiesten duena, arlo horretako erabakiei dagokienez”*.

Bi eskualdeetan, tratu txarren emaile diren gurasoei dagokienez, ezaugarri komun batzuk aurki daitezke instantzia juridikoetan. Horren emaitza berehalako erantzunaren falta da, hau da, horrek adierazten du adingabeei erasotzailearekiko babes-neurriak eman behar dizkietenek ez jakinarena egiten dutela.

8. B-I Kolonbiako emakume bati buruzkoa da. Kasu honetan, emakume hori behin eta berriz bortxatu zuen (fisikoki, sexualki, psikologikoki eta ekonomikoki) bere bikoteak, jarduneko parrokoa zenak. Nahiz eta hainbat salaketa ipini zituen, bere erasotzailea lehen aldiz polizia-etxean salatu nahi izan zuenean, etxea utzi izanagatik salaketa bere aurka joan zitekeela esan zioten. Funtzionarioaren informazio desegokiak eta bere seme-alabengandik urrunduko ziotenaren beldurak *“beldur nintzen, batez ere, seme-alabak kenduko ote zizkidatenaren beldur”*, salaketa-prozesu batean sartu zuten emakumea, erasotzailearen mehatxuez gain, funtzionario publikoek instantzia judizialetan eragindako egoeretan sentitzen zuen etengabeko beldurragatik.

Erasotzailea kondenatu aurretik, deitu egin nahi izan zitzaion bi alderdien artean bitarteko akordioak egiteko. 8. B-lk dioenaren arabera, erasotzailea salatzerako garaian konbentzitzen saiatu ziren: *“Nola salatuko duzu bere fedea sinestea behartzen duen norbait?”* Aurrerago, dibortzio-prozesuan, epaileak 8. B-lko emakumeari derrigorrezko elikadura-kuota bat esleitu zion, gutziz onartzeko gai izan ez zena. Halere, kontakizunak aipatzen duenez, erasotzaileari ez zitzaion inoiz kuota hori eskatu.

20 Osasuneko, Gizarte Zerbitzuetako eta Berdintasuneko Ministerioa. Adingabeen eta hildakoen fitxak (2016ko irailaren 8an kontsultatua), hemen eskuragarri: <http://www.violenciagenero.msssi.gob.es/violenciaEnCifras/victimiasMortales/fichaMenores/home.htm>



eragiten dioten erabakiak hartzeko askatasuna mugatzen zaienean” (2011: 21. parag.²⁶). Edonola ere, oraindik ere emakumeak zigortu, judizializatu eta zehatu egiten dituzte, alde batetik, herrialde bakoitzeko arauengatik (El Salvadorreko kasua), eta beste aldetik, osasun- edo administrazio-langileengatik. Azken horiek batzuetan salatzaileak izaten dira, eta ondorioz, beren lanean eskatzen zaien informazio-konfidentzialtasuna hausten dute²⁷.

“Ospitaleko medikuak (emakumea zen) legratu bat egin zidatela esan zidan, oraindik utero hondarrak nituelako eta bertan egun batzuk gehiago egon behar nuelako. Ez beldurtzeko esan zidan, eskuburdinak jarri behar zizkidatelako...” (16. B-I).

Emakumeen abortuari eta eskubideei dagokienez, funtzionarioak indibidualki dituen jarrera eta aurreiritziek beste emakume batzuen bizitza arriskuan jartzen dute. Emakume horietako asko errepresalien edo balio-judizioen beldur direnez, ez dute osasun-zerbitzuetara jotzen, eta ondorioz, isilpean egiten dituzte abortuak. Kasu hori El Salvadorren gertatzen da; izan ere, bertan abortua debekaturik dago egoera guztietan, salbuespenik gabe²⁸.

El Salvadorren 16. B-Iko emakumeaz arduratu zen medikuak, bere ardurak bete gabe, emakumea abortua egin izanagatik salatu egin zuen, eta horrez gain, ospitalean zegoen bitartean etengabe kriminalizatu zuen, gezurra zioela esanez: *“Zuk ez dakizu, baina honengatik atxilotu egin zaitzakete...pastillak flasko batean ipiniko ditugu, hala, egia dela ikusiko dute”*.

Langile publikoek emakumez, umeez eta gazteez arduratu behar dute arretaz, berehalako osasun-laguntza bermatze aldera. Baina langile horien aurreiritzien ondorioz, arreta medikoa edo aholkularitza jasotzeko prest ez dauden beste emakume batzuekiko barrera bat sortzen da. Estatu batzuk ugalketako osasun-zerbitzuak legezko baldintzetan ematea ukatu dira, eta hori praktika diskriminatzailea da. Horregatik, Emakumearen Kontrako Diskriminazioa Ezabatzeke Batzordeak (1999) hori salatu du.

Guatemalan edo Kolonbian, adibidez, azken urteetan egin diren arau- eta jurisprudenzia-aurrerapenak gorabehera, emakumeen arretarekiko aurreiritziak egoten jarraitzen dute. Era berean, oraindik ez da bermatu sexu- eta ugaltze-osasun zerbitzuen sistema seguru eraginkor bat.

Sexu-indarkeria bortitzen bitartez, indarkeria patriarkalaren markoan (gatazka armatuaren egituran) burutu nahi ez diren haurdunaldiak gertatzen diren arren, edota Haurdunaldia Borronteaz Eteteko (HBE) praktika (Kolonbiako 2009ko²⁹ C-355 Gorte Konstituzionalak hartutako sententzia historikoaren arabera ezarrita dagoena) baimentzen duen araudi-marko bat egon arren, Kolonbian erakundeetan ez da behar bezala informatzen. Ondorioz, eta abortua despenalizatzeari buruzko Kolonbiako araudiak xedatzen duena ez betetzeagatik, 20 urteko emakume bati ama izatea inposatu zioten, bortxatua izan ostean. Gaztearen erabakia aintzat hartu gabe, HBErako eskubidea ukatu zioten, ardura hori bere amaren (abortuaren kontrako) esku utzi baitzuten. Informazio faltak, aurreiritziek eta osasun eta justizia arloko profesionalak emandako arreta desegokiak ondorio eta kalte psikologikoak eragin dizkiote betirako gazteari.

26 L.C.V, Peru. CEDAW/C/50/D/22/2009, 8.17. parag.

27 Osasun Eskubideari buruzko Erretelore Berezia. A/66/254. 2011ko abuztuaren 3a. 21. parag.

28 Emakumearen aurkako Diskriminazioa Desegiteko Batzordea. 24. gomendio orokorra (20. saio-aldia, 1999).

29 El Salvadorreko Kode Penal. 2. kapitulua. 133. artikulua.



“Medikuak berari galdetu zion eta berak ezetz esan zuen, Jainkoak hala agindu bazuen zerbaitegatik izango zela. Horren ostean, psikologoarengana eta nutrizionistarengana bidali zidaten. Psikologoak hori salatu egin behar zela esan zidan, umeak legez abizena izan behar zuelako, baina nik ez nuen harago joan nahi” (...) “Psikologoak esan zuen umeak aita bat edukitzeko eskubidea zuela, salatu egin behar nuen, beraz, derrigorrez abizena eman behar ziolako” (4. B-I).

Giza eskubideen erakundeek edota errelatore bereziek errepikatzen duten moduan, abortua delitutzat hartzeak emakumeen, umeen eta gazteen sexu- eta ugaltze-eskubideak urratzea esan nahi du, eta era berean, beren gorputzaren eta bizitzaren kontrolari dagokionez, duten eskubidea deuseztatzen zaie (Yakin Ertük 2004).

2.1.3. Diskriminazio-debekua

Diskriminazio-debekuaren, hau da, giza eskubideen nazioarteko sistemaren oinarriaren ondorioz³⁰, eskubideen babes eraginkorrerako sarbidea berdina izatea bermatzen da, baita askotariko diskriminazioa jasaten duten emakume-sektoreari arreta ematea ere. Zuzenbide Zibil eta Politikoen Itunak xedatzen du *“Estatu bakoitzak bere lurraldean bizi diren eta beren eskumenean dauden guztiei Itun honetan aitortzen diren eskubideak errespetatzeko eta bermatzeko konpromisoa hartzen duela, edonolako bereizketarik gabe (arrazak, kolorea, sexua, hizkuntza, erlijioa, politika-iritzia edo beste mota batekoa, jatorri nazionala edo soziala, ekonomia-maila, jatorria edo beste gizarte-baldintza batzuk)”*.³¹

Sailarteko analisiaren bidez, ikuseremua zabaldu daiteke, generoa zeharkatzen duten diskriminazio mota ezberdinak identifikatu ostean, eskubide-gabetze modu espezifikoak eragiteko. Arrazakeriaren, arrazagatiko diskriminazioaren, xenofobiaren eta tolerantziarik ezarekin lotutako formen kontrako mundu-konferentziaren adierazpenak honakoa adierazi zuen diskriminazioen interkonexioaren analisisan begirada zabaltzeko beharrari zegokionez: *“Ziur gaude arrazakeria, arrazagatiko diskriminazioa, xenofobia eta tolerantziarik ezarekin lotutako moduak berezita azaltzen direla emakumeentzat eta neskatuentzat. Faktore horiek, gainera, beren bizi-baldintzak okertu ditzakete, eta pobrezia, indarkeria, askotariko diskriminazio motak eta beren giza eskubideak mugatzea edo ukatzea eragin dezakete...”*.

Zentzu horretan, CEDAW Batzordeak 28. gomendio orokorrean xedatzen duen bezala, sexu eta generoagatiko emakumearen diskriminazioak bat egiten du beste faktore batzuekin modu zatiez in batean. Faktore horiek emakumeari erasan egiten diote, hala nola arrazak, jatorri etnikoak, erlijioak edo sinesmenak, osasunak, estatusak, adinak, mailak, kastak, sexu-orientazioak eta genero-identitateak.

Estatuek askotariko diskriminazioak zaurgarritasun handiagoko egoerak sortzen dituela aintzakotzat hartu behar dute indarkeria kasuan daudenean. Eremu horretako geldotasunak diskriminazioa dakar, beren eskubideei buruzko informazioa izateari dagokionez. Hala ere, dokumentatutako kasuek ezagutzera eramaten dute ez diskriminatzeko betebeharraren eta emakumeei zuzenean edo zeharka eragin dieten traben artean dagoen zuloa, indarkeriaren aurka oinarritzko eskubideetara sarbidea izateko garaian.

³⁰ Ebazpen horren arabera, abortua ezin da delitutzat jo hiru egoeratan: 1) emakumearen bizitza edo osasuna arriskuan dagoenean (fisikoki edo mentalki); 2) haurduntza bortxaketa edo intzestu baten ondoriozkoa denean; eta, 3) malformazio fetal larriak diagnostikatzen direnean, uterotik kanpo bizitzea ezinezkoa egiten dutenak.

³¹ Jasota dago, besteak beste, Eskubide Zibil eta Politikoen Nazioarteko Hitzarmeneko 2., 14.1. eta 26. Artikuluetan; Arrazakeria Diskriminazio Forma guztiak Desegiteko Nazioarteko Hitzarmeneko 1. artikuluan; eta Emakumearen aurkako Diskriminazio Forma guztiak Desegiteko Nazioarteko Hitzarmeneko 1. artikuluan.



Zehazki, Estatu Espainoleko hiru kasutan betebeharrak garrantzitsu hori ez dela betetzen jakinarazten da, diskriminazio zuzenari edo zeharkakoari dagokionez.

13. B-I 51 urteko emakume errusiar batena da. 2007. urtean Espainiara iritsi zen Malagan zerbitzari lanak egiteko, bere herrialdeetik urrun bizitza berri bati ekiteko erabakia hartuta eta *"berriz hasteko, zeharo aldatzeko"* asmoz. Lehen urteetan zehar, lokaleko jabeak laboralki esplotatu zuen, ondorioz, 13. B-Iko emakumeak egoera hori salatzea erabaki zuen, tabernan egin zen lan-ikuskaritza batez baliatuz. Haatik, gertakariak bere aurka ipini ziren eta kanporatze-espedita bati hasi zioten pasaportea konfiskatzeko. Horren ostean, Ourensera bizitzera joatea erabaki zuen, barneko mediku gisa aritzeko gizon gaixo bat zainduz, bere egoera administratiboa normalizatzeko agintzapean.

2013an, bi gizonek emakumea eraso eta pistolaz sexualki bortxatu zuten, baginan fruituak eta landareak sartu zizkioten. Sexu-erasoaren ostean, polizia eta bere bikoteari deitza lortu zuen, eta haiek gertakariaren lekura agertu ziren. Momentu horretatik aurrera, 2015. urtera arte jasaten dituen gertaerak Estatu Espainola diligentzia falta batez markatuta egongo dira. Ikertu, asistentzia espezializatua eman, errudunak jarraitu edo bere osotasunean indartu beharrean, 13. B-Iko emakumea kriminalizatu egiten dute egoera administratibo irregular bat duen emakume migratzailea izateagatik.

CEDAW Batzordeak kezka ageri du emakume migratzaileak askotan indarkeria matxista mota ezberdinetako biktimak izaten direlako. Ondorioz, 26. gomendio orokorraren bitartez estatuei aholkatzen die *"emakume migratzaileen zaurgarritasun partikularrari laguntzen dioten inguruabarrei zehatz-mehatz ekitea, baita beren generoagatiko diskriminazio esperientziei ere, giza eskubideak urratzeko kausen eta ondorioengatik"*. Hala eta guztiz ere, kezka hori adierazi arren, Ourenseko epaitegiak ez zuen 13. B-Iko emakumea deitu sexu-eraso baten biktima gisa aurkezteko, eta salaketa artxibatu egin zuten ikerketarik egon gabe. Alabaina, egun gutxi batzuetara Guardia Zibila bere etxean agertu eta atxilotu egin zuten bere erregularizazioa lortzeko sexu-eraso bat itxuratzeagatik: *"apirilaren 17an estradan hartu ninduten, estrada tabernan... polizia nazionalak hartu ninduen, bai. Galderak eta horrelakoak egin zizkidaten, badakizu? Ziegan sartu didate berriz, bertako hotsasunean"*.

Egun gutxitara, Madrilgo Atzerritarren Zentrora bidali zuten, eta bertan 49 egun egon zen. Ez zuen osasun-laguntzarik jaso, nahiz eta aldizka odol-galerak jasaten zituen, uteroko minbiziaren ondorio zirenak. CIETik (Atzerritarren Barneratzeko Zentrotik) irten zenean, hila-bete batzuk beranduago polizia bere etxean agertu zen berriz Espainiatik kanporatua izan zedin, administrazio-egoera irregularrean aurkitzen baitzen.

Generoa, adina eta administrazio-egoera erabakigarriak izan ziren estatu espainiarrak 13. B-Iko emakumea zuzen eta zeharka diskriminatuzko. Emakume horrek ospitalean artatu zutenetik *"askotariko diskriminazioa"* jasan zuen (*"ospitalean zegoen pertsona bat argazkiak egiten hasi zitzaidan, nire baimenik gabe"*), eta Estatu Espainolak ez zuen bete emakume horren oinarriko eskubideak babesteko betebeharra.

"CIEn paretaren kontra nabil. Bai. Bertan kamera pila bat daude (...). Ez du ezerk axola (...), guztiek oso gaizki tratatzen zaituzte" (13. B-I).

Emakume-sektore zehatz batzuen aurka zuzeneko edo zeharkako diskriminazioa osatzen duten arau eta praktiken ondorioz, emakume horiek ez dituzte hainbat eskubide. Badira emakume-sektore batzuk desabantaila gehigarri batzuk dituztenak indarkeria atzean uzteko



eta araudian ezarritako eskubideetara heltzeko (desgaitasuna duten emakumeak, hizkuntza ezagutzen ez dutenak, emakume helduak), eta horien zailtasunak ez dira arintzen. Baina zuzeneko diskriminazioaren adibide paradigmaticoena Espainian administrazio-egoera irregularrean dauden emakume migratzaileei eragiten dietena da. Kasu horren jatorria da, lehenetsua ematen zaiola migrazioa kontrolatzeko beharrari, emakumeen giza eskubideak babesteko aginduari beharrean. Atzerritarrei buruzko Legeak³² xedatuta dagoenez, salaketa bat aurkeztean, genero-indarkeriaren biktima baten polizia-kontaktuagatik kanporatze-espediente bat hasteko aukerak arduratu egin ditu nazioarteko itunen zaintza-mekanismoak, hala nola CERDeko Batzordea 2011n.

Era berean, asiloa eskatzen duten emakumeek zenbait diskriminazio egoerei egiten diete aurre. Egoera horiek Estatu Espainolak bultzatzen ditu, ez baitu betetzen, beste batzuen artean, CEDAW Batzordearen 32. gomendio orokorra. Batzorde horrek iritzi du *“Estatuek hitz eman behar dutela uko egingo diotela emakumearen aurkako diskriminazio-egintza eta -praktika guztiak oker egiteari eta arduratu egingo direla autoritate eta erakunde publikoek betebeharraren arabera jardungo dutela”*.

12/2009 Legeak, asilo-eskubidea eta babes subsidiarioa arautzen dituenak, Espainian generoagatik edota sexu-orientazioagatik jazarpenera errefuxiatu-estatutura heltzeko arrazoi gisa aitortzen du³³. Hala ere, aurrerapen arauemaile garrantzitsu hori ez da modu eraginkor batean bermatzen ari, eta generoagatik jazarpenera alegatzen duten emakumeei asiloa deuseztatzen ari zaie, salerosketa-biktimak eta beren sexu-orientazioagatik edo genero-identitateagatik jazarrita dauden emakumeak barne.

“Egun bat, bi egun, hiru egun... ni aireportuan nengoan, ezer gabe altxatu nintzen, janaririk gabe, urik gabe, ezer gabe. Poliziarekin hitz egin nuen laguntza behar nuelako, eta haiek sentitzen zutela esan zidaten. Polizia Espainiakoa eta ni, berriz, atzerrikoa” (10. B-I).

Bestalde, zeharkako beste diskriminazio mota batzuen berri ere ematen da, erakunde publikoek arauemaileak ez diren sexu-identitateak dituzten pertsonen eraginda, esate baterako, prostituzio-egoeran dauden emakume transexualei. Azken horiei udal disuasio-ordenantzen bidez kriminalizatzen zaie, eta horiek prostituzioa salatzen dute *“bizikidetzarako neurriak”* direnaren errezelpean.

“Alkateak bildu egin gintuen. Gure ordezkaritza batera deitu gintuzten. Eta bertara azaldu ginen. Guk negoziatu egingo genuela uste genuen, baina, bai zera. “Begira, astelehenetik aurrera ez dut emakumerik ikusi nahi, beno emakumea, ez dut zuetariko inor ikusi nahi Avenida del Oeste etorbidean. Orduantxe borroka hasi zen” (11. B-I).

2.1.4. Emakumeak eskubideen titular gisa aitortzea

Giza eskubideen nazioarteko eskubideak abusuen biktimei *“eskubideen titular”* egoera ezartzen die. Modu horretan, Estatu *“betekizundun erakunde”* egoeran jartzen da, biktimen eskubideen eraginkortasuna bermatu behar baitu.

Nahiz eta nazioarteko giza eskubideen itunek eta hitzarmenek xedatzen duten pertsona guztiak direla eskubideen titularrak, eta ondorioz, horiek erabiltzeko gaitasuna dutela (subjektu

³² Ituneko 2. artikulua.

³³ 2/2009 Lege Organikoa, abenduaren 11koa, Atzerritarrek Espainian dituzten eskubideei eta askatasunei eta beren integrazio sozialari buruzko urtarrilaren 11ko 4/2000 Lege Organikoa berritzekoa. (31. art. bis)



aktiboak), Latinoamerikan, Estatu Espainiarrean eta Euskal Herrian dokumentatutako kasu askok adierazten dute biktimak ez daudela “eskubideak” eskatzen dituen subjektu aktibo egoera batean. Horren orde, baliabide publikoen “onuradun” egoera pasibo batean daude, eta hori eskuratzea baldintza batzuk betetzearen arabera da. Era berean, kasu askotan, Estatuaren eta bere funtzionarioen aldetik eskubideen titulartasun horri dagokion aitortpen falta zuzeneko eta egiturazko indarkeria instituzional batean islatzen da, emakumeentzat birbiktimizatzailea eta gauzatu egiten dutenentzat normalizatua eta zigorrik gabekoa.

“Lanbideko zuzendariak txartela mahai gainera bota zidan, hori bere arazoa ez zela esan zidan” (19. B-I).

Harreman-eredu horretan, erakundea biktimei, beren beharren arabera, eskubide batzuk bermatzeko obligaziodun egoeratik, baliabideen kudeatzaile-egoerara (gehienetan eska-sak) aldatzen da, horien merezidunak diren “onuradunei” soilik zuzenduta daudenetara. Logika horrek biktima gehienek betetzen ez dituzten baldintza zehatz batzuen eskaera ekarri du (adibidez, babes judizialaren agindua, eskubide jakin batzuk izateari buruzko 1/2004 Lege Integralak xedatutako baldintza da, eta beren bikoteek edo bikote ohiek bortxatu dituzten emakumeen %5k baino ez du jasotzen). Ikuspegi horrek ere baliabide espezifikoaren falta ekarri du emakumeentzat, bizi izandako indarkeriari beste arazo batzuk gehitzen dizkietenentzat (droga-mendekotasuna, alkoholismoa edo buruko gaixotasunak). Lege Integrala indarrean sartu eta hamar urte baino gehiagora, emakume horiei deuseztatu egiten zaie zentro espezializatu horietara sartzeari, eta mendekotasuna edo buruko gaixotasunak dituzten tratamendu-zentroetara eramaten diete. Bertara gizonezkoak eta emakumezkoak joaten dira, genero-indarkerian espezializatorik gabe, eta beren beharretara egokituta ez daudenez, trauma berriak izan ditzakete.

“Lanbidera joaten naiz, laguntza eskatzen dut...aizu, bertan hasi zen nire...ikaragarritzko odisea” (...) *“Nik neraman dokumentazio guztia, aizu, ez ziren hamar edo hamabost egun pasatzen...zuek ez duzu bizikidetzako unitate bat egiten, zuk paper hori behar duzu...hasieratik hastera berriz” (...)* *“Halere, nik bizikidetzako unitate bat ez nuela egiten esaten zidaten. Baina, ea... nola ez dut bat egingo bizikidetzako unitate bat nire semea nirekin badago?” (19. B-I).*

Dokumentatutako beste adibideetako bat adingabeena da. Kasu horretan, eskubideen titulartasuna ukatzea normalizatua dago, eta hori justifikatzeko biktimen adina erabiltzen dute, giza eskubideen nazioarteko erakundearen gomendioak bete orde. Erakunde horietako bat Umearen Eskubideen Batzordea da, eta 4. eta 15. behaketa orokorretan adierazi duenez, umeei sexu- eta ugaltze-osasun zerbitzuetara sarbidea izan behar dute gurasoen onespenerik gabe, betiere beren garapen-gaitasunaren arabera. Batzordeak azpimarratu du *“erabaki arduratsuak hartzeko, norberak bere osasuna eta gorputza, baita sexu- eta ugaltze-askatasuna ere, kontrolatzeko eskubidearen garrantzia handituz doala, gaitasuna eta heldutasuna handitzen duten heinean”*.³⁴ Behaketa Orokor horretan, Batzordeak Estatuari iradokitzen die baimentzeko *“umeak tratamendu eta ebakuntza zehatz batzuk egitea gurasoen, zaintzailearen edo tutorearen onespenerik gabe, sexu- eta ugaltze-osasun zerbitzu gisa, segurtasun-baldintzetan abortua barne egonda”*.³⁵

34 3. artikulua.

35 Haurren Eskubideen Batzordea. 15. Behaketa orokorra, haurtzaroko eskubideari buruzkoa, osasun-maila handienari dagokionez (24. art.). NBEren dok.: CRC/C/GC/15, 31. orr.



“Nire amari ospitalean esan zioten nik bozkatu ahal nuela, eta amari galdetu zioten, baina berak ezetz esan zuen, Jainkoak hala agindu bazuen zerbaitegatik izango zela... Psikologoak eta nutrizionistak esan zidaten aitari salatu behar zitzaiola umeak legez abizena izan behar zuelako...” (7. B-I).

2.2. Neurri konkretuak

Kasu bakoitzean aplikagarriak diren ikerketaren muinei buruzko marko arauemaileen (nazioartekoak, eskualdekoak, lekukoak) berrikuspenak eta balioespenak oinarritzko betebeharrak orokor batzuk antzemateko aukera ematen du. Betebeharrak horiek estatu guztietan bete behar dituzte indarkeria matxistaren aurka borrokatzeko adierazpen guztietan. Oinarritzko betebeharrak artean, jarraian deskribatzen direnak nabarmentzen dira, baina horiek aplikatzerako garaian, defizit handiak ikusi dira.

2.2.1. Indarkeria hautemateari buruzko betekizun orokorrak

Indarkeriari aurre egiten dioten emakume eta ume gehienek ez dituzten abusuak salatzen, eta hori, erronka bat da zerbitzu publikoentzat indarkeria hautemate aldera. Horien artean, baliabide publikoak dagokienez, salatu gabeko indarkeria hautemateko beharrezkoak dira osasun-zerbitzuak. CEDAW Batzordeak Estatuak osasun esparrutik esku hartu behar zuen betebeharrari egin zion eta baieztatu zuen *“emakumearentzat generogatik indarkeria osasunari dagokion kontu garrantzitsu eta kritiko batenez, Kide diren Estatuak legeak modu eraginkorrean promulgatzea eta aplikatzea bermatu behar dute, baita politikak formulatzea ere, emakumearen kontrako indarkeriari dagozkien osasun-protokoloak eta ospitale-prozedurak barne”*.³⁶

Osasun-zerbitzuak ez dira emakumeei osasun-laguntza emateko zentroak bakarrik; izan ere, biktimak joaten diren zerbitzu publiko nagusia ere bada. Ondorioz, baliabide horiek gako bihurtzen dira indarkeria hautemateko eta emakumeekin lehen kontaktua izateko. Munduko Osasun Erakundearen arabera, *“emakume gehienak osasun-sistemeekin kontaktuan jartzen da beren bizitzako momenturen batean. Ondorioz, osasun-zentroak toki garrantzitsu bihurtzen dira; izan ere, bertan tratatu txarrak jasaten dituzten emakume biktimak identifikatu daitezke, eta horrenbestez, laguntza eman ahal zaie, eta beharrezkoa bada, zerbitzu espezializatuetara desbiderratu ahal zaie. Zoritxarrez, ikerketek adierazten dute herrialde gehienetan osasun-langileek nekez galdetzen dietela ea tratatu txarrak jasaten ari diren edo nekez bilatzen dituztela indarkeria zantzu garbiak”*.³⁷

“Ziur nago pertsona bat joaten bada eta medikuak argi badu eraso bategatik izan dela (...) medikuak salatu beharko duela, gu askotan ez baikara ausartzen (...), agian norbaitek laguntzea behar duzu, eta bertatik ateratzeko modu bat izan daiteke” (15. B-I).

Nolanahi ere, ikusi da egoera askotan osasun-zentroetako osasun- eta administrazio-langileek beste leku batera begiratzen jarraitzen dutela, baita kalte fisiko nabariak dauden egoeren aurrean aurkitzen direnean ere. Neskame batzuk, beren enplegatzailearen eskutik neskametzat indarkeria jasaten dutenek, osasun-zerbitzuetara jo dute, eta bertan artatu egin dituzte baina lesioen jatorrian sakondu gabe.

³⁶ Íbidem.

³⁷ CEDAWen Batzordea, 24. gomendio orokorra: 20. saio-aldia, 1999, 15. A eta b paragrafoak.



6. B-lko emakume kolonbiarrak indarkeria mota guztiak jasan zituen bere enplegatzailearen eskutik. Tratu txarren ondorioz jasandako osasun arazoengatik eta urteetan zehar behin eta berriz isolatuta egon izanagatik, familiako batek ezagun baten abisu-deia jaso zuen, emakumearen egoeraren berri emateko. 6. B-lko emakumea ospitaleratu bazuten ere, ospitalera iritsi zen osasun-egoera larria kontuan hartuta langileetako inork ez zuen galderarik egin edo salaketarik ipini. Horren orde, beharrezko osasun-laguntza emateko beren betebeharrak burutzerak mugatu ziren, beste kausa batzuk aztertu gabe:

“Gaixorik egon zenean giltzain bat zuten, orduan berari eraman eta bertan utzi zuten. Zeladoreak deitu zidan (...) Beraz, Las Américas ospitalera joan nintzen... eta egun horretan hona ekarri nuen, ospitalean medikuak esan zuenez “ezin du gehiago lan egin, hezurretako hori du, osteoporosia (...) ezin du gehiago lan egin, beraz arduratu zaitezke?” (6. B-lko familiako baten lekukotza).

2.2.2. Arreta osoari buruzko betekizun orokorrak

Nazio Batuen Legegintza-Gidaliburuaren arabera, emakumeen kontrako indarkeriari buruzko marko arauemaileak botere publikoek *“laguntza-zerbitzu zabalak eta integratzaileak aurreikusteko, finantzatzeko edo sortzea laguntzeko eta indarkeriatik bizirik atera direnei laguntza emateko” duten betebeharrak xedatu behar dute.* Era berean, Europako Kontseiluak dionez, Estatuak zerbitzu horietako hornitzaileek kalitatea (genero-ikuspegia barne) dutela, etengabeko informazioa jasotzen dutela eta beren lana jarraibide, protokolo eta etika-kode argi batzuen arabera burutzen dutela ziurtatu behar dute.

Istanbulgo Hitzarmenak xedatzen du Estatuak *“neurri legegileak edo beharrezkoak diren beste batzuk hartuko dituztela, egokia den banaketa geografiko baten arabera, biktima guztiei berehalako laguntza-zerbitzu espezifikoak emateko eta egokitzeko, epe motzean edo luzean”*.³⁸

Nazio Batuen Errelatore Bereziak gogorarazten du biktimei arreta emateko betebeharrak betetzeak ez duela bakarrik zerbitzuak edo baliabideak ezartzea esan nahi³⁹. Halaber, legediak funtsezko hiru elementu ziurtatzeko betebeharrak ezarri behar du, estandar minimo batzuen aurreikuspenen bitartez:

Erabilgarritasuna: zerbitzuek nahikoa izan behar dute (eskuragai dauden plazeekin eta geografikoki banatuta bertako biztanleriaren arabera).

Eskuragarritasuna: zerbitzuek behar duten emakume guztiak barne hartu behar ditu inongo diskriminaziorik gabe, batez ere, zaugarrienak diren sektoreei edo botere sozial gutxiagokoei.

Kalitatea: zerbitzuek emakumeen autonomia lortzera, etika-irizpideak barneratzea eta horiek behar bezalako prestakuntza eta genero-ikuspegi batekin profesionalen bitartez kudeatutak izatera zuzenduta egon behar dute.

Europako Kontseiluak eta Genero berdintasunaren Europako Institutuak biktimen arreta eta babesa araupetzeko garrantziari buruzko txostenak publikatu dituzte, Europako herrialde ezberdinetan emakume horiei ematen zaizkien zerbitzuek kalitate-, erabilgarritasun- eta eskuragarritasun-irizpide antzekoak hartzen dituztela bermatuz.

³⁸ Osasunaren Mundu Erakundea (2002). Washington, DC. 106. orr.

³⁹ Istanbulgo Hitzarmena, 22.1. art.



Nahiz eta nazioarteko erakundeek, itunek, hitzarmenek eta errelatore bereziek horren garrantzia aitortu duten, baita literatura anitz dagoela indarkeria matxistaren biktimei Estatuak eman behar dioten arreta osoari buruz ere, dokumentatutako kasuak askotan estandar minimoak ez dira betetzen.

Kolonbian azken urteetan biktimentzat politika publikoak eta estandarizatutako arreta-protokoloak garatu badira ere, arreta-neurri espezifikoak xedatzen dituen araudi bat izanik (adibidez, gela-bermea, elikagai-bermea, zerbitzu medioaren bermea, psikologia- edo psikiatria-bermea), emakumeak oraindik babesgabe egoten jarraitzen dute, indarkeria matxistaren biktimei zuzendutako harrera zentroei (harrera-etxeak) buruzko araudiagatik. Biktima horiek larrialdi-egoeratan egon arren, araudi horren bidez behartuta daude zentro horiek uztera sartu zirenetik hiru hilabetera. Gauzak horrela, hiru hilabete horietan ezinezkoa egiten da biktima erabat osatzea, bere ondorioak eta kalteak sakonak baitira, eta gainera, hiru hilabetetan bakarrik bizitza berri bat ekiteari aurre egiten dioten emakumeak arriskuan gelditzen dira, Estatuak derrigorrez eskaini behar dituen babes-bermerik gabe.

9. B-lko emakumeari, bere bikote ohiaren eskutik indarkeria matxista mota ezberdinak jasan zituenari, harrera zentro (harrera-etxe) batera joateko aukera eskaini zioten langile publikoek, baina ezezkoa esan zuen, hiru hilabeterako bakarrik baitzen. Emakumea ateratakoan eta etxera itzultzerakoan bere senarraren erreakzioa okerrera egingo zuenaren beldur zen.

“Asiloa edo beste hori eman behar zidaten... 6 aste berarekin eragozpenik ez egoteko. Baina ni pentsatzen jarri nintzen, 6 asteetarako noa, itzultzen naizenean zer gertatuko da, joan izanagatik hartu eta gogorago egingo dit...” (9. B-I).

2.2.3. Polizia-arretaren eta babes efektiboaren betekizun orokorrak

CEDAW Batzordeak, bere 19. gomendio orokorrean, emakumeen kontrako indarkeria salatzekeo prozedura eraginkorrek ezartzea iradokitzen die Estatuak, baita abusu horienganako babesa bermatzea ere. Nazio Batuen Legegintza-Gidaliburuak erreferentzia egiten dio polizia-instantziei, erasoak ikertu eta biktimak babestearen bitartez, genero-indarkeriaren zigorgabetasunari aurre egiteko gakotzat hartzen baitituzte. Hori, bereziki, segurtasun-indarrek beharrezko prestakuntzarekin jardutearen bitartez bermatu beharko da. CEDAW Batzordeak gogorarazten du polizia-funtzionarioak *“Hitzarmena modu eraginkorrean aplikatzea”* lortzeko beharrezko agenteak direla.

*Europar Batasuneko emakumeen kontrako indarkeriari aurre egiteko polizia-Jardunbide Egozien Gidaliburuak (hemendik aurrera EBko polizia-jardunbide egokien Gidaliburua) kalitate profesionala bermatzea gomendatzen du, biktima horiekin zuzenean eta jarraian lan egingo duten poliziak arreta handiz aukeratzearen bitartez. Horretarako, gaitasun pertsonal, psikologiko eta profesional zehatz batzuk kontuan hartzea aholkatzen du, egoera horiek tratatze aldera. Konkretuki, aipatutako Gidaliburuak aintzat hartzen du *“gomendagarria dela funtzionario horiek gaitasun sozial eta komunikatiboak izatea, baita entzute-gaitasuna, enpatia maila altua eta emozioekin moldatzeko gaitasun berezi bat ere”*.*

Legeak ezarri beharko lituzkeen polizia-funtzioei dagokienez, nazioarteko eta Europako estandarrei jarraikiz, segurtasun-indarrek genero-indarkeriaren biktimen honako eskubide hauek bermatu behar dituzte: berehalako kalitatezko arreta salaketarako bide modura; salatutako gertakarien ikerketa sakona; arrisku-egoeran dauden emakumeei babes eraginkorra eta egokia.



Zehaztutako ildoak gorabehera, kasu ezberdin batzuk ere dokumentatu dira. Horietan poliziak, berehalako arreta espezializatua ematek urrun eta emakumeen babeseta eta konfidentzialtasuna bermatzen duten salaketa malguten eta seguruen mekanismoei arretaz aukera emanez, ezarritako estandarren kontra egin du, indarkeria matxista bakoitzeko behar espezifikoak txertatu gabe. Kasu horietan, polizia-funtzionarioaren jokabidearen ondorioz, biktimak egoera batzuetan ez dira babestuta egon, hau da, arriskuan eta babesik gabe egon dira, edota polizia-instantzietan salatu dituzten erasotzaileek erail egin dituzte. Izan ere, polizia-funtzionario horien jokabidea aurreiritzi eta estereotipo arrazistetan eta patriarkaletan oinarritzen da.

13. B-lko emakume errusiarrak Ourensen sexu-erasoa jasan zuen ezezagun batzuen eskutik. Eraso horren ostean, poliziak emakumea salatu zuen Espainian zuen egoera erregulartzeko gertaerak asmatu zituela uste zutelako. Poliziak ez zuen eraso ikertu, eta horrez gain, eraso gertatu eta ordu batzuetara, errespeturik gabe eta sexu-indarkeriaren biktimen arreta-estandarren kontra, osasun-langileak erasoaren ondorioz sortutako lesioak artatzen ari ziren lekura agertu zen polizia, egoera oztopatuz:

“Haiek ezetz esaten dute!, hemen gaude! hitz egin ezazu! Gezurti moduan eta irribarrearekin begiratzen zidaten... Ezer izango ez banintz bezala begiratzen zidaten (...) Espainiara zergatik etorri nintzen galdetu zidaten, zer nahi nuen. Axola ez zaizkien gauzak galdetu zizkidaten... eta pertsona bat argazkiak ateratzen ari zen baimenik gabe.”

Egun batzuk beranduago, epaileak eginbideak ireki zituen bere lekukotza faltsua zela uste izanagatik. Ondorioz, polizia emakumearen bila joan zen Madrilgo CIEra bidaltzeko eta bere kanporatzeari ekiteko. Sexu-erasoaren ondorioak edukita ere, poliziak 13. B-lko emakumea galdekatu, eta, ondoren, ziegara bidali zuten, inolako arretarik edo babesik jaso gabe, ospitaleak lesioen parte irmo bat aurkeztu arren:

“Apirilaren 17an estratan hartu ninduten. Polizia nazionalak hartu ninduen, bai (...) Galderak eta horrelakoak egin zizkidaten eta ziegan sartu zidaten berriz, bertako hoztasunean...paper moduko manta batekin”.

Polizia-funtzionamenduaren betebeharra kasu guztietan esku-hartze profesional egoki baten bereizgarri izan behar du, biktimaren administrazio-egoera alde batera utzita. Esku-hartze horrek, hain zuzen, arreta eta informazio argia izan behar du instantzia judiziale-tan babes judizial eraginkorra ahalik eta prestutasun handienarekin bermatzeko.

Guatemalan, 18. B-lk feminizidio saiakera bat jasan zuen bere bikote ohiaren eskutik, bere osasun fisikorako eta mentalerako larria zena. Gertakarien larritasuna gorabehera, ez zen polizia-babes eta -judizial eraginkorrik egon, eta kasua bi erakundeen utzikeriagatik bereizi zen, nahiz eta lesioak eta mehatxuak larriak izan. Jardunbide judizialen eta polizia-jardunbideen ondorioz, baita ikerketa faltaren ondorioz ere, 18. B-l berealdiko arriskuan jarri zen. Azkenean, erail egin zuten bere bikote ohi kondena betetzen ari zen bitartean, baina ez zen kasua ikertu, ezta errudunak bilatu ere:

“Mindy Roosevelt ospitalean sendatzen zen bitartean, Esteban López eta bere defendatzaileari harrapatu zieten. Alfonso Sol Picholá abokatuak salaketan atzera egin zezan konbentzitzen saiatu zen. Berak ezetz esan zion, baina egun batzuk beranduago, Santa Rosako zigor-epaileak Esteban aske utzi zuen” (18. B-l).



2.2.4. Justiziarako sarbideari buruzko betekizun orokorrak

Nazio Batuen Batzar Nagusiak *Neurri eta jardunbide ereduak* dokumentuan Estatuei iradokitzen die “*indarkeriaren biktima diren emakumeei beren salaketaren aurkezpenean eta prozesuak iraun bitartean behar bezala adoretzeko eta laguntzeko*”. Emakumeei adorea eta laguntza emateko lan hori sektore juridikoetako profesionalak burutu behar dute, salaketa aurkezten denetik eta genero-indarkeriaren ondorio izan diren prozesua(k) iraun bitartean. Aipatutako jardunbide ereduak dokumentuak Estatuei iradokitzen die:

Sexuen arteko ezberdintasunean trebakuntza-modulu beharrezkoak, transkulturalak eta nabariak ezartzea, polizia eta zigor-auzitegiako sistemaren funtzionarioei zuzenduta. Horietan emakumearen kontrako indarkeria onartezina eta beren oihartzunak eta ondorioak aztertuko dira, eta indarkeria mota horri erantzun egoki bat ematea sustatuko da;

Zigor-auzitegiako sistemaren langileek trebakuntza, sentsibilitatea eta heziketa egokiak dituztela egiaztatzeko, beharrezkoak diren giza eskubideen baliabideei dagokienez;

Elkarte profesionalen bitartez, zigor-auzitegiako sistemaren profesionalentzat emakumeen justizia eta berdintasuna bultzatzen duten derrigorrezko arau batzuk prestatzeko, jardunbide eta jokabideei dagokienez.

Zentzu berean, Asanbladak adierazle sorta bat finkatzen du, biktimek benetan justizia izateko garrantzitsuak direnak, Estatuak “*emakumeei justizia izatea oztopatzen dien oztopo guztiak kentzeko eta abokatu baten laguntza izateko* estatuen betekizunari dagokionez (...)”⁴⁰. Prozesuko parte hori funtsezkotzat jotzen da emakumeak erasotzailearen aurrean benetan babestuta senti daitezten eta errepresaliak izateko beldurrik gabe aurrera egin dezaten, biktimentzako faserik zailenetako batean. Izan ere, kasu gehienetan botere eta zigorgabetasunetik emakumeekiko erabili den indarkeriak erasotzailearekiko beldur- eta arrisku-egoeran mantentzen ditu.

Kasu dokumentatuen artean, zenbait egoera nabarmendu beharra dago. Egoera horietan justizia benetan izatea ukatu da, sistema judizialak ikerketarik egin ez duelako, egitateak larriak baziren ere eta emakume biek jasandako muturreko indarkeria matxista gorabehera (18. eta 13. B-I).

13. B-In kontatutako sexu-erasoaren osteko asteetan, auzitegiak ez zion deialdirik egin emakumeari, sexu-erasoko biktima gisa deklaratzeko. Guardia Zibilak zenbait alditan egin zion bisita, eta jakinarazi zion (bere bikotekideari ere bai) zalantzak zituela sexu-erasoaren benetakotasunaren inguruan. Agenteen argudioetako bat zen 13. B-Iko emakumeak ez zuela garrasirik egin, eta auzokideek ez zutela ezer entzun. Emakumeak erantzun zuen ez zuela garrasirik egin, gizonak pistola bat jarri ziola aurrean denbora osoan. Bi aste geroago, erasoak sortutako lesioak oraindik aurpegian zituela, polizia emakumearen bila joan zen eta guardiako epaitegira eraman zuten. Epaileak galdeketa egin zion, “*atxilotu*” gisa, eta fiskalak ez zuen ohartarazpenik egin. 13. B-Iko emakumea aske geratu zen behin-behinean, eta hil bakoitzeko 1. eta 15. egunetan auzitegira bertaratu behar zen.

⁴⁰ Emakumearen aurkako indarkeriari, haren kausei eta ondorioei buruzko Errelatore Berezia: *Emakumearen aurkako indarkeriari buruzko adierazleak eta Estatuaren erantzuna*. NBEren dok.: A/HRC/7/6 2008ko urtarrilaren 29koa, 100. orr.



2.2.5. Ordain-eskubideari buruzko betekizun orokorrak

Ordain-eskubideak estatuak hartu beharreko neurri multzoa aipatzen du, giza eskubideak urratzeak eragindako kalteak konpontzeko. Zenbait itunek, hala nola Eskubide Zibil eta Politikoen Nazioarteko Itunak, CEDAWek, Torturaren aurkako Hitzarmenak edo Haurren Eskubideei buruzko Konbentzioko ahalduntze Protokoloak, haurrak saltzeari, haur-prostituzioari edo haurrak pornografian erabiltzeari buruzkoak, estatuei iradokitzen diete biktimei ordainak emateko.

Nazioarteko eskubideren arabera, ordain-eskubidea ez dagokio soilik ekonomiari, Estatuaren betekizun hauek barne hartzen ditu, kalteak Estatuaren ekintzek edo omisioek eragin dituztenean ere bai:

- a) kalte-ordain proportzionatua eta kalte-ordainetako ordainsaria.
- b) lehenagoraztea eta errehabilitaztea; horrek esan nahi du ahal den neurrian biktimei erasoaren aurreko egoerara lehenagoratu behar dela, eta, fisikoki, psikikoki eta sozialki berreskuratzen dela bermatzeko neurriak hartu behar dira.
- c) asebetetzea, horrek barne hartzen du - nagusiki -: bortxaketak etetea, egia hedatzea, desagertutako pertsonak non dauden asmatzea, biktimaren duintasuna eta izena lehenagoratu duten adierazpen ofizialak.
- d) berriz gertatuko ez dela bermatzea, hau da, errepresalien edo mehatxuen aurrean benetako babesa ematea.

Orokorrean, Latinoamerikan, eta espezifikoki aztertu ditugun herrialdeetan, hala nola Kolonbian, Guatemalan eta El Salvadorren, Estatuak arau-markoak ezarri dituzte, eta horiekin batera inguru intimoko eta gatazka armatuko edo gatazka armatu osteko indarkeria matxistaren biktimen ordainerako politika publikoak egin dituzte⁴¹. Hala ere, biktimei edo beren familiako kideei oraindik ez zaie ordainik eman, giza eskubideei buruzko nazioarteko estandarrek finkatzen dituzten jarraibideen arabera, baita herrialde bakoitzeko araudiaren arabera ere:

“Ordainak ematea ni bakarra ez naizela aitortzea litzateke, hau da, 13 komunan asko bizi garela aitortzea” (25. B-I). Eragile armatuek Kolonbian psikologikoki torturatu eta bahitu zuten biktimei hori.

“...Hau da, niri gustatuko litzaidake, adibidez, nire amarekin geundenean bakoitzak zer ikasi nahi zuen esaten ziola, alegia, batxilergoa ikastea doakoa da, baina unibertsitatean ikastea, berriz, ez; hortaz, aukera izan baino ez dut nahi”. (26. B-I). Sexu-indarkeriaren biktimei Kolonbiako gatazka armatuan.

Kasu batzuetan, biktimentzako neurri konpontzaileak, hala nola sexu- eta ugaltze-eskubidea, edo abortua legearen barruan laguntza medikoko zerbitzu egokien bidez egiteko eskubidea (adingabeentzat nahiz helduentzat) legez kanpoko jarduketatzat hartzen dituzte Estatuak (El Salvador eta Guatemalako), eta jasandako kaltea konpondu beharrean, biktimak zigortu eta kriminalizatzen dituzte. Emakumeen eta giza eskubideen gobernu kanpoko erakundeek behin eta berriro salatzen dituzte jarduketak horien ondorioak (gehiegizko kartzela

⁴¹ Emakumearen aurkako indarkeria forma guztiak desagiteko ahaleginak areagotzea. NBEren dok.: A/RES/67/144.



zigorrek besteak beste), baita Nazio Batuetako errelatoretza bereziek ere⁴². Azken horiek horrek biktimei dakarkien ondorio larriengatik kezkatu daudela adierazi dute: *“Batzordeari ere kezkatzen dio indarreko lege gintza penalean abortua egoera guztietan kriminalizatzen dela, eta, erabateko derrigortasun horren ondorioz, gazteek abortu arriskutsu eta klandestinoko metodoak erabili behar dituzte, eta batzuetan ondorio hilgarriak gertatzen dira”*⁴³.

Estatu Espainolaren kasuan, *Lege Integralak* ez zion heldu ordainak jasotzeko biktimen eskubideari, eta eskubide hori arautzen duen araurik ez da idatzi aurrerantzean. Ordain-eskubideak estatuak hartu beharreko neurri multzoa aipatzen du, giza eskubideak urratzeak eragindako kalteak konpontzeko, eta, gutxienez, hiru elementu barne hartzen ditu: kalte-ordainak ordaintzea, erabat berreskuratzea eta berriz gertatuko ez dela bermatzea. Delituaren Biktimaren Estatutuko Legeak⁴⁴ hutsune hori betetzeko aukera izan zuen berriki, baina ez zuen egin. *Delitu biolentoen eta sexu-askatasunaren aurkako delituen biktimak laguntzeari buruzko 35/1995 Legeak*⁴⁵ ez die genero-indarkeriako biktimei bermatzen kalte-ordainen eskubidea, ez eta erabat berreskuratzea ere. Arauan ezarritako baldintzaren zorrotzasunak laguntza horiek jasotzea galarazten die genero-indarkeriako biktima gehieni.⁴⁶

Nagore Lafaggeren Movistar telefono-konpainiak eta dietetika-prestakuntzako zentro batek (Nagore bertan ikasten ari zen) oso zail jarri zioten haren amari Nagorek kontratatu zituen zerbitzuen baja ematea, eta ordaintzen jarraitu behar izan zuen, eraiketari buruzko frogak eman bazituen ere. Enpresa bietatik eratorritako indarkeria instituzionalak Nagoreren familia biktima egin zituen berriz.

“Hurrengo ekitaldia ordaindu behar izan nuen (...) zenbat izan zen?, 1000 euro, edo azkenean 900, ordaindu behar izan nituen aldi batez; izan ere, bi urterako matrikula egin zuen eta lehen urtea bakarrik ordaindu zuen (...)” (14. B-I).

Bistan denez, ordainketa-neurriak falta dira 28 kasuetan, bai Latinoamerikan, bai Espainian, bai Euskal Herrian. Bada, arreata ematen du emakumeen gobernuz gaindiko erakundeek, baita sozietate zibileko beste talde batzuek ere, konponketa-mekanismoak eman dituztela (psikologikoak, juridikoak, laguntzekoak, ahalduntzekoak, etab.), eta horiek ezinbestekoak izan dira biktimak lehengoratzeko prozesuan. Zenbait kasutan, emakumeen elkarteek eta sozietate zibilak baino ez dute “konponketa”-rola egin, Estatuak egiten ez zuelako.

“Jainkoari esker Korporazioa topatu nuen. Hemen aurrera egiten ikasi dut, animatu nintzen eta zuek lagundu zenidaten ikasten jarrai nezan. Eskubideak ezagutzen ditut, eta badakit gertatu zitzaidana ez zitzaidala zertan gertatu behar, ez niri, ez beste edozein emakumeri. Ona izan zen hona iristea, ezer ez nekielako” (7. B-I).

2.2.6 Tortura prebenitzearekin eta erantzutearekin lotutako betekizunak

Giza eskubideen nazioarteko tresnek ezartzen dute estatuko agenteek egindako bortxaketa (edo haiek onartuta edo haiek jakinaren gainean daudela egindakoak) torturatat har dai-

42 Kolonbia: 2008ko 1257 Legea, 2014ko 1719 Legea eta 2000ko 575 Legea; Guatemala: Feminizidioaren eta emakumearen aurkako beste indarkeria moten aurkako Legea (22/2008 Dekretua); El Salvador: Emakumeentzako indarkeriarik gabeko bizitzarako Lege berezia, 2011koa (520 Dekretua)

43 Ikusi: Giza Eskubideetako Batzordearen amaierako behaketak. El Salvador. 2010eko azaroaren 18ko C/PR/C/SLV/CO/6 ; azken behaketak: El Salvador. Hurren Eskubideen Batzordea. CRC/C/SLV/CO/3-4. 2010eko otsailaren 17a; Emakumearen aurkako Diskriminazioa Desegiteko Batzordearen azken behaketak: El Salvador. CEDAW/C/SLV/CO/7. 2008ko azaroaren 7a.

44 Azken behaketak: El Salvador. Hurren Eskubideen Batzordea. CRC/C/SLV/CO/3-4. 2010eko otsailaren 17a.

45 4/2015 Legea, apirilaren 27koa, delituaren biktimaren Estatutuari buruzkoa.

46 35/1995 Legea, abenduaren 11koa, delitu biolentoen eta sexu-askatasunaren aurkako delituen biktimak laguntzeari buruzkoa.



tekeela. Halaber, beste sexu-indarkeriako forma batzuk, hala nola bortxaketa-mehatxuak, laztan desegokiak, gehiegizko miaketa, sexu-xantaia, edo sexu motako lirainak edo umiliazioak tortura edo tratu txartzat jo daitezke, baldin eta tratu krudelen, iraingarrien eta ankerren elementu nagusiak badituzte⁴⁷. Genero-ikuspegia torturaren aurkako borrokaren nazioarteko markoan txertatzeari buruzko berariazko txosten batean, Nazio Batuen Erre-
latore Bereziak baieztatu zuen oso garrantzitsua zela *“torturaren aurkako babes-markoa aplikatzea genero-kontuak ahaztu gabe, emakumeentzako torturaren aurreko babes indartze-
ko (...) Ekintza bat “torturatzat” jotzeak estigma gehigarri garrantzitsua dakarkio Estatuari, eta tortura-ekintzak zigortzeko, autoreei epaiketa egiteko eta biktimei ordainak emateko betekizun irmoa barne hartzen duten oihartzun juridikoak indartzen ditu”*⁴⁸.

23. B-In jasotako abusu eta indarkeria polizialek tortura osatzen dute; izan ere, biktima-
ren inpotentzia-egoeran oinarritzen dira [atxiloketak dakarren inkomunikazio-erregimenak
larritzen du], eta, emakume den heinean, biktima umiliatzeko eta menderatzeko xedeari
jarraitzen diote. Hona hemen bizirik iraun duen emakumeak kontatutako mehatxu eta tratu
txar polizial jakin batzuk:

*“Zenbait orduz egin zidaten oihu, eta ezin izango nuke esan tarte batzuetan zer esaten zidaten
(...) Eta konnotazio guztiak...feminitateari buruzkoak ziren, edo itsustasunari buruzkoak: nazka
ematen duzu, txarto usaintzen duzu, tontoa zara (...) Honakoa ez zait inoiz ahaztuko: bortxatu
egingo zaitugu ...hauxe egingo dizugu...hau da,...basatikeriak, denbora osoan. Eta une batez hor-
maren kontra jarri zidaten...eta bortxatzeari buruzko zerbait oihu egiten ari ziren, eta praktikak
jaitzi zizkidaten...”*

Inkomunikazio-erregimeneko atxiloketaren kasuan, Estatu Espainolak ez du betetzen tor-
tura prebenitzeko betekizuna, atxiloketa-erregimen hori mantentzen baitu, torturaren aur-
kako nazioarteko eta eskualdeko tresnen zaintza-mekanismo nagusiek erregimen hori
kentzeko gomendatzen badute ere. Izan ere, *erregimen horrek tortura errazten duten bal-
dintzak sortzen ditu, eta tratu krudela, iraingarria eta apalgarria izan daiteke, bai eta tortura
ere*⁴⁹. Arartekoak, Euskal Herriaren Defendatzaileak, baieztatzen du *“tortura kentzeko mo-
durik eraginkorrena espazio eta denbora-tarte opakoak kentzea -hau da, pertsona atxilotuaren
bermeak ahul egiten diren horiek- eta poliziaren jarduketak kontrolatzeko mekanismoak in-
dartzeko dela”*⁵⁰. Gaur egun, Espainiako legedian tortura prebenitzea saihesten edo zailtzen
duten espazio “opakoak” daude. Beharbada, prebenitzeko oztopo mota horien adibiderik
argiena “inkomunikazio-erregimeneko atxiloketa” sistema da. Erregimen hori Prozedura
Kriminalaren Legeak ezarri zuen⁵¹, eta testuinguru horretan gertatu zen dokumentatutako
kasuko emakumeak salatutako indarkeria.

Kasuak agerian uzten du ardurarik eza dagoela tortura ikertzean, eta kasu honetan funtsezko
hiru elementuk huts egin dute (elementu horiek nazioarteko eta Europako txosten eta go-

47 Kalte-ordainak jasotzeko, lege horrek biktimei eskatzen die “lesio larriak” jasan dituztela epai irmoan egiaztatzeko, hain zuzen ere, beren gorputz-osotasunari edo beren osasun fisiko edo mentalari kalte egiten dizkieten lesioak. Halaber, lesio horiek sei hilabete baino gehiagoko aldi baterako ezintasuna edo ezintasun iraunkorra xedatu behar dute. Ohiko genero-indarkeriaren biktima gehienek ez dituzte baldintza horiek betetzen, eta ez da estatu-mailako bestelako kalte-ordaineko erregimenik aurreikusitako eskubide garrantzitsu hori izan dezaten.

48 Torturaren edo bestelako tratu edo zigor anker, iraingarri edo umiliagarriaren aurkako Konbentzioa, 1984ko abenduaren 10eko 39/46 [1. art.] ebazpenaren bidez Batzar Nagusiak sinatu, berretsi eta atxiki beharrekoa.

49 Manfred Nowak errelatore bereziaren torturari eta bestelako tratu edo zigor anker, iraingarri edo umiliagarri buruzko txostena. NBEren dok: A/HRC/7/3, 2008ko urtarrilaren 15ekoa, 26. orr. 26.

50 2003ko urriaren 5etik 10era bitartean *Espainiara egindako bisitaren inguruan, Errelatore Bereziaren torturari buruzko txostena*, bere aginduko markoan [E/CN.4/2004/56/add.2] 66. paragrafoa.

51 Arartekoa (2004): Ararteko erakundearen torturaren aurkako adierazpena, 5. orr.



mendioetan ezarri ziren, eta tortura-salaketa baten ikerkuntza “azkar eta inpartzialarekin” lotuta daude):

- a) Mediku forentsearen txosten sakona, instrukzio-epaileari berehala jakinarazita,
- b) Atxiloketa etetea eta atxilotua epailearen esku jartzea,
- c) Salatzaileak aukeratutako fakultatibo batek salatzailea aztertzea.

23. B-In, hiru elementu horiek (tortura prebenitzeko babesa dira, baita froga-elementuak eta biktima babesteko elementuak ere) ez egoteak mesede egin dio abusuen zigorgabetasunari. Kasu honetan, gainera, biktimaren salaketaren bidez hasitako auzia artxibatu da, hein handi batean, mediku forentseek ezer egin ez dutelako, eta lehenengo atxiloketa-aldian zehar epaiketa-ardurarik egon ez delako lehenengo tortura-zantzuen aurrean.

2.2.7. Eskubide Sexual eta Erreproduktiboekin lotutako betebeharrak

Europa eta Latinoamerikako eskualdeko arau-esparruek, erabaki zein irizpen askoren bidez aurreratu dute Estatuak eskubide sexual eta erreproduktiboak errespetatu, babestu eta bete egin behar dituztela; horrek esan nahi du Estatuak eskubide horiek onartu behar dituztela, eta giza eskubide gisa guztiz bermatu. Zentzu horretan, Estatuak emakumeentzako osasun sexual eta erreproduktiborako zerbitzu jakinak baldintza legeetan eskaintzen ez dituztenean, “diskriminazio eza”-ren⁵² nazioarteko agindua urratzen ari dira, eta, gainera, paraleloki giza eskubideak urratzen dituzte posible den osasun mailarik altuenean, giza eskubideen nazioarteko itun eta hitzarmenetan onartua⁵³.

“Abortuaren ostean oso gaixo egon nintzen, sukarraldi handiak izan nituen, urdaila gaixotzen zitzaidan, bi hilabete eman nituen horrela, edozertaz gaixotzen nintzen (...) alergiak izan nituen, pilulengatik urtikariak izan nituen, bronkioak gaixotu zitzaizkidan. Emozionalki gaizki sentitzen nintzen, legratuaren ostean izugarri gaizki sentitzen nintzen; gainera beti geratzen da halako min zeroso bat, eta azkenean okerren sentitu nuen mina, min psikologikoa izan zen” (4. B-I).

Kairon egindako Biztanleriari eta Garapenari buruzko Nazioarteko Biltzarra mugarri historikoa izan zen Ekintza Programaren bidez; bertan, estatuak estimatu zuten gobernuek “erraztu egin beharko luketela bikote eta pertsonen beren osasun erreproduktiboaren arduraren beregain hartzea, beharrezkoak ez diren lege-, mediku-, klinika- eta araudi-oztopoak ezabatuz”⁵⁴.

Zentzu berean, Emakumeen Kontrako Diskriminazio Era Guztiak Ezabatzeko Konbentzioak (CEDAW), aztertutako Estatu guztiek berretsitakoa, 12. artikulua bidez⁵⁵ eskatzen du “parte hartzen duten Estatuak ahal beste neurri egoki har dezaten osasun-laguntzaren arloan ematen den emakumearen aurkako diskriminazioa ezabatzeko, ziurtatzeko, gizon eta emakumeen arteko berdintasun baldintzetan, osasun-laguntzako zerbitzuen irisgarritasuna, baita familia-plangintzari dagozkien zerbitzuena ere”; izan ere, hori funtsezkoa da emakume, neska gazte eta neska koskorrek beren giza eskubideez guztiz gozatzeko, zigortuak edo kriminalizatuak izan gabe.

52 24. Aholku Orokorra (1999). Emakumeen Kontrako Diskriminazioa Ezabatzeko Batzordea. 11. paragrafoa.

53 Ikus: Giza Eskubideen Adierazpen Unibertsala (25. artikulua), Eskubide Ekonomiko, Sozial eta Kulturalen Nazioarteko Hitzarmena (1976), 14. Oharpen Orokorra (2000) osasunerako eskubideari buruzkoa, Eskubide Ekonomiko, Sozial eta Kulturalen Batzordeak onartutakoa.

54 Nazio Batuen Biztanleria Dibisioa, Ekintza Programa, 7.20 paragrafoa.

55 12. Artikulua. Osasuna eta Eskubide Sexual eta Erreproduktiboak.



Nazio Batuetako batzorde adituek (CEDAW batzordea; Haurren Eskubideen Batzordea; Eskubide Ekonomiko, Sozial eta Kulturalen Batzordea; Giza Eskubideen Batzordea, etab.) eta bestelako nazioarteko erakundeek behin eta berriz ohartarazi arren, azpimarratuz estatuek eskubide sexual eta erreproduktiboak bermatu behar dituztela, eta emakumeak zigortzeko neurriak ezabatzeko eskatuz, aztergai izandako herrialde guztietan eskubide sexual eta erreproduktiboak ez dira guztiz bermatzen; hori genero berdintasuna lortzeko oztopo igarozina da.

20. B-lko emakumea adinez nagusia da eta Bartzelonako onetsitako klinika batean abortatzea erabaki zuen, Estatu Espainolean 2006. urtean indarrean zegoen legeriaren babespean. Garai hartan, emakumeen erabakitzeke eskubidearen aurka zeuden elkarte kontserbadoreek hedabide- eta jazarpen-kanpainak hasi zituzten, abortuak egiten zituzten klinika legalak salatuta. Bartzelonako hiru klinikako langile batzuk atxilotu ostean, prozedura penalak hasi ziren, eta zuzenean zein zeharka 20. B-lko emakumeari eragin zioten. Ezer leporatu ez zioten arren, eta auzipetua izan ez zen arren, lekukotasuna emateko deitu zuten; horrek estatuak gertatutakoa kriminalizatzea dakar, baita 20. B-lko emakumeak duen abortatzeko erabaki askearen eskubidea kriminalizatzea ere.

“Gurasoei zitazio bat bidali zieten. Hasieran, aita beldurtuta zegoen, auskalo zer egin nuen pentsatzen, zerbait (...) hasieran ez ziguten azalpenik eman nahi (...). Orduan epaiketean lekuko gisa adierazteko deitu zidaten (...), galdetu zidaten ea zenbat urte nituen abortua egin zidatenean. Metodoric erabili zuten, familien sailean egoten utzi al zidaten (...). Galdetu zidaten Bartzelonara nola joan nintzen, nola bideratu ninduten horra (...)” (20. B-l).

3. ONDORIOAK

Indarkeria matxistaren alderdi guztien aurkako borroka erronka garrantzitsuenetakoa da giza eskubideen arloan. Hala ere, ikerketa honetan jasotako kasuek frogatzen dute Estatuak zailtasun eta erresistentzia handiak dituztela eskubideen nazioarteko subjektu diren heinean beren betebeharretatik eratorritako ardurak betetzeko, prebentzioaren, ikerketaren, errudunen zigorraren eta biktimen minaren ordainaren testuinguruan.

Ikertutako herrialde guztietan, emakume, neska gazte eta neska koskorrek oztopo askori egin behar izan diete aurre beren eskubideak errespetatuak izan zitezen, erasotzaile matxistek edo administrazioko langileek (segurtasun- eta ordena-indarrak, operadore juridikoak edo langile publikoak) inpunitate osoa duten testuinguruan; haien praktika okerren bidez, indarkeria matxista babesten dute, haren aurka egin ordez, indarkeria elikatzen duten estereotipo sexistek nabarmentzen duten testuinguru soziokultural patriarkalean.

Premisa horietatik abiatuta, honakoak dira hamar ondorio nagusiak:

1. Estatu guztiek sinatu eta berretsi dituzte nazioarteko konbentzio eta itun nagusiak emakumeekiko indarkeriaren aurkako borrokaren esparruan; hala ere, guztiek agertzen dituzte gabezia garrantzitsuak indarkeria hautemateko dituzten betebeharreri dagokionez, baita biktimen arreta integralari, arreta eta babes eraginkorrari, justizia eskuartzeari, ordain integralari eta indarkeria matxistaren prebentzioari dagokionez ere.
2. Arauen aurrerabideak, aipatu bezala, ez dira testuinguru soziokulturala aldatzeko ahalgintza lagundu; ondorioz, herrialde guztietan kultura matxistak dirau, zeina ez den gai



emakume, neska gazte eta neska koskorrek pairatzen duten indarkeria matxista mota ezberdinei erantzuteko; paraleloki emakumeei beren eskubide sexual eta erreproduktiboez baliatzeko autonomia ukatzen die.

3. Gatazka edo gatazka ondorengo testuingurueta larriagotzen den kultura patriarkala normaltasunetik aritzen da biktimei arretea ematen dien talde arduradunen bidez, eta, horrela, inpunitatearen kultura babesten du, biktimen laguntzari gailentzen zaiona.
4. Biktimek laguntza, justizia eta ordaina jasotzeko araudiek argi kokatzen dute emakumeen aurkako indarkeria bere testuinguruan; horien arabera, indarkeria sistema patriarkalaren ondorioa da, eta ezaugarri du emakume eta gizonen artean boterea ezberdin banatzea. Nazioarteko estandarrak zein nazioarteko erakundeek erabaki eta behaketak argiak dira, baina Latinoamerikan, Espainian eta Euskal Herrian ikuspegi kontserbadoreak eta familiarren aldekoak dirau; horrela, zabarkeriaz, indarkeria matxistari erantzuteko neurri “adostaileak” ezartzen zaizkio erasotzaileari; izan ere, iruditeria sozial zaharkituaren arabera, tratu txarrak ematen dituen gizona oraindik ere aita ona izan daitekeela uste da. Uste horiek, kultura matxista eta aurreiritzi sexistekin batera, arriskuan jartzen dituzte emakumeen giza eskubideak, eta, gehienetan kontatzen duten moduan, baita beren seme-alaben eskubideak ere, zenbaitetan erail izan baitituzte lehenago jarritako salaketak gorabehera.
5. Nazioarteko giza eskubideen sistemaren giltzarria diskriminazioa debekatzea bada ere —izan ere, horrek eskubideen babes eraginkorra guztiontzat eskuragarri izateko bermea dakar, eta baita diskriminazio anitzak paira ditzaketen emakume taldeentzako arretea ere— herrialde guztietan “diskriminazio ezaren” agindua urratzen duten arau zein praktikak daude, eta horrek emakume guztien giza eskubideei eragiten die; bereziki, heteroarauaren arabera estandar tradizionalekin bat ez datozen emakumeei: besteak beste, administrazio-egoera irregularrean dauden emakumeak, emakume transexualak, desgaitasunak dituztenak, errefuxiatuak edo asilo-eskatzailak, emakume nagusiak, etab.
6. Giza eskubideen nazioarteko itun eta hitzarmenek argi ezartzen dute pertsona guztiak direla eskubideen jabe. Hala ere, ikusi da jasotako kasu gehienetan, maiz, biktimek ez dutela “eskubideak” exijitzen dituzten subjektuen posizio aktiboa, baizik eta baliabide publikoen “onuradun” direnen posizio pasiboa. Paraleloki, jasotako kasu gehienetan estatu-eragile ezberdinek errespeturik gabeko jarrera agertzen dute beren eskubideak bete daitezkeen eskatzen duten biktimekin. Funtzionario jakin batzuek erabakiak hartzeko duten gaitasunek, aurreiritzi sexistekin batera, biktimak arriskuan jarri dituzten jardunbideak eragin dituzte, zenbaitetan feminizidiora heldu direnak.
7. Aztertutako herrialdeetan, zerbitzu eta baliabideek urratu egiten dituzte “erabilgarritasun”, “eskuragarritasun” eta “kalitateari” dagozkien gutxieneko estandarrak. Herrialde batzuetan, biktimentzako baliabide jakinen faltak beren laguntza eta arretarako beharrezkoak diren nazioarteko estandarrak urratzen ditu, eta, gainera, biktimak arrisku egoera batean jartzen ditu, dirauen indarkeria zurrunbilotik ateratzea galaraziz.
8. Biktimen eskubideak bermatu behar dituzten polizia-funtzioei dagokienez, polizia-arretaren eta babes eraginkorraren betebeharrak orokorren aurrean gabetia garrantzitsuak ikusi dira, biktimentzako momentu erabakigarria den heinean. Oraindik ez da eraginko-



rra, ez berehalako arreta berezitua ezta biktimen beharrak barnean hartuko dituzten salaketa-mekanismo malguak izateko aukera. Genero-indarkeriari buruzko formazio faltak, aurreiritzi eta estereotipo sexistek eta, zenbaitetan, herrialde batzuetako araudi diskriminatzaileak, emakumeek prozesua baztertzea eragin du, edo haientzako epaiketa kaltegarrirei aurre egin behar izana, polizia-arreta eta -ikerketa kaskarraren ondorioz.

9. Herrialde guztietan, emakumeek oztopo itzelak gainditu behar dituzte justizia-sistemaren alderdi guztietatik: araudi diskriminatzaileak, genero-indarkerian eta giza eskubideetan formazio ez duten langileak, tratu iraingarri eta gizagabea, giza eskubideen nazioarteko zuzenbidearen aurkako epai eta irizpen judizialak, eta baita indarkeria matxistaren era guztien aurrean emakumeek duten babes eraginkorraren aurkakoak ere. Justizia-sistema eredugarria izan behar da indarkeria matxistaren aurrean; horretarako, genero-indarkeriaren aurkako borrokari dagozkion nazioarteko arauak, estandarrik, eta gomendioak ezarri behar ditu. Justizia-sistemaren jarduna eta ebazpenak giltzarri dira auzitegien erabakiez harago joango diren egiturazko aldaketa sozial eta kulturalak lortzeko, eta berdintasunaren, diskriminazio ezaren eta genero-indarkeriaren aurkako borrokaren alde egiteko.
10. Biktimen minaren ordaina aztertutako Estatu guztiek konpondu beharreko kontua da. Kalteak ordaintzea, lehengoratzea zein birgaitzea, asetzea eta berriz ez errepikatzeko bermea; horiek guztiak, beren osotasunean, ez dira ageri aztertutako kasu gehienetan. Ordain-neurriak ez dira soilik estatuen betebeharra; funtsezko atalak dira emakumei urratu zaien bizi-proiekturako eskubidea bermatzeko. Paraleloki, ordainak oinarritzko papera betetzen du egiturazko indarkeria zuzenaren prebentzioan, eta tratu txarrak ematen dituzten inpunitatearen eta haiek elikatzen dituen sistema patriarkalaren aurrean.

4. ERAGINAK, ERRESISTENTZIAK ETA PRAKTIKA ONAK

Estatuek ez diote emakume, neska gazte eta neska koskorren aurkako indarkeriari heltzen eta haren aurka borrokatzeko dituzten betebeharrak argiak betetzen. Horrek, gizarte osoarentzat —zehatzago, indarkeria matxistaren biktimentzat— erabakigarriak diren ondorioak dakartza.

Nazio Batuek diotenez, herrialde bakoitzean neurri-mota bat hartzea behartzen duten egoera eta muga ezberdinak gorabehera, testuinguru politiko eta sozialak ez du Estatuaren ekintza eza justifikatzen, arlo horretan dituen konpromisoak urratzen eta aintzat hartzen ez baititu. Estatuak tratu txarrak ematen dituzten gizonei erantzukizunik eskatzen ez badie, edo beharrekin bat datozen aurrekontuekin batera neurri-legal zein ekintza politiko egokiak hartzen ez baditu, ekintza matxistak berriz gerta daitezzen sustatzen du, eta inpunitatearen kultura babestu, genero ezberdintasuna —eta, hortaz, indarkeria matxista— indartuta.

Estatu guztiek hartu dituzte legeria-neurriak, genero-indarkeriaren aurkako prebentzioa eta borrokari zuzenduak. Herrialdearen arabera, legegintza arloan aurrerabide gutxi-asko esanguratsuak egin dira, nazio- edo eskualde-mailako ekintza planez lagunduta. Hala ere, frogatu da oraindik ere arlo guztietan erresistentzia larriak ematen direla indarkeria matxistari modu erabakigarrian heltzen zaionean.



Latinoamerikan araudi-markoak hobetu egin dira azkeneko hamarkadan, emakumeen aurkako indarkeriaren biktimei arreta, babes, justizia eta ordaina emateari dagokionez. El Salvador eta Guatemalak feminizidio/femizidio delituak gehitu dizkiote legeria integral eta berezitu bati. Kolonbiaren kasuan, azken urteotan onartu den araudiak itxaropen handia sortu du indarkeria matxistaren aurkako borrokan, babes-, arreta- eta ordain-neurriak erantsi dituelako gatazka armatuaren biktimetzat. Hala eta guztiz ere, arrakala dago nazioarteko estandarren eta nazio-mailako lege, politika eta praktiken artean. Bereziki esanguratsuak dira emakumeek topatzen dituzten zailtasunak osasun sexual eta erreproduktiboa eskuratzeko; halaber, esanguratsua da El Salvadoreko estatuak eta Guatemalak haien eskubide sexual eta erreproduktiboez baliatu nahi duten emakumeen aurka gauzatzen duten kriminalizazio eta jazarpen kezagarria.

Biktimak babesteko betebeharra duten horien aurreiritzi eta estereotipo sexistek aldaezin jarraitzen dute, aurrerabide eskasekin; salbuespen dira estatuak axolaz engaiatzen direnean genero-indarkeriaren aurkako borroka eraginkorrerako neurriak hartzen, nazioarteko erakunde eta estandarren argibideei jarraituta. Zentzu horretan, emakume feministen antolakundeak eta gizarte zibilaren laguntza elementu erabakigarriak dira, eta kasu guztietan identifikatu dira emakume, neska gazte eta neska koskorren babeserako eta ahalduntzerako.

Deskribatutako oztopoak identifikatzeaz batera, testuinguru guztietan aitortutako praktika positiboak nabarmendu behar dira, emakumeen eskubideak egi bihurtzera zuzenduta baitaude:

- Antolakunde feministek, emakume-antolakundeek eta giza eskubideenak funtsezko papera dute herrialde guztietan, eta askotan biktimen babes eta ordainerako lan hori ez dute Estatuak beren betebeharren bidez betetzen. Antolakunde horiek eskaintzen duten laguntza eta berehalako erantzuna beharrezko alternatibak dira biktimek eta senitartekoez aurre egin behar dituzten prozesu zailetan. Paraleloki, erreferentziazko laguntzaileak dira emakumeen ahalduntzeari dagokionez, ordain-prozesuetan eta justizia eskatzean. Giza eskubideen ikuskera interseksionaleko ikuspuntu feminista duten lan-planteamendu komunetatik abiatuta, antolakundeen arteko nazioarteko babes-sareak indartzeak segurtasuna ematen die emakumeei, eta Estatuak beren betebeharrak betetzea eta hobetzea errazten du, prebentzioari, ikerketari, errudunak zigortzeari eta biktimen ordain integralari dagokionez. Nazio Batuen Idazkari Nagusiak ohartarazten duen bezala, emakumeekiko indarkeriaren aurka egiteko, Estatuak estrategiek emakumeen ekiteko ahalmena sustatu behar dute haien esperientzia eta parte hartzea oinarri hartuta, baita GKEen eta gizarte zibileko bestelako eragileen asoziazioa aintzat hartuta ere⁵⁶.
- Araudiari dagokionez, Genero-indarkeriaren aurkako 1/2004 Lege Organikoa aurrerabide historikoa izan da ikuspuntu kontzeptualetik. Horrela, esparru juridiko zabal eta sendoa ezarri da, bikotekide edo bikotekide ohiaren indarkeriaz babesteko. Hala ere, lege horrek ez ditu genero-indarkeriaren beste motak kontuan hartzen, nahiz eta Euskal Herriak koherentziaz halaxe definitu nazioarteko estandarretatik abiatuta.

56 NAZIO BATUEN IDAZKARITZA NAGUSIA [2006]. *Poner fin a la violencia contra la mujer. De las palabras los hechos*. Nazio Batuen Idazkari Nagusiaren ikerketa.



- Feminizidio/femizidio delituak legeria integral eta berezitueta sartzea (El Salvador eta Guatemalan bezala, non prozedura judizial bereziak definitzen diren), feminizidio/femizidioa sozialki eta kulturalki ulertzeko funtsezko alderdiak sartzen ditu modu positiboan, emakumeak sexua dela-eta erailtzen dituztela ikusarazteko.

5. GOMENDIOAK ETA IDEIAK ERAGIN INSTITUZIONALA DUEN LANERAKO

Kolonbian, El Salvadorren, Guatemalan, Espainian eta Euskal Herrian jasotakoaren azterketa politiko-legalaren ostean, identifikatutako oztupoek nabarmentzen dute ez dagoela sistemarik bere osotasunean bermatzen duenik emakume, neska gazte eta neska koskorren giza eskubideen babes eraginkorra. Estatuak neurriak hartu behar dituzte, gaiari buruz hartutako nazioarteko konpromisoekin bat datozenak, ezinbesteko baldintza izanik indarkeria matxistaren edozein adierazpenen aurkako borroka lehenestea. Horretarako, beharrezkoak dira, lehenik, nazioarteko estandarrekin koherenteak diren legeria-markoak bereganatzea; bigarrenik, araudia abiarazteko neurriak garatzeko politika publikoak; eta, azkenik, politika horiek osorik garatzea bermatuko dituzten aurrekontuak.

Arlo honetan aurrera egiteko honako gomendioak proposatzen ditugu:

1. Emakumeen aurkako indarkeria era guztiak kontuan hartuko dituen lege integral eta berezitueta osatutako legeria ezartzea, giza eskubideen eskualde edo nazioarte mailako sistemari dagozkien nazioarteko estandarren arabera.
2. Eskubide sexual eta erreproduktiboak legez babesteko, legez lagundu behar dira, horixe gertatzen baita indarkeria matxistaren beste motekin. Horretarako, beharrezkoa da emakume, neska gazte eta neska koskorrei osasun sexual eta erreproduktiborako zerbitzua eskaintzea ahalik eta osasun-mailarik handiena bermatzeko, beren eskubide sexual eta erreproduktiboak —hala nola, abortu eskubidea— aske baliatzen diren emakume, neska gazte zein neska koskorren kriminalizazioa ekiditeko.
3. Legeriaren, politika publikoen eta aurrekontu eskasen arteko desadostasuna legeria-neurrien bidez arindu behar da. Neurri horiek politika publiko konkretuen bidez lagundu behar dira, zeinak bideratuta dauden neurri zehatzak garatzera, prebentzioaren, ikerketaren, errudunen zigorraren eta biktimei mina osorik ordaintzearen arloan; hori guztia, gaiarekiko nazioarteko estandarrik jasotzen dituen genero, interseksionalitate eta giza eskubideen ikuspuntu batetik.
4. Emakumeentzako babes eta arreta judiziala —salaketa jartzen den unetik genero-indarkeriaren ondoriozko epaiketa osoan zehar—, genero eta giza eskubide kontuetan behar dutako operadore juridiko guztiek gauzatu behar dute. Biktimekin ezartzen den harremanaren oinarria errespetua eta beraiekiko sentsibilizazioa izan behar da, birbiktimizazioa ekiditeko.
5. Genero eta giza eskubideen ikuspuntutik moldatutako formakuntza sustatu behar da, etengabekoa, abokatutzan, polizian, fiskaltzan, botere judizialean, gizarte zerbitzuetan eta osasun arloan jarduten duten langileei zuzendua. Horren helburua, biktima, zuzenean zein zeharka, bere prozesuaren zatiren batean lagunduko duten lantalde guztien espezializazioa bermatzea da.



6. BIBLIOGRAFIA

AMNISTÍA INTERNACIONAL (2015). *Informe al Comité Sobre la Eliminación de la Discriminación contra la Mujer de las Naciones Unidas. 61º periodo de Sesiones, 2015eko uztailaren 6-24*, AI Indizea: EUR 41/1807/2015.

AMNISTÍA INTERNACIONAL-Sección española (2008): *Obstinada realidad, derechos pendientes. Tres años de la ley de protección integral contra la violencia de género*.

NAZIO BATUEN BATZAR NAGUSIA (2005): *Principios y directrices sobre el derecho de las víctimas de violaciones manifiestas de las normas internacionales de derechos humanos y de violaciones graves del derecho humanitario a interponer recursos y obtener reparaciones*, (consultado el 13 de septiembre de 2016), hemendik jasota: <http://www.ohchr.org/SP/ProfessionalInterest/Pages/RemedyAndReparation.aspx>

LATINOAMERIKARAKO ETA KARIBERAKO BATZORDE EKONOMIKOA (CEPAL) (2014). *Informe anual 2013-2014. El enfrentamiento de la violencia contra las mujeres en América Latina y el Caribe* (LC/G.2626). Santiago de Chile.

HAURREN ESKUBIDEEN BATZORDEA. 15. Oharpen Orokorra, osasun maila altuena izateko haurren eskubidearen ingurukoa (24. art.). NBE dok.: CRC/C/GC/15.

EMAKUMEEN KONTRAKO DISKRIMINAZIOA EZABATZEKO BATZORDEA. 24. Aholku Orokorra (20. saio-aldia, 1999).

47/2012. Adierazpena. 58. Saio-aldian Batzordeak onartutako Irizpena. NBEren dok.: CEDAW/C/58/D/47/2012, 2014ko uztailaren 18a.

19. Aholku Orokorra, Emakumeen Kontrako Diskriminazioa Ezabatzekeko Batzordeak hartua, 11. saio-aldia, 1992, NBEren dok. HRI\GEN\1\Rev.1 at 84 (1994).

24. Aholku Orokorra, Emakumeen Kontrako Diskriminazioa Ezabatzekeko Batzordeak hartua.

26. Aholku orokorra.

32. Aholku Orokorra, emakumeen errefuxiatu, asilo, naziotasun eta aberrigabe izaeren generoaren alderdiari buruzkoa. Dok. CEDAW/C/GC/32, 2014ko azaroaren 14a.

BOTERE JUDIZIALAREN KONTSEILU NAGUSIA (2016): "Aumentan las medidas judiciales de protección a los menores en procesos por violencia de género durante el primer trimestre del año". *Comunicado de Prensa*, 2016ko ekainaren 29a (2016ko irailaren 8an kontsultatua), hemendik jasota: <http://www.poderjudicial.es/cgpj/es/Poder-Judicial/En-Portada/Aumentan-las-medidas-judiciales-de-proteccion-a-los-menores-en-procesos-por-violencia-de-genero-durante-el-primer-trimestre-del-ano>).

Declaración sobre la eliminación de la violencia contra la mujer. Batzar Nagusiaren Ebazpena, 48/104, 1993ko abenduaren 20a; NBEren dok.: A/RES/48/104 1994ko otsailaren 23a.

Estrategias y Medidas Prácticas Modelo para la eliminación de la violencia contra la mujer en el campo de la prevención del delito y la justicia penal. NBEren dok.: A/RES/52/86, 1998ko otsailaren 2a.

EUROPEAN INSTITUTE FOR GENDER EQUALITY (2012). *Review of the Implementation of the Beijing Platform for Action in the EU Member States: Violence against Women – Victim Support*.



FUNDACIÓN PARA LA CONVIVENCIA ASPACIA (2013). *Violadas y expulsadas*. Madrid.

Informe del Relator Especial sobre la cuestión de la tortura referente a su visita a España del 5 al 10 de octubre de 2003 en el marco de su mandato. NBEren dok.: E/CN.4/2004/56/add.2.

Informe del Relator Especial sobre Tortura y otros tratos o penas crueles, inhumanos o degradantes, Manfred Nowak. NBEren dok. A/HRC/7/3, 2008ko urtarrilaren 15a.

Intensificación de los esfuerzos para eliminar las formas de violencia contra la mujer. NBEren dok.: A/RES/67/144.

KELLY, L eta DUBOIS, L (2008). *Combating violence against women: minimum standards for support services*, Council of Europe Publication, Estrasburgo.

NAZIO BATUAK. *Manual de Legislación sobre violencia contra la mujer*, New York, 2010.

Observaciones finales del CERD sobre los informes periódicos 18º-20º de España, 2011ko martxoaren 10a. NBEren dok.: CERD/C/ESP/CO/18-20

Observaciones Finales: El Salvador. Comité de los Derechos del Niño. 2010eko otsailaren 10a. NBEren dok.: CRC/C/SLV/CO/3-4.

AMERIKAKO ESTATUEN ERAKUNDEA (2012). *Segundo Informe Hemisférico sobre la Implementación de la Convención de Belém do Pará. Mecanismo de Seguimiento de la Implementación de la Convención Interamericana para Prevenir, Sancionar y Erradicar la Violencia contra la Mujer (MESECVI)*. Amerikako Estatuena Erakundea.

PLATAFORMA Informe Sombra CEDAW España, Informe Sombra 2008-2013 sobre la aplicación en España de la Convención para la Eliminación de toda forma de Discriminación contra las Mujeres (CEDAW), CEDAW-Nazio Batuak Batzordearen 61. Saioa, 2014.

RELATORA ESPECIAL SOBRE LA VIOLENCIA CONTRA LA MUJER CON INCLUSIÓN DE SUS CAUSAS Y CONSECUENCIAS:


Indicadores sobre la violencia contra la mujer y la respuesta de los Estados. NBEren dok.: A/HRC/7/6, 2008ko urtarrilaren 29a.

Informe de la Relatora Especial sobre la violencia contra la mujer, sus causas y consecuencias, Sra. Yakin Ertürk. Misión a El Salvador. NBEren dok.: E/CN.4/2005/72/Add.2. 2004ko abenduaren 20a.

SAVE THE CHILDREN eta GENERO INDARKERIRAKO GOBRNUAREN ORDEZKARITZA (2011). *Investigación sobre decisiones judiciales en materia de guarda y custodia y régimen de visitas. La violencia de género como variable de las decisiones judiciales en materia civil sobre guarda y custodia y régimen de visitas de hijos e hijas*. Conclusiones.62-64. orr.

NAZIO BATUEN IDAZKARITZA NAGUSIA (2006). *Poner fin a la violencia contra la mujer. De las palabras los hechos. Estudio del Secretario General de las Naciones Unidas*.





4. KAPITULUA

Dimentsio
kulturala



RITA LAURA SEGATO

Argentinako antropologo feminista. Belfasteko (Ipar Irlanda) Queen's Unibertsitateko Antropologia Sozialeko doktorea, Brasiliako Unibertsitateko irakaslea eta Brasilgo Ikerketa Zientifikoko Kontseilu Nazionaleko puntako ikertzailea da. Besteak beste, argitaratu ditu: *Santos Daimones. O Politeísmo afro-brasileiro e a tradição arquetipal* (Brasilia: Editorial da Universidade de Brasilia, 1995 eta 2005, 2. edizioa); *Las Estructuras Elementales de la Violencia* (Buenos Aires: Prometeo, 2003 eta 2013); *La Nación y sus Otros* (Buenos Aires: Prometeo, 2007); *La escritura en el cuerpo de las mujeres asesinadas en Ciudad Juárez* (Mexiko Hiria: Universidad del Convento de Sor Juana, 2006; eta Buenos Aires: Tinta Limón, 2013); *Las Nuevas Formas de la Guerra y el Cuerpo de las Mujeres* (Puebla: Pez en el Arbol, 2014); *L' Oedipe Noir* (Paris: Petite Bibliothèque Payot, 2014); *La Crítica de la Colonialidad en Ocho Ensayos y una Antropología por demanda* (Buenos Aires: Prometeo, 2015) eta *La Guerra contra las Mujeres* (Madril: Traficantes de Sueños, 2016). Brasilen, ikasle beltz eta indigenak goi-mailako ikasketetan sartzea bermatzeko diskriminazio positiboko lehen proposamenaren (1999) egileetako bat da. Halaber, Brasilgo eskualde guztietako beste 41 emakume indigenarekin batera, Brasilgo estatuaren aurrean emakume indigenentzako diskriminazio positiboko eta politika publikoetako lehenengo proposamena eratzten parte hartu zuen.



NAZIOA SALBATZEA

Luciaren argazkia ikusten dut, ikusten dut... Eta bat-batean, esnatzean, gaur, gertatzen denaz jabetzen naiz: argazkia bera emakumetasunaren irudi zehatza da. Kasualitatea izango al da izaera hori bera suntsitzen saiatu izana? Zer nolako inbidia ankerrak mugitzen ditu gizonak, emakume baten bizitasuna ez jasateraino? Hamarkada bat baino gehiago daramat ideia honi aurre egiten saiatzen: emakume bati sexualki eraso egiten zaionean, iruditeria arkaikoaren arabera, ukitzen dituen pertsonengatik, haren aita eta nebei ere eraso egiten zaie, familia osoari, senideei, komunitateari eta, azkenik, gizarteari eta Estatuari, zeintzuek emakumea babesteko ardura izan beharko luketen.

Emakume bati eraso egitea Nazioari eraso egitea da. Hortaz, guri dagokigu (emakumeoi)

nazioa salbatzea¹

[Segato 2016 a]

1. SARRERA

Ikerketaren oinarri izan diren kasuei heltzeko, bi bide posible ikusi nituen. Lehenengo bidea sailkapen zorrotza egitean zetzan; hain zuzen, sortuta edo sortzeke dauden kategorien bidez, sakonago definitutako genero-indarkeria moten araberrako sailkapena. Kategoria horien bidez bizitza-istorioen berri ematea da asmoa, emakume horietako bakoitza biktimizatu duten indarkeriei lotutako eskubideak zerrendatzeko; hain zuzen, elkarrizketatzaileen aurretiko analisisan kontuan hartutako eskubideak zein aipatu gabekoak. Lehenengo bide hau hartuta arriskua nuen etengabe ibilitako bideak berriz ere ibiltzeko, nahiz eta ikerketako kasuetan izendatu edo azaldu gabeko indarkeria mota batzuk seinatu nitzakeen, eta, hartara, oraindik esleitu gabe edo izendatzeke dauden eskubideak adierazi ere.

Bigarren bide posiblea irakurketa bat egitea zen, eta abiapuntutzat hartzea nire aurretiko hausnarketa teorikoak, eta genero-indarkeriaren arloan ikertzaile jardunean definitu ditudan interpretazio-gakoak. Horrela, proiektu honetan topatu ditudan kasuen bidez, hausnarketa hori zabaltzeko ahalik nuke. Hortaz, bigarren bidea hautatu nuen, bide kontzeptuala alegia, baina ezinbestekoa irizten nuen ekarpen bat egiteko aprobe txatu nuen ere: indarkeria mota batzuk labur gehitu nituen; hain zuzen, elkarrizketatzaileek egindako aurretiko analisisan edo kasuen hautaketan agertzen ez direnak. Landu eta proposatu ditudan kategoriak, feminismoaren alorrean, analitikoagoak dira juridiko eta arau-emaileak baino. Hala ere, etengabeko ahalegin kontzeptualik egin ezean, arauak zurrundu eta aktibismoa zirkuluetan sartzen da, behin eta berriz errepikatuz, aurrera egin gabe.

Era berean, nabarmendu nahiko nuke analisi honek ezingo duela inoiz ordezkatu elkarrizketei darian "indarkeria espiralaren" esperientzien konplexutasuna eta intentsitatea. Hala ere, ahalegin handia egin dut emakumeek kontaktzen dutena txostenaren amaierako testura ekartzeko, eta horretarako saiatu naiz traizio ez egiten bizitza-istorio hauen minaren bizi-pen, min eta garaipenei.

¹ Lucia Perez 16 urteko gaztea tortura sexuala gauzatu ondoren hil zuten Mar del Platan, Argentinan, 2016ko urrian.



2. GENERO HARREMANEN ALDERDI UNIBERTSALA ETA PARTIKULARRA

Aztertutako kasuek gogora ekartzen digute generoaren teorian ezaguna den auzi bat: kontrastea, emakumeen mendekotasunari buruzko alderdi unibertsalen eta testuinguru historiko eta geopolitiko jakinen artean.

Eztabaida honek desadostasun garrantzitsuak sortu ditu feminismo “zuri” edo “eurozentrikoen” eta feminismo “ez-zurien” artean; azken horietan eztabaida gorabeheratsua eragin du. Lehenbiziko disidentzian, jarrera *unibertsalista* gisa defini ditzakegun emakume-mugimenduak banatzen dituzte, emakumeen mendekotasuna mundu mailan gertatzen dela esaten dutelako. “Ez dago emakumeak gizonak bezain ondo tratatzen dituen gizarterik”, NB-GPek 1997an Giza Garapenaz egindako Txostenaren arabera. Hori esatean, ez da ari gizon biolentoak dituzten familien anormaltasunaz edo salbuespen izaeraz; aitzitik, errutinaz ari da, ohiturez, moralaz, normaltasunaz, gizarte anitzenetan ere patriarkatua inposatzen eta erreproduzitzen duten indarkeria motei buruz. Hori esatean, hain zuzen, jarrera maskulino eta femeninoen —generikoki gizon eta emakume figuren bidez irudikatuak— arteko prestigio eta botere ezberdintasunaz ari da NBGP.

Feminismo unibertsalistentzat genero-egitura desorekatua arau unibertsala izango litza-teke, nahiz eta paradoxikoki, guztiz ados dauden genero-desoreka historikotzat —eta ez biologikotzat— jotzean. Feminismo unibertsalisten bigarren ezaugarria ikuspegi eboluzionista da. Hau da, feminismo unibertsalisten sinesmen moderno eta desarrollistak —komunitate-antolakuntza duten gizarteekiko aurreiritzi negatiboa, eta hiri-antolakuntza duten gizarteekiko aurreiritzi positiboa— dakar estatu eta administrazio izaera duten politika eta programa publiko desarrollisten alde nabarmen egitea. Hortaz, ikuspegi hau “aurrerabide” ideia baten atzetik doa, “aurrerabide” hori neurtzen delarik mundu osoko herriak demokrazia sendoen hiritar-ereduetara hurbiltzen diren neurriaren arabera. Demokrazia eredu horiek bat datoz metropoli kolonial eta inperialekin: Ameriketako Estatu Batuen eta itsasoaz bestaldeko koloniak eduki zituzten Europako nazioen ereduekin, alegia. Hain zuzen, faktore hori nabarmendu dute feminismo ez-zuriek; Chandra Mohanty (1994) aitzindaria izan zen adierazi zituenean, jada klasiko bihurtu den testu batean, “emakume” deitzen dugun gizarte-kategoria unibertsalizatzearen atzean ezkutatzen diren falazia teorikoak eta azpijoko politiko eta ideologikoak, mendebaldeko ikertzaileek egindakoak (feministak eta akademiakoak).

Berriki, ikuspuntu feminista de-kolonialak ere feminismo eurozentrikoen ikuspuntua kritikatzeko du; feminismo eurozentrikoek herrialde garatuetakoko emakume-mugimenduen proposamen, helburu eta balioak unibertsalizatzen dituzte, kontuan hartu gabe abiapuntu dituztela genero-harremanen mendebaldeko esperientzian oinarritzen diren definizioak. Hortaz, gai hau, berez, duela gutxiko eztabaida batetik abiatzen da, eta kokatu dezagun, komeni da pentsamendu feministaren barruan hiru jarrera identifikatzea. Batetik, aipatutako feminismo eurozentrikoa, zeinaren arabera genero-mendekotasunaren eta patriarkatuaren arazoa unibertsala den, inolako ezberdintasunik egin gabe, eta horren batasun-ikurraren azpian justifikatuz eskubideen arloko aurrerabide modernoak transmititzeko aukera emakume ez-txuri, indigena eta beltzei. Horrela, emakume europarrak nagusitasun moraleko lekuan kokatzea sustatzen du jarrera horrek, eta baimena ematen die esku hartzeko beren misio zibilizatzaile-kolonial modernizatzailearen bidez. Jarrera hau a-historikoa eta anti-historikoa da aldi berean, historia ukatzen duelako, nabarmenduz patriarkatuaren den-



bora-kristal oso mantsoa, ia gelditua; eta batez ere, genero-harremanen historian denbora kolonial modernoak txertatutako tortsio erradikala hertsatzen du.

Bigarren jarrera bat, beste muturrean dagoena, Maria Lugones (2007) eta Oyeronke Oyewumi (1997) autoreen jarrera da; haien arabera, mundu pre-kolonialean ez zen generorik existitzen.

Azkenik, ordezkatzen nauen hirugarren jarrera batek adierazten du gizarte tribal eta afro-amerikarretan genero nomenklatura bat zegoela zalantzarik gabe, froga historiko eta kontakizun etnografiko askoren bidez babestuta. Hirugarren jarrera honek antolaera patriarkala identifikatzen du gizarte indigena eta afro-amerikarretan; hala ere, antolaera hori gizarte mendebaldar modernoarekiko ezberdina da, eta intentsitate baxuko patriarkatua dela esan genezake, zeinak ez duen uste eraginkorra eta aproposa denik feminismo eurozentrikoen lidergoa. Talde honetan sar ditzakegu Chiapaseko prozesuari lotutako pentsalari feministak. Chiapaseko prozesua egoera paradigmaticoa izan zen; emakumeak, aldi berean, herri indigenen borrokan eta emakumeentzako baldintza hobeen aldeko barne-borrokan sartzeak sortu zituen tentsioak ebazteko egoera, alegia (ikus, adibidez, Gutierrez eta Palomo 1999; Hernandez Castillo 2003; eta Hernandez eta Sierra 2005). Halaber, jarrera honen barruan kokatzen ditugu feminismo komunitarioko pentsalari feministak, Julieta Paredes esaterako (2010).

Bestela esanda, Maria Lugonesek boterearen kolonialtasunaren ikuspegia hartuta, eta material historiko zein etnografikoetatik abiatuta, patriarkatua asmakizun koloniala dela uste du, eta ez zela garai hori baino lehenago existitzen. Nik neuk marko teoriko bera erabiltzen dut, baina adierazten dut eredu kolonialaren berezko genero-harremanek lehenagoko forma patriarkalak harrapatu dituztela eta patriarkatu-eredu askoz hilgarriago eta feminizidago batean bihurtu dituztela: patriarkatu modernoa. Izan ere, lehenago patriarkatu-formak existitu arren eta hierarkikoak izan arren, ez zioten patriarkatu kolonialaren egitura berari obeditzen. Azkenik, uste dut azken kasu honetan ez garela hierarkia dualaz ari, baizik eta hierarkia binarioaz. Izan ere, batetik, dualismoa erabiltzen dut “landa-munduari” lotutako genero-harremanez hitz egiteko, hau da, mundu pre-kolonialaz hitz egiteko; eta bestalde, eredu binarioa eta binarismoa erabiltzen ditut ordena modernoaz hitz egiteko (Segato 2015 a).

Nik neuk ikusi nuen nola okertu zen emakumeen egoera Argentinako Andeetako udalerrri batean, Boliviako Potosi probintziarekin muga, 1966 eta 2016 urteen arteko mende erdian. Halaber, ikusi nuen nola areagotu zen Brasilgo herri indigenetan genero-indarkeria mota askoren eragina eta larritasuna. “Estatu-enpresa-hedabide-kristau frontea” izendatu zuena hedatzen joan zen Brasilen, eta “landa-mundua” modernizatu zuen; hau da, aipatutako “fronteak” antolaera komunitarioa —kaltetuta eta porotsua izan arren— mantentzen zuten herrien gizarte-sarean esku hartu eta hautsi egin zuen (Segato 2015 b).

Oraindik ere martxan dagoen konkista eta kolonizazioa larriagotu egin da, eta hala egin du ere estatuek zein enpresek herrien lurraldeak atzemateko prozesuak (Segato 2016). Horrek munduaren arrazializazio-korrelatua zabaltzea ekarri du, baita kapitalismoa abiarazi eta etengabe hedatzen duen metaketa primitiboko mineral erauzketa ere, eta beti arrazializatzen diren “garapen”, “aurrerapen” eta “modernitate” kontzeptuak sortzen dituzten balioak ezartzea. Hala ere, hori guztia gorabehera, aintzat hartu behar dugu nahitaez emakumeen mendekotasunak —hau da, patriarkatuak— daukan hedapen geografikoa eta sakontasun historiko izugarria. Ebidentzia horri esker hauteman dezakegu generoa dela



gure espeziean boterea sortzen duen oinarrizko forma edo ezaugarri historikoa; hortaz, indarkeria oren jatorria ere bada generoa, boterea desjabetze bortitzaren ondorioa delako. Horregatik hain zuzen, historia berriz ere zuzentzeko edozein prozesu abiatzeko, egitura zaharkitu hori — *gizadiaren pre-historia patriarkala* deitu dudana (Segato 2003)— desmuntatzea izango da baldintza.

Nire baieztapenari eusteko badago dispertsio planetarioko formula mitiko bat, une historiko bat azaltzen duena (historikoa ez balitz, gaur egun arte ez litzateke kontakizun itxuran mantenduko), non emakumea garaitzen, menderatzen eta zigortzen den, hau da, non mendekotasunezko eta obedientziatzko posizioan kokatzen den. Ez soilik Genesiaren kontakizun biblikoan; zenbait herriren jatorrizko mito askotan ere ezagutu daitekeen istorio berdina kontatzen dute. Adan eta Ebaren kasuan sagarra jateak beren paradisuatik botatzen ditu, non mugarik gabeko plazeraz eta haien arteko intzestu-harremanaz gozatzen zuten, eta beren zigorra... ezkontzea izan zen. Kontinente guztietako lurraldeetan daude antzeko mitoak: Xerente, Ona, Baruya, Masai... Horien artean, ez dugu ahaztu behar Lacanen adierazpena, gizonak “daukan” emakume-falo bati buruzkoa, hemen mito gisa ulertuta. Mito horiek sorrera-gertakari bat kontatzen digute, goiztiarra, orokorra delako (Segato *ibidem*). Mito horiek kontatzen diguten sorrera-gertakaria izan zitekeen gizateriarantz doan trantsizioari buruz, gizadia artean bakar bat zeneko unea, leinu eta herrietan sakabanatu baino lehengoko unea, arren nagusitasun fisikoa nagusitasun politiko bihurtzen zeneko garaia, edo natura-programa batetik zibilizazio-programa historiko bateranzko trantsizio luzea. Denboraren sakontasunak sintesi mitiko bihurtu du kontakizun historikoa izan zitekeena.

Bestalde, posible da bost genero-unibertsal identifikatzea. Horien bidez gezurtatuko dugu, batetik, erlatibismo antropologikoa, eta bestetik, autore dekolonial batzuen ideia, zeinaren arabera konkista- eta kolonizazio-prozesuen aurretik Amerika eta Afrikako herri tribaletan ez zegoen patriarkaturik. Bost genero-unibertsalak honakoak dira: “vagina dentata”ren mitoa; maitasun erromantikoaren lirika (nahiz eta pasiozko kontakizunen funtzio soziala aldatzen den zibilizazioaren arabera, baita mendebaldeko historiaren baitan ere. Ikus Pimienta Lobato: 2012); bortxaketaren esperientzia ezagutzea; froga prozesu baten bidez gizon-estatusa lortzea; eta gorago aipatu dudan jatorrizko matriarkatuaren kontakizun mitikoa.

Orain arte esandakoa esanguratsua da; izan ere, proiektu honetarako Europako indarkeria kasuak aztertu ditugu —Espainiako Estatu eta Euskal Herria—, eta horiek, aldi berean, bitan banatu ditzakegu: batetik, estatu nagusi eta burujabea (Espainiako Estatu), eta bestetik, Espainiako Estatuaren barruan kokatzen den herrialdea, bertako lurraldearen autonomia, “burujabetza” deitzen dutena, lortzeko borrokan ari den sektore nabarmen bat kontrolatzeko salbuespen-legea duena. Alde batetik, aztertutako kasuetan eragina izan du Europar izaerak; halaber, salbuespen legeen bidez kontrolatzen den estaturik gabeko nazio batekoa izateak ere eragina izan du emakume euskaldunen bizitzetan, eta aztertutako genero-indarkeria kasu batek bederen frogatu dezake hori (23. B-I). Bestalde, Latinoamerikako kasuak genozidio, konkista eta kolonizazio bidezko historiaren ondorioa dira, eta mundua nazio garaile eta garaituen artean banatu duen geopolitikaren emaitza. Hala ere, kasu guztietan igarri daiteke genero-eredu patriarkala.

Ikuspuntu honetatik abiatuta, aipatutako kasuak hobeto aztertzeko gako batzuk kontuan har ditzakegu; izan ere, ikuspuntu honek harreman desorekatu globalizat du generoa, baina era berean, historiak eta geopolitikak markatutako eszenatokien bidez aztertzen du.



3. KOMUNITATEA, KOLONIALTASUNA ETA TRANTSIZIOAK

Ikerketako biktima gehienen jatorrizko ingurune soziala *trantsiziozkoa* dela esan genezake; antolaera komunitarioa duen landako bizimodutik hiriko bizimodurantz aldatzen ari diren ingurune adierazgarriak dira. Landa-eremuan esku hartzeko moduek sortutako prozesuen bidez, kontrol sozialeko forma zaharrak suntsitzen dira. Prozesu horiek, batzuetan, kapitalismoa eta modernizazioa bortxaz sartzearekin abiatu dira, eta beste batzuetan, Latinoamerikan, “gerraren forma berriak” deitu dudanaren bidez. “Trantsiziozko” izaera horrek erreferentzia egiten dio araurik gabeko linbo bati, balio kolektibista eta komunitarioetan oinarritzen diren gizarte-antolaera moduak iraungitzeari, eta pertsonen eskubide modernoek idearioak lege eta balio propioak indarrean ez izateari. Zentzu horretan, genero-harremannen arloan bi erakunde-ereduren artean gelditu den historia datorkigu gogora; estatusak agintzen duen mundutik, kontratuak agintzen duen mundurantz erdibidean gelditu izan balitz bezala; nolabait, genero-harremanek polo batetik bestera jauzi ezin izango balute bezala, *trantsizio* egoerak berak indarkeria areagotuz.

Bi kontinenteko bost herrialdeetako kasuen trantsizio ingurunea ulertze aldera, gogoratu behar dugu “Espainia” deitzen dugunak eta “Hispanoamerikak” aldi berean hasi zutela beren ibilbide historikoa eta sorrera, hain zuzen 1492an bukatu zelako espainiar lurraldearen *konkista*. Anibal Quijanoren arabera, “‘Errekonkista’ kontzeptua guztiz mitikoa da. Kontzeptu horrek berekin dakar ‘Espainia’ kategoria historikoa K.o. VIII. mendea baino lehen existitzen zelako ideia, eta horrek, jakina, ez du inolako zentzurik. Arabiarrek okupatu eta menderatu zutena erromatarren ondorengo herriak dira.” (Quijano 1992). Horrela, bidea irekitzen da espainiar lurraldea pixkanaka barne-kolonizatzeke. Gaur egun arte garatu da barne-kolonizazio hori, eta *kolonialtasunak* jarraitzen du, herriekiko eta lurralde barneko eskualdeekiko arrazakeria anitzek frogatzen duten moduan. Modu esanguratsuan, gaur egun Espainia denak 1492an hasitako Hispanoamerikaren konkista bizkorrarekin jarraitzen du. Horrela, itsasoaz bestaldeko kolonizazio prozesua abiatzen da; geroago, estatu errepublikano kreoleei eman zieten agintea, zeintzuek ez duten inoiz galdu izaera kolonialari berezkoa zaion kanpokotasuna, orain beren mende dauden herri eta lurraldeekiko. Hortaz, posible da esatea unibertso espainiarrak eta hispanoamerikarrak kolonialtasun irakunkorraren bidez markatutako trantsizio-ereduak dituztela.

Fronte kolonizatzailea edo *estatu-enpresa frontea* hedatzearekin batera, suntsitzen doaz harreman komunitarioak, zeintzuek arreta jartzen duten ordain, elkarrekikotasun eta elkarrekiko betebeharrei jarraikortasuna ematean. Halaber, bizimodu komunitarioa eta kolektiboa suntsitzen da, haren lekua indibidualismoak hartzen du, eta familia nuklearrak ordezkutzen ditu familia-unitate zabalak. Bizitza eta subjektibotasunak antolatzeke eredu kolonial-modernoek lurralde berriak kolonizatzeak trantsizioa sortzen du. Eta gure uste modernoek aurka, trantsizio horretan gertatzen da emakumeen egoeraren gainbehera handia. Izan ere, inguru komunitarioan genero-aliantzazko harremanak mantentzen zituzten —eta oraindik mantentzen dituzte, edonon dela ere bizirik dirautelako, kaltetuta egon arren—, oinarri zutenak familia, erritu edo aisialdi jarduera partekatuak, edo etxeko espazioei eta emakumeen bizitzei berezko politikotasuna ematen zieten eginkizunak.

Familia-eredua nuklear bihurtzean, eta bizitza komunitarioan ohikoa den *emakumeen munduan* sortutako aliantza haustean, emakumeen zaurgarritasuna areagotzen hasi zen etenik gabe, gaur arte (Segato 2015 a eta b, eta Segato 2016 b eta c). Bizitzaren antolaera mo-



dernoarekiko aurreiritzi positiboak, eta antolaera komunitarioa, prekoloniala eta pre-modernoarekiko aurreiritzi negatiboak, itsutasuna sortzen du. Ondorioz, ezin dugu argi ikusi gizarte komunitarioak eta haiei lotutako balio kolektibistak suntsitzean galdutakoa, beren akatsak amorruez ikustera ohituta gaudelako. Hala ere, argudiatzen saiatzen naizen bezala, penintsulako zein Iberoamerikako lurralde eta herrien aurrerabidearen alderdirik txarrena aztertutako kasuen trantsiziozko egoera da. Kasu horietan, esan bezala, lehenagoko arauak suntsitu dituzte, baina ez dute lekurik utzi zuzenbide modernoaren erregimenak genero-harremanak arautu ditzan.

Espainiako 28. eta 12. B-I, landa eremutik hirirako trantsizioan, eraldaketa horren adibidea dira. 28. B-I bere lurretik bota zuten frankismo garaian zentral hidroelektriko bat eraikitzeko proiektuaren ondorioz: *“Lehen, etxeetan 3 belaunaldi bizi ziren elkarrekin, seme-alabak eta ilobak, horixe zen lehengo bizimodua, etxe bakoitzean, gutxienez, 6 edo 7 pertsona”, baina “bizi nahi nuen lekuan bizitzea debekatu zidaten”*. Eta horregatik, *“ez dakit nola bukatuko dudan, baina hil baino lehen, urte batzuek Janovasen bizitzea gustatuko litzaidake. Hori litzateke nire desira, eta gehien nahiko nukeena. Beste gauza asko ere nahiko nituzke, noski, herria jendez lepo ikusi nahiko nuke, nire garaiko jendeaz beteta, baina hori berriz gertatzea zailagoa izango da, duela 60 urte baino gehiago joan ginelako herritik”*.

12. B-Ik, deserrotua, industrialia eta kapitalista bihurtu den nekazaritza ereduko jornalari bihurtuak, honakoa dio oraingo munduaz; zehazki, emakumeen bizitza eta heriotzaren bilakaeraz: *“Egunero hiltzen dute emakume bat, eta zenbaitetan bi ere[...] (Legeek) ez dute ezer egiten, ezer ere ez, lapurtu baino ez dute egiten, eta ez dute legerik jartzen, zera... Hori egin ez dezaten; zeren gorriak ikusi ditugu, oso gaizki pasa dugu, baina senarrek ez dituzte inoiz emazteak hil [...] Lehen ez ziren emazteak hiltzen, [...] Lehen bazeuden mozkorrak, baina mozkor batek ez zuen bere emaztea hiltzen, mozkor heltzen zen eta agian jo egiten zuen, baina ez zen hiltzera iristen, ez da inoiz entzun senarrek emazteak hiltzen zituztenik, eta orain eguneroko kontua da [...] Zenbat emakumeri gertatu zaie autobus geltokian egotea, begira Alcaudeten gertatutakoa, autoarekin harrapatu zuen eta ez zuen nahikoa izan horrekin, buelta eman eta berriro harrapatu zuen, ba al dago eskubiderik?”*.

Horri guztiari *trantsizioa* gehitu behar diogu; gizarte komunitarioetatik —loturetan oinarritua— merkatu-gizarteetaranzko —metaketa kapitalistan oinarritua— *trantsizioa*, alegia. Prozesu hori mafioso eta ustela dela ikusi da. Hala ikusi da AEBetara joandako Italiako etorkinekin, Italia hegoaldeko landa-eremuko jauntxo mafiosoen eta Ipar Amerikako kapitalismo puruaren arteko konbergentziarekin. Estatus-ordenari berez dagozkien senide eta aliantzak, orduan, ordena modernoaren barruan jarduten hasten dira, eta trantsizio antolakunde baten oinarria ezartzen dute; testuinguru horretan sortzen dira mafiak eta pandillak, Latinoamerikako herrialde batzuetan gertatu den moduan; hala nola, Mexikon, Guatemalan, Hondurasen eta El Salvadorren. Egoera hau “gerraren forma berriak” izenez deskribatu dut, eta egoera horretan muturreraino areagotzen da emakumeen zaugarritasuna.

Hala ikusi dugu 1. B-In, El Salvadorren: desegindako trantsizio-mundu batean, non familiak eta komunitateak anomikoak diren lege komunitarioa eta modernoa indarrean ez egoteagatik, 1. B-I familia bortitz batetik dator, errespetuzko barne-araurik gabekoa; ondorioz, ahulagoa bihurtzen da etxeko lanen familia-laneko mundu anbiguoan.

5. B-I, El Salvadorren ere, emakumeen zaugarritasuna larriagotzen dela ikus dezakegu.



Izan ere, giroa desegituratzen dute nekazaritza komunitarioaren eredu desegituratuak, elkarrekikotasunak eta elkar laguntzak markatuak; amak abandonatzeak; ahizpak eragiten dion esplotazio ekonomikoak; eta ondorioz, “bikotekidea izateko” duen beharrak. Behar hori kaltegarria bihurtuko da, 5. azpiatalean azalduko dudanez, senar-emazteen jarrera biolentoa areagotzen duen gatazka testuinguruaren ondorioz.

24. B-Ik, El Salvadorrekoa hau ere, 30 urteko espetxe zigorra izan zuen berezko abortua izateagatik. Hala ere, kaltetua gertatu zen, bere amak irtenbide komunitario bat proposatzen duelako eta jaiogabea bere kabuz ehorzten duelako. Ondorioz, krimena ezkutatzeko saiakera izan delako susmoa areagotzen da estatuaren aurrean. Kasu honetan, berriz ere, senideen arauen eta estatuak arau horiek interpretatzeko moduaren arteko trantsizio-talka topatzen dugu.

Lehenago argudiatu bezala, ez dugu espainiar lurraldea baztertu behar kolonialtasunak egituratutako ereditutik. Estatu-enpresa frontea zenbait nekazal eskualdeetara zabaltzean 12. B-I bezalako errealtateak sortzen dira; landako modernizazioaren biktima den Andaluziako emakumearen errealtatea, hain zuzen. Emakumearen egoera enpresa-arrazionaltasuneko erregimen batean kokatzen da, zeina lurjabeen oligarkiak agindutako erregimen arkaiokoaren eraldaketa den:

“Andaluziako herritar gehienak, 70.eko urteetan, gero eta eskasagoa zen nekazaritza lanaren menpe zeuden, eta bestelako diru-sarrerak bilatzera behartuta zeuden lanik gabeko garai luzeetarako; hala nola bilketa (esparragoak, barraskiloak, usain-belarrak, uztaren hondarra, itsaskiak, saskiak egiteko zumea), ezkutuko ehiza eta arrantza. Jarduera horiek Andaluziako landako herritarren tradizioaren parte dira, baina denborarekin legez kanpoko izendatu zituzten. Gainera, bizimodua aurrera ateratzeko merkataritzaren printzipioak inposatu ziren, auto-hornikuntzaren printzipioen gainetik.

12. B-Ik erakusten du *landa-eremuaren modernizazioaren ondoriozko indarkeria ekonomikoak* emakumeen bizitzan duen eragina eta desjabetze progresiboa, lurraldetik eta komunitatetik deserrotzea dakarrena. Protagonistak jornalari-kontratu laburren bidez uzta askotan lan egin zuen, merkatu nazionalerako, europarrerako, eta baita globalerako ere. Honi gehitu behar diogu landako mekanizazio progresiboa, eta ondorioz langileak baztertea.

Aztertutako gizarte guztien trantsiziozko izaera —europarrak barne, Espainiako Estatu eta Euskal Herria— egiaztatu daiteke, esan bezala, baita Janovaseko (Huesca) 28. B-Iren bidez ere. 28. eta 12. B-Ik biktimizatu egin zituzten *landa-eremuaren modernizazioaren ondoriozko indarkeria ekonomiko*agatik. Kasu horri egokitu ahal zaio Danelly Estupiñan Valentiak 2016an zehaztasun handiz esandakoa, talde etnikoen feminizidiei buruzko Nazioarteko Foroan, Kolonbiako Pazifikoko kostaldean, Buenaventuran: “garapenak hiltzen gaitu, garapenaren biktimak gara”. Garapena eta kolonialtasuna lotura duten bi proiektu dira, garapena betidanik izan delako proiektu kolonizatzaile ororen alderdi ideologikoa. Hori hala da emakume espainiarrentzat ere, bizitza ekonomiko duina izateko duten eskubidea galtzen baitute “garapenaren” ondorioz. 28. B-I bere lurren eta ahuntzen jabe izatetik etxeko langile izatera pasatzen da, bere familiak landutako lursail txikia bortizki desjabetzeagatik Iberdue-rok —orain Endesa— urtegi bat eraiki zezan.

Halaber, oso interesgarriak dira kasu honetako bi informazio, bat datozelako baieztatzean joera orokor bera ematen dela Latinoamerikan ere, landako ekonomiatik baliabideen usiatze kapitalistarako trantsizio egoeran. Lehenengo informazioa da *“oinordeko gizonak” izan*



zirela “kontzesiodunarekin baldintzak adostu edo hitzarmenak egin zituztenak”; izan ere, ohikoa da trantsizio prozesuetan emakumeek, 28. B-In bezala, lurralde- eta komunitate-errotzea irudikatzea, eta horixe da kapitalaren proiektu historikoaren oztopo nagusia. Ohikoa da ere emakumeak izatea desjabetzeen eta desplazamenduen aurka borrokatzen direnak, kolektibotasunaren eta lurrarekiko harremanaren berezko formak suntsitzen dituzten proiektuen aurka: “*Bi familia umilenak ziren gureak [...] gure sustraiak moztu behar genituen, gure etxea, nahiz eta hemen bizi eta ondo egon, eta ematen zigutenaren truke ezin dugu inon besterik erosi, eta beste familiek ez zuten arazo hori izan*”.

Halaber, kasu honek bigarren informazio oso interesgarri eta garrantzitsua eskaintzen digu trantsizio prozesua ulertzeko. Izan ere, 28. B-I kontatzen du bi familia umilenean lurraldea ez abandonatzeko erabakia emakume eta gizonen artean hartu zela, eta erresistitu zutela nahiz eta “*etxea eta herria abandonatu genitzan etengabe jazarri gintuzten*”. Aldi berean, esaten digute, nahiz eta emakumeek ez zuten parte hartu enpresarekin egindako negoziaketetan eta ez zituzten desjabetze baldintzak sinatu, “*egoera hori nabarmenagoa da baliabide gehiago dituzten familietan*”, familia aberatsetan “*beti senarraren menpe dauden emakumeei egokitu-tako rola*” areagotzen delako. Datu hori gure aurreiritzien aurkakoa da; izan ere, aurreiritzi horren arabera uste dugu txirotasun material handiagoak genero-baldintzak okerragoak ekarriko dituela. Janovaseko kasuan, 28. B-I uste hori gezurtatzen du. Pentsamendu hori lotuta dago landako familien balio komunitarioekiko dauzkagun aurreiritzi negatiboekin, eta familia dirudunekiko eta modernitatearen bidean —beti kontsumoari lotuta— erraztasun handiagoaz sartzten diren familiekiko aurreiritzi positiboekin.

“*Dirudunen etxeetan emakumeek are gutxiago eman zezaketen beren iritzia, etxe umiletan gehiago konpartitu zezaketen. Emakumeak etxeetara sartzten ziren (dirudunen etxeetara) baldintza horrekin, norbaiten emaztea ziren, kasu honetan etxeko oinordekoaren emazteak, eta hortaz erabakitzeke orduan [...] ez zuten botererik. Horrek arreta deitu dit, alegia, desjabetze kontratuetan emakumeek ez zeukatela ahotsik, etxeko gizonaren eta enpresako ingeniariaren artean negoziatzen zen zerbait zela. Desjabetze kontratuetan begiratu gero, soilik alargun diren emakumeak ageri dira; zenbaitetan emakumeak titularrak izanda ere, gizonak ageri dira kontratuan [...] Ezin zuten esan hori beren lekua zenik ere, defendatu eta aldarrikatu nahi zutenik, gerta liteke gizonak eta emakumeak ezberdin pentsatzea eta emakumeak enpresaren aurrean bere iritzia ezin adieraztea negoziaketa bileretan. Gure familiaren kasuan, aita zein ama ados jarri ziren eta geratzea erabaki zuten, ez joateko borrokatu ziren, nahiz eta enpresak bi familiei hamaika maltzurkeria egin.*”

4. ERAKUNDEEN EZINBESTEKO TRAZIOA ETA EMAKUMEEN KEXARI ENTZUNGOR EGITEA: KONTRATUA ETA ESTATUSA HARREMAN GENEALOGIKO GISA – ESTATUAREN ADN PATRIARKALA

Trantsizio-gizarteak sortzen dira *estatusak antolatutako mundua* —non senideen aliantza eta betebeharrak agintzen duten— kontratuzko ordena baterantz —banako eta pertsona juridikoen eskubideak definitzen dituzten legeetan oinarrituta— aldatzen denean. Carole Pateman autoreak ekarpen izugarria egin du generoaren arloan estatusak eta kontratuak duten lotura aztertzen. Argudiaketa mitiko zein logiko batean, Pateman ez dago ados Freud, Lévi-Strauss eta Lacanekin, ez duelako uste aitaren erailketa (parrizidioa) denik gizarte-bizitza eta berdinen —anai-arrebak, primate taldeko emeak haien artean partekatuko dituztenak— arteko kontratu-erregimena sortzen dituen ekintza biolentoa. Patemanen ustez lege



ikusezin bat dago parrizidioa ezartzen duen legearen gaineratik: ar-aita-patriarka primitiboari taldeko eme guztiak eskuratzea ahalbidetzen dion legea. Lehenbiziko lege hori da estatusaren legea: genero ezberdintasunak zuzentzen dituen legea, alegia.

Parrizidioak hasiera ematen dio gizonen arteko eskubideen elkarrekiko aitortzari. Hala, bortxaketaren edo emakumez bortxaz jabetzearen ostekoa da, bortxaketak markatzen baitu estatus sistemaren ezarpena. Egian esan, Patemanentzat, bortxaketak —eta ez aitaren erailketak, zeinak intzestua ezabatu eta debekatzen duen legea sustatzen duen— sortzen du lehenengo legea, ordena sozialaren oinarria.

Horren arabera, generoen estatus-desorekaren legea lehenagokoa da parrizidioaren ondoriozko gizonen arteko kontratua baino: estatus bidezko arautzea lehenago ematen da kontratu bidezko arautzea baino. Hala ere, estatus-sistema aktibo mantentzen da kontratu-sistemaren barruan. Izan ere, gizonen arteko kontratua ezartzearekin batera, emakumeak gizon sinatzaileen artean banatzen dira eta haien menpe geratzen dira. Modernotasun osoarekin batera, emakumea kontratu-sistemaren parte izatera pasatzen da, eta Patemanen iritziz, generoak berezko duen estatus-sistemak hor jarraitzen du, kontratuaren formaltasunaren atzean; estatus-sistema hori ez da inoiz desagertzen, eta genero-harremani dagokionez, ezingo da inoiz guztiz indarrean egon.

Egiaz, soilik kontratu bidezko gizartean dago babestuta emakumea; hain zuzen gizonak eskubidedun subjektu diren heinean haien arteko harremanak zuzentzen dituen lege berdinen bidez. Hala ere, Patemanek dio genero-egiturak ez duela inoiz kontratu-izaera osoa hartzen, eta bere izaera iraunkorra estatus izaera dela. Horri esker ulertu dezakegu zergatik azaleratzen den behin eta berriro genero-hierarkiak berezko duen estatus-erregimena, nahiz eta testuingurua modernoa eta ustez kontratu bidezkoa den.

Eredu horrek erakusten du *trantsiziozkoa* deitu nuen prozesuaren egitura, eta berretsi egiten du daukan *izaera unibertuala*, gizateria osoaren historiari eragiten diolako. Aitzitik, aurreko azpiatalean argudiatu bezala, aztertutako kasuen jatorrizko bost gizarteak trantsizio historiko nabarmenean daude. Erdibidean daude, batetik estatusaren oinarritutako ordena komunitarioko bizimodua dagoela, eta bestetik ordena modernoa eta dagokion kontratu-legeak daudela. Horregatik interesgarria da honako prozesu hau: estatu-eremu publikoko erregimen bilakatzea erregimen komunaleko gizarte-antolaera. Eta hain zuzen, trantsizio horretan sortzen da eremu publiko modernoa, hemen *estatu-eremu publiko* izendatua; hau da, Estatuak eta bere arauak zuzendutako erakunde-eremua, estatusaren ordena komunaltaren aurka. Halaber, beste testu batzuetan argudiatu bezala, hemen topatzen dugu “eremu publikoaren historia, badela ere patriarkatuaren historia” (Segato 2016 c). Izan ere, eredu batetik beste bateranzko aldaketa baino ez da: egitura dualeko landa-mundutik —hau da, alderdi maskulino eta femeninoa eta eremu publikoa eta etxekoa zehatz banatzen dituen, bere zereginekin—, egitura binarioko mundu moderno bateranzko aldaketa —non gizonak okupatzen duten espazio partzial eta publikoa bihurtzen den guztia barne hartzen duen esfera publiko—, Gizonarena (letra larriz), Gizadiaren sinonimoa, zeinak uste duen indibiduo guztiak herritar gisa ordezkatu ditzakeela. Hortaz, esan dezakegu esfera publikoak, bere erakundeek eta Estatuak ADN patriarkala dutela.

Beraz, aldaketa honakoa da: gizarte komunal, dual, estatus bidezko eta elkarrekikotasunean oinarritutako batetik, gizarte moderno, binario eta herritarren kontratua nazionalizatze



legeetan oinarritutako gizarteranzko aldaketa. Aldaketa horren bidez, esfera publikoak gizarter guztiaren interesen kudeaketaren ardura hartzen du, familia nuklearra bihurtzen da, eta etxeko espazioak ordena komunalean zeukan *politikotasun* propioa galtzen du, pertsona asko bizi ziren garaikoa. Etxeko espazioa bazter bihurtzean, politikaren hondar bat bihurtzean, lehenago ez zeukan izaera *intimoa* hartzen du, emakumeak prestigioa eta agintea galtzen du, inoiz baino zaugarriago bihurtuta. Emakumeen mankomunamendua, mundu komunalaren bereizgarria, desagertzen da. Intentsitate baxuko patriarkatu batetik –mundu komunalarena– intentsitate altuko patriarkatu bateranzko eraldaketa bezala deskribatu dut hau. Bertan, 12. B-lk jada esan bezala, gizonek eraildako emakume kopurua izugarri igo da.

Carole Patemanek bere saiakera argian eta inspiratzailean dioenez, estatusa eta kontratua, hortaz, ez dira historian zehar beren bidea jarraitzen duten bi ordena paralelo; zehatzago, genealogia bat dira: kontratuaren ordena modernoa ezartzen da soilik estatusaren itzalak moldatzen duenean, bere ADNa birpasatzen dionean. Hau da, estatusak kontratua nahikoa finkatu duenean, estatusa jada kontratuaren ordenean bermatuta dagoelako, eta kontratu-erregimenak ezingo lukeelako prestigio-hierarkia hori gabe funtzionatu. Zentzu horretan, esan dezakegu estatus-ordena kontratu-ordena existitzeko gutxieneko baldintza dela. Horri gehitu behar diogu kontratuan estatus-ordena ezkututzen dela; hau da, gizarter komunalak esplizituki hierarkikoak dira, eta gizarter modernoak berdintasunaren diskurtsoaren azpian ezkututzen du izaera hierarkiko iraunkorra.

Komunitate desegituratua da, trantsiziozkoa, non ez dagoen indarrean ez komunitatearen ordena osoa ezta ordena instituzionala ere, nahiz eta azken hau modernotasun aurreratuan ere osorik agertzen ez den. Halako testuinguru batean, aztertutako kasuen ingurune sozialarekin lotuta, emakumeen gorputzaz jabetzeko eta menderatzeko jarrera ere esfera publikoaren jatorri patriarkalak eragiten du, baita estatusen oinarritzen den genealogiak ere. Egoera hori are larriagoa da lurralde kolonizatuetan, Latinoamerikan kasu.

Europako metropolietan Estatu-gizarter harremanak bestelako historia eta egitura ditu; aldiz, itsasoz bestaldeko sistema kolonialetako errepubliketan, Estatuak ez dute inoiz kanpokotasun harremana galtzen, ezta lurraldeak eta pertsonak kudeatzeko estilo koloniala ere. Bertan kreolizatze edo ladinizazio prozesuak ematen dira: kreole paradigma sortzen da, zeina definizioz den ez-segurua, arrazista, misoginoa, homofobia eta espezista. Posible da irudi hori Espainiako frankismoaren elite falangistei ere aplikatzea, oraindik ere Nazioaren politika menderatzen baitute.

Egitura konplexu honetan sortzen da azpiatal honetan deskribatu dudana *erakundeen ezinbesteko traizioa*. Izan ere, erakundeen munduak hizkuntza urrunekoa eta “neutrala” darabil, gizonen historian sortutako hizkuntza; hizkuntza horrek jatorria du gizonena zen espazio partikular eta publiko bat eraldatzean nazioko herritar guztien interesak ordezkatu nahi dituen esfera publiko batean. Erakundeen hizkuntza horrek ezin du emakumeen kexa jaso, egiturari dagokionez bateraezina delako gaur egun pribatizatu den etxeko eremuarekin, intimitate modernora baztertutako eremuarekin, alegia. Erakunde modernoan eta esfera publikoaren hizkuntzan, eremu publikoa eta etxekoa ez dira ordena komunal hierarkiko eta dualean elkar eragiten duten espazioak. Aitzitik, eremu publikoak laburbiltzen du beste guztien ordezkari, bere lexiko eta sintaxia esfera publiko guztiari emanda; horrela, etxeko eremuak gaur egun ez du ordezkariarik, eta bere lexiko eta sintaxia ez dira ondo hartzen eremu publikoan.



Ikertutako kasu guztietan ageri dira emakumeen auziari heltzeko Estatuak duten gaitasun faltak sortutako arazoak.

Estatuaren izaera patriarkala —esfera publikoaren ADN patriarkalak eta erakundeen trairioak sortua— agerian geratzen da modu argi eta ankerrean Madrilen bizi den 21. B-I espainiarraren istorioan. 21. B-I ezkontuta egon zen 20 urtez gizon oso biolento batekin, eta berak zein bere 3 urteko alabak konpondu ezinezko kalteren bat pairatzeko beldur zenez, ama-alabek ihes egin zuten etxetik. Horren ondorioz, lau urtez borrokatu zen justiziaren aurrean senar ohiak alabari ikuskatu gabeko bisitak egitea galarazteko, baina justiziak ez zion inoiz arrazoirik eman. 21. B-Iren analisiak berretsi bezala, argi dago erasotzailearen eskubideak lehenetsi zirela protagonistaren eta alabak indarkeriarik gabeko bizitza izateko eskubidearen gainetik. Merezi du entzutea “estatuaren gorreria” izendatu daitekeen fenomenoaz egiten duen deskribapena, zuzenbideko estatutzat dugun honetan gertatua:

“...Eskarmentuarik gabeko jendea izateaz gain, lehenbizi pertsona batek artatzen zintuen, beste egun batean beste batek... Inork ez zintuen ezagutzen, hau da, aipatu dizkizudan edozein udalerritan Guardia Zibilera salaketa bat jartzera joaten banintzen lotsagarria zen niretzako, zeren... Ba horrela zen: “Eser zaitez”, esanez bezala “ea zer kontatzen duen orain”, ezta? Kontatzen nien guztia oso gogorra zen, ez? Erasoak, bahitzen saiatzea, eta artikuluan kontatu dudana bezala, ba orain konturatzen naiz; Valentziako errepidetik nire alabarekin nindoan eta elementu hau autoarekin kolpeak ematen zizkigun; niretzako hain zen gogorra, eta gero salaketa jartzea nire alaba besoetan nuela, alabak zeukan beldurraren beldurrez askatu ere egin gabe; eta parean nuen pertsonak hori ez ulertzea, edo besterik gabe bere hoztasuna ikustea idazten zuen bitartean: “ez, itxaron, itxaron, itxaron, azkarregi zoaz”, kontatzen niona idazteko; ba hori, hori oso latza zen, zer dakit; nik esaten nuen, ene, hil ahal gintuen eta ni dena kontatzen ari naiz kasurik egiten ez didan norbaiti; ez dakit salaketa hau nora doan ere, ez dakit, nik konponbide bat behar du orain [...] Salatzen jarraitzen nuen, eta ez nintzen salatzeaz nekatzen pentsatzen nulako hainbeste salatuz gero, gertatzen zitzaigun guztia kontuan hartuta, uste nuen inoiz inork deituko zigula, ez? Zer edo zer esateko edo galdetzeko, ez dakit. [...] Baina ez zegoen inolako mugimendurik. Hor ez zen inor mugitzen. [...] Nik esaten nuen, beno, hau ezin da gertatu, norbaitek esan behar dio jende honi hau ezin dela gertatu, niri ez didatelako sinesten, zeren nik ikusten nuen ez zidatela epaileek ere sinesten, ezta gizarte langileek ere, ezta... Salaketetan ikusi duzuen bezala, ostiralero joaten nintzen gizarte zerbitzuetara salaketa jartzera, eta bisita-araubidea ireki zenean halaxe izaten jarraitzen zuen, eta egoera berdina zen pertsona honek alaba eraman eta manipulatu, mehatxatzen, jazartzen jarraitzen zuenean; eta hor inork ez zuen ezer esaten, eta nik esaten nuen... Heldu zen une bat non esaten nien, baina nik zertarako kontatzen dizuet gertatzen ari den guztia ez baduzue ezer egiten?”

Estatuak egoki artatu ez zituen saiakera etsi horien ostean, erasotzaileak 6 urteko alaba hil zuen, 21. B-Ik eten nahi zituen ikuskatu gabeko bisita batean. Amaiera oso tragikoa da, konponbiderik gabekoa eta tristea, 21. B-Ik susmatu bezala. Izu-esperientzia bat diskurtsiboki zeharkatzeko ezintasuna ikusten dugu hemen, etsipenezko esperientzia bat, burokraziak esperientzia hori artatzeko gaitasun faltaren ondorioz. Hiztegi patriarkal-estatalaren arabera moldatu ez denez, entzungor egiten zaion oihua.

Kasu honetan nabarmena da erakundeen muga. Muga hori ere deskriba daiteke azalduta estatus-ordena hedatzea saihestezina dela eta eremu publikoa moldatzen duela. Izan ere, estatus-ordenak moldatzen ditu uste eta iritzi sakonenak, hierarkia guztietako estatu-agen-



teen zentzu komuna, harreragiletik epailera. Orduan ari gara *emakumeen kexari entzungor egiteaz*.

Agintarien interpretazioek baldintzatuko dute emakumeen kexarekiko sentiberatasuna, beti eta ezinbestean. Hartara, beti izango da erabaki politiko bat: patriarka edo haren emaztea babestu. Orain arte, legea ez da gai izan bere eragilean jarrera politikoaren rolaz harago joateko. Jarrera politiko horren oinarria *etika asegabea* edo *etika inkonformista* dira (Segato 2006), zeintzuek beti ordezkaturiko duten erabakien bazter ideologikoa; adibidez, aitaren gurasotasuna alienatzea erabakitzean. Hor sartzen da epailearen erabakia, eta horregatik daude epaileak —eta ez makinak— «ebidentzia» prozesatzen eta neurtzen. Horregatik diot kontratu-ordena soilik datorrela estatus-ordena guztiz ezarrita eta finkatuta dagoenean, eta kontratu-ordenean erreproduzitzen denean.

Galdera bat sortzen da orduan: posible al da genero kontuetan estatu liberalaren “subjektu neutrala”? Aztertutako kasuek agerian uzten dute ezetz, “neutral” hitzaren esanahia baldin bada kontuan ez hartzea edo ez bereiztea botere harremanak eta bizitza sozial eta afektiboan azaleratzen diren formak. Emakumeen esperientziari heltzeko gaitasun falta dago, genealogia patriarkala duen eremu publikoko subjektu burokratikoaren izaera urrunari dagokiona. Egiturazko bateraezintasun horren ondorioa da emakumeen ahotsa —eta hortaz, emakumeen kexa— ez dela entzuten Estatu arloan. Beste behin ere, argi geratzen da genero-indarkeriak ez duela lehentasunik, modernotasunean duen jatorri “intimoa” dela eta. Hori agerikoa da Latinoamerikan bere historia kolonialagatik, baina gorago esan bezala, lurralde espainiarrak ere bere barne-autokolonizazio prozesua jasan du. Kasuaren analisiak justiziaren porrota eragin duten genero estereotipoak seinalatzen ditu, zeinak Estatuaren historiaren ondorioa besterik ez diren.

Zuzenbide-eragileek gizarte parekidean bizi garelako ustea dute abiapuntu. Baina genero-ikuspegiaren arabera lehenik eta behin epaitzen ari den eszenan boterea identifikatu behar da, ondoren legea aplikatzeko. Arazoa da epaileek eta bestelako zuzenbide-eragileek, haien klase bereko —boterearen klaseko— kideen konplize ez direnean, ez direla gai sortzen diren ezberdintasun egoerak irakurtzeko; genero-ezberdintasunen kasuan, batez ere. Laburbilduz: zuzenbide-eragileek estatus-egoerak epaitzen dituzte kontratu-egoerak balira bezala, hau da, justiziak ez dauka estatus-egoeren kontzientzia. Soilik horrela uler daiteke 3. B-lk justizian ibilitako bide luzea, eta hala ere inork ulertu ez izana edota sinesgarritasuna ere lortu ez izana. 3. B-lren senar eta erasotzailea kazetaria da, prestigiodun nazioarteko komunikazio agentzietako berriemailea. Horregatik, ziur asko, trebeagoa da jendaurrean azaldu eta hitz egitean, eta bere profil kosmopolitik zalantzan jartzen du epaileentzako borxatzaile, abusatzaile eta erasotzaile nabarmena izatea, emakumeak bere jarrera deskribatzen duenean. Justiziak ez baldin badu genero-ikuspunturik, eta ezin badu generoaren boterea identifikatu, botere hori bestelako iritziek ezkutaturiko dute; hain zuzen, estatus sozialaren, prestigio profesionalaren eta heziketa zein itxurakeriaren sinesgarritasuna konbinatuta eratutako iritziek. Horrela, erasotzaileari emango zaio sinesgarritasuna, eta batez ere, emakumeen diskurtsoa bere berezitasunekin bai ala bai sinesteko jarrera egongo da.

Zentzu horretan, beharrezkoa da emakumeen diskurtsoaren zehaztasunean sakontzea. Esan beharra dago emakumeen diskurtsoa ez dela erraz egokitzen, ez bada *trabestismo* ariketa gogor baten bidez, Estatuak arretea eskaini diezaien. Minaren ordaina eskatzen duten emakumeen kasuan, tinbrea, erregistro zaila eta ahotsaren modulazioa; erabilitako termi-



noak; hizkera eta gorpuzkera... Ezaugarri horiek ez dituzte eremu publiko eta estatalaren mugak gainditzen; hortaz, emakumeek ez dute lortzen entzunak izatea, entzun beharko litzuketen tokian.

Estatu-eremuan eta eremu publikoan agertzeko entrenatu duten emakumeek soilik lor dezakete, eta haiek ere blokeatu egiten dira, bizitakoa adierazteko dituzten moduak zentsuratzten dituzte, eta muga horren aurrean mututu egiten dituzte. Horrela baino ezin dugu azaldu 3. B-I. Izan ere, nire iritziz, azaleratu eta memorian iltzatzen den kasua da, gaitz patriarkalaren edo prototipoaren “paradigma” bailitzan. Beste baldintzatzaile batzuk —soilik emakume izateagatik emakumeen mendekotasuna indartzen duten intersekzioak— kontuan hartu gabe, paradigma horretan larriagotzen da 3. B-Iren posizioa, eta ahul agertzen da, bere senar-erasotzaileak atzeman eta fisikoki zein psikologikoki erasotu dezan.

3. B-Iren egoerak patriarkatu modernoaren aroan hertsiki generozkoa den desoreka azaleratzen du, eta gorago esan bezala, intentsitate altuko patriarkatua da. Hau da, ez dago inolako araurik, ezta legalik ere, emakumearen kexari arreta egokia eskaintzeko eta babesteko gai denik. 3. B-Iren kexa literalki entzungaitza da. Kasu honek erakusten du justizia-eragileen eta estatu-agenteen hizkuntzak ezin duela erabaki normaltasuna eta zitalkeria banatzen dituen lerroa. Halaber, kasu honek frogatzen du generoa, Freuden kategoria erabiliz, “arraroki ezaguna” dela Estatuaren arabera: generoa “normala” eta “kriminala” da, edo bestela esanda, normaltasun kriminala da, zeina justiziak onartu ezin duen bere konpromiso modernoa dela eta. 3. B-Iri heltzea generoa bere adierazpenik sakonenean aztertzea da. Horrelako egoeretan mugarik gabeko gorroto eta inbidia maskulinoa azaleratzen dira, biktimarengan badagoelako zerbait menderaezina, patriarkak exijitzen dion porrot moralaren aurrean amore ematen ez duen zerbait.

Aztertutako beste kasu batzuek Estatuak eta haren ondorio diren erakunde-indarkeriak duten jatorri patriarkalaren ideia berresten dute. Ohikoa da erasotzaileek erraztasuna edukitzea “harremanak mugitzeko”, kontaktuak edukitzeko eta erakundeetan zehar ibiltzeko zein bertan konplizeak lortzeko. 3. B-In ikus dezakegu hori: klase ertaineko emakumea da, ikasia eta *langilea*, baliabide propioak dituena, eta hala ere ezin izan zuen bere burua defendatu indarkeria psikologikoa eta ondarezkoa jasanarazi zion erasotzailearengandik, “erakundeen zentzu komunak” ez zuelako inoiz ulertu bere babes eskaera. Hona “erakunde-indarkeria” irudikatzen duen kasu klasiko bat, aipatutako 21. B-I bezalakoa. Indarkeria giroak, “argamasa hierarkiko” izendatu nuenak (Segato 2003), emakume hauek zigortzen ditu, ironikoki, bere erasotzaileek auzitara eramaten baitituzte, aipatutako kasuetan bezala: 21. B-I indarkeria gauzatzeagatik, eta 2. B-I etxea “modu bidegabean” abandonatzeagatik. El Salvadorreko 2. B-I, senarraren dibortzio-eskaera helbide faltsu batera bidali zen, eta horrela emakumeak ez zuen epailearen zitazio aginduak jasotzeko ez erantzuteko aukera izan; ondorioz, etxea bidegabe abandonatzea errazago leporatu ahal zioten.

Muturreko bidegabekeria dira, non gizonak erakundeen hizkuntzaz eta giroaz daukaten ezagutzak eta trebetasunak bidegabekeria bera sortzen duten. Hala gertatzen da ere erakunde giroan gizonen parte hartzearekin eta bertan sortutako harremanekin, edota automatikoki haien argudio eta bertsioei fidagarritasun gehiago ematen dien aurreiritziekin.

Gogoratu beharreko beste *erakunde-traizio* mota bat da Kolonbiako 25. B-I. Istorio honetan, protagonista estatuaren inguruko ekintza baten biktima izan zen, estatu-agenteez Medellingo 13. komuna hartu zutenean eta bertako biztanle asko bahitu eta hil zituztenean. Emaku-



meak tortura psikologiko larria pairatu zuen, bahitu zutenean neskato bat nola bortxatzen, torturatzen eta hiltzen zuten ikustera behartu zutelako. Gainera, bere heriotza ere oso gertu sentitu zuen, eta agente militar eta paramilitarren elkarlana ikusi zuen. *“Nik ez dut sinesten ez polizia, ez justizian, ez haietako inorengan [...] Haien artean komunikatzen ziren, ez dut horrelako jendearengan sinesten”*.

5. ABORTATZEAGATIK KRIMINALIZATZEA, ESTATU-BORTXAKETA GISA

Aztertutako kasu askotan, protagonistak bortxatuak izan dira oso gazte zirela; gerra erre-presibo, matxino eta mafiosoek desegindako eskualdeetan bizi zirelako, edo fronte horien arteko gatazken ondorioz. Sei emakume kolonbiarretik hiru —26., 9. eta 7. B-lk— bortxatu egin zituzten 11, 14 eta 16 urte zituztela, beren helduaro guztian muturreko zaurgarritasun goieran egon zirelarik.

26. B-lk haurra galdu zuen erditu aurretik, eta bere ama hil zuten alabaren kasua salatzeagatik. Gerago, bere neba bat ere hil zuten arrazoi beragatik. 9. B-lk bere burua zauritu zuen, etengabeko erasoak pairatu zituen bere familiaren aldetik, eta indarkeria mota asko familia-eta bikote-harremanetan. Bere bigarren bikotekideak abortatzera behartu zuen.

Medellinoko 7. B-l, 16 urte zituela bortxatu zuten gatazka armatuko eragile ziren FARCEko kideek. Ondorioz haurdun geratu zen, eta ama izatera behartu zuten. Bortxatua izan, bizilekuz aldatu eta bere semea jaio ondoren, inposatutako amatasuna bere gain hartu behar izan zuen. Amatasuna ez zion soilik ekintza biolentoak berak inposatu; erakundeen kudeaketa okerrak ere inposatu zion, baita haren amaren balio eta sinismen erlijiosoek ere. Bere semea ez maitatzeagatik erru-sentimendu asko ditu. Izan ere, bortxaketa gogoratzen duen arren, Jainkoaren beldur da, eta amaren hitzek beldur horiek areagotu dizkio (*“Arrazoiren bat izango zuen Jainkoak zuri semea emateko; bere borondatea izan zen eta hala onartu beharra dago”*).

Bere kasuak agerian uzten du *“langile publikoek legeen inguruan duten ezjakintasuna, edo agertzen duten zabarkeria emakumeen eskubideak bermatzeko arauak ezartzean”*.

Kasu honetan, abortua debekatzea legezko baldintzak egon arren *erlijio-genero-indarke-riatza* hartu genezake. Indarkeria horrek bere bizi-proiektu guztiak hondatu zituen.

El Salvadorreko 4. B-lk gaiaren konplexutasuna agerian uzten du. 4. B-lk haurdun zegoela deskubritu zuen odol-jario batengatik ospitalera joan zenean; egiatan, jario hori haurdunaldia galtzearen ondorioa zen. Artatu zuen medikuak salatu egin zuen abortatzen saiatzeagatik, nahiz eta haurra berezko abortu batengatik galdu zuen. Ospitaleko langileek neska moralki gutxietsi zuten beren aginpidea indartzeko. Bestalde, Estatuak inpunitatea dauka eta ezin zaio leporatu emakumearen gorputza baimenik gabe manipulatzeko, haren gorputzaren inguruko informazioa eskuratzeko eskubidea urratzea, eta lekuz kanpoko epaiketa morala egitea. Gainera, medikuen betebeharra emakumearen osasuna zaintzea zen.

El Salvadorreko 24. B-l bereziki zentzugabea eta onartezina da; 30 urteko espetxe zigorra betetzen ari da erortzean pairatu zuen berezko abortu batengatik. Ezin izan zuten frogatu eragindako abortu bat izan zela. Kasu horretan nabarmen ikusten da *betidanik patriarkala izan den estatu-burujabetzak emakumeen gorputzetan* eredugarri izateko duen bokazioa. 24. B-lk erakunde-indarkeria larria pairatu zuen medikuen aldetik, eta ez zuten errespetatu ha-



ren egia, ezta zalantza-benefizioaren printzipio unibertuala. *Zigor-ereduaren* kasu tipikoa da honakoa, horren bidez *Estatuaren borondatea eta burujabetzaren erakustaldia* lortzeko, kasu honetan osasun- eta justizia-erakundeek burututa. Halaber, Estatuak inpunitate osoz erortzen da bi estandarretan, batetik argudiatzen duelako justizia jaiogabearen eskubidearen alde jarduten dela, baina bestetik jaiogabearen gorpua bahitu eta ehorzketa ukatzen diote.

“Nire amak ehortzi zezaten eskatu zuen eta ez zuten nahi izan. Oraindik ez dakigu zer egin zuten gorpuekin”.

El Salvadorreko 24. B-Ik espetxealdi amaiezina pairatu zuen, eta Estatuak emakumea bera zein hilik jaiotako haurra tratatzeko modu arbitrarioa, moral bikoitza eta inpunitatea; halako egoerek ezinbestean eramaten gaituzte ondorioztatzera abortua debekatzearen funtsa ez dela morala edo teologikoa, baizik eta jurisdikzio eta lurralde izaera duela. Beste behin ere, Estatuak emakumeen gorputzen inguruan erabakitzeke ahalmena arautzen duenean, eta abortua kriminalizatzen duenean, adierazten du araututako gorputz horren funtzioa dela estatu-aginpide patriarkala munduari erakustea, elikatzea eta indartzea. Emakumeek amore ematearen eta obeditzearen bidez eraikitzen da Errepublika Kreole ez-seguruen burujabetzaren ikuskizuna. Emakumeen gorputza Estatuaren legearen menpe jartzeak indartu egiten du Estatu herritarren aurrean. Errepublika kreoleen estatu ahul eta kolonialek beren aginpidearen erakustaldia egin behar dute, eta horretarako beren legea emakumeen gorputzetan inskribatzen dute.

Hortaz, eta atal honetan hizpide izandako bortxaketekin jarraituz, abortua debekatzea beste bortxaketa mota bat besterik ez da, emakumeen gorputzaren aurkako bortxaketa alegia. Gainera, bortxaketa motarik larriena da, *Estatu-bortxaketa* delako. Estatu-botereak emakumeen parte hartzerik gabe haien gorputzengan agindutakoaren aurrean gaude, eta herritar posizio batean gaude, Estatu horren solaskide gisa. Inor derrigortzea bere sabelean edukitzera nahi ez duen gorputz bat, gorputz arrotz bat, bortxaketa baten parekoa da, eta kasu honetan bortxaketa motarik okerrena da: estatu-bortxaketa.

6. LAN-INDARKERIA, GENERO-INDARKERIA GISA: ETXEKO LANAREN PARADIGMA GAINDIEZINA - KONTRATUA ETA ESTATUSA, BESTE BEHIN

Ezkontza-harremanak eta prostituzio bidezko sexu-zerbitzuak bezala, etxeko lanek ere zerbitzu-mota jakin bat erakusten dute; hain zuzen ere, ordu-kopurua, lan-mota eta ordaintzeko modu zuzenak zein zeharkakoak kontratu bidez zehaztu arren, zerbitzu-mota horrek agerian uzten du estatus-harremanak bizitza modernoan eta kontratuetan duen etengabe-ko presentziaren garrantzia. Etxeko lanek frogatzen dute kontratua ez dela gai ezabatzeko ezartzen dituen eta zaindu behar dituen harremanen barne-arau iraunkorrek. Izan ere, barne-arau horiek errotuta daude ordain afektiboetan eta bizirik irauteko bermeak eta babes bilatzean. Zaintza eta kontratua oso kontzeptu ezberdinak dira, ezin dira haien artean neurtu ezta menderatu. Zaintza lanak ezin dira guztiz estrapolatu kontratu terminoetara. Egoera honetan, langileak erosteak erakusten digu kontratuak ahalmen mugatua duela bere barne-tik merkaturatu ezin diren osagaiak ezabatzeko. Etxeko lan ordainduaren kasuan, lan orok ezinbestean daukan alderdi gizatiarrak agerian uzten du hizkuntza moderno, indibidualista eta kapitalista ez dela gai etxeko lanak barne hartzeko eta bere osotasunean kontuan hartzeko.



Aurretiko arau zahar eta fundazionalak, zeintzuek estatus-harremanaren berezko asimetria duten, frogatzen dute kontratuak ezin dituela menderatu, eta halaber, estatusak eta kontratuak duten harreman genealogikoa erakusten digute: kontratua posible da balio diferentzialaren esperientzia jada ezarrita eta bermatuta dagoenean. Horregatik hain zuzen, klase-harremana ezin izan da inoiz guztiz definitu orain arte, kontratuaren aurreko ekonomia sinbolikoko kontratu-harreman bati erantzuten diolako. Klaseari dagokionez, ezinbestean sendotasun edo egokitasun falta bat ematen da ekonomia materiala eta ekonomia sinbolikoaren artean; izan ere, bi biek indar baliokidea daukate, eta gerta daiteke ekonomia sinbolikoa materialaren gainean gailentzea. Hori argi ikus daiteke etxeko lanetan eta horien inguruan sortzen diren harremanetan.

Hortaz, esan dezakegu estatusa ez dela kontratuaz oso bestelako sistema bat; aitzitik, estatusa da kontratuaren oinarria eta ezkutuko funtsa. Estatuak eta eremu publikoak duten arazo bera da, ez baitute inoiz beren izaera patriarkala ezabatzen (Segato 2015 a). Estatusa eta kontratuaren arteko harremanaren egitura ez da arkeologikoa, genealogikoa baizik. Halako harreman mota dago ere gizonek bizitza komunitarioan egiten duten lan politikoaren eta eremu publikoan eta erakunde modernoetan egiten duten bizitza politikoaren artean; harreman genealogikoa alegia. Horrela, etxeko lanei dagokien lan-indarkeria genero-indarkeria mota jakin bat da.

Guatemalako 16. B-lko haurraren kasua irakurtzen dut, etxeko lanen estatus-harremana gogoan dudala. Estatus-harreman hori kontratua baino lehenago existitzen den boterea da, langilearen bizitzarengan zuzenean gauzatzen den boterea, alegia; hau da, salerosketa komertzial-laborearen objektuaz harago —hau da, langilearen salerosketa kontratuaz harago— gauzatzen den boterea da. Muturreko kasu honetan, eskola bateko zuzendariak eskolako garbitzaile baten bi alabak bortxatu ditu, hainbat urtetako tartearekin. Ondorioz, alabarik gazteena (16. B-I, ikerketarako elkarrizketatu duguna) haurdun geratu zen. 7 urte zituela bortxatu zuten eta ez zuen salatu, ez baitzekien gertatutakoari izena jartzen; lotsatuta zegoelako eta erru sentimendua zuelako; bortxaketa bere jarrerak eragin zuela uste zuelako; erakundearen aurrean segurtasun falta sentitzen zuelako; bere amak lana gal zezakeelako beldur zelako, lan horren menpe baitzegoen familia osoa; eta berak eta neba-ahizpek amaren lantokia ere bazen eskolan ikasteko aukera gal zezaketelako beldur zelako. Hamabost urte beranduago, bere ahizpari gauza bera gertatzen zaiola jakiten duenean, berari gertatzean ez salatzeaz damutu zen; izan ere, salatu izan balu ez zatekeen abusua errepikatuko.

Kasu hau lotzen dut zaintza eta garbiketaren lanen kontratuek duten morroi izaerarekin. Izan ere, lan mota horrek duen berezko lotura dela eta, eskolako zuzendari eta haurren amaren nagusia denak jabetza gisa hartzen ditu haurrak. Sexu-jabetze horrekin —nabarmendu nahi dut sexu-harremanaren eta sexu-jabetzearen edo sexu-erasoaren arteko ezberdintasuna—, amaren eta eskola zuzendariaren ereduak familia osoa menderatzen eta apaltzen du. Hala islatzen du familiako anaia nagusia depresioak eta alkoholismoak jotzeak, eta ahizpak bere burua zauritzeak. Zergatik exekutatzen da hori biktimaren gorputzaren esku hartze sexualaren bidez? Bada, lehenago esan bezala, ez badago porrot moralik ez delako menderakuntzarik existitzen (Segato 2016 a). Beste baten gorputzean esku hartze sexuala egitea, haren borondateaz jabetzearen diskurtsoaren parte da. Familia osoak eskola-zuzendariarekiko duen mendekotasun ekonomikoa oso modu gogorrean ageri da hemen.



Bestela, Latinoamerikako trantsizio-egoeran, zeinetan morroi izaeradun lan-harremanak oso ohikoak diren, izugarria da bizitza-istorioek kontaktzen dutena; istorioen gai nagusia dira etxeko lanen genero- eta lan-indarkeriak eragindako miseriak; halakoa da Medellingo (Kolonbia) 6. B-I. 15 urtez esklabo baten pare aritu da lanean, hau da, lansaririk gabe eta lo egiteko lekuaren eta jatekoaren truke. Tratu txarrak jaso ditu, irtetea debekatu diote eta inolako jabetzarik gabe heldu da zahartzarora.

Halakoa da ere El Salvadorreko 1. B-I. Antzeko bizitza-istorioa dauka, eta lan-indarkeriaren biktima izan da etxeko lanetan aritu denean: tratu txarrak bere nagusien etxean. Indarkeria psikologikoa eta heriotza-mehatxua. Azken hamabostaldiko lansaria jaso gabe kaleratu zuten nagusiek, gaixorik dagoen ama bisitatzeko baimenak eskatzeagatik: “*Ez dizkizugu 5 xentimo ere emango, eta orain alde egin, ez zaitut ikusi ere egin nahi p... zahar hori, ez baduzu beste ezer okerragorik egitea nahi*”.

7. PATRIARKATUA, POTENTZIA ETA FRUSTRAZIO AGINDUA

2003an liburu bat idatzi nuen, *Las Estructuras Elementales de la Violencia* (Indarkeriaren oinarritzko egiturak). Lan horren abiapuntu izan nituen, batetik, bortxaketagatik Brasiliako espetxean zigorra betetzen ari ziren presoek kontakizunak, eta bestetik, genero-indarkeriaren inguruan dagoen literatura etnografiko eta teorikoaren zati handi bat. Liburu hartan, biktimarekiko kontrolean eta eskumenean oinarritutako argumentuak ukatu gabe —erasotzaile eta erasotuaeren arteko “ardatz bertikala” deitu nion horri—, emakumeen aurkako indarkerian ageri zitezkeen bestelako interakzio mailak nabarmendu nituen. Kasu horretan, nire ikerketa-objektua hilketaz (edo ez) jarraitutako bortxaketa zen, baina emakumeen gorputza mugatzeko eta borondate baliokidea ezabatzeko modu bat bezala, ekonomia sinbolikoaren terminoetan ulertuta, hilketa arte.

Ikerketa honen emaitzen arabera, nire analisiaren erdigunean bi elementu berri jarri nituen. Nire ustez, elementuok funtsezko rola dute krimen horietan; batetik, krimenen alderdi adierazkorrari erreferentzia egiten diote, eta bestetik, erasotzailearentzat biktimak baino garrantzi bera edo handiagoa duen solaskideen presentzia ere adierazten dute. Horrela, proposatu nuen harreman- eta interlokuzio-ardatz pareak gidatu behar zuela gure irakurketa: batetik, bertikal deituko dudan ardatza dago, boterea eta finkapenaren arteko posizio asimetrikoak lotzen dituena; eta bestetik, horizontal deituko dudan ardatza, zeinaren bidez bortxatzailea eta bere parekoak harreman ezegonkor batean lotzen diren, *anaitasuna* edo *gizonen kofradia* sortuz, non kide guztiek beste kideei ikusarazi behar diete harreman horretara etengabe itzultzeko gai direla.

Ardatz horizontala kontserbatzea, alegia, gizonen anaitasun horren kideen edo kofradeen arteko harreman horizontala mantentzea, eredu honetan, menderatuta daudenekiko harreman bertikalaren arabera da; hau da, ardatz batean asimetria egon dadin aurretiko baldintza da beste ardatzean ere asimetria egotea. Ardatzek elkarrekiko duten mendekotasunaren ondorioz, ardatz bertikalean zehar *tributu-ordainarazpena* sortzen zen, ardatz horizontalaren egonkortasuna elikatzeko. *Tributu-ordainarazpen* honek eragiten du jario afektibo eta sexuala egotea, eta baita bestelako obedientzia-mota batzuk sortzea ere (intelektuala, produktiboa eta erreproduktiboa). Jario horrek “emakume” deitzen ditugun rola betetzen du, etengabeko menderakuntza egoera adierazten duena, eta hala helarazten zaio ardatz horizontaleko kideei.



Ardatz horizontaleko norbaiten kidetasuna zenbat eta ahulagoa izan, orduan eta bortitza-
goa izan beharko da kide horrek beste gizonetik berdintasun egoera berreskuratzeko egin
beharko duena; hau da, bere burua *gizon izendatzeko* eta bere pareko kofradeek berezko
estatusa aitortu diezaioten. Tributu hori, orokorrean, emakumeek borondatez entregatzen
dute, “normaltzat” hartzen diren baldintzetan. Hala ere, zenbaitetan, gerra egoera batzue-
tan edo kofradiako kide batzuen kidetasuna zalantzan jartzen bada, tributu behartua da,
bortxaz lortutakoa. Eskema hau, halaxe antolatua eta hemen labur deskribatua, baliagarria
da azaleratzeko, batetik, patriarkatuaren diseinua, eta bestetik, hori bera erreproduzitzen
duen maskulinitate agindua.

Emakumeen mailatik gizonen mailara doan jarioak etengabe eraikitzen eta berreraikitzen
du gizonen posizioa, kofradiako kideen aurrean potentzia ikuskizuna eginez. Maskulinitatea-
ren predikatua, potentzia nahasi eta aldakorren multzoa, ezin da existitu baldin eta ez badu
tributu-jario horrek elikatzen, dela borondatez zein behartuta. Orain arteko hausnarketen
arabera, sei potentzia mota daude: sexuala, gerrakoa, politikoa, ekonomikoa, intelektuala
eta morala (epailearena, legegilearena). Potentzia horiek ez dira existitzen ez bada haien
erakustaldia egiten, hau da, ez badute nabarmentzeko gaitasunik.

Maskulinitate agindua, potentzia agindu gisa, menderakuntza agindua da. Emakumeen
menderakuntza —tributazioa atseginez egiten delako zentzuarekin ulertuta— horren ko-
rrelatua da, eta baita gizonezkoek kontsigna horiei obeditzea ere. Agindu horri traba egin
eta frustrazioa eragiten dio tributupeko mailak, emakumeek, autonomia zantzuak izatea;
halako zantzuak bere nagusitasun posizioaren aurkakotzat hartzen ditu. Horregatik, *patriar-
katuaren hiru munstroak* (*homofobia*, *transfobia* eta *misoginia*, zeintzuek krimen jakinak era-
giten dituzten), sortzen dira autokonfiantza ematen duen homosexualitateaz, transexualita-
teaz eta emakumetasunaz egiten diren interpretaziotik, maskulinitate aginduak inposatzen
duenarekiko desobeditzen baitu.

Emakumeak kofrade eta konplizeen aurrean menderatzea esplizituki ageri da El Salvado-
rreko 3. eta 5. B-I. 3. B-In, lehengusuaren rola gizonen arteko konplizitatea erakusten digu,
eta gizonen arteko kohesioak duen garrantzia erasoetan, harreman posesiboetan eta bikti-
maren sakrifizio izaeran. 3. B-I pluralean mintzatzen da erasotzaileaz ari denean, lehengu-
sua barne hartuta, zeinak ospitalean jantzi baitzuen bortxaketagatik artatu behar zutenean.

*Adostutako zerbait izan zen, baina zaila zait sinestea artatu ninduen medikua ados zegoela, ezin
liteke, ez dut uste; agian (erasotzaileak eta lehengusuak) jakin izan zuten nola ekidin, baina egia
da ere herrialde honetan diruaz dena ordaintzen dela.*

*Gertakari honek guztiz kolpatu ninduen, neukan guztia kendu zidatelako eta sentitu nuelako
pertsona horren abusuez gain (erasotzailea), inondik ezagutzen ez nuen gizon batek jantzi nin-
duela. Eta abusu horrez geroztik besoak lotu zizkidaten, ezin nintzen mugitu, erasotzailearen
lehengusuak nirekin hitz egin zuen ni artean lasaigarrien eraginpean nengoela; gogoan dut esan
zidala ez saiatzeko salaketa jartzen ere, erasotzailearekin ezkonduko nintzelako, ez nituelako
euren bizitzak suntsituko; baina haiek nirea suntsitu ahal izan zuten, guztiz hesituta sentitzen
nintzen, ez nuen nire burua maite, ezin nuen ezkondu kristaua naizelako eta ez nengoen bataia-
tuta ez sendotza emanda; eliza katolikoak eskatzen duen guztia falta zitzaidan.*

Gizonezkoen logia —kasu honetan, bi lehengusu— eta horren erakustaldia ikus dezakegu
egoera horretan. 3. B-Ik, hain zuzen, haien arteko harremana elikatzen du. Beste behin, 3.



B-In —gorago generoaren “paradigma” gisa deskribatu dudana— maskulinitate itun handiaren aurrean gaude; ez soilik 3. B-I bahitzean, lotzean eta fisikoki zein psikologikoki menderatzean, baizik eta erasotzailearen aitaren aldeko familiarengandik ere: erasotzailearen aitak berdin jokatu zuen haren amarekin, seme-alabak kenduta. Informazio hutsune bat sumatzen dugu hemen, jakin behar dugulako erasotzailearen aitaren edo amaren aldeko lehengusua den, nahiz eta sobera ulertzen den aitaren aldekoa dela; izan ere, erasotzailea gutxi bizi izan zen amarekin, azken honi seme-alabak lapurtu zizkiotelako, eta gauza bera egin zuen erasotzaileak 3. B-Irekin ezkontzean. Hortaz, posible da ondorioztatzea erasotzailea amaren aldeko familiarekin ez zela bizi izan.

Senarrak 5. B-I pandilla bati emateak agerian uzten du gizonen arteko hitzarmenak emakumeen aurkako indarkerian duen eragina: bere bikotea uzten lan egitetik zetorren autobusean, eta mozkor zihoan pandilletako kide batzuekin eta komunitateko beste lagunekin batera. Auzoko batek ohartarazi zion neskari gau hartan haren bila joango zirela, haren bikotekidearentzat ez zuela ezertarako balio, eta nahi zutena egin zezaketela berarekin.

Gorago esan bezala, maskulinitate agindua potentzia agindua baino ez da, zeina beste gizonen aurrean gauzatzen eta adierazten den, nagusitasun eszena batean. Potentzia, hartara, menderatzeko gaitasuna da. Horren korrelatu bereizezina etsipen sentimendua da, porrot eta frustrazio sentimendua, hori lortzen ez denean. Kasu horietan erasotzaile patriarkalak mendekura jotzen du, ukatu izan zaion maskulinitatea eta gauzatu ezin izan duen potentzia berreskuratzeko.

14. B-In, mediku batek eraildako erizaintza ikasle baten amak, hala kontatzen digu:

... Zeren nik oraindik ere uste dut koldarkeriagatik izan zela, ezezko bati aurre ez egitearren, ulertzen? Egitan, benetan gertatutakoa ez dakigu, ez duelako inoiz ezer kontatu, baina argi dago ezezo batengatik izan zela, erasotzaileak nahi zuen zerbaiti ezetz erantzuteagatik...

Bere alabaren izaeraren jakitun da ama, zeina elkarrizketan deskribatu digun, eta kontatzen digu “ezezko batengatik” erail zutela. Zentzu horretan, gizonak frustrazioak jasateko gaitasun ezaren ideia ekartzen digu: frustrazioak jota hil zuen neska, kasu honetan genero frustrazioen eta “klase menderatzailearen” frustrazioen intersekzioaren ondorioz; izan ere, klase hori, erasotzailea bezalako jauntxoek osatutakoa, agintzera ohituta dago.

Bestalde, 18. B-Ik agerian uzten du erasotzailearen mendeku-nahia; biktimarengandik bannandu ostean, elkarrekin duten semea mantentzeko 800 quetzal ordaindu behar ditu. Semearentzako elikadura-pentsioa hilabetero ordaindu behar izateak sortzen dion frustrazioa eta ezintasuna eraso izugarri anker batean adierazten da: hiltzat jotzeaz gain, aurpegia mutilatzen dio, eta hilda dagoela pentsatuta abandonatzen du, ezpainik eta sudurrik gabe utzita. Emakumeak, ospitalean hiru hilabete eman ondoren, Mexikora joan behar du aurpegia berreraikitzeke hainbat ebakuntza egitera. Hala ere, min bizia dauka jaten duen bakoitzean, eta azkenean erail egiten dute.

Muturreko ankerkeria islatzen du kasuak, ankerkeria instrumentala —biktima eta pentsioa ordaintzea gainetik kentzea—, baina baita eredugarria ere, daukan izaera zigortzailearengatik. Kasu honetan, erasotzaileak abokatuaren konplizitateak dauka bere alde. Abokatu dago-kion zuzenbide-eragile lanaz harago doa. Izan ere, espetxe zigor luze bat ekiditeko argudio juridiko bat aurkezteaz gain, aliantza patriarkaleko keinu klasiko batean, delitu larria egiten du: biktimaren sinadura faltsutzen du, salaketa bertan behera uztea eskatzen duen doku-



mentu batean. Kasu honetan argi ikusten dugu gizonen arteko hitzarmena praktikan jarrita, zentzu komunaren aurka; izan ere, zentzu komunak erasotzaileak gauzatutako mutilazioa aho batez gaitzestea eskatzen digu.

8. INDARKERIA INTIMOA ETA GERRA-INDARKERIA: EZBERDINTASUNAK ETA BERRELIKADURA

Feminismoan eztabaida bat eman zen hamarkada oso batez, zeinetan parte hartze aktiboa izan nuen: Genero arrazoiengatik emakumeen erailketa oro kategoria berean sartu beharko genuke? Ala merezi du kategoria zehatzak sortzea intimitatearen aurkako krimenak ez diren horientzat? Esaterako, hausnarketa honen hasierako garaian Ciudad Juarezeko emakumeen erailketa bereizgarrien kasuan. 2010ean *feminizidio* eta *femizidio* terminoak hedabideetan eta eztabaida soziojuridikoan finkatuta zeudela ulertu nuen, eta kaleko hizkuntzan ere sartzen hasi ziren genero arrazoiengatik eraildako emakumeen kasuak izendatzeko, izan krimen intimoak edo ez. Orduan proposatu nuen femigenozidio hitza (Segato 2010 eta 2011 a eta b), izendatzeko geroago elkarrizketa eta testuetan *gerraren forma berriak* deitu nuen eszenatokian gertatutako emakumeen erailketak (Segato 2016 b). Proposamen hori ez zen soilik sailkapen grinaren ondorio. Aitzitik, Ciudad Juarezi buruzko saiakeran boterearen "bereizteko borondate eza" boterearen estrategia bat zela pentsatu izan dut betidanik. Argudiatu bezala, ez da egokia estatuaren inguruko krimenak ikertzea intimitate-krimenak ikertzeko irizpide eta protokolo polizial zein juridikoekin; izan ere, bide horrek ez digu inoiz bilatzen dugun justizia emango, eta inpunitatearen amaiera ez genuke inoiz ikusiko.

Gorago azpimarratu dut garrantzitsua dela emakumeen aurkako genero-indarkeria motak sailkatzea. Horrela, bereizi egin daitezke, batetik, pertsona arteko harremanetan oinarrituta edo erasotzaileak argudio pertsonalak justifikatuta interpretatzen diren krimenak, eta bestetik, halakoak izan ezin direnak. Lan zaila da; izan ere, badirudi kontra egiten diola gu guztion usteari, alegia, emakumeen aurkako indarkeria genero-harremanen emaitza gisa ulertu behar delako ideiarri; betiere genero-indarkeria ulertuta egitura bakar gisa, ager ditzakeen forma anitzak gorabehera. Hala ere, sailkapena ezinbestekoa da ikerketa kriminalerako eta epaileek krimenak uler ditzaten. Baina bereziki, sailkatzea garrantzitsua da baldintzak sor daitezkeen krimen horietako batzuk, gutxienez, jurisdikzio bihurtzeko Giza Eskubideen nazioarteko legedian, eta preskribaezin bilakatzeko. Izan ere, hori lortzen duten feminizidioek eragin handia izango dute genero-harremanek orokorrean duten izaera biolentoa ikusarazten, eta genero-krimen guztien despribatizazioan. Horrek lagundu egingo dio zentzu komunari genero-krimenak ateratzen ezkutatu ohi diren giro intimistatik, eta halaber, lagunduko dio iruditeria kolektiboari halako krimenak pasio pribatuen unibertsoarekin ez lotzen.

Gerra tribaletatik hasi eta gizateriaren historian XX. mendera arte luzatu diren gerra konbentzionaleraino, emakumeen gorputzak, lurraldeen pare, konkista eta anexioen patuari lotuta egon dira beti, okupazio indarrek bortxaketez jositako eskualde etsaietan. Gaur egun eten bat antzeman dezakegu gerren historian, garai berrietako "gerra informalak" edo "gerraren forma berriak" deitutakoak eraldatzen doazen heinean. Gerra horietako sexu-indarkeria ez da mugatzen soldadu inbaditzaileek emakumeen gorputzak indarrez hartzera eta intseminatzerara; indarkeria horrek ankerkeria izugarriaz suntsitzen du, azken bizitza ere indarrez ebasten eta heriotzaraino hiltzen.

Ez dugu mota horretako adibiderik txertatu aztertutako kasuetan, baina gaur egun halako adibide asko daude Lationamerikan, eta gero eta gehiago dira. Kasu horiek Ciudad Juarez



90eko urteetan jazotako feminizidioen bidez ezagutu zen motari dagozkie: desagerrarazi eta geroago erail zituzten biktima horienatik ez da inor epaitu ezta zigortu ere. Ciudad Juarez-en erabili dut lehen aldiz *femigenozidio* hitza, hau da, gerra giro berrietan, kasu honetan testuinguru mafiosoan, sistematikoki ematen diren feminizidioak (Monárrez 2006, Carcedo 2010, Sagot 2013). Geroago, feminizidioa hedatu egiten da Erdialdeko Amerikan eta Mexikon. Brasil eta Kolonbia ere ezin ditugu ahaztu, aurkitutako emakumeen gorpuek ez baitira estatistika ez laburpenetan agertzen; seniderik edo izenik gabeko emakumeak dira. Krimen horiek uzten dituzten gorpuak nekez erreklamatzeko dira, eta polizia ez du haien inguruko ikerketa ildorik ezta susmagarriarik bilatzen.

Aztertutako kasuen artean ez dugu topatu feminizidio mota honen adibide izan daitekeenik, hau da, orokorrean ez dugu femigenozidiorik topatu –ezagunen arteko harremanei egotzi ezin zaiona, pertsonalizatu ezin dena, intimitateari lotuta ez dagoena, alegia–. Hala ere, ikerketan *gerraosteko indarkeriaren* adibideak identifika ditzakegu. Azken kategoria hori erabiltzen dut deskribatzeko estatu autoritario edo krimen antolatua ondo diren egungo gerra informalek emakumeen aurkako indarkeria bultzatzeko duten modua; bereziki Guatemalan 80ko urteetan jazotako Sepur Zarco kasurako egin nuen *Peritaje antropológico y de género (Antropología eta genero azterlana)* delakoaz geroztik erabiltzen dut kategoria hori (Segato 2016 d). Aipatutako gerra-testuinguruetan emakumeen aurka ematen den indarkeria izugarria ez da nekazari giro indigenatik edo hiri ingurutik gerraraino hedatzen, askotan uste bezala. Aitzitik, *eskuliburuko indarkeria* gauzatzen da, egungo gerra “feminizatu” eta “profanatzaileek” berezko dutena (Kaldor 2012); entrenamendu, baldintzapen eta estimulo sistematikoen ondorioa, eta emaitzat *programazio neurobeliko* delakoa dutena. *Programazio* hori gizartean sartzen denean gerra mota honen elementuen bidez, oso zaila da trabak jartzea. Gerra egoerak berezko duen ankerkeria giroa eta enpatia maila baxua maskulinitatearen ohituran eta hizkuntzan sartzen dira, oso modu bortitzean.

Hortaz, esan dezakegu indarkeria intimoa gero eta ugariagoa eta ankerragoa dela, Latinoamerikan hedatzen ari den gerra giroak eta estaturen inguruko kontrol sozialak hauspotzen duenean. Horrela, besteak beste, gizon-emakumeen pertsona arteko harremanek talka egiten dute ikertutako hiru herrialdeetan –Kolonbia, El Salvador eta Guatemala–, mota hauetako gerrek eragin handia izan baitute bertan. Horrela, gerra giroaren erdigunean emakumeen umilazioa ikus dezakegu; errespetuzko eta konfiantzazko harremanen haustura; komunitate loturak desagitea, zeintzuek bizitza eta senideen arteko harremanak zaintzen dituzten; eta boterea eta giro militarizatuaren berezko balio maskulinoak biziagotzea.

Mehatxu intimoko kasu harrigarriak, baina giza portaerari buruz ezarritako muga guztiak suntsitu dituzten bi gerrek markatutako giroan: El Salvadorreko estatuaren gerra errepresiboa eta *mararen* indarkeriaren hedapena El Salvadorreko 2. eta 3. B-len testuinguruak dira. Bi kasu horietan beren borondatearen aurka ezkontzeko azpikoekin hasten da erasotzaileen mehatxua. 2. B-In jazarpena ere ematen da amore ematera behartzeraino, eta familiaren oniritzia lortuta. 3. B-I protagonistak bortxaketa oso bortitza pairatzen du, eta El Salvadorren ezkontzera behartzen du horrek.

Hortik aurrera, bi kasu horiek *harreman intimoetako emakumeen sumisioaren paradigma hutsak* bihurtzen dira; “gizarte transnazional” eta “gerra osteko gizarte” izendatu ditudan testuinguruetan garatzen dira. Hain zuzen, bizitza komunitarioaren arau-baliabideak suntsituta eta desaginda dauden testuinguruez ari gara, baina oraindik ere gaurko baliabideekin ordezkatu ez direnak, baldin eta posible bada hori noizbait lortzea genero-harremanei da-



gokienez. Kasu horietako emakumeen senarrek literalki bahitzen dituzte, sentimentalki engainatzen dituzte, ondasunak kentzen dizkiete, eta emakumeek, pixkanaka, beren bizitzak, ondasunak, seme-alaben errespetua eta maitasuna ematen dizkiete haiei; 3. B-In, emakumeak erasotzailearen maskotaren ardura ere hartzen du.

3. B-lko protagonistak etengabe eta paradigmaticoki pairatzen ditu umilazioak, eta ez daki horietaz babesten. Izan ere, umilazio horiek bere interesak biltzen ez dituen unibertso bate-tik datoz: gizonen interesen unibertsoetik. Interes horiek izatearen desjabetzean oinarritzen dira: *paradigma horretan, izateko, beharrezkoa da ez-izate bat existitzea*, hau da, beste nor-baiten izaeraz jabetzeko gai izatea. Horrela, egiturari dagokionez, emakumeak dira tributu-emailearen lekua hartzen dutenak, eta ondorioz gizonen posizioa eta haien potentzia elikatuko dutenak. Paradigma-kasu gisa hartu dudana 3. B-In, tributu hau emakumeen posizioetik gizonen posiziorantz doa, bere forma guztietan: emakumeen gorputzaz jabetzetik, beren ondasunak, kreditu-txartela edota seme-alabak edo txakurrak lapurtzeraino. Gizonen posizioaren izaera osatzailea bere indar guztiarekin ageri da hemen, hasieratik desjabetzea helburu duen harreman intimo baten bidez, alegia, ezkontza bermatzeko bortxaketa ematen denetik.

3. B-lk asko harritzen gaitu, enplegua eta autonomia ekonomikoa dituelako, erdi mailako familia egituratu eta begirunetsu batetik datorrelako, eta neba-ahizpei emandako hezkuntza eta tratua berdina izan delako, nahiz eta aitak zenbait pribilegio bereizi eduki. Hala ere, egoera horrek ez dio bermatzen inolako babes edo autonomia afektiborik; hor antzeman daiteke, familia-eremua alde izan arren, erakundeen botereak aurka egin dezakeela familia-eremuak baino botere handiagoarekin. Halaber, bere kasuan, argi ikus dezaket gizonen inbidia azaleratzen. Izan ere, emakume ederra da, lanean arrakastatsua, eta 3. B-lren kontakizunaren bidez badakigu bere senar eta erasotzaile izandakoak inbidia zuela haren jatorrizko familiarekin zeukan harreman onarengatik. Inbidia hori lehenago definitu dut genero-indarkeria leherrarazteko faktore gisa. Indarkeria hasten da gizona aginduek "emakume izaera" debekatzen dutenean, zeina gai den gozatzeko, zoriontsu izateko eta bere burua errealizatzeko. Hain zuzen, gizona agindu hori bera da gizona debekatzen diena modu berean gozatea, zoriontsu izatea eta beren burua errealizatzea.

Kasuan kasuko kontakizunen engainu eta azpi-epaitze prozesuak ikustea, patriarkatuaren botere- eta desjabetze-harremanen alderdirik ukiezin eta egiturazkoena gertutik ikustea da. Oraindik ere feminismoarentzako erronka da honakoa ulertzen saiatzea: gizon batek bere emaztea, zeinarekin seme-alabak dituen, gupidagabe engainatzeko arrazoiak; edota ulertzen saiatzea zergatik emakume horrek ez dituen baliabide psikikoak eta babes-harremanak bere burua babesteko, moralki, afektiboki eta ekonomikoki menderatzen duen horretatik.

Beste aldean dauzkagu gerra egoeren biktimak, gerraren forma berriak deitu dudana, izan gerra horiek gerrillek, paramilitarrek edo estatu-eragileek eragindakoak; Kolonbiako 26. eta 28. B-lk dira horiek, eta baita El Salvadorreko 5. B-l ere, krimen antolatuen sikario eta pandillen biktima izan baita.

Gerra-indarkeriaren beste kasu bat 26. kasua da. Kasu honetan biktimak indarkeria pairatzen du Kolonbiako Choco departamenduan, gerrillaren eta paramilitarren arteko gataska armatuaren testuinguruan. 11 urte zituela bortxatu zuten FARCEko kide batzuek, eta bere ama eta beste senide batzuk erail zituzten gertatutakoa salatu zutenean. Biktimaren neba bat bortxaz errekrutatu zuen FARCEk, eta 10 urtez egon zen gerrillan, 2012an espetxeratu



zuten arte. Eskualdeko gerra-giroaren ondorioz, biktimaren familiak kolpe asko pairatu ditu, eta hainbat alditan bizilekuz aldatu behar izan du. Beste behin, 26. B-Iren kontakizunak agerian uzten du gerra aurreko ongizatea: nahiz eta autoritatetzat duen amaren aldeko aitona, adierazten du *“famiako erabakiak amak hartzen zituela beti.[...] Nire ama zen lurraren jabea, eta horregatik nire aitaordeak amak esandako guztia onartzen zuen”*. Halaber, bere lekukotzak gerraren pedagogia ankerra adierazten du, emakumeen gorputzetan iltzatutako lezioen herentzia ankerra.

Era berean, 8. B-I gerra-giroan hazten da Medellingo 8. komunan, Kolonbian, 80ko eta 90eko urteetan, narkotrafikoaren, paramilitarren eta matxinatuaren testuinguruan. Oso haurtzaro bortitza izan zuen, txirotasunak eta familia barneko sexu-abusuak markatua. Giro horretatik ihes egiten du, 14 urterekin lehen aldiz narkotrafikoari lotutako senar batek *“lagunduta”*. Senarraren inguruko eragile armatuen mehatxuaz gain, indarkeria fisikoa, psikologikoa eta ondarezkoa pairatzen du senarraren aldetik, eta seme-alabekin batera etxetik ihes egiten du hil ez dezaten. Presioak direla eta, beste behin ezkontzen da, eta bigarren senarraren *autoritarismo moral-erlijioso-erproduktiboaren* menpe geratzen da, artzain protestantea baita. Autoritarismo hori indarkeria fisiko, ekonomiko, elikadurazko, ondarezko, psikologiko, moral eta senide-alienaziozkoa bihurtzen da. Halaber, senarrak errua egozten dio emazteari bere burua biktimizatzeagatik, eta erlijio-indarkeria ere gauzatzen dio, seme-alabekin batera sermoi luzeak entzutera derrigortuta. Haurtzarotik jasandako gerra-giroagatik izan ez balitz, pairatzen dituen erasoak pentsaezinak lirakeke.

Antzekoa da Medellingo 4. B-I, 14 urterekin bortxatua, agerian uzten baitu emakumeen zaugarritasun intimoaren maila, gerra-giroak eta familiak zein senarrak gauzatutako mehatxuek indartuta. Hori guztia eragile armatuek desegindako gizartearen inposaketa da.

El Salvadorreko 5. B-Ik, eredu komunitarioa desegiteak dakarren urraketaz gain, *“zaintzaille”* bortitzak topatzen ditu. Bere bigarren bikoitekidea pandilla bateko kidea da, eta bere anaia hiltzen dute *mara* batean sartzen denean. Pandillen unibertso bortitzak indartu egiten du maskulinitatearen berezko oldarkortasuna, eta hizkuntza lehiakor eta gerrazalea. Ondorioz, bizilekuaz gain babesleku ere baden espazioa topatzeko itxaropena ezin da bete.

Hala ere, barne-gatazka baten aurretik eta ondoren emakumeen bizitzek izandako ezberdintasunak hoberen agertzen dituen kasua Guatemalako 27. B-I da. 27. B-Ik bere haurtzaroko giroaz hitz egiten du, neskato indigena zela jatorrizko familiarekin bizi zenekoa, bere komunitatean bizi, ikasi eta eskolaraino zihoan bidea lasai eta beldurrik gabe egin zezakeenean; eta, bestalde, geroagoko giroaz hitz egiten du, lehen hezkuntza bukatutakoan etxeko eta baserriko lanetan aritzen zenekoaz. Gerran zehar bere bizitza aldatu egin zen; 22 urte zituela bere amaren aurrean bortxatu zuen soldadu batek, haren aita atzeman ezin izan zutelako. Metodo hori gerra informal garaikideen *“feminizazioa”*ren parte da, eta senide bat bere famiako emakumeren baten bidez zigortzean datza. Hortik aurrera, gerra aurreko genero-harremanen giroa guztiz aldatzen da, eta hala berresten dute Sepur Zarco kasuan aditu gisa parte hartu nuenean entzun nituen emakumeek. Kasu horretan Izabal eskualdeko hainbat emakume *q’eqchi’* maya sexualki esklabizatu zituzten gizonak epaitu zituzten.

Gerrak muga bat marrazten du emakumeen ahultasunaren aurretik eta ondoren, biktimen aho batezko kontakizunean. Gerraren ostean, emakume eta gizonen arteko ezberdintasunak indartzen dira, eta emakumeek balioa eta errespetua galtzen dute, etxean zein kalean. Kasu honek erakusten du emakumeek eta, orokorrean, bizitzak, balioa galtzen dutela gerra in-



formalaren ondorioz eta araurik gabeko indarkeriaren ondorioz. Bakea, zentzu horretan, ez da inoiz berreskuratzen. Ez behintzat bizitzari eta komunitate barneko konfiantzari balioa itzultzeko lanketa zehatzik egin gabe, jada ezarrita dagoelako distantzia, konfiantza falta eta bizitzarekiko mespretxua.

Zentzu horretan aipatu behar ditugu, halaber, gerrako sexu-indarkeriaren biktimak, *salbuespen estatuaren* agenteek bortxatuak. Hain zuzen, estatuak bere inguruko metodoak eskaintzen ditu, parentesi edo linbo legal batean daudenak, hau da, legeak barne hartzen dituenak; hori da 23. B-I euskaldunaren kasua. Espainiako Estatuaren lege antiterroristaren bidez, "legalki" atxilotu zuten 23. B-Iko emakumea, militante abertzale euskaldunekin egin ohi den moduan. "Salbuespen" lege horren bidez estatuak pertsonak bahitu ditzake bost egunez, beren kokapenari buruzko berririk eman gabe. Denbora tarte horretan, atxilotuak bahitzaileen menpe geratzen dira. Bahitzaileak estatu-agenteak dira, eta modu para-estatalean jarduten dira lege antiterroristak ematen dizkien "salbuespen eskubideen" babespean. Benetako linbo legala da, non emakumeenganako tratuak ezaugarri zehatzak dituen genero desorekak direla eta. Aurreikusi bezala, Estatuaren albuespen kasu tipikoa dugu hau; antzeko kasuak landu dituzte Giorgio Agambenek Karl Schmidt berrikusiz (2004), eta Eugenio Raul Zaffaronik Gunter Jacobs jurista aleman garaikidearen irakurketa kritikoa bidez (2006).

"Atxilotutako emakumeek pairatzen dituzten erasoen ezaugarri jakinak askoz ere lotuago daude beren "emakumetasunarekin": beren gorputzei buruzko irainak, kosifikazioa, eta bortxaketa edo sexu-abusu mehatxuak".

Sexu-menderakuntzazko egoera da; halako testuinguruetan ematen den sexu-erasoa alegia, mendekotasun, zapalkuntza moral eta eraiketa sinboliko gisa.

"Uste dut bere helburua zela ni guztiz deuseztatzea, geroagoko babesgabetasun sentimendu horrekin... Esan nahi dut, haiek etengabe errepikatzen zidaten, "nahi duguna egin ahal dizugu eta ez zaigu ezer gertatuko... Hori argi izan ezazu, inpunitate osoa daukagu". Inor ez dela laguntzera etorriko, oihukatu arren, negar egin arren, nahi badute bortxatu ahal zaituztela eta doan aterako zaiela... Ideia hori, salduta zaudelako ideia, buruan iltzatzen dizute, etengabe errepikatzen dizute."

Kasu honetan nabarmena da inpunitate osoz bortxatzeko ahalmena, jurisdikzioaren kontrol osoaren adierazle gisa.

"Oraindik ere sentitzen dut, neurri batean, nire bizitza epaile putakume baten menpe dagoela. Agian oraingoan gorazarre egiteagatik, ezta? Gizon honek erabakiko du espetxera joango naizen ala ez... Sentimendu hori daukazu, nahiz eta zuk autonomia izan nahi duzun, zure bizitza kontrolatzen dutelako sentipena duzu. [...] Lasaiago bizi zara, baina ez ezazu ahaztu hemen gaudela. Tratu txarrak jasotzen dituen emakume bat bezala, senarra arduratzen da emakumea gogoratu dadin bera hor dagoela, gauza bera da... Eta gizon batek, emaztea jotzen duenean, badaki ez diola ondorio larririk ekarriko, gauza bera da... [...] Hemen ere, babestuta egon nahi baduzu zoaz Kongora bizitzera, badakizulako hemen polizia daudela. Mehatxu horrek hor, egunero jarraitzen duen adierazlea da... Eta gero jendea nola atxilotzen duten ikustea, nola inkomunikatzen duten, halako frustrazio bat, ikusten duzulako gertatzen dela... Eta nik ezin dut ezer egin..."

Lurralde-burujabetza zein burujabetza moralaren diskurtsoan txertatuta dago ideia hori; alegia, biktimaren bizitza kontrolatzeko sexualki kontrolatzea.



“Adibidez, niri beldur handiagoa ematen dit bortxatua izateak, norbaitek niri burua ebakitzeak baino... Ikasi dudan zerbait da, eh? Niri bai... Ez dauka zentzu handirik, baina... Agian eskemagatik da. Agian... Jotzea hobeto biziko nuke... Zeren nik nire sexualitatearekin badaukat halako zerbait... Bai, nire eskeman, kontziente izan gabe ere, urrats bat gehiago dela iruditzen zait. Adibidez, lekukotza bat topatzean eta bortxatua izan denean, jo izan balute baino gehiago hunkitzen nau. Ni ere horrek gehiago hunkitzen nau... Zeren jada ez dakit... Ziur asko...[...] Txikitatik bortxatuak izan ez gaitzean hezten gaituzte...”

9. ERASOTZAILEEN MUNDUAZ ETA MENTALITATEAZ GEHIAGO JAKITEKO ETA HOBETO ULERTZEKO BEHARRA ETA GARRANTZIA

Erasotzaileez hitz egiten da, baina ezer gutxi ikertzen da haiei buruz, eta beren interesak, baldintzak eta egoerak ez dira batere argi geratzen.

Informazio gabezia hori kasu guztietan antzeman dezakegu. Hortaz, genero-indarkeria suntsitzeko, argi dago zigor-konponbide ahularen estrategia gainditzeko beharrezkoa dela hain biolentoak diren gizon horien iruditeria ezagutzea, edozein dela ere indarkeria mota. Erasotzaileen ekintzen ondorioak soilik ezagutu eta interpretatu ditzakegu, zentzu instrumentalean, eta batez ere, defendatu dudan bezala, zentzu adierazkorrean; hala ondorioztatu nuen Brasiliako espetxean sexu-erasoengatik zigortutako hainbat presoren lekukotzen bidez. Hala ere, ezinbestekoa da antzeko ikerketa gehiago egitea. Beharrezkoa da gehiago ikertzea emakumeen biktimizazioa produzitu eta erreproduzitzen duen eragileari buruz, eta emakumeen zaurgarritasuna sortzen duten modu anitzei buruz. Horrela, arazoa konpontzeko espetxeratzearen gisako konponbide trakets, ez-eraginkor eta zekena gainditu dezaketen konponbideak aurkituko ditugu.

Ikerketa horren galdera gidaria honakoa litzateke: Erasotzaile subjektuan, nola eragiten diete elkarri gozamen, min eta botere esperientziek? Kasu honetan, erasotuaren gorputzaren menderakuntzatik bere familiaren, komunitatearen eta herriaren menderakuntzaraino hedatzen den botereaz ari gara, gerra eta patriarkatuaren arteko lotura zaharrek markatutako unibertso batean.

18. B-lk argi erakusten du informazio adierazgarri horren gabezia, honakoak baitira elkarriketan erasotzaileari buruz emandako datuak:

ERASOTZAILEARI BURUZ

1. Izena: *Eswin Esteban López Bran*
2. Adina: *31 urte*
3. Familia-egoera: *N/a*
4. Ikasketa maila: *N/R*
5. Gaur egungo bizilekua: *Espetxea*
6. Ogibidea: *N/a*
7. Lantokia, enplegu bat baino gehiago ala bestelako diru-sarrerak dituen: *N/A*
8. Elkarrekin dituztenez gain, seme-alaba gehiago dituen: *Ez*
9. Erljioa: *katolikoa*
10. Antolakunderen batean parte hartzen du (komunitarioa, politikoa, edo bestelakoa): *N/R*

Kasu honek agerian uzten du gehiago jakiteko beharra, egoerak hobeto ulertze aldera. 18. B-lko protagonistak jasan zuen ankerkeria dela eta, oso garrantzitsua da erasotzaileak eragile armatuekin duen gertutasunari buruzko datuak izatea, izan garai autoritarioko datuak



zein gerra-garai informalekoak, zeina pandillek eta bestelako talde-armatuek sorrarazi duten eta gerraostean hasita gaur egun arte irauten duen.

10. INTERSEKZIONALITATEAK

Ikerketako hainbat kasu adibideak ematen dituzte interseksionalitateen gaiari heltzeko. Kasu horietako bat 15. B-Iko ezkontza da: neska *payoa* eta mutil ijitoaren arteko ezkontza. Arraza eta etnia arteko ezkontza da, non ohikoak diren senarraren aldetik tratatu txarrak, era-oso fisiko larriak, lan egiteko debekua, bakartzea, irainak, zigorrak eta mehatxuak.

“...Asko mespretxatu naute betidanik, komatxo artean... Payoek ijitoekiko duten arrazakeria bera... Ijitoek arrazakeria handia dute payoekiko... Orduan... Ni payoa izanda haien etxean sartzea ez zitzaien gustatu. Eta beti zegoen... Ba halako mespretxu bat, bere anai-arreben edo gurasoen aldetik... Egia da ezin dudala esan nire aita-amaginarrebek edo senarraren anai-arrebek tratatu txarrak eman zizkidatela... Baina familia osoa izan zen nire tratatu txarren konplize... Eta, areago, batzuetan lekuko ere izan ziren, batzuetan familiaren aurrean jo izan nauelako...”

Arraza artekoa dela diogu ijitoek, literalki, *bestelako gizatasun* batekoak diren pertzepzioa dutelako. Aldiz, etnia artekoa dela diogu *kultura-ezberdintasuna* dela eta, hau da, *arau, balio eta mundu-ikusker*a ezberdinak daudelako ijito eta *payoen* artean. Kasu hau hiru dimentsioko interseksionalitatearen adibidea da, tirabiren ondorioz, ezkonbizitzako genero ezberdintasunak larriagotzen direlako. Hau da, gatazka zailtzen dute ijitoek *payoekiko* duten arraza-erresuminak eta etnia-bazterkeriak.

Halaber, interseksionalitate kasua da 14. B-Iko feminizidio atsekabetsua, non mediku batek erizaintza ikasle bat hiltzen duen. Biktimaren amak justizia bilatzeko egiten duen bidean, klase-ezberdintasunak eta erasotzailearen eta biktimaren arteko hezkuntza-mailak genero-ezberdintasuna larriagotzen dute. Era berean, erasotzailearen eta biktimaren familiek gizartearen eta epaileen aurrean agertzen dituzten ezberdintasunek ere larriagotzen dute egoera. Beste behin ere, 21. B-In bezala, epai bidegabekoa eta zigor arinegia ebatzi ziren feminizidio anker honentzat. Hori eragin zuten genero-posizioen inguruko sinesmen intimoek, eta sinesmen horiek biziagotu zituzten, batetik “heziak” edo “prestigio sozialdunak” eta bestetik “txiro ezjakinak” ezberdintzen dituen pertzepzioak, “ongia” eta “egia” gorpuzteko ahalmen erlatiboa duten aldetik. *“Nafarroan egindako elkarrizketa batzuetan epaimahaiko tipo batek esan zuen ‘mutilak pena’ ematen ziola”.*

22. B-I ezkontzera behartu zuten emakume marokoarra dugu. Kasu honetan genero-menderatzeari alderdi erlijioso gehitu behar zaio; bere senarra ere marokoarra da, eta bera baino erlijiosoagoa:

“... Asko sufritu dut berarekin. Nik egiten nuen guztia berarentzat anormala zen. Marokoar eta musulman izateari utzi diozu. Zuk espainiarrek bezala bizi nahi duzu, ez dakit zer... Jotzen nin-duen, eta arropa asko apurtu dit... Oso gaizki pasa dut”

“Orain ez daukat lagun askorik... Harreman gutxi dauzkat, lehen ez bezala [...] Nire senarra halakoa da... Oso moroa da”

“Zapiarengatik gerra bat hasten dugu, arroparengatik ere gerra... Lehengusuei muxu ematea debekatuta...”



Gainera, etxeko langile aritzen den aldetik, bere lanak duen genero alderdia larriagotu egi-ten du bere nagusiaren *arrazakeriak* eta *xenofobiak*.

Erlijio-bazterkeriarengatik larriagotzea: Iraneko 10. B-I emakumea ezkontzera derrigortzen dute familia musulman ortodoxo batean. Bera ez da ortodoxoa, eta ondorioz *jazarpena* eta *genero arrazoiengatiko familia barneko erlijio-indarkeria* eta *erakunde- zein estatu-indarkeria pairatzen ditu* (homofobia bere aurka eta, geroago, bere semearen aurka).

3. B-I ere interseksionalitatea hauteman dezakegu. Izan ere, elkarren artean identifikatzen ez diren bi erlijio-komunitateren arteko bizimodu gatazka azaleratzen da: neskaren familia katolikoa da, eta erasotzailearena ebangelikoa.

Iraneko 10. B-I ere interseksionalitateak larriagotzen du. Hain zuzen, etorkina, kanpotarra eta musulmana den heinean, bere kasuan elkar gurutzatzen dira generoa, sexu-orientazioa eta etnia-, arraza- eta hizkuntza-egoera. Horrela iristen da Espainiara, gaztelaniarik jakin gabe eta guztiz arrotza zaion ingurune sozial eta instituzional batean galduta. Halaber, 22. B-Ik bidea ireki behar du Euskal Herrian. Marokokoa da, eta bi aldiz zapaldua izan da; batetik, bere laneko nagusiaren arrazakeria eta xenofobiaren interseksio anitzen bidez, eta bestetik, senar musulmanaren ortodoxia erlijiosoaren bidez; hori guztia, emakume izaerari gehituta.

Interseksionalitate deitzen dugun hori -estigma eta traba multzoa, alegia-, larriago ageri da 11. B-In. Izan ere, pertsona transexuala da, eta bazterkeria esplizitua zein zeharkakoa pairatzen du aktibismoaren bidez gay eta lesbianen antolakundeetan sartzen saiatzen denean.

24. B-In nabarmen geratzen da pertsona txiro eta ez-zuriekiko dagoen susmo txarra eta kriminalizazioa, aurreiritzietan oinarritutakoa. Hori guztia abortu akusazioari gehitzen zaio, eta bestelako astungarriak gehitzen zaizkio: abortatutako haurra intzestuen ondorio izan dela batere arrazoirik gabe susmatzea. Zergatik?:

“Galdetzen zidan ea nire aita nire alabaren aita ere bazen. Nik ezetz eta ezetz esaten nion”

Frogatu zen intzestua ez zela: pertsona ahularekiko zalantza morala, indarkeria morala, eta birbiktimizazioa, bere egoerarekiko aurreiritzietan oinarrituta. Justizian, oinarritzko zalantza-benefizioa ez da existitzen horrelako egoeretan.

Halaber, interseksionalitatea hautematen dugu abertzale euskaldunen atxilotetetan: linbo juridiko batean atxilotzen dituzte, lege antiterrorista euskaldunak segurtasun indarrei emandako salbuespeneko testuinguruan. Kasu horietan, 23. B-In bezala, gurutzatu eta gehitzen dira, batetik, atxilotuei emandako tratua, eta bestetik, emakume izaera. Biak ala biak larriagotzen dira abusuzko tratua sexuala dela eta, eta emakume izateagatik “legalki” ematen den tortura sexualagatik.

11. POLITIZAZIOA, KONPONBIDE ETA SENDABIDE GISA

Politizazio ideia honako esanahiarekin erabiltzen dut hemen: esperientzia pertsonal bat *polisaren* arazo bihurtzea, *kolektibo sozialaren* zentzu zabalean, eta arazo horri konponbidea bilatzea arazo kolektibo -eta ez indibidual- balitz bezala. Aztertutako kasuetan nabarmena da *politizazioa*, emandako definizioarekin, prozesu terapeutiko ezinbestekoa dela erasoak eragindako minari aurre egiteko. Gaitzak sozializatzea, alegia, kolektiboki pentsatzen



ikastea, ongintzako prozesua da. Izan ere, subjektua bere sufrimendutik aldentzen du, eta laguntzen dio ulertzen sufrimendu hori subjektu handiago batena dela, bere indibidualtasun propioa baino indartsuagoa dena. Subjektua bere buruaz harago doa subjektu kolektibo baten parte dela hautemateko. Horrela, bere zauriaz harago ere badoa, eta horrekin batera, hori partekatzen duen unean, itxaropena sortzen da eta mina arintzen da. Horregatik, posible da politizazioaren bidez trauma gainditzea. *Besteen* interesa kontuan hartzean traumak inposatutako bakardadea arintzen da, eta bizitzaren zentzua berreskuratzen: erasotzaileek eragindako mina eta trauma gainditzeko bidea da besteentzat eta besteengatik bizitzen jakitea.

Honen harira *amatasunaren politizazioa* nabarmendu daiteke, hau da, biktimen amek bere gain hartzen duten rol politikoa. 21. B-Ik nazioarteko erakundeen bidez kalte-ordainak eskatu ditu orain, Espainiako Estatuak ez zuelako lagundu eskatu zuenean bera eta alaba senar ohiarengandik babesteko. Orain Estatuari aitortza eskatzen dio, baina oraindik ez du lortu, nahiz eta Nazio Batuen Emakumeen Kontrako Diskriminazioa Ezabatzeke Batzordeak (CEDAW batzordea) oso akats larritzat jo zuen, bere alabaren feminizidioa ondorio izan baitzuen.

14. B-Ik ere oso akats larria eta mingarria izan zuen ondorio, alabaren feminizidioagatik bidezko epai baten alde borroka egin zuelako, lortu gabe. Ama honen kasua genero ezberdintasunak eta klase edo hezkuntza-mailaren desoreken interseksionalitateak markatu du. Bere ustez, politizazioak eta kolektibizazioak irakasten digute guztiok berdinak garela; bestalde, bere bizitzari zentzua ematen diona gizartea horrelako gertaeren inguruan informatzea eta ohartaraztea dela esaten du. Eskoletan eta bestelako erakundeetan bere kasuaren inguruko dokumental bat aurkezteko etengabeko ahaleginaz ere mintzatzen da:

...Garrantzitsua da haurrek hori ikustea, errealtatea ikustea... Ikus dezatela... Lantzea eta horren inguruan hitz egitea... Nire alabari gertatu zitzaionak balio badu norbaitek pentsa dezan, ikus dezan... Konturatu dadin guztiok berdinak garela, eta koldarkeriagatik ezin duzula inor hil...

Horrekin batera, feminizidioak bizi izan dituzten familietan gertatu ohi dena narbarmentzen du: senarrari ez dio modu berean axola justiziak, edo beste norbaiti gertatzea ekiditea; “*axola dion gauza bakarra alaba galdu duela da*”, “*munduak ez dio axola*”.

“...Gero, ba... Ibilbide guztia ikusten duzu eta pentsatzen duzu, ba agian besteren bat baino indartsuagoa naiz, oraindik ere hemen baldin banago [...]... Begira nire senarra, den modukoa izanda, eta agian zentzu horretan ahulagoa da zeren ez da gai gauza batzuetarako... Eta esan bezala... Nagore norbaitek maite bazuen bera zen... Edo munduak ez dio axola, soilik berak alaba galdu duela, eta besteak, ba... Ez dakit, ez daukat ideiarik ere, ez dugulako hitz egiten... Ez dugu Nagoreri buruz inoiz hitz egiten. Berarekin inoiz (hunkituta)

[...] Gustatuko litzaidake... Jakina, nik badakit bera nolakoa den... Zer esango duen... Badakit bera nolakoa den... Eta Malagako nire lagunek esan zidaten, aizu, Nagore aipatu du... Beraz, beno, zer edo zer aurreratzen ari gara, haien artean hizketan zebiltzan eta aipatu egin zuen, zer edo zer aurreratzen ari da, baina gutxi, oso gutxi... Ezberdina da... Ni ziur nago J.-ri zerbait gertatu izan balitzaio eta borrokatu beharko bagenu lasai egongo nintzatekeela Nagore hor izango nukeelako, bere izaeragatik, badakizu? Zeren Nagore ezagutzen duen guztiek dakite... Baina gizonak ezberdinak dira... Jendearekin gehiago estutzen dira, dena iruditzen zaie... Ulertzen?”

Sufrimenduaren deskribapen hutsak ez du irtenbiderik ematen, berez esperientzia komunikaiezina da (emakumeen kexari entzungor egiten zaio), eta are okerrago: errepikatu ahala



kontakizuna naturalizatzen da, ohitura-efektu bat dago. Gertakarien analisi objektiboa da balio duena... Argudio moralak ere ez du indarririk: hori ez litzateke gertatu behar, eta egiatan ez ditu gerrak geldiarazten; bereziki gerraren forma berriak, dakarten guztiarekin.

18. B-Iren kasua ere bada hori: senar ohiak aurpegia desitxuratzen dio, eta hiltzat jo ostean abandonatzen du. Geroago hiltzen du, eta feminizidioa ez da oraindik argitu. Bere ama eten-gabeko borrokan ari da justizia lortzeko.

Denbora hartzen du egoera ulertzeak. Ez da bat-batean gertatzen. Berriz ere kolektiboki pentsatzen ikasteak osasun mentala berreskuratzea dakar. Hala ere, ez da nahikoa: komunitatea berreraiki behar da, eta arazo kolektibo baten parte sentitu, arazoaren konponbidea ere kolektiboki eta historikoki pentsatu behar delako.

8. B-In ikus dezakegu sendatzeko oso garrantzitsua dela kolektibo aktibistetan eta formakuntzetan parte hartzea, edota idazketa lantzea.

Medellingo 13. komunan paramilitarren biktima izandako 25. B-Ik hala dio: "Benetako ordaina izango litzateke aitortzea ni ez naizela bakarra, emakume asko garela".

El Salvadorreko 5. B-I bortxaketaren biktima izan zen, eta nabarmentzen du garrantzitsua dela bere aurkako indarkeria identifikatzea erru-sentimendutik askatzeko. Biktima gisa aitortu dezatela, alegia. Guatemalako 16. B-Irekin ere gauza bera gertatzen da: haurra zela bortxatu zuten, eta garai hartan ez zen gai gertatutakoa salatzen.

Guatemalako 27. B-Ik azaltzen du antolakundeak garrantzitsuak izan direla bera bezalako amak —errepresio garaian bortxaketen ondorioz haurdun geratuak— eta berea bezalako haurrak ezagutzeko, eta horrela semeak eta berak Estatuari minaren ordaina eskatzeko.

11. B-In ere oinarrizkoa da aktibismoa, duintasuna eta bere buruarekiko burujabetza osoa berreskuratzen. Emakume transexual espainiar honek GIBa dauka, eta eskola, etxea eta herria uzten ditu pairatzen duen jazarpen eta indarkeriagatik. Jaioterritik hirira doa bere sexualitatea eta genero-nortasuna aske bizi ahal izateko, eta sexu-langile aritzen da bizirauteko, gaixotasuna hartu arte. Oso atsegina da garaipenaren definizioa femenino bat -hau da, gatazken konponbidearen definizioa- aurkitzea gaur egun aktibista ezaguna denaren ahotan:

"...emakumeok beste modu batean agindu behar dugu, tratatu onez, eta inoiz ez irabazi, baizik eta arerioarekin berdintzen saiatu. Irabaziko dutela diotenek minez galtzen duen beste norbait uzten dute; hortaz, ez duzu konbentzitu, gaur irabazi duzu baina bihar galdu dezakezu. Berdintzea lortzen baduzu, betirako zerbait lortu duzu."

Halakoa da 23. B-I, abertzale euskaldunarena. Kasu horretan ere nabarmena da bere sufrimenduaren kolektibizazioa, atxilotzean salbuespeneko lege antiterrorista ezarri eta hiru egunez desagerrarazten dutenean, eta geroago bi urtez espetxeratzen dutenean. Bide terapeutikoaren inguruko zenbait ideia azaltzen dira bere elkarrizketan:

"Adibidez, babes kolektiboa, beste emakumeekin gaiaz hitz egin ahal izatea... Entzuna izateko beharra, batez ere gauza bera pairatu duten pertsonekin, hobeto ulertu dezaket horiekin. Kolektibo baten parte sentitzea eta erasoak testuinguruan kokatu ahal izatea. Ez zait soilik niri gertatzen horrelakoa izateagatik... Testuinguru politiko jakin batekin lotuta dago."



12. BIBLIOGRAFIA

- Agamben, Giorgio . *Estado de Excepción (homo sacer II, 1)*. Valentzia: re-Textos.
- Carcedo, Ana (koord.) 2010. *No olvidamos ni aceptamos: Femicidio en Centroamérica 2000-2006*. San Jose (Costa Rica): CEFEMINA eta Horizons.
- Estupiñán Valencia, Danelly 2016 *Victimas del Desarrollo. Comunidades Afro Urbanas, Desarrollo y Dinámicas de Resistencia en Buenaventura*, talde etnikoetako feminizidioei buruzko Nazioarteko Foroan egindako aurkezpena, apirilak 25-28, Buenaventura, Valle del Cauca, Kolonbia
- Gutiérrez, Margarita eta Nellys Palomo 1999 "Autonomia con Mirada de Mujer", hemendik hartuta: Burguete Cal eta Mayor, Aracely (koord.) *MÉXICO: Experiencias de Autonomia Indígena*. Guatemala eta Copenhague: IWGIA (Grupo Internacional de Trabajo sobre Asuntos Indígenas), 54-86. or.
- Hernández Castillo, Rosalva Aída 2003 "Re-pensar el multiculturalismo desde el género. Las luchas por el reconocimiento cultural y los feminismos de la diversidad", hemendik hartuta: *La Ventana. Revista de estudios de género*, Mexiko, Universidad de Guadalajara, 18. zk., 7-39 or.
- Hernández, Rosalva Aída eta María Teresa Sierra 2005 "Repensar los derechos colectivos desde el género: Aportes de las mujeres indígenas al debate de la autonomía". Hemendik hartuta: Sánchez, Martha (edit.): *La Doble Mirada: Luchas y Experiencias de las Mujeres Indígenas de América latina*. Mexiko Hiria: UNIFEM / ILSB
- Kaldor, Mary 2012 *New and Old Wars. Organized Violence in a Global Era*. Cambridge: Polity Press
- Lugones, María 2007 "Heterosexualism and the Colonial / Modern Gender System" *Hypatia* 22. bol., 1. zk., Winter, 186 -209 or.
- Mohanty, Chandra Talpade 1994 "Under Western Eyes: feminist Scholarship and Colonial Discourses", hemendik hartuta: Williams, Patrick eta Laura Chrisman (edit.): *Colonial Discourse and Post-Colonial Theory. A Reader*. New York: Columbia University Press.
- Monárrez Julia 2006 "Las diversas representaciones del feminicidio y los asesinatos de mujeres en Ciudad Juárez, 1993-2005". Hemendik hartuta: *Sistema Socioeconómico y Geo-referencial sobre la Violencia de Género en Ciudad Juárez*, II bol., Ciudad Juárez, Chihuahua: El Colegio de la Frontera Norte y Comisión para Prevenir y Erradicar la Violencia Contra las Mujeres en Ciudad Juárez
- Lobato, Josefina Pimenta 2012 *Antropología do amor: do Oriente ao Ocidente*. Belo Horizonte: Autêntica Editora.
- Lugones, María 2007 "Heterosexualism and the Colonial / Modern Gender System" *Hypatia* 22. bol., 1. zk., Winter, 186 -209 or.
- Oyewumi, Oyeronke 1997 *The Invention of Women. Making an African Sense of Western Gender Discourses*. Minneapolis: University of Minnesota Press.
- Paredes, Julieta 2010 *Hilando fino desde el feminismo comunitario*. La Paz: CEDEC eta Mujeres Creando Comunidad (3. edizioa)



Pateman, Carole 1995 *El contrato sexual*, Barcelona eta Mexiko: Anthropos/UNAM,

Quijano, Aníbal 1992 "'Raza', 'Etnia' y 'Nación', hemendik hartuta: Mariátegui: Cuestiones Abiertas", hemendik hartuta: *José Carlos Mariátegui y Europa: La Otra Cara del Descubrimiento*. Lima: ediciones AMAUTA.

Sagot, Montserrat 2013 "El femicidio como necropolítica en Centroamérica", hemendik hartuta: *labrys, études féministes/ estudios feministas*, juillet / décembre 2013 -julho / dezembro 2013

Segato, Rita Laura 2003 (2013, 2. ed.) *Las Estructuras Elementales de la Violencia*. Buenos Aires: Prometeo.

_ 2006 "Antropologia e Direitos Humanos: Alteridade e Ética no movimento de expansão dos direitos universais", *Mana* (Rio de Janeiro), 12. bol., 207 – 236 or.

_ 2007 "¿Qué es un feminicidio?", hemendik hartuta: Marisa Belausteguigoitia eta Lucía Melgar [koord.]: *Fronteras, violencia, justicia: nuevos discursos*. Mexiko Hiria: Programa Universitario de Estudios de Género, UNAM/Fondo de Desarrollo de las Naciones Unidas para la Mujer (UNIFEM).

_ 2010 "El derecho a nombrar el sufrimiento en el Derecho», hemendik hartuta: Dalila Polack eta Leandro Despouy (konp.): *Voces y silencios de la discriminación*. Buenos Aires: Asamblea Permanente por los Derechos Humanos (APDH), Agencia Española de Cooperación Internacional para el Desarrollo (AECID) eta Relatoría Especial sobre independencia de jueces y abogados.

_ 2011 a "Femi-geno-cidio como crimen en el fuero internacional de los Derechos Humanos: el derecho a nombrar el sufrimiento en el derecho", hemendik hartuta: Rosa Linda Fregoso eta Cynthia Bejarano (edit.), *Feminicidio en América Latina*. Mexiko Hiria: UNAM-CIIECH / Red de Investigadoras por la Vida y la Libertad de las Mujeres,

_ 2011 b "Femigenocidio y feminicidio: una propuesta de tipificación", *Revista Herramienta* 49. zk.,

<http://www.herramienta.com.ar/revista-herramienta-n-49/femigenocidio-y-feminicidio-unapropuesta-de-tipificacion>

_ 2015 a "Género y colonialidad: del patriarcado comunitario de baja intensidad al patriarcado colonial moderno de alta intensidad", hemendik hartuta: *La Crítica de la Colonialidad en Ocho Ensayos y una Antropología por Demanda*. Buenos Aires: Prometeo

__ 2015 b "El sexo y la Norma: frente estatal-empresarial-mediático-cristiano", hemendik hartuta: *La Crítica de la Colonialidad en Ocho Ensayos y una Antropología por Demanda*. Buenos Aires: Prometeo

_ 2016 a "Salvar la Nación", hemendik hartuta: *Revista Posteo*, 1. zk., Fotografías de la marcha de mujeres del 19 de octubre en Rosario y Buenos Aires, Argentina (hemendik hartuta: *Página/12 :: Sociedad :: Miércoles negro*. Buenos Aires: Asteazkena, urriak 19, 2. or.)

_ 2016 b "Introducción", hemendik hartuta: *La Guerra contra las Mujeres*. Madril: Traficantes de Sueños.

_ 2016 c "Patriarcado: Del borde al centro. Disciplinamiento, territorialidad y crueldad en



la fase apocalíptica del capital”, hemendik hartuta: *La Guerra contra las Mujeres*. Madrid: Traficantes de Sueños.

_ 2016 d *Peritaje Antropológico Cultural de Género Dra. Rita Segato al presentar peritaje ante el Tribunal A de Mayor Riesgo, #JuicioSepurZarco*. 1. zatia: http://mx.ivoox.com/es/juiciosepurzarco-parte1-peritaje-antropologico-cultural-genero-audios-mp3_rf_10549052_1.html

2. zatia: http://mx.ivoox.com/es/juiciosepurzarco-parte2-peritaje-antropologico-cultural-genero-audios-mp3_rf_10548803_1.html

3. zatia: http://mx.ivoox.com/es/juiciosepurzarco-parte3-peritaje-antropologico-cultural-genero-audios-mp3_rf_10491443_1.html. Guatemalako Hiria: Mujeres Transformando el Mundo – MTM <http://www.muje restransformandoelmundo.org/es/articulo/todo-del-juicio-sepur-zarco-en-audio>

Zaffaroni, Eugenio Raúl 2006. *El Enemigo en el Derecho Penal*. Buenos Aires: Dykinson



5. KAPITULUA

Dimentsio
ekonomikoa



MIRIAM ALONSO DE LECIÑANA MEDIAVILLA

Ekonomia Feministako ikertzailea eta irakaslea da. Diziplina arteko Genero Ikasketak (Madrilgo Unibertsitate Autonomoa) eta Ekonomia Sozial eta Solidarioa (Euskal Herriko Unibertsitatea) Masterrak egin ditu. Eskarmentu handia du indarkeria matxistei aurre egiten ari diren emakumeen esku-hartze psikosozialean. Bere ikerketa ildoen artean dago emakumeen eskubide sozioekonomikoen urraketak aztertzea gizarte heteropatriarkal kapitalistetan. Stop.femicidio (Madril) eta Aciab Elkarte Iberoamerikarrean (Venezuela-Ekuador-Espainiako Estatuak) parte hartu izan du. Azken honetan ardura zuen eragin politiko eta kultureleko jarretan feminismoa zeharka txertatzen. Gaur egun Bilboko *Sare lesbianistako* militantea da. Erotasunera ohitua, salbazio bide gisa aukeratu du istorio moreak jostea eta heteropatriarkatu kapitalistaren aurka konspiratzea; izan ere, ondo daki gero eta gutxiago falta zaiola heteropatriarkatuari desagertzeko.

QUIMY DE LEÓN

Historialaria, ikertzaile soziala eta argazkilaria da. Colibrí Zurdo ikerketa taldean eta Guatemalako Prensa Comunitaria komunikabide digitalean parte hartzen du. Bere lana, funtsean, megaproiektuek ikuspegi feministatik bizitza komunitarioan eta memoria historikoan duten eragina du ardatz. Eskarmentua du Gizarte Ikerketan eta Historian: UNAMeko (Mexiko) Latinoamerika eta Kariberi buruzko Ikerketa Zentroan egindako proiektu batean elkarlanean aritu da, eta parte hartu du “Emakume-antolakundetan antolatutako emakumeak: Aurrerapenak, lorpenak eta mugak haien lanean, genero, osasun, ekonomia-alternatiba eta emakumeen herritartasuneko formakuntzaren ondorioz” proiektuan ere. Ezagutza feministari egindako ekarpena Guatemalatik, Patricia Castañeda doktorearen laguntza tarteko (Mexiko).

MARTA KARINA FUENTES KEMP

Kazetaritza komunitarioa, feminista eta autonomoa egiten du Guatemalako Prensa Comunitaria albiste-agentzian. Canek Ekoiztetxean parte hartzen du. Haren bidez, ikuspuntu sozialeko dokumentalak egiten dituzte Guatemalan eta Kuban; azken hau oso ondo ezagutzen duen irla da, 17 urtez bertan bizi izan baita.

YOLANDA JUBETO RUIZ (KOORD.)

Ekonomia doktorea eta Ekonomia Aplikatua I Saileko irakaste Atxikia da EHUko Ekonomia eta Enpresa Fakultatean, eta nazioarteko ekonomia eta garapen-ekonomia ditu aztergai. Irakasle da zenbait masterretan, ekonomia feminista edo genero ikuspegiko aurrekontuen inguruan. Udako Euskal Unibertsitatean (UEU) ere parte hartu ohi du. Bertan euskal ekonomiarekin lotutako ikastaroak eman izan ditu. Halaber, Nazioarteko Lankidetzeta eta Garapenari Buruzko Ikasketa Institutuan (Hegoa) ere parte hartzen du. Espainiako Estatuan egindako Ekonomia Feministako Kongresuak antolatzen ere parte hartu du. Aipatutako gaien inguruko artikulak argitaratu ditu eta ikerketa proiektuetan ere aritu da, batez ere ikuspegi feministako aurrekontu publikoen, Giza Garapenaren eta Ekonomia Sozial eta Solidarioaren inguruan.



*Izan ginen sorgin
Sortu genituen aditz matxinoak
Eta dantzatu ginen musikarik entzun gabe.
Edabeei eragin genien, itzuliko zizkigutenak
Ahotsa, oinak, hegoak.*

Olaia Castro Hernández

*Kaparik gabeko hogeita zortzi heroi hauei,
mundu hau bizitzeko toki atsegina egiten duten
bizitza istorioen protagonista baitira*

1. SARRERA

Bizi garen munduan, indarkeria egunerokotasunaren parte dugu. Telebista piztea besterik ez dago, eta albisteak edo pelikula bat ikusi, indarkeriazko eszena ugari ikusteko. Gure iruditeria kolektiboan, historikotzat hartzen diren gertakari askotan dago indarkeria: konkistetan, batailetan eta gerretan, zeinak gure memoria historikoa eraikitzeko elementu klabetzat hartzen diren. Gertuko edo urrunagoko lurraldeen kontrako eraso biolento horiek, pertsonen bahiketak ugaritzea ekarri zuten, askotan emakumeak, zeinak esklabu gisa saldu ziren, eta mundu osoan zehar zabaldutako pertsonen esplotazio eredu bat sortu zen. Gainera, lurraldeak indarrez kentzetik eta komunitateen esplotazio biolentotik abiatuta, elite politikoa zein ekonomikoek botere-kontzentrazio oso handia lortu dute, eta mendekotasun harreman asko inposatu dituzte. Horrela, prozesu horien oinarritzko osagai izan dira, eta badira, komunitateen arpilatzea, erailketak, bortxaketa masiboak eta emakumeen salerosketa, gerra-arma eta botere erakustaldi gisa erabiliak. Ezin dezakegu ahaztu historia garaileek kontatzen dutela; kolektibo azpiratu eta subalternoek, aldiz, ez dute bozgorailurik eta baliabiderik izan gertatutako bidegabekeriak eta justifikatzen ari ziren izugarrikeriak —ez soilik gauzak ezkutatuz, baita egitura bidegabe horiek mantentzen dituzten estatu-aparatuen elkarlanaz ere— munduari adierazteko. Eta hori ez da iraganeko kontua; zoritxarrez, gaur egungoa ere bada, dokumentu honetako orrialdeetan ikusiko dugunez.

Txosten honek arlo ekonomikoari lotutako indarkeria mota ezberdinetan jartzen du arreta. Horrela, indarkeria hauek bereizi ditugu: ekonomikoa, lanekoa, ondare-indarkeria, lurraldearen kontrolari lotutakoa eta erakundeena. Haien guztien oinarritzko ezaugarriak dokumentu honen hurrengo atalean definituko ditugu.

Gaur egun, indarkeria ekonomikoen sailkapena jasota dago testuinguru geografiko ezberdinetan onartu diren arau multzo batean, hala nola, Hego Euskal Herrian (EAE eta Nafarroa), Erdialdeko Amerikan eta Hego Amerikan; arauok aipatutako indarkeria ekonomikoa eta ondare-indarkeria gehitzen dizkiete emakumeek pairatzen dituzten indarkeria motei. Arau horietatik gako kontzeptual batzuk aterako ditugu, txosten honen atalen abiapuntu izango direnak.

Gure ustez, indarkeria ekonomikoak asko dira, eta lotuta daude emakumeek jasaten dituzten zapalkuntza- eta esplotazio-harremanek izan ohi dituzten modu espezifikoekin. Harreman horiek egon badaude lan munduan, eta baita diru- eta ondare-kontrolaren inguruan ere, familia-bizitza eta ezkonbiziaren arloan. Sexuaren araberako lan-banaketa, familia



harreman patriarkalak, berezko lan-esplotazioa emakumezkoenak izan ohi diren sektoreetan —nabarmenezkoa da etxeko langileen problematika—, lantokiko jazarpena, lurrak kentzearen ondoriozko pobretze egoerak, zaintza-kate globalak eta arrazoi ekonomikoen-gatiko migratzeak, are gordintasun handiagoz ageri dira mendekotasun interseksionala pairatzen duten emakumeen kolektiboetan, hau da, elkarlotutako indarkeriak bizi dituzten emakumeak, pobreak direlako, migratzaileak, “papergabeak”, kanpokoak, afrikarren ondorengoak, aniztasun funtzionala dutenak, edota beren sexu-aukeragatik.

Mertxe Larrañaga Doktoreak idatzitako txostena (2013) Emakumeen eskubideen Nazioarteko Auzitegian, Viena +20-Euskalherria 2013, emakumeen eskubide ekonomikoen urraketan ardaztua, eta Begoña Zabalak egindakoarekin osatua —Auzitegi berean aurkeztua—, txosten honen marko teorikoaren osagai ditugu.

Txosten honen egitura lau atalek osatzen dute, sarrera hau barne. Bigarren atalean arlo ekonomikoarekin lotutako indarkerien gakoak jasotzen dira, indarkeria horiekin lotutako bizitza-istorioen alderdien irakurketa sakon batetik abiatuta. Hirugarren atalean laburki jasotzen dira indarkeria horien aurrean emakumeek garatutako eragin eta erresistentzia nagusiak. Txostenaren azken atalak hainbat ideia eta gomendio jasotzen ditu, eztabaidan jarraitzeko nola aurre egin egoera horiei, eta etorkizunean aurre hartu ahal izateko. Atal guztiek dute helburu bizitza-istorioetatik ateratzea indarkeria horiek pairatzen dituzten emakumeen gogoetak eta proposamenak.

2. DIAGNOSTIKOA BIZITZA-ISTORIOETATIK ABIATUTA

2.1. Indarkeria ekonomikoa

Nahiz eta indarkeria ekonomikoa gure bizitzaren hainbat arlotan ager daitekeen, (familian, lanean, bizitza sozialean...) indarkeria horren adierazpenik zabalduenak bikote-harremanetan eta lan-harremanetan gertatzen dira. Bikotearen arloaren kasuan¹, indarkeria ekonomikoa tratu txarren emaleek emakumeen aurka baliatzen dute emakumeak kontrolatzeko eta beren botereari eusteko; izan ere, emakumeek debekatua edo murriztua dute dirua izatea, aurrezki-kontuaren jabea emakumea bera izanda ere, adibidez, ordainsari bat dutenean lan horren truke.

Emakume eta neskatilen aurkako indarkeriaren inguruko nazioarteko legeriak arakatuta, aurkitzen ditugu lege batzuk, kontuan hartzen dutenak indarkeria ekonomikoa emakumeen eta gizonen arteko harreman asimetrikoaren mekanismo iraunarazle gisa. Halaxe da Mexikoren kasuan; bertako legean indarkeria ekonomikoa honela definitzen da:

“Erasotzailearen ekintza edo ez-egite guztiek eragina dute biktimaren biziraupen ekonomikoan. Hau mugaketen bidez agertzen da, jasotzen dituzten diru-sarrerak kontrolatzera bideratuak, baita lantoki beraren barruan ordainsari txikiagoa jasotzearen bidez” (LGAMVLV art 6/4)

Halaber, Euskal Herriko lurraldeetako batean, Nafarroan, badago bere arloan aitzindaria den legegintza esperientzia bat; bikote heterosexualeen esparrura mugatuta badago ere, onartzen du indarkeria ekonomikoa emakumeen eskubideen beste urraketa bat dela, honela deskribatuta: “Nahita egindako gabetzea —eta legez zuritu ezin dena—, emakumearen eta

¹ Erreferentzia bikote heterosexualei bakarrik egiten diogu; izan ere, indarkeria matxistak modu afektibo sexual horretan eman ohi dira. Horrela, erabilitako nazioarteko eta estatuko arautegiak emakume heterosexualek aipatzen ditu, gizezko erasotzaileen indarkeria matxistak pairatzen dituztenak, zeinek in izan duten edo baduten lotura afektiboa.



haren seme-alaben ongizate fisiko edo psikologikorako beharrezko baliabideez gabetzea; edo partekatutako baliabideak erabiltzean diskriminatzea, bikotearen elkarbizitzaren esparruan” (14/2015 Legea).

Jakitun gara aurrerakada handia dela emakumeen aurkako indarkeria ekonomikoa kontuan hartzea, zuzenbide-esparru guztietan; hala ere, bere horretan dirau iruditeria kolektiboa eraldatzeko erronkak; izan ere, iruditeria kolektiboa agindu heteropatriarkalei lotua dago, zeinen arabera, emakumeak subjektu alterizatu gisa eraturuta dauden, eskubide-berdintasuna benetan bermatzen duten tresnez gabetua.

Kontrol ekonomikoa, emakumeen autonomia larriki urritzen duen indarkeria mota, tratu txarren harreman sentimentalekin batera hasi ohi da, harreman horretan pairatutako beste eraso bat den aldetik. Sozialki bakartzeko asmoz, mendekotasun emozionala zein materiala areagotzeko, ohikoa da erasotzaileek emakumeei lanpostu bat izan dezaten debekatzea:

“(Gizonak) ez zuen inoiz lan egiten, ez zuen lan egin nahi; ez zidan lan egiten uzten; sekula ezin da bat gustura egon bere etxean premia gorrian biziz; tratu txarren beste era bat da” (15. B-I).

Aurreko kasuan, nabarmentzekoa da bizikidetzako unitateak jasaten duen pobrezia-egoera; unitate hori testigantza ematen duen emakumeak, erasotzaileak eta bi umek osatzen dute, eta diru-iturri finko bakarra dute diru laguntza bat, euskal administrazio publikotik datorrena. Protagonistak ondo argitzen duenez, ez da aski bere beharrei eta umeenei erantzuteko. Erasotzaileak lan ez-arautu bat du, eta irabazten duen dirua bere apetak ordaintzeko erabiltzen du, ez familian sartzen diren gastuak ordaintzeko.

“Ez zion garrantzirik ematen diruari, xahutu egiten zuen. Bost axola hari etxean dirua behar zen ala ez” (15. B-I).

Testuinguru soziokultural heterogeneoen barnean kokatzen diren bizitza-egoeren aniztasunak istorio bakarrek eraten ditu, hori bai, indarkeria matxistaren ezaugarri komunek zeharkatuak; istoriootan emakumeek nola edo nola bizirauten diete erasotzaileen abusuei. Horrela, adibidez, erasotzailearen legez kanpoko administrazio-egoerak aldatu egiten du elkarrizketatutako emakumearekiko lan-bakartzearen inposizioa, helburu-herrialdera iristean (Espainiako Estatuak); izan ere, gizonak zailtasun asko ditu lana aurkitzeko, Schengen gunekoak ez diren pertsonak nozitzen duten bazterkeriak larritua. Emakumeak, legezko administrazio-egoera duenez, baditu lana aurkitzeko aukera gehiago, eta horrek dakar erasotzaileak indarkeria prozesua kontatzen duen emakumeari ezartzen dizkion bakartze soziala eta mendekotasun ekonomikoa malgutzea:

“Berak lan egin dezadan nahi du. Lehen ez. Iritsi berritan ez. Emakumea etxean eta gizonak lan egin behar du, baina orain badaki zaila dela... Zaila dela bakar batek lan egitea. Badaki, orain eskatu egiten dit, eskatzen hasi zait orain” (22. B-I).

Tamalez, gizonaren jarrera-aldaketa premia ekonomikoaren ondorio da, ez sinesmen matxisten aldaketa; izan ere, kasu horretan, indarkeria psikologikoa eta fisikoa indar berberekin gertatzen dira.

Indarkeria ekonomikoaren beste adierazpen oso ohiko bat erasotzaileak diru-sarrerak erabiltzea eta kontrolatzea da, lanpostu bat izatea debekatuta ez dagoen kasuetan. Bide horren bitartez, erasotzaileek beren banakako ondarea handitzea lortzen dute; emakumeak



lanaldi bikoitza egitera behartzen dituzte, aktiboki egon behar dutelarik arlo produktiboan eta erreproduktiboan; hartara, emakumeak dira bizikidetzaren unitatetik eratorritako gastuak (seme-alaben mantenua, eskola-gastuak, horniketaren zerbitzuak, etab.) ordaintzeko ardura-dun bakarrak.

“Nik ezin nuen neure dirua erabili; berak nire zor-txartelaren pasahitza zekien, eta bertan kontratzen nuen lansaria; eta txartela galdu zitzaidan batean, 60 zentimo besterik ez zizkidan utzi balantzan” (3. B-I).

Erasotzaileak kudeaketa ekonomikoaren inguruko informazioa eskuratzea halako punturaino murriztu du, ezen emakume protagonistak deskubritzen du bera osorik ordaintzen aritu dela gizonak bere izenean erosi zuen etxe bat:

“Berak hartu zuen etxe bat modu finantziatuan ordaintzeko. Kontratuan neu agertzen nintzen haren bermatzaile gisa (...), etxea biok ordaintzen genuen, %50 bakoitzak, kaxotxan artean, berak nire dirua erabiltzen zuenez, seguru asko neuk ordaintzen nuelako. Inongo zalantzarik gabe, iruzur egin zidan” (3. B-I).

Kolonbiako beste emakume batek deskribatzen du lansari osoa eman behar ziola erasotzaileari; hark kentzen zion emakumeak irabazitako zentimo bakoitza:

“Ni lansariarekin heltzen nintzen eta berak azken pesoraino zenbatzen zuen; txanponen bat falta bazitzaidan, argi neukan (...). Jauntxoaren baimenik gabe enpanada bat erosteko gogoia izan nuen. Koitadua ni! (...) Eskale bat bezala bizi nintzen. Noiz egoten zen arroparik, gauzarik niretzat? Ezer ez. Hiru kamiseta txinatar nituen, limoi koloreko bat, hori bat eta urre-kolore bat” (8. B-I).

Emakume honek 21 urtez luzatzen den indarkeria prozesu bat deskribatzen du. Bere denboraren eta diruaren kontrola tratatu txarren zikloaren beste osagai bat zen. Izan ere, erasotzaileek izan zitzaizketen diru-sarrerak gorabehera, ikerketan parte hartu duten emakumeek errepikatzen duten kontakizuna baliabiderik ezarena da, zeinarekin borrokatu behar duten; muturreko zaugarritasun egoeretara iristen dira, jateko dirurik ez dutelarik, ez emakumeek, ez beren seme-alabek:

“Zama guztia nik neraman; hozkailuan jada ez zegoen ezer; supermerkatuetan bonoak hartzen ibili behar izaten nuen (...) Batzuetan ezer ahoratu gabe geratzen nintzen, nire seme-alabentzat irits zedin; dena zegoen guztiz mugatuta, nahiz eta nik lan egiten nuen eta berak 1.600 dolarreko soldata izan” (3. B-I).

“Ikasi nuen guztiontzako jatekoa prestatzen bi azenario eta arrautza batekin; eta diru apurrarekin etekina atera zerbitzuetarako eta” (8. B-I).

“Amaren etxera bizitzera aldatu ginenean, ni haurdun nengoen bigarren neska, eta hiletik hilera beste kilo bat galtzen nuen, gizendu orde, ni argaldu egiten nintzen (...). Hilabete batean gehienez otordu bat egiten genuen, hilabete oso batean; jada argal-argal geunden, hezur eta azal, denok, seme-alabak eta ni, eta berak ez zuen ezer egiten” (8. B-I).

Egoera hori, kasu batzuetan bat-batean etorritako muturreko pobreziazkoa, aldatu egiten da emakumeek banantzea erabakitzen dutenean. Horrela, behintzat, ez dute jasan behar ordutegi edo diru-murrizketarik, ezta lan-jardunaren garapenean blokeorik ere. Aldatu egiten dela diogu, baikorregia delako hobekuntzat jotzea; izan ere, harremanaren fruitu diren



seme-alaben haziera eta mantenua oraindik ere emakumeen ardura da soil-soilik; gizonen utzikeria-estrategiari eusten baitiote, seme-alaben afektibitateari zein ekonomiari dagokionez:

“Nire bizi-maila eta nire seme-alabena kaltetua gertatu da. Aspaldi du niretzako arroparik erosten ez dudala; zuzenbide ikasketak bertan behera utzi behar izan nituen: edo nik ikasten nuen, edo nire seme-alabek (...). Zaila da pertsona bakar batek familia aurrera ateratzea; eta horixe tokatu zitzaidan niri, sekula ez dudalako laguntzarik izan, ez haurren aitarengandik, ez nire familiarengandik” (2. B-I).

“Hamabostean behin 30 pixoihaleko pakete bat eta esne kilo bat ematen zizkidan. Uste zuen nire semea horrekin bizi zela. Haurtxoak 5 hilabete zituenean, ospitaleratu zuten. Haren aita hasi zen ospitalera joaten, baina aitzakiak bilatzen zituen, gaixorik zegoela, lanik gabe geratua zela...” (9. B-I).

“Bizirautea lortzeko, zorpetu egin nintzen, zor batzuk ordaintzen nabil oraindik ere, eta hori dena nire etxea eta haurrak mantentzeko, ez luxuetarako, baizik eta beharrei erantzuteko” (2. B-I).

Ikus daitekeenez, harremana amaitzen bada ere, gizonen aldetiko indarkeriak irauten du, kasu honetan mantenu-pentsioa betetzen ez duelako. Elkarrizketatuek dagokien erakundeen aurrean gizona salatzea beste irtenbiderik ez dute, eta oztopo-lasterketa batean murgiltzen dira. Erakunde-indarkerien atalean deskribatuko dugu hori; izan ere, erakundeak dira emakumeen eskubideak zaintzeko erantzukizuna dutenak.

Nolanahi ere, eta emakumeek jarritako salaketak gorabehera, erasotzaileek gezurrezko argudioak baliatzen dituzte, emakumeek pobrezia egoeran bizitzen jarrai dezaten, eta beren seme-alaben aitatasuna zalantzan jartzera ere iristen dira:

“Auzialdi batean, janari-atzerapenagatik, erasotzailea hasi zen esaten bera ez zela nire haurren aita, eta horregatik ez zuela ordaintzen, nire seme-alabak bertan egonik, haren aurrean (...) seme-alabak eta ni negarrez irten ginen” (2. B-I).

Arautu gabeko lan-ibilbidean murgilduta dauden erasotzaileek erabilitako beste bide bat — eta irabaziak ezkutatzeko azpijokoan aritzea dutenek— beren ondasunak ezkutatzea eta ez aitortzea da. Kontakizun horren bidez, ikusten dugu aitatasuna ukatzen zuen erasotzaileak berak gezurtatzen duela finantza-mailan kaudimena izatea. Oraingoan, indarkeriari biziraundion emakumea bera da frogak biltzen dituen, epaitegira eramateko, eta erasotzailearen gezurak eraisteko:

“Imajina ezazu, urteak 12 hilabete dituela, eta urte batzuetan bakarrik 3 hilabete ordaintzen zizkidan, uste al duzu kopuru horrekin bizi daitekeela bi haurrekin? Argudiatzen zuen ez zuela lanik. Nik frogak eraman nizkion epaileari, mendi-kamioneta bat zuela frogatzen zutenak, baita apartamentu bat hondartzako zonalde izugarri garesti batean, etxe bat eta berea zen enpresa bat” (2. B-I).

Epaitegietara doazenean, ohikoa da emakumeek oztopo judizial asko aurkitzea. Horrek erabateko zaurgarritasun-egoerak sorrarazten dizkie, bai emakumeei, bai seme-alabei. Haien eskubideak bermatzen dituen Estatu baten faltaren ondorioz, edozein lanpostu onartzera behartuta ikusten dute beren burua, “kuleroeekin errezelak eginez”, dirua lortu ahal izateko beren familia aurrera atera ahal izateko:



“Urik ez zuen gela-zulo bat lortu nuen, eta lekutara joan behar izaten nuen, goizeko lauretan, garbitzera, ur bila, zazpitan sartzen nintzelako lanera; seietan atera behar nuen umeak apain utzi eta haurtzaindegian uzteko, eta gero fabrikara joateko. Putzuetan gora igotzen nintzen, ura zamatuta, zolatu gabeko kaleetan; euria egiten zuenean belaunetaraino iristen zitzaidan lokatza, eta umeak ere gainean. Oso garai latzak izan ziren, eta bera bere munduan, hor nonbait” (8. B-I).

“Goizeko lauretan jaikitzen nintzen; fabrikak garbitzen hasten nintzen, ikastetxeak, goizeko 5etan... Eguerdian... Tira, arratsaldeko seiak aldera amaitzen nuen. Tarteetan hutsarteak dituzu, baina egun osoa ematen nuen lanean. Hiru ume nituen... Tarteka etxera etortzen nintzen garbitzera” (15. B-I).

2.2. Lan-indarkeria

Gorago deskribatu dugunez, esparru pribatua aurkako giroa izan daiteke emakumeentzat; izan ere, abusurik gabeko gunea ez izateaz gain, indarkeriez beteriko gunea ere gerta daiteke, eta emakumeek bakarrik egin behar izaten diete aurre indarkeria horiei. Halaber, eremu publikoan lan-ingurunea mehatxuz eta abusuz beteriko gunea izan daiteke.

Ugariak dira emakumeek pairatzen dituzten diskriminazioak eta indarkeriak, historian zehar baztertuak eta ikusezin bihurtuak izan diren eremu batean. Izan ere, agindu heteropatriarkala dela medio, haien tokia etxe barruko esparrura mugatuta zegoen, bizitzaren iraunkortasunerako ezinbestekoak ziren eta diren lanak egin zitzaizten, ukatuta badaude ere.

Asko izan dira emakumeen eskubideak urratzeko mekanismoak subjektu fetitxea BBVAh² (gizonezkoa, zuria, klase ertainekoa, heldua, heterosexuala, gaitasun funtzional normatiboduna) delakoa den eremu batean. Mekanismoak une historikora eta lurraldera egokitu dira. Hala ere, gaur egun aurki daitezke gako komunak, emakumeei eragiten dietenak, oro har; lan-indarkeriaren prozesu eta egoerak dira, eta bertan sartzen dira, lanean promozionatu eta gaitzeko bidezko aukeren falta, egoera zibila edo famili egoerak kontratazioa baldintzatzea, gizonezkoen aldean ordainsari txikiagoa jasotzea, lan baliokidea egiteagatik, erabakiak hartu beharreko karguetara iristea mugatzea, baita sexu jazarpenera edo esestea zein morroitzagoera edo gatibu-lanak ere. (Mugarik Gabe, 2015)

Etxeko langileen jardunarekin hasiko gara, zaintza-lan ordaindua baita; halaxe izendatu dute Latinoamerikako Etxeko Langileen Konfederazioan, erreferentzia egiteko ordainsari baten truke etxe baten garbiketa eta mantentze lanekin lotutako zeregin nabarmenenak egiten dituzten emakume langileei, baita hain materialak ez diren arloez aritzeko ere, harreman- eta afektibotasun-maila partekatzen duten pertsonen dagozkienak.

Lan horretan aritzen direnak gizarteko sektore kaltetuen eta txirotuenetako emakumeak izan ohi dira, ez dute ikasketarik izaten, besteak beste, beren etxeko³ pobrezia-egoerak behartu dituelako hezkuntza bukatu baino lehen bertan behera uztera, eta lan-esparruan has-tera; gauzak horrela, ez dute prestakuntza nahikorik, baldintza hobekak eskaintzen dituen lan-eremu batera sartzea ahalbidetuko dienik.

Halaxe gertatu zaio Guatemalako emakume honi: haren aitak bere erantzukizun ekonomikoa betetzeari uztea, gehi amak jasotzen zuen soldata urria, etxeko langile bezala aritu behar izan zuen bolada batez dirua ekartzeko, eta bertan behera utzi bere ikasketak.

2 Kontzeptu hau María José Capellínek garatu zuen (2005) eta Amaia Pérez Orozcok aipatzen du (2014).

3 Kasu gehienetan, sektore horretan diharduten elkarrizketatutako emakume langileak guraso bakarreko familietatik datoz, non amak diren etxea elikagaiz hornitzen duten bakarrak.



“Amak esan zidan lana bilatu behar nuela, 13 urte nituen. Urtebeteko haurtxo bat zaintzen nuen; egunero joaten nintzen beregana, astelehenetik larunbat eguerdira, eta 300 quetzal irabazten nituen, erabili ahal nituenak. Diru asko zela sentitzen nuen, nire lehen zapata pareta erosi nuen” (16. B-I).

Gobernuek bermatu beharko luketen hezkuntza jasotzeko nahikoa baliabide ekonomikorik ez dagoen etxeetan, erakunde erlijiosoan ongintzara jotzea beste aukerarik ez dago. Erakunde erlijioso horiek emakumeen autonomia eta ahalduntzeari dagokionez duten jokabidea zalantzan jarri izan da oso maiz, bai feminismotik eta baita beste gizarte-mugimendu kritiko batzuetatik ere; izan ere, elizak gauzatu ohi duen emakumeenganako diskriminazio patroien rola iraurarazten duela ikusi dute. Elizak emakumeei zuzendutako “hezkuntza” programek tradiziozko rol bat sendotzea dute oinarri, heteropatriarkatuaren eskakizunetara egokitu-tua; emakumeak trebatzen dituzte lan erreproduktiboak burutu ditzaten. Horixe ikasi zuen elkarrizketatutako emakume batek, zeinak Bogotako “Acción Católica” Fundazioaren bidez ikasi baitzuen bere lisaketa- eta garbiketa-teknika hobetzen:

“Nik 5. mailara arte ikasi nuen. Gero Acción Católica-n, han urtebete eman nuen ikasten, Bogotan. 500 neska ginen, etxeko langileak. Denetik egiten irakasten zuten, sukaldean aritzen, garbitzen, lisatzen, eta horrelakoak” (6. B-I).

Esperientzia hori 50eko urteetan kokatzen da, Kolonbian; orduan, emakumeentzako lan-aukerak zaintza-lanen esparrura mugatuta zeuden. Hala ere, erakunde horien jardun eraldatzaileak —gai zirenak arau heteropatriarkalarekiko haustura eragiteko eta emakumei bizi-baldintza hobekak ekartzeko— zalantzan dirau. Izan ere, gizarteratze programa soziolaboralek oraindik ere parte hartzaileen gizarte maila eta sexuaren arabera heziketa ibilbideak eskaintzen dituzte. Emakume askoren kasuan, heziketa-eskaintzak etxeko lane-kin lotutako eginkizunetara mugatzen dira.

Etxeko langile izatea da aurreko hamarkadetako eta egungo emakume txirotuentzako irtenbide bakarretakoa; gainera, irtenbide bakarra bihurtzen da desplazatzera behartuak izan diren emakumeentzat, dela migratze ekonomikoagatik, dela babes eta aterpeagatik, beren jaioterrian egiazta dezaketen prestakuntza eta lan-esperientzia edozein dela ere. Hori gertatzen da lan-merkatuan sexuaren arabera lan-banaketa eta etnosegmentazioa ematen direlako; horrek, bertakoak ez diren pertsonak bideratzen ditu enplegu ezegonkor eta lan-baldintza txarrenak dituztenetara. Beste eragile erantsi bat, ekonomia ez-arautuan emakume migratzaileen gain-ordezkaritza bultzatzen duena, Europar Batasunaren muge-tatik kanpo egindako ikasketak ez aitortzea da.

“Lehen (jaioterrian) batxilergoa ikasten nuen, eta bi urte fakultatean, literatura... Ikasketak bertan behera utzi nituen hona etortzeko. Uste nuen hemen hobeto, baina hona etorritakoan ez nuen aurkitzen nork aholkatu buka nezan, batxilergoa homologa nezan, buka nezan... Lan egitera etorri naiz, etxeak garbitzera eta umeak zein adinekoak zaintzera... Azkenean ez ditut ikasketak bukatu, etxeetan lan egin baino ez nuen egiten” (22. B-I).

Haien bizitza-istorioetan sakontzen dugun heinean, ikusten dugu zaintza-alorreko emakume langileak familia txirotuetatik datozela, baliabide ekonomiko urriak dituztenak, periferiakoak direnak (zentzu sinboliko eta literalean). Hori dela eta, beste hiri edo herrialde batzuetara joan behar izaten dute, eta beste emakume batzuen esku uzten dute beren haurrak —izatekotan— zaintzeko ardura.



“Gero, nire haurren aitarengandik banandu nintzenean, berriz lan egin behar izan nuen etxeetan, bihotzeko minez, nire umeak uzten nituelako” (1. B-I).

Ikusten dugunez, gobernuaren babesgabetasun egoera batean —gobernuak pobrezia-maialak irauarazten baititu—, asko dira emakumeak eskubiderik gabeko lanak egitera behartzen dituzten egoerak, gainerako lan-arloekin alderatuta; izan ere, ekonomialari feminista batzuek salatzen dutenez, “etxeko lanaren irudiak berak bere baitan biltzen ditu ahultasunaren elementu guztiak: jarduera ikusezin baten espazioa da, lan-harremana bakarkakoa da, eta araudia diskriminatzailea da beste lan-arloekin alderatuta” (Gil eta Orozco, 2011:95).

Alderdi hori ikusezin bihurtzen da, langileentzat lantokia baita ordaintzailearentzat intimitatedun etxea dena. Espazio horretan muga lausoak daude, eta pertsonen arteko harreman anbiguoak ezartzen dira; badira afektibitate eskakizun estaliak ordaintzailearen aldetik, zeinak, batzuetan, langilearen kontratazioa erabiltzen baitu aberastasun-erakuskeria gisa, eta gizarte-maila pribilegiatukoa dela erakusteko; hartara, nagusikeria eta indarkeria egoerak eragiten ditu.

Horixe bizi behar izan du testigantza eman duen emakumeetako batek lan-bizitza osoan zehar, barneko etxeko langile aritu den etxe guztietan. Azken lantokian, bere zerbitzuak 15 urtean eskaini dituen etxean, ezin konta ahalekoak izan dira pairatu behar izan dituen indarkeria psikologikoko egoerak:

“Ni harentzat (ugazabandrea) lan egiten hasi nintzenean, uniformeak erabili behar nuela esan zidan. Bolada batez jantzi egin nuen, ugazabandreak estutu egiten ninduelako; areago, argazki bat egin zidan uniformeak jantzita nuela, eta jende guztiari erakusten zion, eta esaten zien: “ikusi nire langilea”, baina geroago kendu egin nuen, oso lasai nuelako eta ezin zaharrago zegoelako” (1. B-I).

“Behin pupusen bila bidali ninduen, eta jaia amaitutakoan deitu zidan pupusa busti eta murtxikatu batzuk emateko. Egun horretan ez nizkion hartu eta oso haserre esan zidan esker txarrekoa eta gaizki hezia nintzela” (1. B-I).

“Ugazabandreak berriz esan zidan, ozen: ospa hemendik, ongi dakizu-eta hortxe pistola bat dudala, eta ez zait ezer ere ez kostatzen oraintxe bertan zuri tiro egiteak” (1. B-I).

Batetik, lantokian indarkeria psikologikoa jasan behar du; bestetik, behar bezalako elikadura eta ostata jasotzeko eskubidea ere ez da betetzen, halaxe baitago jasota istorio horren testuinguruaren zuzenbide-markoan, El Salvadorren.

“Baneukan gela bat, baina soto bat zirudien; andreak bertan gordetzen zuen behar ez zuen guztia, ez zegoen nondik pasatu. Gela horretantxe lisatzen nuen arropa ere” (1. B-I).

Horrelako esperientziak kasu bakarrak ez izateaz gainera, maiz errepikatzen dira, mugak bereizi gabe. Zabaldia dagoen beste praktika bat finkatutako ordutegia ez betetzea da, batez ere barneko langile aritzen direnen kasuan. Bizitokia partekatzen dutenez, lanaldia hipermalgutu eta luzatzeko arriskuan daude, egunen arteko gutxieneko atsedeen-eskubidea betetzen ez delarik.

“Nik ez nuen oheratzeko ordu jakinik, baina ohetik jaikitzeak bai. Goizeko bostetan jaikitzen nintzen, eta lana egiteari uzten nion gaueko hamaiketan, andrea gauez iristen zenez eta harrera egin eta atetzarra ireki behar zitzaionez, jan gabe bazegoen janaria prestatu eta ohera eraman behar zitzaiolako” (1. B-I).



“Goizeko seiak aldera jaikitzen nintzen; gosaria, etxea txukundu. Hamarrak aldera bazkaria prestatzen hasten nintzen; hamabietan, bazkaria; ordu batean, ordubetez prestatu, bainatu eta irteten ziren; ni etxean geratzen nintzen. Ni ez nintzen irteten, ezin nintzen inora joan, ezer ere ez” (6. B-I).

Azken testigantza horri dagokionez, emakumearen lan-baldintzak lan-esplotazioaren mar-koan daude, konfinamendua barne; halaxe ondoriozta daiteke haren kontakizunetik. Izan ere, 20 urtean baino gehiagotan lanean aritu da trukean lansaririk jaso gabe, eta indarkeria psikologiko eta fisikoa pairatu ditu.

“Nik handik entzuten nuen nola tratatzen zuten gaizki; esaten zioten lan egin behar zuela jatekoa irabazteko; eta berak ubelduraz eta atximur markaz beterik bukatzen zuen; jo egiten zuten” (6. B-I).

Halaxe kontatzen du protagonistaren ilobak. Protagonista 84 urteko emakume bat da; 20 urtean lan egin du ordain ekonomikorik jaso gabe. Azkenekoz lansari bat 80 urteen hasie-ran kobratu zuen, ordaintzailea hil zenean. Kontratatzaileak aprobetxatu zuen orduan bere egoera ekonomikoaz gezurra esan eta ordainketak atzeratzeko, harik eta langileak bere sol-data ez eskatzea lortu zuen arte, xantaia eta baldintzapen emozionalen bidez.

Etxeko esparrua gun e ikusezina da, non indarkeria asko izan daitezkeen, botere publikoen arautegi faltak babestuta. Botere publikoek, besteak beste, etxeko langileek egiten duten ezinbesteko lana duintze aldera, oraindik berresteke daukate LANeren 189 Hitzarmena. Hitzarmen hori, etxeko lanen arautzera zuzendua, aurrerakada handia da legegintzan es-kubide-eskakizunei dagokionez, hala nola, egun batetik besterako atsedenaldea, gutxieneko soldata eta gainerako langileekin parekatzea, diru laguntzak eta kalte-ordainak jasotzerako orduan. Hala ere, txosten honetan aztertutako herrialdeetan, soilik Kolonbiak berretsi du oraingo.

Hitzarmena ez berresteak eta ez betetzeak eragin okerra dakarkie horretan lan egiten du-tenei; lan ez-arautuko arloan, oinarrizko eskubideei uko egitea dakar, eta horrek zailtasun erantsi bat du, alegia, lehengo egoerara itzultzeko zailtasuna, bizi duten mendekotasun eko-nomikoa eta babesgabetasuna direla eta.

“Nola egingo dut alde orain, amaren sendagaiak erosteko behar handiagoa dudanean” (6. B-I).

Etxeko langileen bizitza pribatuko aldaketek, lan-harremanen aldaketa dakarte ere, beren lana eta zaintza-ardurak bateratu ahal izateko; hori desleialtasun gisa hartzen dute kon-tratatzaileek, eta ahazten dute hori langilearen lan-eskubideen parte dela; hortaz, langilea kaleratu ohi dute.

“Eta hasi nintzen baimenak eskatzen, ama ospitalera eramateko; hasieran, ematen zizkidaten, baina arazoa gertatu zen berriz eskatu nuenean (...). Senarrak esan zidan “begira, dena den zure ama hil egingo da, guztiok hilko garelako, beraz utzizu hil dadila eta segi lanean” (1. B-I).

Azkenean, testigantza eman duen emakumea kaleratu egin zuten, aurretiko abisurik gabe eta arrazoi objektiborik gabe. Kasu honetan, El Salvadorrek baduenez bidegabeko kale-ratzeentzako kalte-ordainak arautzen dituen legeria, enplegatzaileak argudiatu zuen langi-lea bere borondatez joan zela, ordaindu behar zion soldata saihestu nahian.

“Esan zidaten “alde hemendik, ezin zaitut ikusi, atso putakume hori, ez baduzu nahi beste zerbait egiten diezazudan”. Gainera, esaten zuen bazuela dirua abokatuak ordaintzeko eta, beraz, ez zidala



ezer ordainduko. Horren ondoren, nire gelara joan nintzen, nire arropa atontzera; jaunak esaten zidan “Isabel, mugu zaitetz, ospa egizu behingoz; baina joan aurretik garbitu itzazu nire trasteak eta garbigailuan dagoen arropa”. (...) Arropa atera nuen, eta gero esan zuten lapurtutako gauzak neramatzala; gero nire poltsa atera eta miatzen hasi zen jauna, ikusteko ea zerbait neraman, eta arropa nahasita utzi zidan lurrian, baina nik agindu nion dena jasotzeko eta ez nuen alde egin dena jaso zidan arte” (1. B-I).

Lan-harremana bukatzea —edo erantzun ezberdinak mendeku gisa, emakume langile-entzako ondorio larriekin— bizkortzen duen beste ohiko arrazoi bat haurdunaldia izaten da. “Kontua da haurdun geratu nintzenean soldata jaitsi zidatela” (6. B-I).

“Oinak txingurritu egiten zaizkit, eta lisatzen bero handia pasa dut, eta izerditan blai egon naiz abuztuan, oso gaizki. Beti esaten zidan haurdun nengoela, eta ez gaixorik. Andreak ez zuen nahi nik oporrik har nitzan, ez amatasun baimenik ez ezer” (22. B-I).

Zentzu horretan, enplegatzailea iruzurrezko praktikagatik salatua denean, langileak dagozkion diru laguntzak jasotzea eragozteagatik, enplegatzaileak onartzen du langileari kalte egin nahi diola, bere aurkako irain bidegabetzat jotzen duelako haurdun geratu izana. Halaxe jasotzen du istorio honetako protagonistari salaketa egiten lagundu dion aholkulariak:

“Ugazabandrearekin telefonoz hitz egin nuenean, esan zidan: “haurdun geratu izanagatik izorratu nahi zaitut, egin didazunarengatik, ondotxo dakit horrela egonda, altan, ez dizutela laguntzarik emango” (22. B-I).

Emakume kaltetuak berak adierazten du gauza bera gertatzen zaien neska gehiago eza-gutzen dituela; egun batetik bestera kaleratuak diren langileak, aurretiko abisurik gabe, kalte-ordainik kobratu gabe, egoera ekonomiko oso zailean geratuz; edo, bere kasuan bezala, poliziaren aurrean salatuta, eta egin ez zuen delitu ekonomiko bat leporatuta.

“Antzeko egoerak bizi izan dituzten nesken berri dut, baina ez dute salatzen (...); gehienak ez dira epaitegietara iritsi, nik egin dudan bezala” (22. B-I).

Horrela, haien osasunak pixkanaka okerrera egiten du, lan horien baldintza txarrak direla eta; lanaldi luzeak egin behar dituzte, eta horrela zaila da baimenak eskatzea mediku azterketak egiteko; gainera, zama fisikoa eta emozionala handia da oso, garbiketa-lanei gaineratu ohi zaielako gutxi-asko autonomia duten pertsonen zaintza. Batetik, sozialki aitortua ez izatea, arlo erreproduktiboko lana izateagatik, tradizioz emakumeei egokitua berezko bikaintasunaren aitzakipean; eta, bestetik, jasan behar dituzten indarkeria anitzen prozesuek, laguntzen dute haien bizi-kalitatea, oro har, eta haien osasuna, bereziki, okerragotzen. Gainera, etxeko langileen jardunari, erregimen berezi baten mende dagoenez, ez zaio beti aitortzen kalitatezko osasun-estaldura eskubidea, eta horrek zaildu egiten du osasun-maila egokiak prebenitzea eta mantentzea.

Ondorioa artatu ez diren gaixotasunak garatzea da, bai sufritzen dituzten gaixoen aldetik, bai enplegatzaileen aldetik, argi jotzen dutelako gaixotasunak txikiagotzera eta areago, sendabidea oztopatzen:

“Bertan nengoela sukarra izaten nuen, gripeak, odol-presio garaiarekin arazoak nituen; larritu egin zitzaizkidan menopausiaren sintomak, odoljario handia izan nuelako; gaixo-gaixorik irten nintzen handik, eta orain obario polikistikoak dauzkat” (1. B-I).



“Nire izeba oso gaixorik zegoen, anemia-edo zeukan, oso zurbil zegoen; orduan ni hara joan nintzen (...). Esan zidaten ezin zela handik irten, oinak aurretik irtengo zela, hilerrira bidean” (6. B-I).

Autoestimua baxua, antsietate koadroak eta depresioa egoera arruntak dira bakartu eta sareak osatzea oztopatzen duen lana duten emakumeentzat; egoera hori larriagotu egiten da barneko etxeko langile direnen artean. Horrela, pertsona-harremanak izatea ameskeria da; aldi berean, parte hartze politikoa eta egoera lehengoratzeko gai diren emakumeen arteko sareak antolatzea eragozten da.

“Ni triste bizi nintzen, kezkatuta; areago azken egunetan, ama gaixotu zelako, garai hartan negar asko egiten nuen, ez nekielako zer egin, eta jasotzen nuen tratu txarragatik” (1. B-I).

“Orain adineko gizon batentzat egiten dut lan; baina ere janaria prestatu eta etxea garbitzen diot, barneko langile gisa; aste barruan bi gau ditut opor (...) Neska guztiek parranda egiten dute, baina nik lana hartu eta gero ezin dut. Larunbatetan neskek idazten didate: baina nik ezin dut lanean egoteagatik” (10. B-I).

Lan-baldintza txarrei gehitzen zaie emakume hauek enplegatzaileen aldetik sexu-indarkeria motaren bat pairatzeko duten arriskua. Neska batek kontatzen du bere lehen lanetako batean, barneko langile gisa, bere nagusia behin baino gehiagotan saiatu zela berataz abusatzen.

“Egun batean ugazabandreaken senarrak nire gelan sartu nahi izan zuen; eskerrak atea giltzatuta nuela; oihuka hasi nintzen eta ugazabandrea jaitsi zen. Nik ez nion ezer esan, jaunak kaleratzearekin mehatxatu ninduelako eta nik nire zentimoak irabazi behar nituen; isilik egon nintzen. Hurrengo egunean berriz ere jo zuen nire atean; ireki nuenean bultza egin zidan; lasterka atera nintzen eta oihuka hasi nintzen; berehala iritsi zen ugazabandrea. Hiru egun geroago berriz iritsi zen tipo hura berriz, baina orduan andrea ez zegoen etxean; alkandora bat lisatu behar niolako aitzakiaz, nire gelara sartu zen, atea itxi zuen eta besarkatu nahi izan ninduen” (1. B-I).

Premia ekonomikoa eta etxeko gainerako familiakoek zein erakundeek bera zalantzan jarriko ote zuten beldurra: horiek dira oztopo nagusiak, salaketa geldiarazi eta bortxatzen dituztenen zigorgabetasuna mantentzen dutenak; izan ere, ez dira kasu bakanak, baizik eta lanerako hartzen dituzten emakumeekin dituzten ohiko praktikak. Emakume honek, adibidez, kontatzen du enplegatzaileak lehenago ere abusatu egin zuela etxeko beste langileez.

“Ugazabandreaki kontatu nion gertatutakoa, eskua sartu nahian zebilela, eta erantzun zidan: “banekien nik zurekiko begirunea galtzen ari zela, beti egiten duelako hori; neska guztiei jo die larrua, esan zidan” (1. B-I).

Sexu-jazarpen egoera horien protagonistak nagusitasun-baldintzak dituzten gizonezkoak izan ohi dira, harreman desorekatu baten barruan, lan-arloan, dela ez-araututako lanean, dela etxeko lanetan, edo lan arautuen arloetan. Eskubide-berme gutxiko lanetan eta egonkortasunik gabekoetan gertatu ohi dira jazarpen gehienak; eta horretan eragina du, halaber, emakumeek unean bizi duten zaurgarritasun egoerak. Horrela, administrazio-egoera arautu edo arauz kanpokoan dauden emakume migratzaileak, edo arau heteropatriarkala betetzen ez dutenak, gizonezko bati lotuta ez daudenak (alargunak, lesbianak, eta beste identitate ez-normatiboak), izan ohi dira erasotzaile horien helburu nagusiak.

Hori gertatu zitzaion testigantza eman zuen emakume bati, ostalaritzan lan egiten zuelarik Espainiako Estatuan. 10 orduko lanaldiak egitera behartzeaz gain —onartu egin zuen nagu-



siak bere administrazio egoera legalizatzeko paperak emango zizkiolako promesa faltsua egin ziolako—, sexu-jazarpen prozesu bati aurre egin behar dio, tabernako jabeak sexu-harremanak izateko esan eta esan aritzen zaiolako.

“Nik lan egiten badut, ordain iezadazu eta egizkidazu paperak. Soilik itxaron nezan entzuten nuen; horrela, 3 urtean. Hemen, Espainian, bizi nahi nuen legez, paperak izan, aseguruua, osasun-txartela” (13. B-I).

“Nire nagusiak amodio-kontu bat nahi zuen nirekin, eta nik ezetz esan nuen. Ni lanera nator hona, niretzako dirua irabaztera, ez gizon ezkondu baten bila” (13. B-I).

Kasu horretan, emakumeak, bere eskubideak urratzen ari direla jakitun, bere egoera salatzen du, tabernan bertan egiten den ikuskapen batean. Baldintza txarrak salatzeak emakumearen aurkako kanporatze auzibidea abiarazten du, indarrean egongo dena 5 urtean, eta pasaportea bahiturik izango du, berritzeko aukerarik gabe.

Beste emakume honek, El Salvadorreko landa-eremuko biztanlea dena, bortxaketa saiakera bat sufritzen du tabernan, bertan konfinamendu egoeran zegoelarik. 13 urterekin, aitaren aldetiko ahizpak bere etxera “eramaten du” haren semea zain zezan. Jipoitu ondoren, taberna batean lan eginarazi zion, edariak zerbitzatzan. Ordainsaria protagonista eta ahizparen artean banatzen zen, eta ahizpak berak emana zuen lantokian giltzatuta uzteko agindua.

“Ahizpak behartu ninduen zurrutegi batean lan egitera. Edaria zerbitzatu behar nuen, eta berak giltzapean ninduen; esaten baitzien arduradunei ez diezadatela utzi kalera bakarrik irteten. Ihes egitea lortu nuenean, 13 urterekin, nire mutil-lagun egin zen mutiko bat ezagutu nuen, eta hark ez ninduen han ikusi nahi, zelatatzen nindutelako” (5. B-I).

Unicefek salatzen duenez, etxe txirotuenetan eta landa-eremuan bizi diren neskatok arrisku handiagoa dute haur-lanaren biktima izateko; zehazki, etxeko lanen ardura eman ohi zaie, eta bizikidetzako unitatearen aldetiko esplotazio eta tratu txarrak jasotzeko arriskuan jartzen dira. Batzuetan, familiak berak behartzen ditu lan egitera, zorren bat kitatzeko, edo dirua lortzeko unitatearen gainerakoak mantendu ahal izateko. Neska bere borondatearen aurka atxiki zuten, eta lan egiten zuen soilik berak osorik jasotzen ez zuen ordainsari baten truke, erasoaldiak jasango zituelako mehatxupean, baina zorionez erasoetatik ihes egin ahal izan zuen.

“Ni bortxatzen saiatu ziren; han bizi zen gizon batek eskatu zidan gela txukuntzeko, eta sartu nintzenean ohera bota ninduen. Ez dakit nondik atera nuen indarra, ostiko bat eman nion eta beste ate batetik atera nintzen” (5. B-I).

Hori ez da haur-esplotazioaren kasu bakarra. Beste elkarrizketatu batek kontatzen du amak eramaten zuela diru eske tabernetara, eta gizonak jazartzen zutela. Egoera hori 60ko urteetako Kolonbian kokatuta dago, pobreziaren testuinguruan, eta haurren eskubideak aitortuta ez daudenean.

“Ama bisitatzera joaten nintzen, ni oso txikia nintzenean, eta nire ahizpatxoak eta biok, 2 eta 3 urte ingurukoak ginen. Tabernetara sartzen gintuen, sosak eskatzera, eta mozkor horiek guztiek ukitu egiten gintuzten, eta nik ez dakit zer zeukan amak buruan hura guztia egiteko. Bera eta biok sartzen baginen diru asko ematen ziguten, baina, noski, zeren truke?” (8. B-I).



Haurren eskubideen urraketa horiek zigortu eta saihesteko asmoz 1999an LANEren 182. Hitzarmena berretsi zen, "haurren lan mota okerrenak debekatu eta ezabatzeko berehalako esku hartzea egiteko Hitzarmena". Hitzarmena Txosten honetan ageri diren estatu guztiek sinatu zuten, Kolonbiak izan ezik, eta hori da, hain zuzen, testigantza eman duen emakumearen jaioterria.

Orain arte, zenbait indarkeria-egoera erakutsi ditugu, zaintza arloarekin lotuak batez ere, non emakumeek izugarrizko protagonismoa duten. Maiz, lanbide-arlo feminizatuz aritzea ordainsari eta lan-baldintza ezegonkorrei buruz aritzea da, gizonezkoak gehiago diren alorrekin alderatuta. Halaber, oraindik ere emakumeak erakundeek "kontziliazio" deritzotena-ren protagonista dira, praktikan esan nahi baita horrek lanaldi bikoitza dakarrela emakumeentzat, produkzio- eta erreproduktzio arloetako erantzunkidetasun falta dela eta, oraindik nagusi baita elkarbizitza heterosexualeko familietan. Emakumeek indarkeria matxistaren prozesuei ere aurre egin behar dioten egoeretan, familia mantentzeko ardura nabarmen handitzen da, erasotzaileak ez dituelako bere gain hartzen bere ardurak. Azaletik, horixe da emakume askoren egunerokotasuna azterlan honetan sartutako herrialdeetako hiri- eta landa-eremuetan.

Emakumeek landa-eremuan jasaten dituzten egoera zehatzei dagokionez, ikusten da baliabide publikoak iristeko zailtasun handiagoa, hiri-aldeekin alderatuta. Sistema kapitalista elikatzeke ezinbestekoa den ikuspuntu desarrollista da hiri-testuingurua landa-testuinguruaren gainetik abantailatzearen erruduna; izan ere, azken hau zigortu egiten du ahanzturarekin eta baliabide publikoen hornidura txikiagoarekin, nahitaezkoak baitira bizitzaren iraunkortasunerako. Zerbitzu-gabezia horrek uzten dituen hutsuneak emakume eta neska-toek betetzen dituzte, eta, hartara, zaugarritasun egoera handiagoan geratzen dira.

Gorago esan dugunez, neskatoak aukeratzen dira eskola presaka utzi eta lan erreproduktiboei aurre egin ahal izateko, hala nola, sua piztea etxea berotzeko, janaria prestatzea, neba-ahizpa gazteak zaintzea, arropa garbitzea eta abar. Eta ez hori bakarrik, sexu-hezkuntza egokiaren eta famili plangintzaren faltak aurreratu egiten du, hiriko emakumeekin alderatuta, lehen haurdunaldiko adina, eta seme-alaben kopurua handitu egiten du. Horri baliabide-falta gaineratzen bazaio, emakumeentzako arrisku egoerak gehitzen dira, haurdunaldiaren konplikaziorik egotekotan.

Halaxe kontatzen du jornalari andaluziar batek, bere lankideekin batera manifestatu behar izan baitzuen ospitale bat eraiki zezaten, hornidura eta langile espezifikoeekin.

"Borroka egin zen ospitalea lortzeko; behin eta berriz eskatu genituen emaginak; eta sendagi-leak eta denetik eskatzen genituen, ez zegoelako ezertxo ere" (12. B-I).

Emakume horrek, 30eko hamarkadan jaioa (bizirik atera zen Espainiako Estatuko gerra zibil eta gerraondotik), kontatzen ditu soldatapeko lanaren baldintza gogorrek; haurdun egonda gainera.

"Nire Carmen jaio zenean, ni olibak biltzen aritu nintzen urtarrilaren 14a arte, eta nire Carmen urtarrilaren 22an jaio zen; eta beste emakume bat ere haurdun zegoen; gizajoa olibak biltzen aritu zen azken olibondoraino; ezin izan zuen biltzen amaitu; ume hil bat izan zuen" (12. B-I).

Lan-baldintza latz horiek, diogunez, jasan behar izan dituzte emakume horiek, neska koskorrak zirenetik aritu baitira landako zereginetan, gizonezkoen baldintza berberetan. Aldea,



berriz ere, eskubide indibidualak iristeko aukera gutxiago izatean datza; izan ere, emakumeak gizonezkoaren onuradun eta mendeko dira, ezkontuta egon behar baitute. Berriz ere heteropatriarkatua ateratzen da argitara gizarte-antolaketan, emakumeek oinarrizko laguntzarik izango badute, gizonezkoei lotzera derrigortzen baititu.

2.3. Ondare-indarkeria

Ondare-indarkeriak, estu lotuta baitago indarkeria ekonomikoarekin, emakume batek dituen behar materialak eta bere ardurapekoenak asetzeko baliabideei eragiten die. Bikotekide zein haurren osasun, hezkuntza, etxebizitza eta elikadura beharrei arreta ez eskaintzearekin zerikusia dute bi indarkeria mota horiek. Ondare-indarkeriaren berezitasuna da emakumeek kreditu zein herentzien bidez, edo urteetan zehar egindako lanaren ordainsari gisa lortutako ondasun eta beste gauzen gainean erasotzaileek duten kontrola.

Mexikoko “Emakumeak indarkeriarik gabe bizitzeko Legea” izenekoak, honela definitzen du ondare-indarkeria: “Biktimaren biziraupenari eragiten dion edozein ekintza edo omisio. Honela adierazten da: objektuak, dokumentu pertsonalak, ondasunak eta balioak eraldatzean, lapurtzean, suntsitzean edo atxikitzean, baita beharrak asetzeko diren ondasun-eskubideak zein baliabide ekonomikoak ere. Bionak diren, edo biktimarenak bakarrik diren ondasunei eragiten dieten kalteak izan daitezke”.⁴

Aztertutako bizitza-istorioetan ondasun-indarkeria ageri da askotan, aztertutako eremu geografiko guztietan ageri baita, eta adin zein estratu sozialak zeharkatzen ditu. Gainera, kolektibo feministen babesak topatu arte, emakumeek bakarrik zeudela sentitu dute, inork ulertzen ez zituela eta zer egin ez zekitela, edo beren seme-alabek ere pairatzen duten egoera horretatik irteteko norengana jo ez dakitela. Kasu batean ere ez dute Estatuaren babesik jaso; are gehiago, beren salaketan kontrako erresistentziak bizi izan dituzte; hori erakunde-indarkeriaren atalean sartuko dugu.

Argi ikusi ditugu ondasun-indarkeria motak eta pairatzen duten emakumeengan dituzten ondorioak. El Salvadorreko emakume baten kasuan, erasotzailea ondasun- eta ekonomia-indarkeria egiten hasi zen, haren dirua kudeatuz, zer erosi erabakiz, eta elkarrekin erosi zuten etxea kenduz, presio zein iruzurren bidez.

“Nik ezin nuen neure dirua erabili, berak nire debitu txartelaren pasahitza ezagutzen zuen, bertan jasotzen nuen nire lanaren ordainsaria, eta denbora batez galdu ostean, soilik 60 zentimo utzi zizkidala ikusi nuen” (3. B-I).

Emakume kolonbiar bat ere indarkeria mota horren biktima da, balio sentimentala zuten objektu pertsonalen galera sufritzean (bere liburu, argazki eta diskoak erretzea). Aldi berean, erasotzaileak haren baimenik gabe etxeko altzari guztiak saltzen ditu, hala nola, oheak eta koltxoak bezalako oinarrizko gauzak, baita emakumeak beste ezkontza baten ondoren jaso zuen pisu bat ere.

“Lanean hasi zen berriro, eta Las Palmas-era joan ginen bizitzera, nire lehen senarrarena izandako apartamentu batera. Apartamentu hori saldu egin zuen, eta auskalo zer egin zuen diruarekin” (8. B-I).

⁴ Emakumeak Indarkeriarik Gabe Bizitzeko Lege Orokorra (Ley General de Acceso de las Mujeres a una Vida Libre de Violencia, LGAMVLV), Mexikoko Batasunaren Kongresuko Diputatuen Ganbera 2007, 2011an erreformatua. <http://www.cofemer.gob.mx/LGAMVLV.pdf>



Ondasun-indarkeriaren beste adibide bat Euskal Herrian dugu, indarkeria pairatu duen emakume batek kontatzen baitu nola banandu ostean baliabideak kendu zizkioten, ez baitzioten eman seme-alaben oinarritzko gastuak ordaintzeko nahikoa diru. Gauza bera gertatzen da Guatemalan, non, askotan, nahiz eta aitei kopuru jakin bat ordaintzeko agintzen zaien, hauek ez dute betetzen.

Emakumeenganako ondasun-indarkeria argi ageri den beste kasu batean, aitak familia osoa sarrera ekonomikorik gabe uzten du, emaztearen denda salduta haren baimenik gabe. Kasu horietan ikusten dugu Estatuak ez duela emakumeen eskubideak babesteko papera betetzen, onartu egiten duelako gizonek, jabeak ez diren arren, ondasunak saldu ahal izatea emakumeen baimenik gabe.

“San Lorenzora bizitzera heldu ginen, aitak amaren negozioa saldu zuelako, eta ezer gabe utzi zuelako, eta amaren aldeko aitona alokatzen dion etxe batera doa, eta amak aitarengandik bantantzea erabakitzen du” (16. B-I).

Larderia eta manipulazioen bidez, emakumeek etxetik kanpo egiten duten lanaren dirua lortzen dute erasotzaileek, dirua zertarako erabiltzen duten ezkutatu, eta familiaren mantenturako gutxieneko bat ere ezin gorderik. Horixe izan zen emakume kolonbiarraren kasua.

“Etxebizitzarako gizarte-funtsari uko egiteko konbentzitu ninduen. Ordukoan, asmatu zuen enpresa bat sortua zuela eta dirua behar zuela horretarako; beraz, uko egiteko konbentzitu ninduen, enpresa biona izango zela eta nik bertan lan egingo nuela aginduta. Nik diru guztia eman nion, baina ez nuen inoiz jakin zer egin zuen sosekin, eta horrela geratu nintzen, zerua goian eta lurra behean” (2. B-I).

“Lehen umea izan nuenean, ezgaitasunaren diru laguntza aldi batez ordaindu zidaten, eta esan zidan berak kudeatuko zuela, bestela nik xahutu egingo nuelako. Era berean ez nuen diru hori inoiz ikusi, eta ez dakit zertan xahutu zuen” (2. B-I).

Testigantzetan topatu ditugu egoerak non erasotzaileek, beren nagusitasuna eta indarkeria ekonomikoa indartzeko helburuarekin, ez duten lanik bilatzen, nahiz eta horretarako baldintza fisikoak izan. Halaber, ez dituzte seme-alaben zaintza lanak eta etxeko lanak bere gain hartzen; horrela, emakumeak jardunaldi bikoitzak egitera behartzen dituzte, eta diru-sarrera egitera bizikidetzaren unitatean; aldi berean, saiatzen dira familia giroari eusten.

2.4. Norberaren lurraldearen kontrako indarkeria, indarkeria desarrollista

Konpainia multinazionalak mundu-ekonomiaren sektore estrategikoen zati handi bat kontrolatzen dute; horrela, munduko leku askotan erauzketa-eredua sustatzen dute, zeinaren oinarria den etekin ekonomikoak lortzea, zerbitzu publikoak privatizatzen eta baliabide naturalak suntsitzearen bidez. Beren jarduera sektore hauetan burutzen dute nagusiki: meatzaritza, energia hidroelektrikoa, telekomunikazioak, petrolio, nekazaritza-industriako laborantza, zementua eta, oro har, herriak zein komunitateak beren lurraldeez, bizimoduez eta oinarritzko eskubideez gabetzen dituzten jarduerak. “Enpresa transnazionalak pilatutako itzelezko irabaziek beren jatorria dute aberastasun ekonomikoa erauzi eta eskuratzeko mekanismotan, kapitalismoaren funtzionamenduaren oinarrian baitaude” (González eta Ramiro 2013).

Desjabetzearen bidezko etekin-metaketaaren kategoria David Harvey-ren (2005) ekarpena da, kapitalismoaren etapa horretan gertatzen dena aztertzeko. Ezaugarrietako batzuk —



hala nola, ereduak funtzionatu dezan lurraldeaz gabetzea eta berregituratzea— jatorrizko etekin-metaketa-aren antzekoak dira. Esperientzia historikoak erakusten du eskala handiko proiektu ekonomikoak ezartzeko indarkeriazko dinamikak, autoritarioak, behar direla, eta hori lortzeko Estatu-nazioen babes behar da. Inbasioak, diktadurak eta erregimen militarrek forma funtzionalak izan dira herritar askoren kalterako izan diren mega proiektuak gauzatzeko, baita herri osoen desplazamendua, desagertzea eta sarraskia bultzatzeko ere. Hori hobeto uler dezakegu testuinguru historiko eta geografiko ezberdinetan gertatutako bi kasuren bidez, bat Espainiako Estatuan eta bestea Guatemalan.

Espainiako Estatuari dagokionez, Janovas izeneko Aragoiko herri txiki batean gertatutakoa dago; diktadura betean nahitaezko desjabetzea jasan zuen inoiz egingo ez zen urtegi bat eraikitzeko. Herritarrak beren bizi-eremutik bota zituzten, baina ez zaie inoiz barkamenik eskatu, ezta lurrik itzuli ere. Laburbilduz, ez da egon mina ordaintzeko inolako prozesurik. Gaur egun, herri osoa Endesa-rena da (28. B-I).

Guatemalan ere komunitate osoen desjabetze prozesuak ditugu; adibidez, Huehuetenango-ko iparraldean, komunitate horretako emakume buruzagi baten arabera, metalak erauzteko 44 baimen eta hidroelektrikoen 21 baimen daude indarrean:

“Gure kontrako atzemate-agindu bidegabeak ditugu, oinarri errealik gabekoak, soilik alkatearen eta bere jarraitzaileen larderiarengatik. Hori da nahi ez duguna, eta beraiek kriminalizatu egiten gaituzte” (17. B-I).

Indarkeria mota horiek, bereziki Latinoamerikan, jarduteko eredu bat zehaztuz joan diren ezaugarri jakinak dituzte. Emakumeentzat, inposatzeko modu autoritario horiek gorputzetik pasatzen dira: esplotazioa, esklabotza (sexuala barne), sexu-bortzaketa eta bestelako indarkeria fisiko indibidual zein kolektiboak emakumeak menderatzeko estrategien parte dira.

Lurraldea eta boterearen espazio politikoak oso azkar maskulinizatuz joan dira, eta hori egiaztatu egiten du krisi sozial honen eragile nagusien etorrerak; besteak beste, Estatuaren “segurtasun indarrek” eta eragile paramilitarrek.

Aliantza horren emaitza erauzketa-industriaren presentzia masiboa da; ustiatzeko eta etekinak lortzeko beharrezko dituzten lurraldeez jabetzeko, bertako herritarrak kanporatzen dituzte. Horrek gatazka asko sortzen ditu, eta, ondorioz, herri osoak desplazatu behar izaten dira, horrek dakarren kultur deserrotze eta pobretze ekonomikoarekin. Prozesu horiek, bereziki, jatorrizko herriei eragiten diete, oraindik ez baitira osatu kolonizazio prozesuek, gerra zibilek eta diktadorek sortutako genozidioez.

Erauzketa jarduera horren eta bere ondorioen aurkako antolakuntza eta mobilizazioek komunitateen errepresio olatua eragin dute gobernuen aldetik; azken horiek nahiago izan dute merkatu neoliberalera irekitzeko politikak martxan jarri, lurralde horiei lotutako bizitzen iraunkortasunean ardatzutako proposamenak garatu ordez.

Latinoamerikan eskualde-integratzailearen ekimenak martxan jarri ostean —esaterako, merkataritza askeko itunak—, lurraldearen jabetza esku gutxiagotan metatzea gertatu da. Horrek bertako herritarren kopuru handi bat kanporatzea eragin du. Horren aurrean, komunitateak berrantolatu egin dira, galdeketa aske eta informatzailearen mekanismoak erabiliz⁵, babes-terko beren kabuz antolatuz, nahiz eta orain arte galdeketen emaitzak errespetatu ez diren.

5 Mekanismo horrek, Lanaren Mundu Erakundearen 69. Hitzarmenean jasoa [1969], aintzat hartzen du Aurretiko Kontsulta Aske eta Informatzailearen garrantzia, jatorrizko herrien osotasuna arriskuan jar dezakeen edozein prozesu martxan jarri aurretik, direla Estatuak berak ezarritako neurri legegile edo administratiboak, edo ekonomia- zein garapen-proiektuak.



Guatemalaren kasuan, mobilizazio handia gorabehera, eredu hori 2004an ezartzen hasi zenetik gaur arte gobernu batek ere ez dio balio legal edo politikorik eman herri ariketa horri. Aitzitik, bertako agintariei kontsultatu gabe heldu ziren enpresak, lurraldeak gehiegikeriaz eta argia ez zen moduez hartuta.

“Galdeketa aurretik, 79 komunitatetara joan ginen, jendearekin hitz egin genuen, meatzaritza ustiapenez galdetu genuen, komeni zitzaien ala ez. Emaitzak hiriburuan entregatu zirenean joan nintzen, kostatu zitzaigun sartzen utz ziezaguten, energia eta meatzeen ministerioan; Bravo ministroak zioen galdeketa ez zela loteslea; besterik gabe herri baten erabakia uztera gindoazela, ez genuen nahi beste herrialdeetako enpresak meatzeak ustiatzera etortzerik, 24km koadro baimendu zituzten Triquina-n, ekialdetik hegoaldera dena hartzen zuen, Santa Eulalia zerrenda bat delako” (17. B-I).

Estatu-errepresioa topatu dute erauzketaren eta desjabetzeen kontra agertu diren komunitateek: larderia eta eskaintza ekonomikoak uztartuz, tokian tokiko agintarien kontra legegaren presioa erabiliz, komunitateen barruan zatiketa sortuz eta edozein protesta-ekintza penalki jazarriz. Horrela, tentsioek gora egin eta gatazkak sortzen dira leku horietako askotan, indarkeriazko egoerak eraginez, baita bidegabeko ebasteen aurka daudenen atxiloteta edota erailketa.

“Desjabetzea indarkeriazko ekintza da, argi eta garbi, eragin psikologiko larrian izan zituena jasan zuten familietan” (28. B-I).

Tentsio gorakada horren aurrean, agintariek, aparatu judizialak eta segurtasun indarrek, orokorrean, enpresen jarduera legal zein ilegalak babesten jarduten dute, eskubide urraketak horiek salatzen dituzten pertsonak kriminalizatuz.

“Bi aldeetatik ez zen adostasunik lortu negoziazioan, eta adostasunik ez zegoenez, desjabetze aginduarekin heldu ziren eta irten egin ginen; beraiek aurreikusten zutena ordaindu ziguten eta kitto, horrela bukatu zen kontua” (28. B-I).

Manifestazio, martxa eta bileren aurka, poliziaren interbentzioa indar militarrekin lagundu ohi da. Horrela, Estatuak dauzkan tresnak erabiltzen ditu, legalitatea luzatuta eta desitxurata, herritarrek aurka egon arren enpresen ezartzea babesteko.

“Guardia zibilek bere objektu pertsonal guztiak kalera atera zizkieten, eta gure kaletik itzultzen ari zela, buelta eman zuen eta ikusi zuen nola enpresaren pala batek etxea botatzen zion, itzuli ez zedin; irudi horrekin dena bukatu dela pentsatzea besterik ez duzu, zure bihotzeko min guztiarekin” (28. B-I).

Guatemalako komunitatetan, gerra bitartean gertatu zen bezala, emakumeek sexu-bortxaketa eta femigenozidioa⁶ bezalako abusu larriak jasan izan dituzte.

Emakumeak dira lurraldearen defentsarengatik borrokan ari direnak, baita alderdi txarrena jasaten dutenak ere. Haietako asko atzemate-agindu baten mehatxupean daude.

“Beste kideekin batera atzemate-agindu bat dudan lehenbiziko aldia da” (17. B-I).

Jazarpen politikoak ezberdin eragiten die emakumeei, desplazatzera behartzen baitituzte, zenbaitetan beren familiak eta etxeak uztera behartuta. Beren etxeetan geratzea erabaki

6 Rita Segatok garatutako kontzeptua: “Femigenocidio y feminicidio: una propuesta de tipificación”, Revista Herramienta Nº 49 <http://www.herramienta.com.ar/revista-herramienta-n-49/femigenocidio-y-feminicidio-una-propuesta-de-tipificacion>



zutenak eguneroko gauzak egiteko —lan politikoa barne— irtetearen beldur dira. Helburua haiek izutzea da, eta herritarren iritziauren aurrean izena kentzea; horrela, emakumeen erantzun ezkonformista geldiarazi nahi dute, beren gorputzekin defendatzen duten natura eta bizitzaren aurka doan balizko garapen-eredu bat inposatuz.

Protesta kriminalizatzeak ezintasun eta injustizia sentimendu sakona sortzen du herritarrengan, eta horrek, aldi berean bi ekintza gauzatzeko beharra dakar, eta neke bikoitza, beraz: batetik, beren borroka eta eskaeren ekintzak indartzea, eta, bestetik, borrokaren zilegitasuna azaltzea.

“Atzimate-agindua dut, alkatea bahitu genuela diote, kriminal sare bat garela. Senide askok, ilobek, atzimate-aginduak dituzte ezer egin gabe. Hildakoak, bahituak, desagertu bat dago. Nire iloba hilabete eta erdiz espetxeratu zuten” (17. B-I).

Justizia-sistema enpresen alde eta herritarren kontra erabiltzeak, klase menderatzailearen neurriera eginda dagoelako sentimendu eta pertzepzioa sortzen du —indigena, nekazari eta emakumeen artean berria ez dena—, bereziki enpresa nazionalen zein transnazionalen jabe diren gizon aberatsen neurriera, eta hori guztia biribiltzen du segurtasun indarrak haien zerbitzura egoteak.

Errealitatean, jazarpen politikoaren eta protesta soziala kriminalizatzearen oinarrian daude, hala nola: pobreziaaren kriminalizazioa; lurraldearen desjabetzearekin kritikoak diren herritarren kriminalizazioa; eta indigenen eta, bereziki, emakumeen jazarpena, lurrarekin duten lotura zuzena medio, proiektu horien kontrako gehienak emakumeak izateagatik.

“Alkateak eta bere jarraitzaileek beti diote ez dugula udalerrria garatzerik nahi, garapena nahi dugu, ez gure aberastasunak kentzera etortzea. Gerrillariak garela diote. Jendeak gaizkiletzat ikusi gaitzan nahi dute” (17. B-I).

Emakumeek etengabe pairatu dituzte erasoak urte hauetan: lurraldeak saltzeko manipulazioa, indarkeria eta presioa; larderia, xantaiak eta sexu-esestearen bidezko mehatxuk. Halaber, emakumeak kikiltzeko beste modu bat erabiltzen dituzten bideetan lehergailuak jartzea da.

Lan komunitario eta politikoan berriz ere aktiboki hastea, emakumeentzat, indar publikoen, Estatuaren, hedabideen eta transnazionalen indarkeria moten subjektu izatea dakar. Antolatzen diren emakumeen kontrako zurrumurruek, haien egoera eta sexualitatearen estigmatik erlazionatuz, senitarteko, aita, senar, anaien edota komunitatearen kontrola eragiten du, beren aktibismoa susmagarri ikusten baitute.

“Gu zurrumurruetan sartzea da gehien egin duten gauzetako bat. Esaten dute gure erruz udalerrian ez dagoela proiekturik, bera denean dena lapurtu duena. Nik esaten dudana da ni ezin naitzela atera, laneko kontuak direla eta bi hilabetean behin Guatemalara joan behar dudala, baina ezin dudala. Huehuetenangon alaba daukat, baina ez dut bisitatzen, batzuetan joaten naiz, baina halako batean hartuko nauten beldurrez” (17. B-I).

Azken urteotan, enpresen jardunaren kontra agertzeagatik jazarritako eta espetxeratutako jende kopurua igo egin da. Preso politikoak dira, eta egin ez dituzten delituak leporatzen dizkiete antolakuntza komunitarioa desegiteko helburuarekin.

Heteropatriarkatua elikatu egiten da aberastasuna metatzeko kapitalak duen modu horren bidez; genero harremanak berrartikulu egiten dira, baita estereotipo eta rolak ere, gizon



militar eta paramilitarretatik hasita, janaria saltzen duten zein prostituzioan aritzen diren emakumeetaraino. Horrela, enpresek inposatutako baldintzak onartzeari lotuta dauden maskulinitateak sortzen dira, komunitateen eta bizitzaren iraunkortasunaren kalterako.

Feminitateari dagokionez, egitura neoliberal heteropatriarkal honetan, indartu egiten da eremu publikotik emakumeak baztertzea, jardun politiko guztietatik eta enpresekiko negoziatioetatik baztertuta geratzen direlarik.

“Desjabetze kontratuak emakumeek ez zeukaten ahotsik, etxeko gizonaren eta enpresako ingeniariaren artean negoziatzen zen zerbait zen. Desjabetze kontratuetan begiratu gero, soilik alargun diren emakumeak ageri dira; zenbaitetan emakumeak jabe izanda ere, gizonak ageri dira kontratuan” (28. B-I).

Eredu hori jatorrizko komunitateetara ere zabal daiteke, diskriminazio etniko batek areagotuta, emakume zein gizon indigenen iritzia ukatzen duena.

“Estatuak lan egiten utzi beharko liguke, lizentzia guztiak eten eta guri egindako kalte guztiak ordaindu. Guatemalako nazionalitateei aukerak eskaini, lege guztiak kontuan hartu gaitzaten” (17. B-I).

2.5. Erakunde-indarkeria

Arlo juridikoko lorpenak gorabehera, heteropatriarkatua, “gizonezkoen arteko hitzarmen metaegonkorren multzoa” (Amorós, 2005: 127), aske aritzen da erakundeetan, funtzionario publikoetan eta jurisprudentzian. Ukaezina da, gizarte zibilaren eta mugimendu feministaren aldarrikapenei esker, aurrerapausoak egin direla emakume batzuen eskubideak bermatzean. Soilik emakume batzuentzat dela zehazten dugu, legeak haien arteko aniztasun izugarria ez duelako aitortzen, eta zuzendu egin delako klase ertaineko emakume cis⁷, zuri, heterosexual, gaitasun normatibodun eta administrazio-agiri erregulardunentzat, definizio estu horretatik kanpo geratzen diren emakumeak babes gutxiagorekin utziz. Emakume batzuei gehiago eragiten dien lege-diskriminazio hori salatzeaz gain, kontua da, guztiak, emakume izate hutsagatik, traba ugari gainditu behar dituztela Estatuak eta nazioarteak legeetan aitortutako oinarritzko eskubideak izateko.

Emakumeen kontrako erakunde-indarkeria islatu egiten da beharrezko prestasun faltan (babes-neurriak berehala ez agintzea, legea apetz ezartzea, administrazio- eta justizia-akordioak ez betetzea onartzea, indarkeria kasuak ez ikertzea, berdintasun printzipioa urratzea, indarkeria bizi duten emakumeen prozesu judizialen bermea haustea); halaber, nazioarteko hitzarmenak ere ez dira ezartzen (CEDAW, Belem do Pará), Estatuak gaineko nagusitasuna badute ere.

Traba nagusietako bat administrazio funtzionarioen aldetik pairatzen duten diskriminazio tratua da, haiek baitira legearen betetzailerak. Administrazio publikora jotzea, aurreiritzi heteropatriarkalekin talka egiten duen bidea bihurtzen da normalean; izan ere, emakumeak epaituak izaten dira, beren testigantzak zalantzan jarriz, Estatuak onartzen duen indarkeria eta prekariedade egoeraren erruduntzat joz, eta infantilizatuz, eskubideen subjektu izateko duten autoritatea ukatzeko helburuarekin.

7 Jaiotzean esleitu zaien sexu/generoaren arabera bizi diren emakumeak.



Eskubide ekonomikoen eta laguntza sozialen arloari dagokionez, topatzen dugu, adibidez, Euskal Autonomia Erkidegoko (EAE) lege bat, zeinak deskribatzen dituen laguntzak jaso ahal izateko bete beharreko baldintzak, baita aurkako norabidean doan funtzionarioen eguneroko jarduna eta zenbait emakumek —baldintzak bete arren— laguntzak jasotzea eragozten duena.

“Lanbideko⁸ zuzendariarekin hitz egitera joan ginenean, ez ulertuarena egiten zuen, esanez bezala, “hara, baina nola liteke tramitatu ez izana”. Orduan hartu zen ezarritakoa betetzeko konpromisoa; oporretatik itzulitakoan, beste hiru kasu berdin izan ditugu” (Orientatzailea, 19. B-laren laguntzailea).

Testigantza hori auzoko elkarte feminista bateko orientatzaileak eman du, istorio honetako protagonista laguntzen baitu gestioak egiten. Zalantzarik gabe, hori beste indarkeria mota ohiko bat da, prozesuaren burokratizazio handia, beti ez daukaten dedikazioa eta indarra eskatzen baitie; izan ere, esaten dugun bezala, biritza-prozesu konplexuetan murgilduta daude, batzuetan indarkeria matxistaren biktima dira, edo bizi diren lurraldeko hizkuntza zein administrazioaren logika ulertzeko zailtasunak dituzte.

“Ezer gabe ikusten nuen neure burua, alokairu bat ordaintzen ari naiz... Ez neukan ezer, ezer ere ez, esan nahi dut, ezer ere ez. Lanbidera joan, laguntza bat eskatu eta hor hasten da odisea izugarria. Agiri guztiak neramatzan, handik hamabost egunera paper gehiago eskatzen zizkidaten, eta berriz ere hastera” (19. B-I).

Arrazoi batengatik edo beste batengatik, kontua da agintari publikoek ez dituztela emakumeen eskubideak zaintzen; aitzitik, ez dituzte eskubide horiek betetzen, bazterketa prozesua laguntzen dute eta emakumeen egoera ekonomiko prekarioa larriagotzen. Bikote heterosexualaren barneko indarkeria matxistaren prozesuetan⁹, autonomia ekonomikoa funtsezkoa da erasotzailearekiko lotura apurtzeko. Gorago esan dugu kontrolatzeko ohiko jarduera dela lotura sentimentala duen emakumea isolatzea, eta lan bat izan dezala eragoztea. Horrek erasotzailearen irabaziekiko mendekotasuna sortzen du, eta baita bere curriculumak erakargarria ez izatea merkatu kapitalista gizagabe lehiakorrenzat. Hartara, emakume batzuei Estatuaren aldetik laguntza ekonomiko bat jasotzeko aukera geratzen zaie soilik, eta laguntza jasotzean jartzen zaizkien traba burokratikoek ez die batere laguntzen erasotzailearekin duten lotura hausteko erabakiari eusten.

Gizarte kapitalista heteropatriarkaletan, enplegua da finantza-autonomia lortzeko bide nagusia. Nahiz eta enplegu bat eduki, gero eta zailagoa da segurtasun ekonomikoa izatea; enplegurik gabe ia ezinezkoa da; are gehiago, kontuan hartzen baditugu laguntza sozialak lortzeko aipatutako zailtasunak.

Indarkeria matxistaren biktimen lan-eskubideei dagokienez, Genero Indarkeriaren Aurkako Babes Integralerako Neurrien lege organikoak 22. artikuluan xedatzen du “berariazko ekintza-programa bat, lan bila ari diren genero indarkeriaren biktimentzat” (1/2004 Legea). Euskal Autonomia Erkidegoari dagokionez, enplegu-bulego bakoitzean lan-orientazio zerbitzu espezializatu bat abiarazi da hori betetzeko. Aitzitik, legea argia den arren, eta zerbitzua horren zuzendaritza taldeak existitzen dela esaten duen arren, oso bestelakoa da bertaratzen diren emakumeek topatzen duten errealitatea.

⁸ Lanbide Eusko Jaurilaritzaren mendeko Enplegurako Euskal Zerbitzua da.

⁹ Genero Indarkeriaren Aurkako Babes Integralerako Neurrien Lege organikoak (1/2004) babes neurriak ezartzen ditu soilik harreman heterosexualetan indarkeriaren biktima diren emakumeentzako.



“Guztiz faltsua da Lanbideren bulego guztietan tutore bat dagoela. Gu emakumeak laguntzera joan izan gara eta sekula, inon, ez dugu inolako tutorerik topatu” (Orientatzailea, 19. B-Iren laguntzailea).

Testigantza eskaini duten emakume guztiak funtzionarioek prestakuntza egin dezaten eskatzen dute, estereotipo matxista, heterosexista, arrazista eta klasistetatik aske dauden esku hartze eta behaketak egin ditzaten, hartzen dituzten erabaketan eragina baitute, emakumeen bizitzetan ondorio larriak dituztenak. Horrela kontatzen du emakume transexual batek; enplegu eskatzeko eskubidea erabilita, lan-informazioa eskatzera joan zenean, indarkeria transfobodun iruzkinak egin zizkioten.

“EINera joan nintzen, eta hara nolako gizonarekin topatu nintzen... Azazkalak margotuta eta ilea luzetxo neraman, oso sinple, eta esan zidaten: Eta zu lan bila ari al zara? Ba lehenbizi kendu ezazu azazkaletako esmaltea eta moztu ezazu ilea (...) Orduan konturatu nintzen prostituzioa zela neukan irtenbide bakarra” (11. B-I).

Horrela, aholkulari ardura duten langileak balio heteropatriarkalen zaindari bihurtzen dira, sistema binario dikotomikoa indartuz, zeinak emakume eta gizonen fikziozko definizio tradizionalen oinarritzen ez diren identitateak baztertzen dituen; horrek, ondorioz, emakumeak nahi ez dituzten lanak —eskubiderik eta berme sozialik gabekoak— egitera bultzatzen ditu. Elkarrizketatutako emakumeak daukan blog pertsonalean salatzen duenez, Espainiako Estatuan, 2010ean emakume transexualen %70ek ezin izan zuten lan arautuaren merkatura sartu, bigarren mailako herritar gisa geratuta.

Lanerako eskubideari jartzen zaizkion oztopoekin jarraituz erakunde-indarkeriaren motatzat ulertuta, emakume preso ohiek¹⁰ lan-bizitzan hasteko dauzkaten zailtasunak topatzen ditugu. Horrela kontatzen du parte hartu duen emakume batek, zeina atxiloaldi prebentiboan egon zen balizko delitu bat leporatu ostean, eta frogarik ez edukitzeagatik absolbitu egin zuten. Berriz ere, protestaren kriminalizazioaz ari gara, eta zenbait mugimendu sozialen errepresioaz, kasu honetan, mugimendu abertzaleaz (Euska Herria). Istorio horren protagonista, Espainiako Estatuko “segurtasun” indarrek inkomunikatu eta torturatu ostean, atxiloaldi prebentiboan egon zen urte eta erdiz, azkenean absolbitu zuten arte. Estatuak ez ditu inolaz ere espetxealdiaren kalteak ordaindu eta ez ditu torturak onartzen. Horri gehitu behar diogu familiak bisitak egin ahal izateko egin zuen inbertsio ekonomikoa, kontuan hartuta, gainera, sakabanaketa politikaren ondorioz bere lurraldetik urrun zegoen espetxe batera aldatu zutela. Preso ohiak dionenez, lan egin ezin izan zuen urte eta erdi horren kalteez gain, zailtasun gehienak inhabilitazio arriskuaren pean lan egitean topatzen ditu.

“Nik barneratua nuen hezitzailea izanik, espetxetik irteteen ez nuela horretan lan egingo. (...) Ahaztu ezazu inongo sektore pribatutan lan egitea, orain ezta publikoan ere. Orain, inhabilitatu egiten zaituztenean, ez da soilik kargu publikoetarako, baizik eta edozein irakasle-kargurako” (23. B-I).

Inhabilitatzeak duen eragin ekonomikoari, aipatutako lekualdatzeen kostua gehitu behar zaio, baita zerbitzu juridikoen eta absolbitu osteko berme baten ordainketa ere, espetxetik ahalik eta azkarren irten ahal izateko. Hori guztia gastu handia da familiarentzat, eta Espainiako Estatuak ez du inolako kalte-ordainik eman.

10 Kontziente gara lan-merkatuan sartzea zaila dela preso sozial zein preso politiko ohientzat; kasu honetan, azken horietaz ari gara.



Emakumeen eskubide ekonomikoak urratzen direnean, horiek dira topatzen ditugun ohiko praktikak. Administrazioak eta agintariek zabarkeriaz jokatzeko dute, arauak ezarri gabe, modu kaskarrean eginez, edo emakumeen eskubide ekonomikoak bermatzeko behar diren baldintza juridikoak sortu gabe.

Aztertutako bizitza-istorioetan, kasu batean ere ez da kalte-ordainik egon administrazioaren aldetik, praxi okerren ondorioz. Are gehiago, jurisprudentzian eta arauak ezartzean dauden aurreiritzi matxisten ondorioz, erasotzaileen eskubideak emakumeen eskubideen gainetik gailentzen dituzten epaiekin egiten dugu topo; hala nola, elikagai-pentsioak ezartzean, edo, emakumeen kontrako indarkeriaren muturrean, feminizidioetan.

Azken horri dagokionez, estereotipo matxistek eta klase-estereotipoek oso aliantza txarra egiten dute; bidezko epaiketa bat egin eta mina ordaintzea oztokatzen duena feminizidio batean, neska gazte baten erailketa haren amak kontatzen duenean. Oihartzun handia izan zuen kasu bati egiten diogu erreferentzia, krimena gertatu zen testuinguruarengatik eta hiltzailearen gizarte mailarengatik; izan ere, gizarte-maila altuko familia da, eta prestigioa ere badute bizi diren hirian. Erailketa jai-giroan gertatzen da, hasieran biktimak eta lantokian bere kide izandakoak harreman intimo bat adosten dutelarik. Egitate horrek etengabe baldintzatu zuen herri epaimahaiaren balioespena, biktimaren azken erantzuna jarraitzeko ezetza izan zela saihestuz; ezezko horrek piztu zuen hiltzailearen amorrua eta indarkeria.

Horixe da prozesuaren akatsen inguruan familiak salatzen duen gauzetako bat; genero-, sexu- eta klase-estereotipoz jositako herri epaimahai bat aukeratzetik —epaia baldintzatu eta zigorra nabarmen murriztuta—, ondasuna aringarri gisa erabiltzeraino.

“Justizia ezberdina da batzuentzat eta besteentzat, ezberdintasun handia dago biak gizarte-maila berekoak ez izateagatik (...). Nire alabak 126.000 euro balio zuela esan zuten, auto-istripu batean hildako 20 urteko neska batek balio duen berdina. Diruaren kontua ikaragarria, izugarria iruditzen zait. Ez dut ulertzen, bi urte eta erdi jaitsi zizkieten. Ezin dugu onartu... Erailketa kontuetan ordaintzea, ez dugu nahi gure alabengatik ordaintzea, justizia izan dezatela baizik” (14. B-I).

Klase- eta genero-estereotipoak prozesu osoan zehar egon ziren, biktima bera epaituz, haren bizitza sexualari buruzko galderak eginez, eta hiltzailearekiko enpatia agertuz haren gizarte-maila dela eta. Horrek mesede egin zion bere irudia hobetzeko, eta hilketa delitua —eta horrek dakarren espetxe-zigor handiagoa— ez leporatzeko. Bestalde, ez zuten aintzat hartu familiak egin zuen eskaera: kalte-ordain ekonomikoa mina ordaintzeko eta zigorra arintzeko ez erabiltzea. Azkenean, defentsak aurkeztu zituen lau aringarri aintzat hartu zituen epaiak: mozkorkeria, aitorpena egitea, haserrealdia, eta aipatutako kalte-ordainak.

Testigantza eskaini duen El Salvadorreko emakume baten kasuan ere, erakunde-indarkeriak justizia lortzea oztopatu zuen. Tartean zeuden erakundeek bi aldiz biktimizatu zuten, seme-alabengandik bananduta zegoen, beren etxetik, GKE baten laguntzarekin herrialdetik ihes egitera behartua, lasaitasun eta segurtasun bila. Erasotzaileak argi zuen gurea bezalako gizartean diruak boterea ematen duela; beraz, emakumeari haren baliabide ekonomikoak eta ondasunak kendu zizkion, sekulako aldea ateraz.

Ohikoa da kasu horietan erasotzaileek botere ekonomikoak justizia-sistemaren barneko harremanak erabiltzen lortzea. Horrela, erakunde publikoak haien alde jarri, eta defendatzeko eta salatzeke eskubidea erabiltzen duten emakumeei errua botatzea lortzen dute.



“Sistema edozer egiteko prest agertu dute, eta uste dut orain prest nagoela izenak emateko, ez delako zuzena kargu horiek hor egotea umiliatu egin banaute, eta badaukat kaudimen morala haiei aurre egiteko, beren burua saldu ez dezatela eskatzeko. Etsipen handia hartu dut sistema-rekin, nire seme-alaben aitaren konplize izan zirelako” (3. B-I).

“Gogoan dut lehenengo auzialdian fiskalak ez zuela kasua ikertu, ez zuen Errepublikako Prokuradoretza Nagusiaren orduko kontuen egoera ere eskatu” (2. B-I).

Garrantzitsua da azpimarratzea El Salvadorren, indarkeria matxistak irautea ez dela legeria faltarengatik; izan ere, badago emakumeen Giza Eskubideak jasotzen dituen marko juridiko bat, Emakumeen Kontrako Indarkeriarik Gabeko Bizitzarako Lege Integral Berezia (LEIV), eta Berdintasunerako, Zuzentasunerako eta diskriminazioa Erauzteko Legea (LIE) bezalako bidez. Halaber, zentzu horretan, hainbat Nazioarteko Akordio sinatu eta berretsi ditu Estatuak.

Aldiz, ez da zaintza-lanetan aritzen direnen lan-eskubideen kasua. Izan ere, langile horiek babes-erregimen berezi bati daude lotuta; erregimen hori bigarren mailako lege batean jasotzen da, eta gainerako produkzio-sektoreekiko ezberdintasun egoeran kokatzen ditu emakume langileak. Aipatutako erregimenak, langileen eskubideak bermatu ordez, haieki-ko bazterkeria eta diskriminazioa areagotzen ditu.

Gizarte Segurantzaren zaintza-lanetan aritzen direnei historikoki ukatu zaien eskubideetako bat da. Estatu-legeria batzuetan, akordioak onartu dira eskubide hori izan dezaten. Hala ere, langile gutxiak dute eskubide hori gauzatzeko aukera; horrek, beste behin, agerian uzten du botere publikoen aldetik dagoen interes falta, indarkeria mota hori errotik kentzeko eta emakume langileentzako baldintza hobek sortzeko.

“Lan batean ere ez ninduten gizarte segurantzaren sartu. Gabonsaririk ez zidan ematen, oparixto bat ematen zidan soilik, eta gogoaz bazuen 10 dolar. Aparteko orduak ez zizkidaten inoiz ordaindu, nahiz eta batzuetan jaiegunetan ere lan egiten nuen” (1. B-I).

Halaber, haien lanaren balioespen eskasak, klase-estereotipo eta pobrezia zein migratzearen kriminalizatzearekin batera, zalantzan jartzen ditu langileak instantzia judizialei helegiteak jartzen dizkietenean, lan-indarkeriaren atalean deskribatu ditugun bidegabeko kale-ratzeen aurrean justizia eskatzeko.

Gure analisia erakunde-indarkeriari erreferentzia eginez bukatuko dugu; indarkeria horri egiten diote aurre beren lurraldea, ura eta baliabide naturalak defendatzen dituzten emakumeek, beren aldarrikapenak entzunarazi nahian, enpresa hidroelektrikoetan eta meatzaritzan ari diren enpresen erauzketa-jardueren kontra egiteaz batera.

Aztertutako kasu batean, Guatemalako emakume baten kontra atzemate-agindua ezarri zuen Ministerio Publikoak, alkate ohiaren eta Justizia Administrazioaren Zentroko langileen eskaerari jarraituta. Jazarpen penal hori erauzketa-proiektuen inposizioaren eta Estatuaren abusuen aurka herritarrek erakutsitako jarrerari emandako erantzuna da.

Kriminalizazioa ekintza legeletan oinarritzen da bereziki; ekintza horiek Estatuaren segurtasun indarrak erabiliz indartzen dira, kapitalaren kontrolaren proiektua bermatzeko. Zati oso garrantzitsua da beren eskubideak defendatzen dituzten horiei buruz eta egiten dituzten gauzei buruz egia faltsu bat eraikitzea. “Protesta soziala kriminalizatzea modu ezberdinetan adierazten da, protesta edo gatazketan segurtasun indarrek esku-hartze biolento bat egite-



tik, lider sozialak epaitu, bulegoetara legez kontra sartu, zuzen edo zeharka mehatxatu, eta lider sozialen¹¹ lanari sistematikoki izena kentzeraino ”.

Justizia-sistemaren ustelkeriak are larriago egiten du emakumeek pairatzen duten indarkeria-egoera; izan ere, erasotzaileek beren boterea erabiltzen dute prozesu juridikoak oztopatzeko.

Laburbilduz, legeetan aurreikusten den eskubideen bermearen eta eskubide horien benetako defentsa artean —emakumeen eskubideen kontua denean— ezberdintasun handiak hautematen dira, baita agintari eta erakunde publikoek eskubide horiek aplikatzen dituztenean ere. Halaber, aipagarria da zenbait administrazioen ustelkeria maila, epai eta ebazpen judizial askotan islatzen baita.

3. ERAGINAK ETA ERRESISTENTZIAK INDARKERIA HORIEN AURREAN

3.1. Eragin nagusiak

Goragoko ataletan deskribatu diren indarkeria ekonomikoak erraz lotu daitezke Nazio Batuen Garapenerako Programak giza pobreziaz egiten duen definizioarekin: “funtzionatzeko gaitasunen falta edo muga; barne hartzen du gizakien errealizazioa mugatzen duten faktore guztiak, hala nola, irabazi nahikorik eta lan duinik ez edukitzea, segurtasunik eza, elikadura okerra eta hezkuntzarako aukera falta” (NBGP 2010). Nazio Batuen Garapenerako Programa horren arabera, emakumeek historikoki ikusezinak izan diren lan erreproduktiboen arduradun nagusiak izaten jarraitzen duten bitartean, lan-merkatuak “emakumeentzako” jotzen diren lanetara baztertzen ditu, horrek dakarren ordainsari kaskarragoarekin eta prekaritatearekin¹².

Horrela, pobrezia emakume askoren gorputzetan txertatzen da, haiek baitira ezberdintasunaren eta indarkeria ekonomikoaren biktima nagusiak, etxean zein eremu publikoan. Indarkeria mota horiek ikusezin bihurtzen diren arren, haien bizitzak zeharkatzen dituzte, nagusiki mugatuz, batetik, elikadura, hezkuntza zein osasuna eskuratzea, eta, bestetik, eskubide sexualak, erreproduktiboak eta etxebizitza-eskubidea.

Indarkeria ekonomikoak emakumeen autoestimua eta diru-autonomia ahultzen ditu. Indarkeria ekonomikoa bikotekidearen edo bikotekide ohi gizonetzkoaren aldetik pairatzen den indarkeria matxistaren prozesu integralaren elementu bat gehiago denean, emaitza, arlo ekonomikoan, emakumeak pobretzea da. Ikusi dugunez, asko dira erabiltzen diren moduak; normalean, emakumeari enplegu bat izatea debekatuz, edo elkarrekin dituzten ondasunen jabetza aldatuz egiten da, baita soilik emakumearen ondasunak ere aldatuz. Halaber, ohikoa da emakumeak enplegu bat baldin badu, gizona haren soldataz jabetzea, edo kontu korrontearen onuradun bakarria bezala agertzea. Emakume batek kontaktatu zenez, erasotzaileak behartu egin zuen lana uztera kalte-ordain bat kobratu ahal izateko. Aukerak asko dira, baina emakumeengan duen eragina mendekotasun ekonomikoa eta tratu txarreko lotura dira, diru-autonomia faltaren ondorioz, besteak beste.

11 Echeverría, Jennifer. “Criminalización de la protesta social.” Comisión Internacional de Juristas. Guatemala.

12 Centro de Estudios de Género de la Universidad de El Salvador. <http://genero.ues.edu.sv/index.php/reportajes/63-la-violencia-economica-hacia-las-mujeres-es-una-realidad>



Elkarbizitza harremana bukatzen den momentuan eta emakumeen bizitza autonomorako proiektua hasten denean, indarkeria ekonomikoak iraun egiten du elikagai pentsioa ez ordainduz, nahiz eta epai batek halaxe agindu. Heziketaren ardura ez hartzeaz gain, erasotzaileek ez dute seme-alaben gastuak ordaintzen laguntzen, eta soilik emakumeen ardura izatera pasatzen da horrela. Gorago esan bezala, horrek emakumeak behartzen ditu oso prekarizatuta dauden sektoreetan lan egitera, lanaldi luze eta soldata txiki baten truke, egunero sortzen diren gastu guztiei aurre egiteko. Elikagai pentsioa ez jasotzeak sortutako pobrezia gainditzeko beste estrategia bat migratze proiektuei ekitea da (barne- zein kanpo-migratzea), etxera dirua bidaltzeko helburuarekin.

Azken hori kolpe gogorra da emakumeentzat, beren haurrak familia sareko beste emakumeekin uztera behartuta baitaude, eta baita familia sarearentzat ere. Alde batetik, aitaren irudi positiborik ez duten seme-alabek zeukaten segurtasun lotura bakarra galtzen dute, eta aldaketa horrek estres- eta dolu-prozesuak sortzen ditu. Emakumeentzat, ez da askoz errazagoa gertatzen. Galerak sortutako minari gehitu behar zaio errua, amatasunari lotutako agindu heteropatriarkalen multzoa bete ezin izanak sortzen baitie.

Emakumeek egiten dituzten migratzeak, arrazoi ekonomikoengatik ez ezik, segurtasun falta eta gatazka armatuengatik ere behartzen dira. Feminismotik aspaldi salatzen da emakumeen gorputzak erabiltzea gerrako harrapakin gisa, edo inposizioari aurre egiteko estrategia gisa erresistentzia ahultzeko. Egitura heteropatriarkala da emakumeen manipulatzeko horren arduraduna, haien sexualitatea iritzi publikoaren kontutzat eta aberriarekiko harrotasun edo lotsa aferatzat izateagatik. Eta, bien bitartean, ez dira aintzat hartzen muturreko indarkeria horrek dituen ondorio fisiko eta psikologikoak. Zentzu horretan, aipatzekoa da duela gutxiko epai kondenatzaile bat Guatemalan: "Sepur Zarco" kasua¹³.

Zalantzarik gabe, epai hori itxaropentsua da, bai aurrekaria izateagatik eta baita bortxatuak izan ziren emakumeak osatzeko modu garrantzitsua delako. Hala ere, emakumeen giza-eskubideen defentsan salbuespena da; izan ere, dauden gatazka armatuetan zigorgabetasunez urratzen dira emakumeen gorputzak, aztarna fisiko eta psikologiko izugarriak utziz. Halaxe gertatu da Kolonbiako gatazka armatuan. Bertan, migratzea izan da biziraun dutenen alternatiba bat, geroago erasotzaileekin topo egin ahal ez izateko. Egoera horietan, migratzeak galera ekonomiko garrantzitsua dakar, balizko enpleguari uko egin behar zaiolako, dagokion bizikidetzako unitatean daukan eragin ekonomikoarekin (25. B-I, 27. B-I).

Emakumeentzat, migratze horiek bizitza baten hasiera dakarte sare sozio-familiarrik gabeko lurralde batean, zeina beharrezkoa baita bizi diren errealitate berrira progresiboki moldatzea errazteko. Emakumeak arrisku eta engainu egoerekiko zaurgarriago agertzeaz gain, laster batean lan-eremura itzultzea eramaten ditu, eta enplegu ez-arautuak dira irtenbiderik ohikoena, behar materialak asetzeko dirua lortzeko premia dela eta.

Etxeko lanen sektorean bizkor sartzeak, ondorio garrantzitsuak ditu emakumeentzat; Amaia Pérez Orozco (2014) bezalako autore feministek mirabekeria berria deitzen diote. Alde batetik, lanaldiak ordutegiaren eskusibotasuna eskatzen du, formaziorako edozein ekimenekin

¹³ Epai horretan emakumeen etxeko esklabotza eta sexu-esklabotza indarkeria motatzat jotzen dira, 80ko urteetan Guatemalako bizi izan zuen gatazka armatuan. Bi militar ohi zigortu ziren emakumeen gorputzaren manipulazioan daukaten ardura zuzenagatik, bizi diren komunitate indigena osoaren moralak ahultzeko helburuarekin. Epai aitzindaria da, lehen aldiz horrelako sexu-delituak epaitzen direlako gauzatu diren herrialdean bertan, eta ez nazioarteko auzitegiatan.



bateraezina egiten duena. Ikusi dugunez, emakumeen lanaldiek 12 ordu gainditu ditzakete, eta etxean egotera behartuta daude, horrela, ikastaroren bat egitera joatea galaraziz epe ertain edo luzean baldintza hobekak dituen lan bat topatzeko. Gainera, balioespen sozialik gabeko sektore batean lan egiteak —izan ere, “emakumeen berezko izaerari” lotutako arrazoiengatik, pentsatzen da emakume guztiak egin ditzaketela etxeari lotutako lanak—, eragiten du lan horretan esperientzia luzea izatea beste sektoretan lan-esperientzia interesgarri gisa ez baloratzea. Horregatik, zaila izan ohi da lan baldintza hobekak lortzeko lanbide-adarra aldatzea.

Bakartzea eta sare sozioafektibo bat sortzeko ezintasuna dira ondorioak; horrela, ezin dute sare horregana jo aisialdirako duten denbora eskasean edo kaleratze baten kasuan, eta, ikusi dugunez, azken horiek maiz gertatzen dira langileak ahultasun handiko egoeran utziz. Gainera, lan horien ordainsari eskasak biziki zaila bihurtzen du gastuei —batik bat, gaixotasunek sortutakoak— aurre egitea. Hori gertatzen da osasun-zerbitzua unibertsala ez den herrialdeetan, eta heriotza eta bizitzaren arteko diferentzia erabaki dezakeen kostua duenean. Etxeko langileen osasunean, eta prekarietateari lotutako beste langileenean, prebentzioaz hitz egitea nahiko irreal da; izan ere, zailtasunak dituzte kontsultetara joateko behar dituzten baimenak lortzeko, eta egoera horrek ondorio larriak ditu.

Horrela, emakumeen osasun-egoera hainbat faktorek zeharkatzen dute. Horien artean lan-baldintzak gailentzen dira: funtzio gogorrak, gehiegizko ordutegiak, langileen formazio eta esperientziarekiko lanpostuaren egokitasun maila, etab. Beste faktore erabakigarri bat emakumeen egoera ekonomikoa da, gizarte-maila ertaineko emakumeek osasun-indize hobekak baitituzte gizarte-maila baxukoekin alderatuta. Haurdunaldiaren borondatezko etete-ari dagokionez, osasun sexual eta erreproduktiboaren elementu bat gehiago bezala, gaitasun ekonomikoa da segurtasun bermea ezartzen duen muga, zigortu eta oztopatu egiten den eskubide bat gauzatzeko. Edozein adinetan ematen diren nahi gabeko haurdunaldien arrazoi nagusiak dira, besteak beste, lege murriztaileak, kultura heteropatriarkala adierazpenik biolentonean eta kalitatezko hezkuntza afektibo eta sexualaren falta. Ikusi dugu nola galarazten duten faktore horiek, txiki-txikitatik, desio den lanbidean hastea edo jarraitzea; izan ere, amatasuna neska gazteen etorkizunerako planak hausten dituen elementua da, haien garapen pertsonalarekin bateragarria izan dadin beharrezko zerbitzu publikoak ez baitaude. Horrek beren itxaropenak ezin betetzera daramatza, ahaztu gabe haurra jaiotzeak dakarren gastu gehigarria, zeina aztertutako kasuetan aitaren laguntzarik gabe egin zaion aurre.

Emakumeen osasunean eragin larria izan dezakeen funtsezko beste faktore bat haien inguru soziokomunitarioa eta politikoa bera da. Segurtasun sozialaren falta, gatazka armatuak, zenbait lurraldetan bereziki aktiboak diren enpresa multinazionalen mehatxuak; horrek guztiak beren osasuna zulatzen du. Komunitatea kontrolatzeko neurriak erabiltzen dituzten militar eta segurtasun langileen presentziak komunitatean bakerik ez egotea eragiten du, aurkako giroan eta desegituratze sozialean bizitzera behartuz, eta kaltetutako herritar guztiak gaixo mantenduz. Horrek emakumeak ahultzen ditu bereziki; izan ere, muturreko egoeretan, setio edo kontrol militarretan, haiek dira edozein motako sexu-erasoak pairatzeko arriskua dutenak.

“Esaten dutena larderia da, orain ni harrapatuko nautela, baina jendea beldurtzeko esaten dute” (17. B-I).

Indarkeria desarrollistak landa-inguruneetako emakumeak prekarietate egoeran uzten ditu, landako produkzioaz bizi baitira, bertako ekonomia deseginez. Bizitza erreproduzitzeko



modua, belaunaldietan eratua, eten egiten da bat-batean. Pertsona batzuei enpresen mende egotea da geratzen zaien apurra; enpresek lan prekarizatu eta soldatapekoa eskaintzea. Hala ere, lan gehienak gizona gordetzen zaizkie, emakumeak baztertuz; hortaz, ez dute beste aukerarik janaria saltzeaz gain, langile zein segurtasun langileen aldetik tratatu txarrak jasotzeko arriskuan jarriz beren buruak. Beren lurraldearen eta bizi-baliabideen defentsak neke handia sortzen du emakumeengan; izan ere, ez dute soilik komunitate-espazioan erresistitu behar, baizik eta espazio intimoan ere, etxean aurre egin behar duten indarkeria eta egoera horrek sortzen dizkien bizi-baldintza gogorrek direla eta.

3.2. Erresistentziak

Estereotipo heteropatriarkal ohikoenetako bat emakumeak ahultasun eta segurtasun falta ezaugarriekin identifikatzea da. Izaki hauskor, babestu beharreko eta mendeko gisa eraiki dira sinbolikoki. Ideia hori errealitatetik oso urrun dago. Izan ere, mugimendu feministen ahaleginetako bat da historian zehar eta mundu osoan klixe horri aurre egin dioten emakumeen bizitzak ikusaraztea.

Emakumeak ez dira hauskorragoak; aitzitik, beren eskubideak etengabe urratzen dira, eta horrek arrisku handiagoko egoeran jartzen ditu. Oztopoak gainditu behar dituzte etengabe, izan etxean — batzuetan arriskuz betetako leku babesgabea delako—, zein eremu publikoan, eta baita lan-merkatuan ere, non jazarpena oso agerikoa bihurtzen den, bereziki inguru prekarizatuetan. Horixe da testigantza eskaini duten emakumeen egunerokotasuna. Eta errealitate konplexu horietan eusteko estrategiak sortzen dituzte, erakunde publikoak haien kontra aktiboki ez daudenean erakusten duten isiltasun konplizearen aurrean.

Eremu ekonomikoan, esaterako, lan ez-arautuan aritzea da bizirauteko eta familiaren gastuak zein seme-alaben hezkuntza ordaintzeko modurik erabiliena.

“Garai hartan jada bazeuden transexualen pub-ak. Ni konturatu nintzen niretzako irtenbide bakarra, une horretan, prostituzioa zela. Ba prostituta gisa hasi nintzen lanean, eta lanean diot, nik ez dudalako inoiz sentitu degradazio baten moduan” (11. B-I).

“Bai, nire egun libreetan patata zopa egiten nuen, yuca zopa, edo bestelako janaria saltzen nuen laguntza izateko, ez zitzaidalako gustatzen seme-alabek zerbait faltan botatzea” (1. B-I).

Beste batzuetan, kreditu bat eskatzeak —banketxeentzako baldintza oso onuragarriekin— elikagaiak eta hezkuntza bezalako ezinbesteko gastuak ordaintzeko balio du.

“Ni bakarrik hartu nuen seme-alaben ardura, eta beti zorpetuta ibili, maileguak behar nituelako hainbeste gauza kitatu eta ordaintzeko. Orain arte kredituak ordaintzen ari naiz, interesak altuak direlako, jaitsi beharrean igo egiten dira” (2. B-I).

Enpleguen baldintza gogorrek gorabehera, emakume batzuentzat autodeterminazio eta autoestimu iturria ere badira, eskaintzen dituzten sozializazio aukerak direla eta. Indarkeria matxistaren kasuetan, lan egiteko debeku zuzena jaso duten horietan, lan egitea erasotzailearen aurkako erantzun ez-konformistatza hartzen da, ahalduntzeko eta askatasun arrakalak bihur daitezkeen espazioak bilatzeko.

“Envigado-n lanean egon nintzen garaian, etxera bueltatzeko momentua atzeratzen nuen, eta esaten nuen, “ez, bak arte egiten dugu lan”, baina kontratu bidez lan egiten nuenez, azkarrago



egiten nuen lehenago irteteko eta ordubetez hortik ibiltzera joateko. Erasotzailea hori sumatzen hasi zen, eta lo geratu zen une batean giltzen kopia bat atera nuen. Giltzak nituela, dokumentuen fotokopiak ateratzera joaten nintzen, irteteko modu bat pentsatzen hasi nintzen” (8. B-I).

“Ezin dut azaldu niretzat zer izan den lan egitea. Atariak garbitzen hasi nintzen, hain ondo sentitzen nintzen, zoratu egiten ninduen! Neskak esaten zidan oso pozik zegoela nirekin, arraioa, ongi tratatzen ninduen norbait, gutxienez! (15. B-I).

Era beran, esan dugu emakumeek gauzatzen dituzten migratze proiektuak ardura duten familia-unitatearen behar materialak asetzeko hartu diren erabakiak direla, edo euren bizi-raupena bermatzeko, jatorrizko herrialde edo lurraldean jazartzen dituztelako jardun politikoak, sexu-orientazioa edota genero identitatea direla eta.

Norberaren eusteko moduez gain, parte-hartzaileek borroka kolektiborako eta gizarte eraldaketarako estrategiak ere partekatzen dituzte. Justizia sozialarekin duten konpromiso politiko hori indarkeria esperientzia gainditu ostean eman ohi da, edo gainditzeko prozesuan, mugimendu asoziatiboren batean parte hartzen hasten direnean. Kolektibo baten parte izatean, beren gaitasun sozialak, entzutea eta komunikazioa hobetzen dira; protestak eta minak partekatzen dira, ondorioztatuz haietako bakoitzak pairatutako indarkeria ez dela ardura edo erru indibidualen kontua, baizik era statu quo-ak planifikatutako maniobra bat; minaren zama partekatzen dute, eta, hortaz, arinagoa da.

“Ulertu dezakegun bakarrak bizi izan dugun horiek gara. Zeren zuk zerbait bizi ez baduzu, empatia gehiago ala gutxiago izan dezakezu, baina ulertzea zaila da, eta kasu honetan gai konplexua eta kontuzkoa da” (15. B-I).

“Honetan egotea (elkarte feminista) berriz ere bizitzea da, lehenago egon ez naizen martxa batean nago, Bogotara joateko aukera izan nuenean, “Ruta Pacífica”-n nengoela, ezin nuen sinetsi hori bizitzen ari nintzela. Nik uste nuen biktima bakarra nintzela, eta gezurra, han emakume asko ginela deskubritu nuen, eta horrek halako zirrara batez bete ninduen, halako indar bat eman zidan, esan bainuen, aurrera jarraitzeko gai naiz” (25. B-I).

Gainera, gutxi gora behera egituratuta dauden kolektibo horietan, ia beti antolakunde feministak direlarik, seguru sentitzen dira zalantzan jartzen ez dituztelako, beren eskubideei buruzko informazioa eskuratu dezakete, baita erabili ditzaketen baliabide publikoei buruzkoa ere.

“ ‘Las Dignas’ bezalako lekuetan eta sindikatuan asko lagundu didate, nire burua defendatzen erakutsi didate” (1. B-I).

“Psikologoarekin eta hitzarmenarekin kontaktua izan nuenean, plan baten bidezko laguntza lortu zidaten, orain bizi naizen lekurako xaflak eta egurra lortu zidaten, area eta zementua, eta ganbara bat eman zidaten haurrentzako oherik ez nuelako” (5. B-I).

Modu horretan, ahalduntzerako eta artikulazio kolektiborako prozesuetan murgilduta daude; zenbaitetan, beren jardun aldarrikatzaileak mugarri dira bizi- eta lan-eskubideak lortzeko. Halaxe gertatzen da Kolonbiako kasu batean. Bertan, eta beren lanaren ondorioz pairatzen duten bakartze-baldintzak artikulatzeko sortzen dizkien zailtasunak gorabehera,



emakume etxeko langileen sindikatu batek, UTRASD sindikatuak¹⁴, batasuna lortu du, beste lurraldeetara eramateko esperientzia zinez baliagarria eta inspiratzailea sortuz.

Beste parte-hartzaile batek kontatzen du nola lortu zituzten lan-eskubideak bere eskualdeko langile guztiek, berak eta beste bost kidek, “basahuntz” deitutakoek, Andaluziako mendietan 15 egunez garatu zuten desobedientzia ekintzari esker.

“Mendira joan beharra zegoen, pinuak landatu eta bideak konpontzera. Sei emakume bildu ginen. Ez zizkiguten lanaldiak apuntatzen, orduan aitzurra aldrebes jarri eta aitzurrean bertan idazten genituen izenak. Horrela egon ginen 15 egunez. Langileburuak, frankismotik erretiratu-tako guardia batek, esan zigun egun batean: “bihar igotzen bazarete, tiro batez frijituko zaituztet”. Lanaldiaren ostean, seiok udaletxera gindoazen, alkatearekin eztabaidatzera. Emakumez lepo jarri zen hura.” (12. B-I).

Erresistentziaz ari garenean, gorputza bera jarriz eusteaz ari gara, bizitza eta segurtasuna arriskuan jartzeaz, justizia eskatzean eta exijitzean atzeranzko urrats bat ere ez emateko. Halaxe dio ingurumenaren aldeko lider honek, zeina hiltzearekin mehatxatu baitzuten bere lurraldean urtegi bat ezartzearen aurkako mugimendu baten burua izateagatik. Izan ere, urtegi horrek pobrezia gehiago eta giza eskubideen urraketa gehiago ekarriko zituen.

“Ez daukat beldurrik. Beldurtuko ginela uste zuten, baina jarraitzen dugu. Nire asmoek horretan jarraitzen dute, atzematen edo hiltzen gaituzten egunera arte, ez daukat beldurrik. Edonola ere, hil egingo gara. Jende asko dator gure atzetik” (17. B-I).

Zalantzarik gabe, kaparik gabeko heroien kontakizunak dira, eta beren bizitzetako zein eremu askotako indarkeriari bizirauteaz gain, eraldaketa sozialerako prozesuen protagonista dira, mundu hau leku gizatiarra goa eta bizigarriagoa izan dadin.

4. GOMENDIOAK EMAKUMEEN ESKUBIDE EKONOMIKOAK ERAGINKORKI EZARTZEKO

Estatuen, botere publikoen eta erakundeen kudeaketan dabilzanen arduraren emakume eta gizonen eskubideak betetzen direla bermatzea da. Hortaz, jada estatu-egituraren barruan dauden funtzionarioentzako ezinbesteko urrats bat generoaren inguruko formazioa eta sentsibilizazioa dira, ikuspegi intersektioanarekin. Hori guztia, haien jarduna bideratzen duten aurreiritzi eta joera matxistak, klasistak, etab. ezabatzeko. Hortaz, formazio luzeaz ari gara; ordu gutxi batzuetako tailerrek ez dute ezertarako balio, ikuspegi feminista batetik esku hartzeko kontzientzia aldaketa eman behar delako. Sinesmen heterosexista, arrazista, klasista eta abarreko sistemari aurre egiteak aurreiritzi-egitura gogor bat deseraikitzea esan nahi du, eta horrek denbora asko eskatzen du.

Esan bezala, administrazio bakoitzak funtzionario berriak onartzeko ezartzen dituen sarbide-probetan exijitu behar da formazio intersektionala, hau da, zapalkuntza mota ezberdinen artean —generoa, arraza, gizarte-maila, sexu-orientazioa, etab.— dagoen konexioa aztertzeko tresnak ematen dituenak. Horrela, ekiditen hasiko dira, esaterako, ikerketa hone-tan parte hartu duten emakumeek bizitako diskriminazio-egoerak; adibidez, epaitegietan,

¹⁴ UTRASD sindikatuak [Kolonbiako Etxe-Zerbitzurako Langileen Batasuna] 100 emakume etxeko langile baino gehiagok osatzen dute, afrikar jatorrikoak, eta ikusarazi egiten dute emakume, beltz eta pobre izateagatik pairatzen duten diskriminazio hirukoitza, exijituz, gainera, lan-eskubideen berdintasuna etnizitate ikuspegi garrantzitsu batetik. UTRASD sindikatu gisa jaio zen 2013ko martxoan eta, ibilbide luzea duten komunitate-buruzagi batzuek eratzen dute. Ez da kasualitatea Kolonbiak LANERen 189 Hitzarmena berretsi izana, etxeko langileei buruzkoa, sindikatuak sortu eta urtebetara. Horrela, sindikatuak egiten duen lana nazioartean aztertzen ari da, bizitzaren iraunkortasunerako ezinbestekoa den sektore horri dagokion duintasuna ematen daukaten rola aitortuz. Izan ere, haiek gabe, mundua ez litzateke ibiliko.



elikagai-pentsioagatik edo enplegatzailearen aldetik falta ziren ordainketak salatzean. Kasu guztietan, emakumeek beren testigantza zalantzan jartzen zuten langileak topatu dituzte, arauak ezartzeko trabak jarritz, eta, horrela, arau-hausleak pribilegiatuz eta emakumeak babesgabetasun ekonomikoko egoeran utziz.

“Legearen arabera lan egin dezatela, zintzoak izan daitezela, zeren pertsona horiek benetan lagunduko baligute, kontua ezberdina izango litzateke laguntza eskatzen dugun emakumeontzat” (2. B-I).

Parte-hartzaileen beste proposamen bat kanpo-ikuskaritzak eta bestelako kontrol- eta ebaluazio-mekanismoak ezartzea da, langile publikoen arduragabekeria eta abusuak hautemateko. Halaber, honakoa gehitzen dute:

“Ondo legoke laguntza eskatzen dugun emakumeen aurkako indarkeria gauzatzen duten eta erakundeetan dauden pertsona horiek zigortzea, ikertu ditzatela, beren karguetatik kendu ditzatela” (2. B-I).

Estereotipoen araberako praktikak eta pribilegiadun klaseekiko konplizeak direnak nagusitzen direla aztertu ostean, araua betetzea bermatzeko beren papera betetzen ez duten langile publiko horiek kentzea eskatzeaz gain, beharrezkoa da emakumeei haien eskubideak urratzeagatik sortutako kalteak ordaintzeko Estatuak ardura hartzea. Zentzu horretan, beste eskari bat kalte-ordain ekonomikoa da, pairatutako indarkeria prozesuak sortutako kalte psikologiko eta ekonomikorengatik.

Indarkeria matxistari erakundeek ematen dioten tratamenduari dagokionez, baita biktimekin lan egiteko onartu diren esku hartze protokoloez ere, prozesuari epaiketa kutsua kentzeko beharra ikusi da, eta babes-zerbitzuak eskuratzeko bidearen protokoloa birformulatzea. Indarkeria matxistari biziraun dioten emakumeek kontatzen dute zaila zaiela erasotzailea salatzea, batzuetan mendekotasunezko eta sentimenduzko lotura garrantzitsua dutelako harekin, edo, salatzekotan, emakumearen eta seme-alaben osotasunaren aurka mehatxatu egiten dituelako; salaketa hori ezinbestekoa da biktima izaera lortzeko eta babes-neurriak eskuratu ahal izateko.

Legeen egiturazko aldaketak, halaber, premiazkoak eta beharrezkoak dira osasun-zerbitzuak eskuratzeko, osasun-laguntza unibertsala delarik aukera zilegi bakarra, ez baita norberaren erosteko ahalmenaren araberakoa. Beste edozein alternatibak larriki kaltetzen ditu emakumeak; bereziki, emakume pobreak; gainera, klase pribilegiatuak aberasteko negozio bihurtzen du giza eskubideen bermea, tartean dauden interes ekonomikoa direla eta.

Zentzu horretan, eskubide sexual eta erreproduktiboak aitortu egin behar dira marko juridiko ezberdinetan, eta modu eraginkorrean bermatu. Haurdunaldia etetea librea, segurua eta doakoa izan behar da, praktikara eramatean gizarte-mailak baldintzatu ez dezan. Aipatu egin behar dugu halaxe dioen aldarri feminista hori: “aberatsak abortatu, pobreak hil”. Edo, txostenean islatzen den moduan, abortua debekatuta dagoen herrialdeetan, El Salvadorren esaterako, beste herrialde batera edo klinika pribatu batera jotzeko beharrezko baliabide ekonomikoa ez dituzten emakumeak espetxeratu egiten dituzte. Eskubide sexual eta erreproduktiboan barruan, hezkuntza sexual afektibo anitza bermatu behar da bizi-zikloan zehar, baita edozein gizarte-mailako jendearentzako eskuragarriak diren ugaltze-metodoak ere, eta haurdunaldia etetea emakumeek hala erabakitzen badute.



Kontuan hartu behar da mendekotasun ekonomikoa tratu txarreko harremanak luzatzen dituen elementu nagusia dela; hortaz, gakoa da beharrezko laguntza ekonomikoak eskatzea.

“Nire kasuan, egia da lan-munduan sartu naizela... Baina nire kabuz, ni ez nau inork kontratatu genero indarkeriaren biktima izateagatik. Are gehiago, duela urte batzuk hau gertatu zitzaizkidan, telebistan enpresak iragartzen zituzten, tartean El Corte Inglés, eta bertara joan nintzen baina han inork ez zekien ezertxo ere ez” (15. B-I).

Nahiz eta legeetan xehatuta agertzen den lan orientazio eta esku-hartzerako ekintzen atal bat, errealitatea oso bestelakoa da. Emakumeek hedabideetatik jasotzen dute baliabide oparotasuna dagoelako mezu unibokoa, baina faltsua da. Haientzako ondorio bat halako engainu zein frustrazio sentimendu bat da, norbera ahalduntzeko prozesuan batere laguntzen ez duena. Zentzu horretan, emakumeek egiten duten proposamena zerbitzu horien presentzia eraginkorrera dago zuzenduta, baita zerbitzu horiek martxan jartzeko baldintza egokietara ere. Hori guztia, anonimotasuna bermatuko duen abiapuntu batetik, banan-banakako aholkularitzak gauzatzeko, eta baita beharrezkoa duten denbora eskainiz ere.

Enpresekin bitartekotza egiteari dagokionez, beharrezkoa da harreman bideak hobetzea, kontratazio eraginkorra erraztuko duten protokoloak ezartzeko, eta kontziente izan daitezen emakumeen bizi-prozesu konplexuaz, zeinak beren lana baldintza baitezake. Zitazio judizialen kopurua —aipatu burokratizazioa dela eta— hain handia izan ohi da, lanpostura joatean eragina izan dezakeela. Administrazioen eta Ekonomia Solidarioko erakundeen arteko lotura ezartzea —esaterako, klausula sozialen bidez— oso alternatiba egokia izan daiteke; izan ere, enpresa kapitalistek, lehenago aipatu bezala (15. B-I), emakumeak manipulatzeko dituzte etekinen metaketa lehenesten dute, eta gutxi axola zaie nor geratzen den bidean.

Lan-eremuan, beharrezkoa da egiturazko aldaketak sortzea jarduera profesional orotan emakumeen eskubideak bermatzeko; horretarako, erregimen orokorrean dauden langileekiko desabantaila duten emakumeen egoera egokitu behar da.

Ezinbesteko aldaketa bat da lantokietan Lan Ministerioen arduraren aktibatzea lan-kodigoa betetzen dela ziurtatzeko, langileen eskubideak hobetzeko esku hartuz, baimenak, laguntzak eta oporrak eskuratzeko. Halaber, beharrezkoa da lan-eskubideen urraketen salaketa prozesuak bizkortzea.

Ezinbesteko beste lan bat emakumeekin esku hartze psikosoziala egitea da, ikuspuntu feminista batetik, beraiek ahaldundu ahal izateko, pairatu dituzten indarkeria matxistak salatzean beren buruak eskubideen subjektutzat eta autonomotzat hartzeko.

Estrategiei dagokienez, eskaerak kolektibo bihurtzea eraginkorra eta eraldatzailea da, “basahuntzen” esperientziak eta gainerako talde esperientzia aldarrikatzaileek erakutsi bezala. Eragin politikoa duten sindikatuak sortu eta indartzeaz gain, Ekonomia Solidarioko proposamenak garatzea formula eraginkorra izan daiteke ordainsaria eta lan-baldintzak hobetzeko, gaur egun sektore horietan sustatzen den indibidualizazio gogorraren mende baitaude. “Bakarrik ezin duzu, lagunekin bai”: halaxe laburtzen da artikulazio kooperatiboko proposamen hori, bereziki ekonomia ez-arautuaren arloan dagoen egoera kaskarra hobetzeko.

Lurraldeari lotutako eskubideei dagokienez, emakumeek mina ordaintzeko lurraldea eta etxebizitza eskuratzeko bermatzeko eskatzen diete Estatuari. Ikusi dugunez, lurraldeen jabe ez diren emakumeen bizi-baldintzak aintzat hartuz, ezin dira lekualdatu ezta ondarrerik utzi



beren seme-alabei. Guatemalaren kasuan, adibidez, bake-hitzarmena sinatu eta 20 urte geroago, emakumeak esperoan daude, gobernua noiz ordainduko eragindako minarengatik.

Bukatzeko, ezinbestekoa iruditzen zaigu mugimendu feministek defendatzen duten paradigma garatzearen dauden legeetan jasotzea, kapitalaren metaketaren aurrean bizitzaren iraunkortasuna oinarri delarik. Zentzu horretan, premiazkoa da nazioarteko jurisprudentzia sortzea, enpresa transnacionalak zigortzeko gai izango dena, giza eskubideak eta ingurumenarenak etengabe urratzen baitituzte, emakumeen bizitzetan izugarri eraginez.

Esna gaitezen, esna gaitezen, dagoeneko ez baitugu denborarik!

Gure kontzientziak astindu egingo dira, harrapakaritzakapitalista, arrazista eta patriarkala oinarri duen auto-suntsiketa ikuste hutsaz.

Bertha Cáceres Flores

5. BIBLIOGRAFIA

Amorós, Celia (2005): La gran diferencia y sus pequeñas consecuencias.... para las luchas de las mujeres, Madril, Cátedra, 2005.

Echeverría, Jennifer (2012): Criminalización de la protesta social. Comisión Internacional de Juristas. Guatemala.

Gil, Silvia L. eta Pérez Orozco, Amaia (2011): Desigualdades a flor de piel: cadenas globales de cuidados. ONU Mujeres Santo Domingo.

González, Erika eta Ramiro, Pedro (2013): Empresas transnacionales: impactos y resistencias. Ecologista, nº 77, junio de 2013.

Harvey, David (2005): "El "nuevo" imperialismo: Acumulación por desposesión". Socialist Register, 2004. Buenos Aires: CLACSO

Larrañaga, Mertxe (2013): "Derecho a un nivel de vida Digno para las Mujeres". Tribunal Internacional de Derechos de las Mujeres Viena +20. Bilbo: Mugarik Gabe

LANE (2011): C189. Convenio sobre el trabajo decente para las trabajadoras y los trabajadores domésticos (Indarrean sartzea: 2013ko irailak 5)

http://www.ilo.org/dyn/normlex/es/f?p=NORMLEXPUB:12100:0::NO::P12100_INSTRUMENT_ID:2551460

LANE (1999): C182. Convenio sobre la prohibición de las peores formas de trabajo infantil y la acción inmediata para su eliminación (Indarrean sartzea: 2000ko azaroak 19)

http://www.ilo.org/dyn/normlex/es/f?p=1000:12100:0::NO::P12100_ILO_CODE:C182

Pérez Orozco, Amaia (2014): Subversión feminista de la economía. Aportes para un debate sobre el conflicto capital-vida. Traficantes de sueños.

PNUD (2010): "La verdadera riqueza de las naciones: caminos al desarrollo humano. Programa de Naciones Unidas para el Desarrollo.

Zabala, Begoña (2013): "Escrito de acusación". Tribunal Internacional de derechos de las Mujeres Viena +20. Euskalherria 2013 Bilbo: Mugarik Gabe





6. KAPITULUA

Dimentsio
mediatikoa

JUNE FERNÁNDEZ

Kazetaria, *Pikara Magazine* aldizkari digitalaren sortzailea eta koordinatzaileetako bat da. *Argia* edo *eldiario.es* komunikabideetan idazten du. Hiru sari eskuratu ditu bere kazetari lanak giza eskubideekin eta emakumeen eskubideekin agertzen duen konpromisoarengatik; Europar Batasunak, Almeriako Kazetarien Elkarteak eta AMECO emakume kazetarien elkarteak eman dizkiote aipatutako sariak, hain zuzen. Komunikazio eta generoari buruzko ikastaroak eskaintzen ditu, kazetari, emakume-talde eta funtzionarioentzako. 2016an kontakizun-kazetaritzako lehen liburua argitaratu zuen: *10 ingobernables* (Libros del K.O.). Bertan sexu-, gorputz- eta genero-aginduak desafiatzen dituzten emakumeen eta LGTBI pertsonen istorioak jaso ditu.



1. SARRERA

Prentsak laugarren boterea osatzen duela dioten metaforak aditzera ematen du prentsak bizitza publikoan duen eragina. Esan ohi da, errealitatea islatu ez ezik, errealitatea sortzen dutela komunikabideek; edo, behintzat, moldatu egiten dutela. Beraz, iritzi publikoko diskurtsoen berri emateaz gain, komunikabideek iritzi publikoa moldatzen dute.

Kazetaritzaren Europako Kodeak (1993) aitortzen du "informazioak eta komunikazioak garrantzi handia dutela herritarren izaera garatzeko eta gizarteak eta bizitza demokratikoak eboluzionatzeko". Gogorarazten du informazioa Giza Eskubideen Europako Hitzarmenak aitortutako funtsezko eskubidea dela, eta, ondorioz, kazetaritzari agintzen dio informazio-zerbitzua ardura etikoz emateko eta informazioaren bitartekaritza-lanak ere ardura horrekin betetzeko. Halaber, informazio-askatasunaren inguruan dituen eskubideei dagokienez, ardura etiko hori kontuan izateko eskatzen dio.

Informazioa eskuratzeko funtsezko eskubideak esan nahi du kazetaritza-edukiak eratzeko, "albisteak egiazkoak izan behar direla, eta iritziak zintzoak, kanpoko eraginik gabekoak, ez botere publikoen aldekoak, ez eta sektore pribatuen aldekoak ere". Gainera, kodeak adierazten du informazioen edo iritzien kalitateak ezin duela egon irakurle- edo entzule-kopurua handitzeko aginduen baldintzapean. Alegia, denak ez du balio egunkari gehiago saltzeko edo ikusle-kuota, entzule-kopurua edo web-trafikoa handitzeko.

Bestalde, emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna lortzeko eta genero-indarkeriaren aurka borrokatzeko nazioarteko ebazpenetan nahiz zenbait bilkuretan, hala nola 1995eko Pekineko Konferentzian, nabarmendu da komunikabideek kontzientzia soziala pizteko, estereotipo sexistak desagerrarazteko eta berdintasunean hezteko ardura dutela.

Erakundeen dei horiek kazetaritza-kulturaren aurkakoak izan dira; izan ere, Juana Gallegoren (2007) hitzetan, zenbait balioerekiko, besteak beste, egiazkotasunarekiko eta inpartzialtasunarekiko, konpromisoa izan arren, "genero nagusiaren mundu-ikuskeraren eraginpean dago kazetaritza, hain zuzen ere, nortasun femeninoa beharrean, maskulinoa gailentzea ekarri duten baloreen, sinesmenen, jarrerren eta ideien eraginpean".

1995etik aurrera, bost urtean behin Komunikabideen Monitoreo Globala egiten da. Haren bidez, munduko ehun herrialdeko iragarkiak produzitzeari dagokionez, emakumeen zein gizonen ordezkartza aztertzen da. Azken txosteneko (2015) datuen arabera, ezin da bilakae-ra naturalik espero izan. Emakumeek informazio-oharretako subjektu nagusien %10 baino ez dute osatzen; hain zuzen ere, 2000. urteko zifra bera. Albisteen %4n soilik ikus daiteke genero-estereotipoak nola edo hala zalantzan jartzen direla. Zifra horiek aldatu egiten dira herrialdearen arabera: Estatu Espainolean, emakumeak berrien %29ren protagonistak dira; Kolonbian, berriz, %25renak, El Salvadorren %20renak eta Guatemalan %30renak. Latinoamerikan Peruk du zifrarik handiena: %38.

Edonola ere, kazetaritza-gremioaren barruan, 2000. urtean zegoeneko berdintasunarekiko konpromisoa hartu zuten hainbat kazetari-sare osatu ziren Estatu Espainolean eta Latinoamerikan. Sare horiek hainbat eta hainbat komunikazio-proiektu sortu dituzte genero-ikuspegiarekin: albiste-agentziak, hala nola Sem-Lac (Latinoamerika), CIMAC (Mexiko), Cerigua (Guatemala) edo AmecoPress (Madril); irratiko programak, hala nola Nosotras en el Mundo sarearena (Madril-Argentina); web-atariak, hala nola Mujeres en Red (Estatu Espainola). Zenbait urte geroago, beste proiektu batzuek bat egin zuten: *Ni reinas ni cenicientas* (Kolonbia) ize-neko telebistako programak edo *Pikara Magazine* aldizkari digitalak (Euskal Herrian sortua).



Hortaz, prentsa emakumeenganako bidegabekeriak eta indarkeria bultzatzen dituen botere patriarkaletako bat dela dioen irakurketa sinplearen aurrean, beharrezkotzat jo dugu hori baino konplexuagoa den errealitate bat bizi dugula aitortzea: batzuetan komunikabideek biktimatzat hartzen dituzte emakumeak, beste batzuetan, bidegabekeriak salatzeke aliatu gisa, eta, zenbaitetan, konpontzeko eta ahalduentzeko aukera gisa.

Prentsara iritsi ez diren kasuetan ia ez da aipatzen dimentsio mediatikoa, eta zenbait komunikabidetan, aurreiritzi, estereotipo eta balio menderatzaileak transmititzeko duten rolari buruzko gogoeta orokorra egiten da soilik. Hala ere, komunikabideek gehiago sakontzen dituzten bizitza-istorioen bidez anibalentzia hori ikus dezakegu. Proiektu honetan elkarri-zketa egiteko prest egon diren emakumeek sarritan aipatu dute beren istorioa kontatuz gero egia ezagutuko dela eta beste emakume batzuk inspiratu eta lagun ditzaketela jakitea motibazio bat dela haientzat.

Metodologia:

Dimentsio mediatikoari buruzko analisi hori egiteko, alde batetik, komunikabideetara iritsi ziren kasuen inguruan argitaratutako albisteak (nagusiki prentsa digitalekoak) berrikusi dira. Komunikabideetara iritsi ez ziren bizitza-istorioei (gehienak) dagokienez, kasuan kasuko herrialdeko komunikabideetan gai horren inguruan argitaratu diren edukien bilaketa txiki bat egitea erabaki dut. Zehazki, bi egunkari antagonikok –argitalpen irakurriena eta giza eskubideekiko eta emakumeekiko konpromisoa izategatik ezaguna den argitalpen bat– ematen dioten tratamendua behatzen saiatu naiz. Horretarako, hitz-gakoak idaztean lortutako lehenengo emaitzak berrikusi ditut.

Euskal Herria: El Correo / Berria

Estatu Espainola: El País / eldiario.es

El Salvador: La Prensa Gráfica / El Faro

Guatemala: Prensa Libre / Plaza Pública

Kolonbia: El Tiempo / La silla vacía

Analisi horietatik eta bizitza-istorioei ematen zaien tratamendu mediatikoaren inpaktuari buruzko hausnarketatik egiten dudan diagnostikoaren ostean, gomendio-atal bat dator, bi azpiatal dituen: lehenengoan gai-agenda bat proposatu dut, eta, bigarreanean, kazetariak sentsibilizatzeko eta autoerregulatzeko ekimenak aztertu ditut.

Prentsak jaso zituen eta biktimak izenorderik erabili ez zuen kasuetan, benetako izena aipatu dut (adibidez, Nagore Laffage eta Asun Casasola edo Mindy Rojas); gainerakoetan, ostera, izenak ez ditut aipatu.

2. KASUEN INFORMAZIO-TRATAMENDUARI BURUZKO DIAGNOSTIKOA

2.1. Feminizidioa eta indarkeria matxista bikotearen testuinguruan:

Indarkeria matxisten aurkako erantzun instituzionala, soziala eta mediatikoa nahiko berria da. Bizitza-istorio horiek gertatu diren herrialdeetan eraturako legediak XXI. mendea hasita zegoenean onetsi ziren: Espainian, 2004an; Guatemalan, 2008an; El Salvadorren, 2010ean; Kolonbian, 2015ean.



Estatu Espainolaren kasu zehatzean, zenbait autore, esaterako, Fernández Arrivas (2011) ados daude inflexio-puntua Ana Orantesen erailketa izan zela 1997an, Anak bere tratatu txarretako egoera telebistan kontatu eta gero: “Ana Orantes eraili zuten etxekotzat jotako arazo bat ikusarazten ausartu zelako. Baina hura hiltzearen ondorioz, dena aldatu zen: legeak aldatu ziren, komunikabideen rola aldatu zen, iragarkiak aldatu ziren, eta, gutxinaka-gutxinaka, bikote-harremanetan emakumearen aurkako indarkeriaren eta emakumearenganako jarreraren pertzepzio soziala aldatu zen”.

Komunikabideak autoerregulatzeko ekimen nagusiak ia hamar urte beranduago ugaritu ziren; esate baterako, RTVEren informazio-tratamenduari buruzko ikerketa (2006), *Público* egunkariko dekalogoia (2008), Begira Kodea (2015) edo ORIGEN izeneko behatokiaren sormena (2016).

Guatemalaren kasuan, Ceriguaren analisia dugu. Horrek deitoratzen du indarkeria matxistari ia ez zaiola heltzen: 2011n, komunikabideek egitateen %47ren berri bakarrik eman zuten. Albiste horiek giza eskubideen eta emakumeen eskubideen ikuspegirik ez izateak kezkatzen badu ere, duela hamar urtetik hona aurrerapen txikiren bat egin dela aitortzen du: orain ez dira hilen argazki esplizituak argitaratzen, *feminizidio* hitzaren erabilera sartu da, eta, zenbaitetan, iturri giza emakumeen edo giza eskubideen elkarteetara jotzen da.

Analisitik beste ondorio batzuk ateratzen dituzte, eta horiek gainerako testuinguru geografikoetara estrapolatu daitezke. Hori dela eta, ondorio horiek erabiliko ditugu jarraibide gisa, indarkeria matxistak mediatikoki heltzean ikusi ditugun arazo nagusietako batzuk adierazteko:

Testuinguruan jartzerik eza:

“Guatemalako komunikabideek oso laguntza txikia eman dute sexu-indarkeriak sortutako arazoan egitura-kausak finkatzeko (...) Femizidioaren eta emakumeen kontrako indarkeriaren kausak ulertzen laguntzeko informazioa hedatzeari dagokionez, komunikabideek ia ez dute ekarpenik egin”, baieztatzen du Ceriguak.

Hain zuzen ere, genero-ikuspegia duten kazetarien artean gehien errepikatzen den pentsamenduetako bat da erailketa matxistak eta eraso sexistak gertakari isolatu gisa aditzen emateari utzi behar zaiola. Zer testuinguru aztertu beharko litzateke herritarrei hobeto azaltzeko emakumeei zergatik bortxatzen zaien oraindik ere? Guatemalan dagoen 18. B-In, bake-garaian gerra-kulturaren eta biolentziaren arteko harremanari buruzko gogoetak gehitzen dira:

“Estatuak hiltzaileak entrenatu zituen, gerran zehar emakumeak bortxatzeko, mutilatzeko eta erailtzeko (...), [eta] hiltzaile eta bortxatzaile horiek aske daude (...); oraindik babesten zaie (...) zigorgabetasunarekin. Orduan, nola espero dezakegu Claudina Isabel Velásquez Paiz edo erail duten beste edozein emakumeren hiltzaileak bilatzea? Zigorgabetasunaren euskarrria botere faktikoek liluratu duten justizia-instituzionalitate ahula da, eta birmilitarizatzeo testuinguruan dago”.

Gauza bera ikus daiteke Kolonbiaren kasuan. 8. eta 9. B-lek bat egiten dute gauza bati dagokionez: krimen antolatuan eta narkotrafikoan aritu diren bikotekideak izan dituzte. 8. B-Iren kasuan, indarkeria-gertaera bortitzenetako bat gertatu zen, haren senar ohiak, narkotrafikatzaileak, kokaina-pakete bat sartu zuenean etxean. Emakumea haserretu egin zen, eta hark hilko zuela mehatxu egin zion. Ondorioz, emakumeak ihes egin behar izan zuen, eta armatuen setioarekin topo egin zuen; horiek gerra-harrapakin gisa ikusten zuten. Hau da,



emakumeen nahitazeko joan-etorriak ez ditu soilik aktore armatuen indarkeriak eragiten, baizik eta emakume horien bikotekideen edo bikotekide ohien indarkeriak ere (horiek ere aktore armatutzat har genitzake era berean). 9. B-Iri esker, emakumeen eta gizonen arteko harremanen ezaugarri diren nahaste horiek uler ditzakegu:

"[Nire bikotekideetako baten] neba txikiak 18 urte ditu, eta auzoko talde armatuko kidea da. Haren ostean datorren anaiak emaztea eta bi seme-alaba ditu eta talde berekoa da. Haren arrebak 22 urte ditu eta lau seme-alaba, eta biziotsua da, ulertzen didazu, ezta? Ez dauka bizitza egonkor bat. Eta bestea ere kide da, eta haurtzaro gogorra bizi izan zuen. Bere aita nola hil zuten ikusi zuen, aurrez aurre. Eta bere amak gehiegi sufritu du beregatik. Zer amak ez luke sufritutako ikus-ten badu bere seme-alabak bizitzan galduta daudela".

"[Nire oraingo laguna] bakarrik bizi da, baina auzoko talde armatuko kide da. (...) Bere ama baino ez dut ezagutzen; izan ere, bere aita ere hil zuten hark 8 urte zituenean, hark ere ikusi zuen bere aita nola hiltzen zuten."

El Salvadorren ere gauza bera gertatzen da: 5. B-I emakume batena da. Indarkeriaz betetako eta babesik gabeko bizitza izateaz gain, emakume hori bortxatu zuen 10 *pandilleroz* osatutako talde batek, bere bikotekidearen aurrean. Emakumearen bikotekidea ez zen ausartu horren aurka ezer egiten, eta, aurrerantzean, indarkeria erabili zuen emakumearen aurka. Roberto Valencia, El Salvadorko *El Faro* egunkariko kazetariak matxismoa eta misoginia aztertu ditu *las marasen* kulturaren. 2012an egindako negoziazioen testuinguruan, autoreak aipatu du maras taldeak "emakumeen aurkako indarkeria mota guztiak eteteko" konpromisoa hartu zuela¹.

Komunikabide horrek editorial bat ere argitaratu zuen. Haren bitartez, indarkeria hain naturalizatuta dagoen testuinguru batean emakumeenganako indarkeriaren berri emateko erronkari buruz hausnartu zuen: *"Lehentasun- eta arreta-eskalan kalte egin zaio, besteak beste, genero-indarkeriari. Izan ere, egunero erailtzen diren gizon gazteen zifra ikaragarrien artean desagertu egiten da, eta hondartzat jotzen da. Pandillen arteko gerra ikusgarriak -gerra horretan gizonak dira nagusi, hiltzaileei nahiz biktimei dagokienez- opaku bihurtzen du. Zerbakiaren ikuspegi miopetik, garrantzi handirik gabeko eztabaida ugari dago, nazioko eztabaidan emakumeen erailketei eman behar zaien garrantziari buruz".* Artikulu horri dagokionez, oso interesgarria da honakoa aitortzen duela: *"adierazpen matxistek oraindik diraute gure idazlanetan "emakumeen aurkako sexu-indarkeriako, trafikoko, lan-diskriminazioko eta abarreko kasuetako ikerkuntza luzeekin eta denuntzia ugariekin batera badaude ere".* Ez da batere ohikoa komunikabide batek bere herrialdeko indarkeria matxista bere langileen artean oraindik sendotuta dagoen sexismoarekin lotzea.

Kazetaritzak erronka bati aurre egin behar dio oraindik: indarkeria sozial eta politikoaren eta indarkeria matxistaren normalizazioaren arteko lotura azaltzea, estereotipodun kausa-efektu loturarik ez ezartzea kontuan izanda. 9. B-Iren protagonistaren kasuan, erasotzailearen profilak ez du zerikusirik indarkeria matxistak *pandilleroei* ematen dien estereotipoarekin: artzain ebanjelikoa.

3. B-In, El Salvadorkoan, akats eta hutsune judizialak aipatzen dira, bikotekidearengandik urruntzeko ihes egin behar izan zuen emakume baten kasuari dagokionez. Aipatzen da "ez zela identifikatu indarkeriaren *continuuma*". Indarkeria era ugarietako izan zen: psikolo-

¹ Valencia, Roberto [2013]. "Nirea zelako hil nuen". *El Faro*, urtarrilaren 2a, hemendik jasota: <http://www.salanegra.elfaro.net/es/201301/bitacora/10646/>



gikoa, sexuala, nahitaezko ezkontza, difamazioak, estortsioa, amatasuna bidezko kontrola, zeharkako salaketak, eta, azkenik, nahitaezko desplazamendua. Garrantzitsua da komunikabideak gai izatea *continuum* hori azaltzeko. *Continuum* horretan, 2. B-lren harira (El Salvadoroko emakume horri pentsioa ukatu zion haren senar ohiak, eta, zenbaitetan, hiltzeko saiakera egin zuen), aitaren arduragabetasuna emakumeen aurkako indarkeri mota gisa identifikatzen da. *La Prensa Gráfica* egunkarian aitaren arduragabetasunari² buruzko albiste bat aurkitu dut. Haren bitartez, jakitera eman da Errepublikako Prokuradoretza Nagusian (EPN) jasotzen diren demanden %97 emakumeek gizonen aurka egindakoak direla, eta matxismoari leporatutako arduragabetasuna alegatzen dute. Prokuradoreak egindako adierazpenek bi irakurketa izan ditzakete. Hasteko, uste du *“ama-rola betetzen duten El Salvadorreko emakumeak miresgarriak direla, El Salvadoroko etxe gehienak guraso bakarrekoak baitira (...); eta, ikusten dugunez, emakumeak –lehenik– egun bakoitzerako ogiaren bila ateratzen dira, eta, gainera, ez dituzte beren familia, beren seme-alabak, deskuidatzen; muga anitz eta urritasun ekonomikoa badituzte ere”*. Hori emakumeen lana aitortzeko modu baten gisa har daiteke, baina ikuspegi adeitsu baten gisa ere bai, hain zuzen ere, zailtasunak gainditzen dituen ama onberaren estereotipo gisa. Prokuradoreak aitortzen du *“dependenzia ekonomikoaren ondorioz, txarto tratatzen dion eta txikitzen duen gizonari lotuta dagoela emakumea”*. Baina, jarraian, hauxe nabarmentzen da: *“beti eskatzen da seme-alabari aitarekin duen harremana ez ukatzeko, baldin eta aitak berak harremana bilatzen badu”*. Adierazpen horien bidez, erasotzaileek beren seme-alabekin ere indarkeria erabiltzen dutela ezkututzen da, eta ez da ondo azaltzen aitaren arduragabetasuna emakumeen aurkako indarkeria mota bat dela.

Baina indarkeria ondo azaltzeko, testuinguruan sartzeko, iturri baimenduak behar dira, eta horiek ez dira oso ugariak. Testuinguru horretan, alde batetik, iturri polizialak eta judizialak, eta, bestetik, auzokideek esandakoak gailentzen dira. López Díezek (2002) ohartarazten du *“komunikabideek ez dutela izan behar beste erakunde batzuen, poliziaren, epailetzaren edo administrazioaren transmisio-bidea. Horregatik, emakumeen aurkako kontaketez ezin dute bakarrik egon iturri polizialean eta judizialean edota auzokideen hitzetan. (...) Informazioa egiaztatu behar dugu, ez bakarrik pribilegiozko iturriekin, baizik eta kontaketa beste dimentsio bat eman diezaioketen iturriekin ere”*. Zeintzuk dira iturri estrategiko horiek? Indarkeria matxistaren inguruan prestakuntza jaso duten profesionalak (legelariak, psikologoak, antropologoak, soziologoak...) edo mugimendu feminista, besteak beste”.

Trataera sentsazionalistak:

Hainbat kasutan, `gertaeretan`, `kronika beltzean` edo `ohar gorrian` (herrialde bakoitzean emandako izendapenaren arabera) adituak diren kazetariak ematen dute feminizidioen berri. Ceriguak adierazten du komunikabideek erailketa bati ematen dioten garrantzia *“krimenak egin ziren bortizkeriaren edo ankerkeriaren”* arabera dela. Horregatik, hain zuzen ere, 18. B-l oso mediatikoa izan zen kasu bat kontaktatzen du: Mindy Rojasena. Haren mutil-lagun ohiak aurpegia desfiguratu zion. 2011n, Ceriguak jakitera eman zuen indarkeria matxisten inguruko ohar-kopuruak gora egin zuela. Nolanahi ere, ohar horiek aipatzen zuten gorputz moztuak eta gorputz zatiak aurkitu zirela hiriburuan zehar. *“Argitalpen horiek sentsazionalistak dira, testu gutxikoak eta argazki ugarikoak. Argazki horien bidez, herritarren txundidura erakusten zen. Bestalde, fiskalek, poliziek edo suhiltzaileek bildutako poltsa beltza anitzak nabarmendu ziren”*.

2 Sosa, Byron (2016). “Herrialdean, EPNn jasotzen diren demanden % 97 emakumeek egiten dituzte” *La Prensa Gráfica*, maiatzaren 10a, hemendik jasota: <http://www.laprensagrafica.com/2016/05/10/en-el-pais-el-97-de-las-demandas-en-la-pgr-es-de-mujeres>



Ligia Esther Cantillo Barrios soziologoak aipatzen du Kolonbiako komunikabideen kasuan ere adierazpen sentsazionalistak nagusitzen direla (“Krimen ikaragarria Bogotan, emakume bat balaz josi dute bere seme-alabek”. “Senar amorratu batek harriz jo zuen bere emaztea”, “Emaztea hil du senarrak, berarekin bizi nahi ez zuelako”. Horrelako adierazpenek emakumea errudunesten dute³.

Kolonbian ohar gorriko egunkariak editatzen dira oraindik, eta, bereziki, xehetasun labain horiez atsegin hartzen dute. Estatu Espainolean, berriz, dagoeneko ez dago era horretako argitalpenik, adibidez, denok gogoan izango dugun *El Caso*. Baina jeneralistatza eta seriotzat hartutako komunikabideetan gertaerak kontatzeko kronika estilo hori mantentzen da, hau da, xehetasun forentsetan jartzen dute arreta, ez, ostera, testuinguruan. Nagore Laffageren (14. B-I) kasuan, egunkariak izenburu beldurgarriak idatzi zituzten, hala nola: “Orondritzen hildako neska gaztea ito egin zuten” (*Diario de Navarra* 2008/07/10) edo “Oso gauza txar bat egin dut. Neska bat hil dut” (*El Correo* nahiz *El País* egunkarietan agertu zen).

21. B-I Andrea txikiari buruzkoa da. Haren aitak erail zuen, eta kasu honetan ere auzokideek gauza desegokiak esan zituzten: «Uste zuen Felipek bere alaba bahitu zuela, baina Andrea hilik zegoela jakin zuenean, erotu egin zen eta garrasi egiten hasi zen, erabat etsita», azaldu zuen Anabelek, Arroyomolinoseko bizilagun batek⁴.

Requena Aguilar (2013) kazetariak uste du arduratzeko modukoa dela albistegiek arreta ematen dietela “gertakariari eta xehetasun labainei; izan ere, erabilgarriak izan beharrean, xehetasun horiek beste biktima batzuk beldur ditzakete eta arreta genero-indarkeriaren benetako jatorritik urruntzen dute”.

Biktimei buruzko estereotipoak:

“Askotan, argitalpenek transmititzen dute salaketa egin duen emakumeak duela familia haustearen errua, edo are txarrago, bortxaketa merezi zuela emakumeak, gauez kaleetatik ibiltzeagatik edo janzkera “probokatzailera” izateagatik”, adierazten du Ceriguak. Moyak (2010) ohartarazten du zenbait enuntziatuk (esaterako: “Gizon batek bere emazte ohia hil zuen labankada batez, eta gainera gasolina isuri zion harremanari berriz ekin nahi ez ziolako”) iradokitzen dutela emakumeen jarrerak direla gizonen indarkeria-erantzunen errudunak, alegia, “emakumeak bilatu zuela”. Joera hori ikusi dut horrelako adierazpenetan: “Zer gertatu zen jarraian?” Zerk eragin zuen Yllanesek neskatxari objektu mingarri batekin eraso egitea?⁵

Zorrotzagoa bada ere, Estatu Espainolean dagoen joera gaiztoa da ere bai: “emakume, salatu ezazu”. “Emakumeek jakin behar dute erasotzailea salatzeak eta haren kontra deklaratzeko tratatu txarrei aurka egiten lagun diezaieketela, eta horregatik aipatu behar dira. Baina hori egin ez dutela argi eta garbi adieraziz, gertakariaren ardura apur bat egotzen zaie, baldin eta salaketa ez egitea eragin duten kausak azaltzen ez badira”, adierazte dute Origen Behatokitik (2016).

3 Soziologiako Kongresu Nazionalerako hitzaldia, hemen kontsulta daiteke: https://www.icesi.edu.co/congreso_sociologia/images/ponencias/12-Cantillo-Feminicidio%20y%20medios%20de%20comunicacion.pdf

4 Del Moral, Javier (2003). “Zazpi urteko alaba eraili du eta gero bere buruaz beste egin du Arroyomolinosen” *ABC*, apirilaren 26a, hemendik jasota: http://www.abc.es/hemeroteca/historico-26-04-2003/abc/Madrid/mata-a-su-hija-de-siete-a-C3%B1os-de-dos-disparos-en-la-cabeza-y-se-suicida-en-arroyomolinos_176641.html

5 Duva, Jesús eta Azumendi, Eduardo. (2008). “Oso gauza txarra egin dut. Neska bat hil dut”. *El País*, uztailaren 13a. Hemendik jasota: http://elpais.com/diario/2008/07/13/espana/1215900018_850215.html



15. B-lko protagonistak errepikatzen du beharrezkoa dela indarkeria-egoerak bizitzen ari diren emakumeen erritmoak errespetatzea eta emakume horiek laguntzea, salaketa egitera bortxatu beharrean:

"Salatu!...Baina itxaron pixka bat, ez baita hain erraza, bai? Ez da hain erraza, ezin da hain erraz salatu. Salatuz gero, nora joango zara gero? Etxera bueltatu beharko zara... Tira, ez da hain erraza".

9. B-In (Kolonbia), uler dezakegu emakumeak zergatik ez zuen nahi izan eskaintzen zitzaion baliabide bat aprobetxatzea, alegia, abegi-etxe batera mugitzea:

"123 emakumearen lineari arreta eman genion, eta 6 asterako asiloa emango zidaten, harekin arazorik ez izateko. Baina pentsatzen hasi nintzen, 6 astez kanpoan izango naiz, baina zer gertatuko da bueltatzean, harrapatuko nau eta are gogorrago joko nau, ospa egiteagatik. Prozesu hori izan nuen, atea irekita dauzkat han, badaezpada, baina..." (9. B-I).

Beldur eta oztopo horiek egoki azaldu beharrean, kazetari batzuek balio-judizioak ematen dituzte. Adibidez, *Diario Vasco* egunkarian albiste bat sinatu duen kazetariak. Albistearen bitartez, kazetari horrek adierazten du harritu egiten diola emakume askok tratu txarrak ez salatzeak. Hain zuzen, emakume baten hilketaz ari da. Emakume hori haren mutil-lagunak hil zuen, hain zuzen ere, 15. B-lko erasotzaile ohiaren lehengusuak. Kazetariaren hitzetan, "emakumeek etorkizunean beren hiltzaile izango direnak zergatik salatzen ez dituzten azaltzeko, beldurrari eta amodio mota arraro bati heldu behar zaio".⁶

Indarkeriaren zikloa edo maitasun erromantikoaren kulturak zertan duten oinarria azaltzeko, adituengana jo beharrean, bere hausnarketa propioa egiten du, eta horrek, zalantzarik gabe, indarkeria-egoeran dauden emakumeak gaizki uzten ditu. Adituak aipatzean, indarkeriaren aurrean bizirik iraun eta erasotzaileekiko mendekotasun-mekanismoak ulertu dituztenez ere ari naiz. 15. B-lko protagonistak horrela azaltzen du:

"Indarkeria-zirkulu hori 20 urtez bizi nuen harekin. Lehenik, etsaitasuna dator, gero areagotuz doa. Orduan, irainak eta eraso fisikoak datoz. Ondoren, barkamena eskatzen saiatzen da, edo, behintzat, berriz gertatuko ez dela dio. Zu berriz itzultzen zara sasi-maitemineko egoera horretara, baina, gerora, gauza bera errepikatzen da. Ni 20 urtez egon nintzen egoera horretan, nire bizitza zen hori. Baina nire burua babestuta edo lagunduta sentitu nuenean, irteera bat ikusi nuen, ihes egiteko aukera" (15. B-I).

Bizirik elkartearen kidea den heinean, emakume horrek nabarmentzen du, askotan, indarkeriatik bizirik atera denak behar duen lehen gauza ez dela salaketa jartzera joatea:

"[baizik eta] barrena lasaitzea, ulertzen zaituen norbaitekin kafe bat hartzea." (15. B-I).

Salaketa-gunetik laguntzara aldatzea erronka gisa planteatzen da, bai instituzioen diskurtsoan, bai komunikabideenean.

15. B-lren protagonista arduratuta dagoela sumatu daiteke. Arduratuta dago komunikabideek indarkeria-egoeran dauden emakumeei ematen dieten irudiarengatik; izan ere, irudi horrek biktimismoa agertzen du, hobetzea eta ahalduntzea beharrean. Bere istorioa kontatzean, grina hori errepikatzen du:

"Ez da pena eman behar, kontrakoa baizik, alegia, itxaropena". (15. B-I).

6 Guillenea, Javier (2010). "Historia de un Crimen". *Diario Vasco*, maiatzak 9. Hemendik jasota: <http://www.diariovasco.com/v/20100509/al-dia-sociedad/historia-crimen-20100509.html>



Hori dela eta, bere burua bizirik iraun duen pertsona gisa azaltzea nahiagoa du, biktima gisa azaldu beharrean:

“Ezertarako balio ez duzula sentiarazten dizute, eta ez da egia, oso ausartak gara eta. Pentsa ezazu, horri aurre egiteko gai bazara, nola ez zara izango ba ausarta?”. Komunikabideetan, hala ere, oraindik ere nagusitu egiten da begia ubela duen emakumea, makurtuta dagoena eta bere gainean ikusten duen ukabilarengatik ikaratuta dagoena”. (15. B-I).

Leku erkide batengana jota, “ama adoretu” bilakatu diren emakumeek ere, hala nola Nagore Laffageren ama Asun Casasolak, biktimizazio horren eragina jasaten dute, kazetarien narrazioan edo narrazio grafikoa. Asuni *El Correon* egindako elkarrizketa batean –«justiziaren pisua» akusatuari eragiteko eskatu zuen elkarrizketan–, bere diskurtsoaren sendotasunak ez du zerikusirik atsekabetuta negarrez agertzen den argazki batekin. Argazki-oinak biktimizazio hori nabarmentzen du: “LUR JOTA. Asunciónek bere alaba lurperatu berri du eta «indarrrik gabe» aitortu du”⁷.

Erasotzaileei buruzko estereotipoak:

Biktimen inguruko diskurtsoak errudunestearen eta biktimizazioaren artean dauden bezala, esan genezake erasotzaileei bi era ezberdinetan aurkezten zaiela: patologia bati lotutakoak (burutik jotakoak, munstroak, alkoholak erotutakoak...) edo muturreko egoera batetik nola irten jakin ez zuten mutil normalak. Ikus ditzagun erasotzaile berari buruzko komunikabide bereko bi adibide. Erasotzailea José Diego Yllanes da, Nagore Laffageren hiltzailea, 14. B-Ik aipatzen duena:

*“Nagoreren erailketa munstrokeria bat da” (El Mundo. 2008/08/10). Izenburu hori Iruneko, Nagoreren herriko, bizilagun baten erreakzioan inspiratuta dago. “Zer pasako zitzaion mediku gazteari burutik neska asfixiatu eta itotzeko?”, beren buruari galdetu zioten *El País* egunkariko kazetariak horren harira idatzitako kronikan (2008/08/13). Erotasuna azalpen bakar gisa. Eta mozkorraldia: albiste horretan hiru aldiz errepikatzen da buru-arintasuna eta alkohol-ahorakina: “36 ordu zeramatzan lo egin gabe, katxi (Iruneko konbinatuak) asko edan zituen”, “Yllanes mozkorra zegoen eta kostatu zitzaion giltza bere ateko sarrailan sartzea”, “Krimenaren egunean alkohol asko edan zuen, baina drogarik hartu ez zuela ziurtatzen du, “behintzat kontziente izanda””.*

“Atxilotuak, José Diego Yllanes Vizvayk, ez du aurrekari polizialik, eta, iturrien arabera, bizitza normala zuen, ikasle-bizitza nahiz, azkenaldian, laneko bizitza”. (El Mundo. 2008/07/11)

Batzuek pauso bat gehiago ematen dute, eta hiltzailearekiko ulermena eta enpatia transmititzen dute. Adibidez, honako albiste honetan defentsaren kontaketa da nagusi:

*«Mutikoa erabat damutu da eta lur jota dago», esan zuen haren abokatuak. Ospitaleko lankideek esan dutenez, gazte «langilea da, ez da batere bortitza, eta inoiz ez da arazotan sartu. Besteei laguntzean jarrita zeukan arreta», psikiatra gisa egiten baitu lan. (El Correo. 2008/07/12). Gehien ikaratu ninduen oharraren (*El País*) bidez, Yllaneseekin enpatia adierazten du, lagun bati idatzi zizkion mezuak (“Oso gauza txar bat egin dut. Neska bat hil dut etxean”. Zure laguntza behar dut”) eta poliziaren aurrean ez errenditzeko argudioak jasoz: (“Ez, ezin dut nire familia osoaren bizitza suntsitu”). Hona hemen abokatuaren kontaketa: “Negar egin zuen etengabe. Egitateak aitortu zituen, eta erabat damututa agertu zen uneoro; egindako gaitzak min handia ematen zion”.*

⁷ Peñalba, Javier (2008). “Nire alaba Nagore hil zuen hark nahi zuena egin ez zuelako”. *Diario Vasco*, uztailak 18, hemendik jasota: <http://www.diariovasco.com/20080718/al-dia-local/hija-nagore-mato-porque-20080718.html>



Krimen izugarri batean nahasi den mutiko normal baten erretratuari laguntzen diote zenbait xehetasunek, esaterako, hainbat izenburutan lanbide errespetagarria zuela nabarmentzea: *“Psikiatraren jarrera ezin ulertuzkoa zaie Klinika Unibertsitarioko lankideei; izan ere, ados daude mutil normala, kanporakoa, azkarra dela eta inoiz ez zuela arazorik sortu. Adrián Cano Prous eta Gloria Sarria Quiroga medikuekin batera, ‘Mejoría del dolor articular en un cuadro depresivo concomitante tratado con duloxetine’ (‘Giltzaduretako mina hobetzea depresio-koadro kutsatzailean duloxetinarekin tratatuta’)* izeneko lan bat argitaratu zuen berriki”.

Requena Aguilarek (2014) ohartarazten du “hiltzailea pertsona normala zela edo bikoteki-dearekin eztabaidatzen inoiz ikusi ez zutela dioten pertsonen lekukotza oso kaltegarriak direla, ideia faltsu bat indartzen dutelako, hain zuzen, krimen matxista gertakari isolatua dela eta alde aurretik indarkeriarik ez dagoela. Beste gaietan bezala, adituek bakarrik hitz egin beharko lukete, eta ez lirakeke espekulaziorik edo inpresiorik adierazi beharko”. López Díezek (2012) ere ohartarazten du “induljentzia mediatiko” horrek galarazten duela gizarteak indarkeria matxistaren aurkako konpromisoa hartzea; “izan ere, izenburuek *pasio-krimeneko* estereotipoa gehitzen jarraitzen badute, zaila izango da jarrera horiek baztertzea. Gainera, kontakizunak garrantzia handia ematen die auzokideen adierazpen sinpleei, eta, ulerkorra denez, auzokideak oso onberak bihurtzen dira kamera baten aurrean”.

Munstro baten kontaketa itzuliz, zenbait autorek esan dute komunikabideen aldetik diskurtso horiek erabiltzeko joera oso kaltegarria dela. “José Bretón bihozgabeko munstro gisa irudikatu da hasieratik, mendeku-grinaz beteriko zoro arriskutsu gisa. Era horretan lasai egoten jarraitu dezakegu, gure aulkietan eserita; munstrokeriak eta erotasunak gure bizitzekin zerikusirik ez duen “beste norbait” bihurtzen baitute”, adierazten du M psikiatra feministak *Confliction* (2012).

Patologizazio hori 21. B-lko lehenengo berrietan ikus daiteke. *“Banatu ostean, ustezko parri-zida arraro aritzen hasi zen, eta depresioagatiko tratamendua ematen ari zitzaioten. Ezagunen bati esan zion uste zuela bere emakumeak zelatatzen ziola”⁸.*

Aurrerago emandako informazioetan, ostera, komunikabideek erasotzailearen esaldi bat jaso zuten. Esaldi horrek erasotzaileak menderatzeko grina zuela eta premeditazioarekin egin zuela aditzera ematen du; komunikabideen joera “pasio-zoroaldi” edo “bat-bateko zoro-tasun” mitoak indartzea bada ere: *“Bizitza osoan sentitu duzun minik handiena egingo dizut, eta bizitza osoan zehar oroituko duzu”*. Ángela Gonzálezek oraindik entzuten ditu bere senarrak, Felipe Rascónek, esan zizkion azkeneko hitzen oihartzuna.(...) *Erasotzaileak bere nahia lortu zuen: Ángela bizitza osorako markatu zuen”⁹.*

Albiste horretan erasotzailearen erruz Ángela Gonzálezek eta bere alabak jasan zituzten tratatu txarrak eta jazarpen iraunkorra deskribatzen dira. Halere, kritikaren kontrako iruzkin bat ere gehitzen da, erasotzaileek gaixotasun mentalak dituztela dioen ideia indartzen duena: *“Psikiatrek gaixotasun mental larria diagnostikatu zioten erasotzaileari. Hura obsesionatuta zegoen bere emaztearekin, eta hori arriskutsua zen”*.

8 Del Moral, Javier (2003). “Zazpi urteko alaba eraili du buruan bi tiro eginez eta gero bere buruaz beste egin du Arroyomolinosen” *ABC*, apirilaren 26a, hemendik jasota: http://www.abc.es/hemeroteca/historico-26-04-2003/abc/Madrid/mata-a-su-hija-de-siete-a%C3%B1os-de-dos-disparos-en-la-cabeza-y-se-suicida-en-arroyomolinos_176641.html *ABC*, apirilak 26. Hemendik jasota: http://www.abc.es/hemeroteca/historico-26-04-2003/abc/Madrid/mata-a-su-hija-de-siete-a%C3%B1os-de-dos-disparos-en-la-cabeza-y-se-suicida-en-arroyomolinos_176641.html

9 Hidalgo, Susana (2010). “Andrea bere aitak hil zuen, 47 salaketa egin bazituen ere”. *Público*, azaroaren 22a. Hemendik jasota: <http://www.publico.es/espana/andrea-mato-padre-pesar-47.html>



Genero-indarkeria bikotekideen edo bikotekide ohien testuinguruan gertatzen dena baino ez da.

Estatu Espainoleko Genero Indarkeriari buruzko Lege Integralak aplikazio-eremua mugatzen du, Amerika Latineko herrialdetako legeen eta autonomia-erkidegoetako araudien alderantziz. Zenbait istoriotan oztupo gisatzat jotzen da hori, gizarteak indarkeria-egoera gizonen menderatzearen ondorio gisa hartzeko.

Zabalak (2008) adierazten du gizartea asko aldatu dela, eta, ondorioz, "bikotekideen testuinguruko indarkeria ikusezina izatetik genero-indarkeriatzat jotzen den indarkeria bakarra izatera pasa da", politika publikoek beste indarkeria mota batzuei, hala nola bikotetik kanpoko indarkeriari arreta ematen ez diete eta. Esaten duenez, horren ondorioz "komunikabideek ez diote laguntzen herritarrek albiste horiek menderatze matxistaren ondorioztat hartzeari".

Nagore Laffageren (14. B-I) kasuan, ikus daiteke automatikoki aldatzen dela kategoria juridikoa prentsan delitu bat azaltzeko. Lehenengo egunetan, hainbat esaldi esan ziren, esaterako: "Ikerkuntza-ildo nagusiak genero-indarkeria iradokitzen du, harreman sentimentala zutelako biek" (*Diario de Noticias*, 2008/07/09). Nagore Laffage eta José Diego Yllanes bistaz baino ez zutela elkar ezagutzen jakin zenean, komunikabide gehienek "genero-indarkeria" edo "indarkeria matxista" adierazpenak erabiltzeari utzi zioten, mugimendu feministak edo erakundeek berdintasuna aldarrikatzeko egindako eskakizunaren berri emateko izan ezik.

Zehazki, Lunes Lilasek baieztatu zuen Nagore Laffageren erailketa "genero-indarkeria edo indarkeria sexista dela", "epaiketa-saioretan argi geratu baita emakumea izateagatik eta bere nahiak ez betetzeagatik era basatian hil zuela José Diego Yllanasek; eta hori genero-indarkeria da". Lunes Lilasek uztailaren 2ko 22/2002 Foru Legeari helden zion, indarkeria sexistaren aurkako neurri integralak hartzeko; izan ere, Estatuko legeak ez bezala, genero-indarkeria ez du mugatzen bikote-esparrura¹⁰.

Bi urte geroago, giza hilketa delituko epaia eman zenean, Emakundeek ere prentsari¹¹ adierazi zion kasu horrek agerian uzten duela "emakumeek jasaten dituzten sexu-erasoak eta -indarkeria Emakumeen Aurkako Indarkeriaren Lege Integralaren bidez epaitu beharko litzatekeela", horrela "epaiak justizia hobea egin ahal izango zion Nagoreren oroimenari eta haren familiaren atsekabeari". Ez dugu zertan legediari buruzko eztabaidan sartu behar, baina adierazi behar dugu erabaki juridiko horrek prentsaren ikuspegietan eragina izan duela, eta, era berean, ikuspegi horiek gizarteak genero-indarkeriatzat jotzen duena baldintzatu duela.

Indarkeria instituzionala: landu beharreko gaia

"Estatuak nire alaba `hil` zuen".¹²Ángela Gonzálezek kasuari (21. B-I) buruzko *El Mundo* egunkariko kronika baten izenburu sendo horren bidez, komunikabideak instituzioen erantzukizuna (kasu honetan justizia-erantzukizuna) adierazten du indarkeria-kasuei dagokionez; eta horrelako izenburu gutxi daude. Aipatu dugunez, kronika horretan Ángela Gonzálezek lekukotza eta testuinguruko oso datu baliagarriak tartekatzen dira. Datu horiek,

10 Lunes Lilas. "Ez dago zalantzarik. Genero-indarkeria da". *Diario Critico*. Hemendik jasota: <http://www.diariocritico.com/noticia/181584/noticias/no-admite-dudas.-es-violencia-de-genero.html>

11 Naiz (2010). "Emakundeek gaitzetsi du Laffage kasua genero-indarkeriatzat ez hartzea". Abenduaren 29a. Hemendik jasota: <http://gara.naiz.eus/paperezkoa/201011229/240323/es/Emakunde-censura-que-caso-Laffage-no-considere-violencia-genero>

12 Ortiz, Ana María (2004) "Estatuak nire alaba hil zuen". *El Mundo*, maiatzaren 9a. Hemendik jasota: <http://www.elmundo.es/cronica/2004/447/1084196067.html>



“etxeo indarkeriari” dagokionez, herritarrek agintarien jarduketan konfiantzarik ez dutela adierazten dute. Horrez gain, datuek babesteko zenbat agindu eman diren aipatzen dute, bai eta Ministroen Kontseiluak premiazko neurritzat onartu zuela seme-alabentzako bisita-araubidea (kasu larrienetan erasotzailearen alde ezarri zen) bertan behera uztea.

Sistema judizialaren eraginkortasunik ezako kritika hori El País egunkarian kasu horri buruz argitaratutako albiste batean ere ohar daiteke¹³, kasu honetan testuinguruari buruzko daturik ematen ez bada ere. Beraz, kasu isolatu bat da:

“Ángeles González Carreñok dagoeneko ez du justizian sinesten. Zortzi urte igaro dira haren senar ohiak -genero-indarkeria zela eta salatu zuen- bien alaba erail, eta, ondoren, bere buruaz beste egin zuenetik. Alaba hil zuen epaiak dibortzio-araubidean xedatutako bisita batean. Atzo, bide judizial luze baten ostean, Konstituzio Auzitegiak Ángelesi beste ate bat ixtea erabaki zuen.

El País egunkariaren webgunean `genero-indarkeria instituzionala´ tekleatu dut, eta harritzekoa da lehenengo emaitzak Latinoamerikako berriei buruzkoak direla: ministroen bilera bat genero-indarkeriarekin amaitzeko; feminizidioari buruzko emaitza bat Argentinan, eta beste bi Mexikon.

*Eldiario.es*en hitz berak tekleatuta, emaitzak Estatu Espainolekoak dira. Nolanahi ere, arreta ematen du emaitza gehienak iritzi-artikuluak direla: lehenengoa Alicia Mirayes filosofo feministak idatzi zuen, PPren (Alderdi Popularra) gobernuko indarkeriaren errepassoa egiteko; bigarrena Laia Serra jurista feministak idatzi zuen berriki, eta sexurako adostasunaren ulermen okerrari buruz hitz egiten du; Laiak dioenez, hainbat epailek sexu-erasoko salaketak amaitutzat jotzen dituzte sexurako adostasuna txarto ulertzen dutelako.

Instituzioen indarkeriari dagokionez, bizitza-istorioetan ikusten da gai bat errepikatu egiten dela, eta komunikabideek gehiago lan zezaketen gai hura: erasotzaileak mekanismo legalak eta mesede-tratuak erabiltzea zigorra saihesteko edo bere emakumea biktima bihurtzen jarraitzeko. Adibidez, 9. B-In (Kolonbia) jasotzen da haren senar ohiak justizia-funtzionarioekin zuen harremana erabili zuela bere zigorgabetasuna bermatzeko; eta 15. B-In (Euskal Herria), berriz, erasoak direla medio salatua izateak eragindako inpotentzia.

2.2. Sexu-indarkeria edo indarkeria sexista gatazka armatuetan

2.2.1. Kolonbia

Komunikabideak 2008. urtean hasi ziren sexu-indarkeriari buruz gatazkan erabiltzeko gerrako armatzat hartzen. Zenbaitetan nahasmendua eragiten duten izenburuak idazten dituzte, esate baterako: ¹⁴“Emakumeen kontrako sexu-indarkeria: gerrako arma berria Kolonbian”. Bistakoa denez, indarkeria ez da gauza berria, gauza berria da erakunde sozialek indarkeria hori publikoki salatzea. Albiste-iturri nagusi horiek datu sendoak eta azalpenak ematen dituzte eragile armatuen erantzukizunari buruz, bai eta krimen horiek emakumeen bizitzan duten inpaktuari buruz ere. Ez dakit erakunde sozialek gai hori agenda mediatikoan 2008an baino lehen sartzen saiatu ziren.

Arreta ematen du benetan albisteetan baieztatzea unera arte ez zirela egoera horiek eza-gutzen:

¹³ España, Sara (2011) “Justiziak amaitutzat jo du hiltzaileari emandako neskatxaren kasua”. *El País*, maiatzaren 10a. Hemendik jasota: http://elpais.com/diario/2011/05/10/sociedad/1304978405_850215.html

¹⁴ Ez da sinatu. [2008] *El Tiempo*, abenduaren 27a. Hemendik jasota: <http://www.eltiempo.com/archivo/documento/MAM-3252599>



"2009. urtean, herrialdeak dena ikusi eta jasan zuela uste zuenean, Oxfam-Intermon GKEak eta zortzi emakume-elkartek egindako txosten batek jakitera eman zuen unera arte ezaguna ez zen drama bat: emakumeen gorpuak erabiltzea gerrako arma gisa. Txosten horrek agerian utzi zuen sexu-indarkeria sistematikoki eta ohikoan erabili dela gatazka armatuan emakumeak menderatzeko"¹⁵.

Erantzuna aurki dut 2015ean *La Silla Vacía*¹⁶ argitaratutako erreportaje batean. Ruandako gerra edo Bigarren Mundu Gerran militar japoniarrek esklabo bihurtutako "konfort-emakumeak" aipatuta, testuinguru historikoa kokatzen du, eta, haren bitartez, aditzera ematen du nazioarteko erakundeek eta auzitegiek laurogeita hamarreko hamarkadatik aurrera hasi zirela sexu-indarkeria gerrako armatzat hartzen. Kazetariak dioenez, hamarkada horretan egin ziren lehenengo salaketa feministak Kolonbian.

"Laurogeita hamarreko hamarkadaren erdialdean, herrialdeko elkarte feministak ere hasi ziren delitu horiek publikoki salatzen, bereziki, Uraban, gerra gogorra zen lekuan. Orduetik, ez zaio etenik eman emakume biktimek, beren familiek eta komunitateek bizi duten egoeraren magnitudea eta ondorioak salatzeari, ikertzeari eta jakinarazteari. Casa de la Mujer (Emakumearen Etxea) elkarteak -Bogota- egindako azterketa baten arabera, 2001etik 2009ra bitartean 489.678 emakumek jasan zuten sexu-indarkeria.

Hain zuzen ere, Uraba eskualdekoa da 26. B-lko protagonista, eta bertan bortxatu zuten 11 urte zituenean, hau da, 1994an.

Erreportaje horrek esaten badu feministek sexu-indarkeria gerrako armatzat erabiltzen zela laurogeita hamarreko hamarkadaren hasieran salatzen hasi zirela, eta 2001etik 2009ra bitartean milaka biktima egon zirela, ondorio argia ateratzen dugu: komunikabide jeneralistek, hala nola *El Tiempok*, 2008an "indarkeria berri" bati buruz hitz egiten zuten, hortaz, horren aurretik ez zuten nahi izan horri buruz aritzea, Kolonbiako instituzioek aitortu bitartean. *La Silla Vacía*ko testu hori bereizten duen beste elementu bat da sexu-indarkeria hori horrela definitzen duela: "emakumeen gaineko menderatze maskulinoaren, kontrol sozialaren eta lurraldeko kontrolaren *continuuma*". *El Tiempoko* aleetan ez dut gorputzaren kontrolaren eta lurraldearen kontrolaren arteko lotura horri buruzko aipamenik, are gutxiago ere "menderatze maskulinoa" bezalako kontzeptuen beldurrik gabeko erabilera.

Sumatzen dut *El Tiempo* egunkaria gizateriaren aurkako delitu horien berri behin betiko ematea eragin zuen beste elementu bat izan zela egunkariaren zuzendariak sexu-indarkeriako egoera batean biziraun zuela gatazkan, eta egia, justizia eta konpontzea benetan aldarrikatzeko ekimenen parte dela. Zenbait artikulutan aipatu zuten zuzendaria (*El Tiempo* egunkarikoetan ez ezik, *La Silla Vacía*koetan ere bai:)

"Jineth Bedoya Lima kazetariak, *EL TIEMPO* egunkariko zuzendaria da eta gatazkarekin lotutako sexu-indarkeriako egoera batean biziraun zuen -ekimen horren burua da ere bai-, esan zuen biktima horiek arazo nagusietako bat dela justiziari iristea oztopatzen dietela, %98ko zigorgabetasunaz eta konponketarik ezaz gain. "Arlo judizialak zor bat du Kolonbiako emakumeekin. 150 mila emakumek jo dute Justizia eta Bake auzitegira: ni bortxatu ninduten, edo nire komunitateko emakume guztiak bortxatu zituzten eraso armatu batean, eta 150 mila kasu horietatik bi baino ez dira kondenatu", esan zuen Bedoyak"¹⁷.

15 Redacción (2015). "Habanara deitu dute sexu-indarkeria dela eta". *El Tiempo*, ekainaren 16a. Hemendik jasota: <http://www.eltiempo.com/politica/proceso-de-paz/proceso-de-paz-llamado-a-la-habana-por-violencia-sexual/15954456>

16 Pineda García, Rocio (2015) "Ez da isilik egoteko ordua! Hitz egitekoa da!". *La Silla Vacía*, maiatzaren 25a. Hemendik jasota: <http://lasillavacia.com/silla-llena/red-de-las-mujeres/historia/no-es-hora-de-callar-es-la-hora-de-hablar-53958>

17 Redacción (2014). "Sexu-indarkeria kasuetako zigorgabetasuna %98 da". *El Tiempo*, martxoaren 18a. Hemendik jasota: <http://www.eltiempo.com/archivo/documento/CMS-13678798>



2009an, El Tiempok informatu zuen Ordainaren eta Berradiskidetzaren Batzorde Nazionalak (CNRR – Comisión Nacional de Reparación y Reconciliación) lehentasun-zerrenda bat egin zuela, gatazkako biktimak indarberritze aldera. Lehen postuan pertsonen aurkako minen biktimak jarri zituen, bigarren postuan, aldiz, sexu-indarkeriatik bizirik ateratakoak. Horrela arrazoitzen du: *“Bortxatuak izan diren emakumeak bi aldiz biktimizatzen dira. Bortizkeria jasateaz gain, beren komunitateek estigmatizatu eta baztertzan dituzte”, adierazi zuen¹⁸”.*

Dena den, oso positiboa da informazio horretan hasieratik ematen zaiola garrantzia delitu horien zigorgabetasunari, eta biktima gutxi salatzen dutela aipatzen bada ere, ez zaie inoiz horren errua leporatzen. Biktinek salaketarik ez egitea polizia-agintarieko konfiantzarik ezari egozten zaio; izan ere, polizia frogatzen eskatzen dizkiete emakumeei. Horrez gain, sexu-indarkeriagatik hainbat emakumek nahitaez lekuz aldatu behar dutela ere aipatzen da, bai eta lekuz aldatu diren emakumeek jasaten duten sexu-indarkeria ere.

Bake-negoziatioei dagokienez, emakumeen mugimenduek berriz ere ipintzen dute agenda mediatikoan gerra-arma gisa sexu-indarkerian dagoen zigorgabetasuna. 2015ean, adierazi zen maiatzaren 25ean Sexu-indarkeriaren Biktima diren Emakumeen Duintasunaren Eguna Nazionala ospatuko zela, gatazka armatuaren testuinguruan. Hilabete beranduago, El Tiempok ‘Ez da isiltzeko garaia’ kanpainaren berri eman zuen, eta Habanako negoziaketa-mahaian hainbat salaketa egin ziren:

“Horregatik, sexu-indarkeriak %98 inguruko zigorgabetasuna duela eta gai horrek Habanako negoziaketa-mahaian aztertua izateko aukera gutxi dituela aintzat hartuta, Sisma Mujer, Humanas eta Red Nacional de Mujeres erakundeek eta ‘Ez da isiltzeko garaia’ kanpainak FARCEko eta Gobernuko negoziatzaileei dokumentu bat aurkeztu zieten, bake-akordioetan sexu-indarkeriari trataera ezberdin bat emateko bost gakoekin”¹⁹.

Halere, kontserbadoreek “genero-ideologia” bake-akordioetan sartzea salatu zuten. Beste eduki gomendagarri batzuen artean, La Silla Vacían Lina Céspedes²⁰ abokatuaren analisi bikain bat topatu dut. Haren bidez, zehatz-mehatz azaltzen du gatazkari heltzeko zergatik den egokia eta beharrezkoa genero-dimentsioa barneratzea (oraindik egiteko dago). Horrez gain, autoreak emakumeen aurkako krimenak ez ezik, homosexuali eginiko sexu-abusuak eta heterosexualitatearen disidentziei eginiko errepresioa aipatzen ditu.

2.2.2. Guatemala

27. B-I sexu-indarkeriatik bizirik atera den emakume bati buruzko da, barne-gatazka armatuko testuinguruan. Txostenean adierazten da gatazkaren ostean sexu-indarkeria ez dela agertzen gizateriaren aurkako krimen gisa, eta, bestalde, emakumeen aurkako indarkeria normalizatzen hartzen dela.

*Prensa Libre*ko goiburua nagusian ‘sexu-indarkeria gatazka armatua’ tekleatuz gero, automatikoki kasu konkretu batera iristen gara: barne-gatazka armatuan zehar emakume indigenak esklabo bihurtzeagatik militarrei Sepur Zarcon (Izabal) eginiko epaiketak. Auzitegiatiko kronikak dira, eta salaketaren eta defentsaren kontakizunak jasotzen dituzte modu aseptiko eta landu gabean, agentziek nahiz egunkariko kazetariak sinatzen dutenean. Ez da ahalegi-

18 Meléndez, Jorge Enrique (2009) “Biktimen ordainerako lehentasunak prest”. *El Tiempo*, maiatzaren 18a. Hemendik jasota: <http://www.eltiempo.com/archivo/documento/MAM-3448880>

19 Redacción (2015). “Habanara deitu dute sexu-indarkeria dela eta”. *El Tiempo*, ekainaren 16a. Hemendik jasota: <http://www.eltiempo.com/politica/proceso-de-paz/proceso-de-paz-llamado-a-la-habana-por-violencia-sexual/15954456>

20 Céspedes, Lina (2016). “Ikuspegia da, ez berriz, genero-ideologia”. *La Silla Vacía*, irailaren 12a. Hemendik jasota: <http://lasillavacia.com/silla-llena/red-de-las-mujeres/historia/es-perspectiva-no-ideologia-de-genero-57909>



nik ikusten sexu-indarkeria gatazka kasu zehatz horretaz haratago ikertzeko. Gainera, ez da ondo azaltzen (kereila-jartzaile baten aipua izan ezik) sexu-indarkeria lurraldea defendatzeko nekazarien borroka zapaltzeko erabili zenik.

Paula Barrios Mujeres Transformando el Mundo (kasuaren kereila-jartzailearen parte den erakunde) taldeko partaidearen hitzek kasu konkretu hori testuinguruan jartzen dute, eta sexu-indarkeria automatikoa izan zela azaltzen dute:

“Barriosek esan zuen sistema “patriarkalak, klasistak, matxistak” emakumeen aurkako erasoak gerrako arma gisa erabiltzeko lagundu zuela. Hori dela eta, emakume ugari bortxatu zituzten, eta, ondorioz, gaixotasun fisikoak eta psikologikoak sortu ziren”²¹.

Estaldura horri dagokionez, beste elementu bat nabarmendu daiteke: emakumeen agentzia jasotzen da biktimizazio-arriskuaren aurrean. Kronikak salatzailearen hitz irmoekin hasi ohi dira:

“Bortxatu gintuzten...hori guztia gertatu zen...hala izan ez bazen non daude gure senarrak, ez daki-gu non dauden”, esan zuen Demesia Yacek, 70 urteko q’eqchí emakume indigena batek, 11 emakumeren izenean. Bortxatu zutela salatu zuen, baita bere senarra gerra zibilean desagertu zela ere”²².

Beste ohar batzuetan, aldiz, nabaritzen da erakunde kereila-jartzailearen diskurtsoa garrantzitsua izan dela emakumeak biktimizatzeko komunikabideen joera orekatzeko:

Epaileak gogora ekarri zuen biktimen “adorea”. Epaietan, lekukotza ematerakoan, negarrez hasi ziren biktima horiek, gertatutakoagatik nahiz horrek haien bizitzan eragin zuen aldaketagatik. Horrez gain, gehitu zuen drama horrek trauma ondoko estres konponezina eragiten dietela”²³.

Kronika horietan ere aipatzen da Bakearen Nobel saria jaso duten Rigoberta Menchú eta Jody Williamsek mobilizazioetan parte hartu dutela justizia eskatzeko.

Txepelkeria eta erreportaje sakon baten falta hori, behintzat, iritzi-zutabe sendo batzuekin orekatzen da. Horien bidez, hobeki azaltzen dira elementu batzuk, hala nola bortxaketaren estigma. Horrez gain, biziraun dutenen adorea aitortzen da, gerrako arma gisa sexu-indarkeria erabili den munduko beste gerra batzuk erreparasatzen dira, eta arreta handiagoa ematen zaio beren koloretako eta kotoizko mantetan bildutako salatzaileen irudi ikonikoari:

“Sepur Zarcoko 11 emakumeen aurpegiak tapatzen zituzten manta koloretsuek minaz, heriotzaz eta indarkeriaz beteriko istorio bat gordetzen dute. Istorio horien ondorioz, arduraduneko bi kondenatu zituzten. Askok barre egiten diete biktima horiei; izan ere, destakamendu militar batean sexu-objektuak izategatik mespretxatzen dituzte. Militarren abokatu defendatzaileak, Moisés Galindo militarrek, esan zuen emakume horiek ez zirela biktimak izan, baizik eta prostituitu egin zirela, hau da, prostitutat zirela, kontuan izanda gizarte kontserbadoreetan horrek dakarren esanahi zaurgarria, adibidez, Guatemalan. Baina, zigor-epaia ikarari eta haien urkatzaileei aurre egitea lortu zuten q’eqchí emakume horien ausardiari esker lortu zela ulertzeko, haien tragedia ezagutu beharra dago”²⁴.

“Momentu horretarako zenbait urteko prestakuntza jaso zuten guztiek, sozietate zibileko emakumeen erakundeen eskutik. Haien eskubideak ezagutu dituzte, erruak eta estigmak atzean utzi

21 AFP [2016] “Sepur Zarco | Bortxatutako emakumeek biktimarioak kondenatzeko eskatu dute”. *Prensa Libre*, otsailaren 26a. Hemendik jasota: <http://www.prensalibre.com/guatemala/justicia/sepur-zarco---mujeres-violadas-piden-condenar-a-victimarios>

22 *Íbidem*.

23 Ramos, Jerson [2016]. “Sepur Zarco | Reyes Girón 120 eta Valdez Asij 240 urteko espetxe-zigorra”. *Prensa Libre*, otsailaren 26a. Hemendik jasota: <http://www.prensalibre.com/guatemala/justicia/sepur-zarco---tribunal-dictara-sentencia-esta-tarde>

24 Shetemul, Haroldo [2016]. “Sepur Zarco heroiak”. *Prensa Libre*, martxoaren 2a. Hemendik jasota: <http://www.prensalibre.com/opinion/heroinas-de-sepur-zarco>



dituzte, zeren aurka ari diren ulertu dute; justizia izateko aukera izango dutela adierazten du horrek. Inoiz izan duten beldurra baino beldur handiago izango dute? Ez. Egun, haien ahotsek tinko hitz egiten dute, beren partez zein gerrako sexu-indarkeriatik bizirik atera direnen partez”²⁵.

Plaza Pùblica sexu-indarkeriari buruzko testuak bilatzean, Sepur Zarcoko kasuak ere aurkitu ditut. Nolanahi ere, erreportaje horiek *Prensa Libre*koetatik ezberdintzen dira; izan ere, bat egiten dute salatzaileen kontakizunarekin, giza eskubideekiko argitaratze-konpromisoa dutela adierazteko, eta kalitate handiagoko kazetaritza delako. Erreportaje horiei esker, askoz hobeto ulertzen dugu nola bizi izan zuten emakumeek esklabotza-garai horretan, bai eta justiziaren aurrean aurkezteko pausoa ere. Egia, justizia eta ordaina lortzeko emakumeek izandako antolamendu-gaitasuna azpimarratzen da. Kazetariak epaiketan inplikaturako iturriez gain, beste iturri aditu batzuetara jotzen du, bai eta fokua handiagotzen duten beste ikerketa batzuetara ere. Alde batetik, argi uzteko Sepur Zarco ez zela kasu isolatu bat izan; eta, bestetik, salatzekeo sexu-indarkeria ez zela bake-akordioen agendan txertatu.

‘Pobreen justizia’ izeneko erreportajearen honako baieztapen hauek egiten dira: *“Ez dira Guatemalako emakume ahulenak. Alderantziz. (...) Gaur egun haien ahotsak Arrisku Handiagoko Auzitegian berriz entzutea lortu dute, gogor, q’eqchi’ hizkuntzan. Eta zenbait hamarkadez gorde zuten isiltasuna epaia da orain (...) Epaiketa horri esker, Sepur Zarcoko emakume eta amonek gertatu zitzaiena kontatzeko aukera izan dute, aurretik —ez 1996an bakea sinatu zenean, ezta egia-txostenak egin bitartean ere— inork ez zielako haien sufrimenduei buruz galdetu”*. Iturri gisa ikertzaile feministak barne hartzen ditu, hala nola Amandine Fulchirone, eta honek zera dio: *“Haien funtzioa beste batzuenaren arabera izan zen beti. Desagertutakoei, torturatutakoei nahiz masakreei buruz galdetzen zieten, baina inoiz ez haiei buruz, ez eta gertatu zitzaienari buruz ere (...) Emakume horiek biktimak izan ziren garai batean, baina aspaldi bihurtu ziren eskubide bat eskatzeko gai diren pertsonak, baina hortaz oso pertsona gutxi jabetzen dira, Gortera iritsi diren modua dela eta”²⁶.*

Bi komunikabide horietan ez dut aipamenik aurkitu Emakumeenganako Sexu Indarkeriaren Aurkako Kontzientzia Auzitegiari buruzko atalik; 27. B-lko protagonista auzitegi horretan ibili zen (egia esanda, bat aurkitu dut *Plaza Pùblica* baina oso gaizki idatzita eta gutxi landuta dago). Haren istorioan, azpimarratzen da militarren aldetik jasotako sexu-indarkeriaren ondorioz, nahitaez desplazatu behar izan zela. Aitzitik, ikusi dudanez, aztertutako bi komunikabideetan ez da ondo azaltzen sexu-indarkeriaren eta nahitaezko desplazamenduaren arteko erlazio hori.

2.2.3. Euskal Herria:

Komunikabide kolonbiarrek sexu-indarkeriari (gerra-arma gisa hartuta) berandu baina irmotasunez ekin zioten, guatemalarrak, berriz, badirudi “epai historiko” bat behar izan zutela indarkeria horri agendan lekua egiteko. Baina euskal testuinguruan (“gatazka ondorengo” gisa har dezakegu ere bai) Amnistia Internazionalak salatu du Estatuak ez duela oraindik onartu tortura poliziala dagoenik, eta, bestalde, ez diola inkomunikazio-erregimenari amaiera eman nahi²⁷. Indarkeria mota hori Estatuari lotutako auzi-jartzaileei baino ez zaie egotzi (poliziei eta, frankismoaren ondorengo testuinguruan, talde paramilitarrei), eta diskurtso hegemonikoak indarkeria hori ukatzen du, are gehiago, ETAko presoek torturak sistematikoki salatzekeo izan duten estrategia gisa hartzen du.

25 Escobar Sarti, Carolina [2016]. “Sepur Zarcoko emakumeak”. *Prensa Libre*, otsailaren 25a. Hemendik jasota: <http://www.prensalibre.com/opinion/las-mujeres-de-sepur-zarco>

26 Hernández, Oswaldo J. [2016]. “Umilen justizia”. *Plaza Pùblica*, otsailaren 27a. Hemendik jasota: <https://www.plazapublica.com.gt/content/la-justicia-de-los-perrajes>

27 Amnistia Internazionala Espainia [2016] “Euskadi: Oraindik ez dago egiarik, justiziarik ez konponketarik bortxaketak izan diren eta giza eskubideak urratu zaizkien biktimentzat”. Irailaren 9a. Hemendik jasota: <https://www.es.amnesty.org/en-que-estamos/noticias/noticia/articulo/pais-vasco-todavia-sin-acceso-a-verdad-justicia-y-reparacion-para-las-victimas-de-violaciones/>



Azterketa hori 2002an publikatu zen *El País*en, eta planteamendu horren adierazle da²⁸. Kazetariak luze aipatzen ditu presoen aldetik egindako indarkeria-salaketak eta argitaratze-lerro antagonikoa duen komunikabide baten (*Gara*) aldetik jasotako estaldura:

"Fiskalek, epaiek eta forentseek zalantzarik gabe diote hori guztia ETAk antolatutako gezur handi bat dela, kalumnia onartezin bat. 'Makil baten bidezko indarkeriak seinaleak uzten ditu, ezinezkoa da atxilotu bat makil batekin bortxatzea polizia-etxean eta gu horretaz ez ohartzea egunero egiten dizkiegun ikuskapenetan', azaltzen dute egunkari horretarako erantzun zuten lau forentsek".

Honako hau ondorioztatzen du kazetariak: *"Kanpainak aktiboki sustatzen dituztenak salbu, egun inork ez du uste tortura praktika orokortu bat denik, eta, era berean, ez da saiatzeko kasu isolatuak daudela baztertzen".*

23. B-I Segiko militante batena da, inkomunikazio-erregimenean atxilotuta zegoen bitartean tortura psikologikoa eta sexu-indarkeriaren mehatxua jasan zituenarena. Haren lekukotza-ren bitartez, atxilotuta dauden emakumeek jasaten dituzten joera sexistako eraso espezifikoak aitortzea eskatzen da, esate baterako, gauzak burutzea adierazten dituzten irainak edo indarkeria mehatxuak.

Kasu zehatz horri dagokionez, prentsa jeneralistaren (*El Mundo*, *eldiario.es*) estaldura haren atxilotetara eta askatzera mugatu zen. Oharrak laburrak dira, agentzienak, eta inola ere ez dira tortura-salaketak aipatzen, eta are gutxiago, tortura sexistak. Baina ordezko komunikabideetan (irriti aske bat eta blog bat), protagonistari egindako elkarrizketetan ere ez dute sakontzen atxilotuta eta preso dauden emakumeen tratua sexistan.

El Correoko bilatzailean "tortura sexistak" tekleatuz gero, ateratzen den emaitza bakarrak Eusko Jaurlaritzak egindako tortura-biktimen erroldari egiten dio erreferentzia²⁹. Albiste horretan, ez zaie tortura sexistei erreparatzen, eta Euskal Herrian torturak jasan dituzten gizon eta emakumeen portzentajeak ere ez dira xehatzen. Gainera, erredaktoreak sarritan gizonezko generikoen formulak erabiltzen ditu ("damnificados", "afectados"...), eta horrek bortxatuak izan direnak gizonezkoak direla pentsaraztera eramaten du. El Correoko bilatzailean "ETako emakume presoak tortura" tekleatuz gero, Estrasburgon bi presok eginitako salaketei buruzko bi albiste agertzen dira, baina bakar batean ere ez zaio torturen sexu-izaerari aipamenik egiten.

Aitzitik, Berrian (bere argitaratze-lerroa gai hau agendan sartzearen aldekoa da), "tortura sexistak" tekleatuta emaitza interesgarriak agertzen dira, esate baterako, gatazka genero ikuspegi batetik berraztertze beharri buruzko artikulua bat³⁰. Bertan aipatzen da 1979 eta 1980 urteen artean talde parapolizialek eta eskuin muturrekoek emakumeen gorputzak bortxatzeko estrategia, kontzienteki erabili zutela, gerra-arma gisa. Beste artikulua batean³¹, mahai borobil bateko ondorioak kontatzen dira, euskal emakume presoen bizipenei buruzkoak, alegia. Jasaten duten zigor bikoitza aipatzen da: penala eta morala/soziala, genero-rolen haustura dakartzatena.

28 Barbería, José Luis (2002) "Torturak Euskadin: egia edo propaganda hutsa?". *El País*, maiatzaren 5a. Hemendik jasota: http://elpais.com/diario/2002/05/05/espana/1020549608_850215.html

29 Cárcamo, Alba (2016). "Eusko Jaurlaritzak adierazi du 4.009 pertsonak jasan dituztela torturak". *El Correo*, ekainaren 27a. Hemendik jasota: <http://www.elcorreo.com/bizkaia/sociedad/201606/27/gobierno-vasco-censa-victimas-20160627125025.html>

30 (2016) "Gatazka genero ikuspegiarekin berreraikitzea": *Berria*, ekainaren 8a.

31 Zufia Erdozain, Amaia (2015) "Feministok ere harriak mugitzera goaz". *Berria*, abenduaren 31a. Hemendik jasota: http://www.berria.eus/paperekoa/1832/016/003/2015-12-31/feministok_ere_harriak_mugitzera_goaz.htm



2.3. Sexu-abusuak haurtzaroan

16. B-lk Guatemalako komunikabideetan haurtzaroan jasaten diren sexu-abusuei ematen zaien trataera arakatzea bultzatu dit. Istorio horretan islatuta geratzen dira ezberdintasun sozialen eragina eta boterearen erlazioak. Protagonista eta haren ahizpa bortxatu zituen gizona neskek ikasten zuten ikastetxeko zuzendaria zen, eta, ama, berriz, ikastetxe horretako garbitzailea. Botere erlazio horrek bortxaketak salatzeke edo, behintzat, kontatzeko zailtasunean eragin zuen, errudun-uste ohikoa ere kontuan hartuta:

“Guretzat askoz ere zailagoa izan zen salatzea; Roberto anai-arreba guztiok ikasten genuen ikastetxeko zuzendaria zelako. Beldur nintzen bertan egoteko aukera edukiko ez genuelako; izan ere, nire amaren egoera ekonomikoagatik ez genuen egoteko beste lekurik arratsaldeetan. Nire amak salaketaren kontu guztiak egin zituen, eta bere nagusiak ez zion babesik adierazi, alde-rantziz, kalera bota zuen, ez zen gauza izan bizitzen ari ginen egoera hori ulertzeko (...) Isilik geratzen nintzen ez nuelako nire ama lanetik kaleratua izan zedin, are gehiago, ez nuen ezer esaten ni errudun sentitzen nintzelako, uste nuelako gona motzak erabiltzeagatik eragin nuela egoera hori. Horrez gain, pentsatzen nuen inork ez ninduela sinetsiko, ikastetxeko zuzendaria baitzen” (16. B-l).

Salaketa aurkeztu zutenean, mehatxuak eta zirikatzekak jasan zituzten akusatuaren familia-
ren aldetik, haien pobretze-egoeraz baliatu baitziren presioa egiteko:

*“5000 quetzal eskaini zizkieten baina nire amak esan zuen ez zituela Rosinaren ametsak salduko. Umearekin geratzea eskaini zioten, unibertsitatera iritsi arte ikasketa guztiak ordainduko zizkie-
la”. (16. B-l)*

Prensa Libren “Haurtzaroa babesgabe dago” oharra aurkitu dut³², eta bertan Giza Eskubi-
deen Prokuradoretzaren datu mordo bat ematen dira, GEPko defendatzailearen, Gloria Cas-
torenen, aitopenak. Datu kuantitatibo gehiegi agertzen dira (esaterako, asteko zein egune-
tan jasotzen diren salaketa gehien), baina datu horiek zergatik diren adierazgarriak ez da
azaltzen. Zifra horiek sexuaren arabera daude banakatuta, eta ikusi daiteke sexu-abusua
nabariagoa dela neskatoen artean mutikoetan baino. Nolanahi ere, ez dira hori ulertzeko
gakoak ematen. Bestalde, hezkuntza-eredu okerrak eta familietan dagoen elkarrizketa falta
nabarmentzen dira, haurtzaroan indarkeria eragiten duten faktore gisa. Hori dela eta, fami-
liek faktore estrukturalak aintzat hartu beharrean erantzukizunak har ditzaten bultzatu be-
har da. Oharraren amaieran adituaren esaldi bat agertzen da honakoa eskatuz *“gure begiak
arazo estrukturaletara bideratu behar ditugu, esate baterako, pobrezia, muturreko pobrezia
eta elikadurarako eskubidera”*, baina pobrezia eta indarkeriaren lotura hori ez da ondo
azaltzen, eta, ondorioz, tratu txarrak eta hurrenganako sexu-abusua familia pobreen kon-
tuta denaren aurreiritzia sor daiteke.

Zati batean honakoa adierazten da: *“neskatoen eskubideak urratzeko kausarik larrienetako bat
sexu-abusuaren ondorioz eragindako haurdunaldia da”: 2014an 5.119 haurdunaldi erregistratu
ziren 14 urtetik beherako gazteen artean*. Ez da ezer aipatzen haurdunaldia eteteko eskubi-
deari buruz, baina horri buruz aurrerago hitz egingo dugu.

Beste joeretako bat biktimizazioa da, hain zuzen, “Bortxaketa bategatik zapuztutako ametsa”
izeneko albistean ikusten dena.³³ 12 urteko mutiko baten bortxaketaren berri ematen da,

32 Orozco, Andrea (2015) “Niñez babesik gabe dago”. *Prensa Libre*, urtarrilaren 18a. Hemendik jasota: <http://www.prensalibre.com/noticias/comunitario/Violencia-contra-ninez-indefensos-embarazos-prematuros-aumentan-0-1287471241>

33 Sánchez, Glenda (2015). “Amets urratua bortxaketa bat dela eta”. *Prensa Libre*, abenduaren 29a. Hemendik jasota: <http://www.prensalibre.com/guatemala/comunitario/sueo-truncado-por-una-violacion>



bere enplegatzaileak, harategi bateko jabeak, burutua. Albisteak sexu-abusu horiek umearen osasun fisikoan eta psikologikoan izan duten eragina deskribatzen du, baina haren gaitzaz atsegin hartzen den moduagatik badirudi bortxatua izanagatik etorkizuna halaberharrez hondatzen dela. Iruditeria horren aurrean, 16. B-lko protagonistak kontatzen du bortxaketak ez zizkiola zituen planak zapuztu:

"Alderantziz, emakume gisa haztea egin ninduen. Orain indarkeria jasaten duten emakumeei lagundu nahi diet". Ezinbestekoa iruditzeen zait testigantza horiek ematea hobetze aldera, baita sexu- eta ugalketa-eskubideak eta sexu-hezkuntza sustatzeari ekitea ere: "Orain indarkeria jasan duten emakumeei laguntzen dieten erakunde batean egiten dut lan, eta gazteei sexu-hezkuntza irakasteko gaia ere lantzen dut, garrantzitsua baita txikiak garenetik gure gorputza ezagutzea eta gerta ahal dakizkigukoen gauzak jakitea (...). Bortxaketak ez zituen nire ametsak eten, irakasle-ikasketak egin nituen eta orain indarkeria jasaten duten emakumeei babesa ematen dien erakunde batean egiten dut lan. Genero-programaren arduraduna naiz, gizonezkoei nahiz emakumezkoei zuzenduta dagoen heziketa feministako eskolaren ardurapean nago" (16. B-l).

Garrantzitsua bada delitu horietako ohiko zigorgabetasuna azpimarratzea, kondena dagoeanean nabarmentzea komeni da, baina Prensa Gráficako aipatutako albisteak ez du izenburuan azaltzen erasotzailea "14 urtera kondenatua izan zenik indarkeria delituagatik (delitua larriagotzen zuen egoeran) eta 25 urtera sexu-abusuagatik delituen pilaketa erreal batean". Albistearen alderdi positibo bat da onespenerik gabeko hurreratze oro delitu bat dela nabarmentzen duela, bai eta, umea bortxatua izan dela jakitean, mediku-frogak eta froga psikologikoak egitea gomendatzen dela ere.

2.4. Sexu-generoagatiko edo -orientazioagatiko jazarpenera

10. B-l Irandik alde egin behar izan zuen lesbiana bati buruzkoa da. Istorio horren bitartez, jazarpenera LGBTfobikoarengatik Espainian asilo-eskubideari ematen zaion trataera mediatikoa aztertzen da. Nahiz eta gai hori aztertuko ez dudana, neska haren istorioan ere aipamena egiten zaie bortxaketa zuzentzaileei (bere senarrak sexualki bortxatzen zuen, hala, orientazio sexuala aldatuko ziola esanez). Gai hori komunikabideetan agertu da testuinguru geografiko konkretu batzuei lotuta, adibidez, Hegoafrika edo Peru. Halaber, lesbianek, gayek edo transexualek mundu mailan jasaten duten sexu-indarkeria espezifikoak aztertzea falta da.

*El País*en edo *eldiario.es*en, estaldura nabari bat aurkitzen dut, 2013. eta 2014. urteetan areagotzen dena, Asilo Legearen aldaketaren ondorioz (generoagatiko eta orientazio sexualagatiko jazarpenera gehitzen da).

2014an, El Paísek Europar Batasuneko Justizia Auzitegiaren epaiak informatu zuen. Epai horrek iragarri zuen asilo-eskatzzaileei ezin zaiela estereotipoetan oinarritutako galdeketarik egin, ezta haien bizitza sexualari buruzko dokumentu-frogak eskatu ere. Ondo landutako erreportaje zabal batean³⁴, CEARko abokatu batek salatzen du agintariak joera dutela arriskua minimizatzen eta aktibista-profila duten eskatzzaileei bakarrik kasu egiteko. Duela gutxiko albiste batek (*eldiario.es*)³⁵ nabarmentzen du, CEAREN ustez Gobernua "estereotipatutako irizpideak edo aurreiritziak erabiltzen ari dela, momentu bakoitzean pertsona transexual batek nola jokatu behar duen edo eskatzzaileak bere orientazio sexuala nola bizi

34 Torres Reyes, Alejandra (2014). "Homosexualitatea frogatzea". *El Tiempo*, abenduaren 7a. Hemendik jasota: http://politica.elpais.com/politica/2014/12/03/actualidad/1417618639_334895.html

35 Sánchez, Gabriela (2016). "Gobernuak asiloa ukatu die LGBTI pertsonari ezin dutelako beren herrialdean diskrezioz bizi". *Eldiario.es*, uztailaren 1a. Hemendik jasota: http://www.eldiario.es/desalambre/Gobierno-denegado-LGTBI-alegando-discretos_0_532647450.html



behar duen kontuei dagokienez”, Europako epaiari entzungor eginez. CEAREN abokatuak adierazten du “agintari espainolek zenbaitetan aintzat hartzen dutela pertsona horrek jazarpena saihestuko lukeela, baldin eta modu ‘diskretu’ batean jokatuko balu”. *El País*en aurretik agertutako albiste batean, CEARko beste abokatu batek ere azaltzen zuen agintariak arriskua minimizatzeke joera dutela.

Aipaturiko bi komunikabideetan, asilo-eskaerak deuseztatzeari buruzko albiste batzuk ere aurki ditzakegu. *El País*eko tonu aseptiko eta akritikoak harritu egiten du³⁶. Aitzitik, eldiario.esen jakinarazten zaigu Gorenak Herrizaingoari estutzen diola kamerundar bati asiloa emateko, haren arrazoiak “sinesgaitzat” jo ziren arren. Artikulu horretan, aurrekoan ez bezala, jazarpen LGBTfobikoarengatik asilo-eskaerak deuseztatzeke portzentaje altua azpimarratzen da, eta berriz aipatzen da arrazoi gisa orientazio sexuala disimulatzen bada arriskurik ez dakarrenaren aurreiritzi hori.

Komunikabide horietan ere argitaratu dira eskatzaileen bizitza-istorioak, eta horien bitartez, ezagutzera eramaten da herrialde batzuetako LGBTI komunitatearen egoera, esate baterako, Sierra Leonakoa³⁷ edo Ugandakoa³⁸. Jardunbide egokiak dituzte; izan ere, irakurleek zenbait elementu uler ditzaten laguntzen dute hala nola, erlijio-fundamentalismoen inpaktua edo migratzaileentzako atxilotze-zentroen egoera. Hala eta guztiz ere, bi komunikabideetan bi arazo ikusten ditut: alde batetik, protagonista gehienak gizon homosexualak dira (haien istorioak gehiago kontatzen dira lesbianenak edo transexualenak baino) eta, beste aldetik, faltan botatzen ditut kolonia-jaraunspenari buruzko erreferentziak. Bestalde, Afrikako 53 herrialdeetatik 38k homosexualitatea penalki zigortzen dutela azpimarratzen bada, inola ere ez aipatu gabe koloniek ekarri zituztela lege zapaltzaile horiek, askatasunez betetako Europaren aurrean, Afrika gutxi zibilizatuta dagoeneko aurreiritziak areagotu daitezke.

Europari buruz hitz eginez, Putinen gayen kontrako legeak zenbait albiste ekarri zituen, esate baterako, gay errusiar bati Argentinak asiloa eman zioneko *El País*eko albiste bat. Egunkari horretan bertan ere bikote ukrainar baten istorioa kontatzen da³⁹. Bikote horrek Ukrainatik alde egin behar izan zuen polizia bat haiek erosten saiatu baitzen haien erlazioa eta orientazio sexuala ezkutatzeko.

Jazarpen LGBTfobikoagatiko asilo-eskubideari buruzko albisteetan gayak protagonista izateko joera hori sendotu egiten dute hizkuntzaren erabilerak (“los gays” edo “los homosexuales” erabiltzeko joera dago generiko moduan LGBT kolektiboa barne hartzeko) eta irudiek, horietan ere gehienetan gayak dira protagonista⁴⁰.

Beste alde batetik, 11. B-Ik Estatu espainolean bortxaketa LGBTfobikoa eragiten duten migrazio-mugimenduak aztertzea eramaten gaitu. Istorio horretako protagonistak, errepresio frankistan bizi izan den emakume transexual batek, honela dio:

“Kasu askotan erbesteratzea gertatzen zen: nire lankide mordo bat, hemen Valentzian zeuden ia transexual gehienak andaluziarrak ziren. Zergatik? Emakume andaluziar bat transexuala ze-

36 Lázaro, Julio M. (2012). “Auzitegi Gorenak asiloa ukatu dio iraniar bati, ez duelako uste gai izatea pertsegitzen denik”. *El País*, apirilaren 13a. Hemendik jasota: http://sociedad.elpais.com/sociedad/2012/04/23/actualidad/1335184206_379420.html

37 Fernández Maeso (2013). “Desberdintasunetikerbestera”. *El País*, irailaren 29a. Hemendik jasota: http://sociedad.elpais.com/sociedad/2013/09/28/actualidad/1380373044_170305.html

38 Escuer, Vanessa (2015). “Gay izatea, ilegal izatea da Ugandan”. *El País*, abuztuaren 6a. Hemendik jasota: http://elpais.com/elpais/2015/08/05/planeta_futuro/1438768743_304438.html

39 Baquero, Camilo S. (2015). “Inork ez gaitu kontratatzen errefuxiatuak garelako”. *El País*, irailaren 3a. Hemendik jasota: http://ccaa.elpais.com/ccaa/2015/09/02/catalunya/1441220789_767525.html

40 Adibidez, 35. oharrean aipatutako albistearen argazkia: http://www.eldiario.es/desalambre/Gobierno-denegado-LGTBI-alegando-discretos_0_532647450.html



nean... alde egin beharra zuen bere herritik Valentziara, Bartzelonara ala beste edonora, baina ezin zuen bere herrian geratu. Familiatik botako baliete moduan, gainerakoak ohartu ez zitezen, ikus ez ziezaieten... Emakume valentziar asko Bartzelonan zeuden, gehiengo Bartzelonara joaten zen lanera, eta horregatik, tratu txarrez gain, zure herrialdetik kanporatua izatea ere gertatzen zen bizitza normal bat bizi ahal izateko, zure familiari "kalte egin gabe"... (11. B-I).

Aztertu ditudan komunikabideetan LGTB biztanleriaren exodoari buruzko erreportajeak aurkitu ditut, bereziki, hirietako landa-eremuari dagokionez. Zenbait LGTB elkartek eldiario. es-en⁴¹ hitz egiten dute "hirigunerako exodoari" buruz: "Lehenengo urtean Valladoliden lehenengo aldiz LGTB Harrotasunaren manifestazioa ospatu zenean, lurralde horretako homosexual, bisexual eta transexual guztiak batzen dizuen goiburua 'Geratu nahi dugu' izan zen". Iturrietako bat Cuencako emakume bat da, Madrilera iritsitakoa bere herrian "bizitza jasanezina egiten zioten": "Autoa irauli ziguten, hainbatetan kolpatu gintuzten... joan ginenera arte -bi salaketaren ondoren- hil egingo gintuztela pentsatzen baikenuen". El Paísko 2010eko erreportaje batean⁴² ere kontatzen da "galiziar landako homosexualak haien harrotasuna aldarrikatzen hasi direla, baina aurreiritziek ondorioz, gehienak alde egiten edo haien baldintza betirako gordetzea erabakitzen dutela". Erreportajeen lesbiana batek baino ez du hitz egiten zenbait gayen artean, baina ez da transexualei buruz ezer aipatzen.

Kontraste modura, komunikabide horrek 2005ean "landako gay gunetzat" jotako Guadalararako herri bati buruzko erreportaje bat publikatu zuen. "Madrilera iritsi ziren lehen dominikarrak herri berdinekoak ziren, baina kontua ez da homosexualak beste herri batera joaten direla bizitzera badakitelako bertan beste gay batzuk egongo direla; beste arrazoi batzuk daude: lagun bati bisita egitera joatea, herria gustatzea... eta landa-eremura joatea pentsatuta badu, litekeena da herri hori aukeratzea beste bat beharrean", azaltzen du testuan migrazioei eta sexu-aukeraketari buruzko ikertzaile batek⁴³.

2.5. Nahitaezko amatasuna eta abortu-eskubidea

2.5.1. "17ak" eta abortu terapeutikoa defenditzearen mugak

Bi bizitza-istoriok El Salvadorko prentsan abortuari zer nolako trataera ematen zaion aztertzea bultzatzen gaituzte. El Salvadorren ilegala da, hipotesi guztiak kontuan izanik, haurdunaldia boluntarioki etetea, are gehiago, hango zigor-kodeak abortu naturalak jasan zituzten emakumeak erailketagatik auzipetzen ditu. 24. B-Ik emakume horietako baten istorioa kontatzen du: 9 hilabetez zegoen haurdun, irrist egin eta erori egin zen, ospitalean esnatu zen eta bi legratu egin zizkieten; ospitale horretako medikuek abortuagatik salatu zuten, eta hurrengo egunean kartzelara eraman zuten.

Haren istorioa ezberdina da 4. B-Irekin alderatuta. Azken hori 21 urteko neska gazte bati buruzkoa da, misoprostolekin abortatu behar izan zuen ama izan nahi ez zuelako. Ospitalera joan zen mina sentitzen zuelako eta beraz arduratu zen medikuak salatu egin zion. Zorionez, epaiak prozesua baliogabetzat jo zuen, gazteak ez zuelako defentsarik izan, baina, edonola ere, baldintza batzuk ezarri zituen "emakume gaizto" hori "hezteko" zigor gisa: bizilekua ez aldatzea, alkoholdun edariak ez edatea eta haurtzaindegi batean umeak zaintzea.

41 Noriega, David (2015). "Armairua itxi-itxirik dago oraindik landa-ingurunean". *Eldiario.es*, apirilaren 3a. Hemendik jasota: http://www.eldiario.es/sociedad/lgtb-rural-homofobia_0_372713007.html

42 Pontevedra, Silvia (2010) "Jende asko baserriko armairuan". *El País*, urriaren 3a. Hemendik jasota: http://elpais.com/diario/2010/10/03/galicia/1286101094_850215.html

43 Gosálvez, Patricia (2005): "'Landa-giroa". *El País*, abenduaren 12a. Hemendik jasota: http://elpais.com/diario/2005/12/12/sociedad/1134342010_850215.html



Lekukotzan argi eta garbi kontatzen du beti jakin izan zuela ama izan nahi ez zuela, abortatzea aukera bideragarria dela uste duela eta seme-alabarik izateko nahirik sentitzen ez duela eta, uste duenez, sentituko ez duela. Zenbait herrialdetan, hala nola El Salvadorren edo Nikaraguan, emakumeen mugimenduak eztabaida abortu terapeutikoaren inguruan ardaztu du, baina gazte horren kasuak abortu askeko eskubideari buruz hitz egiten laguntzen du. Eskubide hori ukatzearen ondorioz, emakumeek segurtasunik gabe abortatuko dute agian; bizitza-istorio horretako protagonistaren kasuan. Gainera, bere lekukotzari esker, ikus dezakegu osasun-arloko langileak fiskal-lanetan aritzen direla; izan ere, gaztearen osasunaz arduratu beharrean, “delituaren frogak” jasotzeaz eta hari galderak egiteaz arduratzen dira.

Istorio horien protagonistek diotenez, kalte psikologikoa eta bakartasuna abortatzea kriminalizatzearen ondorioz sortutako elementu gakoak dira. Hala ere, komunikabideetan beste diskurtso batzuk nagusitzen dira. *La Prensa Gráfica*n artikulu-idazle berak idatzitako hainbat eta hainbat iritzi-zutabe aurki daitezke. Bibliako pasarteekin eta Juan Pablo II.aren aipuekin apainduta daude, eta, horien bidez, abortua despenalizatzeko borroka genero-ideologiarekin⁴⁴ lotzen du (berdintzat jotzen ditu eutanasia, intzestua eta pedofilia). Bestalde, pasarte eta aipu horien bidez, abortuak emakumeen harmonia emozionalean eragiten duen “zauri sakonaz” hitz egiten du⁴⁵. Bistakoa denez, horretan ez dira aipatzen nahitaezko amatasunak, segurtasunik gabeko abortuak edo berezko abortuak sortzen dituzten zauri emozionalak.

*La Prensa Gráfica*ko albiste batek apezpiku-konferentziak komunikabideetan duen eragina islatzen du⁴⁶. Kritikarik egin gabe elizaren diskurtsoa jaso ostean, amaierako uzten du NBERen gomendioa: Beatrizen kasuak abortuaren penalizazioan salbuespenak sartzeko balioko behar du. Beste albiste batean ikus daiteke aukeratzearen aurkako taldeen diskurtsoa transmititzen dutela⁴⁷. Albiste horretan izenburuak (oso nabaria da) ez du arreta ematen; bai, ordea, fundazio horrek Amnistia Internazionalaren aurkako protesta baterako dei egin zuela, 17en kanpaina bultzatzeagatik. Deigarria da komunikabideak aukeratzearen aurkako kolektibo baten kontakizuna nahiago izatea ospe handiko nazioarteko erakunde batena (kasu honetan Alrena) beharrean: “*De Cardenalen arabera, El Salvadorko haurrak Errepublikako Konstituzioan babestuta daude, eta horregatik hauxe esan zuen: “Salvadortar gehienak bizitzaren alde gaude, eta horregatik, ez dugu onartuko abortua legeztatzea; gure nortasun kulturalarekin bat egiten ez duten legeak inposatzeko, nazioarteko erakunde horrek esku hartzen badu ere”*. Jarraian, Alko bozeramaileak manipulazioz akusatu zion, berezko abortuez hitz egin zuelako haur-hilketa egin zuten emakumeen inguruan.

Izurra izertuz, 2016ko beste albiste batean, Eliza katolikoak adierazitako gauza baten berri eman zen: feministak akusatu zituen Zika birusa abortua suspertzeko erabiltzeagatik⁴⁸. Albistearen idazkerak agerian uzten du komunikabidearen ideologiak bat egiten duela Elizaren diskurtsoarekin, aipatzen baitzuen feministek “presioak handitu” zituztela Zika birusa zela medio.

44 De Lacayo, Carla V. [2016]. “Al filo de lo absurdo”. *La Prensa Gráfica*, urtarriaren 29a. Hemendik jasota: <http://www.laprensagrafica.com/2016/07/29/al-filo-de-lo-absurdo>

45 Ibidem [2015]. “Min debekatua”. *La Prensa Gráfica*, ekainaren 23a. Hemendik jasota: <http://www.laprensagrafica.com/2015/06/23/un-dolor-prohibido>

46 Chavarría, Ricardo [2013]. “Eliza katolikoa: Beatrizi abortu terapeutikoa ukatzea ez da konstituzioaren aurkakoa”. *La Prensa Gráfica*, apirilaren 28a. Hemendik jasota: <http://www.laprensagrafica.com/Iglesia-catolica--negar-aborto-terapeutico-a-Beatriz-no-es-institucional>

47 Redacción [2014]. “Bai bizitzari erakunde abortuaren aurka agertu da”. *La Prensa Gráfica*, irailaren 26a. Hemendik jasota: <http://www.laprensagrafica.com/2014/09/26/si-a-la-vida-se-pronuncia-en-contra-del-aborto>

48 Redacción [2016]. “Zika birusa abortua suspertzeko tresna gisa ez erabiltzeko eskatu dute”. *La Prensa Gráfica*, otsailaren 2a. Hemendik jasota: <http://www.laprensagrafica.com/2016/02/02/piden-no-instrumentalizar-el-virus-del-zika-para-promover-el-aborto>



El Faron, oster, Amnistia Internazionale erakundeko⁴⁹ Latinoamerikako zuzendarion-dokoari egindako elkarrizketa sakon bat topatu dut. Hark dienez, larrialdi obstetrikokoak erabiliz emakumeak kriminalizatzeari utzi behar zaio, osasun-arloko langileek lanbide-sekretua bermatu behar dute, eta Estatuak sexu- eta ugaltze-eskubideak babestu behar ditu. Gainera, abortua kriminalizatzeak emakumeen bizitzari dakartzkion inpaktu sozialak eta ekonomikoak aipatzen ditu.

Iritzi-artikuluetan Laura Aguirrek idatzitako batzuk nabari dira. Horien bidez, abortatzeko eskubidea aldarrikatzen du, eta zenbait gai aipatzen ditu, hala nola segurtasunik gabeko abortua⁵⁰ eta klase-dimentsioa⁵¹ (baliabide ekonomiko nahikoak dituzten emakumeek klinika pribatuetan edo atzerrian eteten dute haurduntza). Bestalde, ohartarazten du haur-hilketak egotzi zaien emakumeei zigorrak luzatzeko saiakerak egiten ari direla⁵². Beste artikulu batean⁵³ xehetasun handiz kontatzen da 17en drama. Haurduntza nahita eteteagatik ez ezik, emakume horiek larrialdi obstetrikokoak direla medio kriminalizatu dituzte. Horrez gain, artikuluan Abortua Despenalizatzeko Herritarren Elkartearen lana aitortzen da.

El Faron ere Zika birusaren eta abortatzeko eskubidearen arteko lotura bat argitaratu da, baina ikuspegia *La Prensa Gráfica*ren ikuspegiaren kontrakoa da erabat: *"Haurdun dauden emakumeak Zika birusaz kutsatzeko arriskuak agerian jartzen du El Salvadorko legedi zorrotzaren ekitaterik eza, abortuari dagokionez. Nerabe txiroentzako zailagoa da antikontzeptiboak erostea, eta, ondorioz, haurdun geratzeko arrisku handiagoa dute, bai eta fetuari mikrozeftalia eragiten dion birus bat harrapatzeko ere. Eta haurduntza goiztiarra etete saiakerak direla eta, kriminalizat tratatuko dituzte seguruenik"*⁵⁴.

Azkenik, 'Abortuari buruzko zenbat lege sartzen dira komunean?'⁵⁵ titulu bortitzaren bitartez, beste artikulu-idazle bat '17ekin' solidarizatzen da, El Salvadorko Estatuak zer jazartzen duen eta zer onartzen duen adierazten duten hitz hauen bidez:

"Pandillero batek bortxatu zuen nerabe baten kasua ezagutzen dut. Hark mehatxu egin zion eta neskatoak ihes egin zuen. Haurdun zegoela. Bortxaketa salatu balu hilda egongo zen, Estatuak ez baitauka segurtasuna bermatzeko gaitasunik. Abortatu balu preso egongo litzateke. Pandilleroa, berriz, aske dago eta bere lurraldea kontrolatzen eta beste emakume batzuk, lege seme-alabak izatera behartuta daudenak, biktima egiten jarraitzen du. Emakumeak kondenatzen dituen lege hori bera ez da gai emakumeak babesteko.

El Salvadorren oso ohikoa da ere senideek adingabeak bortxatzea. Hainbat kasutan haurdun geratzen dira emakumeak, bortxaketa baten ondorioz. Osaba batek, aiton batek edo anai batek bortxatutako 11 urteko neskatoak haurdun geratzen dira. Kasu horietan ere gure lege victoriarrak abortatzea debekatzen du. Intzestu-bortxaketa baten ondorioz, 11 urteko neskato bat haurdun

49 Guzmán Valeria [2016]. "Juliana Cano Nieto: "Abortua zigortzea arazo bat da El Salvadorko biztanleen %50rentzat"". *El Faro*, otsailaren 1a. Hemendik jasota: http://elfaro.net/es/201601/el_salvador/17888/

50 Aguirre, Laura [2014]. "Abortu arduratsu baten alde". *El Faro*, maiatzaren 14a. Hemendik jasota: <http://elfaro.net/es/201405/opinion/15388/por-un-aborto-responsable.htm>

51 Aguirre, Laura [2014]. "Abortatzea, klase-eskubidea". *El Faro*, abenduaren 1a. Hemendik jasota: <http://elfaro.net/es/201412/opinion/16300/el-aborto-un-derecho-de-clase.htm>

52 Aguirre, Laura [2016]. "Velásques Parker eta bere proposamen lotsagarria". *El Faro*, uztailaren 14a. Hemendik jasota: <http://elfaro.net/es/201607/opinion/18968/Vel%C3%A1squez-Parker-y-su-vergonzosa-propuesta.htm>

53 Ávila Guillén, Paula [2015]. "María Teresa, 40 urteko zigorra haurduntza inperfektu bat dela eta". *El Faro*, abenduaren 18a. Hemendik jasota: <http://elfaro.net/es/201512/opinion/17663/Mar%C3%ADa-Teresa-condenada-a-40-a%C3%B1os-por-un-embarazo-imperfecto.htm>

54 Viterna, Jocelyn [2016]. "Haurdun pobreen zigorra". *El Faro*, uztailaren 28a. Hemendik jasota: http://elfaro.net/es/201607/academico/19046/La-condena-de-la-embarazada-pobre.htm?st-full_text=all&tpl=11

55 Dada, Carlos [2016]. "Abortuaren aurkako zenbat lege sartzen dira komunean?". *El Faro*, uztailaren 10a. Hemendik jasota: <http://elfaro.net/es/201607/opinion/18930/%C2%BFcu%C3%A1ntas-leyes-contra-el-aborto-caben-en-una-letrina.htm>



geratzen bada, berehalako heriotza-arriskua izango du haurdunaldia dela eta; halere, legeak bortxaketa ondorengo heriotza preskribatzen du.

Bortxaketa baten biktima batek abortatzen badu, askoz ere probableagoa da biktima horrek kartzelan amaitzea bortxatzailea atxilotzea baino. Halaber, emakume bortxatuaren zigorra bortxatzailearena baino luzeagoa izatea probableagoa da. Hori gertatuko litzateke emakumea abortu klandestino batetik [gutxieneko baldintza higienikorik gabe egiten dira] bizirik ateraz gero.

2.5.2. Kolonbia: sexu-indarkeria eta abortua gatazka armatuan

7. eta 26. B-len bidez, Kolonbiako komunikabideek gatazka armatuan sexu-indarkeria eta abortatzeko eskubidea lotzen dituzten ikus dezakegu. Bilaketa azkar bat eginez, ez dut lotura hori ikusi, nahiz eta bortxaketa-kasuetan Kolonbiako legeak abortua onartzen duen.

El Tiemporen kasuan, "sexu-indarkeria gatazka armatuan" eta "sexu-indarkeria gatazka armatuan abortua" tekleatzean aurkitzen dudana lehenengo gauza da, eragile armatuek emakumeen aurka egindako indarkeria-ekintzak zerrendatzerako orduan, ohikoagoa dela nahitaezko abortua aipatzea nahitaezko haurduntza aipatzea baino. Hona hemen omisio horren zenbait adibide:

"Gorte Konstituzionalak sexu-indarkeriako 183 egitate igorri dizkio Fiskaltzari. Gorteak era honetan sailkatu ditu delituak: 107 bortxaketa, 36 tortura, 35 bahiketa, 35 giza hilketak, 21 sexu-abusu, legearen kontrako 21 atxikitze, esklabo-bihurtzeko 12 kasu, leku-aldaketako 11 kasu, 9 mutilazio, sexu-indarkeriako 7 kasu, indarkeria bidezko kopulazioko 7 kasu eta 7 mehatxatze"⁵⁶.

"Ekintza aberrante asko egiten dituzte, hala nola prostituzioa eta nahitaezko abortuak, eta emakumeak sexu-esklabo gisa erabiltzen dituzte, besteak beste. (...) Hori, ulertuta gatazka armatuaren testuinguruan sexu-indarkeria ez dela soilik indarkeria bidezko kopulazioa, baizik eta nahitaezko abortua, esklabotza eta haurren sexu-esplotazioa ere bai, besteak beste"⁵⁷.

Nahi gabeko haurduntzen aipamenik topatu dudana albiste urrietan, berriz, ez dute esaten nahi gabeko haurduntza batek nahitaezko amatasuna dakarrela, abortatzeko zailtasunak direla eta:

Zenbait emakume-elkartek egindako inkesta baten arabera, 2000tik 2009ra bitartean 12.809 emakumek bortxaketak jasan zituzten gatazka armatuaren testuinguruan, 1.575 prostituitzera behartu zituzte, 4.415 emakumek nahitaezko haurduntzak izan zituzte eta 1.819 abortatzera behartu zituzte⁵⁸.

Gerrillarien eta paramilitarren aldetik jasaten duten bortizkeriaz gain, lekuz aldatutako hainbat emakumek sexu-abusua, kolpeak eta nahi gabeko haurduntzak jasaten zituzte⁵⁹.

Harritzekoa da ohar horretan, aurrerago, nabarmentzea azkenean hirietan prostituta aritzen diren lekuz aldatutako emakumeen %70ek *"ez dituztela beren sexu- eta ugaltze-eskubideak ezagutzen (seme-alabarik noiz izan, zenbat eta norekin), eta 10etik 6k ez dituztela metodo anti-kontzeptiboak erabiltzen"*. Azaltzeko modu horrek iradokitzen du haurdun ez geratzeko ardurara bere eskubideak ezagutzen ez dituen emakumearena dela, Estatuak emakumeen sexu- eta ugaltze-eskubideak urratzen dituela azpimarratu beharrean.

56 Ikusi 14. oin-oharra.

57 Ikusi 19. oin-oharra.

58 Ikusi 17. oin-oharra.

59 Redacción (2008). "Isileko indarkeria". *El Tiempo*, abuztuaren 8a. Hemendik jasota: <http://www.eltiempo.com/archivo/documento/CMS-4436298>



Aitzitik, gatazka armatuan nahitaezko haurduntzei buruzko aipamenak aurkitu ditut, hiru kausalen arabera abortua despenalizatzeko legegintzako ekimenaren inguruko oharren batean. Eliza katolikoak aurka egin zion horri:

Ekimenak ezartzen duenez, abortua eskubide bat da, bai eta sexu-indarkeriako biktimek justizia izateko berme bat ere, bereziki, gatazka armatuan. Gainera, ekimen horrek zigorrak ezartzen ditu bortxaketa baten biktima bati haurdunaldiarekin aurrera egitera behartzen dionarentzat. (...) 2001etik 2009ra bitartean emakumez osatutako GKE batek gatazka armatuaren testuinguruan egindako prebalentzia-inkestaren arabera, 400.000 emakume inguru izan dira sexu-indarkeriaren biktima, eta 26.000 inguru haurdun geratu ziren.⁶⁰

2010eko⁶¹ ohar batek baieztatzen du sexu-indarkeria oraindik gertatzen dela gatazka armatuaren testuinguruan, eta honakoa jasotzen du:

“Jakin izan dugu haurdun dauden emakume batzuk bahitu eta abortatzera behartzen dituztela ilegalek. Beldurgarriena da gero beren seme-alabak txakurrei botatzen dizkietela (literalki). Hori dela eta, berriz diogu emakumea dela gehien sufritzen duen biktimetako bat eta etengabe biktimizatzen zaiola”, ohararazten du Santiago Ramírezek, Tolimako Herriaren Defendatzaileak.

Azkenean, nabarmentzen da “gatazka armatuko biktimek premiazko laguntza medikoa behar dutela zauriak sendatzeko eta sexualki transmititu daitezkeen infekzioak saihesteko”. Hala ere, ez ditu haurduntzak aipatzen.

“Abortuaren despenalizazioa gatazka armatuan” eta “abortatzeko eskubidea gatazka armatuan” gako-hitzak *La Silla Vacía* bilatuz gero, emaitza nagusia *podcast* bat da. Bertan elkarrizketa egiten zaie bi emakume antolatari, nahitaezko abortua gerrako krimen gisa gehitzeko eskaeraren inguruan (nagusiki, FARCi egozten zaie).

Bestalde, horiek bilatuta bi iritzi-artikulu aurkitu ditut, eta horiek abortuari buruzko eztabaidaren polarizazioa adierazten dute. Alde batetik, Julieta Lemaitren⁶² iritzi-artikulu sendoa, abortu askearen aldekoa (edonola ere, ez du aipatzen gerra bitarteko nahitaezko haurduntza):

Beren nahiaren aurka emakumeak behartzea gene multzo horri bizia ematera doilorkeria hutsa da. Kartzelarekin mehatxu eginez behartzea giza eskubideak urratzea da. Gure emozioak eta seme-alabenganako maitasuna manipulatzea, jaiotzeko dagoen fetu baten argazkiak edo bideoak erakutsiz, dagoeneko burmuina eta mina sentitzeko gaitasuna duela, enbrioi baten gauza bera izango balitz bezala erakustea gezur barregarria da, irrigarria izango litzateke hainbesteko mina egingo ez balu.

Kontrapuntu gisa, Mauricio Rubioren⁶³ artikulua aurkitu dut. Horretan buruzagi politiko baten (emakumea) kasua erabiltzen da. Emakume horrek abortatu egin zuen, bere maitalearen, mugimendu sozialetako beste buruzagi baten, presioa zela eta. Haren iritiz, nahitaezko abortua nahitaezko haurduntza baino gai tabuagoa da:

“Zaila da ulertzea zergatik ez den hitz egiten hain ikaragarria eta masiboa den horri buruz.

60 Redacción [2014]. “Elizak eta Kongresuak ez dute bat egin abortua despenalizatzeari dagokionez”. *El Tiempo*, maiatzaren 3a. Hemendik jasota: <http://www.eltiempo.com/archivo/documento/CMS-13923077>

61 Redacción [2010]. “Tolimako Herriaren Defendatzailek esan du emakumeak oraindik direla gatazka armatuaren biktima”, *El Tiempo*, otsailaren 18a. Hemendik jasota: <http://www.eltiempo.com/archivo/documento/CMS-7245848>

62 Lemaitre, Julieta [2014]. “Abortuaren alde”. *La Silla Vacía*, martxoaren 8a. Hemendik jasota: <http://lasillavacia.com/eltiempo/blog/en-defensa-del-aborto-ocho-de-marzo-ano-2014-46838>

63 Rubio, Mauricio [2012]. “Emakumeak nahi zuen, gizonak, berriz, ez. Gizona tematu zen, emakumeak amore eman zuen”. *La Silla Vacía*, otsailaren 28a. Hemendik jasota: <http://lasillavacia.com/eltiempo/mauriciorubiop/31691/ella-queria-ese-hijo-el-no-el-insistio-y-ella-cedio>



Emakumeen sumisioari eta abortuari buruzko eztabaida eten egin zen, eta 'adostu' zen gizon matxistak emakumea seme-alabez bete behar duela eta emakumeak abortatu nahi badu gizonak ez diola utziko. Aspaldi utzi zion adierazgarria izateari egoera horrek. Polemika sofistikatu zen berriki. Adibidez, eztabaidatu da abortua despenalizatzeko garrantzia, baldin eta emakume baten onarpenik gabe "intseminazio artifiziala egin bazaio", egoera nazi edo zientzia fikzio bizantziarreko egoera bat. Baina nahiko ohikoa den seme-alabarik gabeko abenturak bakarrik nahi dituen andrezele baten presioa ez da eztabaidaren parte".

2.5.3. Nahitaezko amatasuna haurren sexu-abusuan

Jadanik esan dudanez, Guatemalako *La Prensa Libre* egunkarian jasotako haurtzaroko sexu-abusuei buruzko albisteetan deigarria da ez direla lotzen neskatxen haurduntzak abortatzeko eskubidearekin. 16. B-In lotura hori ohar daiteke: sexu-abusuaren ondorioz haurdun geratu den neskatok honako aukera hau planteatu zion bere buruari: "berezko abortua zirudien abortua egitea. Baina ez zuen nahi izan epaitegian haurdun zegoela bazekitelako, eta beldurra eman ziolako abortua egiteaz akusatuko ziotela". Lekukotza horrek agerian uzten du askotan nahitaezko amatasuna gertatzen dela, haurduntza eteteko aukera seguruak ez edukitzeagatik.

Albiste batean⁶⁴ hauxe adierazten dute: "Wendy Ávilak, Sexu-indarkeriaren, Esplotazioaren eta Pertsonen Salerosketaren aurkako Idazkaritzakoak, esan zuen azken urtarriean 67 haurduntza erregistratu zirela probintzian, 14 urtetik beherako neskatok dagokienez. Horien artean, 8 urteko neskatok bat zegoen". Jarraian, honakoa gehitzen dute: "Mirna Montenegrok, Ugaltze Osasuneko Behatokiko (Osar) zuzendariak, aipatu zuen Osasun Sailak haurdun geratu zen 8 urteko neskatok baten kasuaren berri eman zuela. Neskatok Huehuetenangoa zen. Behatokiak kasua ikertu zuen, uste baitzuten gazteegia zela haurdun geratzeko". Baina kezka horiek ez dute lantzen neskatok horiek amatasunari nola heltzen dieten, ez eta haurduntza eteteko aukera eskaintzen zaien ere.

Joera hori errepikatzen da: hiru egun ondoren argitaratutako albiste batean⁶⁵ datu ikaragarri bat eman zen: 2016ko lehen hiruhilekoan 600 neskatok erditu zuten, sexu-erasoen ondorioz. Eta, denbora-tarte horretan, erditu bitartean 140 emakume hil zirela erregistratu zen, eta horietatik, 14 nerabeak ziren. Kasu honetan, bereziki onartezina da esatea neskatok haurduntza eta erditzea sexu-abusuarekin lotutako osasun publikoko arazo bat dela, bai eta erditzean hiltzeko arriskua dagoela aipatzea eta berriro ere haurduntza borondatez eteteko erarik ez aipatzea ere.

Bi iritzi-artikuluri esker, haurren sexu-abusuari eta haurren edo nerabeen haurduntzari buruzko oharretan *abortu* hitza zergatik ez den aipatzen hobeto ulertu dut. Alde batetik, Rolando de Paz Barrientosek gaiari heltzen dio "kristauen ikuspegitik", hau da, "haurrak ez dira oztopo bat, Jainkoaren irudia eta antza duten pertsonak baizik". Halaber, zenbait baieztapen egiten ditu: haurtzaroen sexu-askatasunaren aurkako delituak egitea gehien bultzatzen duten elementuak dira "moraltasunarekin lotutakoak, hala nola promiskuitatea, lizunkeria, pornografia, sentsualitatea eta haragikeria"⁶⁶.

64 Muñoz, Geldi [2016]. "Adingabeekoen aurkako abusuaren ondorioz haurdun geratu dira bi neskatok". *Prensa Libre*, martxoaren 1a. Hemendik jasota: <http://www.prensalibre.com/Guatemala/comunitario/suman-18-abusos-al-dia>

65 Pitán, Edwin y Muñoz, Geldi [2016]. "Behatokiak ohartarazi du gero eta neskatok gehiago geratzen direla haurdun". *Prensa Libre*, martxoaren 3a. Hemendik jasota: <http://www.prensalibre.com/guatemala/comunitario/preocupacion-por-687-embarazos-denias-en-el-primer-trimestre-de-2016>

66 De Paz Barrientos, Rolando [2015]. "Axolagabetasunak hil egiten du". *Prensa Libre*, martxoaren 9a. Hemendik jasota: <http://www.prensalibre.com/opinion/indiferencia-que-mata>



Carolina Escobar Sartik adierazten du neskatoen eta nerabeen haurduntzek amorrua eta frustrazioa eragiten diotela, eta oso ondo azaltzen du zergatik diren sistema patriarkalaren, gizonen emakumeen eta neskatoen gaineko "lehen gaueko eskubidea" duten sistemaren, emaitza. Eta bukaeran hauxe dio: *"Milioika emakumek ez dute sexu- eta ugaltze-eskubideei buruzko heziketak izan, milioika emakume jaiotako eta hil dira beren gorputzen inguruko erabakirik hartzeko aukerarik izan gabe, milioika emakumek nahi ez dituzten haurrak ekarri dituzte mundura"*.⁶⁷ Abortatzeko eskubidea esplizituki ez aipatzeak adierazten du gai tabua dela.

Ideologia aurrerakoa badu ere, *Plaza Pùblica* ere tabu hori suma daiteke, abortatzeko eskubideari dagokionez, bortxatuak izan diren neskatoen kasuak barne. Adibidez, `Bortxaketa: isildutako krimena`⁶⁸ erreportajea oso luzea da, hainbat ikuspegi barne hartzen ditu eta antikonzeptiboak nahiz larrialdiko antikonzeptiboak eta antirretobiralak barne hartzen dituzten *kita* aipatzen ditu. Horrez gain, kastrazio kimikoaz aritzen da, baina ez du hitzik esaten abortuari buruz. Pasarte horrek aditzera ematen du adituei errazago zaiela nahitaezko amatasunaz hitz egitea eta amatasuna onartzea, alde batera uztea baino: *"Psikologoak gehitzen du bortxaketa baten ondorioz haurdun geratu ziren emakumeen kasuan, oso garrantzitsua dela haurraren onarpena lantzea, haurraren eta haren jatorrizko indarkeria-egoeraren arteko lotura hausteko"*.

2.5.4. Estatu Espainola: segurtasun juridikorik eza despenalizatzeko motore gisa

Morín kasuaren (20. B-Ik aipatzen du) eta *Isadora* kasuaren sumario mediatikoen Abortuaren Legea berritzeko behararen inguruko eztabaida sustatzen dute. Akusazioak 300 urteko kartzela-zigorra eskatu zuen klinikaren titularrarentzat, eta erabiltzaileek lekukotza eman behar izan zuten epaiketetan, lekuko gisa.

"Indarkeria sinbolikoko, mediatikoko eta instituzionaleko fenomeno bat da hau, esku-hartzeak epaiketa publiko eta errealean egiten ari baitira", jasotzen du txostenak.

Kasu horrek, besteak beste, frogatzen du segurtasun juridikorik ezak indarkeria instituzionala eragiten duela, horren ondorioz, emakumeak legearen aurka aritzeaz akusatatuak izan daitezke eta. Kasuaren protagonistak egiaztatzen du bere haurduntza borondatez eteteari buruz hitz egiteak antsietatea sortzen ziola:

"Ikaratu nintzen, une horretan dena ekarri behar nuelako gogora: zer galdetuko didaten, berriro pentsatu behar izatea, dena oroitu beharra. (...) Orain, otsailaren 11n, berriz deklaratu behar dut. Eta orduan pentsatu nuen: kaka zaharra, berriz kontu bera? Ezin naute bakean utzi? Badakite eta zer esango dudun. Dena gordeta izan behar dute eta. 2006an hitz egin nuen, duela 10 urte!!! Tira, nola oroituko naiz denaz?" (20. B-I).

Bestalde, esku-hartzea 1.500 euro kostatu zitzaion, eta datu horrek agerian uzten du abortua Gizarte Segurantzaren bitartez egiten dela bermatu beharra dagoela.

Gai horri dagokionez, komunikabide bakoitzaren ideologia nabariagoa da. Prentsa kontserbadorean, adibidez *ABC* egunkarian, erretorika eta `bizitzaren aldeko` sentsazionalismoz heltzen zioten gaiari, 1985eko Legea zorroztasunez aplikatzea aldarrikatzeko. Titulu adierazgarria duen editorial baten lagin batzuk hartuko ditugu:

67 Escobar Sarti, Carolina (2015). "Neskatorik gabeko Guatemala". *Prensa Libre*, irailaren 26a. Hemendik jasota: <http://www.prensalibre.com/opinion/la-guatemala-sin-nias>

68 Reynolds, Louisa (2012). "Bortxaketa: ezkutatutako krimena". *Plaza Pùblica*, maiatzaren 17a. Hemendik jasota: <https://www.plazapublica.com.gt/content/violacion-el-crimen-silenciado>



Krudeltasun gehiago abortuekin

Morín doktorearen kasuko sumarioak gizartearen alarma areagotzen duten datuak ateratzen jarraitzen du. Morín eta bere laguntzaileek abortuak egin zizkieten hamahiru urteko haurrei, eta, gehienez, 33 asteko fetuak atera zituzten. Horri gehitzen zaio orain, doktorea GIB birusaz kutsatuta dagoela, eta zenbaitetan garbitzaileak erabiltzen zituela ebakuntza-gelan, instrumentista-lanetan. Inputatuak fetuez libratzen ziren osasun-hondakinak izango balira bezala. Eta, gainera, zatitu eta sastatzen zituzten, hilik zeudela bermatzeko. Aipatutako egitateak epaiketako sumarioaren orrialdetan (4.000 baino gehiago) agertzen dira. Sumarioa irakurtzeak gaitzespena eta lastura eragingo dio sentsibilitate apur bat duen edozein pertsonari. Epaileek zorrotzasunez zigortu behar dute legediaren haustura argia. Abortua despenalizatzeko legeak ankerkeria horiek babestea ezin da onartu, interpretaziorik zabalena eta hedatuena eginda ere. Eta, horregatik, jarrera horien autoreek eta beren sopikunek antolamendu juridikoak ezartzen dituen ondorioak jasan beharko dituzte⁶⁹.

(...) Jaio aurretik gizakien bizitza babesten du Konstituzioaren 15. artikulua, 1985ean egindako Zigor Kodearen berrikuntzaren inguruko konstituzio-jurisprudentziarekin bat. Ikuspegi konfesionaletik ez ezik, pertsonen duintasuna defendatzeko edozein jarrera humanistatik ere eragiten dio abortuak kontzientziari.

Ikuspegi hori *El País* egunkariaren ikuspegiaren kontrakoa da. Egunkari horrek adierazten du abortatzeko eskubidea erabili zuten emakumeak prozesu judizialeko alboko biktimak direla.

Morín doktorearen Bartzelonako klinikan ustez egindako abortu ilegalei (epaiketan argitu behar da oraindik) buruzko ikerketa judiziala kanpaina aparta baten abiapuntua izan zen. Kanpaina hori abortuaren kontrako ideologia duten sektore batzuek abiarazi zuten, bereziki, bizitzaren aldekoak direla esaten dutenek, eta legeak ezarritako egoeretan haurduntza borondatez eteteko baimena zuten kliniken aurkakoa zen. (...) [Isadoraren kasuari dagokionez,] ezin da ulertu lehenik pazienteak ikertu dituztela, 13 eta 15 urtetako bi adingabe ere bai, ez ordea, klinikaren arduradun medikoak eta administratiboak. Horretarako, hitzordu pertsonalak egin zizkieten beren etxeetan, eta horrek beren intimitatea hausten du. Legez kanpoko abortua jazarri behar da, legezko abortua eta hori egitea erabakitzen duten emakumeak babestu behar diren bezala. Bistakoa da, abortuaren aurkako taldeei eta erakunde politikoei ez ezik, zenbait epaileri ere lehenengoa baino ez zaiela interesatzen⁷⁰.

Deigarria da legeaz kanpoko abortuak jazarri behar direla eta horiek ez definitzea, ez eta legea nahikoa ez dela kritikatzera ere.

Nolanahi ere, komunikabide horretako beste albiste batzuetan aitortzen da, lehenik eta behin, klinika horietan abortatu zuten emakumeentzako ez dela atsegina izango epailearen aurrean deklaratu behar izatea:

Morínen klinikan abortatu zuten emakumeek berriro deklaratu dute.

Carlos Morín ginekologoaren aurkako epaiketa errepikatzeak alboko biktimak dakartza. Morínen Bartzelonako klinikan abortatu zuten ia ehun emakumek azalpenak eman beharko dituzte, bigarrenaz, auzitegiak erabaki dezan haurduntza borondatez eteteko erabakiak legearen barruan egin ziren edo ez. Doktorearen defentsak emakumeei egoera hori saihesteko akordio bat egiteko

69 Editorial [2008]. "Krudeltasun gehiago abortuekin". ABC, martxoaren 14a. Hemendik jasota: http://www.abc.es/hemeroteca/historico-14-03-2008/abc/Opinion/plus-de-crueldad-con-los-abortos_1641721245281.html

70 Editorial [2008]. "Neurrizko kasua eta epailea". *El País*, apirilaren 5a. Hemendik jasota: http://elpais.com/diario/2008/04/05/opinion/1207346401_850215.html



eskatu du ostiralean -berriz deklaratu beharrean, lehenengoa berrikusiz-, baina Fiskaltzak uko egin zion.

Morín delitu guztiez absolutu egin zuten duela hiru urte. Auzitegi Gorenak, ordea, epaiketa berriz egiteko agindu zuen, froga bat aintzat hartu ez baitzen⁷¹.

Morínen pazienteak salbuetsi ditu epaileak beren buruari legez kanpoko abortua egin izana egozteaz.

Amets gaiztoa ez da oraindik amaitu ehun bat emakumerentzat; izan ere, Carlos Morín doktorearen Bartzelonako klinikan haurduntza eten ostean, prozesu judizial batean sartu ziren. Emakume horiek lekuko gisa deklaratu dute Morín eta beste 11 pertsonaren aurka, ustez, legez kanpoko abortuak egiteagatik. Lekukoek azalduko dute, besteak beste, ebakuntzaren aurretik psikiatra batek bisita egin ote zien. Baina azalpenaren bidez, beren burua egotziko dute agian. Hori dela eta, kasua ebazti behar duen Bartzelonako Auzitegiko epaitegiak delitua beren buruari egotzi ahal dien galderak erantzuteaz salbuetsi ditu⁷².

Hala ere, iritzi-artikuluren batean, abortatu duen emakume bat aulkian jesartzeak dakarren ahulezia-salaketa horrek adierazten du nolabait onartzen dela abortua gauza traumatikoa dela:

Badaude abortatzea baino gauza txarragoak: xxx

Lehenengo legea egin eta hogeita hamaika urte geroago, aztoratzeko modukoa da emakumeak hainbeste ahuldu izana. Izan ere, abortatzea baino txarragoak diren gauzak badaude, hala nola epaile edo Guardia Zibil baten deia jasotzea, abortatzeaz aparte.⁷³

Andrea Alvarado Vivesek (2014) ohartarazten du arriskutsua dela ezkerreko ideologia eta ideologia aurrerakoia duten egunkarietan ere nagusi izatea "abortua drama pertsonala edo emakumeentzako trauma bat dela adierazten duen kontsiderazioa, abortatzeko erabakia edozein egoeratan hartu izanik ere". Haren hitzetan, abortua tragedia eta dilema morala dela aurreikustearen ondorioz, "tabua, isiltasuna eta kulpa sentitzea" indartzen dira. Gainera, emakumeen erabakiak eta bizipenak baldintzatzen dira. Alvaradok gehitzen du diskurtso horrek "munizioa ematen diela abortuaren aurkako sektoreei, beren diskurtso biktimizatzailea ez baitu zorrotasunez zalantzan jartzen". Erabakitzearen aurkako diskurtsoa erabat desgiteko, ordezkoko egoerak imajinatzea proposatzen du. Egoera horietan aitortu behar da, alde batetik, trauma baldintzek eragiten dutela (bakartasunak, isiltasunak, gizartearen presioak, oztopo burokratikoek...), bai eta abortatzea askatasuna ekarri diela zenbait emakumeri ere.

2.6. Bizitzeko baldintza duinak izateko eskubidea

2.6.1. Etxeko langileak

Zenbait bizitza-istorioko protagonistak etxeetan lan egin duten emakumeak dira. Azterketa-ardatz nagusia ez den istorioetan ere, ikus daiteke enplegu horiek indarkeriaren, diskriminazioaren, jazarpenaren (lanekoa eta sexuala) eta laneko esplotazioaren eraginpean egon direla. Dimentsio mediatikoa aipatzen ez bada ere, 1. B-In (El Salvador) adierazten

71 García, Jesús (2016). "Morínen kliniketan abortatu zuten emakumeek berritoki deklaratu dute". *El País*, urtarrilaren 30a. Hemendik jasota: http://ccaa.elpais.com/ccaa/2016/01/29/catalunya/1454093628_677811.html

72 García, Jesús (2012). "Epaileak beren buruari abortu ilegala egotzez salbuetsi ditu Morínen pazienteak". *El País*, irailaren 19a. Hemendik jasota: http://ccaa.elpais.com/ccaa/2012/09/18/catalunya/1347967400_976078.html

73 González Harbour, Berta (2016). "Badago abortatzea baino gauza txarragorik: epailearengana joatea, abortatzeaz gain". *El País*, ekainaren 22a. Hemendik jasota: http://elpais.com/elpais/2016/06/22/opinion/1466615594_827779.html



da gizarteak ez duela aitortzen ordainsari trukeko zaintza-lana indarkeria eragiten duen elementua denik. Hortaz, ondoriozta dezakegu komunikabideek paper garrantzitsu bat bete dezaketela egoera horri buruz sentzibilizatzeko eta langileen eskubideak bermatzen dituzten araudi-markoak garatu eta aplikatzea aldarrikatzeko.

*La Prensa Gráfica*ren kasuan, aurkitu ditudan albisteak ez dira oso landuak, eta gai horren inguruko txostenak egiten lagundu duten erakundeek emandako datuak eta azalpenak erreproduzitzen dituzte soilik. Adibidez: *“Latinoamerikan etxeko lanak egiten dituzten 18 milioi pertsonen %77,5 (ia 14 milioi) formalizatu gabeko egoeretan dago, “Latinoamerikako eta Karibeko ordainsari trukeko etxeko lana Formalizatzeko Politikak” txostenaren arabera. Txostena Lanaren Nazioarteko Erakundeak (LANE) eratu du. Estatistikak adierazten duen egoerak, bereziki, emakumeei eragiten die; izan ere, eskualdean etxeko lanak egiten dituztenen %93 emakumeak dira, hau da, 16,5 milioi inguru. LANEko Eskualdeko Zuzendariak, José Manuel Salazarek, adierazi zuen “egoera hori diskriminazio konplexuko egoera bat dela, eta mirabetza oso errotuta dagoela gure gizartean. Gainera, jarduera horiek emakumeen (asko indigenak, Afrikar ohien ondorengoak eta migratzaileak dira) lana ikusezin bihurtzen laguntzen dute”⁷⁴.*

Komunikabide horrek 2010ean jakinarazi zuen El Salvadorko Gizarte Segurantzaren Institutuak kanpaina bat abiarazi zuela, etxeko langileak afiliatzea bultzatzeko⁷⁵. Beste behin ere, adierazpen ofizialak baino ez ditu ematen, eta etxeko langileen egoera sakonki aztertzeak aukera galtzen du.

El Faron emaitza garrantzitsu gutxi aurkitu ditut, baina horietako bat bereziki nabarmengarria da: *“Etxeko zerbitzuaren esklaboak”⁷⁶izeneko 35 minutuko dokumental bat. Izenburua gorabehera, ikuspegia ez da biktimizatzailea. Emakumeek esplotazioz eta indarkeriaz beteriko beren istorioak kontatzen dituzte (1. B-Iren kontaketaekin lotura asko dituzte). Negar artean kontatzen badituzte ere, barreak eta samurtasuna tartekatzen dituzte kontaketa. Sarrerak hasiera ona ematen dio gaiari, eta jatorri historikoa adierazten du: “El Salvadorrek “neskatoak” deitzen die, eta, sarritan, duela lau mende esklabo izateko Amerikara ekarritako afrikar emakumeei bezala tratatzen die: mespretxuz. Uniformea janzten dute; ordutegia, zereginak eta esplotazio-soldata dute; eta irainak, erasoak eta bortxaketak jasaten dituzte. Horrela lan egiten dute gehienak XXI. mendean. Mendeko egiten dien isiltasuna hautsi eta beren istorioak kontatzen dizkigute”.*

6. B-Iren bidez, kolonbiar emakume zahar baten bizitza ezagutu dezakegu. Emakume horrek 16 urtetatik lan egin du, barneko etxeko langile gisa. Garai batzuetan esklabo izan zen, soldata eten zioten eta. Enplegatzaileak emakume hori gaizki tratatu zuen. Gainera, bien arteko lotura afektiboaz aprobetxatzen zen. Halaber, istorioak ohartarazten du etxeko langileek ez dutela erretirorik. Zoritxarrez, txostenean ez da dimentsio mediatikoa aipatzen, baina benetan uste dugu komunikabideak aliatuak izan daitezkeela, gizartea sentzibilizatzeko eta legeak aplikatzen ote diren jakiteko jarraipena egiteko, baita betetzen ez direla salatzeak ere. Horrela, jarraibidea eman liteke.

El Tiempón, gaia aldizka agertzen da, txosten bati edo legegintzako ekimen bati lotuta. 1999an analisi bat argitaratu zen, etxeko enpleguak afiliatzeko zailtasunen inguruko hausnarketa

⁷⁴ Redacción [2016]. “LANEren arabera, Latinoamerikako etxeko langileen %75 informalak dira”. *La Prensa Gráfica*, uztailaren 11a. Hemendik jasota: <http://www.laprensagrafica.com/2016/07/11/775-de-trabajadores-domesticos-de-al-son-informales-segun-oit>

⁷⁵ Abarca, Blanca [2010]. “El Salvadorek hasiera eman dio etxeko langile izateagatik Gizarte Segurantzaren afiliatzeari” *La Prensa Gráfica*, uztailaren 2a. Hemendik jasota: <http://www.laprensagrafica.com/el-salvador/social/129660-el-salvador-inicia-afiliacion-del-trabajo-domestico-a-la-seguridad-social>

⁷⁶ Zamora, Marcela. [2013]. “Etxeko lanaren esklabuak”. *El País*, irailaren 9a. Hemendik jasota: <http://elfaro.net/es/201309/video/13235/Las-esclavas-del-servicio-domC3%A9stico.htm>



egiten zuena.⁷⁷ Instituzioen ahaleginek topo egiten zuten enplegatu horien zaugarritasunarekin. Haiek bazekiten, beren eskubideak aldarrikatuz gero, lana galduko zutela. Hain zuzen ere, 2011n ohar bat argitaratu zen Osasuneko Distritu Idazkaritzak deitutako konferentzia baten harira. Konferentzia horrek etxeko enplegatuak afiliatzeko beharraz sentsibilizatzea zuen helburu. Bestalde, argitaratutako oharra laburra zen, eta ez zen asko landu⁷⁸. 2015ean etxeko enplegatuei ordainsari bat emateko legegintzako ekimen baten berri eman zen,⁷⁹ eta, horri esker, zutabegile batek artikulu bat idatzi zuen. Haren bidez, oso ondo transmititu zituen etxeko enplegatuei egiten zaizkien ohiko umiliazioak eta tratu txarrak. Bestalde, autoreak uste duenez, horiek dira XXI. mendeko esklaboak⁸⁰. Gobernuari legeak betetzen direla bermatzeko eskatzen badio ere, nabarmentzen du kultura-aldaketa bat egin behar dela etxeko enplegatuen eskubideak aitortzeko; eta aipatzen du gaur egun 20.000 adingabek egiten dutela lan etxeko enplegatu gisa.

*La Silla Vacía*ko emaitzen artean, ikusi dut María Roa Etxeko Langileen Sindikatuko presidentea #TrendingLider360 gisa aitortu dutela. Bi laginetan Roaren bideok ikus daitezke, bere lana zertan datzan kontatuz. Hona hemen horietako baten izenburua: "Etxeko lana txeraz ordaintzen dela kondaira bat da"⁸¹. Roak hitz egiten du, emakume beltz gisa, bere lidergoari eta ahalduzeari buruz, baita elkartearen garrantziaz ere: "Kondaira horiek hausteko bildu gara, eta itunak egin ditugu beste erakunde batzuekin".

22. B-lren bidez, egiazta dezakegu Euskal Herrian ere etxeko langileek abusuak jasaten dituztela. Enplegatzaileak istorioko protagonista behartu zuen haurdun zegoela lan egitera, osasun-arazoak izan arren. Eta, amatasuneko bajatik lanera itzultzerakoan, kaleratu egin zuen.

Euskal prentsan zenbait erakunderen komunikazio-lana ohar daiteke, hala nola Etxeko Langileen Elkartearen (ATH/ELE) lana. *El Correon* "etxeko enplegatuak" tekletuz gero ikusiko dugun lehenengo albistearen bidez, hitzarmen kolektibo baten ezean, erakundeek gutxieneko lan-baldintzak bermatzeko bultzatzen dituzten akordioen berri ematen da⁸². Beste kasu batzuetan, albisteak gertakarien atalean sartzen dira, eta, poliziaren kontakizunean oinarrituta eta testuinguruan sartu gabe, pertsonen salerosketa-sareez aritzen dira: 'Lanari dagokionez, etxeko enplegatuak esplotatzeagatik eta haietaz abusatzeagatik atxilotu dute', *El Correo*⁸³, abuztuaren 7a. Lehenengo emaitzen artean ere, sare kriminalak aipatzen dira. Horiek ustezko enplegatuak sartzen omen dituzte etxeetan lapurretak egin ditzaten.

Etxeko langileekiko enpatia garatzera laguntzen du Ekuadorko emakume baten profilak. Emakume horrek GKE batean lan egiten zuen, baina migratzean, etxe batean lan egin behar izan zuen. Emakume horrek aipatzen du ez zaiela aitortenik egiten emakume migratzaileei:

77 Miranda Hamburger, Francisco (1999). "Neskatoen eskubideak". *El Tiempo*, abenduaren 15a. Hemendik jasota: <http://www.eltiempo.com/archivo/documento/MAM-939633>

78 Ezezaguna (2001) "Pentsioak eta osasuna etxeko langileentzat". *El Tiempo*, uztailaren 16a. Hemendik jasota: <http://www.eltiempo.com/archivo/documento/MAM-438866>

79 Redacción (2015). "Kongresuak ordainsaria jasotzeko eskubidea aitortu nahi die etxeko langileei". *El Tiempo*, uztailaren 23a. Hemendik jasota: <http://www.eltiempo.com/politica/congreso/congreso-busca-garantizar-derecho-a-prim-a-de-las-empleadas-domesticas/16136017>

80 Gómez Gómez, Sonia (2015). "Etxeko langileak edo esklaboak?" *El Tiempo*, urriaren 7a. Hemendik jasota: <http://www.eltiempo.com/archivo/documento/CMS-13105163>

81 Roa, María (2016). "Mito bat da etxeko lana maitasunez ordaintzen dela". *La Silla Vacía*, uztailaren 25a. <http://lasillavacia.com/silla-llena/red-lider/historia/es-un-mito-que-trabajo-domestico-se-paga-con-carino-57196>

82 Arrieta, Julio (2014). "Hamar euro orduko, etxeko langileen gutxieneko soldata" *El Correo*, ekainaren 27a. Hemendik jasota: <http://www.elcorreo.com/bizkaia/economia/trabajo/201406/27/diez-euros-hora-salario-20140626225800.html>

83 Colpsa (2016): 'Detenido por explotar laboralmente a empleadas de hogar de las que también abusaba', *El Correo*, abuztuaren 7a. Hemen eskura daiteke: <http://www.elcorreo.com/bizkaia/sociedad/sucesos/201608/07/detenido-explotar-laboralmente-empleadas-20160807101218-rc.html>



“Inork nahi ez duen lana egiten dugu”⁸⁴. Hala ere, albiste hori ‘Euskaldun berriak’ izeneko atalean dago: atal horretako enpatiak eta sentsibilitateak ez du zerikusirik komunikabide horretako gainerako atalekin; izan ere, gainerako ataletan, besteak beste, ‘Herritarrak’ atalean, aurreiritzi xenofoboak indartzen dituzte.

Berrian, berriz, emaitza guztiak etxeko langileen lan-eskubideak hausteari buruzkoak dira. ATH/ELERen eskutik, jakin dugu etxeko langileen heren bati deskantsatzeko eskubidea ukatzen zela⁸⁵, edo barneko etxeko langileen %85ek legeak ezarritako asteko muga, 60 ordu, baino gehiago lan egiten dituztela. Migratu duten langileen egoeraren analisi espezifikoa egiten du: “*Etxeko langileen %65 atzeritarrak dira, eta horietako askok Espainiako herritartasuna lortzeko kontratua behar izaten dute. Horregatik, enplegatzaileak egoera hori baliatzen dutela eta «merituak» egitera bultzatzen dituztela salatu du. Astean 81 ordutik gora lan egiten duten behargin guztiak atzeritarrak izan ohi dira. «Mendekotasun egoera oso gogorrean daude langile horiek»*”. ATH/ELEk deitutako prentsaurreko baten berri ematen duen beste albiste batean, jakitera ematen da Osalari egindako eskaera, etxeko langileen laneko gaixotasunak aitortzeko⁸⁶.

Bestalde, 22. B-lk islatzen duen errealitatea aipatzen duen albiste⁸⁷ bat aurkitu dut: etxeko langileek salatu dute (ATH-ELERen bidez) oztopoak dituztela oinarrizko errenta jasotzeko. Hitz gakoek osatutako formatu erakargarri eta eraginkorrean idatzirik, albisteak oso ondo azaltzen du kontua: etxeko langileek ez dute langabeziako errenta kobratzeko eskubiderik, eta kaleratzeak arautzeko araudirik ez dagoenez, Gizarte Segurantzak interpretatzen du borondatez utzi zituztela lanpostuak. Gizarte Segurantzaren erregistratzeko, enplegatzailearen eta langilearen sinadurak eskatzen dituzte; ez, berriz, baja emateko. Horregatik, enplegatzaileek esan dezakete borondatez eman dutela baja langileek, hori egiaztatu behar izan gabe.

Aurkitu dudana emaitza garrantzitsua Julia Nogueira ikertzaileari eginiko elkarrizketa bat da. Emakunderen beka bati esker, Juliak etxeko langile migratzaileen egoera aztertu du⁸⁸. Elkarrizketa interesgarria da, eta hainbat gairi heltzen dio, hala nola zaintzaren kate globalari, etxeko lanaren aitortpen ezari eta Atzeritarrei buruzko Legearen inpaktuari.

2.6.2. Laguntza sozialak

22. B-lk etxeko langile baten (emakumea) kasua jasotzen du. Emakume horrek DSBE eskatu zuen Gizarte Segurantzaren alta emanda zegoela. Haren buruzagiak kaltetu nahi izan zion, haurdun geratu ostean, alde egin zuelako. Nahiz eta txostenean dimentsio mediatikoa ez aztertu, gai horretan bereziki argi ikus daiteke euskal komunikabide batzuk informaziorik ezarekin aritzearen ondorioz sortzen den inpaktua. Hori eginez, laguntza sozialen onuradunek iruzur egiten dutela dioten kondaira indartzen dute.

84 Caorsi, Laura (2014): ‘Adriana Vinuesa: “Inork nahi ez duen lana egiten dugu”’, *El Correo*, urtarrilaren 27a. Hemen eskuratu daiteke: <http://www.elcorreo.com/vizcaya/v/20140127/vizcaya/adriana-vinuesa-trabajamos-nadie-20140127.html>

85 Muñagorri Garmendia, Lander (2016): “Etxeko langileen herenek ez dute atsedean hartzeko aukerarik”. *Berria*, otsailaren 4a. Hemendik jasota: http://www.berria.eus/paperekoa/1774/015/001/2016-02-04/etxeko_langileen_herenek_ez_dute_atsedean_hartzeko_aukerarik.htm

86 Muñagorri Garmendia, Lander (2016): “Osalanek etxeko langileak kontuan hartu ditzan eskatu du etxeko langileen elkarrekin”. *Berria*, martxoaren 2a; hemendik jasota: <http://www.berria.eus/abisteak/119250/osalanek-etxeko-langileak-kontuan-hartu-ditzan-eskatu-du-etxeko-langileen-elkarrekin.htm>

87 Muñagorri Garmendia, Lander (2014): “Etxeko langileak kexu dira diru sarrera bermatzeko errenta jasotzeko trabez”. *Berria*, apirilaren 26a. Hemendik jasota: http://www.berria.eus/paperekoa/1848/015/001/2014-09-26/etxeko_langileak_kexu_diru_diru_sarrera_bermatzeko_errenta_jasotzeko_trabez.htm

88 Segurola Orbegozo, Lorea (2015). “Etxeko lanak ez dira duinak, oraindik ere”. *Berria*, maiatzaren 9a. Hemendik jasota: http://www.berria.eus/paperekoa/1866/008/002/2015-09-05/etxeko_lanak_ez_dira_duinak_oraindik_ere.htm Ikerkuntzaren izenburua hauxe da: “Euskal Autonomia Erkidegoan etxeko lanak eta zaintza-lanak egiten dituzten langile immigranteen diskriminazioa. Hemen eskuratu daiteke: http://www.emakunde.euskadi.eus/contenidos/informacion/publicaciones/subvencionadas2/es_def_adjuntos/beca.2014.2.mujeres.inmigrantes.trabajadoras.servicios.domesticos.pdf



Zehazki, *El Correo* lehentasun handia eman dio gai horri. Haren webgunean *Lanbide* bilatuta, lehen emaitzetako batzuek DSBE eskatzerakoan egindako iruzurra aipatzen dute. Albiste horietan Eusko Jaurlaritzaren bertsioa baino ez da kontatzen, bazterketaren kontrako gizarte taldeekin informazioa egiaztatu gabe. Ondorioz, iruzurrari dagokionez, gizartea gehiago arduratzen dute. Albiste bat bulego baten argazki baten bidez irudikatzen da. Bertan bikote beltzaren bat ikus daiteke bertatik igarotzen; emakumeak zapi bat darama⁸⁹. Argazki hori aukeratzeak immigranteen aurkako aurreiritzi xenofoboak indartu besterik ez du egiten. Horretarako, Euskadin gelditzen direnek, iruzurra eginez, laguntza sozialez abusatzeke helburua dutela esaten dute.

Beste kasu batean, sentsazionalismoak beste osagai bat dauka: "Aburtok hitzaldia eman du gaur Eusko Legebiltzarreko batzorde batean, Sirian hil eta gero, Euskadin laguntza sozialak kobratzen zituen jihadistak baten kasua azaltzeko"⁹⁰.

Bitxia da, bi egun horien artean, *El Correo Europa Pressen* teletipo hau argitaratzea: ⁹¹ Lanbideko zuzendariak esan du DSBEren iruzur-indizea %0,3 baino ez dela (2015/12/04). Albiste-kate horretatik bi ondorio atera daitezke. Eusko Jaurlaritzaren erantzukizunari dagokionez, bistakoa da Enplegu eta Gizarte Politiketako Sailaren diskurtsoak, Ertzaintzarenak eta Lanbiderenak bat egiten ez dutela. Batzuetan badirudi laguntza sozialen eta iruzur orokortuaren arteko lotura indartu nahi dutela, eta, beste batzuetan, ostera, datuak erabiltzen dituzte hori ezeztatzeke. Bestalde, bistakoa da komunikabide horrek DSBE jasotzen duten pertsonak kriminalizatu nahi dituela. Hala izango ez balitz, %0,3ko zifra hori Ertzaintzaren adierazpenak kolokan jartzeko erabiliko zuten.

Duen erantzukizun sozialaz kontziente izanik, zer beste tratamendu egin dezake komunikabide batek? Konprobatu dugunez, *Berria* egunkariak beste ikuspegi batzuk erabiltzen ditu. Hasteko, *iruzur* hitza ez da izenburuetan erabiltzen:

Lanbidek beste 3.600 laguni kenduko die diru sarrerak bermatzeko errenta⁹²(2012/07/05)

Baina, gainera, albiste horietan azaltzen da baldintzak betetzean anomalia bat gertatzeak ez duela esan nahi iruzurra egin denik: "*Datu hori anomalia bat besterik ez dela azpimarratu du Javier Ruizek, Plangintza eta Enplegu sailburuordeak. «Horrek ez du esan nahi iruzurra dagoenik, anomalia bat da, eta aurrerantzean kasuz kasu aztertu beharko dugu, gainera»*".

Bi komunikabide horien tratamendua aurreiritzi xenofoboak indartzeko edo ez indartzeko erabakiaren kontrakoa da erabat. *El Correo* era honetako izenburuak aurki ditzakegu: "Lanbidek 395.000 euro ordaindu zizkion pakistandar bat eta haren emazteari, kobratzen zituzten hamar DSBEengatik"⁹³ (2015/02/13). Izenburu horiek ez diote Arartekok egindako gomendioari jarraitu, delituak egotzi zaizkien pertsonen nazionalitatea aipatzen dute eta. Gainera, azpimarratu behar da izenburu matxista dela; izan ere, albistearen subjektuaren eranskina (gizona) izango balitz bezala aipatzen da emakumea.

89 Otálora, Óscar B. (2016): 'Ertzaintzak DSBEren inguruko eguneroko iruzurra oharu du martxotik', *El Correo*, maiatzaren 25a. Hemen eskuratu daiteke: <http://www.elcorreo.com/alava/sociedad/201605/25/ertzaintza-detectado-caso-diario-20160525122806.html>

90 ElCorreo.com (2014): 'Lanbidek aitortu du hilero 2.000 DSBE bertan behera uzten dituela iruzurrak edo ez-betetzeak direla medio', *El Correo*, urriaren 13a. Hemen eskuratu daiteke: <http://www.elcorreo.com/alava/araba/201410/13/lanbide-suspende-cada-fraude-20141013144858.html>

91 *Europa Press* (2015): 'Lanbideko zuzendariak esan du DSBEren iruzur-indizea % 0,3 baino ez dela', *El Correo*, apirilaren 12a. Hemen eskuratu daiteke: <http://www.elcorreo.com/bizkaia/sociedad/201504/12/director-lanbide-dice-indice-20150412194553.html>

92 Alustiza, Maite (2012): 'Lanbidek beste 3600 laguni kenduko die diru sarrerak bermatzeko errenta'. *Berria*, maiatzaren 7a. Hemendik jasota: http://www.berria.eus/paperekoa/1704/015/002/2012-07-05/lanbidek_beste_3600_laguni_kenduko_die_diru_sarrerak_bermatzeko_errenta.htm

93 González, David (2015): 'Lanbidek 395.000 euro ordaindu zizkion pakistandar bat eta haren emazteari, kobratzen zituzten hamar DSBEengatik', *El Correo*, otsailaren 13a, hemendik jasota: <http://www.elcorreo.com/bizkaia/sociedad/201502/13/lanbide-pagoeuros-paquistani-20150212213417.html>



Kontrako egoeran, *Berriak* nahiago du erakunde sozialen salaketak aditzera ematea, hain zuzen, DSBE kobratzeko joera arrazista adierazten dutenak⁹⁴. Hau da, antza denez unibertsala den printzipioak, diru-laguntzaren onuradunek bi astez baino gehiagoz Euskal Autonomia Erkidegotik atera ezin dutela dioenak, zuzenean eragiten die beren jatorrizko herrialdetara bidaiak egiten dituzten migratzaileei. Ekintza egoki horretan Senegaleko gizon baten istorioa kontatzen hasten da, bere anaia hil zelako herrira itzuli zen gizonarena. Lanbideak laguntza kendu zion eta orain gizon horrek arazoak ditu paperak eguneratzeko.

Gainera, iruzur-mamuaren aurkako borrokarekin bat egin beharrean, *Berriak* sektore sozialak "Lanbideren kaosari"⁹⁵ eginiko kritikak jasotzen ditu, eta adierazten du DSBE berritzean egindako akatsek onuradunak kriminalizatzea indartzen dutela. Vitoria-Gasteizko alkate zen garaian Javier Marotok hasitako kriminalizatzeko-kanpainaren harira, *Berriak* "Susmopean dagoen eskubidea"⁹⁶ izeneko idatzi bat argitaratu zuen. Haren bitartez, SOS Arrazakeria elkarteak egindako salaketa jaso zuten: politikariek eskubide hori estigmatizatzen dute eta informazio okerra ematen dute hari buruz. Manifestarietako baten lekukotza jasotzen du ere bai. Manifestari hori gizon immigrantea da, eta dioenez, administrazioko akats baten erruz, bere emazteak jasotzen zuen langabezia-prestazioa eten zuten; eta, hala ere, DSBE osoa ez diete ematen, murriztua baizik, 351 euro, alegia.

Bi komunikabide horien arteko aldea bereziki deigarria da beren bilatzaileetan *immigranteak laguntza sozialak* tekletuz gero. *El Correoko* emaitza nagusia hauxe da: "Immigranteek jasotzen dituzte alokairurako laguntza gehienak Euskadin⁹⁷. Ondoren, arrazoi bat ematen da hori azaltzeko: migratzaile gehienak alokatzen dute, bertako herritarren artean, berriz, etxe bat erostea da ohikoena. Hau da, nahiz eta izenburuak abusua dakarkigun burura, arrazoi logikoa da erabat: bertako pertsona gutxiagok eskatzen dute laguntza hori, pertsona gutxiago bizi direlako etxe bat alokatuta. Argazkian hijaba jantzita duten hiru ikasle unibertsitario agertzen dira. Argazki hori aukeratzea, gaizto izateaz gain, kaltegarria da; izan ere, seguruenik hiru ikasle horiek ez direlako izango migratzaileak, Euskal Herrian hazitako gazteak baizik.

Berriari, ordea, hauxe da emaitza nagusia: ⁹⁸Diru-laguntzak dituzten etorkinak «gutxiengoa» direla ohartarazi dute. SOS Arrazakeriako kideek azaltzen dute migratu duten emakumeek zergatik izaten dituzten aparteko oztopoak diru-laguntzak eskatzerako orduan. Aurreiritzi xenofoboaren aurkako argudioak ematen dituzte, eta esaten dute iruzurraren mitoa indartzeak kriminalizatzen duela.

Ekintza ontzat jo litekeen *El Correoko* eduki bakarra elkarrizketa bat da. Elkarrizketa hori Ginea Conakryko gizon bati egin zioten. Gizon horrek DSBEren onuraduna da, eta, elkarrizketan azaltzen duenez, Euskadin ikasi eta lan egin du, laguntza soziala derrigorrez eskatu behar izan duen arte. Hauxe da izenburua: "850 euro kobratzen ditut, baina nomina bat izan nahiko nuke"⁹⁹. Lekukotzek, hala nola aurreko horrek, lan egin beharrean migratzaileek "besteren kontura bizi" nahi dutela baieztatzen duen ideiari kontra egiten diote. Nolanahi

94 Ikusi 86. oharra.

95 Aranburu, Iker (2014). 'Lanbideren kaosari egotzi diote gizarte taldeek oinarrizko errentaren auzia'. *Berria*, otsailaren 10a. Hemendik jasota: http://www.berria.eus/paperekoa/2321/015/001/2014-10-02/lanbideren_kaosari_egotzi_diote_gizarte_taldeek_oinarrizko_errentaren_auzia.htm

96 Rejado, Jon (2014). "Susmopean dagoen eskubidea". *Berria*, otsailaren 14a. Hemendik jasota: http://www.berria.eus/paperekoa/2067/003/001/2014-11-14/susmopean_dagoen_eskubidea.htm

97 *El Correo* (2016): 'Inmigranteek jasotzen dituzte alokairurako laguntza gehienak Euskadin' *El Correo*, ekainaren 16a. Hemendik jasota: <http://www.elcorreo.com/bizkaia/sociedad/201606/16/inmigrantes-copan-ayudas-atquiler-20160615235656.html>

98 Peruarena, M. (2012): "Diru-laguntzak dituzten etorkinak gutxiengoa direla ohartarazi dute". *Berria*, urtarrilaren 7a. Hemendik jasota: http://www.berria.eus/paperekoa/1484/008/001/2012-01-07/diru_laguntzak_dituzten_etorkinak_gutxiengoa_direla_ohartarazi_dute.htm

99 Gil, Lorena (2016): '800 euro kobratzen ditut, baina nomina bat izan nahiko nuke' *El Correo*, irailaren 10a. Hemendik jasota: <http://www.sis.net/documentos/hemeroteca/20160910-1.pdf>



ere, lekukotza hori *Euskaldun Berriak* atalean argitaratu zen, eta horrek ez du zerikusirik *Herritarrak* ataleko ohiko diskurtsoarekin.

Hala ere, *El Correoko* eta *Berriako* albisteeek gauza erkide bat dute: emakumeak ikus-ezinarazten dituzte. Aurkitu ditudan lekukotza denak gizonenak dira, baita tartekatutako aditu gehienak ere. Komunikabideak bozeramaile-rola gizonena baino ez izatearen arduradun ez badira ere, hausnartzea komeniko litzateke, ikuspegietan androzentrismoa kentze aldera. Komunikabide horien argazkiak eta komatxo artean jarritakoak ikusita, DSBE onuradunak gizonak direla irudikatzen dut. Emakumeen errealitate espezifikoa buruzko aipamenik ez dut topatu, adibidez, etxeko lanari edo indarkeria matxistari buruzko aipamenik.

Genero-indarkeriako egoeran dauden emakumeei Lanbideek jartzen dizkien oztopoen inguruan emakume taldeek egindako protestei dagokienez (19. B-I horretaz ari zen), albiste-agentziek edo erredakzioak sinatutako oharren bat baino ez dut aurkitu; ez dut lan osatua-gorik aurkitu. Edonola ere, teletipo horiek argitaratzeko orduan, komunikabide bakoitzaren jarreraren arrastoak ematen dizkiguten zenbait ñabardura ikus daitezke: *El Mundo* eta *Berriako* izenburuetan *salatu dute* erabiltzen dute; *El Diario Vascok*, berriz, *tinta-labana* eskutan hartu eta honako izenburua idazten du: “Lanbideri egotzi diote indarkeria matxistako biktimei oztopoak jartzea, DSBE emateko”¹⁰⁰.

2.6.3. Ondare-eskubideak eta lurraldearen gaineko eskubideak

Laguntza sozialen kasuan legez, emakumeak baztertzen dituzten ikuspegi eta irudi androzentrikoak nagusi dira lurraldearen babesaren eta emakume nekazarien egoeraren inguruko gaien tratamendu informatiboan.

Argi eta garbi ikus daiteke hori 28. B-Iren kasuan. Haren bitartez, Janovaseko bi emakumeen istorioa ezagutzen dugu. Huescako herri txiki horretako bizilagunei jabetza kendu zieten frankismo garaian, inoiz instalatu ez zuten urtegi bat eraikitzeke. Bizitza-istorio horretan nabarmentzen da bi emakumek, Teresak eta Pacak, eutsi egin ziotela eta zuzenean egin zietela aurka enpresa emakidunaren zirikei.

La Sexta telebista-kateko ‘Salvados’ programan (Espainiako komunikabideek eginiko programen artean ospe handienetakoa eta eragin handikoa da), erreportaje bat egin zioten istorio horri: ‘Janovas: zingira fantasma’¹⁰¹. Nahiz eta Pacaren lekukotza dokumentalaren ‘plater nagusia’ izan, gainerako lekukotzak gizonenak dira; eta, ondorioz, haiek dira protagonistak. Horri jarraikiz, pentsa daiteke haiek direla kaltetuen elkartearen buruak. Eta horren erruz, txostenean eskualdeko emakumei eman zaien “bigarren papera, ugaltzekoa, ordezkatua” betiketuzen da. “Programa horri kritikatu zaio emakumeak agertzen ez direlako, ondorioz, erresistentzian duten parte-hartzea eta gaur egun emakumearen indarra berreskuratzeke borrokan egiten duten lana ikusezin egiten delako. Pacaren lekukotza bakarrik agertzen da, eta elkarrizketan ikusitakoari jarraitzen badiogu, badirudi gizonen borroka baino ez dela”, ondorioztatzen du txostenak.

‘Salvados’ programako gidoilari taldeak, beharbada, beren burua defendatuko zuten, esanez ez dela beren errua gizonak izatea kaltetuen elkarteko buruak. Baina, egia esateko, ezin ukatuzko kalitatea duen programa horrek etengabe ikus-ezinarazten ditu emakumeak.

100 DV [2015]: ‘Lanbideri egotzi diote indarkeria matxistako biktimei oztopoak jartzeaz, DSBE emateko’ *Diario Vasco*, martxoaren 7a. Hemendik jasota: <http://www.diariovasco.com/sociedad/201503/07/acusan-lanbide-poner-pegas-20150307012638-v.html>

101 ‘Salvados’ programako bideoa, *La Sexta* telebista-katean emana 2016ko azaroaren 1ean. Hemendik jasota: <https://www.youtube.com/watch?v=zE10Y0oXtvs>



Ikuspegi androzentriko horrek birbiktimizazioa dakar hein batean: emakume horiek baztertu zituzten negoziazioetan, eta kontakizunetik, memoriatik, baztertu dituzte ere bai.

Programak agenda mediatikoa markatu zuen: idatzizko komunikabide askok kasuari buruzko albisteak argitara eman zituzten. Zenbaitetan, hala nola *El Periódico*,¹⁰² iturri eta protagonista gisa, emakumeak alde batera utzi ziren. *La Voz de Galician*¹⁰³, berriz, Pacaren papera nabarmendu zuten. Hortaz, androzentrismoa ez da programan bezain agerikoa. “*Pacaren istorioak errematea eman du. Bidegabekeriari handiena agertzen du bere adibideak. 86 urterekin, 40 urtez baino gehiagoz borrokatu ostean, andre zahar horrek uko egiten dio bere herrira itzultzeari. Bere porrota bidegabekeriaren eredu da*”.

Noticias de Huescan ere aurkitu daiteke¹⁰⁴: “*Andre horrek hunkituta kontatzen zuen beren etxeak, lurrak, lanak eta bizitza utzi behar izan zutenean bizitako zoritxarra. Laurogeita hamazortzi urterekin denak hunkitu zituen: “Zaharra naiz dagoeneko, eta oraindik ez didate azaldu justizia zer den; ez dut inondik topatu justizia”*”.

Hipertextual komunikabide digitalean Riañori buruzko erreportaje bat aurkitu dut.¹⁰⁵ Riaño urtegiko uren azpian desagertu zen Leongo haran bat zen. Erreportaje horretan proportzio bera errepikatzen da: dozena erdi gizonek hitz egiten dute, kaltetuak, kazetariak edo idazleak direlako. Eta horien artean emakume bakarrak berba egiten du (emakume horrek begi bat galdu zuen istiluen aurkako poliziaren karga baten ondorioz). *La Voz de Galician* ere¹⁰⁶, Jordi Évoleren programa aitzakia hartuta, aurrekoaren egoera antzeko bat ekarri zuten gogora, hain zuzen ere, Pontevedrako herri batekoa: Serrapio. Laurogeiko hamarkadan desjabetu zuten, inoiz eraiki ez zen presa bat egiteko. Kasu horretan, informazioa herrian geratu zen familia bakarrak eman zuen: ama, aita eta semea. Hiruek hitz egiten dute erreportajearen, eta argazkietan garrantzia ematen zaio emakumeari, irudi ez-sexistak erabiliz. Adibidez, argazki batean oiloek arduratzen agertzen da.

Jornalari andaluziarren kasuan (12. B-Ik aipatzen du), ikus dezakegu *El País* egunkariak ikuspegi androzentrikoa duela piezei dagokienez (adibidez¹⁰⁷), baina ikuspegia ezberdina da “emakume jornalariak Andaluzia” tekleatzen badugu, olibaren kanpainan diskriminazio sexistari edo udal askok emakumeei garbiketa-lanak baino ez eskaintzeari¹⁰⁸ buruzko erreportajeak bilatzeko. Transbertsalizazioa da kazetaritza ez-sexistak duen erronka nagusietako bat: emakumeak pieza guztietan aintzat hartzea, ez bakarrik “emakume jornaleroei” buruzkoetan.

Bestalde, 17. B-I Guatemalako buruzagi indigena bati buruzkoa da. Atxilotze-agindua ezarri zioten konpainia hidroelektriko bati kontra egiteagatik. Bada, istorio horri esker, Guatemalako komunikabideek proiektu erauzleen aurkako erresistentziari ematen dieten tra-

102 Dumall, Juancho (2015): ‘Janovas, bidegabekeria handia’ *El Periódico*. Azaroaren 1a. Hemendik jasota: <http://www.elperiodico.com/es/noticias/sociedad/janovas-gran-injusticia-4635037>

103 *La Voz* (2015): «Salvados» programak Janovasen, konpainia hidroelektrikoek erasotako herrian, gertatutako bidegabekeria irudikatu du’, *La Voz de Galicia*, azaroaren 1a. Hemendik jasota: <http://www.lavozdeg Galicia.es/noticia/television/2015/10/30/salvados-retrata-injusticia-janovas-pueblo-acosado-hidroelectricas/00031446231955488676714.htm>

104 *Noticias Huesca*: ‘Janovas ezaguna da herrialde osoan Salvados programari esker’, *Noticias Huesca*, 2015eko azaroaren 3a. Hemen eskuratu daiteke: <http://noticiashuesca.com/janovas-conocido-en-todo-el-pais-gracias-a-salvados/>

105 Bernardo, Ángela: ‘Riaño, gertatu zen Janovas’, *Hipertextual*, 2015eko azaroaren 1a. Hemen eskuratu daiteke: <https://hipertextual.com/2015/11/riano-pantano-janovas-salvados>

106 Cedrón, María: ‘Serrapio, Galiziako Janovas’, *La Voz de Galicia*, 2015eko azaroaren 3a. Hemen eskuratu daiteke: <http://www.lavozdeg Galicia.es/noticia/television/2015/11/01/serrapio-janovas-gallego/00031446233194063961610.html>

107 Limón, Raúl: ‘Jornaleroak 2,5 euro orduko prezioan’, *El País*, 2013ko abuztuaren 9a. Hemen eskuratu daiteke: http://ccaa.elpais.com/ccaa/2013/08/07/andalucia/1375898462_129958.html

108 Donaire, Ginés: ‘Matxismoak mugak jartzen dizkio lurrari’, *El País*, 2012ko abenduaren 2a. Hemen eskuratu daiteke: http://ccaa.elpais.com/ccaa/2012/12/02/andalucia/1354449014_614999.html



tamenduan sakondu dugu. Txostenean zenbait gako ematen dira, hain zuzen ere, gatazka horiek genero-ikuspegiz aztertzeko aukera ematen dutenak. Besteak beste, honako elementu hauek aipatzen dira: emakumezko buruzagiei buruzko zurrumurruak esateko eta beren izena belzteko erabiltzen dituzten estrategietako konnotazio sexistak; megaproiektuak defendatzeari eta emakumeen aurkako indarkeria pertsegitzeari dagokienez, justiziarren konpromisoaren alde; nahitaezko desplazamenduaren inpaktua emakumeen bizitzan, edo eraso beldurraren ondorioz etxetik ez ateratzea.

Horrez gain, bizitza-istorioan lintxamendu-saiakera bat kontaktzen da, indarkeria sexistaren eragina duena:

“Dominga eta Juan hartu zituzten, kaletik arrastaka eraman zuten Dominga, gizarte-mugimenduan parte hartzen duelako, (...) eta udaletxearen aurrera arte ekarri zuten, arropa kendu eta ilea moztu nahi zioten, kolpatu zuten, argazkiak ditugu” (17. B-I).

*Prensa Libre*ren kasuan (egunkari korporatibo hori herrialdeko botere ekonomikoaren eta politikoaren zerbitzura dago), *enpresa hidroelektrikoa Barillas* hitz gakoak tekleatuz gero, emaitzek komunitate indigenen eta enpresen arteko gatazketara eramaten gaituzte (hala nola, ¹⁰⁹ edo beste hau, ¹¹⁰). Gatazka horietako buruzagi protagonistak gizonak dira. Ohar laburrak dira, eta ez dituzte jasotzen adituen edo aktoreen adierazpenik. Argazkietan hainbat emakume ikus daitezke protesta egiten. Beste hitz-gako batzuekin saiatur, informazio-iturri emakumeak dituen albiste bakarra aurkitu dut¹¹¹; emakume horiek buruzagi eta bizilagun izendatu zituzten.

Iritzi-artikuluei dagokienez, arreta eman dit emakumeek sinatutako artikuluek protesta kriminalizatzeari¹¹² eta erauzteari¹¹³ kontra egiten dieten bitartean, gizonak sinatutakoek, erresistentzia-ekintzei *estortsio-kultura*¹¹⁴ edo *zigorrik gabeko matxinada armatu*¹¹⁵ deitzen dietela.

*Plaza Pública*n sakontasun handiagoko testuak aurki daitezke, hala ere, androzentrismoa dute ardatz. Horietan emakumeak biktima eta zaintzaile gisa aurkezten dituzte, aktore gisa beharrean. Halere, nahitaez mugitu behar dutela aipatzen da, baita emakume horien senarrak desagertu zirela gerraren erruz ere (adibidez, hemen¹¹⁶. *Konpainia hidroelektrikoak: beren kontraesanetako hondora arte iristea*¹¹⁷, izenburua duen testu batean emakumezko buruzagi bat aipatzen da laburki, eta informazio-iturri aditu guztiak gizonak dira, erreportajea emakumeak eta neskatoak agertzen diren argazki batekin irudikatuta egon arren. Komu-

109 PrensaLibre.com [2013]: ‘Santa Cruz Barrilaseko gatazkek PNCren eta konpainia hidroelektrikoaren egoitzetan kalteak eragin dituzte’, *PrensaLibre*, irailaren 28a. Hemendik jasota: http://www.prensalibre.com/huehuetenango/Disturbios-Huehuetenango-Captura-Mynor_Lopez-_hidroelectrica-Santa_Cruz_Barillas_0_1001300046.html

110 Redacción [2015]. ‘Jende talde batek kalteak egin dizkio San Pabluko proiektu hidrologikoari’, *Prensa Libre*, urtarrilaren 24a. Hemendik jasota: <http://www.prensalibre.com/san-marcos/San-Pablo-San-Marcos-queman-maquinaria-hidroelectrica-turbaconflicto-0-1291070929>

111 Tizol, Jorge [2016]: ‘Herritarrek uko egin diote zentral hidroelektrikoa eraikitzeari’, *Prensa Libre*, maiatzaren 13a. Hemendik jasota: <http://www.prensalibre.com/guatemala/retalhuleu/pobladores-rechazan-construccion-de-hidroelectrica>

112 Vásquez Araya, Carolina [2016]: ‘Desberdintasuna da araua’, *Prensa Libre*, apirilaren 11a. Hemendik jasota: <http://www.prensalibre.com/opinion/la-desigualdad-es-la-norma>

113 Gómez Grijalva, Francisca [2015]: ‘Espoliazioa eta errepresioa’, *Prensa Libre*, maiatzaren 6a. Hemendik jasota: <http://www.prensalibre.com/opinion/expolio-y-represion>

114 Fritz, Thomas [2016]: ‘Estortsio-kultura’, *Prensa Libre*, irailaren 1a. Hemendik jasota: <http://www.prensalibre.com/opinion/opinion/cultura-de-la-extorsion>

115 Preti, Humberto [2016]: ‘Mehatxua zigorgabetasunik gabe sortzen da’, *Prensa Libre*, maiatzaren 7a. Hemendik jasota: <http://www.prensalibre.com/opinion/amenaza-surge-con-impunidad>

116 Hernández, Oswaldo J. [2012]: ‘Santa Cruz Barrillas: Iragana gaur egunean’, *Plaza Pública*, maiatzaren 10a. Hemendik jasota: <https://www.plazapublica.com.gt/content/santa-cruz-barillas-el-pasado-en-el-presente>

117 Escalón, Sebastián [2012]: ‘Konpainia hidroelektrikoak: beren kontraesanetako hondora iristea’, *Plaza Pública*, ekainaren 29a. Hemendik jasota: <https://www.plazapublica.com.gt/content/hidroelectricas-ir-al-fondo-de-sus-contradiciones>



nitateetako uraren kudeaketari buruzko genero-azterketarik ez da egiten, ezta azpiegitura horiek emakumeen bizitzetan duen inpaktuari buruzkorik ere.

Paradoxikoki, emakumeek erresistentzia-mugimendu horietan egiten duten lanak behar duen aitortpena ematen dion testuan, ez du emakumerik erabiltzen iturri aditu gisa. `La Puya: bi urte meategiaren aurrean`¹¹⁸ artikulua dio komunitate horretako borrokan emakumeak izan direla nagusi. *“2012ko maiatzaren 8an meategian sartzeko makina-konboi bat iritsi zen gauean zehar, eta emakumeak jesarri ziren lurrean, koroak abestu zituzten eta otoitz egin zuten hondeamakinak meategian sar ez zitezen. Emakume batek ere, Yolanda Oquelik, erresistentziako buruzagiak, tiro bat jaso zuen hilabete geroago. Eta urte bereko abenduan emakume berek, abestuz eta otoitz eginez berriz, matxinadaren aurkakoei kontra egin zieten”*. Testu horretan interesgarria da nolabait justifikatzen duela emakumeak zergatik ez diren prentsaren solaskideak (eta, bidez batez, haiek egindako zaintza-lanak aitortzen ditu), protagonistak izan arren: *“Emakumeak okupatuta daude gaur egun. Ospatu egiten dute, lan egin ere bai. Janaria prestatzen dute, tortillak egiten dituzte, eta, horrela, erresistentziari eusten diote. Eta, horregatik, gizonak bakarrik dute bisitariekin berba egiteko denbora”*. Gainera, aditu batek aipatzen duenez, *“opresio klasisten eta arrazisten zama eramateaz gain, opresio patriarkala jasaten dute egunero emakumeek”*.

Komunikabide bietan *sexu-jazarpena emakume militarrek* bilatuz gero, Sepur Zarcoren epai-ketara iritsiko gara.

3. TRATAMENDU MEDIATIKOAK EMAKUMEEN BIZITZAN DUEN INPAKTUA

Bizitza-istorio gehienetan, kasuen jarraipenak ez zituen ekintzarik egin komunikabideetan. Ez da dimentsio mediatikoa aztertu, edo, gehien jota, komunikabideen diskurtsoek gizartearen ideietan duten inpaktuari buruzko aipamen orokor bat egin da, eta prentsa jeneralistak transmititzen dituen aurreiritzi eta estereotipo sexistak aipatu dira. Ikus daitekeenez, kasua ezaguna egin zenean, inpaktuak oso ezberdinak izan ziren, tratamendu mediatikoaren kalitatearen eta sentsibilitatearen arabera. Komunikabideak, hortaz, birbiktimizatzaileak izan daitezke, hau da, bidegabekeria eta mina indartu dezakete, edo, bestalde, salatzaileak izan daitezke.

Anbibalentzia hori hobekien ohar daiteke 13. B-In. Istorio hori emakume errusiar batena da, armak erabiliz egindako sexu-eraso bat salatu zuen emakumearena. Salaketa faltsuak egotzi zizkioten azkenean. Tokiko prentsak ezagutzera eman zuen, eta poliziaren bertsioa argitaratu zuen, hain zuzen, biktimaren izena zikintzen zuen bertsioa. Baina aurrerago emakume atzeritarrak barneratzeke zentro batean sartu zuten, eta komunikabideen prentsa erabakigarria izan zen emakumea ez deportatzeko.

Hortaz, sinplista da esatea tratamendu mediatikoak inpaktu bakarra duela emakumeen bizitzan, baina honako hiru alderdi hauek hitz egingo dut: kazetaritzaren funtzio soziala boterearen aurrean eta justizia bilatzeko, komunikabideak birbiktimizazio-agente gisa eta komunikabideak konponbide gisa.

3.1. Komunikabideak justizia bilatzeko laguntzaile

Estatu Espainolean, komunikabideen presioa garrantzitsua izan da honako testuinguru honetan: indarkeria matxistako egoerak bizi izan zituzten emakume migratzaileek herrialdetik

¹¹⁸ Sebastián, Sandra; Hernández, Oswaldo J.: ‘La Puya: Bi urte meategiaren aurrean’, *Plaza Pública*, 2014 martxoaren 6a. Hemen eskuratu daiteke: <https://www.plazapublica.com.gt/content/la-puya-dos-anos-frente-la-mina>



alde egiteko agindua jaso zuten. Bestalde, aipatu berri dugun 13. B-In, zenbait komunikabide estrategikorekin harremanetan jartzea erabakigarria izan zen emakumeak kanporatu aurreko orduetan. Eskertzekoa da komunikabide eta kazetari kidekoek emandako laguntza; izan ere, egitateak salatu zituzten eta kasuaren jarraipena egin zuten.

El País egunkariko albiste honetako izenburuak sendotasunez laburbiltzen du sexu-eraso bateko biktimari askatasuna ukatzea iraina dela: "Ziegara sexu-eraso bat jasan ostean"¹¹⁹. Lehenengo paragrafoan, emakumeak bizi izan zuen "iseka-katea" (kazetariak adierazpen hori erabiltzen du) laburtzen du: "Sexu-erasoa egin diote, osasungintzako eskubide unibertsala ukatu diote, delitu bat simulatzeaz akusatu dute eta ilegalatuz atxilotu dute. 52 urteko immigrante errusiarra (xxx) Ourenseko San Cibrao das Viñas herrian erroldatuta dago eta lana zein bikotea du. Bada, atzo bere jatorrizko herrialdera deportatu zuten ia-ia.

Nahiz eta bizitza-istorio horietan ez jaso, beste kasu bat ekarri nuen gogora: sexu-orientazioa zela medio, pertsegitua zen Kamerungo emakume baten kasua. Emakume horri Estatu Espainolak asiloa ukatu zion eta deportatua izateko arriskua izan zuen. *eldiario.es* egunkari digitaleko Olga Rodríguez kazetariak kasu hori salatu zuen¹²⁰. Jarraian, emakume horren aldeko elkartasun-olatuaren berri eman zuen¹²¹, eta, azkenik, aske utzi zutela kontatu zuen¹²². Komunikabide tradizionalen presioaz gain, *ziberaktibismoak* beste bide bat eskaintzen du, zehazki, sinadurak biltzeko plataformen bidez, 24 orduetan baino gutxiagotan 45.000 sinadura bildu ziren.

Protagonista batzuek komunikabideengana jo dute justizia eskatzeko. Ángela Gonzálezek (21. B-I) prentsari kontatu zion bere senar ohiak (47 salaketa jarri zizkion, eta justiziak ez zien jaramonik egin haren babes-eskaerei) beren alaba erail zuela. Egia kontatzea ordainak jasotzeko era bat izan zen, Auzitegi Nagusiak Ángelaren salaketak ezetsi zituzten instantzia judizialek praxi txarrik egin zutenik ukatu ostean. *El Mundo* egunkariak ezohiko formatu batean zuzenean argitaratu zuen salatzailearen lekukotza, eta testuinguruari buruzko datuak eman zituen kortxete arteko zenbait paragrafotan. Esan daiteke praktika ona dela hori; izan ere, kontakizuna entzutera emateko emakumearen nahia betetzen du, eta, aldi berean, ez da kasu isolatu bat bezala geratzen, aditzera ematen du sistema judizialean zerbait ez dabilela ondo¹²³.

Mindyk (17. B-I) ere nazioarteko komunikabideengana jo zuen bere kasua kontatzeko. Ondorioz, beste erreportaje eta iritzi-artikulu batzuk argitaratu ziren. Horien bitartez, feminizidioaren aurkako legea benetan aplikatzeko eskatzen zen.

Izan ere, kazetaritzaren beste funtzio bat da legeak berritzeko beharrari buruz eztabaida suspertzea. Hori Estatu Espainolean abortatzeko eskubideari buruzko istorioetan ohar dai-teke, hala nola 20. B-In, *Morín* kasu ezagunari buruzkoan. 2012an, *El País*ek epeen legeari

119 Huete, Cristina (2013): 'Ziegara sexu-eraso bat jasan ostean', *El País*, abenduaren 5a. Hemendik jasota: http://ccaa.elpais.com/ccaa/2013/12/04/galicia/1386188235_378292.html

120 Rodríguez, Olga (2015): 'Espainiak ez dio asilorik eman lesbiana izateagatik Kamerunen pertsegitua den emakume bati', *eldiario.es*, apirilaren 12a. Hemendik jasota: http://www.eldiario.es/desalambre/inmigracion/busca-lider-grupo-lesbianas_0_375513130.html

121 Rodríguez, Olga (2015): 'Elkartasun-olatu lesbiana izateagatik Kamerunen pertsegitua den emakume bat Espainiatik ez botatzeko', *eldiario.es*, apirilaren 13a. Hemendik jasota: http://www.eldiario.es/desalambre/inmigracion/Oleada-solidaridad-Espana-perseguida-Camerun_0_376913189.html

122 Rodríguez, Olga (2015): 'Espainiak herrialdean sartzea utzi dio lesbiana izateagatik Kamerunen pertsegitua den emakume bati', *eldiario.es*, apirilaren 15a. Hemendik jasota: http://www.eldiario.es/desalambre/libertad-mujer-camerunesa-perseguida-lesbiana_0_377613384.html

123 Ortiz, Ana María (2004): 'Estatuak nire alaba "hil" zuen', *El Mundo*, maiatzaren 9a. Hemen eskuratu daiteke: <http://www.elmundo.es/cronica/2004/447/1084196067.html>



buruz argitaratutako erreportaje batean, *Berriketarako estimuluak*¹²⁴ izeneko atal bat gehitu zen, eta bertan *Morín* eta *Isadora* kasuez esaten da “erabakia suspertu zuten eskandaluak” izan zirela.

Komunikabideen rola askok aztertu dute Kolonbiako gatazka armatuaren kasuan. Ikerketa askotan nabarmentzen da komunikabide jeneralistek joera dutela diskurtso ofizialari men egiteko, baita autozentsurari ere, mehatxuak saihesteko. Hala ere, zenbaitetan ikus daiteke prentsa egia bilatzen saiatu dela. Adibidez, Comuna 13-ko herritarrei talde militarrek eta paramilitarrek egindako errepresioa. Hain zuzen ere, hori da 25. B-Iren testuingurua: *“Antioquiako (Kolonbiako eskualdea) ‘El Colombiano’ egunkariak kazetaritza-lan garrantzitsuak erregistratu zituen, bere funtzio publikoarekin bat, hain zuzen ere, elkarrizketatutako komunitate-buruzagi batzuek aitortu zituztenak. Izan ere, Comunan militarrek eta “paras” taldeak egindako ituna hedatzeko meritua eman zion, eta, ondorioz, herritarrek eta instituzioek beren gobernu-ekintzei ematen zieten babesa urrundu ziren* (Medina, 2008).

17. B-I erauztearen aurka Guatemalan egindako protestaren kriminalizatzeari buruzkoa da, eta aipatzen du komunitateko prentsak epaiketa-kasuek nola egiten duten aurrera jakiteko funtzio garrantzitsua betetzen duela, baita antzeko arazoei dagokienez herrialdean gertatzen dena jakiteko ere.

Beste istorio batzuetan, ostera, protagonistek eskatzen dute komunikabideak gehiago inplikatu behar direla legeen jarraipenari dagokionez. 11. B-lko aktibista transexualak aipatzen du. Honako kexa egiten du: “zenbait gairi dagokienez, hala nola, trans-komunitatearen eskubideei dagokienez, komunikabideak urrun daude beren funtzioa betetzetik, ez baitute ezer argitara ematen. Esate baterako, une honetan Valentziako Erkidegoko Trans Lege Integrala idazten ari dira, eta gizarteak ia ez du informaziorik jasotzen horren inguruan”.

Azkenik, nabarmendu nahiko nuke 17ekin (Las 17) elkartasunez nazioartean egin zen komunikazio-kanpaina. Hain indartsua izan zen, non El Salvadorko emakume horietako batzuk aske uzteko presioa egin zuela.

3.2. Komunikabideak birbiktimizazio-eragile

“Baginan ananak sartuta, bortxaketa asmatzea leporatzen diote”¹²⁵. La Región egunkari gali-ziarrak izenburu hori jarri zion 13. B-lko protagonistak salatutako talde bortxaketari buruzko albisteari. Sexu-erasoa publikoki salatzen lagundu ordez, komunikabide batzuek egitateei buruzko poliziaren bertsioa errepikatu zuten, biktimari izena kenduz eta gezurti deituz: salaketa faltsua egin omen zuen eta, areago, ananak sartu zituen lesioak ager zitzan; hori guztia, “ilegalki bizi zen herrialdetik bota ez zezaten ekiditeko”. Ikuspuntu horrek erakusten du komunikabide batzuk mito sexista eta xenofoboak elikatzen aritzen direla, hala nola, emakumeek salaketa faltsuak jartzen dituztela onurak lortzeko, eta paperik gabeko pertsona migratuek jarduera ilegalak egiten dituztela. Baina, batez ere, beste eraso bat da biktimarentzat; izan ere, epaitu, kalumniatu eta umiliatu egiten dute, gizarte-erantzukizun eta egiazkotasunezko balioekiko konpromisoa eduki beharko lukeen komunikabide bate aldetik.

“Ourenseko komunikabide lokaletan argitaratu ziren albisteek xxx-ren osasun psikologikoari eragin zioten, gertatutakoari eman zitzaion sinesgarritasun falta zela eta, eta kazetariak ger-

124 Sahuquillo, María R. [2008]: ‘Abortu-lege bat Europako erara’, *El País*, abenduaren 20a. Hemendik jasota: http://elpais.com/diario/2008/12/20/sociedad/1229727602_850215.html

125 *Erredakzioa* (2013). ‘Baginan ananak sartuta, bortxaketa asmatzea leporatzen diote’. La Región, apirilaren 17a. Hemendik jasota: <http://www.laregion.es/articulo/ourense/acusada-fingir-violacion-introduciendo-pinas-vagina/20130417074006003117.html>



takaria kontatu zuen moduagatik. Halaber, albisteak agertu zuen ikuspuntuak, mitologiak eta sexu-indarkeria zein migratzeari buruzko aurreiritziez josia, prozesu osoan egon ziren estatu-eragilean iritzia sendotzen lagundu zuen (epailea, polizia, fiskala eta erregistro zibileko langileak)”, txostenaren arabera.

Ikerketa asko argitaratu dira, indarkeria matxistaren informazio-tratamenduari buruzko delakogo eta gidak, baina ez da hainbeste ikertu tratamendu horrek biktimengan duen eraginaz. Horregatik bereziki balioetsua da 15. B-Ik horixe jaso izana; emakume euskaldun bat da istorio horren protagonista, eta bere erasotzaileak salaketa gurutzatuaren estrategiara jo zuen errugabe atera eta hura birbiktimizatzeko:

- Nola sentitzen zara komunikabideetan tratu txarrak, zifrak... agertzen direnean?

- Badakizu nola sentitzen naizen? Oso gaizki sentitzen naiz, eta askotan pentsatu izan dut ni neu izan nintekeela... (...) Ba triste sentitzen zara, eta... Amorrua eragiten dizu, batzuetan pentsatzen duzu... Agian ni izan ninteke... Ez dakit... Pixka bat, oso gogorra da... Zeren... Nik uste dut egia dela komunikabideetan esaten dela, ia-ia... Normaltasunaren barruan ari da sartzen, uste dut, oker ez banago, aurten 48 daramatzagu...

Emakume honek genero-indarkeriari buruzko tertulia batean parte hartu zuela kontatzen du, eta parte hartzaile batek honakoa botu zuela: “*Zer gertatzen da salaketa faltsuekin?*” Emakume honen testigantzan, frustrazioa eta amorrua uler ditzakegu: “*Eta ni isilik, eta isilik, eta isilik... Erantzutear nengoen, baina esan nuen, ez dit merezi... Lehenik, ni ez nagoelako hemen horretarako, eta bigarrenik, pertsona bat hain itsututa dagoenean, ez dudalako ezertaz konbentzitu. (...) Egia da, gizarteak hori sinesten du! (...) Gizon horri esango nioke: ba al dakizu gutako zenbatek ez dugun inoiz salatzen, eta horietako asko hil direla salaketarik jarri gabe? Baina hori bada oso ehuneko altua... Zeren nik uste dut gutxik salatzen dutela, jarri ahalko liratekeen salaketekin alderatuta... Eta jendea salaketa faltsuekin tematzen da! Eta oso gaizki sentitu nintzen... Eta ez dakit zerbait esan izan beharko nukeen ala ez... Baina ezezkoan nago. Oso ezeroso sentitu nintzen...”*

Salaketa faltsuen mitoak emakumeek justizia lortzea galarazten du. ‘Informaziorako eta justiziarako eskubidea: Epaiketa prozesuen informazio-tratamendurako gida’ delakoaren arabera “*ideia faltsu hori zabaltzeak sorrarazi dezake genero-indarkeriaren biktimek beste delituen biktimek baino sinesgarritasun txikiagoa izatea, beste ondorioen artean*”.

21. B-In, Women’s Link-ek azpimarratzen du “*arlo judizialeko genero-estereotipoak genero-justiziaren oztopo nagusietako bat*” direla, indarkeria eta diskriminazioa eragiten dutelarik: “*Epaile batzuek legea betetzeko uzkur dira beren aurreiritziak direla eta, biktimaren eskubideak gorabehera, eta ez dago ardura hori haiei egozteko mekanismorik*”. Kazetaritza arduratsuak argi izan behar du aurreiritzi sozialak suntsitzen laguntzen ez badu, aurreiritzi horiek emakumeek justizia lortzeko oztopo izango direla.

Emakumeek genero-indarkeria salatzen badute zuzenean laguntzak kobratzen dituztelako aurreiritzia (komunikabide batzuek elikatua), amorragarria da 15. B-Irentzat:

“Ezin da izan... Laguntza asko dituzte-eta, barkatu? Zer laguntza? Nik, nire kasuan... Nik, nire kasuan... Ez diot lagundu ez nautenik, gizarte langileek, poliziak... Ez dut baztertzeko... Baina... Ni urte askoan DSBEa kobratzen egon nintzen, baina ez genero-indarkeriagatik, baina ematen ez bazidaten ez dakit zer gertatuko litzatekeen nirekin, ez nirekin ez haurrekin!”



“Pasio-zoroaldiaren” mitoa ere asko elikatzen dute komunikabideek, erailketa matxistaren pizgarri gisa; Zabalak (2008) ohartarazten duenez, kalifikazio horiek *“maila penalean ondorio positiboa dute hiltzailearentzat, aringarritzat hartuko delako. Hau da, gertakaria gaizki definitzeaz gain, erasotzailea, funtsik gabe, onuradun aterako dela dirudi, modu susmagarri samarrean”*.

Asun Casasolaren (14. B-I) borroketako bat da indarkeria matxistaren kasuetan herri epai-mahairik ez egotea. Nagore Laffageren erailketaren epaiketan, epaimahaiak erailketa zela ebatzi zuen; hortaz, José Diego Yllanesi 15 urteko espetxe zigorra ezarri zioten, eta 12 urtera jaitsi zen kalteak ordaintzeagatik. Casasolak dio epaimahaiaren erabakian eragina izan zuela komunikabideen tratamenduak; horren arabera, Yllanes “mutiko on bat” zen, familia onekoa, alkoholak nahasi zuena eta neska gazte batek, zokoratu ostean, mehatxatu zuena. Asunek nabarmentzen du epaimahaiak, aldizka, Nagoreren aurkako epaiketa morala egin zuela, amari galdetuta haren alaba mutilzalea ote zen. Kontakizun hori indartzen zuten albistegiek eta komunikabideetako tertuliek, Yllanesen pisura igo izanagatik Laffage erantzule eginez.

Dena den, azpimarratu behar da Casasolak ondo balioesten duela kazetariengandik jasotako tratua. Gogoan du, behin, telebistako kamerak bere etxera heldu zirela Nagoreren hilketaren urteurrena zela eta; kazetariak nahasita topatu zuten Asun, Nagore bizirik balego bezala hizketan. *“Ez zuten kamerarik ez ezer ere ireki, nire semea etor zedin itxaron zuten”*. Garrantzitsua da hori jasotzea; izan ere, komunikabideak gizatasunik gabeko eragile gisa erakusteak, biktimak umiliatu eta birbiktimizatzen dituztenak, emakumeak adoregabatu ditzake prentsa presio- eta erreparazio-tresna gisa erabiltzera.

Abortatzeagatik espetxeratutako emakumeen kasua, El Salvadorren, bereziki ikaragarria da. Komunikabide digital batek honako titulua jarri zion 24. B-Iren albisteari: “Beren haurtxoa hiltzeagatik 30 urteko espetxe-zigorra jasotako emakumeak”¹²⁶. Albistean poliziaren bertsioa errepikatzen da, akritikoki, defentsarekin edo giza eskubideen aldeko antolakundeekin alderatu gabe. La Página egunkariak, aldiz, emakume horren defentsaren bertsioa jaso zuen, baina gizarte-epaiketa elikatzen zuten xehetasunak gehitu zituen: *“Rogel saiatu omen zen inola ere semea ez izaten; berak (neskak) “sasikume” deitzen zion umeari, eta tratamendu bidez abortatzeko zorian egon zen”*. Esaldi horrek komunikabideak abortu-eskubideari heldzean duen zama morala erakusten du, baita amatasun behartuak emakumeen bizitzetan duen eragina ere.

Espetxeratua izatearen estigmarekin jarraituz, 23. B-In, neska euskaldun preso batek tortura sexistak salatu ditu; elementu garrantzitsu bat da komunikabideek eta internetek preso egindako emakumearen estigman sakontzen dutela. Atsekabetu egiten du bere izena Googlen bilatzean agertzen den lehen gauza atxiloketaren albistea izatea, eta ez askatasuna berreskuratu zueneko. Protagonista horretaz jabetzen da; horregatik, ahazteko eskubidea eskatzen du, erreferentzia eginez interneteko bilatzaileetatik kontuzko informazioa ezabatu ahal izateko ekimenei.

3.3. Komunikazioa emakumeen ordain gisa

Kolonbiako gatazka armatuaren osteko egoerak bibliografia akademiko ugari eskaintzen du komunikabideen rolar buruz, hauek egia, justizia eta minaren ordainaren eskariak islatzen diren espazioak baitira. Bonilla Vélezek eta Tamayo Gómezek (2013) ponentzia baten bidez laburtzen dute gatazka armatuen informazio estaldurari buruzko ikerketa-agenda hori.

¹²⁶ *Erredakzioa* (2013). ‘Beren haurtxoa hiltzeagatik 30 urteko espetxe-zigorra jasotako emakumeak’. Elblog.com, irailak 17. Hemendik jasota: <http://elblog.com/noticias/mujer-condenada-a-30-anos-por-matar-a-su-bebe.html>



Horrela, 2008tik aurrera lan gehienak erronka horren inguruan ardaizten direla ikusi dute: *“Gerra honi biziraun dioten horiek beren istorioak kontatzean datza; baina beraiek nahi dituzten istorioak, bizitzeko/irauteko duintasuna eta ilusioa ematen dieten horiek, bakearen kultura sustatzen dutenak eta gatazkaren erdian sinbolikoki osatu ditzaketanak”*.

Autoreek komunikabide komunitarioen ekarpenak aipatzen dituzte: *“Bestelako narratiba mediatiko batzuekin, bertakoagoak eta kolektiboagoak, herrialdean zilegitzat ezarri nahi diren historia sozialen aurkako kontrapisua egin daiteke; bigarrenik, posible da herritarren beste alderdi batzuk ikustea komunikazio- eta adierazpen-ariketa horiei esker, eskualde zein herri mailan; hirugarrenik, ezinbestekoa da “bestearen” (biktima, desplazatua, nekazaria, afro-kolonbiarra, deserrotua) ikusgarritasuna eraikitzeke modua lehengoratzea”*. Parentesi horretan gehitu genitzake “emakumeak”, haiek ikusezin bihurtzeko eta estereotipoz josteko joera baitago, kontakizun androzentrikoen bidez.

Aztertutako 89 lanetatik batek ere ez du aintzat hartzen genero ikuspuntua edo emakumeen ordezkartza (aldiz, haietako bi zentratzen dira informazio-tratamenduak haurtzaroan gatazkak duen eraginean). Hala ere, ikerketetako batek (Franco eta Rincón, 2010) zazpi emakume eta sei gizonen bizitza-istorioak jasotzen ditu, kontakizunak sentsibilizazio eta erreparazio bide gisa funtzionatu dezan ulertuta jasoak: *“Liburu honek Kolonbian biziraun dutenek beren istorioak kontatzea nahi du, eusten/bizitzen jarraitzeko duintasun taktika gisa*. Narrazioa subjektibotasuna eta kolektibotasuna eraikitzeke estrategia gisa ulertzen da, memoria eta jakituria sortzeko, sedukzio eta konexio joko gisa”, Bonillak eta Tamayok laburtzen dutenez.

Txosten honetan aztertutako bizitza-istorioetan, ikusi dugu etengabe aipatzen dela entzuna sentitzeko eta norberaren kontakizuna eskaintzeko beharra. Mindy Rodasen kasuan (18. B-I) jasotzen da bere istorioa kontatzea erabaki zuela, baita bere aurpegi desitxuratua Televisión Española-ko kameraren aurrean erakustea ere:

“Mindy bere istorioa idazten ari zen, bere kabuz. Beste emakumeei lagundu nahi nien bere ahotsa goratu zezaten, jo, iraindu eta bortxatu zitzaten utz ez zezaten. Familia barruko indarkeriaren zirkulua denboraz apur zezaten, eta beren bizitzak eta seme-alabenak salbatu zitzaten” (18. B-I).

Behar hori sumatzen da ere tabu diren gaietan, emakumeek erasoak isilpean bizi izan baitituzte tradizioz, beldurra edo lotsa direla eta, haurtzaroan pairatutako sexu-erasoekin gertatzen den bezala:

“Nik interesa dut hitz egin ahal izate horretan, bere garaian asko frustratu nintzelako hasieran, sentitzen nuelako oso berandu hitz egin nuela, baina hitz egiteko tresnak izan nituen, nire amak sinets nezan” (16. B-I).

Halaber, sumatzen dira isilarazten diren indarkeria mota horiek, Estatu bezalako autoritateak tartean daudelako, edo giza eskubideen aurkako legeen ondorioak direlako:

- Torturak (eta beren osagai sexista) Euskal Herriko gatazka armatuaren testuinguruan. 22. B-In aipatzen da “tortura sozialki aitortzea” mina ordaintzeko elementu gisa. Aipatzen da, halaber, garrantzitsua dela *“beren esperientzia espezifikoak jasotzea, beren bizipenak, tortura eta indarkeriaz dituzten interpretazioak... Eta aitortza baterantz joatea, ez soilik Estatuaren alde-tik, baizik eta gertuagoko inguruetatik, errealitate honetatik”*.

- Errepresioa eta behartutako desplazamendua Kolonbiako gatazka armatuan (25. B-I): *“Bai, hori erreparazioa da, ni bakarra ez naizela aitortzea, emakume asko garela eta guztiok garela hain borrokalariak”*.



- Berezko abortuak izateagatik hilketaz leporatu eta espetxeratutako emakumeak, El Salvadorren. Espetxetik, 24. B-lko protagonistak honakoa dio: "Nik pentsatu dut hemendik irten eta gertatu zaidanaren inguruko testigantza ematea".

Hori beste motor bat da protagonista askorentzako: beren istorioa beste emakume batzuk laguntzeko erabili dadila. 7. B-In gatazka armatuko testuinguruan bortxatu eta haurdun gertatu zen emakume batek, abortatu ezin izan zuenak, honakoa dio:

"Horrek balio baldin bazuen beste emakume batzuek berak bizitakoa ez bizitzeko, prest zegoen gertatu zitzaionaz hitz egiteko, berari asko gustatu ez arren".

Hau da, beren istorioak kontatzea mingarria gertatu daiteke, baina baita sendagarria ere, beste emakumeentzat lagungarria gertatu delako ziurtasuna baldin badago.

Bereziki interesgarria den kasu bat 8. B-lrena da: indarkeria matxistari biziraun zion harreman baten barruan, eta literatura da adierazteko bere tresna. Istorio horretako protagonistak blog bat dauka, eta literatura-jarduera horrek bertako komunikabide batzuek elkarrizketatzea eragin du. 27. B-lko protagonistak sexu-indarkeriari biziraun zion Guatemalako gatazka armatuaren testuinguruan, baita harreman baten barneko indarkeria matxistari ere, eta *"gozatu egiten du idazten eta poesia egiten, horrek lagundu egiten baitio bere burua zaintzeko eta sendatzeko prozesuan, eta bere buruarekin zein beste emakumeekin beraurkitzeko prozesuan"*, beren txostenak diotenaren arabera. 9. B-In beste hainbeste topatu dugu: *"Maila pertsonalean, idaztea bere sentimenduak eraikitzeko modu bat da"*.

Bizitza-istorio batzuetan, urrats bat gehiago ikus daiteke: beren testigantza kontatzea sentsibilizazio espazioetan. 10. B-lko protagonista, Iranetik Estatu Espainolera jazarpen lgtbfobikoaz ihesi migratu zuen emakume lesbiana bat, *"pare bat hitzaldi eman ditu, eta hor bere bizitza-istorioa partekatzen du eta bere herrialdeko errealitatea ezagutzera ematen du, eta azaltzen du emakume eta lesbianak nola bizi diren sistematikoki beren eskubideak urratzen diren herrialde batean, antzinakoa eta biolentoa den sinesmen-sistema batzuek babestuta, askatasunak eta norberaren garapena erreprimitzu"*, txostenaren arabera. Halaber, 11. B-In, aktibista gisa ibilbide luzea duen emakume transexual bat protagonista duena, nabarmentzen da *"geratzen zaigun pedagogia-lana da errealitate hauek espazio sozioedukatiboetara eramatea, eta komunikabide zein sare sozialetan gehiago zabaltzea"*.

Gehien zabaldutako kasu batean (Nagore Laffageren hilketan), Asun Casasola amak (14. B-l) ere bere istorioa kontatzea erabakitzen du "biziraupen eta borroka estrategia gisa", eta uste du "beste neska batzuentzako balio dezakeela, gizarteak hausnartu dezan eta aldatu dadin". Komunikabideetan maiz parte hartzeaz gain, ikastetxe askotara doa Helena Tabernak egindako dokumentalarekin, material didaktiko baliotsua baita. *"Asuni laguntzen ari diren kontuak dira, eta erreparatzaileak izan daitezkeenak (adibidez, dokumentalaz gain, Asunek Mariposas de Hierro dokumentalean parte hartu zuen, eta Iruneko plataforma antisexistak haren izena daraman ipuin laburren lehiaketa bat antolatzen du)"*. Azken apunte horrekin, sumatu dezakegu bere izena daraman literatura-lehiaketa bat antolatzearen gisako aitoren sozialak daukan balioa. Asunek aipatzen du ere egiteko duela feminizidioaren biktima izandako beste amekin antolatzea, zeinak telebistako platoetan ezagutu dituen; hala nola, Marta del Castillo edo Sandra Paloren amak.

Komunikabideetan oihartzuna izateak, gainera, kaletik afektu keinuak jasotzea eragin du; areago, jende ezezagunaren babesa sentitzea eragin du, berak kontatzen duenez: *"Duela gutxi Fiteron nengoela emakume bat etorri zen eta galdetu zidan, besarkada bat eman ahal dizut?"*



Zeren nik, jarraitu egin zaitut... Eta topatu nintzen, begira, uda honetan Budapestean egon nintzen eta besarkada bat eman zidaten batzuekin egin nuen topo, eta esan zidaten, zu Nagoreren ama al zara? Ba horixe, munduak jarraitzen nauela, mundutik noa eta jendeak esaten dit, zertaz eza-gutzen zaitut? Ba, ah... Nik gizartearen aldetik babes-a sentitu dut”

4. GOMENDIOAK

4.1. Genero-ikuspegiko kazetaritza: agenda

Bizitza-istorioek komunikabideetan gutxi aztertu diren gaiak lantzen dituzte:

Indarkeriarik gabe bizitzeko eskubidea:

- Gerra testuinguruko sexu-indarkeriaren eta bake testuinguruko feminizidioen arteko lotura; gerra testuinguruan justizia eskatzen duten emakume-mugimenduen eta feminizidioen aurka mobilizatzen direnen arteko lotura. Kolonbiako bake prozesuaren harira, bestelako bake negoziazioetan (adibidez, *mararen* eta El Salvadorreko gobernuaren artean) emakumeen aurkako indarkeriari ematen zaion garrantzia.
- Desplazamendu behartua eta asilo-eskubidea, genero-indarkeria edo LGTBfobia dela eta jazartzeagatik.
- Bortxaketa zuzentzaileak lesbianeiei testuinguru geografiko guztietan (Hego Afrika eta Peruko aldizkako kasuekin lan egin da).
- Erakunde-indarkeria, genero-indarkeriagatik salaketa jarri duten emakumeekiko. Aurreiritzi matxisten pisua. Prestasun falta babes-neurriak agintzean, indarkeriaren *continuum*a ez identifikatzea.
- Erasotzaileek justizia erabiltzea birbiktimizatzeko; konkretuki, salaketa gurutzatuen estrategia.
- Erakunde-indarkeria egoera irregularrean dauden emakume immigranteekiko: indarkeria egoeran dauden emakumeei kanporatze-aginduak ematea, eta barneratze edo atxilotzen zentroetan duten egoera.
- Biziraun dutenentzako sendatze- eta ahalduentzako prozesuak. Biziraun duten emakumeen rola indarkeria-egoeran dauden beste emakumeei laguntzeko.

Abortu-eskubidea:

- Behartutako amatasuna sexu-indarkeriaren emaitza gisa (bereziki, gatazka armatuetan)
- Behartutako amatasuna erasotzaileen kontrol-estrategia gisa bikotekidearen testuinguruan.
- Abortua El Salvadorren: sekretu profesionala, zigor moralak, espetxeratutako emakumeen egoera.
- Abortuaren inguruko narrazioak ikusaraztea, ekintza askatzaile gisa, autodeterminazio gisa ¹²⁷.

127 Pikaran egin genuen hori, Gallardonek esan zuenean abortatzen duten emakumeak biktimak direla: <http://www.pikaramagazine.com/2013/12/yo-aborte-y-no-soy-victima/>



Bitzta duina izateko eskubidea:

- Ikuspegi globalak, lurraldearen defentsarako mugimenduetan emakumeek duten parte hartzea aitortzeko, eta emakume buruzagien aurkako sexu-erasoak, edo haiei buruzko estigmen konnotazio sexistak eta zigorrak aztertzeko.
- Aiten arduragabekeria emakumeen aurkako indarkeria-mota gisa.
- Emakume transexualen gizarte-bazterkeria egoera.
- Estatu espainolean prostituten gizarteratze-planen analisi kritikoa.
- Etxeko langileen egoeraren jarraipen handiagoa, haien lan-eskubideei buruzko legeak aplikatzea, eta pairatzen dute indarkeria (ugazabandreek umiliatzea, sexu-jazarpena, etab.).

4.2. Kazetariekin lan egiteko ekimenak eta proposamenak:

Azken hamarkadan biderkatu egin dira erakunde, antolakunde sozial eta kazetari taldeen ahaleginak komunikazio ez-sexista eta indarkeria matxistaren tratamendu egokia sustatzeko. Labur birpasatuko ditut Euskal Herriko eta Estatu espainoleko ekimenetako batzuk:

- Begira-ren kode deontologikoa (2016): Prozesu hori interesgarria da komunikabideetako langileek eta publizitate agentziek parte hartu dutelako kodea egiten, formakuntza- eta lan-saioen bidez beren kontzientzia lehengoratzuz. Jakin dudanez, EITB, *Argia* edo *Berria* bezalako euskal komunikabideek formazio prozesuak abiatu dituzte.
- ORIGEN behatokia (<http://observatoriorigen.org/>): Catalunya 2016an martxan jarri zen ekimen honek oharrak ematen ditu indarkeria matxistaren albisteen informazio-tratamendua aztertzeko. Tonu eraikitzaile eta erabilgarri batez egiten du, praktika onak aitortuz ikuspegi zabal eta intersektionalaz.
- 2016an kazetarien bilera bat egon zen "Indarkeria matxistaren informazio-tratamenduren erronkak" izenburupean, *La Marea* aldizkariak antolatuta. Positiboa da komunikabide bat izatea eta ez erakunde bat autoerregulazio ekimen bat zuzentzen duena, konfiantzazko espazio bat izate aldera, non fiskalizazioarekiko mesfidantzatik abiatuko ez den.

Bitzta-istorio horiek irakurtzeak sorrarazi didan hausnarketa bat da indarkeriari biziraun dioten emakumeak komunikabideen formazio eta autoerregulazio prozesuetan sartzeko aukera. Horrela, elkarrizketa aberatsa emango litzateke emakumeek beren errepresentazioaz sentitzen dutenaren inguruan, eta nola gustatuko litzaekeen errepresentatzea. 15. B-lko protagonistak kontatzen digu Bizirik-eko kideei 'biziraun duen emakume' adiera gus-tatzen zaiela, eta ez 'biktima' hitza. Uste dut bere testigantza uneko adituaren irizpideak baino gehiago hartuko lirakeela aintzat, eta, gainera, emakume horiek elkarrizketatzeko aukera pizgarria izango litzatekeela kazetariak halako formazioetara erakartzeko.

Egiteko dagoen beste gauza bat da autoerregulazioa eta hausnarketa bikotekidearen zein feminizidioaren testuinguruko indarkeria matxistatik harago eramatea. Haurren sexu-abusuaz Save de Children-en eskuliburu bat (2001) baino ez dut aurkitu, komunikabideen pape-raz hitz egiten duena; bertan, komunikabideei eskatzen zaie morboa eta sentsazionalismoa baztertzeko, erasotzaileak estigmatizatzea ekiditeko eta sinesmen faltsuak ezabatzen la-guntzeko, kontzientzia soziala sortzeko helburuarekin. Abortuaz informatzeko moduz eza-



gutzen dudan esperientzia bakarra dekalogo bat da, Argentinako Católicas por el Derecho a Decidir (Erabakitzeke Eskubidearen Aldeko Emakume Katolikoak) eta Genero Ikuspegia duten Kazetarien Nazioarteko Sareak sortua.

Gai ezberdinei heltzeaz harago, gaiok uztartzea da beste erronka bat: bizitza-istorioetan, ikus daiteke abortua edo eskubide ekonomikoak ardatz nagusi diren kasuetan indarkeria dagoela; eta, areago, amatasun behartua eta aiten arduragabekeria indarkeria motak direla.

Jarraian, interesgarri gerta daitezken beste ekimenak aipatuko ditut:

- **Kazetari eta artikulugile aliatuen agenda:** Komunikabideetako informazio-tratamenduak aztertuta, egiaztatu dut nola itxuraz aurkakoak direnetan ere (Guatemalako *La Prensa Libre* edo Euskal Herriko *El Correo*), giza eta emakumeen eskubideekin konpromisoa duten kazetariak idazten dutela. Antolakundeentzako funtsezko estrategia bat da agenda on bat eratzea eta zuzenean pertsona horiengana jotzea, prentsa-oharrak orokorki bidali orde. Ezagutza publikoko agenda baten gisa proposatu ahalko litzateke; horrek albisteak egoki kontatzen diharduten kazetarien lana aitortzeko balio du. Funtsezko aliatuak dira kazetari sareak eta genero ikuspegia duten albiste agentziak, hala nola, sare kolonbiarra, Cerigua Guatemalan, Ameco eta La Independent Estatu espainolean, edo Genero Ikuspegia duten Kazetarien Nazioarteko Sarea bera.
- **Adituen direktorioa:** Ekimenak egon badauden ere, hala nola Emakunderen emakume adituen direktorioa, uste dut onuragarria izango zela direktorio zehatzagoak egitea, gaien ardatzen arabera ordenatuak, eta ez langileen ardatzaren arabera. Komunikabideentzat onuragarria gertatuko litzateke adituen iturrien zerranda bat izatea, haiei eskatzeko indarkeria matxistaren gaineko adierazpenak, kontu eskatuena aipatzeagatik.
- **Informazio-gosariak:** Erakunde batzuek erabili duten praktika on bat —Mugarik Gabe, adibidez— komunikabideetan interes handia piztu duen albiste bat aprobetxatzea da, (zehazki bi emakumeren hilketez; Ada eta Yenny Bilbon erail zituen Juan Carlosek, modu sentsazionalistan “maisú shaolin faltua” ezizenez ezagutua) informazio-gosari batera deitzeko, prentsa ikuspuntuetan gidatzeko. Argentinan aurkitu dut txosten bat, Ikus-entzuneko Komunikazio Zerbitzuen Aginte Federalak egina, non gomendioak ematen baitira haurren aurkako sexu-abusuen berri emateko, epai bati emandako estaldura ikusitakoan. Halaber, aurkitu dut Txilen antolakunde feministek nahasi egin dutela kazetarien elkargoa, gaitzesteko La Estrella egunkariak abortatzeko eskubideari ematen dion tratamendua.¹²⁸ Gizarte-erakundeen eta kazetarien arteko batasun horiek funtsezkoak dira autoerregulazioa sustatzeko.
- **Bizitza-istorioak:** Guatemalako Emakumeen Elkarrekin Mindyrek egin zuen bezala (18. B-I), bizitza-istorio bat egitea memoriari laguntzeko modu bat da, kasu honetan feminizidioaren biktimen memoria; eta material hori baliagarri izan daiteke kazetari oharretarako edo erakundeen ekimenetarako. Berezi garrantzitsua iruditzen zait LGBTI pertsonen memoria heltzen duten bizitza-istorioak idaztea (halaxe uste dut 11. eta 12. istorioak irakurrita) baita hainbat errealiteri dagozkionak ere, presakakoa baita gizarte-aurreiritziei kontra egitea, hala nola, gizarte laguntzak izateko iruzurra. Bizitza-istorio horiek komunikabideetan argitaratu daitezke, edo bestelako euskarrietan, hala nola, erakusketetan (halaxe egin zuen Sortzen-ek “Zer dakigu haien heriotzez?” egitasmoarekin).

128 *Erredakzioa* (2015). ‘Kazetarien Elkargoak eta feministek La Estrella egunkariak abortuaz egiten duen tratamendua gaitzetsi dute’. *Nomasviolenciacontralasmujeres.cl*, abenduak 18. Hemendik jasota: <http://www.nomasviolenciacontralasmujeres.cl/colegio-de-periodistas-y-feministas-rechazan-tratamiento-del-aborto-del-diario-la-estrella/>



- **Eledun-, idazketa- eta komunikazio digitalaren tailerrak.** Txosten honen ondorioetako bat da norberaren istorioa kontatzea sendatzeko eta mina ordaintzeko modu bat izan daitekeela. Interesgarria dirudi sustatzea indarkeriatik bizirik atera diren emakumeek idazketa edo bestelako adierazpen-moduak osatzeko erabiltzea. Gainera, eguneko soldatapeko langileen egoeraren edo gizarte-laguntzen kontuetan, ikusi dugu emakumeak oso gutxitan agertzen direla komunikabideetan, gizonezkoak baitira protagonistak. Hortaz, garrantzitsua deritzogu eledun tailerrak eta jendaurrean hitz egiteko tekniken tailerrak sustatzeari, emakumeek komunikabideetan parte hartze handiagoa izan dezaten errazteko.
- **Zuzenketak eskatzea:** Kazetaritza-langileen Europar Kodeak ohartarazten du kaltetutako pertsonak eska diezaieketela komunikabideei zuzentzeko, automatikoki eta azkar, gezurrezkoak edo okerrak diren informazioak eta iritziak. Garrantzitsua da eskubide hori erabiltzea, ez uztea oharkabean birbiktimizatzen duten informazioak.
- **Praktika onen gordetegiak eta sariak:** Txosten honetan nabarmendu egin dira komunikabideetan aurkitutako praktika onak, hala nola, *El Faro*, *La Silla Vacía*, *Plaza Pública* edo *Berrian*. Nahiko nuke nabarmendu ikuspegi on edo txarrek zerikusia dutela komunikabidearen ildo editorialarekin edo idazten duen pertsonaren sentiberatasunarekin, baina baita kalitatezko kazetaritza-kultura baten sendotzearekin ere, mugatu ez dadin ohar labur eta azalekoak argitaratzera, diskurtso ofiziala modu akritikoan errepikatzen joz. Komunikabide horiei laguntzea —aipatutakoak eta beste batzuk— kazetaritza kritikoari laguntzea da, gai baitira gizarte-errealitateak ondo azaltzeko, bidegabekeriak biluzteko eta botereei presioa egiteko emakumeen eskubideak errespetatu daitezken. Ideietako batzuk dira praktika onen gordetegiak egitea, edo kazetaritza-lehiaketak deitzea (hala nola, *Colombine* Kazetaritza Saria, Almeriako Kazetarien Elkarteak urtero antolatzen duena).

5. BIBLIOGRAFIA

Liburuak:

EQUIPO DE INVESTIGACIÓN GÉNERO Y MEDIOS DE COMUNICACIÓN (2006); "Tratamiento de la violencia de género en la prensa vasca" Deustuko Unibertsitatea.

FERNÁNDEZ, June (2014); 'Sin periodismo no hay democracia' Hemendik jasota: 'Solidaridad en tiempos de crisis'. Mugarik Gabe-Icaria.

GALLEGO, Juana (2007); 'De reinas a ciudadanas', Hemendik jasota: 'Buenas prácticas periodísticas desde la perspectiva de género'. AMECO

MOYA, Isabel (2010); "Sin contraseña. Discurso mediático y transgresión". AMECO.

REQUENA AGUILAR, Ana (2013); "El periodismo con perspectiva de género: de la teoría a la práctica", hemendik jasota: 'La comunicación de género e inclusiva en tiempo de crisis'. AMECO.

ZABALA, Begoña (2008); "Movimiento de mujeres. Mujeres en movimiento". Txalaparta.

Interneten kontsultatutako txostenak, artikulak eta ponentziak:

ALVARADO VIVES, Andrea (2014): "Liberar el aborto". Pikaramagazine.com

BEGIRA BATZORDEA (2016); "Publizitate eta komunikazio ez sexistarako kode deontologikoa



eta autoerregulaziokoa". Emakunde. Hemendik jasota: http://www.emakunde.euskadi.eus/contenidos/informacion/temas_medios_intro/eu_def/adjuntos/begira.kode.deontologikoa.pdf

BONILLA VÉLEZ, Jorge Iván., TAMAYO GÓMEZ, Camilo Andrés (2013): "Medios, periodismo y conflicto armado". FNPI.

CATÓLICAS POR EL DERECHO A DECIDIR (2015); "Decálogo para el correcto tratamiento periodístico del derecho al aborto". Hemendik jasota: <https://drive.google.com/file/d/0B2fr-P4oRr8aXb0I2RW5RLWFZaGs/view>

CERIGUA (2014); "Violencia contra las mujeres, una epidemia en aumento".

CONSEJO DE EUROPA (1993); "Código Deontológico Europeo de la Profesión Periodística". Hemendik jasota: <http://www.fyl.uva.es/~wfilosof/webMarcos/Codigo%20Deontologico%20Europeo%20de%20la%20Profesion%20Periodistica.doc>

FERNÁNDEZ ARRIVAS, Javier (2011); "Cómo informar sobre la violencia contra la mujer en las relaciones de pareja". Cuadernos de Periodistas. 113. orr.

FRANCO, Natalia et. al. (2010); "Tácticas y estrategias para contar. Historias de la gente sobre conflicto y reconciliación en Colombia". C3-FES. Hemendik jasota: <http://library.fes.de/pdf-files/bueros/c3-comunicacion/07391.pdf>

GMMP (2015); '¿Quién figura en las noticias?', Monitoreo Global de Medios.

HORNO GOICOECHEA, Pepa et. al. (2001); "Abuso sexual infantil: manual de formación para profesionales". Save the children. Hemendik jasota: https://www.savethechildren.es/sites/default/files/imce/docs/manual_abuso_sexual.pdf

LÓPEZ DÍEZ, Pilar (2002); "La violencia contra las mujeres en los medios de comunicación". Hemendik jasota: 'I Foro Nacional "Mujer, violencia y medios de comunicación". Instituto de la Mujer e Instituto Oficial de Radio y Televisión (RTVE). 26. Orr.

MEDIOS PARA LA PAZ (2005); "Cubrimiento periodístico responsable del conflicto armado interno"


M EN CONFLICTO (2012); "El monstruo de las quemadillas". Pikaramagazine.com

ORIGEN (2016); "Para que lo esencial en las violencias machistas no sea invisible en la tele", pikaramagazine.com-en argitaratua.



ERANSKINA

Bizitza-istorioen
iruzkinak



BILDUTAKO 28 BIZITZA-ISTORIOEN IRUZKINAK**1. B-I: Indarkeria ekonomikoaren ardatza. Etxeko langileen lan-esplotazioa**

El Salvador

55 urteko emakumea, etxeko langilea. Lan-esplotazio baldintzetan bizi da. Lanean etengabeko bazterkeria eta mespretxua pairatu zituen, lan-ordutegi mugagabea zuen (egunean 16 ordu), bere eginkizunekin bat ez zetorren soldata zeukan, eta ez zuen inolako lan saririk edo aitortzarik jasotzen bere lanaren truke. Bat-batean kaleratu zuten, leporatuta etengabe eskatzen zituela baimenak gaixorik zegoen ama ospitalera eramateko. Langilearen irteerak justifikatuta zeudenez, dirua lapurtu ziela esan zuten enplegatzaileek. Poliziak galdekatu egin zuen susmagarri bakarria zelako, eta estutu egin zuen bere hatz markak akta batean jar zitzen, nahiz eta ez zioten akta horren edukia irakurri edo azaldu. Emakumeak ez zuen eskatutakoa inola ere egin nahi izan. Horren ondoren, kaleratu egin zuten zor zioten 15 eguneko soldata ordaindu gabe, eta bere lan-denbora eta gainerako lan-sariak onartu gabe. Egoera horren aurrean salaketa jarri zuen. Hala ere, ez zuen jaso espero zuen laguntza, estatu-erakundeek modu desegokian jardun baitzuten. Berriz ere, bere eskubideak urratu zituztela sentitu zuen, eta are babesgabeago sentitu zen; ez zekien zer egin, erakundeek esaten ziotena ez zuen ulertzen, ematen zizkieten dokumentuak ez zekien irakurtzen eta ez zuen baliabide ekonomikorik garraiorako, laguntza juridikoa ordaintzeko eta bere beharrak asetzeko. Azkenik, GKE bati eta unibertitate baten laguntza juridikoari esker, bere prozedurak aurrera egin zezan eta lan-arloko epaitegiak bidezko epaia eman zezan lortu zuen. Prozedurak 3 urte eta 8 hilabete inguru iraun zuen.

2. B-I: Indarkeria ekonomikoaren ardatza. Elikadura-pentsioa ez ordaintzea, aitaren erantzukizun falta

El Salvador

50 urteko emakumea, banandua. Ez du soldatapeko lan arauturik eta bi seme-alaba ditu. Bikotekide ohia 54 urteko gizona da, arkitektoa, bere enpresa du eta emakumearen seme-alaben aita da. Banandu zirenean amak lortu zuen haurren zaintza, eta aita ez zen haien hezkuntzaz edo mantenuaz arduratu. Hartara, amak hura salatzea erabaki zuen, aita gisa zituen erantzukizunak ez betetzeagatik. Erakundeek ez zioten erantzun baliagarririk eman. Aitzitik, emakumeak honako egoerei aurre egin zien: a) erakundeek zalantzan jarri zuten bere seme-alaben aita nor zen, errua egotzi zioten eta bere bizitza pribatua epaitu zuten, birbiktimizatuz ; b) zerbitzu publikoek ez zuten behar bezala jardun eta ez zuten egoera egoki ikertu, eta c) administrazio- eta justizia-prozedura oso burokratikoak, gogaikarria, luzea, eraginkortasun gutxikoa, eta kostu ekonomiko zein emozional handikoa izan zen. Erakundeek errepikatu zioten ezin zutela ezer egin bere bikotekide ohia mantenua ordaintzera behartzeko, nahiz eta hori agintzen duen sententzia bat dagoen.

3. B-I: Indarkeria matxisten ardatza. Indarkeria bikotekidearen aldetik

El Salvador

40 urteko emakumea, banandua. Erizaina da, lan egonkorra eta bi seme-alaba nerabe ditu. Mota askotako indarkeria pairatu du sistematikoki —bortxaketa barne— baita ezkontza baino lehenagotik ere, bere seme-alaben aita den bikotekide ohiaren aldetik; 10 urtez ezkontuta egon zen harekin. Dibortzio-epaiak ebatzi zuen seme-alabak amaren zaintza-



pean geratuko zirela, eta bikotekide ohiak haien elikadura-pentsioa ordaindu behar zuela. Gainera, ezkondu ta zeuden bitartean bizi izan ziren etxea ama eta seme-alabentzako zela ebatzi zen. Dibortzioaren ostean, bikotekide ohiak erasotzen jarraitu zuen, berarekin harremanetan jartzeko edozein modu aprobe txatzen zuen mehatxatzeko, umiliatzeko, iraintzeko, beldurtzeko, bere buruaz beste egin zezan bultzatzeko, etab. Erasotzailea erakunde askotan salatu zuen biktimak, baina ez zuen behar bezalako erantzunik jaso indarkeria geldiarazteko. Aitzitik, erakundeek birbiktimizatu egin zuten, eta buruko gaitz bat balu bezala tratatu zuten. Dibortzio-epaiaren aldaketa baten bidez, erasotzaileak amari seme-alabak eta etxea —lehenago familiaren ondasun izendatu zena— kentzea lortu zuen, eta areago, amak seme-alabei elikagai-pentsioa ordaintzea ere lortu zuen. Prozedura legal guztiaren izapidetzean, erasotzaileak biktima jazarri, heriotzaz mehatxatu eta jarraitu egin zuen. Ingaratuta eta etsita sentitzen zen, eta herrialdetik alde egin zuen. Antolakunde feminista baten laguntzaz itzuli da orain, eta seme-alaben zaintza berreskuratzeko prest dago.

4. B-I: Abortatzeagatik zigortzea. “Las 17” (17ak) taldearen kasua

El Salvador

21 urteko neska gaztea, unibertsitateko ikaslea. Gaur egun bere mutil-lagunarekin bizi da. Argi zuen ez zuela seme-alabarik izan nahi. Haurdun geratu zenean, haurdunaldia etetea erabaki zuen eskura izan zituen metodoen bidez. Ustez hilekoa zen etengabeko odol jario bat zela eta, hiriburuko osasun-etxe pribatu batera joan zen bikotekidearekin, kontsulta batera. Bertan haurdun zegoela esan zioten, eta berehala zabaldu zen alarma langileen artean, abortua eragin zuelako susmoa baitzuten. Erizainek, medikuek, eta praktiketako langileek galdekatu zuten, eta epaiketa morala egin zioten. Osasun-langileek poliziari jakinarazi zioten gertatutakoa, eta neskak bost egun eman zituen ospitaleko oheari eskuburdinez lotuta eta zaintzapean. Poliziako ofizialek “zelatatu” zuten gau eta egun. Kasuaren hasierako auzialdia 2015ean izan zen, neska artean ospitalean zegoela. Lehenengoz, bere kabuz abortatzen saiatzea egotzi zioten, eragindako abortua. Ez zuen abokatu publikorik izan, ilegala bada ere. Epailleak prozesu osoaren baliogabetasuna ebatzi zuen, baina hortik aurrera fiskaltzak epaiaren aurka gora jo zuen eta epailearen erabakia baliogabetu zen. Ondorioz, 2016an aurre auzialdi bat egin zen. Orduan, fiskaltzak prozesua publikoki egiten jarraitzeko eskaeraren aurrean, epailleak bi aukera proposatu zituen: zigorraren behin-behineko baliogabetzea, eta prozeduraren behin-behineko baliogabetzea. Abokatuak azken aukera hautatu zuen, eta epailleak hiru baldintza jarrita ebatzi zuen: bizilekua ez aldatzea, alkoholdun edaririk ez hartzea eta haurtzaindegi batean haurrak zaintzea. Gaur egun hiru aginduok betetzen ari da. Baliteke hiru urtez bete behar izatea, baina zaindutako askatasun sailaren esku dago hori. Abokatuak gogorarazten du ezarritako arauak bete ezean, zigor-arloko prozesuak aurrera jarrai dezakeela.

5. B-I: Indarkeria matxisten ardatza. Sexu-indarkeria talde antolatuen aldetik (marak)

El Salvador

27 urteko emakumea, etxeko lan ez-ordainduan aritzen da, lau seme-alaba ditu eta bikotekidea du gaur egun. Amak txikitan abandonatu zuen, eta 12 urte zituela ahizpa nagusiak eskola eta aitaren etxea utz zituan estutu zuen etengabe. Ahizpak bere semea zaintzera behartu zuen, etengabe jo eta mespretxatzen zuen, eta bakartu egin zuen, ihes egiteko zeukan aukera oro deuseztatuta. Halaber, ahizpak taberna batean lan egitera eraman zuen; ezin zen



tabernatik atera eta han irabazitakoa beraren eta ahizparen artean banatzen zen. Tabernan bortxaketa-saiakera pairatu zuen. 13 urte zituela, tabernatik ihes egiten lagundu zion mutil gazte bat ezagutu zuen, eta honek aitaren etxera eraman zuen berriro. Aitaren etxean ez zen aitak ez ahizpak babestuta sentitzen. 14 urterekin bikotekidea ezagutu zuen eta haurdun geratu zen. Bere kideak arazoak zituen alkoholarekin, eta haurdunaldiaren ondorioz egoerak okerrera jo zuen: indarkeria eguneroko kontu bihurtu zen. Ia abortua eragin zion jipoi baten ostean ospitaleratu zuten. Denboraldi batez aitaren etxera itzuli zen, eta bere bizitza jarraitzen saiatu zen. Beste bikotekide bat izan zuen, baina azken hau oso gizon posesiboa eta jeloskorra zen. Hortaz, harremana etetea eta aitaren etxera itzultzea erabaki zuen. Beste harreman bat hasi zuen jarraian, eta bikotekide ohia bikotekide berria hiltzen saiatu zen, tokiko talde antolatua kontratatuta. Bikotekide berriak arazoak zituen alkoholarekin; gizona mozkortzen zen bakoitzean, biktima haren bila joaten zen, eta horrek gizona eta bere lagunak haserretzen zituen. Guztien aurrean tratu txarrak ematen zizkion eta iraintzen zuen, kanean zein etxean. Behin, biktimari ohartarazi zioten bila joango zitzaizkiola gau hartan, bikotekidearentzat ez zuela ezer balio eta berarekin nahi zutena egin zezaketela. Biktimak ozta-ozta izan zuen denbora seme-alabak babesteko, auzokide batekin utzita, baina ezin izan zuen ihes egin. Talde antolatuetako gizonak eta bikotekidearen lagunek bortxatu zuten, bizi ziren komunitate berekoek, bikotekideak eta auzokide batzuek horren berri izan arren. Auzokide baten bitartekaritzari esker soilik lortu zuen bizirik ateratzea. Bortxaketaren ostean, aitaren etxera itzuli zen bolada baterako. Komunitatean ia jende guztiak zeukan gertatutakoaren berri, eta neskari leporatu zioten errua, egoera hori berak eragin zuelakoan. Gainera, handik 3 hilabetera, haurdun zegoela jakin zuen. Depresioak jo zuen. Ezin izan du salaketarik egin; hala egiten badu bera hil dezakete, edota seme-alabei kalte egin. Indarkeria etengabekoa da haren bizitzan, bikotekideak edaten eta talde antolatuetatik hurbil egoten jarraitzen du.

6. B-I: Indarkeria ekonomikoaren ardatza. Etxeko esklabotasuna

Kolonbia

84 urteko emakumea, mestizoa, ezkongabea, ez du seme-alabarik. Etxeko langile aritu zen oso gaztetatik (16 urte inguru zituenetik) Bogotan. 70eko urteetan Medellinera joan zen orduko familia enplegatzailearekin, barneko etxeko langile hasi zen. Eginbeharrak beste bi emakumerekin batera banatzen zituen. Oso goiz jaikitzen zen, goizeko 4:00ak edo 5:00ak inguruan, eta 17 orduko lanaldiak zituen. 70eko urteen bukaeran bera bakarrik geratu zen eginbehar guztien ardurapean. Harrezkero, ez zuen soldatarik jaso eta ez zeukan Gizarte Segurantzari. Konfinamenduko lan-egoera zuen; ez zioten familiarekin harremanetan jartzen uzten. Bere lan-bizitza ez zen amaitu jubilazio-eskubidea lortzeagatik, baizik eta lana etetea gomendatu ziotelako gaixotasun bat diagnostikatu ostean.

7. B-I: Abortatzeagatik zigortzea. Eragile armatuen sexu-indarkeriaren ondorioz haurdun gertatutako emakumea; ez diote abortatzen uzten

Kolonbia

Emakume gaztea. 16 urterekin bi gizon armatuk bortxatu zuten. Ondorioz, haurdun geratu zen, eta ez zuen arreta egokirik jaso haurdunaldia eteteko asmoa adierazi zezan ere. Bortxaketaz eta haurdunaldiaz gain, bizileku zuen herritik joan behar izan zuen, gertatutakoa salatzen saiatzeagatik mehatxatuta zegoelako. Bortxatua izan, bizilekuz aldatu eta semea



jaio ostean, inposatutako amatasuna onartu behar izan zuen; ez bere aurkako bortizkeria-rengatik soilik, ezpada erakundeen jarrera okerrarengatik ere. Horri ere gehitu behar zaizkio amaren balioak eta erlijio-sinesmenak. Bere ama zen haurdunaldia eteteko baimena eman zezakeen bakarra, baina ez zuen egin.

8. B-I: Indarkeria ekonomikoaren ardatza. Ondare-indarkeria bikotekidearen aldetik, indarkeria matxistaren adierazpide askorekin

Kolonbia

55 urteko emakumea, banandua. Bost seme eta bi alaba ditu. Medellingo 8. komunakoa da. Txikitatik abusuak eta tratu txarrak pairatu zituen, sexu-abusuak barne, familiakoen eta ezezagunen aldetik. Artean ikaslea zela, bere lehen senarra ezagutu zuen. Berehala geratu zen haurdun, eta eskola utzi behar izan zuen. Ezkondu eta hiru urtera, senarra talde armatu batean sartu zen, eta neska bigarren aldiz geratu zen haurdun. Bere semearen aurrean armekin egindako mehatxuengatik, eta senarrarekin egoteak sorrarazten zion etengabeko arriskuagatik, senarra abandonatzea erabaki zuen. Hark, ordea, emaztearen bitzta kontrolatzen zuen talde armatuko beste kide baten bidez mehatxatu egiten zuen. Mehatxu eta umilazio egoera eten egin zen senarra hil zutenean. Bigarren senarra izango zena eliza ebanjeliko batean ezagutu zuen, bertan artzain jarduten zuena. Berarekin ezkondu zen, seme-alabek alboan gizon bat, aita bat, izan zezaten. Gainera, senarrak konbentzitu zuen samur jokotuta eta printzipio erlijiosoetan oinarritutako aginpidea baliatuta. Ezkondu ondoren egin zuen lehen gauza emaztearen eta haren seme-alaben iraganeko gauza garrantzitsuak erretzea izan zen (liburuak, argazkiak, musika), haien altzari guztiak saldu zituen, lurrean lo egiten utzi eta giltzaperatu zituen. Handik hiru urtera 4 seme-alaba zituzten (senarrak ez zuen antisorgailurik erabiltzea onartzen, "seme-alabak jainkoaren bedeinkapena direlako"). Familiaren egoera gero eta prekarioagoa zen, emazteak gordetako zenbait gauza saldu behar izan zituen eta senarraren amaren etxera joan ziren bizitzera; bertan areagotu zen indarkeria. Senarraren diru sarrerak ez ziren nahikoa. Familiak, umilazioez gain, gosea ere pasa zuen. Emakumeak jostun lana bilatzea erabaki zuen, eta 6 seme-alaben eta gizonaren mantenuaren erantzukizuna bere gain hartu zuen; bitartean, senarra etxean geratzen zen eta seme-alabei tratu txarrak ematen zizkien, baita emazteari ere etxeratzen zenean. Indarkeria hori modu askotan gauzatzen zuen: gorputza (ez zien inoiz aurpegian jotzen) ubeltzerainoko kolpeak, itxialdiak, oihuak, irainak, familia eta lagunengandik aldentzea, eta mania-aldiak, zeintzuetan ez zien hiru egunez lo egiten uzten, familiari buruzko erlijio-doktrinaren sermoia eman bitartean. Kongregazioaren aurrean gizon perfektuaren irudiari eusteko, biktimaren beraren, seme-alaben eta amaginarrebaren isiltasunak hori gerta zedin lagundu zuen. Gehiegikeria bortitzen beldur ziren, eta senarrak emaztea konbentzitu zuen bere egitekoa, aita zen aldetik, familiako ordena eustea zela esanez. Soldata guztia kentzen zion. Halaber, emakumearen lehen senarra hiltzean jasotako etxea saldu zuen senarrak, eta diruaren zati bat gastatu zuen baimenik gabe. Sexu-indarkeria baliatu zuen haren aurka. Azken semea bortxaketa horietako baten ondorioz jaio zen. Senarrak gainerakoak konbentzitzea lortzen zuen, indarkeria haien errua zela esanez, haiek bultzatzen zutelara, barkamena eskatzea lortzeraino. Denbora, dirua, zer eta norekin egiten zuten, eta abar kontrolatzen zuen, erreprimenez eta giltzaperatuz. Emakumeak dirua etxera eramaten zuen baina senarrak dena kentzen zion, eta ez zuen ezer uzten hark arropa edota higiene produktuak erosteko; ez zion uzten nahi zuen ezer erosten. Diru guztia zenbatzen zuen eta, zerbait falta bazen, zigortzen zuen. Obedientziaren premisapean 21 urtez sufritu zuten, bai emakumeak, baita seme-alabek ere.



9. B-I: Indarkeria matxisten ardatza. Indarkeria fisikoa, psikologikoa eta sexuala hainbat bikote-harremanetan.

Kolonia

20 urteko gaztea, umetatik indarkeria bizi izan du, familia barneko kontuetatik hasita. 14 urterekin, eskolatik etxera bidean, hiru gizonek bortxatu zuten. Horrek ondorio asko izan zituen haren bizitzan, depresioak jo zuen eta bere burua zauritzen hasi zen. Tratu txarren eta erasoen eskema hori errepikatu egin da izan dituen gainerako bikote harremanetan, bere bizitza afektibo eta emozionalaren elementu gisa. Bere lehen harremanean eraso fisiko, psikologiko eta sexualak pairatu zituen. Bigarren harremanean abortatzera behartu zuten, engainu bidez, eta bere adostasunik gabe, bikotekidearen laguna zen farmazialari batek eman zion txerto baten bidez. Eragindako abortu horrek amorr-, erresumin-, min- eta depresio-aldiak ekarri zizkion, baita autoestimua galtzea ere. Alkohola hartzen hasi zen egunero eta bere burua zaintzeari utzi zion guztiz. Bakarrik pasatutako urte baten ondoren, harreman bat hasi zuen bere semearen aita izango zenarekin. Emakumea haurdun zegoela jakin zuenean, gizonak ez zuen bere aitatasuna onartu eta abandonatu egin zuen. Geroago, harremana hasi zuen egungo bikotekidearekin. Azken honen aldetik ere tratu txar fisikoak, hitzezkoak eta psikologikoak pairatu ditu. Emakumearentzat, erasorik bortitza eta larriena, bere borondatearen aurka abortatzen behartzea izan zen.

10. B-I: Indarkeria matxisten ardatza. Ablazioa, bahiketa eta sexu-indarkeria, sexu-orientazioagatiko jazarpena

Espainiako Estatu

Sudanetik datorren 24 urteko lesbiana gaztea. Txikitan ablazioa egin zieten berari eta ahizpari. Familia musulman praktikatzaile zorrotz batetik dator. Bere hiritik ihes egin zuen sexu-orientazioagatik eta familiaren balio erlijiosoekin bat ez zetorrelako. Ihes egin aurretik, bere osabaren sexu-abusua pairatu zuen. Halaber, osabak hiru urtez giltzapetu zuen berorik jantzi nahi ez zuelako. Hiritik irteterakoan Sudango hiriburura joan zen, eta bertan Hollandako aireportura eraman zuen norbait ezagutu zuen. Urtebetez bizi izan zen han, polizia atxilotu eta Madrilera bidali zuten arte; bertan asiloa eskatu zuen sexu-orientazioagatik. Valentziako Errefuxiatuen Arreta Zentrora bidali zuten, eta ondoren emakume etorkinentzako babes-etxe batera joan zen. Babes-etxetik irtetea lortu zuen Cuencan barne-langile aritzeko lanpostua topatu zuenean, adineko pertsona bat zaintzeko. Maiz joaten da Gurutze Gorrira —bertan bere egoeraren jarraipena egiten dute—, eta baita lesbiana, gay, transexual eta bisexualen Lambda kolektibora ere.

11. B-I: Indarkeria matxisten ardatza. Indarkeria fisikoa, soziala eta ekonomikoa emakume transexualen aurka

Espainiako Estatu

Emakume transexuala, sexu-langilea eta seropositiboa. Hori dela eta, indarkeria fisiko, sozial eta ekonomikoak pairatu zituen. Valentzian bizi zen haurtzarotik. Nerabezaroan etxetik joan zen bizitza independentea bizitzeko, familiaren etxean ezin zuelako bere sexu-nortasuna garatu. Ahal izan zuen moduan biziraun zuen: zailtasun ekonomiko handiekin, okupatutako etxeetan bizitzen eta ikuskizunetan zein prostituzioan lan egiten, 70eko urteen bukaeran —orduan hartu zuen GIBa— eta 80ko eta 90eko urteetan. 90eko urteetatik LGTBI mugimenduan aktiboki parte hartu zuen; trans eskubideen aldeko aktibista bihurtu zen.



Prostituzioa utzi zuen duela urte batzuk, eta sexu-langileen eskubideen defendatzaile izan zen. Bere sexu-nortasuna zela eta, indarkeria fisiko, sozial zein ekonomikoak pairatu zituen diktadura frankistan eta trantsizioan —bi garaiotan transexualitatearen bazterkeria eta estigmatizazioa handiagoak ziren—, hil zen arte; inoiz ez zizkioten bere eskubideak aitortu. Urte honen hasieran hil zen.

12. B-I: Indarkeria ekonomikoaren ardatza. Indarkeria ekonomikoa emakume nekazarien aurka

Espainiako Estatu

“Cabras Montesas” (basahuntzak) taldeko emakumea; Landako Langileen Sindikatuaren (SOC) inguruan antolatutako Jaengo emakume talde bat. 1979an Andaluziako emakume jurnalariak lan komunitariorako eskubidearen alde borrokatu ziren. Nahiz eta emakume jurnalariak gizonezkoen baldintza berberak bete, ez zuten lan komunitariorako eskubiderik, emakume izateagatik. Emakume jurnalari talde honek erabaki zuen inposatutako mugak haustea, eta eskubide osoko langile gisa aitortzen edo errespetatzen ez zituzten espazio batean geratzea. Estatuaren indarkeria ekonomiko horri gehitu behar zaio nagusien indarkeria psikologikoa (irainak, botere-abusua eta lan gogorragoak inposatzea) langileak kikiltzeko metodo gisa. Ahalegin handiaz eta ekinaren ekinez, emakumeek beren eskubideak lortu zituzten.

13. B-I: Indarkeria matxisten ardatza. Indarkeria ekonomikoa eta sexuala, babes falta etorkin izateagatik

Espainiako Estatu

52 urteko emakumea, jatorriz errusiarra. Hiri bateko jatetxe batean lana topatu zuen, sukaldari-laguntzaile. Jatetxearen jabeak langile guztiak legez kanpoko egoeran zituen. Emakumeari 300 euro ordaintzen zizkion hilero, egunero 10 orduz lan egiteagatik, atsedeen-egunik gabe. Gainera, jabeak sexu-harremanak izan nahi zituen emakumearekin, hark beti ezetz esan arren. Lan-esplotazio eta sexu-jazarpen egoera gorabehera, bi urte inguru eman zuen bertan lanean, jabeak haren egoera erregularizatuko zuela hitzeman baitzion. Agindutako kontratua eta erregularizazioa betetzen ez zirenez, 2010ean jatetxean egindako lan-ikuskapen batean bere egoera salatu zuen. Poliziek kontaktu hori baliatu zuten kanporatze-espeditente bat irekitzeko; pasaporteak kendu zioten, eta fotokopia bat eman. Jatorrizko dokumentua ez zuenez, ezin izan zuen berriro, eta 2012an iraungi zen. Zigor-prozedura horren ondorioz, indarrean dagoen kanporatze-agindua dauka 2010eko uztailetik. 2013ko martxoko gau batean, auto batetik jaitsi ziren bi gizonek eraso zioten; pistola eskuan, gertuko mendi batera igotzera behartu zuten. Bertan, mehatxu egin zioten arropa kendu ezean hilko zutela esanez. Biluzik zegoela, pistolarekin apuntatzen jarraitu zuten, aurpegian jo eta lurrera bota zuten. Linterna batekin begietan fokatu eta itsututa, landare-fruituak, zuhaixketako pinaburuak, sartu zizkioten baginan. Erasoaren ostean, bi gizonek ihes egin zuten eta emakumea lurrean geratu zen, biluzik, nahasita eta itsututa. Bikotekideari deitu zion, eta hark ambulantiari eta poliziarri deitu zien. Ospitalean, larrialdietako eta psikiatriako langileen aldetik arreta egokia jaso zuela sentitu zuen, haiei kontaktu baitzuen gertatutakoa. Aitzitik, Guardia Zibilaren jarrera traumatikoa izan zen emakumearentzat. Poliziak sendaketa-gela guztietan sartu ziren; baita baginan sartu ziotena kentzeko gelan ere, eta argazkiak atera zituzten. Ez zioten emakumeari inoiz deitu sexu-eraso baten biktima gisa epailearen aurrean agertzeko. Aitzitik, aste batzuk geroago, Guardia Zibila haren bila joan zen eta komisaldegira eraman



zuten. Bertan argazkiak egin eta hatz-markak hartu zizkieten. Bere aurkako zigor-eskaria abiaraziko zutela esan zioten, sexu-erasoa “paperak” lortzeko asmatzeagatik. Ziegan egon zen, eta geroago Madrilera eraman zuten, Atzerritarrak Barneratzeko Zentro (CIE) batera.

14. B-I: Indarkeria matxisten ardatza. Feminizidioa

Euskal Herria

2008ko uztailaren 7ko goizaldean, San Fermin jaietan, Nagore Laffagek kalean topo egin zuen Jose Diego Yllaneseekin. Ikustez ezagutzen zuten elkar, azken hau psikiatriako mediku egoiliarra zelako Nagorek erizaintzako praktikak egiten zituen klinikan. Mutilaren etxera heldu zirenean Nagorek alde egin nahi izan zuen, baina mutilak ez zion irteten utzi. Nagore basatiki jipoitu zuen. Ia indarrik gabe, telefonoa hartu eta larrialdietara deitu zuen laguntza eske. Larrialdi zerbitzukoek ez zuten haren ahotsa entzun. Inork ezin izan zion lagundu, eta bahitzaileak ito egin zuen azkenik. Yllanesek erailketaren aztarnak ezabatzea erabaki zuen: gorpua bere autoaren maletategian sartu eta mendian ezkutatu zuen. Gorpua ordu gutxiren buruan aurkitu zuen emakume batek, txakurrak paseatzen ari zela. Yllanes herri-epaimahai batek epaitu zuen. Akusatzaile guztiek, fiskala buru zutela, 20 urteko espetxe-zigorra eskatzen zuten Yllanesentzat erailketa delituagatik. Aldiz, abokatuak lortu zuen epaimahaiak ondorioztatzea ez zela maltzurkeriarik egon. Guztiak harritu zituen erabakia hartu zuen epaimahaiak, eta abokatuaren argumentuak kontuan hartuta, Yllanes giza hilketagatik zigortu zuen, erailketagatik zigortu ordez. Zigortuak jarrera ona baldin badu, urte gutxi barru espetxetik irteteko baimenak izango ditu. Kasu honek arrakalak ireki ditu hainbat frontetan. Batetik, Nagoreren familiak borrokan jarraitzen du justizia lortzeko, Nagoreren hilketa erailketatzat hartuko duen epaia lortzeko. Bestetik, eztabaidagai da justiziaren alorrean herri epaimahaia egokia ote den; izan ere, halako epaimahaietako kideek ez dakite ezer —edo oso gutxi dakite— zuzenbidez.

15. B-I: Indarkeria matxisten ardatza. Indarkeria bikotekidearen aldetik

Euskal Herria

Bikotekidearen aldetik (orain bikotekide ohia) indarkeria pairatu zuen emakumea. Bikotekide ohia bere seme-alaben aita da, eta 20 urte inguruko harremana izan zuten. Mota askotako indarkeria pairatu zuen (fisikoa, psikologikoa, sexuala, ekonomikoa ...). Erdi-esklabotasun egoeran egon zen denbora luzez; gizarte bazterkeria jasan zuen eta ez zuen babes-sarerik. Kasu honetan salaketa gurutzatua egon zen, hau da, legez banantzeko prozesua hasita zegoela, erasotzaileak emakumea salatu zuen bera erasotzeagatik. Ondorioz, emakumeak etxean atxilotuta eman zituen egun batzuk. Harrezkero 12 urte pasa dira, eta emakumeak indarra agertzen duen arren, hainbeste denbora iraun zuen indarkeriak eragin txar asko utzi dizkio.

16. B-I: Indarkeria matxisten ardatza. Sexu-indarkeria, etengabeko indarkeriaren tesuinguruan

Guatemala

23 urteko emakumea. Gaur egun genero-programaren arduraduna da gizon-emakume-entzako formakuntza feminista eskaintzen duen eskola batean. Bere eskolan garbitzaile lan egiten zuen bere amak ere; 7 urterekin eskola horretako zuzendariak sexu-abusuak egin eta bortxatu zuen. Orduan ez zuen ezer esan. 11 urte geroago kontatu zuen ordea, gizon be-



rak bere ahizpa bortxatu zuela jakin zuenean. Bortxaketen ondorioz, ahizpa haurdun geratu zen. Salaketa egitea erabaki zuten biek, baina protagonistak ezin izan zuten delituak preskribatu zelako. Erasotzaileak ihes egin zuen bere aurka zigor-arloko prozedura hasi zenean. Ahizpak abortatzea pentsatu zuten, baina ez zuten aukerarik izan. Izan ere, Guatemalan abortua debekatuta dago, edozein eratan dela ere. Ahizpa haurraz erditu zen.

17. B-I: Indarkeria ekonomikoaren ardatza. Multinazionalen aurkako jarreragatik jazartzea
Guatemala

55 urteko emakumea, ezkondua. Alaba bat dauka. Bere herriko jendeak urteak daramatza enpresa hidroelektriko baten instalazioaren aurka daudelako entzun ditzaten saiatzen. 2006an komunitate-galdeketa bat egin zuten; gehiengoak esan zuen ez zuela erauzte-proiekturik nahi. Emakumea herri-eskaera horren bozeramalea zen, eta ondorioz, Fiskaltzak atzemate-agindua eman zuen haren aurka, herriko alkate ohiak egin zuen salaketa baten ondorioz. Fiskaltzak zigor-arloko prozedura faltsua abiatu du bere aurka; eta bi agintari antzestral espetxean daude. Eskualdean beldurtzeko praktikak dira nagusi, multinazionalen aurkako gizarte-antolakuntza mugatu nahian. Egoeraren ondorioz beldur handiarekin bizi da, edozein unetan atxilotu dezaketelako.

18. B-I: Indarkeria matxisten ardatza. Feminizidioa bikotekide ohiaren aldetik
Guatemala

Mindy Rodas 23 urte zituela erail zuten. Gaur egun, oraindik ez da gertatutakoagatik justiziarik egin. Mindy bikotekide ohi salatu zuen, Eswin Esteban Lopez Bran, etengabe erasotzen zituelako. Lopez Bran beste emakume batekin joan zen. Behin, Mindy engainatu eta ibai batera eraman zuen; bertan sastakatu eta aurpegia desitxuratu zion. Mindy ospitalean egon zen hiru hilabetez, zauriak sendatu bitartean. Erasotzailea espetxean egon zen, baina azkenean epaileak zauriak "arinak" zirela ebatzi zuen. Ondorioz, Mindyren bikotekide ohiak bermepeko askatasuna lortu zuen. Mindy Mexikora joan zen, aurpegia berregin ziezaioten. Ondoren, Guatemalara itzuli zen. Denbora igarota, desagertu egin zen. Ama bila ibili zen, eta hiriburuko gorputegi batean aurkitu zuen. Hildako beste emakume baten ondoan aurkitu zuten. Mindyren amak alabari gertatutakoagatik justizia egitea espero du. Mindy Rodasen kasua herrialde osoan egin ezagutu zen, eta gertaera hutsaz harago iritsi zen. Hala ere, Guatemalako Estatua ez zen Mindy babesteko gai izan.

19. B-I: Indarkeria matxisten ardatza. Indarkeria bikotekidearen aldetik, erakunde-indarkeria genero indarkeriaren biktimentzat DSBEa kudeatzean-
Euskal Herria

Urte askotako harreman batean etengabeko indarkeria jasan duen emakumea. Lehenengo salaketa 1987an egin zuen. 2009an beste eraso bat salatu zuen. Horren ondorioz, bederatzi urteko urruntze-agindu bat ezarri zen, eta babes-neurriak zehaztu ziren. Geroago, bikotea elkarrekin bizi izan zen berrito. 2014an beste indarkeria-gertakari bat egon zen, bikotearen semea tarteko. Emakumeak salatu egin zuen, baina falta-epaiketan salatua absolbitu zuten. Emakumeak dibortzio izapideak hastea erabaki zuen, eta Lanbidera jo zuen DSBEa eskatze-ra. Medikuen eta gizarte langilearen txostenak aurkeztu zituen arren, urruntze-agindurik aurkeztu ez zuenez, Lanbidek ez zuen genero-indarkeriaren biktimentzat jo. Gainera, DSBEa sei hilabetez ukatu zitoten. Lanbidekoen arabera, senarrarengandik bananduta urtebete bete



ez zuenez, ez zen bizikidetzako unitatetzat hartzen, eta laguntza jasotzeko baldintzetako bat zen hori. Lanbideko bulegoko zuzendariarekin bildu zen auzia konpontzeko, eta gizarte zerbitzuetara ere deitu zuen. Azkenik, egoera publikoki salatu zen Barakaldoko Berri Otxoa plataformaren bidez. Salaketa horren bitartez, laguntza jasotzeko eskubidea aitortu zitzaion, nahiz eta ez zizkioten ordaindu izapideak hasi zirenetik zor zizkioten hilabete guztiak. Lanbideko barne-arauen arabera, emakume bat genero-indarkeriaren biktimatzat hartuko da soilik indarrean dagoen urruntze-agindua daukanean. Lanbideren irizpide eta praktikak Genero Indarkeriaren Legeak ezarritakoaren aurka daude. Batetik, ez ditu kontuan hartzen salaketak, eta mediku edo gizarte zerbitzuen txostenak. Bestetik, laguntzak ez dira bide azkarretik bideratzen, genero-indarkeriaren Legeak agindu bezala, baizik eta modu arruntean, horrek dakarren kaltearekin. Gaur egun, antza, Lanbideren irizpideak berrikuste prozesuan daude.

20. B-I: Abortazeagatik zigortzea. 'Morín' kasuan (abortatzeko klinikak) inplikaturako emakumea

Euskal Herria

Garai hartan Euskal Herriko herri batean bizi zen emakumea. 2006an, 26 urte zituela, haurdunaldia borondatez eten zuen Morin doktorearen klinikan, Bartzelonan. 2007an Morinen aurkako zigor-arloko prozedura hasi zen; legez kanpoko abortuak egitea leporatu zioten. Urte hartan Guardia Zibilaren zitazio bat jaso zuen, lekukotza eman zezan. Ondoren, Euskal Herrira joan zen bizitzera. 2012an Bartzelonako epaitegi bateko beste zitazio bat jaso zuen, Morinen aurkako zigor-arloko prozeduran epailearen aurrean ager zedin. Horrek asko beldurtu zuen, eta abortu eskubidearen aldeko asanbladako abokatu batekin jarri zen harremanetan; abokatuak alderdi legalarekin lagundu zion. Bideo konferentzia bidez deklaratzan utzi zioten. 2013an Morin absolbitu zutela jakin zuen. Ondorioz, auzia bukatu zela ulertu zuen. Aitzitik, Auzitegi Gorenak epaiketa errepikatzeko agindu zuen, froga bat kontuan hartu ez zelako. 2015ean berriro deitu zuten, epaitegira joan zedin. Prozedura bera errepikatu zuen eta abortu eskubidearen aldeko asanbladarekin harremanetan jarri zen. Horrela, 2016an (abortatu eta 10 urte geroago) berriro eman behar izan du lekukotza bigarren epaiketan ere, bideo konferentzia bidez. Abokatua saiatu zen ekiditen Morinen kliniketan abortatu zuten ia ehun emakumeek berriz ere deklaratu zezaten, haien lehenengo deklarazioak balio zuela argudiatuta. Fiskaltzak, ordea, ez zuen hori onartu.

21. B-I: Indarkeria matxisten ardatza. Nazioarteko instantzia batek (CEDAW) Espainiako Estatu genero-indarkeriagatik zigortu duen lehenengo kasua

Espainiako Estatu

Genero-indarkeria bikotekidearen testuinguruan. Bikotekide ohiak bikotearen 7 urteko alaba erailtzea. Kasu honen ondorioz, 2014an CEDAWren batzordeak lehen zigorra ezarri zion Espainiari genero-indarkeriagatik. Haren arabera, eskatzailearen eta alabaren (eraila) eskubideak urratu ziren, Espainiako Estatuaren jarreraren ondorioz. Zigorarren bidez hainbat aholku egin zitzaizkion Estatuari. Estatuak ez ditu aholkuok bete, lotesleak ez direla argudiatuta.

22. B-I: Indarkeria ekonomikoaren ardatza. Lan-indarkeria etxeko langilearen aurka

Euskal Herria

Emakume atzerritarra, etxeko langile kontrataduna. Hasiera batean haur bat zainduko zuela uste zuen, baina azkenean etxeko lan guztiak egiten bukatu zuen. Haurdun geratu zen, eta



ondorioz osasun-arazoak izan zituen arren, bere nagusiak lan egitera behartu zuen. Erditu baino hilabete lehenago, ohiko medikuak eta emaginak zuzenean hala aholkatuta, gaixotasun-baimena hartu zuen. Nagusia ez zen harekin harremanetan jarri, ez erditu zenean ezta ondoren ere. Amatasun-baimena bukatu zenean, nagusiarekin harremanetan jartzen saiatu zen berriz ere lanean hasteko. Une horretan, polizia jakinarazi zion nagusiak lana bertan behera utzi izanagatik salatu zuela. Lanik gabe geratu zenez, Lanbidera jo zuen laguntza eske. Lanbiden jakinarazi zioten nagusiak gizarte-segurantza ordaindu zuela, eta hortaz ez zioten laguntza bideratu. Erditu aurretik bere senarrarengandik banandu zen, baina erditu baino hilabete bat lehenago berriz ere elkartu ziren, bientzat oso prekariora zen egoeran. Gizarte langilearen laguntzarekin, bere kasua emakumeentzako Argitan aholku etxera bideratu zen; elkarte hori lehenbiziko adiskidetze-egintzara joan zen. Han, enplegatzaileak argudiatu zuen akats bat egon zela, eta gizarte-segurantza ordaintzen jarraitu zuela ohartu gabe. Atzeraeragina duen borondatezko kaleratzea proposatzen du nagusiak, hau da, kaleratzea amatasun-baimenaren aurretik ezartzea. Nagusiak haren aurka jarritako salaketarekin batera, Lanbidek ondorioztatu zuen arau-hauste bat egin zuela emakumea laguntza jasotzen saiatu zelako oraindik Gizarte Segurantzaz zegoenean. Ondorioz, Lanbidek urtebetez diru laguntzarik jaso gabe zigortu zuen. Epaietara jotzea erabaki zuen, baina epaiketa baino lehen enplegatzaileak kaleratzea sinatzea onartu zuen, Argitanekin batera defendatutako baldintzetan. Lanbidera doa berriz ere; oraingoan, Lanbidek jarrera zuzendu eta dagozkion atzerapenak ordaintzen dizkio emakumeari. Kasua konpondu arte urtebete eman zuen diru laguntzarik jaso gabe. Epe horretan Lanbidek ez zuen zuhurtasun-printzipioaren araberako jarrerarik agertu, ezta pertsona guztien eskubideak eta gutxieneko baldintzak bermatzeko jarrera ere.

23. B-I: Indarkeria matxisten ardatza. Tortura sexista estatu-indarkeriaren testuinguruan
Euskal Herria

36 pertsonarekin batera, gazte antolakunde baten aurkako sarekadan atxilotutako emakumea. Hiru egunez inkomunikatuta egon zen: galdeketa egin zizkieten bi funtzionarioen torturak salatu zituen. Inkomunikazioaren ostean urtebetez egon zen behin-behineko espetxealdian. Hori bukatutakoan, askatasuna lortu zuen, bermea ordaindu eta gero. Tortura-salaketa artxibatu egin zuten. Epaiketa egin ostean absolbitu zuten, sarekada horietan atxilotutako pertsona gehienak bezala. Gaur egun militante izaten jarraitzen du, eta bere aurkako prozedura bat indarrean dago terrorismoa goraipatzeagatik. Kasuari estatu-indarkeriaren ikuspegitik heldu zaio (kasu honetan, inkomunikazioa bera eta behin-behineko espetxealdia estatu-indarkeria gauzatzeko mekanismotzat jotzen dira). Hain zuzen, inkomunikazioan eta espetxealdian pairatutako tortura eta tratua aztertu dira, eta baita horrek hainbat mailatan izandako eragina ere.

24. B-I: Abortatzeagatik zigortzea. Abortatzeagatik espetxeratutako emakumea
El Salvador

22 urteko emakumea. Lau urte daramatza espetxean. 30 urteko espetxe zigorra dauka, hilke-
ta leporatuta. Haurdunaldiaren bederatzigarren hilabetean etxean bakarrik zegoen, etxeko
lanak egiten eta harrikoa egiten. Lurra bustita zegoen eta xaboi hondarrak zituen; irristatu
eta lurrera erori zen. Konortea galdu zuen. Amak aurkitu zuen eta ospitalera eraman zuen.
Kolpeak abortua eragin zion. Bere onera itzuli zenean, ez zen gertatutakoaz gogoratzen.
Osasun-langileek bere egoera larria zela esan zioten; bi legratu eta odol-transfusioak egin



zizkieten, odola galdu zuelako. Ez zekien zer gertatu zitzaion haurrari. Ospitaleko medikuek salatu zuten abortatzeagatik, eta ospitaleko ohera lotu zuten eskuburdinekin. Ikerketa bereziki gogorra izan zen, bereziki ankerra emakumeari errua egoztean. Garrantzitsua izan zen familiak jaioberria amarengana ez eramatea. Horren ordez, hilda ikusi zutenean, etxe ondoko patioan ehorztea erabaki zuten. Jaioberriaren autopsiaren arabera, ama erortzean garezur-haustura izan zuen. Emakumeari errua egozteko argudioen artean, haurraren aita nor zen zalantzan jarri zuten. Azkenik, 30 urteko espetxe-zigorra ezarri zioten. Familiak epaiaren aurka gora jo zuen, baina zigor-arloko kamerak epaia berretsi zuen, eta kasazio-errekurtsoaren aurrean, Justizia Auzitegi Goreneko zigor-arloko salak zigorra berretsi zuen.

25. B-I: Indarkeria matxisten ardatza. Indarkeria psikologikoa eta tortura

Kolonia

51 urteko emakumea. Estatuak polizia eta armadaren bidez *Orion* operazioa abiarazi zuen unean, Medellingo 13. komunako liderra zen. Bahitu egin zuten emakume eta gizon birekin batera, eta lursail batean izan zituzten egun batzuetan. Bertan emakumea torturatu eta bortxatu zuten, eta beste bi pertsonak bere aurrean erail zituzten. Emakumea bizirik atera zen. Geroago, erailtzen saiatu ziren. Auzotik alde egin behar izan zuen, etengabeko jazarpena eta beldurra zirela eta. Ospitale psikiatriko batean sartu zuten urtebetez. Horren ostean, asko kostatu zitzaion kalera berriz ateratzea eta bere hirira itzultzea, eta ezin izan du 13. komunara itzuli. Emakume elkarte batean sartzea erabaki zuen; orduan hasi zen indarberritzen.

26. B-I: Indarkeria matxisten ardatza. Sexu-indarkeria gatazka armatuko testuinguruan

Kolonia

Emakumea, 33 urte, beltza. 1997an, 11 urterekin, bere bizilekutik gertu zeuden FARCeکو soldaduek bortxatu zuten. Ama hil zuten alabari gertatutakoa salatu zuenean; amaren lehengusu bat ere hil, eta neba bat zauritu zuten. Bortxaketaren ondorioz haurdun geratu zen, eta bortxatu zuten gizonak fisikoki eraso zioten. Jipoiaren ondorioz, berezko abortu bat izan zuen. Ordutik jazarri dute, eta bizilekuz aldatu behar izan du maiz horregatik. Bere lurraldean estimu handitan duten liderra delako ere jazartzen dute, nahiz eta orain ezin duen bertan bizi.

27. B-I: Indarkeria matxisten ardatza. Sexu-indarkeria gatazka armatuaren testuinguruan

Guatemala

56 urteko emakumea. Ezkonduta dago eta bost seme-alaba ditu. Hainbat lanpostu izan ditu (animaliak zaintzen, taloak egiten, etab.). Gerra garaian, 22 urte zituela, armadakoak haren etxera joan ziren gauz eta bere aitari gerrillaria izatea leporatu zioten. Hori baino lehen, aitak etxetik ihes egitea lortu zuen. Soldadu batek emakumea bortxatu zuen. Bortxatu bitartean, eskuak lotu zizkion eta jo egin zuen; kolpeen ondorioz ez du ondo entzuten. Indarkeriaren eraginak oso gogorrak izan ziren, fisikoak, emozionalak zein psikologikoak. Hasieran, soilik amak jakin zuen bortxatu zutela, bortxatu zutenean alboan zegoelako. Aitari askoz geroago kontatu zioten. Izan ere, sentitzen zuen lotsak, beldurrak eta konfiantza faltak ez zioten kontatzen uzten. Bortxatu ostean, komunitatetik ihes egin zuen eta hirira joan zen aukera bila, bortxaketaren ondorioz haurdun geratu zela jakin gabe. Beldurra, lotsa, bakardadea, lana bilatzea... Oso zaila egin zitzaion garai hori. Semea jaio ondoren duintasunez



bizitza ahalbidetu zion enplegu bat aurkitu zuen. Komunitatetik kanpo egon zen urte luzez. Berarekin bizi nahi zuen gizon bat ezagutu zuen. Harekin itzuli zen komunitatera, eta lau alaba izan zituzten. Urte batzuen buruan, senarra mozkortzen hasi zen alkoholiko bihurtu arte, eta emaztea erasotzen hasi zen. Denborarekin, emazteak erasoak salatzea lortu zuen. Indarkeria fisikoaz gain, indarkeria ekonomikoa ere pairatu zuen, nahiz eta agerikoa ez izan. Azkenik, epaiak bere familiarentzako elikagai-pentsioa ezarri zuen.

28. B-I: Indarkeria ekonomikoaren ardatza. Lekualdatze behartua, presa baten erai-kuntzarengatik

Espainiako Estatuak

Emakumea, 65 urte, ile-apaintzailea. Kasu honek hainbat emakumeri eragin zien. Frankismo garaian, XX. mendearen erdialdean, Aragoi Garaiko Janovas herrian lurren desjabetzearekin zioten, presa bat eraikitzeko. Iberduero (gaur egungo Endesa) zen kontzesiodun enpresa. Kalkuluen arabera, 300 familiak bizilekuz aldatu behar izan zuten derrigor, eta Iberduerok etxeak dinamitaz lehertarazi zituen inor itzuli ez zedin. Bi familiak iraun zuten, biek ala biek emakume bana zuten buru, zein baino zein adoretsuagoak; hogeitau urte baino gehiago iraun zuten bertan, enpresaren estortsio eta sabotajeei aurre egiten. Azkenean indarrez kanporatu zituzten. Urteak pasa ziren, eta ez zuten urtegia eraiki. Desjabetzearen eta derrigorrezko lekualdatzearen eragina oso ezberdina izan zen emakumeentzat. Alde batetik, lurren jabe izateko edo lurrak oinordetzeko eskubidea ez zitzaien aitortzen, eta hortaz, haien egoera ikusezina zen eta arrisku handiagoa zuten enpresaren eta estatuaren beraren indarkeriari aurre egitean. Bestalde, Janovaseko emakumeak baserritarrek ziren, jatorri apalekoak eta hezkuntza-maila baxukoak. Hartara, bizileku berrietara egokitzeko prozesuan hiri handien gogortasunari aurre egin behar izan zioten, eta soldata baxuko etxe lanetan aritu ziren, kasurik onenetan.



